


Euskal Autonomia Erkidegoa
MEMORIA
Sozioekonomikoa 2013



Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea





I KAPITULUA

EAE-N JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIBABIDEAK

1

1. GIZA BALIABIDEAK EAE-N	2
1.1. DEMOGRAFIA ETA INMIGRAZIOA	2
1.1.1. 2026ko proiektzio demografikoak: emaitza nagusiak	3
1.1.2. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera	4
1.1.3. Inmigrazioa EAEn	12
1.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA SUSTAPENA	18
1.2.1. Unibertsitatekoa ez den irakaskuntza	18
1.2.2. Unibertsitateko irakaskuntzak	22
1.2.3. Hezkuntza adierazleak	24
2. EGITURA PRODUKTIBOA ETA BERRIKUNTZA EAE-N	40
2.1. EGITURA PRODUKTIBOA	40
2.1.1. Enpresa egitura eta demografia	40
2.1.2. Nekazaritza eta arrantza	45
2.1.3. Industria	48
2.1.4. Eraikuntza	53
2.1.5. Zerbitzuak	54
2.2. I+G+B+JARDUERAK ETA IKT-AK	60
2.2.1. I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak	60
2.2.2. Europako Berrikuntza Adierazleen Panel, IUS 2013	63
2.2.3. ZTESko Teknologi Elkartegien I+G jarduerak	65
2.2.4. I+G+b jarduerak enpresaren sektorean	66
2.2.5. Unibertsitateetako ikerkuntza. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea	71
2.2.6. IKT ekipamenduak eta erabilerak EAEn	71
2.2.7. Merkataritza elektronikoa EAEn. Familiak eta erabiltzaileak	78

3. EAE-KO NATUR INGURUAREN EGOERA 81

3.1.	AIREAREN KALITATEA	81
3.2.	KLIMAREN ALDAKETA NEGUTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURIAK (NEG)	82
3.3.	UR-MASEN KALITATEA	84
3.3.1.	Lur gaineko ur-masak	84
3.3.2.	Lur azpiko ur-masak	86
3.3.3.	Bainurako uren kalitatea	86
3.4.	NATUR BALIABIDEN KONTSUMOA. UR GAZTAKO BALIABIDEAK	87
3.5.	HONDAKINEN SORKUNTZA. HIRI HONDAKINAK ETA INDUSTRI HONDAKINAK	89
3.6.	MANUFATURAKO ENPRESA ETA INGURUMENA	91

4. PRODUKZIOAREN AZPIEGITURAK 92

4.1.	GARRAIOA	92
4.2.	ENERGIA: EKOIZPENA ETA KONTSUMOA	95

**II KAPITULUA
EAE-KO EKONOMIA****97****1. KANPOKO EKONOMI INGURUA 98**

1.1.	FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK	98
1.2.	EKONOMIAREN BILAKAERA GUNEEN ARABERA	99
1.3.	EUROPAR BATASUNA. EUROAREN EREMUA	103
1.4.	ESPAINIAKO EKONOMIA	106
1.5.	AUTONOMIA ERKIDEGOAK	109

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA 111

2.1.	BILAKAERA OROKORRA	111
2.2.	BARNEKO ESKARIA	113
2.3.	KANPOKO ESKARIA	114

2.4.	ATZERRIKO INBERTSIOA	116
3.	PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK	123
3.1.	KONTSUMO ONDASUN ETA ZERBITUZEN PREZIOAK	123
3.2.	KOSTUAK	124
3.3.	ERRENTAK	129
4.	SEKTORE PUBLIKOA	132
4.1	SARRERAK	132
4.2	GASTUAK	135
4.3	AURREKONTUKO SALDOA	137
4.4	SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA	138
4.5	ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK	139
5.	EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN KONTUAK	142
6.	LAN-MERKATUA	145
6.1.	JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA	146
6.1.1.	Jarduera eta okupazioa	146
6.1.2.	Langabezia	149
6.2.	KONTRATAZIOEN ETAIRAIZPENEN BILAKAERA	152
6.2.1.	Kontratazioaren egoera	152
6.2.2.	Banakako eta taldeko irazpenen bilakaera	154
6.3.	LAN-OSASUNA	156
6.4.	LAN HARREMANAK	158
6.4.1.	Lan gatazka	158
6.4.2.	Negoiazio kolektiboa: soldaten igoera eta lanaldia	159
6.5.	SOLDATAK EAE-N	160
6.5.1.	2011ko soldata-egiturari buruzko inkestaren emaitzak	160
6.5.2.	Lan-kostuari buruzko urteko inkesta 2012aren emaitzak	162

6.6.	ENPLEGU POLITIKAK	163
6.6.1.	Enplegu politika aktiboak	163
6.6.2.	Enplegu politika pasiboak	167

III KAPITULUAK

BIZITZA-KALITATEA EAE-N **171**

1. FAMILIAK ETA LANA, NORBERAREN BIZITZA ETA FAMILIA BATERATZEA **172**

1.1.	LANA, NORBERAREN BIZITZA ETA FAMILIA BATERATU BEHARRA	172
1.2.	FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKA PUBLIKOAK	177

2. BIZI-BALDINTZAK **179**

2.1.	EAE-KO BIZI-BALDINTZAK	181
------	------------------------	-----

2.1.1.	2012ko Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren emaitzak eta 2013ko Aurrerapena	181
2.1.2.	Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta 2012: gizarte talderik kaltetuenak.	184
2.1.3.	Kasu zehatza: Euskadiko haurren pobrezia	189

2.2.	EZINDUEN BIZI-BALDINTZAK	192
------	--------------------------	-----

2.2.1.	Zifra nagusiak	192
2.2.2.	Lan-merkatua	195
2.2.3.	Etxebizitza eta irisgarritasuna	199
2.2.4.	Bizi-baldintzak eta gizarteratzea	200
2.2.5.	Gizarte babesa eta arreta	202

3. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA **207**

3.1.	OSASUNAREN EGOERA	207
------	-------------------	-----

3.1.1.	Bizi-itxaropena	207
3.1.2.	Hilkortasuna	208
3.1.3.	Ospitaleko erikortasuna	210

3.2.	FAKTORE ERABAKIGARRI EZ MEDIKOAK: ALKOHOL ETA TABAKO KONTSU.	213
------	--	-----

3.3.	OSASUN SISTEMA ETA PRESTAZIOAK	216
------	--------------------------------	-----

3.3.1.	Sarrera	216
--------	---------	-----

3.3.2.	Egitura, baliabideak eta osasun-laguntzako jarduera	217
3.4.	OSASUN SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAZIOA	223
3.4.1.	Osasun Sailaren gastua	223
3.4.2.	Gastua osasunean	223
3.4.3.	Laguntza-jarduerako gastuak	223

4. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA **227**

4.1.	LURZORUA ETA PRODUKZIO KOSTUAK	227
4.1.1.	Lurzorua EAEn	227
4.1.2.	Eraikuntza kostuen estatistika	229
4.2.	ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA	230
4.2.1.	Salgai dauden etxebizitzaren eskaintza eta prezioak	231
4.2.2.	Alokairu araubidea	232
4.2.3.	Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera	233
4.2.4.	Eraikuntza eta etxebizitza jarduera	234
4.3.	ETXEBIZITZA ESKARIA	236
4.3.1.	Etxebizitzaren beharra eta eskaria	236
4.3.2.	Familien finantza-ahalegina	236
4.3.3.	ETXEBIDEn erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskaria	237
4.4.	HIGIEN JARDUERA: ETXEBIZITZAREN SALEROSKETA	239
4.5.	ETXEBIZITZA HUTSA EAE-N. 2013KO DATUAK.	239
4.6.	ETXEBIZITZA POLITIKA	241
4.6.1.	Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika	241
4.6.2.	Foru Aldundietako etxebizitza politika	245

5. AISIALDIA ETA KULTURA **246**

5.1.	POPULAZIOAREN OHITURAK	246
5.1.1.	Hedabideen eragina	246
5.2.	KULTUR ETA AISIALDI ESKAINTZA EAE-N	247
5.2.1.	Bisitarien bertaratzea kultura ekipamenduetara	247
5.2.2.	Biltzar eta azoka jarduera	248

5.3.	ARGITALPEN-PRODUKZIOA	249
5.4.	FINANTZAZIOA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN	251
5.5.	FAMILIEN GASTUA KULTURAREN KONTSUMOAN	523

IV KAPITULUA

GIZARTE BABESA EAE-N

255

1. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N 257

1.1.	GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA	257
1.2.	MENDEKATASUNAREN ARRETA	259

2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK 261

2.1.	G. SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK TRANSFERITU GABEKO KUDEAKETAREKIN	261
2.2.	TRANSFERITU KUDEAKETA DUTEN G. SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK: ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKOAK EZ DIREN PRESTAZIOAK	263
2.2.1.	Gizarte Segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak	264
2.2.2.	Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioak	264
2.2.3.	MGL prestazioak	265

3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURIAK EAE-N 265

3.1.	DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN PRESTAZIOAK	266
3.1.1.	Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta	266
3.1.2.	Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria	268
3.1.3.	Gizarte Larrialdiko laguntzak	269
3.2.	GIZARTERATZEA LAGUNTZEKO PROGRAMAK	270
3.2.1.	Gizarte esku-hartzearen esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak.	270
3.2.2.	Laneratze enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak	270

4. GIZARTE AURREIKUSPENEN SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N 27

4.1.	MAGNITUDE NAGUSIAK	272
4.2.	ARAUBIDE FISKALA	273

V KAPITULUAK ARAUGINTZA EAE-N

274

ACTIVIDAD NORMATIVA

275

VI KAPITULUA LABURPENA ETA GOGOETAK

278

1. ERREFERENTZIA-ADIERAZLEETAKO SINTESIS-A

279

2. LABURPENA

283

2.1.	DEMOGRAFIA ETA INMIGRAZIOA	283
2.2.	HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA PROMOZIOA	284
2.3.	I+G+B+IKT JARDUERAK	287
2.4.	NATURA-INGURUNEAREN EGOERA	28
2.5.	EAE-REN EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPO TESTUINGURUA	290
2.6.	SEKTOTRE PUBLIKOA	295
2.7.	LAN-MERKATUA	296
2.8.	FAMILIA ETA LANEKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEKO ARAZOAK	299
2.9.	BIZI-BALDINTZAK EAE-N	300
2.10.	OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA	304
2.11.	HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	306
2.12.	GIZARTE BABESA	307

3. GOGOETAK

311

3.1.	DEMOGRAFIA ETA INMIGRAZIOA	311
3.2.	HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA PROMOZIOA	312
3.3.	I+G+B+IKT JARDUERAK	314
3.4.	NATURA –INGURUNEAREN EGOERA	315

3.5.	EAE-REN EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPO TESTUINGURUA	316
3.6.	SEKTORE PUBLIKOA	319
3.7.	LAN-MERKATUA	320
3.8.	FAMILIAK ETA LANEKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEKO ARAZOAK	322
3.9.	BIZI-BALDINTZAK EAE-N	323
3.10.	OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA	324
3.11.	HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	326
3.12.	GIZARTE BABESA	327





TRANTSIZIO URTEA

Batzordearen osoko bilkurak, ekainaren 30ean, 2013ko Memoria Sozioekonomikoa onetsi zuen, EGABen Arautegian ezarritako epeen barruan, eta dagoeneko Eusko Jaurlaritzaren, Eusko Legebiltzarraren eta gizartearen esku dago, EGABek 2013ko ezaugarri ekonomikoen eta sozialen nondik norakoei buruz duen ikuspuntuaren berri izan dadin. Lan handiko hileak izan dira, azaroan Batzordeak Memoriaren egitura eta berau egiteko egutegiak finkatzeko hasitako aurretiazko lanetatik. Etabaidatzeko eta elkar ulertzeko hileak ere izan dira, berez kontu handiz jorratu beharreko gai komunetan jarrera komunak lortzeko. Izan ere, krisiak zaildu egin ditu gai horiek, eta horretarako, Batzordeko kideek etabaida irekia izan behar dute, non entzutea baita osagai nagusia.

Hortaz, Memoriaren Batzordea osatzen duten pertsoneri eskerrak eman nahi dizkiet hitzaurre honetan, Memoria egiteko pisua eraman baitute eurekin. Inmaculada Gallastegui presidenteari eta Batzordeko kide guztiei; Antxon Tomasena, Eduardo Garcia, Maribel Ballesteros, Raul Arza, Eduardo Arechaga, Jaime Fernandez, Carlos Pereda, Mikel Ruiz, Pedro Martinez de Alegri, Javier Muñecas, Xabier Iraola, Aitor Bengoetxea, Ignacio Barrenetxea, Felicísimo Ayastuy eta Carlos Trevilla jaun-andreei. Eta azkenik, baina ez horregatik garrantzi txikiagoa dutelako, Arantza Unzurrunzaga eta Leire Ozerin gure azterlan eta proiektuen arduradunei, Memoria idazteko ardura nagusia izan dutelako eta lanak koordinatzeko erraztasunak eman dituztelako beren esperientziari eta jakintzari esker.

EGABk, Memoriaren bidez, azterketarako tresna baliotsua eta baliagarria ematen jarraitzen du, zeren eta euskal gizartearen ekonomi eta gizarte bizitzaren erradiografia egiten baitu ekitaldiko datu erkatuak oinarri hartuta, gogoetak desbidera litzaketen unean uneko premietatik urrun. Gainera, uste dut, egun bizi izaten ari garen krisi sakon honetan, bereziki garrantzitsuak direla Lan-merkatuari, Bizi-baldintzei eta Gizarte Babesari buruzko kapituluak; izan ere, zenbait pertsona izaten ari diren zailtasunak eta egoera horiek leuntzen saiatzeko abian jarritako neurriak islatzen dituzte.

Erakunde aholku-emaile honetan dauden erakundeen adostasuna eta jarrera komuna lortzeko ahalegina islatzen dira txosten hau egiteko prozesuan, hau da, gizarte zibil antolatuko ordezkarien eta ekonomi eta gizarte eragileen adostasuna. EAEko egoera sozioekonomikoaren gaineko baterako gogoeta eta diagnostiko partekatu horiek are gehiago izan behar dira aintzat kasu askotan kontrako interesak dituzten erakundeetakoak direlako eta, beraz, gatazkan sar daitezke, are gehiago krisi ekonomiko larriaren ondorioz bizi izaten ari garen zailtasunen garaian. Horrexegatik, eskerrik onenak eman nahi dizkiet hori guztia ahalbidetu duten batzordekide guztiei, elkarrizketarako eta adostasuna lortzeko aurretiazko jarreraren alde egin baitute.

2013ko ekonomiaren bilakaerarekin hasita, dagoeneko trantsizio garaian gaudela pentsa genezake. Nahiz eta urtea positibotzat ezin jo daitekeen, finantzen gaineko ezegonkortasunak badirau oraindik ahula den susperraldian. Esan beharra dago ia hiruhilekoetako erregistro guztietan aldakuntza negatiboak murrizteko profila izan dela, eta 2014ko epealdian, berriz, hazkunde positiboan murgildu gara, oraindik txikia bada ere. Eta halaxe gertatu da eremu geografiko guztietan. Erortzeari utzi eta altxatzen hasiak gara.

Hala berresten du Europako nahiz Espainiako eta EAEko 2014ko lehen hiruhilekoaren BPGd-aren urte arteko aldaketak.

EAEren bilakaera ardatz hartuta, esan behar da sei urtean jasandako bigarren atzeralditik irten garela, baina BPGd-ak berriz ere egin du behera, %1,2 hain zuzen. Hala ere, aldakuntza negatiboak pixkanaka murrizte horrek isla izan du manufaktura-industriaren bilakaeran; izan ere, gero eta txikiagoa izan du jaitsieraren malda hiruhilekoz hiruhileko, eta laugarren hiruhilekoan posizio neutroan dago. Azkenik, 2014ko lehen hiruhilekoan, bilakaera positiboa da, txikia bada ere.

2013ko bilakaera horretan, hazkunde positiboei eutsi die esportazioen sektoreak, eta horri esker, beste behin izan du ekarpen positiboa kanpoko eskariak BPGd-aren hazkunderan. Ildo positibo beretik doa inbertsioaren bilakaera ere (eraikuntza alde batera utzita); manufaktura-industriaren pareko bilakaera izan du.

Eraikuntzaren bilakaera, ordea, negatiboa da oraindik ere (%5 jaitsi da), baina, beherazko aldakuntzak ageri dira hiruhilekoen bilakaeran. Nolanahi ere, ezin esan daiteke susperraldian gaudenik harik eta eraikuntza obren tipologia aldatzen ez den artean, non 10 lizentzietatik 8 eraikuntzak zaharbertzetezko diren.

Enpleguaren bilakaerari dagokionez, gogoeta hauek egin daitezke. Beharbada garrantzitsuena langabezi tasa da: urtearen amaieran %15,3 (BJAren arabera), 2000tik izan den handiena, hots, guztira 165.600 langabetu dira inkesta horren arabera. Alabaina, agerrarazi beharra dago langabeziaren igoera hori gertatu dela, neurri handi batean, populazio aktiboaren bilakaeragatik: lan-merkatuan duen partaidetza %1,7 hazi da urteko batez bestekoan. Nabarmentzekoa da ere okupazioaren igoera 2012 eta 2013 bitartean %3,2 izan dela (-%4,6 aurreko epealdian), eta 28.500 lanpostu gehiago izan dira. Behin-behinekotasun maila handia izaten jarraitzen dugu, %21,7, noiz-eta Europako batez bestekoa %13,8 denean.

Enpleguaren egoera da oraindik ere dugun arazorik handiena, baina populazio aktiboaren gehikuntzak eta lana dutenen igoerak aldaketa positiboa islatzen dute 2012aren aldean.

Langabeziaren babesaren bilakaerak, beharbada, egoera hobe erlatiboa ere islatzen du, zeren eta onuradunen batez besteko kopurua %1,6 hazi baita. Aurreko ekitaldian, berriz, %7,7 igo zen.

Baina, jakina denez, denbora mugak ditu langabeziaren babes sistemak. Muga horietatik aurrera, estaldura dute pertsonak gizarte babesaren sistemari. Sistema hori "sarrerak bermatzeko euskal sistemari" zehazten da Euskal Autonomia Erkidegoan. %8,3 egin du gora errenta hori jasotzen duten familien kopuruak, abenduan 62.817 hain zuzen ere. Guztizko 359,1 milioiko gastua, berriz, %4,5 hazi da. Gauzak beti hobetu daitezkeen arren, gizarte babes sistema sendoa dugula esan dezakegu. Erreferentzia izan bedi EAEk horretarako duen gastua: Estatu osoko %40,2 da, eta horrek isla du pobrezia-egoera aipatzean. Izan ere, pobrezia-egoeraren atalasearen azpitik bizi da EAE biztanleen %17,3, Europakoaren ildo beretik eta oso urruti Estatuko %28ko ratiotik. Edonola ere, datu kezagarria da. EAEko familien batez besteko errentak %2,7 egin du behera, eta horrek berekin dakartza euskal familien bizi-baldintza txarragoak. Baina gizarte maila guztietan berdintsu gertatzen ez denez gero, pobrezia metatzen ari da, eta ohikoa bihurtu da Europan. Ildo horretan, haurren eta gazteen pobreziaz ohartarazi beharra dago beharbada. Europako etorkizuneko

gizartearen berdintasuna eta kohesioa jar ditzake arriskuan, baita produktibitatea ere. Hori dela-eta, haurren pobrezia da Batasunaren lehentasunetako bat.

Baina aurreko lerroalde horietan aipaturiko arazorako konponbidearen ardatza Europan hazkunde maila egokia berreskuratzea da. Ekonomia suspertzeko hartu beharreko politika ekonomiko eta fiskaleko neurriei kalterik egin gabe, I+G+b-ren eta Hezkuntzaren palanketan datza Europa epe ertainean eta luzean lehiakorra izateko apustua. Horrexegatik dira horiek jorratu beharreko azken bi eremuak.

I+G+b-ri dagokionez, nahiz eta BPGd-aren gaineko gastuaren ikuspegitik EAEn ratioa euro gunean ikusitakotik oso hurbil egon (EAEn %2,12 eta %2,17 euro gunean), patenteen eta erabiltzeko ereduaren gaineko gastu hori gauzatzean, herrialde liderretakoak baino 5 aldiz txikiagoa da kopurua. Horrek agerian uzten du arlo horretan ahalegin handiak egin behar direla.


Esan liteke EAeko hezkuntza sistemak zenbait indargune nagusi dituela, eta aldi berean hobekuntzak behar ditu beste batzuetan.

Unibertsitatekoa ez den araubide orokorreko irakaskuntzaren esparruan, EBko helburuen parean gaude, bai “eskola behar baino lehen uztean”, bai “gazteen prestakuntza mailan”. Hala ere, gure “egokitasun tasak” agerian uzten du tasa hobetzeko ezintasuna izan dela azken 10 urtean eta, beraz, sistema nolabait eraginkorra ez dela.

PISA proben emaitzez ari garela, esan dezakegu ELGAko herrialdeen parean edo hobeto gaudela. Baina Espainiako Estatuko autonomia erkidegoekin erkaketa hurbilagoa eginez gero, zenbait arlotan ez gaude EAek beste arlo askotan duen maila gorenarekin.


Gizartean kezka pizten duten alderdiak aipatu nahi izan ditut hitzurre honetan, baita krisiaren ondorengo susperraldian etorriko diren beste batzuk ere, EAE hedatzeko garrantzitsuak izango direnak. Baina EAeko ekonomia eta gizarte bizitzak, gainera, interes eta garrantzizko beste ezaugarri asko ditu zalantzarik gabe, eta halaxe aurkituko du irakurleak memoriaren egituraren bidez.

Honako memoria hau argitaratuta bete egin dugu gure betebeharra: EGABk EAeko egoera ekonomikoari eta sozialari buruz eginiko gogoetak eskaintzea Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari. Uste sendoa dut baliagarria izango dela herritarrentzat, profesionalentzat, ekonomia eta gizarte eragileentzat eta arduradun politikoenentzat ere. Horiek guztiek hartu behar dute parte euskal gizartearen etorkizunean, eta haien eguneroko lana lagungarria izango da gizarte bidezkoagoa eta zuzenagoa lortzeko.



I KAPITULUA

EAEn jarduera ekonomikoa garatzeko baliabideak



1. GIZA BALIABIDEAK EAE-N:

1.1. DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA

Nazio Batuen erakundeak eskura dauzkan azken datuek diotenez, munduan 7.000 milioi biztanle bizi dira (2012an). Bestalde, EUROSTATEN zenbatespenen arabera, Europar Batasunean 505,7 milioi biztanle daude, 2013ko urtarrileko datuen arabera, hain zuzen 2011ko urtarrilean baino 1,2 milioi gehiago. Milako 2,4ko hazkunde horri esker -milako 2,7koa izan zen aurreko urtean-, beste urte batez eutsi ahal izan zaio 1960tik gertatu izan den etengabeko hazkunderako joerari, egungo Batasunaren populazioa 400 milioi biztanlekoa zenetik. Beste urte batez, bilakaera positiboa immigrazioaren portaerari zor zaio, aldaketa osoaren %20 baino ezin baitzaio egotzi berezko hazkunderari (jaiotzen eta

heriotzen arteko alde positiboa).

Geroko bilakaerari dagokionez, Eurostaten


I.1.1. KOADROA. EAE-KO POPULAZIOAREN BILAKAERA BERRIA. 2008-2013.							
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Ald. 12-13
ARABA	309.635	313.819	317.352	319.227	322.557	321.417	-1.140
BIZKAIA	1.146.421	1.152.658	1.153.724	1.155.772	1.158.439	1.156.447	-1.992
GIPUZKOA	701.056	705.698	707.263	709.607	712.097	713.818	+1.721
EAE	2.157.112	2.172.175	2.178.339	2.184.606	2.193.093	2.191.682	-1.411

Iturria: INE. Biztanleen Udal Errolda.

aurreikuspenen arabera, hazi egingo da EBko populazioa, 2040an 526 milioi biztanle izan arte. Jaiotzen urteko kopuruak behera egingo du epealdi osoan; heriotzenak, berriz, gora egingo du, “baby boom”-eko belaunaldien zahartzearen ondorioz. Aurreikuspen demografiko horien arabera, biztanleria Batasuneko 27 herrialdeetako 14tan handitu egingo da eta gainbehera demografikoak bereziki eragingo die ekialdeko herrialdeei emigrazioagatik eta jaiotze-tasa txikiagatik.

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak¹ emandako azken datuen arabera (2013ko urtarrilekoa), EAEko populazioak 2000an hasitako joera positiboa hautsi du, eta biztanle gutxiago ditu. Zehazki, populazioa 2013an 2.191.682 biztanlekoa da (%-0,06, 2012koarekiko), hots, 1.411 gutxiago aurreko urtean baino. Lurrealde Historikoei dagozkien datuek islatzen dutenez, Gipuzkoan baino ez da hazi populazioa (1.721 biztanle, %+0,24), eta gutxi egin da Araban, %0,35 (-1.140 biztanle) eta gutxiago Bizkaian (%-0,17, bestela esanda, 1.992 biztanle gutxiago guztira).

I.1.1. GRAFIKOA. EAE-KO BIZTANLERIAREN BANAKETA, ADINEN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA. 2013.



Kopuru horiekin batera, gainera, EAEn erroldaturiko atzerritarren %6,8ko pisua dugu (eta %7,6 atzerrian jaiotakoak kontuan hartuz gero, hots, nazionalizaturikoak barne); 2012ko urtarrilaren 1ean, berriz, %6,9 zen. Epealdi berean, proportzio handiagoan egin du behera atzerritarren populazioak Estatuan (%12,1etik %11,7ra), baina EAEko datua orain

¹ Biztanleen Udal Erroldako zifrak ez dira zorrozki konparagarriak Populazioaren eta Etxebizitzaren Zentsukoekin, metodologia ezberdina erabiltzen baita. Udal Errolda administrazio erregistroa da, eta Espainian dauden 8.000 udaletako guztiei dagokie hura mantentzea, eratzeta eta kudeatzea. Udal Erroldako datuak udal-mugartean bizi izateari buruzko frogak dira, eta haren egiaztagiria dokumentu publikoa eta sinesgarria da administrazio ondorio guztietarako. Hala ere, Populazioaren Zentsua estatistika da, eta Estatistika Institutu Nazionalari dagokio hura eratzeta. Estatistika sekretuaren itzalpean biltzen dira datuak, Erroldan ez bezala: ezinbestekoa da pertsonak identifikatzea Erroldan.

ere oso urruti dago Espainiako batez bestekotik -errola azkenengoz eguneratu zenean, 5 milioi atzerritar ziren, eta 6 milioi herrialdetik kanpora jaiotakoak kontuan hartzen baditugu- eta, batez ere, beste erkidegoetako batzuen aldean hala nola Balearrak, Valentziako Erkidegoa edo Madril, non atzerritarren portzentajea nabarmen den.

1.1.1. 2026ko proiektzio demografikoak: emaitza nagusiak

Eustatek 2026. urterako eta EAerako eginiko aurreikuspen demografiko berrietan, datozen urteetako populazioaren zenbatespena ageri da, baita populazio horretan eragiten duen aldagai bakoitza ere, betiere heriotza-tasaren, ugalkortasunaren eta migrazioen joera berrien azterketa oinarri hartuta eta epealdi horretarako bilakaerari buruzko hipotesiak eginda. Hona hemen ikerketa horren emaitza nagusiak:

a) *Euskadiko populazioan 100.000 lagun gutxiago izango dira.* EAEk 2.077.000 biztanle izango ditu 2026ko urtarrilaren 1ean, Udal Erroldan 2013an erregistraturikoak baino 115.000 lagun gutxiago, hots, urteko batez besteko %-0,3ko aldaketa. Jaitsiera erritmorik handienak hamarkada honetako azken urteetan gertatuko dira; izan ere, urteko %-0,44ko tasak izango dira, eta ondoren moteldu egingo da epealdiaren azken aldirian %-0,28koa izan arte. Hiru lurraldeetan izango da jaitsiera, baina neurri ezberdinean: Arabak 6.000 biztanle baino pixka bat gehiago galduko ditu, eta Gipuzkoako biztanleriaren jaitsiera 31.000 lagunengatik ingurukoa izango da eta Bizkaian, berriz, 65.000. Diferentzia horiek luzatu egingo lukete azken bosturtekoetan izandako joera: Arabak gero eta pisu demografiko handiagoa du pixkanaka EAeko biztanleria osoan, Bizkaikoari tokia kenduta. 2026rako eginiko aurreikuspenen arabera, populazioaren %15,1 Araban biziko da (2001ean baino %1,5 gehiago); %52,3 Bizkaian (%1,5 gutxiago) eta %32,6 Gipuzkoan (eutsi egiten dio guztizko biztanleriaren aldean).

I.1.2. KOADROA. EAE-KO POPULAZIOAREN AURREIKUSPENAK URTARRILAREN 1EAN, ADIN-TALDEEN ARABERA (MILAKOETAN), 2013KO DATUAK OINARRI HARTUTA

	2013KO DATUAK	2014	2016	2018	2020	2022	2024	2026
< 15	303,1	304,4	305,3	302,8	295,8	287,5	276,6	265,7
16-25	181,2	177,6	175,8	176,6	181,3	187,3	194,5	200,7
26-35	277,4	260,8	233,0	210,5	193,9	182,8	177,6	178,7
36-45	362,3	359,6	349,5	331,4	308,0	280,6	254,1	232,45
46-55	341,9	340,3	339,6	341,7	340,7	341,5	339,6	331,3
56-65	282,5	283,0	292,1	300,0	309,5	315,6	317,1	316,9
66-75	211,4	218,7	231,2	241,3	245,5	249,9	256,3	265,0
76-85	167,8	163,6	159,6	156,3	160,2	167,2	180,0	191,2
>85	65,0	67,5	74,9	82,4	88,8	93,8	94,2	95,1
GUZT.	2.191,7	2.175,5	2.161,0	2.142,7	2.123,7	2.106,2	2.090,0	2.077,0

Iturria: EUSTATen, 2026ko Proiektzio demografikoen eta INEren datuekin landutakoa, 2013ko Udal Errolda.


Zenbatespenen arabera, hazkunde demografikoaren bi osagaiek, berezko hazkundeak eta migrazio mugimenduen saldo negatiboak izango dituzte epealdi horretan. Berezkoak (jaiotzak ken heriotzak) gero eta saldo negatiboagoak ditu, heriotzen igoeratik eta jaiotzen beherakada handiagatik. Migrazio-saldoari dagokionez, -50.000 biztanlekoa izango da zenbatespenen arabera, berezko jaitsieraren antzekoa.

b) *Aurrera jarraitzen du populazioaren zahartze-prozesuak.* 20 urtetik beherakoak guztizkoaren %17,8 dira 2013an, eta bere pisuari eutsiko dio 2026an, baina 18.000 lagun gutxiago izango dira. Bestalde, zenbatespenen arabera, bitarteko adineko populazioak, 20-65 urtekoak, 195.000 lagun gutxiago izango ditu 13 urteotan, 20-35 urtekoen taldean 95.000 lagun eta 35-49 urtekoen taldean 141.000 lagun galtzearen ondorioz. Bestalde, 50-64 urtekoen taldean, 141.000 gehiago izango dira.

Gainera, 65 urtekoak 110.000 gehiago izan litezke, eta beraz, populazioaren %26,5koa izatera irits liteke, 2013an baino ia 7 puntu gehiago. Guztizko horretatik, 32.000 lagun 85 urte edo gehiagoko taldera igaroko dira; izan ere, euskal populazioaren %4,6 izango da talde hori.

c) *Ugalkortasun tasa goraka hasiko da, baina behera egingo du jaiotzen kopuruak.* 2010ean 21.200 jaiotze ondoren, kopuru hori 15.000eraino jaitsi da 2015ean, zeren eta aurreikusitako jaiotze-tasaren gorakada txikiak ez baitu (emakume bakoitzeko 1,5 seme-alaba) konpentsatuko umeak izateko adinean diren emakumeen kopuruaren jaiotsiera. 25-39 urtekoen artean (ugaltzeko adin zentrala), %41ekoa izan liteke emakumezkoen kopuruaren jaiotsiera.


I.1.2. GRAFIKOA. EAE-KO BIZI ESPERANTZAREN PROIEKZIOKOK BALAKAERA, 2011-KO DATU ERREALA OINARRI HARTUTA



Iturria: EUSTATen datuekin landutakoa. 2026rako proiektzioak.

d) *Bizi esperantzak gorako joerari eutsiko dio.* Jaiotzeko bizi esperantza 82,6 urtekoa izango da gizonezkoentzat eta 88,4 emakumezkoentzat 2025. urtean; 2010ean, berriz, 79,1 eta 85,6 urtekoak ziren hurrenez hurren. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko jaiotzeko bizi esperantzaren diferentzia, gainera, 6,5 urtekoa izatetik (2010ean) 5,8 urtekoa izatera igaroko da (2026an).

I.1.3. GRAFIKOA. EAE-KO DEMOGRAFIAREN 2026RAKO PROIEKZIOAK. OSAGAIEN ARABERA AURREIKUSITAKO BILAKAERA. MILAKA PERTSONA



Iturria: EUSTATen datuekin landutakoa 2006trako proiektzioak

e) *Migrazio-saldoa lagungarria izango da populazioaren jaiotsieran.* 2015ean, EAEko sarrera kopurua 18.000tik beherakoa izango litzateke, eta atzerrikoak sarrera horien %10 besterik ez lirateke izango (urteko 2.000 baino gutxiago). Aurreikuspeneko epealdiaren amaieran, 22.000tik gorako immigrazioak izango lirateke, eta atzerrikoak, berriz, horien %40 izango lirateke (9.000 baino pixka bat gutxiago). Bestalde, beherako joera izango dute emigrazioek aurreikuspeneko aldi osoan: 2012an 27.000 eta 2025ean 22.000.

Zenbatespenen arabera, negatiboa izango da migrazio-saldoa aurreikuspeneko epealdi osoan, eta gero positiboa izango da aldiaren amaieran, baina oso igoera txikiarekin.

1.1.2. Oinarrizko adierazle demografikoen bilakaera

a) *Populazioaren berezko mugimendua*

2012ko behin-behineko datuen arabera, hazkunde begetatiboa (biztanleriaren bariazioa, jaiotzen eta heriotzen arteko aldearen arabera, migrazio-mugimenduak aintzat hartu gabe) bederatzigarren urtez jarraian positiboa izan da; hori gure erkidegoan ez zen gertatu 1986az geroztik: urte horretan 20.533 jaiotza gertatu ziren, aurreko urtean baino % 3,1 gehiago, eta 20.281 heriotza, 2011n baino % 2,3 gehiago. Horren ondorioz, hazkunde begetatiboa +252 izan da,

hots, milako 0,1ekoa. 2012ko datua positiboa da, beraz, zeren eta jaiotzen eta heriotzen arteko diferentziak positiboa izateari eutsi baitio (neurri txikian), jaiotzen jaitsiera heriotzen igoera baino handiagoa bada ere.

60ko hamarkadan eta 70ekoaren hastapenetan gertatu ziren saldo begetatibo positibo indartsuen ostean, 1990a negatiboa izan zen lehen aldiz 1937tik, eta 1996an saldorik txikienera iritsi zen, urte hartan EAEk 2.000 biztanletik gorako hazkunde begetatibo negatiboa izan baitzuen. 2004an gelditu egin zen populazioaren jaitsiera, baina saldo positiboek beherako joera dute 2010etik, eta 2012an, dagoeneko esana dugunez, 250 lagun besterik ez ziren.

Ohikoa denez, joera desberdina dago lurraldeen arabera: Bizkaiak, guztira, 904 galdu zituen 2012an, behin-behineko datuen arabera. Izan ere, atzeratuago zegoen saldo positiboaren berreskurapenean, eta 38 biztanle besterik ez zuen irabazi 2011n. Araban eta Gipuzkoan, berriz, joera positiboari eutsi diete aurten, eta 772 eta 384 lagun gehiago dituzte hurrenez hurren.

Jaiotzeetan, jaitsierak izan dira hiru lurraldeetan 2012an, baina intentsitate ezberdinarekin. Alde batetik, Araban 3.293 haur jaio ziren (%-5,7, eta batez bestekoa %-3,1). Bizkaian, berriz, 10.342 jaiotza izan ziren, aurreko urtean baino %3,2 gutxiago; eta Gipuzkoan, 6.898 jaio ziren, 2011n baino %2,3 gutxiago. Emaitza horien arabera, jaiotze-tasa EAEn milako 9,3 da (aurreko hiru urteetan milako 9,7 zen). 60ko hamarkadan kopuru hori milako 20tik gorakoa zen, eta Estatuko batez bestekotik gorago zegoen. Gaur egun, EAEk estatuko eta EBko batez bestekoak (milako 9,7 eta 10,4, EBn) baino tasa baxuagoi eusten die.

Lurraldeen arabera, Bizkaiak milako 8,9 jaiotza ditu -hiru lurraldeetako baxuena-, Araban 10,1 -altuena- eta Gipuzkoan milako 9,8.

Horrez gain, jaiotza-tasak oso desberdinak dira amaren herritartasuna kontuan hartzen bada. 2012n bizirik jaio ziren 20.533 haurretatik 3.482k ama atzeritarra dute, alegia, jaiotakoaren %17k (%16,2 2011n), herritartasun atzeritarra duten biztanleen proportzioa txikiagoa denean, dagoeneko ikusi den moduan. Horrek esan nahi du etorkinen jaiotza-tasa milako 20koa dela, bertakoaren milako 8,2koa den bitartean. Proportzio horiek azken urteotan etengabeak ari dira izaten.

Beste urte batez, azpimarratu behar da ama ezkongabeengandik jaiotakoaren portzentajea gero eta handiagoa dela. 2012an ezkontzatik kanpo jaiotakoak 7.365 izan ziren, guztien % 35,9 (% 34,3 aurreko urtean). Arabak eta Bizkaiak EAE osokoa baino portzentaje altuagoak izan zituzten, % 36,7 eta % 36,2, hurrenez hurren. Gipuzkoak, aldiz, balio erlatibo txikiagoa izan zuen (%35). Egungo ehunekoak 1990ekoarekin (%7,7) alderatuz gero, ikusten da ama ezkongabeengandik jaiotako haurren ratioa ia boskoiztu egin dela. Herrien arabera, EBko ehunekoak Bulgaria eta

I.1.3. KOADROA. EAEko BIZTANLERIAREN MUGIMENDU NATURALA

	Bizirik jaiot.	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazkunde begetat.	Tasa
2005	19.715	9,3	19.425	9,2	290	0,1
2006*	20.043	9,4	18.507	8,7	1.536	0,7
2007*	20.596	9,6	19.252	9,0	1.344	0,6
2008*	21.315	9,9	19.437	9,0	1.878	0,9
2009*	20.928	9,7	19.624	9,1	1.304	0,6
2010*	21.159	9,7	19.357	8,9	1.802	0,8
2011*	21.180	9,7	19.832	9,1	1.348	0,6
2012*	20.533	9,3	20.281	9,2	252	0,1

(* Behin-behineko datuak. Mila biztanleko tasak.

Iturria: EUSTAT "Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika" eta testuaren egileak egindakoa.

I.1.4. KOADROA. JAIOTZAK ETA HERIOTZAK EBn MILA BIZTANLEKO. 1975 eta 2012.

	JAIOTZAK		HERIOTZAK	
	1975	2012	1975	2012
EB 28	14,7	10,4	10,7	9,9
ALEMANIA	9,9	8,4	12,6	10,8
AUSTRIA	12,4	9,4	12,7	9,4
BELGIKA	12,2	11,4	12,2	9,8
BULGARIA	16,6	9,5	10,3	15,0
ZIPRE	16,3	11,8	9,8	6,6
DANIMARKA	14,2	10,4	10,1	9,4
ESLOVAKIA	20,6	10,3	9,5	9,7
ESLOVENIA	16,6	10,7	10,1	9,4
ESPAINIA	18,8	9,7	8,4	8,6
ESTONIA	14,9	10,6	11,6	11,6
FINLANDIA	13,9	11,0	9,3	9,6
FRANTZIA	14,1	12,6	10,6	8,7
KROAZIA	:	9,8	:	12,1
GREZIA	15,7	9,0	8,9	10,5
HOLANDA	13,0	10,5	8,3	8,4
HUNGARIA	18,4	9,1	12,4	13,0
IRLANDA	21,1	15,7	10,4	6,3
ITALIA	14,9	9,0	10,0	10,3
LETONIA	14,2	9,8	12,2	14,3
LITUANIA	15,7	10,2	9,5	13,7
LUXENBURGO	11,1	11,3	12,2	7,3
MALTA	18,8	9,8	9,5	8,1
POLONIA	19,0	10,0	8,7	10,0
PORTUGAL	19,8	8,5	10,8	10,2
ERRESUMA BATUA	12,4	12,8	11,8	8,9
TXEKIAR ER.	19,1	10,3	12,4	10,3
ERRUMANIA	19,6	10,0	9,3	12,7
SUEDIA	12,6	11,9	10,8	9,7
EAE	19,1	9,3	7,1	9,2

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.


Esloveniako (% 57tik gora) mailen eta Kroazia (% 15,4) edo Greziako (bizirik jaiotako %7,6) artean mugitzen dira. Batasuneko batez bestekoa %39,3 da, eta bertatik kanpo, nabarmentzekoa da Islandiako ratio handia. Bertan, 2012an jaiotako %66,9 amak ezkongabeak izan ziren.

Bestalde, Eurostaten datuek 2012an erakusten dutenez, EBn 5,23 milioi jaiotza izan ziren, aurreko urtean baino 40.000 gutxiago, eta lau urtez jarraian behera egin du 2000 eta 2008 bitartean joera positiboa izan ondoren. Jaiotza-tasarik handienak Irlandan eta Erresuma Batuan daude (milako 15,7 eta 12,8, hurrenez hurren). Txikiak, berriz, Alemanian eta (milako 8,4) eta bigarren tokian Portugalen (milako 8,5). Espainian milako 9,7koa da.

Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. 2012an joera bera egon da, eta haurrak izan zituzten emakumeen %80,5ek 30 urte edo gehiago zituzten. Talderik jendetsuena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, eta jaiotza guztien %38,5 hartzen du. Halaber, 35 urtetik gorako amek izandako haurren jaiotza kopuruak (%42) handitzen jarraitzen du, eta 25 eta 29 urte arteko taldea (%13,8) nabarmen gaintzen du. Espainiar nazionalitateko amen batez besteko adina 33,8 urtekoa izan zen. Ama atzerritarrena, berriz, 29,6 urtekoa. Bestalde, 25 urtetik beherako amen 2011ko pisuari eusten zaio, guztizkoaren %5,7 (%6,1 2010ean).


Heriotzei dagokienez, 2012an EAEn 20.281 lagun zendu ziren, aurreko urtean baino % 3,2 gutxiago; haietatik, % 51,8 gizonak eta % 48,2, aldiz, emakumeak. 2012an zendutako %30,5 tumoreengatik hil ziren. Haien atzean, zirkulazio sistemaren gaitzak datoz, % 28, eta hirugarren tokian, urrunago, arnas eritasunak, hots, % 9,4.²

I.1.4. GRAFIKOA. JAIOTZA TASEN BILAKAERA, LURRALDEEN ETA EZKONU GABEKO AMARENGANDIK JAIOTAKO PROTZENTAJEEN ARABERA. EAE.




Iturria: EUSTATEN datuen landutakoa. ENAC.

I.1.5. GRAFIKOA. JAIOTZEN BILAKAERA, AMAREN ADINAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSTAT. Jaiotzen estatistika

I.1.6. GRAFIKOA. EAEn HILDAKO PERTSONEN BATEZ BESTEKO ADINAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA



Iturria: EUSTAT. Heriotzaren estatistika

² Memoria honetako "Osasuna eta osasun sistema"ri buruzko III.3 kapituluan, zehazki aztertzen dira euskal populazioaren heriotzaren kausak.

Europar Batasuneko datuei dagokienez, 2003an lortu zen mailarik altuena, ia 5 milioi zentze; hori milako 10,5eko tasa gordina da, EAEn urte horretan 9,2koa izan zen bitartean. Jaisteko ageriko joeren barruan EBko heriotzen kopuruek urtero gorabehera handiak izaten dituzte, hortaz, urte batzuk itxaron beharko dira joera hori baieztatzeko. 2012ko datuen arabera, 5 milioi pertsona hil ziren, aurreko lau urtean baino 100.000 gehiago (milako 9,9), eta, beraz, hazkunde begetatiboa edo berezkoa (jaiotzak ken heriotzak) 178.000 lagun ingurukoa izan zen Batasunean.

Halaber, EUSTATEN Heriotzen Estatistikak hauxe agertu du: 2012an hildakoen batez besteko adina 78,9 urte zen EAEn, 75,4 gizonezkoena eta 82,7 emakumezkoena, bizitza-luzeagoa izaten baitute. Hala, azken hamarkadan gure autonomian bizi-esperantza gizonentzat 3,5 urte handitu da eta emakumeentzat, berriz, 2,8.

Ildo horretan, jaiotzean dagoen bizi-esperantzari buruzkoa da adierazle demografiko nagusienetako bat ³. EUSTATEk berriki eginiko estatistika batean azpimarratu du adierazle horrek 2000 eta 2011 artean izan duen hazkunde nabarmena, zeren eta euskal populazioaren jaiotzeko bizi-esperantza 76,4 urtekoa baitzen 2000an gizonezkoentzat eta 83,7 urtekoa emakumezkoentzat. 2011n, berriz, 79,4 eta 86,1 urtekoak dira, hurrenez hurren. EBko kopururik handienenen artean daude. Espainian datu hauek ziren 2011n: 79,4 urte gizonezkoentzat eta 85,4 emakumezkoentzat.

Europar Batasunean, hauexek daude hurrengo tokietan Europar Batasuneko euskal emakumeen atzetik: frantsesak (85,7 urte), espainiarrak (85,4) eta (85,3) italiarrak. Kopururik txikiak, berriz, Bulgariar (77,8 urte) eta Errumaniar (78,2 urte batez beste) daude. Gizonezkoen dagokienez, italiarrak dira gehien bizi direnak, 80,1 urterekin, eta ondoren suediar (79,9), holandar eta espainiarrak (79,4 kasu bietan). Zerrendako azken tokian dira Lituania (68,1 urte batez beste) eta Letonia (68,6), jaiotzeko bizi esperantzarik txikiak dutelako gizonezkoetan.

b) Migrazio mugimenduak

EUSTATEN 2012ari buruzko "Migrazio mugimenduen estatistikak" 9.949 laguneko hazkunde zenbaturik gure erkidegoan urte horretan (aurreko urtean baino %34 gutxiago), eta hamahiru urtez jarraian migrazio-saldo positiboa izan da. Lurrealdeko, Bizkaia, 4.867 lagun irabazita, migrazio-saldorik handiena dauka zenbaki absolutuetan, %42 igo da 2011ren aldean. Bestalde, Arabak 1.773 lagun irabazi ditu (-%52, 2011ko saldoarekiko) eta Gipuzkoak 3.309 (+%12, igo den bakarra).

I.1.5. KOADROA. BIZI-ESPERANTZA JAIOTZEAN EUROAPAN				
	GIZONAK		EMAKUMEAK	
	2000	2011	2000	2011
FRANTZIA	75,3	78,7	83,0	85,7
ESPAINIA	75,8	79,4	82,9	85,4
ITALIA	76,9	80,1	82,8	85,3
PORTUGAL	73,2	77,6	80,2	84,0
AUSTRIA	75,2	78,3	81,2	83,9
SUEDIA	77,4	79,9	82,0	83,8
FINLANDIA	74,2	77,3	81,2	83,8
LUXENBURGO	74,6	78,5	81,3	83,6
ESLOVENIA	72,2	76,8	79,9	83,3
BELGIKA	74,6	77,8	81,0	83,2
ALEMANIA	75,1	78,4	81,2	83,2
HOLANDA	75,6	79,4	80,7	83,1
GREZIA	75,5	78,5	80,6	83,1
ERRESUMA BATUA	75,5	79,1	80,3	83,1
ZIPRE	75,4	79,3	80,1	83,1
MALTA	76,2	78,6	80,3	82,9
IRLANDA	74,0	78,3	79,2	82,8
DANIMARKA	74,5	77,8	79,2	81,9
ESTONIA	65,2	71,2	76,2	81,3
TXEKIAR E.	71,7	74,8	78,5	81,1
POLONIA	69,6	72,6	78,0	81,1
ESLOVAKIA	69,2	72,3	77,5	79,8
LITUANIA	66,8	68,1	77,5	79,3
LETONIA	:	68,6	:	78,8
HUNGARIA	67,5	71,2	76,2	78,7
ERRUMANIA	67,7	71,0	74,8	78,2
BULGARIA	68,4	70,7	75,0	77,8
EAE	76,4	79,3	83,7	86,1

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

³ Jaiotzeko bizi-esperantza da urte berean jaiotako pertsonen taldeak bizi izango lituzkeen urte batez besteko zenbatespena, heriotza aldatu gabe egongo balitz betiere. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo "Osasuna eta osasun sistema" kapitulura.


EAEren eta gainerako autonomia erkidegoen arteko mugimenduei dagokienez, 5.266 laguneko saldo positiboa eman du 2012. urteak, hots, immigrazio gehiago izan ziren emigrazioak baino, eta lehen aldia da Eustatek estatistika hori egiten duenetik saldo hori atzerriko herrialdeetako baino handiagoa dena; +4.683koa izan zen (EAEra atzeritik iristen diren eta beste herrialde batzuetara doazen pertsonen arteko saldoa %46 jaisi baita 2011ren aldean).

Europar Batasun osoko joerei buruz EUROSTATen datuek zera agertzen dute: 90eko hamarkadan nahiko jaisiera handiko aldiaren ondoren, EBn nazioarteko migrazio-mugimenduen saldo positiboa 2003an bi milioi pertsona gehiagoren bidez hazi zen, finkatutako datuen arabera. Bestalde, 2012an migrazio-saldoa mantendu egin da 2011rekin alderatuz gero (0,89 milioi lagun, 0,93 milioi aurreko urtean); migrazio tasa gordina milako 1,7koa izan da 28-EBrako eta milako 2koa eurogunerako. Saldo positibo horren %86 bi herriri dagokie: Italia eta Alemania. Bestalde, Batasuneko bederatzi herrik (Bulgaria, Estonia, Irlanda, Grezia, Espainia, Kroazia, Zipre, Letonia, Lituania, Polonia eta Portugal) migrazio saldo negatiboak dauzkate.

Bestalde, 2012an, 194.969 lagunek, aurreko urtean baino %2 gutxiagok, bizileku aldaketaren bat egin zuten EAEn (EAEko biztanleen %8,9); mugikortasun horren %49,3 udal beraren barruan izan zen. Gainontzekoetatik, 48.608 mugimendu kanpoko immigrazio lirateke (jatorria erkidegotik kanpo eta helmuga EAE) eta 20.160 kanpoko emigrazio (jatorria EAE eta helmuga handik kanpo, haietatik 4.274ren helmuga atzerrian; azken horietan, %6ko hazkunde izan da 2011rekiko).

I.1.6. KOADROA. MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA EAE-N						
	ATZERRI AREKIN	ESTATUKO GAINERAKO LURRALDEEKIN	GUZTIZKO / KANPOKO MIGRAZIO-SALDOA*			
			EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2006	18.134	-3.676	14.458	3.271	8.021	3.166
2007	19.884	-2.192	17.692	4.224	9.209	4.259
2008	14.903	1.898	16.801	4.207	8.773	3.821
2009	9.802	3.452	13.254	3.670	7.394	2.190
2010	9.342	3.686	13.028	3.902	6.562	2.564
2011	8.689	6.297	14.986	3.704	8.333	2.949
2012	4.683	5.266	9.949	1.773	4.867	3.309


(* Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoarekin batuketa.
Iturria: EUSTAT. "Migrazio Mugimenduen Estatistika".



Gure Erkidego barruko migrazio gehienak orain ere lurralde berekoak dira, baina eragin txikiagoa dute Araban. Hala, Bizkaiko toki batera mugitzen direnen %93,2 Bizkaitik bertatik joaten da, Gipuzkoako udalerriren batera migratzen direnen %88k Gipuzkoan bertan egiten du eta Arabako tokiren batera mugitzen direnen %64,4k Arabatik bertatik egiten du. Azken horretan, Bizkaiko lurraldekoak dira helmugako 4 mugimenduetatik 1.

Kanpoko edo erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoari dagokienez, 2012an EAEko mila biztanleko 23ri eragin die (Arabako milako 26,9, Bizkaian milako 23,1 eta Gipuzkoan milako 21,1); tasa horiek nahiko txikiak dira gainontzeko autonomia erkidegoekin erkatuz gero, haietan, batez beste, mila biztanleko 37 mugitzen baitira. Extremadura izan ezik, estatuko gainontzeko autonomia erkidegoek biztanle gehiago ematen diote EAERI bertatik jaso baino; EAEko emigranteentzako erakarpen poloak, ordea, honako erkidegoak dira, ordenan: Madril, Gaztela eta Leon, Kantabria, Katalunia, Nafarroa eta Andaluzia. Sei erkidego horien artean EAE uzten duten pertsonen %63 jasotzen dute.

Atzeritarren emigrazioak, berriz, 2012an 14.883 lagunena izan ziren, 2011n baino 5.890 gutxiago (%-29). Horietatik 7.300 beste erkidego batzuetakoak dira, eta 7.583 zuzenean datoz atzeritik (2011n baino %32 gutxiago). Atzeritarren emigrazioan, bestalde, 6.349 pertsonak ziren 2012an, 2011n baino 476 gehiago.



Titulazioari dagokionez, EAeren migrazio-saldoa positiboa da ikasketa-maila guztietarako (hau da, kontuan hartutako edozein ikasketa-mailatarako, gure Erkidegora etorritako immigrante gehiago erregistratzen dira aldi horretan bertan emigratzen duten pertsonak baino). Gainera, titulu maila apalenetakoak (lehen mailako ikasketak edo behegokoak) dira immigrazioen %80 eta emigrazioen %78; goi-mailako tituluetan, ordea, emigrazioen %9 eta immigrazioen %10 eman ziren. Hala, gure erkidegora 2011. urtean heldu ziren 5 urtetik gorako 33.868 pertsonatik (eskuragarri dagoen azken datua) %8,9k erdi- edo goi-mailako ikasketak edo goi-mailako ikasketak zituzten. Emigratu zuten pertsonen kasuan, 5 urtetik gorako 20.125 pertsonak aipatu ikasketak. Hortaz, ikasketa maila altuetan 1.047ko migrazio-saldo positiboa erregistratzen da (-%46 2010arekin alderatuta). Saldo hori, gainera, positiboa da etenik gabe 1997. urtetik.

Goi mailako ikasketak dituzten pertsonen arteko saldo positibo horren arrazoa izan daiteke unibertsitateko tituludunak EAetik irten izana, trebakuntza maila handia daukaten immigranteak heltzearekin konparatzen ari garela. Izan ere, immigrante horien titulazioak homologatuta ez daudenez, ezin dituzte erabili lan-merkatuan sartzeko (gogoratu behar da Inkesta horren informazioa Udal Erroldatik ateratzen dela, eta errolda horretan erregistratzen den ikasketa-maila inskribatutako pertsonak deklaritzen duena dela, egiaztagirik aurkeztu behar izan gabe).

Gainera, EUSTATen datuek erakusten duten fenomeno bat da goi mailako hezkuntza daukaten gazteek gaur egungo krisiaren ondorioz eta gure Erkidegotik kanpo –gehienetan beste herri batzuetara– lan-aukeren bila emigratzea. Azken lau urteetan, hau da, 2008-2011 aldian, erdi-goi mailako eta goi mailako titulazioak zeuzkaten 12.144 pertsonak emigratu zuten EAetik kanpo (haien artean 1.969k azken urtean), aldi horretan gure erkidegotik joan ziren 5 urtetik gorako pertsonen %15ek.

Hala ere, grafikoan ikusten denez, EUSTATen inkestak era berean erakusten du gure erkidegotik joaten diren goi mailako tituludunen kopururik handiena 2006an izan zela (3.373). Gerora, aldi labur batean gora egin zuen 2008an, baina orduz geroztik eta 2011ra arte (eskuragarri dagoen azken datua) jaitsi da. Horrek zera erakusten du: krisi garaian (2008tik aurrera), kanpoaldera joan diren goi mailako tituludunen fluxua (behintzat errolda-lekua aldatu dutenenena) beherakorra da.

Azkenik, Migrazio Mugimenduen Inkestak agerian utzi duenez, ezberdina da immigranteen eta emigranteen batez besteko adina (32,8 eta 35,1 urte hurrenez hurren), eta migrazio-saldo positiboa da adin-talde guztientzat.

c) Ezkontzak.

“Ezkontzen Estatistikak”, Jaiotzenak eta Heriotzenak bezala, Biztanleriaren Mugimendu Naturala osatzen du. Estatistika aspaldikoa izanik, garai horretan eman diren aldaketa du. Elizako agiritegiari esker Estatuak 1861etik aurrerako informazioa lortu du.

EUSTATen datuek diotenez, 2012n EAEn 8.293 ezkontza izan ziren, 2010ean baino %5,1 gutxiago. Haien artetik 8.145 sexu diferenteko


pertsonen artean izan ziren eta 148 sexu bereko pertsonen artean. Ezkontzeko eskubideari dagokionez Kode Zibila aldatzen duen uztailaren 1eko 13/2005 estatu Legearen onarpenaren hurrengo urteetan sexu bereko ezkontzek izan duten bilakaeraren eskema honela laburbil daiteke: abiatze txikia 2005ean (legea urte horren erdialdean onartu zen), eklosioa 2006an, jaitsiera 2007an eta egonkortzea 2008tik gaur arte.

Bestalde, nabarmentzekoa da ezkontza zibilen kopuruan izandako igoera nabarmena azken urteetan; izan ere, 1990ean %23tik %70,1era igaro da 2012an. Estatuko gainerako erkidegoei dagokionez, bosgarren tokia zuen EAEk 2011n (eskuragarri dugun azken datua), Melillaren, Kataluniaren eta bi artxipelagoen atzetik.

Guztira, EAEn 2012an 5.707 elkartzeko zibil egon dira, 2.419 ezkontza katolikoen eta beste erlijio batzuetako 19en aurrean. Lurralde Historiko bakoitzeko, Bizkaian egin ziren ezkontza zibil gehien (% 72,1), ondoren Gipuzkoa (% 71,6) eta Araban (% 66,2).

Gainera, nabarmentzekoa da ezkontzeko adina atzeratzeko joerak dirauela. Izan ere, erreferentziatzeko urtean, ezkondu ziren gizonezko ezkongabeen batez besteko adina 34,8 urte zen, eta emakumezkoena, berriz, 32,9. Azken 25 urteetan, 1987tik, senarren batez besteko adinak gora egin du 7,1 urte, eta emazteenak 7,5.

EAEko ezkontzen tasa 3,5ekoa da 1.000 biztanleko 2012an, Estatukoaren antzeko ratioa, baina Europar Batasuneko baina txikiagoa; izan ere, milako 4,4koa zen 2010ean. Hona hemen ezkontza tasa handiena duten Europako herrialdeak, 2012rako behin-behineko datuekin: 2012, Lituania (6,9) eta Letonia (5,5). Ratoririk txikienekoak, berriz, hauexek: Bulgaria (2,9 ezkontza 1.000 biztanleko) eta Eslovenia eta Luxenburgoko (bietan 3,4koa 1.000 biztanleko).



I.1.7. KOADROA. EUROPAR BATASUNeko EZKONTZAK. ADIERAZLEAK 1.000 BIZTANLEKO.

	EZKONTZAK		DIBORTZIOAK	
	2011	2012	2011	2012
EB-27	4,4*	:	1,9**	:
ALEMANIA	4,6	4,7	2,3	:
AUSTRIA	4,3	4,6	2,1	2,0
BELGIKA	4,1	3,6	2,9	2,5
BULGARIA	2,9	2,9	1,4	1,6
ZIPRE	7,3	:	2,3	:
DANIMARKA	4,9	5,1	2,6	2,8
ESLOVAKIA	4,7	4,8	2,1	2,0
ESLOVENIA	3,2	3,4	1,1	1,2
ESPAINIA	3,4	3,5	2,2	2,4
ESTONIA	4,1	4,6	2,3	2,4
FINLANDIA	5,3	5,3	2,5	2,4
FRANTZIA	3,6	3,7	2,0	:
GREZIA	4,9	:	1,2**	:
KROAZIA	4,6	:	1,3	:
HOLANDA	4,3	4,7	2,0	2,0
HUNGARIA	3,6	3,6	2,3	2,2
IRLANDA	4,3	:	0,7	:
ITALIA	3,4	:	0,9*	:
LETONIA	5,2	5,5	4,0	3,6
LITUANIA	6,3	6,9	3,4	3,5
LUXENBURGO	3,3	3,4	2,1*	:
MALTA	6,1	:	0,1	:
POLONIA	5,4	5,3	1,7	1,7
PORTUGAL	3,4	:	2,5	:
ER. BATUA	4,5*	:	2,1	:
TXEKIAR ER.	4,3	4,3	2,7	2,5
ERRUMANIA	4,9	5,1	1,7	1,5
SUEDIA	5,0	5,3	2,5	2,5
EAE	3,7	3,5	1,9	1,9

Iturriak: EUROSTAT, EUSTAT eta INE.

*2010eko datua.

**2009ko datua.

Bestalde, Eustaten “Demografiari buruzko inkesta” dela-eta, ezkontzen bilakaera ikus dezakegu ondoz ondoko belaunaldien artean. Hala, 2011ko datuek erakusten dute gizonezkoen artean behin betiko ezkongabeen portzentajerik txikiena (ezkongabeen %5, 50 urte betetzean) 1926 eta 1930 bitartean jaiotakoen artean izan zela; emakumezkoetan, berriz, gerra zibileko urteetan jaiotako belaunaldien artean.

Harrezkero, gora egin du portzentajeak, eta 50 urteko ezkongabeen %25era iritsi da eta %17ra emakumeen artean, ezkontzen historia bete dela esan daitekeen azken belaunaldietan, 1996 eta 1970 bitartean jaiotakoak.

Horrek ez du esan nahi neurri berean jaitsi denik bikoteen kopurua, zeren eta 1966 eta 1970 bitartean jaio ziren eta bikotekidearekin bizi diren belaunaldien artean, izatezko ezkontzetan bizi baita %12. 20 urte lehenago jaiotakoen artean, berriz, %1,5era ere ez zen iristen. Nabarmentzekoa da ere estatistika eragiketa horren arabera nahikoa baxua dela izatezko bikoteen ugalkortasun tasa; izan ere, 2011n horien %48k baino ez zuen seme-alabarik.

Gizonezkoak ezkontzeko batez besteko adinak gora egin du gerra zibilean jaiotako belaunaldietatik, 29,2 urte, eta 30,5, berriz, 1966 eta 1970 bitartean jaiotakoen artean. Hala ere, batez besteko adin horiek baziren 1936 baino lehen jaiotako belaunaldietan. Emakumeak ezkontzeko batez besteko adinak mailarik altuena izan du, noiz-eta aurreko belaunaldietako emakumeak ezkontzeko batez besteko adina 26,6 urtetik beherakoa zenean.

Azkenik, INEren⁴ “Baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistikak” jaitsiera erakusten du dibortzioen eta banantzeen kopuruan, gure Erkidegoan nahiz Estatuan. Zehazki, guztira 3.869 dibortzio eta 242 banantze izan ziren EAEn 2012an. Baliogabetzeen urteko kopurua 5 ingurukoa zen batez beste informazioa dugunetik, eta 7 izango da 2012an.

Guztira, erreferentziako urtean 4.118 ezkontza desegin ziren, 2011n baino %5,6 gutxiago, hots, 1,9 desegite mila biztanleko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 2,4 da milako. Desegite tasarik handiena izan duten autonomia erkidegoak Kanariar Uharteak (2,9 milako) eta Katalunia (2,7 milako) dira. Haustura tasarik txikienak, berriz, Gaztela eta Leonen eta Extremaduran daude (1,7 eta 1,8 desegite mila biztanleko, hurrenez hurren).


⁴ “Baliogabetzeen, banantzeen eta dibortzioen estatistika” egiteko, Lehen Instantziako, Instrukzioko eta Emakumearenganako Indarkeriaren epaitegiek emandako informazioa erabiltzen da, ezkontzak desegiteko prozesuen gainekoa.

I.1.8. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEKO FENOMENO DEMOGRAFIKOAK. 1.000 BIZTANLEKAKO TASA. 2012.

	JAIOTZAK	HERIOTZAK	EZKONTZAK	EZKONTZA DESEG.
ANDALUZIA	10,30	8,15	3,53	2,4
ARAGOI	8,94	10,24	3,52	1,9
ASTURIAS	7,12	12,28	3,75	2,5
BALEARRAK	9,96	7,31	3,65	2,6
KANARIAR U.	8,22	6,73	2,82	2,9
KANTABRIA	8,57	9,83	3,97	2,5
GAZT. ETA LEON	7,54	11,18	3,25	1,7
GAZT.-MANTXA	9,71	9,07	3,57	2,0
KATALUNIA	10,33	8,40	3,65	2,7
VALENTZIAKO E.	9,52	8,46	3,46	2,6
EXTREMADURA	8,55	10,30	3,35	1,8
GALIZIA	7,63	11,16	3,44	2,2
MADRIL	10,80	6,66	3,92	2,4
MURTZIA	11,42	7,31	3,39	2,3
NAFARROA	10,53	8,41	3,54	2,0
EAE	9,42	9,30	3,70	1,9
ERRIOXA	9,96	9,44	3,54	2,0
CEUTA	13,40	5,78	4,86	2,6
MELILLA	18,34	5,70	4,61	2,4
OROTARA	9,69	8,58	3,56	2,4

Iturria: INE.

I.1.10. GRAFIKOA. 50 URTEKO ADINEAN EZKONGABE DAUDENEN PROPORZIOA, JAIOTZA-URTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EAE, 2011.



Iturria: EUSTAT. Inkesta Demografikoa 2011.

Nazioarteko konparazioa eginez, dibortzioen tasa gordina azken urteetan milako biaren ingurukoa da Europar Batasunean, baina maila ezberdinak daude: 0,1 milako Maltan (dibortzioa 2011ko maiatzean legezlatu zen) eta 0,7 milako Irlandan, 3,5 milako Lituanian eta 3,6 milako Letonian.

2006tik aldaketa antzematen da desegite horien osieran Estatuan oro har, eta nabarmen gure Erkidegoan. Izan ere, dibortzioen kopurua handitu eta banantzeena, berriz, jaitsi egin da, Kode

Zibila eta Auziperatze Zibila banantzeen eta dibortzioen arloan aldatu dituen uztailaren 8ko 15/2005 Estatuko Legearen ondorioz. Arau horri esker, aurretik banandu barik lor daiteke dibortzioa. Autonomia erkidegoen arteko konparazioaren bidez, agerian uzten da lege aldaketa baino lehen nahiz ondoren EAEk erdiko posizioa duela dibortzioen rankinean: laugarren erkidegoa da dibortzio gutxienean kopuruan, 2012. urtean.

EAEan banantzen edo dibortziatzen diren pertsonen profilari dagokienez, INEren datuek erakusten dutenez, gehienek 40-49 urte dituzte, baina ohikoa da emakumeak gazteagoak izatea (batez besteko adina 42,2 urte) gizonezkoak baino (44,8 urte batez beste ezkontza desegitean). Gainera, desegindako ezkontzen batez besteko iraupena 15,5 urtekoa da, eta kasuen %57,5ean seme-alabak dituzten ezkontideek, %47,9 adingabeak.


Azkenik, 2012an desegin ziren ezkontzen %66,2 elkarren arteko adostasunez erabaki ziren, eta prozeduren batez besteko iraupena 5,1 hilabetekoa izan da.

1.1.3. Immigrazioa EAEn


Nazioarteko migrazioak nazioarteko agenda politikoen gai erabakigarrietakoa izatera pasatu dira epe laburrean. Gizartearen eta ekonomia orokorraren gaur egungo garaia zuzenaren ezaugarrietako bat dira. 1850-1910 aldian mundu osoan lehenengo migrazio-garaia bizi bazen ere, XX. mendeko 90eko hamarkadatik Bigarren Mundu Gerraren ondoren hasi zen migrazio-aldi handiaren bigarren fasean gaude.

Europar Batasuneko biztanleria asko hazi da azken urteetan, batez ere immigrazioagatik, 2012an haren ratio gordina berezko hazkunde tasarena (jaiotzak ken heriotzak) halako bi izan baitzen: Milako 1,7 migrazio-saldorako eta milako 0,5 naturalerako. Hortaz, migrazio-mugimenduek Europar Batasuneko herrialdeetako biztanleen dinamikan oinarritzko zeregina dute.

2012ko urtarrilean, guztira 34,3 milioi atzerritar bizi ziren 27-EBn, populazioaren %6,9. Horietako gehienak, 20,7 milioi, erkidegokoak ez diren herrialdekoak ziren, gainontzeko 13,6



I.1.12. GRAFIKOA. EB-KO HAZKUNDE DEMOGRAFIKOAREN BILAKAERA OSAGAIAK. 1.000 BIZTANLEKO RATIOAK



Iturria: EUROSTAT.

milioiak EBko beste herrialde batekoak ziren bitartean. Baina, gainera, herrialde atzerritarretan jaiotako pertsonen zifra aintzat hartzen badugu (herritartasun atzerritarrekoak eta egoitza-herrialdean nazionalizatutako atzerritarrak), zifra 50,2 milioi pertsonetara heltzen da, Europar Batasuneko biztanleria guztiaren % 10.


EUROSTATEko datuen arabera, EBn bizi diren atzerritarren %77 baino gehiago Alemanian, Espainian, Erresuma Batuan, Frantzian eta Italian bizi dira. EBko populazioaren %63 dute bost herrialde horiek.

Immigrazioaren tipologia asko aldatzen da herrien arabera. Familiarekin berriz elkartzea Austrian, Frantzian edo Suedian immigrazioarako arrazoi nabaria da. Aldiz, Irlanda, Espainia, Portugal edo Erresuma Batua bezalako herrialdeetan laneko immigrazioaren ehuneko handia dute. Espainian erregularizazio handiak egin ziren, eta Frantzian, Alemanian eta Holandan, aldiz, erregularizazio mugatuak egin ziren etorkin talde zehatzentzat.

Hirugarren nazioetako talderik ugariak hauexek dira EBn 2012an: Turkia (2,3 milioi, EBn bizi diren atzerritarren %7) eta Maroko (1,9 milioi, guztizkoaren %5,6). Dena den, atzerrian jaiotako estatu kideetako -adibidez, Frantzia, Suedia, Holanda eta Erresuma Batua- herritar kopurua hirugarren herrialdeetako nazionalena baino handiagoa da, etorkin askok harrera-herrialdeko herritartasuna eskuratu baitute.

EAEen ere fenomeno hori gertatu da, eta kultura-aniztasunaren aldetik hazten ari da, biztanle-talde berriak geroz eta gehiago gehitzen ari baitira aspaldian. Hurbileko gizarteetako mailak oraindik gainditu ez badira ere, EAEko atzerritarren immigrazioa nabarmen hazi da azken urteetan. Horrek lurraldeetan erabat banatutako aniztasun-egoera eratu du. Berez, epe laburrean gertatutako immigrazio jendetsuak ekonomiarena eta gizartearen epe luzerako joerak aldatu ditu, biztanleen zahartzeko joera geldituz eta belaunaldien berriztatzea erraztuz, baita gizartearen jokoera berriak gehituz.

I.1.13. GRAFIKOA. EAE-KO ATZERRITARREN POPULAZIOREN URTE ARTEKO HAZKUNDE ABSOLUTUA. 1998-2013




Iturria: IKUSPEGI, INEren datuekin landutakoa

INEek, 2007ko datuekin, 2008an lehen aldiz argitaratu zuen "Encuesta Nacional de Inmigración" delakoak agertu zuenez, EAEen bizi diren etorkinak gure erkidegora, batez ere, lan hobearen bila (% 42,9), familia arrazoiengatik (elkarretaratzea) (% 32,1), bizi kalitatea hobetzeko (% 23,9) eta lan faltagatik (% 21,8) etorri zirela, erantzun bat baino gehiago eman dezaketela. Hortaz, migrazio-fenomeno bat da, batez ere, ekonomikoa.

a) Bilakaera demografikoa

Udal Erroldaren datuen arabera, lehen aldiz jaitsi da EAEn bizi diren atzerritarren kopurua migrazioa hasi zenetik, hazkunde ekonomikoarekin batera hasi zenetik; izan ere, hazkunde ekonomikoaren azken etapan gertatu da jaitsiera, 2013an egungo krisiaren ondorioak finkatu izanaren ondorioz.




2005 eta 2012 bitartean, bikoiztu egin zen EAEn erroldaturiko atzerritarren kopurua, eta urteko igoerarik handiena 2008an izan zen: ia 19.000 atzerritar gehiago zeuden erroldatuta. 2013ko urtarrilaren 1ean, 148.165 zenbatu ditu Udal Erroldak, aurreko urtean baino %2,5 gutxiago (2013ko behin-behineko eta 2012rako behin betiko datuekin). Guztizko populazioan duen pisuan islatzen da etorkinen jaitsiera hori: 2013an %6,8koa da (aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago), eta Estatuan, berriz, %11,7koa. Hortaz, Estatuan handiagoa izan da jaitsiera; izan ere, 4 hamarren gutxiago ditu, %3,8.

Bizkaietan bizi diren atzerritar gehienak (73.380), 2012an baino %2,9 gutxiago, eta ondoren Gipuzkoan (46.539 erroldatuta, % +0,9) eta, azkenik, Araban (28.236, % -6,6). Ikusten den bezala, ez da berdintsua izan joera lurraldeen artean, erroldaturiko populazioarekin gertatu den bezala. Gipuzkoan gorako bideari eutsi dio atzerritarren populazioak, neurri txikiagoan bada ere.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) erroldako datuen aurrerapenari buruz egiten duten azterketak, 2013ko maiatzaren 49 zk.ko Buletinean, agerian utzi duenez, etorkinen jaitsiera txikiena izan duten autonomia erkidegoetako bat (guztietan izan dira jaitsierak) dugu EAE 2013an (%2,5). Atzetik Kantabria (%-2,2) eta Aragoi (%-0,1) besterik ez daude.

Immigrazioak gure erkidegoko dinamika demografikoan duen eragina ere aintzat hartu beharrekoa da. 1998 eta 2013 bitartean, 91.094 biztanle gehiago ditu EAEk, eta atzerritarren etorrerari esker gertatu da hazkunde hori; izan ere, epealdi berean 15.198 erroldatu izatetik 148.165 erroldatura igaro da (+132.967). Euskal herritarren kopurua, aldiz, jaitsi egin da aldi horretan, 41.365 lagun gutxiago, baina dirudienez gorako joera antzematen ari da azken bi urteetan. Nolanahi ere, atzerritarren naziotasunen kopuruaren igoerak ere izan




lezake eragina (2012an guztira 4.996 nazionalitate erregistratu ziren EAEn, 2011n baino %29 gehiago, eta 2013rako behin-behineko datuen arabera, 12.000 naturalizazio izango dira bizileku bakoitzeko, Justizia Ministerioaren datuekin).

EAEko atzerritarrek ia erdi bana daude banatuta sexuaren arabera: % 51 gizonezkoak dira eta % 49 emakumezkoak. Gainera, Ikuspegik EAEko etorkinei 2007an egindako inkesta batek zera zioen: edozein adin-taldetan, etorkin latinoamerikarren taldea batez ere emakumezkoek osatzen dute. Etorkin afrikarren taldea, aldiz, portugaldarrek batera, gizonezkoek osatzen dute gehienbat. Jatorriz europarrak direnen artean, zein Errumaniakoen eta Frantziakoen artean, emakumeen indizeak laginaren batez besteko osoa dira gutxi gorabehera.> Azkenik, Txinatik etorritako pertsonen artean sexuen arteko banaketa antzekoa da joerei erreparatuz.

Era berean, jatorrizko herriek ama hizkuntzak baldintzatzen dituzte, eta horiek, gutxienez, kasu garrantzitsu bi erakusten dituzte, hiztun kopuruari dagokionez: bata, gaztelania, emakumezko aurpegia duena, eta bestea, arabiera, gizonezko fisonomiakoa.

EAEn erroldatuta dauden nazionalitate-taldeak aintzat hartzen baditugu, antzematen da 2013an jatorrizko herrialdearen arabera hiru talde nagusi daudela: %38,7 Latinoamerikatik dator, %24,7 Batasuneko da eta %16,8 magrebtarra. Hala ere, aztertzen baduzu immigrazio berriaren jatorria, hau da, azken lau urteotan EAera heldu denaren jatorria, ikusten da Latinoamerikako nazionalitateak nagusi direla Afrikakoen gainetik.



Izan ere, ondoz ondoko hiru etapa bereizten dira azken hamarkadan: hasieran, 2003-2004 biurtekoan, latinoamerikarren migrazioaren gorakada oso garrantzitsua izan zen, eta atzerritar guztien ia erdia (%48,4) izan ziren; kopuru horrek 2007ra arte iraun du. Hala ere, 2006az geroztik Europako gainerako aldeetako biztanleria kopurua igotzen hasi zen, eta hazkunde horren eragile nagusia errumaniar nazionalitatea izan da. Errumania 2007an sartu zen EBn, eta horren ondorioz, talde horren garrantzia %27,3ra arte igo da erroldatutako atzerritar guztien artean. 2009tik aurrera, azkenik, Magrebeko taldea (bereziki Marokokoak) hazkundearen protagonista nagusia da. 2008an %11,8 zioen, eta 2013an, aldiz, %16,8.

Herrialdeka, 2013an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean bost Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Ekuador, Bolivia, Brasil eta Paraguai), bi komunitarioak (Portugal eta Errumania), bi Magrebekoak (Maroko eta Aljeria) eta bat Asiakoa (Txina). 2012tik, Marokoko biztanleak dira EAEko atzerritar gehienak, 18.120 erroldaturekin. EAEko atzerritar guztien %12,2 dira. Bigarren nazionalitatea Errumaniakoa da, guztien %11,7rekin.

Halaber, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuek agerian jartzen dute 2012ko abenduaren 31n 135.399 atzerritarrek EAEn bizitzeko baimena zutela, aurreko urtean baino %5,6 gehiagok. Datu horiek 2013ko urtarilaren 1ean erroldatutakoekin alderatzen baditugu, erregularizazio tasa edo indizea lortzen dugu eta horrek erakusten du erroldatutako atzerritarren %91,4k data horretan bizileku-baimena zutela.

Erregularizazio tasa hori 6,8 puntu handitu da aurreko urteari dagokionez. Gauza bera gertatzen da estatu mailan (%98ko tasa erregistratzen da, 2012an baino ehuneko 6,1 puntu gehiago).

Hala, antzematen da biztanleria atzerritarren erdia administrazio egoera irregularrean egotetik (2002-2005. urteak) erregularizazio tasa geroz eta handiagoa den beste egoera batera igaro dela, erkidego b

atzuetan -adibidez, Errioxa eta Aragoi- %100 inguruan dabil. Igoera horretan modu erabakigarrian bi faktorek eragin dute: 2005ean jazotako aparteko erregularizazioa eta gizarte errotzerako bidea bizileku-baimena lortzeko; horren bidez atzerritar biztanleriaren zati handi batek bizileku-baimena modu patxadatsuagoan lortu du.

b) Elkarbizitza eta ongizatea.


Ikuspegiaren 2013ko urriko Barometroaren arabera, euskaldunentzat immigrazioa ez da arazo. %1,2k soilik dio aurretiaz galdetu gabe EAEko arazo nagusia dela (%2k zioen 2012an), eta aipamenak guztira %7,2 dira (%11,6 2012an).

Berez emandako hiru erantzunak osotasun gisa hartuz, immigrazioa zortzigarren lekuan ageri da, eta horren atzetik langabezia (%89,8), arazo ekonomikoak (%26), klase politikoa (%21,9), ustelkeria eta iruzurra (%20,4), etxebizitza (%13) eta pentsioak (%10,3) eta segurtasunik eza (%8).

Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan betetzen duen eginkizunari buruzko ikuspegi funtzionala eta utilitarista nabarmen jaitzi da krisiaren ondorioz: 2004an %80k uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2013an, berriz, %35,4k uste du hala. Halaber, 2004an %11k uste zuen ez zela etorkinik behar zenbait sektoretan, eta portzentaje hori %43,9raino igo da 2013an.


Era berean, atzerritarrei esker ekonomiak funtzionatzen duela uste dutenen portzentajea jaitzi egin da (%36,6k, eta 2012an %40,6k), eta lehen aldiz 2004tik txikiagoa da portzentaje hori kontrakoa uste dutenena baino, %42,4. Horrenbestez, immigrazioaren funtzionaltasun ekonomikoaren gaineko ikuspegia atzeraka doa.

I.1.17. GRAFIKOA. ATZERRITARREK EAE-N ETA ESTATUAN DUTEN PISUAREN BILAKAERA




Iturria: INEren eta MSESSren datuekin landutakoa.
Oharra: bizileku baimena duten eta errolaturik dauden atzerritarren kopuruaren arteko zatidura da erregularizazio indizea.

I.1.18. GRAFIKOA. ZEIN DIRA EAE-KO ARAZO GARRANTZITSUENAK? (GEHIENEZ HIRU ERANTZUN). 2013.



Iturria: Ikuspegi barometroa 2013

I.1.19. GRAFIKOA. ETORKINEK ESKUBIDE HAUEK IZAN BEHARKO LITUZKETE? EAE, 2013.



Iturria: Ikuspegi Barometroa 2013

Bestalde, atzerritar guztiek osasun laguntza eskuratzearen alde dagoen euskal populazioa igo egin da 2012tik 2013ra (%58,9, +6,1 puntu aurreko urtearen aldean) baita haien seme-alaben hezkuntza (%58,8, +6,0 puntu) eta atzerritarrei laguntza juridikoa ematearen alde ere (alde agertzen da %31,6; 2012an, berriz, %26). Ratio askoz txikiagoak izanik ere, aurreko urtean baino jarrera positiboa dute hauexen inguruan: gizarte laguntzak ematea (+1,2), familia elkarretaratzea (+3,3) BOE (+4,2). Aldaketarik ez dago, ordea, botoa emateko eskubidearen aldetik (%13,5 alde dago, 2012ko ratio bera).


Gainera, Barometroak erakutsi duenez, immigrazio politikari dagokionez, euskaldunen %8,2, aurreko urtean baino gehiago (%8,7) daude etorkinak sartzeari batere oztoporik ez jartzearen alde, eta aldi berean %6,4 edonola ekiditearen alde daude. Etorkinak sartzten uztearen alde dago %67,1 lan-kontratu edukia truke, aurreko urtekoa baino ratio handiagoa; izan ere, %61,2koa izan zen. Azkenik, %13,9k uste du zenbait irizpideren arabera utzi behar zaie sartzten hala nola familia elkarretaratzea edo ikasleak edo iheslariak izatea.

Azkenik, eta ikerketaren balantze gisa, Ikuspegiren 2013ko Barometroak "Atzerritar biztanleriarekiko tolerantzia indizea", aurkeztu du. Indize horrek kuantifikatu egiten du bertako euskal herritarrek atzerritar immigrazioaren aurrean dauzkaten jarrera eta jokabideak. Indize horretan, euskaldunek immigrazioaren fenomenoari buruz dauzkaten iritzia, jokabideak, balioak, sinesmenak, estereotipoak, etab. laburbiltzen dira, Otik 100era bitarteko zifra bakar batekin.

2013an lortutako puntuazioa 55,4 puntu izan zen, 2008ko 58,7 puntuetatik oso urrun (landa-lana urte hartako udaberrian egin zen, EAEn krisia gizartean aintzat hartzeari buruz hitz egiten hasi baino lehen), baina 2012ko puntuaziotik apur bat gora. Orduan 53,6 puntura arte heldu zen.


Bukatzeko, eta EAEn bizi diren etorkinen bizi-baldintzei dagokienez, EAeko 2012ko "Pobrezia eta Giza Desberdintasunei buruzko Inkestak" (PGDI) nabarmendu du pobrezia modu ezberdinen eragina oso altua dela atzerritarrek famili burukoak diren etxeetan, eta gainera gora egin du azken lau urtean, euskal biztanleen artean baino proportzio handiagoan. Pobrezia erreala %2,9tik %3,3ra igaro da 2008-2012ko aldian gure Erkidegoan bizi den Estatuko nazionalitatea duten herritarren artean. Atzerritarrek bizi diren etxeetan, berriz, nazkonde handiagoa izan da: %21,7tik %32ra. Gainera, azken horiek pobrezia errealeko egoeretan duen pisua handitu egin da azken lau urtean: %34,1etik %41,2ra⁵.

I.1.20. GRAFIKOA. ZURE USTEZ, ZEIN IZANGO LITZATEKE POLITIKARIK EGOKIENA LANGILE ETORKINEN INGURUAN? DATUAK PORTZENTAJETAN EMANAK



Iturrial: Ikuspegi Barometro 2013
* Elkarretaratzea: ikasleak, iheslariak

I.2.21. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOAREN GAINEKO TOLERANTZIA INDIZEA EAEN. 2007-2013KO BILAKAERA



Iturria: Ikuspegi Barometroa 2013

⁵ 2012ko PDGren emaitza horiei buruzko informazio gehiago izateko, 2012ko Memoria Sozioekonomikora jo bedi.

1.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA SUSTAPENA

1.2.1. Unibertsitatekoa ez den irakaskuntza

1.2.1.1. IKASLEEN BILAKAERA HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA

EUSTATen Irakaskuntzaren Estatistikaren⁶ datuen aurrerapenaren arabera, 2013-2014 ikasturtea EAEn unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzan matrikulatutako 361.252 ikaslerekin hasi da guztira (helduentzako hezkuntza kontuan izan gabe). Beraz, % 0,5eko hazkuntza berria dago (aurreko ikasturtean baino 1.634 ikasle gehiago), Hezkuntza Berezia kontuan izanez gero, eta % 1,7koa, kontuan izaten ez badugu (+6.090) ikasle.

Bigarren kasua kontuan izanik (hau da, Hezkuntza Berezia kanpoan utzita), gehikuntzaren azalpena da beheko mailak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (DBHO) eta irakaskuntza ertainak gehitu direla. Beheko mailen kasuan, 2013-2014 ikasturtean, EUSTATen behin-behineko datuen arabera, 294.680 ikasle zeuden matrikulatuta (% +0,7), Haur Hezkuntzan 95.208 (% 1,6), Lehen Hezkuntzan 124.280 (% +1,8) eta DBHn 75.372 (% +1,9), edo DBH ondorengo irakaskuntzan edo irakaskuntza ertainetan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan matrikulatutako ikasle kopurua % 6,6 handitu da. Aurten ere hazkunderik handiena LHn dugu, goi mailakoan (%10) nahiz maila ertainean (%10,4). Batxilergoan hazkundera izan da, baina txikiagoa (%2,7).

2013-2014 ikasturtean erdi mailako ikasketak egiten ari diren 65.200 ikasleetatik, 30.240 ikaslek, hau da, % 46,4k, Batxilergoa aukeratu dute derrigorrezko hezkuntza amaitu ondoren; % 53,6k, aldiz, LH aukeratu dute Ikusten denez, Lanbide Heziketa aukeratzen duten ikasleen ratioak gorako joera du.

I.1.9. KOADROA. IKASLEAK TITULU ETA MAILAREN ARABERA EAE-N (1)							
	2008/09	2009/10	2010/11	2011/12	2012/13	2013/14 behin-b.	2012/13-2013/14 aldak.
Hez. Bereziko ikastetxe guztiak	328.183	337.903	345.734	353.157	359.618	361.252	0,5
Hez. Berezirik gabeko ikastetxe guztiak	324.509	332.219	340.165	347.656	353.970	360.060	1,7
Hez. Berezirik gabeko beheko mailak	270.347	275.599	282.527	289.009	292.792	294.860	0,7
Haur Hezkuntza	91.206	92.800	94.818	96.577	96.713	95.208	-1,6
Lehen Hezkuntza	110.095	113.335	117.193	120.288	122.139	124.280	1,8
Hezkuntza Berezia (Haur H. - Lehen H.)	423	428	444	449	473	464	-1,9
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H.)	69.046	69.464	70.516	72.144	73.940	75.372	1,9
Hastapeneko lanbide-prestakuntzako programak (HLPP)	2.641	4.615	4.519	4.404	4.484		
Hezkuntza Berezia (D.B.H.)	195	208	208	221	234	257	9,8
Erdi mailako irakaskuntzak edo derrigorrezkoaren ondorengo (DBHO) hez. berezirik gabe	54.162	56.620	57.638	58.647	61.178	65.200	6,6
Batxilergoa	28.832	28.973	28.769	28.968	29.444	30.240	2,7
Erdi mailako L.H.	10.232	11.068	11.468	11.990	12.718	14.046	10,4
Goi mailako L.H.	15.098	16.579	17.401	17.689	19.016	20.914	10,0
Zereginen ikaskuntza (LH. Hezkuntza Berezia)	415	433	398	427	457	471	3,1
Batxilergoaren % DBHO osoarekiko	53,2	51,2	49,9	49,4	48,1	46,4	-3,6
LHren % DBHO osoarekiko	46,8	48,8	50,1	50,6	51,9	53,6	3,4

(1) Erregimen orokorreko unibertsitateaz gaindiko irakaskuntzak. Ez dira barruan sartzen ez helduen hezkuntza iraunkorra ez erregimen bereziko ikaskuntzak (arteak eta lanbideak, hizkuntzak eta musika)
Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika

⁶Unibertsitate Estatistikako (UE) eta Eskola Jarduerako Estatistikako (EJE) eragiketaz zentsukoak eta urtekoak dira, eta horiei esker, hezkuntza sistema zein den jakin daiteke, baita goi mailako ikasketetan (hirugarren maila) nahiz aurretiazko ikasketetan (Lehen eta Bigarren Hezkuntzak) duten bilakaera ere. Eusko Jaurlaritzaren Ikastetxeen Erregistroaren barruko irakaskuntza arautua ematen duten ikastetxeak dira, sektore publikokoak zein pribatukoak.

Lanbide Heziketa

EUSTATen datuen arabera, 2012-13 ikasturtean, hauexek dira gehien eskatu diren lanbide titulazioak: Fabrikazio mekanikoa (LH ikasten duten ikasle guztien %11,8), Elektrizitatea eta Elektronika (LH ikasten duten ikasle guztien %11,5), Administrazioa eta Kudeaketa (%10,4), Osasuna (%10,3), Gizarte- eta kultura-zerbitzuak (%9,3) eta Informatika eta Komunikazioak (%7,5).

Graduen arabera berezita, hauexek nabarmentzen dira erdi mailakoen artean: Osasunak %15,1, Fabrikazio mekanikoak %1,8, Elektrizitatea-Elektronikak %10,9, Garraioak eta Ibilgailuen mantentzeak %8,4 eta Administrazioak eta Kudeaketak %7,7. Hain nabarmena ez den bigarren taldea honako hauek osatzen dute: Instalazioa eta Mantentzea (% 6,9), Irudi pertsonala (% 6,6), Informatika eta Komunikazioak (% 6,4), Ostalaritza eta Turismoa (% 5,7) eta Gizarte- eta kultura-zerbitzuak (% 4,5).

Goi mailako titulazioen artean, nabarmenak dira Gizarte- eta kultura-zerbitzuak (% 12,5), Administrazioa eta Kudeaketa (% 12,2), Elektrizitatea eta Elektronika (% 11,9) eta Fabrikazio mekanikoa (% 10,4). Bigarren taldea honako hauek osatzen dute: Informatika eta Komunikazioak (% 8,3), Osasuna (% 7,1) eta Instalazioa eta Mantentzea (% 6,4) eta Merkataritza eta Marketina (%5,1).

I.1.10. KOADROA. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK, GRADUAREN ETA ARLOAREN ARABERA. EAE, 2012-2013 IKASTURTEA				
	GUZTIRA		ME (% bertikala)	GM (% bertikala)
	N	% bertikala		
Guztira	31.734	100	100	100
Gorputz eta kirol jarduerak	948	3,0	1,5	4,0
Itsas arrantzako jarduerak	356	1,1	1,1	1,1
Administrazioa / Administrazioa eta kudeaketa	3299	10,4	7,7	12,2
Nekazaritzako jarduerak	448	1,4	1,9	1,1
Arte grafikoak	498	1,6	1,6	1,6
Merkataritza eta marketina	1.251	3,9	2,1	5,1
Eraikuntza eta herri lanak	630	2,0	0,8	2,8
Elektrizitatea eta elektronika	3.650	11,5	10,9	11,9
Energia eta ura	172	0,5	0,0	0,9
Fabrikazio mekanikoa	3.737	11,8	13,8	10,4
Ostalaritza eta turismoa	1.572	5,0	5,7	4,4
Irudi pertsonala	1.180	3,7	6,8	1,7
Komunikazioa, irudia eta soinua / Irudia eta soinua	547	1,7	0,8	2,4
Elikagaien industriak	138	0,4	1,0	0,1
Informatika / Informatika eta komunikazioak	2.383	7,5	6,4	8,3
Zura eta altzariak / Zura, altzariak eta kortxoak	331	1,0	2,1	0,3
Ibilgailu autopropultsatuak mantentzea /Ibilgailuen garraioa eta mantentzea	1.603	5,1	8,4	2,8
Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak /Instalazioa eta mantentzea	2.097	6,6	6,9	6,4
Kimika	508	1,6	0,5	2,3
Osasuna	3.265	10,3	15,1	7,1
Segurtasuna eta ingurumena	47	0,1	0,0	0,2
Gizarte-kulturako zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak	2.948	9,3	4,5	12,5
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	126	0,4	0,3	0,4

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaularitzaren Hezkuntza Saila.

Emakumeek gizonak baino partaidetza txikiagoa dute oraindik ere lanbide ikasketetan, batez ere laneratze hobeaz izan ohi duten profil teknikoko lanbide adarretan.

Alabaina, zenbait arlotan %75etik gorako partaidetza dago: Irudi pertsonala, Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza, Gizarte- eta kultura-zerbitzuak eta Osasuna. Eta bigarren taldean, %75etik beherako baina %50etik gorako ratioak daude: Administrazioa eta Kudeaketa, Merkataritza eta Marketina, Kimika eta Arte Grafiko, Ostalaritza eta Turismo eta Elikagaien Industrien goi mailako graduak.

I.1.11. KOADROA. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK, GRADU, ARLO ETA SEXUAREN ARABERA. EAE, 2012-2013 IKASTURTEA

FAMILIA		Maila ertaina	Goi maila
Gorpuz eta kirol jarduerak	Guztira	186	762
	Emakumeen %a	18,3	17,8
Itsas arrantzako jarduerak	Guztira	146	210
	Emakumeen %a	3,4	3,8
Administrazioa eta kudeaketa	Guztira	976	2.323
	Emakumeen %a	69,5	66,7
Nekazaritzaokoak	Guztira	242	206
	Emakumeen %a	22,7	17,0
Arte grafikoak	Guztira	198	300
	Emakumeen %a	39,4	51,0
Merkataritza eta marketina	Guztira	272	979
	Emakumeen %a	59,6	53,6
Eraikuntza eta herri lanak	Guztira	107	523
	Emakumeen %a	8,4	31,4
Elektrizitatea eta elektronika	Guztira	1.392	2.258
	Emakumeen %a	3,4	6,0
Energia eta ura	Guztira	0	172
	Emakumeen %a		9,9
Fabrikazio mekanikoa	Guztira	1.759	1.978
	Emakumeen %a	5,1	10,1
Ostalaritza eta turismoa	Guztira	727	845
	Emakumeen %a	31,6	52,7
Irudi pertsonala	Guztira	865	315
	Emakumeen %a	96,5	97,8
Komunikazioa, irudia eta soinua / Irudia eta soinua	Guztira	96	451
	Emakumeen %a	47,9	32,4
Elikagaien industriak	Guztira	128	10
	Emakumeen %a	43,8	60,0
Informatika eta komunikazioak	Guztira	808	1.575
	Emakumeen %a	12,1	16,4
Zura eta altzaria/Zura, altzaria eta kortxoak	Guztira	269	62
	Emakumeen %a	4,5	14,5
Ibilgailu autopropulsatuak mantentzea	Guztira	1.073	530
	Emakumeen %a	2,8	2,5
Mantentzea eta ekoizpenerako zerbitzuak	Guztira	874	1.223
	Emakumeen %a	2,4	4,8
Kimika	Guztira	65	443
	Emakumeen %a	58,5	56,9
Osasuna	Guztira	1.923	1.342
	Emakumeen %a	82,2	77,0
Segurtasuna eta ingurumena	Guztira	0	47
	Emakumeen %a		42,6
Gizarte-kulturako zerbitzuak eta erkidegoarentzakoak	Guztira	571	2.377
	Emakumeen %a	80,2	84,2
Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza	Guztira	41	85
	Emakumeen %a	87,8	91,8
GUZTIRA	Guztira	12.718	19.016
	Emakumeen %a	36,2	39,7

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila.

1.2.1.2. BILAKAERA IKASTETXEEN TITULARITATEAREN ETA EREDU SOZIOLINGUISTIKOEN ARABERA

EUSTATEk argitaraturiko datuen arabera, %50etik gorakoa da herri sarean matrikulaturiko ikasleen portzentajea (HHI eta hezkuntza berezirik gabe) maila guztietan, DBHn izan ezik: %46ko ratioa du sare publikoak eta %54koa sare pribatuak.

Nabarmena da sare publikoak erdi mailako LHN duen garrantzi handia: % 61,6.

Bestalde, hizkuntza ereduaren sistema abiarazi zenetik, euskalduntze prozesuak goranzko joera izan du. Hala, 2012-13 ikasturtean ikasleen %59 (HHI eta hezkuntza berezirik gabe) D ereduaren zegoen matrikulatuta; A ereduaren %21,2, eta B ereduaren berriz, %19,3.

Haur hezkuntzan, guztien %75 D ereduaren zegoen matrikulatuta 2012-2013 ikasturtean. A ereduak, berriz, matrikularen %3,6 jasotzen du. Lehen Hezkuntzan matrikulazioen % 67,5 D ereduari dagokio eta A ereduari % 6. DBHn D ereduaren % 59,4 da eta A ereduaren % 12,6. Eta Batxilergoan, hurrenez hurren, % 56,9 eta % 40,8ko ratioak dira.

Kontrakoa gertatzen da Lanbide Heziketan. Bertan erdi mailako LHko matrikulazioen % 22,3 eta goi mailako LHkoen % 25,2 baino ez dira D ereduaren egiten; A ereduaren, aldiz, % 76,7 eta % 72,8 hurrenez hurren.

I.1.12. KOADROA. EAE-KO IKASLEEN BANAKETAREN BILAKAERA IKASTETXEEN TITULARITATEAREN ARABERA*

	2010-11			2011-12			2012-13		
	Urtea	(%) Publikoa	(%) Pribatua	Guztira	(%) Publikoa	(%) Pribatua	Guztira	(%) Publikoa	(%) Pribatua
Haur Hezkuntza	94.818	52,1	47,9	96.577	52,7	47,3	96.713	52,7	47,3
Lehen Hezkuntza	117.193	50,1	49,9	120.288	50,2	49,8	122.139	50,3	49,7
DBH	70.516	45,5	54,5	72.144	46,0	54,0	73.940	46,0	54,0
Batxilergoa	28.769	52,4	47,6	28.968	52,2	47,8	29.444	51,4	48,6
Maila ertaineko L.H.	11.468	60,8	39,2	11.990	61,6	38,4	12.718	61,6	38,4
Goi mailako L.H.	17.401	52,9	47,1	17.689	54,1	45,9	19.016	55,0	45,0

* HHIrik eta hezkuntza berezirik gabe.

Iturria: EUSTAT

I.1.13. KOADROA. EAE-KO HIZKUNTZA EREDUEN BILAKAERA (% horizontalak*)

	2010-11			2011-12			2012-13		
	A	B	D	A	B	D	A	B	D
Guztira **	24,6	20,1	54,8	21,8	20,1	57,6	21,2	19,3	59,0
Haur Hezkuntza	4,1	22,7	72,7	3,8	21,7	74,0	3,6	20,9	75,0
Lehen Hezkuntza	7,4	28,1	63,8	6,7	27,1	65,5	6,0	25,8	67,5
DBH	15,4	28,0	55,9	13,9	27,6	57,7	12,6	27,3	59,4
Batxilergoa	43,8	1,7	53,8	43,3	2,0	54,0	40,8	1,6	56,9
Maila ertaineko L.H.	76,7	0,8	22,4	76,8	0,8	22,4	76,7	1,1	22,3
Goi mailako L.H.	72,1	2,5	25,5	73,0	2,5	24,4	72,8	2,0	25,2

* Portzentaje horizontalen artean ez dira 100era iristen, ez delako X eredu aintzat hartzen ** HHI eta hezkuntza berezirik gabe.

Iturria: EUSTAT

1.2.2. Unibertsitateko irakaskuntzak

1.2.2.1. UNIBERTSITATEKO LEHENENGO ETA BIGARREN ZIKLOAK ETA GRADUA EAE-N

Unibertsitateko matrikulazioa

EUSTATen Unibertsitateko Estatistikaren datuen arabera, 2011-2012 ikasturtean, 59.321 ikasle zeuden matrikulatuta unibertsitateko lehen eta bigarren ziklo eta graduko ikasketetan EAEko unibertsitateetan, hots, aurreko ikasturtean baino %0,3 gehiago.

Ikasle horietatik guztietatik % 47,7 lehen eta bigarren zikloetako ikasketetan zeuden matrikulatuta (lizentziaturak, arkitekturak eta ingeniariak, diplomaturak eta arkitektura eta ingeniariak teknikoak) eta % 52,3 Goi Mailako Hezkuntzako Europako Eremuaren (GMHEE) ondoriozko graduetako ikasketetan.

Gorako joerari eusten zaio garduetan matrikulaturiko ikasleen kopuruari aurreko urtearen aldean (%65), zeren eta urtez urte sendotuz baitoa unibertsitateko ikasketen egitura berria. Bestalde, horrek guztiak jaitsiera dakar lehen eta bigarren graduko ikasketak egiten dituztenen artean, %29,8koa hain zuzen ere.

Graduko ikasketetan arreta jarrita, ikasleen % 48 Gizarte Zientzietan eta Juridikoetan daude matrikulatuta, % 22,9 Ingeniaritzan eta Arkitekturan, % 11,9 Arteetan eta Giza Zientzietan, % 10,3 Osasun Zientzietan, % 5,3 Zientzietan, eta %1,5 bi titulu ari dira ikasten.

I.1.14. KOADROA. EAE-KO UNIBERTSITATEKO LEHEN ETA BIGARREN ZIKLOKO ETA GRADUKO IKASKETETAN MATRIKULATURIKO IKASLEEN KOPURUAREN BILAKAERA

	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09	2009/10	2010/11	2011/12	% aldak. 11-12
1 eta 2. zikloetan matrikul.									
Guztira	69.696	66.322	63.691	61.649	59.118	55.088	40.335	28.323	-29,8
Gizonak	31.746	30.219	29.048	27.831	26.691	24.888	18.534	13.358	-27,9
Emakumeak	37.950	36.103	34.643	33.818	32.427	30.200	21.801	14.965	-31,4
Titularitate publikoa	54.180	51.758	49.953	48.580	47.490	46.347	34.446	24.924	-27,6
Titularitate pribatua	15.516	14.564	13.738	13.069	11.628	8.741	5.889	3.399	-42,3
Gradua									
Guztira					381	4.646	18.792	30.998	65,0
Arteak eta giza zientziak					.	718	2.571	3.205	24,7
Zientziak					.	1	651	1.656	154,4
Osasunaren zientziak					.	512	2.420	3.699	52,9
Gizarte zientziak eta juridikoak					84	2.187	8.244	14.871	80,4
Ingenieritza eta arkitektura					297	1.228	4.905	7.113	45,0
Titulu bikoitzak								454	
Gizonak					249	2.163	8.748	14.264	63,1
Emakumeak					132	2.483	10.044	16.734	66,6
Titularitate publikoa						1.487	13.677	22.122	61,7
Titularitate pribatua					381	3.159	5.115	8.876	73,5
GUZTIRA	69.696	66.322	63.691	61.649	59.499	59.734	59.127	59.321	0,3
Gizonak	31.746	30.219	29.048	27.831	26.940	27.051	27.282	27.622	1,2
Emakumeak	37.950	36.103	34.643	33.818	32.559	32.683	31.845	31.699	-0,5
Titularitate publikoa	54.180	51.758	49.953	48.580	47.490	47.834	48.123	47.046	-2,2
Titularitate pribatua	15.516	14.564	13.738	13.069	12.009	11.900	11.004	12.275	11,6

Iturria: EUSTAT

Matrikulatu direnen % 53,4 emakumeak dira, eta gizonak, aldiz, % 46,6. Emakumeen agerpena ohikoagoa da bi ikasketan motetan: lehen eta bigarren zikloetan (% 52,8) eta gradukoetan (% 54).

Zentroen titulartasunaren arabera, ikasleen % 79,3 unibertsitate publikora doaz eta % 20,7 pribatuan matrikulatu dira.

Graduatu ondokoetan matrikulaturiko ikasleen kopuruan %10eko hazkundera izan da, master ofizialak egiten dituzten ikasleak direla-eta: %23ko igoera izan da masterretan. Doktoregoetan, berriz, egonkor eusten zaio matrikulazioari.

I.1.15. KOADROA. GRADUATU ONDKOETAN MATRIKULATURIKO IKASLEAK 2011-12 IKASTURTEAN					
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Unib. Publikoak (%)	Unib. Pribatuak (%)
Guztira	7.151	3.023	3.948	77	23
Master ofizialak	4.122	1.766	2.356	62	38
Doktoregoak	3.029	1.437	1.592	97	3

Iturria: EUSTAT

Unibertsitateko graduatzea

2011-12 ikasturtean, guztira, 12.253 pertsonak eskuratu zuten graduatua; horietatik %60 emakumezkoak. Hots, %4,7ko jaitziera 2010-11 ikasturtearekiko (%-3,8 gizonzkoentzat eta %-5,3 emakumezkoentzat).

Graduatu horietatik gehienak ikastetxe publikoan izan ziren, %75. Ikastetxe pribatuetan, berriz, %25 izan zen.

Ikasketa motei dagokienez, 8.791ek lehen eta bigarren zikloan promozionatu zuten (%-12,3 aurreko ikasturtearekiko), 762 graduatan, 2.278 master ofizialean (%+17,1) eta 422 doktore graduatu ziren (%-19,8).

Lehen eta bigarren zikloko eta graduatuko ikasketei dagokienez, unibertsitateko ikasleen erdia baino gehiago espezializatu zen Gizarte Zientzietan eta Zientzia Juridikoetan (%53), eta ondoren, %28arekin, Ingeniaritzan eta Arkitekturan. Neurri txikiagoan izan ziren Arte eta Giza Zientzietan (%8), Osasunaren Zientzietan (%5,8) eta Zientzietan (%5).

I.1.16. KOADROA. EAE-KO LEHEN ETA BIGARREN ZIKLOKO ETA UNIBERTSITATEKO GRADUKO IKASKETETAN GRADUATURIKO PERTSONEN KOPURUAREN BILAKAERA

	2005/2006	2006/2007	2007/2008	2008/2009	2009/2010	2010/11	2011/12	Aldak.
Graduatuak eta 1 eta 2. Ziklo								
Guztira	11.400	10.625	10.726	10.170	10.348	10.025	8.791	-12,3
Osasunaren Zientziak	652	686	687	672	739	678	555	-18,1
Zientzia Esperimentalak	643	583	505	463	423	382	439	14,9
Gizarte zientziak eta juridikoak	5.571	5.155	5.040	5.138	5.289	5.325	4.597	-13,7
Irakaskuntza teknikoak	3.630	3.384	3.698	3.178	3.155	2.911	2.439	-16,2
Giza zientziak	904	817	796	719	742	729	761	4,4
Gizonak	4.581	4.334	4.472	4.065	4.233	4.053	3.630	-10,4
Emakumeak	6.819	6.291	6.254	6.105	6.115	5.972	5.161	-13,6
Titularitate publikoa	7.939	7.506	7.334	7.181	7.397	7.486	7.119	-4,9
Titularitate pribatua	3.461	3.119	3.392	2.989	2.951	2.539	1.672	-34,1
Gradua								
Guztira					150	363	762	109,9
Arteak eta giza zientziak								
Zientziak						25	51	104,0
Osasunaren zientziak								
Gizarte zientziak eta juridikoak					150	338	479	41,7
Ingeniaritza eta arkitektura							232	
Titulu bikoitzak								
Gizonak					16	93	309	232,3
Emakumeak					134	270	453	67,8
Titularitate publikoa						191	321	68,1
Titularitate pribatua					150	172	441	156,4
Graduatu ondo								
Guztira		313	742	848	1.517	1.946	2.278	17,1
Gizonak		125	277	291	558	806	884	9,7
Emakumeak		188	465	557	959	1.140	1.394	22,3

I.1.16. KOADROA. EAE-KO LEHEN ETA BIGARREN ZIKLOKO ETA UNIBERTSITATEKO GRADUKO IKASKETETAN GRADUATURIKO PERTSONEN KOPURUAREN BILAKAERA								
	2005/2006	2006/2007	2007/2008	2008/2009	2009/2010	2010/11	2011/12	Aldak.
Titularitate publikoa		175	414	510	835	1.260	1.418	12,5
Titularitate pribatua		138	328	338	682	686	860	25,4
Doktoregoak								
Guztira	320	303	309	363	362	526	422	-19,8
Gizonak	179	164	159	160	186	274	204	-25,5
Emakumeak	141	139	150	203	176	252	218	-13,5
Titularitate publikoa	258	234	251	289	305	315	324	2,9
Titularitate pribatua	62	69	58	74	57	211	98	-53,6
GUZTIRA	11.720	11.241	11.777	11.381	12.377	12.860	12.253	-4,7
Gizonak	4.760	4.623	4.908	4.516	4.993	5.226	5.027	-3,8
Emakumeak	6.960	6.618	6.869	6.865	7.384	7.634	7.226	-5,3
Titularitate publikoa	8.197	7.915	7.999	7.980	8.537	9.252	9.182	-0,8
Titularitate pribatua	3.523	3.326	3.778	3.401	3.840	3.608	3.071	-14,9

Iturria: EUSTAT

1.2.3. Hezkuntza adierazleak

Hezkuntza eta Prestakuntza Estrategia 2020 berrian ezarritako helburuek lehengo Estrategia 2010ean zehaztutako batzuk eguneratu eta berri batzuk gehitu dituzte.

Epigrafe honetan EUROSTATEk, EUSTATEk eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko Hezkuntza Ebaluazioko Institutu Nazionalak (HEIN) eskaintako informaziotik aurrera hezkuntza adierazle batzuen bilakaera aztertu da, Adierazleen Sailkapena (Hezkuntza Adierazleen Estatu Sistema) kontuan hartuta.

HELBURUAK	EUROPAKO ERREFERENTZIA 2020RAKO
OE 1. ikaskuntza errealtate bihurtzea bizitza osoan eta mugikortasuna	25 eta 64 urte bitarteko helduen %15ek gutxienez hartu beharko luke parte etengabeko prestakuntzan. Mugikortasun fisikoa herrialdeen artean goi mailako hezkuntzaren arloan eta lanbide heziketa eta irakasleen mugikortasuna sartzeko posibilitatearekin.
OE 2. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea	Irakurmenean, matematikan eta zientzietan oinarritzko gaitasunen errendimendu txikiko 15 urteko ikasleen portzentajeak %15etik beherakoa izan beharko luke. Atzerriko hizkuntzen gaineko erreferentzia puntua. Enpleguaren gaineko erreferentzia puntua.
OE 3. Zuzentasuna, gizarte-kohesioa eta herritartasun aktiboa sustatzea	Lau urteko adinaren eta Lehen Hezkuntzaren hasierako adinaren arteko haurren %95ek gutxienez hartu beharko lukete parte Haur Hezkuntzan. Haur Hezkuntzako partaidetza handia du xede, ondorengo hezkuntzan arrakasta lortzeko oinarri legez, bereziki egoera txarreko inguruneetakoak direnean. Hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehen uzten dutenen ehunekoak %10etik beherakoa izan beharko luke. 18-24 urteko gazteen artean. DBH arrakastaz bukatzen duten ikasleen kopurua handitzea.
OE 4. Sormena eta berrikuntza finkatzea, ekintzailtza sartuta hezkuntza eta prestakuntza maila guztietan	Hirugarren hezkuntza arrakastaz bukatu duten 30-34 urteko pertsonen portzentajeak gutxienez %40koa izan beharko luke.

I.1.17. KOADROA. ADIERAZLEEN SAILKAPENA (HEZKUNTZAREN ADIERAZLEEN ESTATUKO SISTEMA)

Eskolaratzea eta hezkuntza ingurua	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskolaratzea eta biztanleria 2. Eskolaratze -tasak derrigorrezkoak ez diren mailetak adin teorikoetan (INSN 0, 3, 4 eta 5) 3. Ikasle atzerritarrak 4. Ikasleak talde eta ikasleko <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleak hezkuntza taldeko • Ikasleak irakasleko 5. Etengabeko ikaskuntzako parte-hartzea.
Hezkuntza finantzaketa	<ol style="list-style-type: none"> 6. Hezkuntza gastua, guztira <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntzako guztizko gastua BPGarekiko. • Hezkuntzako gastu publikoa • Itunetarako gastu publikoa 7. Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko.
Hezkuntzako emaitzen adierazleak	<ol style="list-style-type: none"> 8. Oinarrizko gaitasunak Lehen Hezkuntzako laugarren mailan 9. Oinarrizko gaitasunak DBHko bigarren mailan 10. Funtsezko gaitasunak 15 urtean (irakurmenean, Matematikan eta Zientzietan) 11. Egokitasuna ikaslearen adinean. 12. Eskola garaia baino lehen uztea. 13. Graduatze tasak (INSN 2, 3, 5 eta 6) <ul style="list-style-type: none"> • DBHko graduatze tasa gordina • Derrigorrezkoen ondorengoko bigarren mailako ikasketen tasa gordinak • Goi mailako ikasketen graduatze tasa gordinak • Goi mailako Zientzietan, Matematikan eta Teknologian graduaturiko pertsonen tasa 14. Helduen ikasketa maila 15. Gazteen prestakuntza maila 16. Jarduera- eta langabezia-tasak hezkuntza mailaren arabera 17. Laneko diru-sarreraren aldea ikasketa mailaren arabera

1.2.3.1. ESKOLARATZEA ETA HEZKUNTZA INGURUNEA

Eskolaratze-tasa garbiak

Kontsideraturiko irakaskuntzan ikasten duen adin edo adin-talde bateko ikasleek adin edo adin-talde bereko biztanle guztiekiko duten erlazioari deritzo eskolaratze-tasa garbia.

HZGMk 2014an argitaraturiko *Espainiako Hezkuntzaren zifrak* deritzon txostenaren datuen arabera, Espainiako Estatuak haur hezkuntzako eskolaratze-tasarik handienetakoa du 27ko EBko herrialdeen artean 2010-11 ikasturtean. 5 eta 16 urte bitartekoetan ere handiagoak dira tasak, baina adin horretatik hasita, hots, 17 eta 18 urterekin, batez bestekoak handiagoak dira EBn Estatuan baino: 17 urterekin %89,9, %88,4aren aldean; 18 urterekin berriz, %80,7, %79,8aren aldean.

I.1.18. KOADROA. ESKOLARATZE-TASA GARBIA TASAS ADIN ESANGURATSUETAN. 2010-11 IKASTURTEA

	3 urte	4 urte	5 urte	15 urte	16 urte	17 urte	18 urte
27-EB	82,2	91,7	95,6	96,6	94,8	89,9	80,7
Alemania	89,9	95,6	97,1	99,0	99,3	96,9	90,1
Austria	60,4	91,5	97,2	94,3	90,2	87,8	72,3
Belgika	97,8	98,1	98,1	99,9	99,0	99,0	89,9
Bulgaria	73,1	78,9	86,3	92,4	88,4	84,7	81,7
Kroazia	51,8	57,4	62,0	100,4	99,6	90,4	66,9
Zipre	43,7	73,3	97,3	89,6	89,4	85,5	34,4
Danimarka	90,5	97,5	98,3	98,6	94,1	89,0	84,8
Eslovenia	82,8	88,9	90,7	97,8	96,9	95,1	92,1
Espainia	96,6	100,0	99,8	98,4	96,1	88,4	79,8
Estonia	84,6	89,1	89,4	99,7	98,8	100,4	87,3
Finlandia	48,7	57,4	66,7	98,9	95,1	94,8	93,8
Frantzia	99,6	100,0	100,1	97,1	92,8	88,5	76,6
Grezia	..	54,3	95,6	97,7	95,7	96,1	70,4
Hungaria	74,1	92,9	96,2	99,3	100,0	98,1	89,2
Irlanda	46,6	93,9	98,3	103,0	102,5	96,5	94,9
Italia	92,3	96,2	97,3	96,3	91,9	87,7	79,1
Letonia	77,6	85,9	95,5	100,0	99,1	97,1	95,6
Lituania	69,8	73,2	77,3	99,6	99,3	98,7	100,1
Luxenburgo	72,0	94,6	96,7	93,7	88,7	80,2	72,0
Malta	45,5	100,0	101,1	98,3	126,9	75,5	58,2
Herbehereak	86,7	99,6	99,5	99,8	98,8	97,5	89,1
Polonia	47,6	62,2	79,3	96,5	96,7	95,4	93,2
Portugal	79,4	92,6	98,1	101,0	99,2	88,5	77,5
Txekiar Er.	58,5	83,7	92,2	100,0	98,3	96,8	90,3
Eslovakiar Er.	60,1	72,3	81,5	98,0	94,1	91,1	84,5
Erresuma Batua	85,7	97,1	99,7	96,1	94,5	82,4	61,3
Errumania	66,7	78,4	85,7	94,9	93,9	80,6	73,3
Suedia	92,0	94,0	95,3	95,0	99,7	98,5	95,8

Iturria: Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa

I.1.19. KOADROA. ESKOLATZE-TASA GARBIAK DERRIGORREZKOAREN ONDORENGO ADINETAN, AAEEen ARABERA*

	16 urte		17 urte		18 urte	
	2006-07	2011-12	2006-07	2011-12	2006-07	2011-12
GUZTIRA	92,7	96,7	82,1	91,1	69,1	78,7
Andaluzia	89,8	99,1	77,2	96,5	64,7	77,1
Aragoi	94,9	96,1	85,1	89,1	68,8	79,5
Asturias	100,0	93,5	95,5	93,0	77,3	81,6
Balearrak	86,1	87,5	71,5	80,3	47,7	56,5
Kanariak	96,1	95,0	84,7	89,0	67,0	71,8
Kantabria	99,4	97,0	91,1	95,3	73,0	77,9
Gaztela eta Leon	98,8	99,5	92,5	94,2	81,5	87,2
Gaztela-Mantxa	94,3	97,1	83,5	89,9	56,8	67,9
Katalunia	93,4	96,5	77,9	87,3	62,5	75,0
Valentzia	85,6	93,5	76,6	86,9	63,7	75,4
Extremadura	96,8	97,3	86,5	88,6	68,4	70,5
Galizia	98,0	97,3	90,4	92,4	76,6	79,0
Madril	92,7	96,9	83,2	91,7	81,1	94,6
Murtzia	90,0	94,8	77,2	87,6	62,2	75,8
Nafarroa	92,5	95,6	87,3	90,5	78,7	82,8
EAE	99,0	99,8	98,9	98,4	93,3	91,7
Errioxa	93,8	97,9	84,8	91,5	58,4	65,8
Ceuta	99,1	95,2	80,7	84,9	51,3	62,3
Melilla	94,4	92,0	84,0	81,6	54,1	65,2

(*) Honakoak sartzen dira: Unibertsitateko eta ez unibertsitateko erregimen orokorreko irak., erregimen bereziko irak. (Arte Plastikokoak eta Diseinua, kirol irak., Musika eta Dantzako lanbide irak., maila aurreratuko hizkuntzak eta goi graduako arte irak.), unibertsitatekoaren pareko irak., lanbide heziketa eta helduen irak. (oinarrizkoa eta bigarren mailakoa).
Iturria: Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa

Derrigorrezkoaren ondoko adineko (16, 17 eta 18) ikasleen eskolaratze-tasa garbiei buruz AAEEen arabera eginiko azterketan, lehenik eta behin esan beharra dago Estatuko batez bestekoek behera egiten dutela adinak gora egin ahala (2011-12 ikasturtean %96,7 dira 16 urterekin, %91,1 17 urterekin eta %78,7 18 urterekin) Bigarrenik, gora egin dutela 2006-07 eta 2011-12 ikasturteen

artean, honela, hurrenez hurren: %92,7tik %96,7ra (16 urtekoen ratioak), %82,1etik %91,1era (17 urtekoen ratioak) eta %69,1etik %78,7ra (18 urtekoen ratioak).

Txosten horrek dakarrenez, estatuko eskolaratze-tasak maizen gaintzen dituzten AAEEen artean dago EAE aipaturiko hezkuntza maila horietan. Izan ere, 16 urtekoen dagokien ratioa, 2011-12 ikasturtean, %96,7koa da EAEn, 17 urtekoen %98,4 eta 18 urtekoen berriz, %91,7. Alabaina, ikusten denez, tasa txikiagoak dira 2011-12 ikasturtean 2006-07 ikasturtean baino, 17 urterekin eta 18 urterekin.

Ikasle atzerritarrek

I.1.20. KOADROA. UNIBERTSITATEKOA EZ DEN ERREGIMEN OROKORREKO IRAKASKUNTZETAN MATRIKULATURIKO IKASLE ATZERRITARREN EHUENKOA. 2011-12 IKASTURTEA

	GUZTIRA	Haur H.	Lehen H.	DBH	Batxilergoa	LH-Erdi maila	LH-Goi maila	HLHP
GUZTIRA	9,5	7,5	9,7	12,0	6,8	9,7	6,1	20,9
Andaluzia	5,5	4,5	5,8	7,2	4,3	4,1	3,7	7,5
Aragoi	12,6	12,0	13,8	13,6	6,3	13,4	6,5	33,7
Asturias	5,0	2,3	5,3	7,8	3,4	5,5	2,7	19,1
Balearrak	14,7	11,9	14,9	18,7	10,9	12,4	8,2	27,9
Kanariak	7,6	4,8	7,3	10,4	7,8	6,8	6,3	12,8
Kantabria	7,0	3,5	6,5	9,9	5,8	9,8	9,0	25,4
Gaztela eta Leon	7,8	6,2	8,6	9,3	4,0	6,5	4,5	23,7
Gaztela-Mantxa	9,2	7,5	10,4	11,2	5,6	7,2	4,6	15,6
Katalunia	13,3	10,7	13,1	17,3	9,8	17,3	8,5	34,4
Valentzia	10,8	7,7	10,8	14,8	9,4	10,7	7,2	21,0
Extremadura	3,3	2,5	3,8	3,8	2,0	2,2	2,1	3,3
Galizia	3,8	1,9	4,2	5,2	2,5	3,5	3,1	10,9
Madril	12,9	10,3	13,3	16,5	10,2	14,6	8,2	32,8

I.1.20. KOADROA. UNIBERTSITATEKOA EZ DEN ERREGIMEN OROKORREKO IRAKASKUNTZETAN MATRIKULATURIKO IKASLE ATZERRITARREN EHUNEKOA. 2011-12 IKASTURTEA

	GUZTIRA	Haur H.	Lehen H.	DBH	Batxilergoa	LH-Erdi maila	LH-Goi maila	HLHP
Murtzia	11,9	10,0	12,2	14,9	7,8	11,3	6,1	19,8
Nafarroa	9,5	5,8	10,6	12,0	5,2	10,2	6,4	28,2
EAE	7,1	5,3	7,0	8,5	5,0	9,8	6,3	37,4
Errioxa	16,3	15,3	17,5	18,3	7,2	12,1	8,1	41,7
Ceuta	3,8	4,5	3,3	2,6	2,1	3,1	3,3	15,7
Melilla	8,0	9,2	9,1	7,3	5,9	3,7	3,3	8,7

Iturria: Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa

Adierazle honen helburua ikasle horiek hezkuntza etapetan duten banaketa eta haien azken ikasturteetako bilakaera zein diren jakitea da.

INEEren *Hezkuntzaren adierazleen estatuko sistema* (2012ko edizioa) deritzon txostenaren datuek erakusten dutenez, etengabeko eta pixkanakako hazkundera izan zen ikasle atzerritarrek unibertsitatekoa ez den ikasle guztiekiko duten ratioan 1999-2000tik 2009-10era arteko ikasturteen artean, halako moldez non %1,4tik %10,0ra igaro baita portzentajea.

HZGMren arabera, 2011-12 ikasturterako datuek ratioaren jaitsiera txikia erakusten dute aurreko ikasturtearen aldean (aipaturiko %10etik %9,5era). Autonomia erkidegoen banaketan ikusten denez, ikasle atzerritar gehiago metatzen dira Errioxan (%16,3), Balearretan (%14,7) eta Katalunian (%13,3). Ikasle atzerritarrak %5-%8 bitartean diren erkidegoen artean dago EAE: Melilla (%8), Gaztela-Leon (%7,8), U. Kanariarrak (%7,6), Kantabria (%7), EAE (%7,1), Andaluzia (%5,5) eta Asturias (%5). Galizian eta Ceutan (bietan %3,8) eta Extremaduran (%3,3) dago ikasle atzerritarren ehunekorik txikiena.

EAEri dagokionez, 2011-12 ikasturtean, hezkuntza mailen arabera, hauexetan daude ehunekorik handienak: HLHP (%37,4; Estatuko batez bestekoa %20,9 da), DBH (%8,5; Estatuko batez bestekoa %12 da) eta gradu erdiko LH (%9,8; Estatuko batez bestekoa %9,7 da).

I.1.21. KOADROA. IKASLEEN BATEZ BESTEKO KOPURUA IRAKASLE BAKOITZEKO.2010-11

	Haur H.	Lehen H.	Bigarren H.	Goi mailako H.
EB (1)				
Alemania	12,7	16,3	14,0	11,4
Austria	14,0	12,1	9,4	16,6
Belgika (2)	16,1	12,4	9,4	20,1
Danimarka	..	x(4)
Eslovenia	9,4	16,0	11,0	19,2
Espainia	12,8	13,2	10,1	11,5
Estonia	6,8	13,2	11,9	..
Finlandia	10,8	13,7	13,1	13,6
Frantzia (2)	21,1	18,4	12,3	17,5
Grezia
Hungaria	11,2	10,7	11,5	16,3
Irlanda (3)	..	15,7	14,4	14,6
Italia (3)	11,8	11,7	12,2	19,0
Luxenburgo	11,4	9,9	9,6	..
Herbehereak (3)	15,5	15,8	16,7	15,1
Polonia	16,1	11,0	10,6	15,6
Portugal (5)	15,8	11,2	7,7	14,6
Txekiar Er.	13,9	18,7	11,4	21,0
Eslovakiar Er.	12,4	16,9	13,7	14,5
Erresuma Batua	17,1	19,9	16,3	17,9
Suedia	6,3	11,3	12,2	12,1
ELGAko gainerako herrialdeak				
Australia (3) (4)	..	15,6	12,0	..
Kanada (3) (datuak: 2010)	x(4)	x(4)	15,3	..
Korea	16,3	19,6	17,2	..
Txile	21,9	23,1	24,8	..
Estatu Batuak	13,1	15,3	15,2	16,2
Islandia	5,8	10,2	11,1	11,3
Japonia	15,6	18,1	13,1	..
Mexiko	25,2	28,1	29,9	14,4
Norvegia	..	10,4	9,8	9,3
Zeelanda Berria	7,2	16,3	15,1	17,7
Suitza (4)
Turkia	23,1	21,0	17,8	18,9
ELGAko herrialdeen b.b.	14,4	15,4	13,6	15,6
EB (21 herrialde)	13,1	14,1	12,0	15,9

(1) Kanpora utzi dira EBko 21 herrialdeak, ELGAko hemeretzi eta 2 elkartu (Eslovenia eta Estonia).

(2) Soilik funts publikoekin finantzaturiko erakundeak.

(3) Soilik erakunde publikoak (G. Hezkuntza Irlandan, H. Hezkuntza, Lehen eta Bigarren Hezkuntza Italian, 5A eta 6 G. Hezkuntza Australian, G. Hezkuntza Kanadan eta Lehen eta Bigarren Hezkuntza Errusiar Federazioan).

(4) Barruan sartzen dira soilik Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako hezkuntza orokorreko programak.

(6) Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta hirugarrenekoa ez den bigarren hezkuntzaren ondokoaren irakasleen zenbaketari dagokio datua.

Iturria: Hezkuntzaren egoera 2013. Legearen adierazleak Espainiako Hezkuntzaren zifretan. 2013ko edizioa

I.1.22. KOADROA. LANALDI OSOKO IRAKASLE BAKOITZEKO DAUDEN IKASLEEN BATEZ BESTEKO KOPURUA, IKASTETXE MOTAREN ETA TITULARITATEAREN ARABERA. UNIBERTSITATEKOA EZ DEN ERREGIMEN OROKORREKO IRAKASKUNTZA. 2011-12 IKASTURTEA

	GUZTIRA	Haur H.ko ikastetxeak	Lehen H.ko ikastetxeak	LH eta DBHko ikastetxeak	Batxilergo edota LHko ikastetxeak	Lehen H., DBH eta Batx./LHko ikastetxeak	H. Bereziko ikastetxeak
Estatua. Ikastetxe guztiak	12,1	9,8	13,0	14,5	9,9	16,5	3,9
Estatua. Publikoak	11,1	9,2	12,9	8,9	9,7	7,6	3,3
Estatua. Pribatuak	15,2	10,6	15,2	16,0	13,8	16,5	4,5
Pribatu eta publikoen dif.	4,1	1,4	2,3	7,1	4,1	8,9	1,2
EAE. Ikastetxe guztiak	11,8	10,3	10,7	15,3	8,2	18,7	4,4
EAE. Publikoak	8,9	5,5	10,6	8,3	7,4	11,6	1,6
EAE. Pribatuak	17,3	-	16,0	15,7	14,2	18,4	5,0
Pribatu eta publikoen dif.	8,4	-	5,4	7,4	6,8	6,8	3,4

(*). Lanaldi osoaren parekoa. Espainiako Hezkuntzaren zifrak, 2014ko edizioa

Ikasleak irakasleko

Lanaldi osoaren pareko lanaldia duten irakasleak zati ikasle batez besteko kopurua egin behar da kalkulua egiteko, hezkuntza maila bakoitzean.

ELGak argitaraturiko *Hezkuntzaren egoera 2013* deritzon txostenaren datuen arabera, ikasle ratioa ertain-txikia da irakasleko, unibertsitatekoa ez den irakaskuntzan Espainian, 2010-11 ikasturtean: 12,8 ikasle irakasleko Haur Hezkuntzan, 13,2 Lehen Hezkuntzan eta 10,1 Bigarren Hezkuntzan. Hona hemen batez bestekoak ELGAN: 14,4 Haur Hezkuntzan, 15,4 Lehen Hezkuntzan eta 13,6 Bigarren Hezkuntzan.

Nolabaiteko bateratasunik eza ageri da herrialdeen arteko azterketan, herrialde eta hezkuntza mailaren arabera.

Goi mailako hezkuntzan, Estatuko datua oraindik ere ELGAKo batez bestekoa baino txikiagoa da, baina kasu honetan ratio txikiagoa da unibertsitatekoa ez den irakaskuntzan ikusitakoetan baino (11,5 eta 15,6).

HZGMren arabera, lanaldi osoaren parekoan diharduten ikasle batez besteko kopuruak ezberdintasunak ditu unibertsitatekoa ez den erregimen orokorreko irakaskuntzan, ikastetxearen arabera; hala gertatzen da Estatuan eta EAEn.

Hala, irakaskuntza horien batez bestekoa 8,9 ikaslekoa da herri ikastetxeetan EAEn; ikastetxe pribatuetan, berriz, 17,3rainokoa da (8,4 ikasle gehiago). Alderik handiena Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeetan dago (7,4 ikasle gehiago), eta ondoren Batxilergoko eta LHko ikastetxeak datoz (6,8 ikasle gehiago).

Etengabeko ikaskuntza parte hartzea

Etengabeko ikaskuntza bizitza osoan bai hezkuntza sistema formaletan bai beste jarduera ez formal batzuetan jasotako prestakuntza da. Estatistikoki inkestaren aurreko lau asteetan adin bereko biztanle guztien gainean

I.1.23. KOADROA. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA AAEEn ARABERA (Ikasketak egiten ari diren 25-64 urte bitarteko pertsonen portzentajea)

	GUZTIRA		GIZONAK		EMAKUMEAK	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012
GUZTIRA	10,8	10,7	10,0	9,9	11,6	11,6
Andaluzia	9,9	9,9	9,3	9,8	10,4	10,1
Aragoi	12,5	12,1	11,8	10,9	13,2	13,3
Asturias	9,4	9,1	8,8	8,6	10,0	9,6
Balearrak	10,1	10,1	9,6	9,8	10,6	10,4
Kanariak	10,6	10,8	9,6	9,6	11,5	12,0
Kantabria	8,8	9,5	8,6	8,5	9,1	10,5
Gaztela eta Leon	11,4	11,2	10,2	9,7	12,7	12,9
Gaztela-Mantxa	9,7	9,5	9,3	9,5	10,1	9,6
Katalunia	9,1	8,7	8,0	7,4	10,2	9,9
Valentzia	11,5	12,4	11,0	11,7	12,0	13,0
Extremadura	10,9	10,1	10,6	9,4	11,2	10,7
Galizia	10,9	10,4	10,0	9,4	11,7	11,4
Madril	12,5	12,3	11,8	11,3	13,2	13,3
Murtzia	10,4	10,5	10,7	11,0	10,0	9,9
Nafarroa	13,6	12,9	11,9	11,8	15,4	14,1
EAE	12,9	13,7	10,8	11,5	15,0	15,9
Errioxa	10,6	11,2	9,1	9,7	12,1	12,9
Ceuta eta Melilla	13,5	10,3	12,0	10,4	15,1	10,0

Eurostatek ezarritako metodologiarekin kalkulatu, hiru hilabetez dagozkion datuen urteko batez bestekoak oinarri hartuta. Espainiako EPAN erabilitako metodologian ez bezala, "oporretako ikasleak" ez dira hezkuntzako partaidetza hartzen.

Kontuz hartu behar dira datuak, laginketa txikiaren ondoriozkoetan laginketa akatsak izan baitaitezke.

Iturria: Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa

etengabeko hezkuntza edo prestakuntzako ekintza batean parte hartzen duten 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen portzentajea da (galderari erantzuten ez diotenak kontuan hartu gabe).

Etengabeko ikaskuntzan parte-hartzearen arloan EBk 2020rako ezarritako helburuaren arabera, 25-64 urteko helduen % 15ek, gutxienez, hartuko du parte etengabeko ikaskuntzako jardueraren batean.

Datuek agerian uzten dutenez, helburu hori oraindik urrun dago, zeren eta, EUROSTATen arabera, etengabeko prestakuntzako ikastaroak egiten dituztenen batezbestekoa % 9koa baita 27ko EBn eta % 10,7 Estatuan. Hala eta guztiz ere, herrialdeen artean alde handiak daude. Batzuek prestakuntza jasotzen duten helduen portzentaje handiak (% 20tik gorakoak) dituzte, adibidez, Danimarkak, Suediak eta Finlandiak; beste muturrean, aldiz, % 3tik beherako portzentajea dutenak daude: Bulgaria, Grezia, Errumania eta Hungaria.

Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa deritzon txostenaren datuen arabera, 2012an, Espainiako biztanle helduen %10,7k hartu du parte etengabeko prestakuntzako jardueraren batean, eta ratorik handienak Nafarroan (%12,9), EAEn (%13,7) eta Aragoi (%12,1) bildu dira. Estatu mailan, emakumeen partaidetza handiagoa da (%11,6) gizonekoena baino (%9,9). Emakumeen partaidetza gizonena baino handiagoa duten erkidegoen artean, nabarmenak dira Nafarroa eta EAE, emakumeen aldeko 5,1 puntu portzentualeko aldea baitaude.

1.2.3.2. GASTUA HEZKUNTZAN

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gastua, 2012an, 2.625 milioi eurokoa izan zen.⁷ Horrek % 3,3ko jaitsiera dakar aurreko ekitaldiaren aldean. Zenbateko horrek %25,6ko partaidetza dauka Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuaren barruan, aurreko urtean baino 1,1 gutxiago. Zenbateko hori EAEko BPGd-ren % 4,1 da, aurreko urteko portzentaje bera.

Hezkuntza Departamentuaren gastuaren ikasleko ratioa (ikasle guztiak, hau da, araubide orokorrekoak zein berezikoak: Arte Plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak, Musika, Dantza, Kirola eta goi mailako Diseinu ikasketak) jaitsiera izan du 2011 eta 2012 bitartean, 5.891 eurokoa izatetik 5.550 eurokoa izatera pasatu baita.

Bestalde, 2013ko⁸ aurrekontuetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailerako kontu-saila 2.630 milioi eurokoa da. Horrek %0,2ko gehikuntza dakar aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean. Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan duen partaidetza portzentajea % 28,2 da. Gastu hori EAEko BPGd-aren %4,1 da, eta egonkor eutsi dio berriz ere aurreko urtearen aldean.

Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa deritzon txostenaren datuen arabera, Hezkuntzako gastu publikoa 2.7396. milioi eurokoa izan zen 2011n (aurreko urtean 2.782 milioi euro izan ziren); Estatuan 44.080 milioi euroko gastua dagokie hezkuntza administrazioei (2010ean 45.670 milioi eurokoa izan zen).

1.1.24. KOADROA. IKASLEKO GASTU PUBLIKOA UNIBERTSITATEKOA EZ DEN IRAKASKUNTZAN (1) AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA

	Ikasleko gastu publikoa ikastetxe publikoan eta itunpekoan (euroak)		Ikasleko gastu publikoa ikastetxe publikoan (euroak)	
	2010 (2)	2011	2010 (2)	2011
GUZTIRA	5.441	5.206	6.369	6.057
Andaluzia	4.692	4.582	5.261	5.150
Aragoi	5.410	5.138	6.403	6.032
Asturias	6.553	6.088	7.870	7.236
Balearrak	5.993	5.633	7.265	6.746
Kanariak	5.091	4.745	5.723	5.315
Kantabria	6.211	5.972	7.457	7.135
Gaztela eta Leon	5.899	5.656	7.287	6.830
Gaztela-Mantxa	5.809	5.996	6.318	6.534
Katalunia	5.342	5.071	6.384	6.003
Valentzia	5.534	5.098	6.336	5.781
Extremadura	5.685	5.623	6.434	6.334
Galizia	6.409	6.062	7.551	7.104
Madril	4.567	4.296	5.478	5.049
Murtzia	5.337	5.100	6.078	5.767
Nafarroa	7.046	6.659	8.929	8.352
EAE	7.297	7.112	10.472	10.134
Errioxa	5.666	5.228	6.919	6.351
Ceuta	6.108	5.618	6.998	6.378
Melilla	5.625	5.470	5.958	5.827

(1) Lanbide prestakuntza alde batera utzi da. Jardunaldi osokoak bihurtu dira ikasleak.

(2) Jardunaldi osoko ikasleak kalkulatzeko aplikatu izan diren irizpideak aldatu dira pixka bat eta, beraz, 2010erako ikasleko gastua ez dator bat argitalpen honen aurreko ediziokoarekin.

Iturria: Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa

⁷ Bigarren partida nagusia, Osasunekoaren atzetik.

⁸ 2013an luzatu egin ziren aurrekontuak, 2013ko Aurrekontuen Proiektua ez baitzen onetsi.

Hezkuntza Administrazioek BPGd-aren gainean izandako gastua % 4,26koa da EAEn (% 3,37 unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eta % 0,78 unibertsitatekoan) eta % 4,22koa Estatuan (% 3,08 unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan eta % 0,96 unibertsitatekoan).

I.1.25. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAK LIKIDATUTAKO/AURREKONTUAN SARTUTAKO GASTUAREN BILAKAERA

Urteak	Mila euro	Gobernuarena, guztira (mila euro)	Ejk likidaturiko gastu guztiaren gaineko %	BPGd-a mila eurotan	BPGd-aren gaineko %	Oinarria: 2007=100	Ikasleak, guztira (1)	Gastua ikasleko, eurotan
2007	2.403.160	8.584.886	28,0	65.962.032	3,64	100	436.203	5.509
2008	2.589.172	9.317.300	27,8	67.478.054	3,84	108	432.556	5.986
2009	2.824.094	10.304.507	27,4	63.988.786	4,41	118	437.892	6.449
2010	2.783.639	10.327.556	27,0	65.120.174	4,27	116	447.886	6.215
2011	2.715.639	10.173.197	26,7	65.684.285	4,13	113	461.019	5.891
2012	2.625.112	10.246.438	25,6	64.706.357	4,06	109	473.012	5.550
2013 (2)	2.630.443	9.316.657	28,2	64.703.235	4,07	109	n.d.	n.d.

(1) *Ikasleen barruan sartzen dira erregimen orokorreko ikasleak eta erregimen bereziko ikasleak. Erregimen orokorreko ikasleen barruan, berriz, unibertsitatekoak ez direnak sartzen dira –aldi berean, hezkuntza bereziko eta helduen etengabeko hezkuntza biltzen ditu—eta unibertsitateko ikasleak. Erregimen bereziko ikasleen barruan, Arte Plastiko eta Diseinu, Hizkuntza, Musika, Dantza, Kirol eta Diseinuko Goi Mailako Ikasketetako ikasleak sartzen dira.*

(2) *Aurrekontuen luzapena*

Iturria: Geuk eginikoa, EUSTATen datuak, EAEko Kontu Orokorrak eta azken urterako aurrekontuak oinarri hartuta.

Txosten beraren arabera, 27ko EBn 2010ean Hezkuntzaren BPGd-arekiko gastu publiko osoaren zenbatespena, EUROSTATEk egindakoa, % 5,44 zen; eta Estatuarena, aldiz, % 4,97.

I.1.26. KOADROA. GASTUA HEZKUNTZAN AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA, 2011

	BPG (mila €)	Gastua hezkuntzan, guztira				Gastua unibertsitatekoa ez den hezkuntzan				Gastua unibertsitateko hezkuntzan			
		Guztira (mila €)	% (3)		Gtua /BPG d	Guztira (mila €)	% (3)		Gtua /BPG d	Guztira (mila €)	% (3)		Gtua /BPG d
			Gastu korrontea	Kapital gastua			Gastu korrontea	Kapital gastua			Gastu korrontea	Kapital gastua	
GUZTIRA (1)	1.045.620.000	48.136.679	90,9	8,5	4,60	35.129.724	94,9	5,0	3,36	10.105.658	76,9	20,4	0,97
Guztira, hezkuntza adm.		44.079.870	91,6	7,7	4,22	32.205.070	95,9	4,1	3,08	10.087.690	76,8	20,4	0,96
HZM		2.592.288	90,9	8,7		2.593.754	33,1	67,0		360.451	77,7	19,6	
HZMk AA.EE.ei transferitu ondoren		2.157.218	95,1	4,4		594.545	95,8	4,2		342.513	76,5	20,6	
Andaluzia	141.648.319	7.866.752	91,6	8,0	5,55	5.862.098	96,7	3,2	4,14	1.856.834	74,6	23,3	1,31
Aragoi	33.262.272	1.147.172	92,6	7,1	3,45	849.018	98,0	2,0	2,55	292.142	76,9	22,0	0,88
Asturias	22.461.235	843.639	92,9	6,4	3,76	629.567	98,2	1,7	2,80	209.764	77,1	20,6	0,93
Illes Balears	25.737.251	868.313	90,5	9,2	3,37	775.802	92,1	7,5	3,01	91.151	76,9	23,0	0,35
Kanariak	40.477.808	1.590.233	93,1	6,6	3,93	1.258.796	95,4	4,6	3,11	313.674	83,5	15,2	0,77
Kantabria	12.776.403	572.341	87,4	12,5	4,48	436.216	94,0	5,9	3,41	131.502	65,0	34,9	1,03
Gaztela eta Leon	54.953.044	2.171.910	93,0	6,2	3,95	1.603.883	97,0	3,0	2,92	553.744	81,5	15,5	1,01
Gaztela-Mantxa	37.073.514	2.104.478	90,2	9,5	5,68	1.857.230	90,4	9,6	5,01	236.193	88,2	9,3	0,64
Katalunia	194.165.241	6.556.972	91,7	7,8	3,38	4.995.643	95,2	4,8	2,57	1.538.302	80,4	17,8	0,79
Valentzia	100.355.746	4.531.662	88,5	9,8	4,52	3.330.669	95,8	4,2	3,32	1.188.868	68,1	25,5	1,18
Extremadura	17.176.789	1.010.814	93,6	6,4	5,88	842.788	96,4	3,7	4,91	157.034	78,6	21,3	0,91
Galizia	56.380.431	2.402.484	92,3	7,0	4,26	1.823.529	97,9	2,1	3,23	563.552	76,1	21,0	1,00
Madril	187.392.670	5.189.392	90,9	8,4	2,77	3.264.810	97,2	2,7	1,74	1.703.351	77,5	20,4	0,91
Murtzia	27.779.314	1.421.985	92,6	6,8	5,12	1.136.004	96,8	3,3	4,09	278.375	75,5	21,2	1,00
Nafarroa	17.904.121	650.828	91,8	8,2	3,64	566.113	93,4	6,6	3,16	81.856	80,3	19,7	0,46
EAE	64.353.323	2.739.604	92,7	6,4	4,26	2.169.670	95,3	4,7	3,37	503.721	80,6	14,6	0,78
Errioxa	7.974.016	254.073	94,2	5,5	3,19	208.688	96,0	4,0	2,62	45.114	85,9	12,3	0,57
Hezk. ez diren adm. guzt. (2)		4.056.808	83,1	16,7		2.924.654	85,2	14,6	3,36	17.968	98,3	1,7	0,97

(1) *Administrazioak banatu ez duena eta doikuntza-partidak guztizkotik kenduta lorturiko banaketa (2) Tokiko beste ministerio eta sailburutzak sartzen dira. (3) 100era iristen ez badira, beste partida batzuk izan litezkeelako da (finantza aktiboak eta pasiboak).*

Iturria: HZGM (Espainiako hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa) eta INE

Horrez gain, unibertsitatekoa ez den irakaskuntzan ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa (ikastetxe publikoan edo itunduan) 2011. urtean, Lanerako Prestakuntza kanpoan utzita, 7.112 eurokoa zen EAEn. Horrela, gure Erkidegoa da ikasle bakoitzeko gastu handiena ageri duena. Estatuko batez bestekoa 5.206 euro izan zen. EAetik gertu daude Nafarroa (6.659 euro), Asturias (6.088 euro) eta Galizia (6.062) Bestalde, Lanerako Prestakuntza kanpoan berriz utziz, Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzako ikasle bakoitzeko gastu publikoa, 2011n, 10.134 eurokoa izan zen EAEn. Horren arabera, gure Erkidegoak ikasle bakoitzeko gasturik handiena dauka berriro. Estatuko batezbesteko 6.057 euro dira.

Bilakaerari dagokionez, gastu horiek murriztu egin dira 2010 eta 2011 bitartean, bai Estatuan, bai EAEn.

Eta ikastetxeen ikasleko gastua (EUROSTATen zenbatespena, PPS erabilia bihurturiko euroetan adierazia) hauxe izan zen 27ko EBn (Kroazia alde batera utzita) 2010ean: 5.793 lehen hezkuntzan eta 6.989 bigarren hezkuntzan. Espainiako Estatuan: 5.616 lehen hezkuntzan eta 7.401 bigarren hezkuntzan.

1.2.3.3. HEZKUNTZAKO EMAITZAK

PISA proiektua Irakurmenean eta gaitasun zientifikoan eta matematikoan lorturiko batez besteko emaitzak

PISA proiektuaren helburu nagusia (Programme for International Student Assessment-Ikasleak Nazioarteko Baloraziorako Programa) 15 urteko ikasleen hezkuntza errendimendua aztertzea da, funtsezkotzat jotako zenbait gaitasunetatik abiatuta hala nola irakurmena eta gaitasun matematikoa eta zientifikoak.

ELGAko herrialdeek elkarlanean antolatu eta zuzendutako azterketa da, erakundean gero eta gehiago diren herrialdeen laguntzaz. 2000an 23 herrialdek hartu zuten parte, 41ek 2003an, 57k 2006an eta 65ek 2009an eta 2012an; ELGAko 34 herrialdeak barne.

Aplikazio bakoitzean, ikasleen errendimenduak aztertzen dira, baina horietako bat txandakakoa da eta arreta sakonagoa merezi du. Lehen PISA azterketa 2000an egin zen, eta irakurmena izan zuen gaitasun nagusi. 2003ko PISAk matematika izan zuen gaitasun nagusi, 2006ko PISAk zientziak, 2009ko PISAk berriz ere irakurmena, eta 2012ko PISAk berriro ere matematika.

Proba horien emaitzak adierazle garrantzitsuak dira nahitaezko hezkuntza sistemen eraginkortasuna neurtzeko eta erkatzeko.

EAEko Ebaluazio Erakundeak (ISEI-IVEI) bere ELGAren azken txostenean eta HZGMk Espainiako PISA 2012 txostenean diotenez, hauxe dugu:

Matematika gaitasuna

EAEk 505 puntu eskuratu ditu, ELGAko batez bestekoak baino 11 puntu gehiago (494). Puntuazio hori dela-eta, emaitzak erkatzeko aukeraturiko 39 herrialdeetatik 12.enean kokatzen da.

I.1.27. KOADROA. GAITASUN MATEMATIKOAN LORTURIKO BATEZ BESTEKO EMAITZAK. PISA 2003, 2006, 2009 eta 2012 *

	2012	2009	2006	2003
Hego Korea	554	546	547	542
Japonia	536	529	523	534
Suitza	531	534	530	527
Herbehereak	523			
Estonia	521			
Finlandia	519	541	548	544
Kanada	518	527	527	532
Polonia	518			
Belgika	515			
Nafarroa	517	511	515	
Alemania	514			
Gaztela eta Leon	509	514	515	503
Austria	506			
EAE	505	510	501	502
Australia	504			
Madril	503	496		
Errioxa		504	526	
Asturias	500	494	497	
ELGAko b.b.	494	488	498	500
Aragoi	496	506	513	
Katalunia	493	496	488	494
Kantabria	491	495		
Galizia	489	489	494	
EBko b.b.	489			
Espainia	484	483	480	485
Balearrak	475			
Andaluzia	472			
Murtzia	462			
Extremadura	461			
...				

* 2009an, 2006an eta 2003an herrialdearen datua aipatzen ez bada, lehen tokien artean ez dagoelako da, edo azterketan parte hartu ez zuelako
Iturria: PISA 2012, 2009, 2006, 2003.

14 AAEk konparatuz gero, EAE hirugarren tokian dago lorturiko puntuazioan, Nafarroaren eta Gaztela eta Leonen atzetik.

PISA 2003tik PISA 2012rako bilakaerak adierazten duenez, emaitzak ELGAko batez bestekoak baino altuagoak izan dira, baina modu nabarmenean soilik 2009ko edizioan eta 2012ko azkenekoan.

Halaber, 2012ko emaitza 2009koa baino baxuagoa da EAEn. ELGAN nahiz Espainian, berriz, hobetu egin da emaitza.

Errendimendu mailei dagokienez (baxua, ertaina, altua eta bikaina), hauxe ikusten da:

- Hona hemen ikasleen portzentajeak muturreko bi mailetan: baxua eta bikaina ELGAkoak baino baxuagoak dira, eta hori ona da lehen kasuan (gure hezkuntza sistema bidezkoagoa delako), baina txarra bigarrenean (ez delako hain bikaina).
- Ikasleen portzentajeak handiagoak dira EAEn maila ertainean eta altuan.

Irakurmena

EAEk 498 puntu lortu ditu, ELGAko batez bestekoa baino 2 puntu gehiago (496). Puntuazio hori dela-eta, erkaketa egiteko aukeraturiko 17 herrialdeetatik 17. tokian dago.

14 AAEk erkatuz gero, EAE zazpigarren tokian dago lorturiko puntuazioaren arabera, eta Madrilek eta Nafarroak lortu dute puntuaziorik altuena.

PISA 2003tik PISA 2012ra izandako bilakaera ikusita, emaitzak oso antzekoak izan dira, ELGAko batez bestekoaren ingurukoak. 2012ko puntuazioa puntu bat gorago dago orain arte lorturiko emaitzarik hoberenaren gainetik.

Errendimendu mailei dagokienez, hauexek ikusten dira:

- Ikasleen portzentajeak muturreko bi mailetan: baxua eta bikainak ELGAkoak baino txikiagoak dira, eta hori ona da lehen kasuan baina txarra bigarrenean.
- Ikasleen portzentajea ELGAkoen oso antzekoa da maila altuan.
- Ikasleen portzentajea ELGAkoa baino altuagoa da maila ertainean.

Gaitasun zientifikoa

EAEk 506 puntu lortu ditu, ELGAko batez bestekoa baino 5 puntu gehiago (501). Puntuazio hori dela-eta, 16. tokian dago erkaketa egiteko aukeraturiko herrialdeen artean.

14 AAEk erkatuz gero, EAE zazpigarren tokian dago lorturiko puntuazioaren arabera, Gaztela eta Leon, Madril, Asturias, Nafarroa, Galizia eta Errioxaren atzetik.

PISA 2003tik PISA 2014ra izandako bilakaerak agerian uzten duenez, 2003ko eta 2006ko emaitzak ELGAko batez bestekoaren azpitik dago EAE, eta 2009an batez bestekoaren inguruan dago. 2012an puntuaziorik hoberena lortu zen: 506 puntu. ELGAko batez bestekoa, berriz, 501 puntu da.

Errendimendu mailei dagokienez, hauexek ikusten dira:

- Ikasleen portzentajea ELGAkoa baino txikiagoa da maila baxuan: datu positiboa da hori.
- Bikaintasun mailan, txikiagoa da EAEko portzentajea.
- Ikasleen portzentajea handiagoa da EAEn maila ertainean.
- Ikasleen portzentajea ELGAkoaren antzekoa da maila altuan.

Ondorio gisa esan daiteke ez dela hobekuntzarik ikusten 2003 eta 2012ko emaitzen artean EAEn, gaitasun zientifikoa izan ezik.

Ikasleen sexuaren araberako azterketa

EAEn, mutilek neskek baino 14 puntu gehiago lortu dituzte gaitasun matematikoan; alde nabarmena da. ELGari dagokionez, euskal mutilek nahiz neskek ELGAko batez bestekoak baino emaitza handiagoak lortu dituzte euren taldean.

Irakurmenari dagokionez, nesken puntuazioa mutilena baino 30 puntu handiagoa da; alde nabarmena da hori. ELGAko herrialdeen arteko erkaketa eginez gero, euskal mutilek puntuazio txikiagoa dute; nesken puntuazioa euren taldearen batez bestekoa baino handiagoa da.

Gaitasun zientifikoari dagokionez, mutilen puntuazioa neskena baino 9,5 puntu txikiagoa da; alde nabarmena da. ELGArekiko erkaketa eginez gero, euskal mutilek puntuazio handiagoa lortu dute. Neskek, berriz, bere ikaskideen puntuazio bera eskuratu dute.

I.1.28. KOADROA. BATEZ BESTEKO EMAITZAK IRAKURMENEAN. PISA 2003, 2006, 2009 eta 2012 *

	2012	2009	2006	2003
Japonia	538	520	498	498
Hego Korea	536	539	556	534
Finlandia	524	536	547	543
Irlanda	523			
Kanada	523	524	527	528
Polonia	518			
Estonia	516			
Zeelanda Berria	512	521	521	522
Australia	512	515	513	525
Herbehereak	511	508		
Madril	511	503	-	-
Belgika	509	506	501	507
Suitza	509			
Nafarroa	509	497	481	-
Alemania	508			
Frantzia	505			
Gaztela eta Leon	505	503	478	499
Norvegia	504	503	484	500
Asturias	504	490	477	-
Katalunia	501	498	477	483
Erresuma Batua	499			
Galizia	499			
AEB	498			
EAE	498	494	487	497
ELGAko b.b.	496	493	492	494
Aragoi	493	495	483	
Errioxa	490			
EBko b.b.	489			
Espainia	488	481	461	481
Kantabria	485			
...				

* 2009an, 2006an eta 2003an herrialdearen datua aipatzen ez bada, lehen tokien artean ez dagoelako da, edo azterketan parte hartu ez zuelako
Iturria: PISA 2012, 2009, 2006, 2003

I.1.29. KOADROA. BATEZ BESTEKO EMAITZAK GAITASUN ZIENTIFIKOAN. PISA 2003, 2006, 2009 eta 2012 *

	2012	2009	2006	2003
Japonia	547		531	548
Finlandia	545	554	563	548
Estonia	541			
Hego Korea	538		522	538
Polonia	526			
Kanada	525		534	519
Alemania	524			
Herbehereak	522			
Irlanda	522			
Australia	521			
Gaztela eta Leon	519	516	520	502
Madril	517			
Asturias	517	502	508	
Zeelanda Berria	516			
Suitza	515	517		
Eslovenia	514			
Erresuma Batua	514			
Nafarroa	514	509	511	
Galizia	512	506		
Errioxa	510	509	520	
Txekiar Er.	508			
Austria	506			
EAE	506	495	495	484
Belgika	505			
Aragoi	504	505	513	
ELGAko b.b.	501	496	500	500
Kantabria	501	500	509	
Frantzia	499			
Danimarka	498			
AEB	497			
EBko b.b.	497			
Espainia	496			
Katalunia	492	497	491	502
...				

* 2009an, 2006an eta 2003an herrialdearen datua aipatzen ez bada, lehen tokien artean ez dagoelako da, edo azterketan parte hartu ez zuelako
Iturria: PISA 2012, 2009, 2006, 2003

I.1.30. KOADROA. MAILEN ARABERAKO EMAITZAK, PISA 2006 eta 2009 (mailetako ikasleen %a)

MAILA	IRAKURMENA				ZIENTZIAK				MATEMATIKA			
	2009		2012		2009		2012		2009		2012	
	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE	ELGA	EAE
< 1 eta 1. Baxua	18,8	15,1	18,0	14,4	18,0	13,8	17,8	11,7	22,0	14,9	23,0	15,5
2 eta 3. Ertaina	52,9	60,1	52,6	58,5	53,0	65,3	53,4	62,1	46,3	49,1	46,2	50,9
4. Altua	20,7	20,4	21,0	22,1	20,6	17,7	20,5	21,4	18,9	23,2	18,2	23,1
5 eta 6. Bikaintasuna	7,6	4,5	8,4	5,0	8,5	3,2	8,4	4,7	12,7	12,7	12,6	10,4

Iturria: ISEI-IVEI. ELGaren azken txostena eta PISA 2012 Espainiako txostena

Ikasleen adinaren egokitasuna

Egokitasun-tasa hezkuntza sistemaren emaitzen neurri garrantzitsu bat da. Derrigorrezko eskolatzean aurrera egiten duten, hau da, haien adinari dagokion maila egiten duten ikasleak bistaritzen ditu.

Bere adinari dagokion ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleen ehuneko gisa ematen da estatistikan.

Datuek egiaztatzen dute arreta berezia jarri behar dela lehenengo urteetan, eskola atzerapenak eta, horren ondorioz, desegokitasuna urteek aurrera egin ahala gehitu eta metatzen baitira.

I.1.31. KOADROA. IKASTURTE TEORIKO EGOKIAK

6 urte	Lehen Hezkuntzako 1. maila
7 urte	Lehen Hezkuntzako 2. maila a
8 urte	Lehen Hezkuntzako 3. maila
9 urte	Lehen Hezkuntzako 4. maila
10 urte	Lehen Hezkuntzako 5. maila
11 urte	Lehen Hezkuntzako 6. maila
12 urte	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila
13 urte	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila
14 urte	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila
15 urte	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila
16 urte	Batxilergoko 1. maila eta gradu erdiko LHko 1.a
17 urte	Batxilergoko 2. maila eta gradu erdiko LHko 2.a

Iturria: EUSTAT

Spainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa deritzon txostenaren datuen arabera, Estatuko 8 urteko ikasleen % 93,8 adin horretako maila teorikoan (Lehen Hezkuntzako hirugarrena) zeuden matrikulatuta 2011-2012 ikasturtean; 10 urterekin, etapa horretako bosgarren mailako tasak 4,7 puntu portzentual gutxiago ditu (% 89,1). DBHn, adina handitu ahala, txikiagoak dira egokitasun-tasak. Hala, 12 urteko ikasleen %83,9 hezkuntza etapa horretako 1. mailan ari da; 14 urteko ikasleen %69,6 hirugarren mailan, eta 15 urtekoen %61,7 laugarren mailan dago matrikulatuta.

Aztertutako adin guztietan, Katalunia, Galizia eta EAE dira Estatuko batezbestekotik gorako egokitasun maila dutenak.

Bilakaeraren ikuspegitik, 2001-02 eta 2011-12 bitartean, murriztuz joan dira egokitasun mailak, eta hala gertatzen da EAEn ere, 15 urtekoen taldean izan ezik.

EUSTATen arabera, 2011-2012 ikasturtean EAEko 7 urteko biztanle guztiak teorian dagokien mailan matrikulatuta daude, hots, Lehen Hezkuntzako bigarren mailan. Are gehiago esatearren, erreferentziako biztanle taldearen adina areagotu ahala, egokitasunaren portzentajeak behera egiten du. Horrela, 13 urteko biztanle guztietatik, teorian dagokien mailan matrikulatuta dauden portzentajea % 83,9ra jaisten da; eta 17 urteko biztanle guztietatik, teorian dagokien mailan matrikulatuta dauden portzentajea % 61,8ra jaisten da.

I.1.32. KOADROA. EAE-KO IKASLEEN ADINAREN EGOKITASUNA, 2011-12 (%)

	Guztira	Gizonak	Emak.
7 urte	100,1	100,2	99,9
9 urte	94,8	95,1	94,5
11 urte	91,1	90,6	91,7
12 urte	86	84,6	87,4
13 urte	83,9	81,4	86,5
14 urte	79,9	75,4	84,8
15 urte	76,9	72,9	81,1
16 urte	67,8	63,7	72,2
17 urte	61,8	55,6	68,4

Iturria: EUSTAT.

Txosten beraren datuen arabera, emakumeek gizonak baino egokitasun-tasa handiagoak dituzte aztertutako adin guztietan, eta adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da aldea.

I.1.33. KOADROA. EGOKITASUN-TASAK 8, 10, 12, 14 ETA 15 URTEKO IKASLEENGAN. 2011-12KO IKASTURTEA

	8 urte		10 urte		12 urte		14 urte		15 urte	
	2001-02	2011-12	2001-02	2011-12	2001-02	2011-12	2001-02	2011-12	2001-02	2011-12
GUZTIRA	95,3	93,8	91,9	89,1	86,4	83,9	73,8	69,6	62,0	61,7
Andaluzia	93,0	93,9	89,9	88,6	83,6	83,3	70,8	65,3	56,7	57,1
Aragoi	95,6	92,5	92,7	86,7	88,7	80,8	73,7	67,8	62,7	58,9
Asturias	96,1	94,0	93,3	90,5	88,5	85,6	74,5	73,7	63,7	66,7
Balearrak	92,3	91,8	86,8	85,2	78,6	77,2	64,9	63,3	53,0	55,1
Kanariak	93,5	93,3	88,9	86,7	80,8	79,2	69,0	64,8	57,2	56,4
Kantabria	96,6	95,8	93,3	91,9	87,8	87,1	73,1	72,2	59,7	63,2
Gaztela eta Leon	96,0	93,2	92,3	88,3	86,8	82,3	72,5	69,6	58,4	60,3
Gaztela-Mantxa	95,3	92,1	91,1	86,3	85,4	79,0	69,2	64,7	55,2	55,9
Katalunia	96,2	96,2	94,2	93,7	91,8	90,7	85,7	77,8	82,9	72,0
Valentzia	98,7	91,4	94,9	87,3	87,5	82,1	73,2	69,0	58,0	59,1
Extremadura	95,5	94,2	91,9	89,1	86,1	83,9	72,0	64,9	55,0	56,4
Galizia	95,5	94,2	91,5	89,4	85,6	84,5	70,5	70,7	58,4	62,5
Madril	95,6	93,7	92,5	88,9	87,3	83,6	72,9	71,1	60,7	63,3
Murtzia	94,9	92,3	91,0	86,6	84,4	78,5	70,4	63,3	55,0	55,0
Nafarroa	95,8	93,6	93,2	88,4	90,5	83,3	82,0	74,8	68,2	69,5
EAE	96,7	94,7	94,0	90,9	89,5	86,8	78,5	77,7	70,6	73,8
Errioxa	96,4	95,1	93,4	91,0	88,7	86,3	74,9	67,8	59,5	59,9
Ceuta	92,8	91,7	85,5	85,0	75,0	78,8	67,3	47,2	48,1	37,7
Melilla	91,5	92,9	84,9	89,1	83,3	83,2	56,8	55,9	49,5	47,6

Iturria: Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa

Eskola behar baino lehenago uztea (EBLU)

Eskola behar baino lehenago uztearen adierazlea da 2020ko Estrategiaren bost helburu nagusien jarraipena egiteko zehazturiko zortzi adierazleetakoa bat, eta gainera, 2012ko hezkuntza eta prestakuntza sistemen helburuetarako erreferentziako puntuen artean daude.

Soilik bigarren hezkuntzako lehen zikloa edo hortik beherako maila izanda hezkuntza eta prestakuntza uzten duten pertsonak izendatzeko erabiltzen da, hain zuzen dagoeneko hezkuntza sisteman edo prestakuntzan ari ez diren pertsonak.

EUROSTATEk estatistikoki definitzen du gehien jota oinarrizko bigarren hezkuntzako lehenengo zikloa (CINE 2 - INSN 0, 1, 2 edo 3c) amaitu duen eta inkesta egin aurreko lau astetan ikasten ez zuen zein prestakuntzarik egiten ez zuen 18 eta 24 urte bitarteko biztanleria erreferentzia gisa hartuz.

I.1.34. KOADROA. ESKOLA BEHAR BAINO LEHENAGO UZTEA. (DBHko bigarren etapa amaitu ez duten eta hezkuntza prestakuntzarik egiten ez duten 18-24 urteko biztanleak)

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2002	2007	2012	2002	2007	2012	2002	2007	2012
28ko EB	16,9	14,9	12,7	19,0	16,9	14,4	14,9	12,8	10,9
Alemania	12,5	12,5	10,6	12,5	13,1	11,3	12,5	11,9	9,9
Austria	9,5	10,7	7,6	8,7	11,4	7,9	10,2	10,1	7,3
Belgika	14,1	12,1	12,0	17,1	13,9	14,4	11,0	10,3	9,5
Bulgaria	20,7	14,9	12,5	22,0	15,2	12,1	19,4	14,7	13,0
Kroazia	8,0	3,9	4,2	9,2	5,1	4,6	6,9	2,6	3,6
Zipre	15,9	12,5	11,4	22,3	19,5	16,5	11,0	6,8	7,0
Danimarka	9,0	12,9	9,1	9,9	16,2	10,8	8,2	9,5	7,4
Eslovenia	5,1	4,1	4,4	6,8	5,8	5,4	3,2	2,2	3,2
Espainia	30,7	31,0	24,9	36,8	36,6	28,8	24,2	25,2	20,8
Estonia	13,2	14,4	10,5	16,9	21,7	14,0	9,4	7,1	7,1
Finlandia	9,7	9,1	8,9	11,8	11,2	9,8	7,6	7,2	8,1
Frantzia	13,4	12,6	11,6	14,9	14,9	13,4	11,9	10,3	9,8
Grezia	16,5	14,6	11,4	20,6	18,6	13,7	12,5	10,6	9,1
Hungaria	12,2	11,4	11,5	12,5	12,6	12,2	11,9	10,1	10,7
Irlanda	14,6	11,6	9,7	18,0	14,6	11,2	11,2	8,4	8,2
Italia	24,2	19,7	17,6	27,8	22,9	20,5	20,5	16,4	14,5
Letonia	16,9	15,1	10,6	22,7	20,0	14,7	11,0	10,1	6,3
Lituania	13,4	7,4	6,5	15,4	9,6	8,1	11,4	5,1	4,6
Luxenburgo	17,0	12,5	8,1	14,4	16,6	10,7	19,6	8,4	5,5
Malta	53,2	32,7	22,6	56,5	36,9	27,5	49,7	28,1	17,6
Herbehereak	15,3	11,7	8,8	16,8	14,0	10,2	13,8	9,3	7,3
Polonia	7,2	5,0	5,7	8,9	6,2	7,8	5,6	3,8	3,5
Portugal	45,0	36,9	20,8	52,6	43,1	27,1	37,2	30,4	14,3
Txekiar Er.	5,7	5,2	5,5	5,4	5,7	6,1	5,9	4,7	4,9
Eslovakiar Er.	6,7	6,5	5,3	7,6	7,2	6,0	5,8	5,8	4,6
Erresuma Batua	17,6	16,6	13,6	18,1	17,6	14,7	17,1	15,6	12,4
Errumania	23,0	17,3	17,4	23,9	17,1	18,0	22,1	17,4	16,7
Suedia	10,0	8,0	7,5	11,0	9,5	8,5	8,9	6,5	6,3

Kontzeptu eta definizio bateratuak abiarazi edota urteko batezbestekoekin eginiko kalkulu berrietarako trantsizioa gertatu dela-eta, datu horiek ez datoz bat 2009ko azaroa baino lehen argitaraturikoekin

Iturria: EUROSTAT, Espainiako Hezkuntzaren zifrak (2014ko edizioa).

EBLU %10etik beherakoa izatea da Europako xedea, gehienez 2020rako.

Gaur egun erabilitako metodologia EUROSTATEk erabiltzen duena da, eta Estatuan datuak biltzen dira Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) bidez. Inkesta horrek kontuan hartzen ditu 4 hiruilekoen batezbestekoa eta inkestaren aurreko 4 asteetan ikasketa arautuak eta ez-arautuak egiten ez dituzten biztanleak.

EUROSTATEk argitaratutako azken datuen arabera, 2012an Espainian ikasketak uzteko tasa % 24,9koa da. 27ko EBko herrialdeen batezbestekoa % 12,7koa da.

Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa deritzon txosteneko datuen arabera, eskola behar baino lehen uztearen tasa behera egin du Estatuan 2002 eta 2012 bitartean, %30,7tik %24,9 horretara hain zuzen ere. Ehunekorik txikienak, 2012an, EAEn (%11,5), Nafarroan (%13,3) eta Kantabrian (%14) daude.

Mutilek neskek baino neurri handiagoan uzten dute eskola autonomia erkidego guztietan, Aragoi izan ezik. EUSTATEN datuen arabera, %2,4ko aldea dago. Hala, EAEko eskola uztearen tasa %12,7 da gizonezkoentzat eta %10,3 emakumezkoentzat.

Bestalde, EUSTATEN datuen arabera, beharantz egin du EAEko eskola uztearen tasak, eta 2012an % 7,7koa da. Kontuan hartu behar da kalkulua BJA (Estatistika Erakundearen biztanleria jardueraren arabera) oinarri hartuta egiten dela.

I.1.35. KOADROA. ESKOLA BEHAR BAINO LEHEN UZTEA ESTATUAN, AAEE ETA SEXUAREN ARABERA									
	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2002	2007	2012	2002	2007	2012	2002	2007	2012
GUZTIRA	30,7	31,0	24,9	36,8	36,6	28,8	24,2	25,2	20,8
Andaluzia	36,8	37,3	28,8	43,3	42,7	33,5	30,1	31,8	23,9
Aragoi	27,0	26,0	20,4	32,0	31,9	20,1	21,4	19,8	20,7
Asturias	22,4	22,5	19,4	27,3	29,1	24,4	17,3	15,4	14,5
Balearrak	40,3	43,1	30,1	49,2	49,4	30,6	30,5	36,4	29,6
Kanariak	33,0	36,3	28,3	41,3	43,9	29,3	24,7	28,3	27,4
Kantabria	26,2	25,3	14,0	35,3	31,7	16,9	16,6	18,8	10,9
Gaztela eta Leon	22,8	23,5	21,5	28,5	29,7	28,1	16,9	16,9	14,4
Gaztela-Mantxa	36,5	37,2	26,9	45,9	45,3	33,2	26,5	28,6	20,2
Katalunia	31,2	31,6	24,0	36,1	37,1	28,2	26,0	25,9	19,6
Valentziako E.	36,0	31,6	26,9	42,3	36,5	29,9	29,5	26,3	23,9
Extremadura	38,2	34,3	32,2	44,9	41,3	41,3	31,1	26,7	22,5
Galizia	26,9	23,9	23,1	35,5	33,2	27,1	18,3	14,4	18,8
Madril	23,7	25,8	22,2	28,8	29,0	25,3	18,5	22,4	19,0
Murtzia	38,7	39,6	27,7	45,3	44,8	33,0	31,5	34,0	22,0
Nafarroa	21,6	17,1	13,3	23,1	19,7	16,9	20,1	14,3	9,8
EAE	13,2	14,3	11,5	17,0	18,5	12,7	9,3	10,0	10,3
Errioxa	27,3	30,3	22,8	35,9	33,8	26,0	18,0	26,7	19,6
Ceuta eta Melilla	36,1	49,2	37,0	39,0	46,5	38,9	32,7	51,8	34,9

Iturria: Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa

Graduatze-tasak goi mailako hezkuntzan Zientzian eta Teknologian 20-29 urteko 1.000 biztanle bakoitzeko

Berrikuntza eta ikerkuntza zientifikoa indartu beharra dagoela-eta, lehentasunezkoztat jo behar izan du EBk matematikan, zientzian eta teknologian graduaturiko pertsonen tasa igotzea. Era berean, sexu desoreka ikusita, zientzia eta teknologia ikasketetan gizonen eta emakumeen titulazioak orekatzea ezarri da helburu.

EBk ez du erreferentziatzeko punturik zehaztu 2020rako adierazle horren inguruan. Hala ere, Estatuko sisteman horri eusten zaio, herrialdeko zientzia eta ekoizpen garapenaren adierazle argienetako bat baita.

Estatistikoki Matematika, Zientzia eta Teknologiako gradudunen tasa gordina honela definitzen da: Goi mailako Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateko Irakaskuntzaren mailan (INSN 5A, 5B eta 6) ikasketa horiek amaitzen dituzten ikasleen eta 20 eta 29 urte bitarteko biztanleen arteko erlazioa, milaka biderkatuta.

EUROSTATen datuen arabera, 27ko EBrako batezbestekoa 16,8koa zen 2011n. Ratorik handienak Lituania (22,6 milako), Finlandian (21,2 milako), Irlandan (21,1 milako), Frantzia (20,8 milako) eta Erresuma Batua (19,5 milako) daude.

ISEI-IVEIren datuen arabera, Zientzia eta Teknologiako goi mailako hezkuntza, 2009-2010 ikasturtean, milako 29,4an kokatzen da gure Erkidegoan. Adierazle horren EAeko maila handiak, hainbat urtetan egonkorra izan denak, Estatuko zein Europako lehenengo postuetan jartzen du. Horren arrazoa da, neurri handi batean, EAEn goi mailako Lanbide Heziketa duten pertsona asko dagoela (INSN 5B), Estatuko batezbestekoa baino ia hiru aldiz handiagoa den tasa duela.

Izan ere, unibertsitateaz kanpoko ikasketak eta unibertsitateko ikasketak bereizten baditugu, ikus daiteke unibertsitateaz kanpoko ikasketetan (goi mailako heziketa zikloak) graduatutako pertsonak milako 12,5 eta bigarrenak milako 16,9 direla. Estatuko batezbestekoak, berriz, ondorengoak dira: milako 4,3 eta milako 11,3.

Graduatze datuak sexuen arabera aztertuta ikus daitekeenez, gero eta handiagoa da gizonen eta emakumeen arteko diferentzia, eta are nabarmenagoa da azken urtean. Hala, 2010ean, Zientzia, Matematika eta Teknologiako graduatze tasa milako 17,3koa zen emakumeetan, gizonekoena baino 23,9 txikiagoa: milako 41,2koa da gizonena. Zifra horiek adierazten dutenez, nahiz eta emakume graduatuen tasa pixkanaka handituz joan den 2000tik hona, gizonena ere neurri berean hazi da eta, beraz, batzuen eta besteen arteko diferentzietan eutsi egin zaie azken hamarkadan; are gehiago, handitu egin dira azken urtean.

I.1.36. KOADROA. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO GRADUATUAK (Zientzia eta Teknologiako graduatuen kopurua 1.000 biztanleko, 20-29 urtekoen artean)									
	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2002	2007	2011	2002	2007	2011	2002	2007	2011
27 EB (1)	11,1	13,8	16,8	15,2	18,5	22,3	7,0	8,9	11,1
Alemania	8,1	11,4	16,5	12,2	15,9	22,6	3,8	6,9	10,1
Austria	7,9	11,1	16,1	12,4	16,7	23,9	3,4	5,3	8,1
Belgika	10,5	14,0	12,6	15,7	20,4	18,8	5,2	7,6	6,2
Bulgaria	11,7	8,4	12,4	13,8	10,0	14,7	9,5	6,8	10,0
Kroazia	..	6,8	8,6	4,8	..
Zipre	3,8	4,2	7,2	5,6	5,8	9,7	2,1	2,7	4,7
Danimarka	11,7	16,4	17,9	15,7	20,8	21,9	7,5	11,9	13,7
Eslovenia	9,5	9,8	17,4	13,9	14,2	24,2	4,8	5,1	10,0
Espainia	11,9	11,2	16,8	16,1	15,3	23,0	7,5	6,9	10,4
Estonia	8,0	13,3	11,9	9,6	16,0	14,6	6,4	10,4	9,2
Finlandia	17,4	18,8	21,2	24,6	26,1	29,4	9,9	11,1	12,5
Frantzia	..	20,8	29,9	11,7	..
Grezia	..	8,5	13,4	..	9,1	15,8	..	7,8	10,9
Hungaria	4,8	6,4	8,5	6,8	9,2	12,2	2,8	3,5	4,7
Irlanda	20,5	18,7	21,1	26,4	25,5	30,7	14,6	11,8	11,8
Italia	7,4	11,4	12,8	9,4	14,0	15,1	5,4	8,8	10,4
Letonia	8,1	9,2	12,8	9,7	12,2	17,9	6,5	6,1	7,6
Lituania	14,6	18,1	22,6	18,3	24,0	31,6	10,9	12,0	13,3
Luxenburgo	3,0	4,2	1,8
Malta	3,1	7,1	6,3	4,5	8,5	7,2	1,7	5,5	5,4
Herbehereak	6,6	8,9	9,4	10,8	14,4	14,4	2,4	3,4	4,2
Polonia	8,3	13,9	17,5	10,6	16,7	21,3	5,9	11,1	13,6
Portugal	7,4	14,2	17,3	8,6	18,2	21,5	6,1	10,2	13,1
Txekiar Er.	6,0	12,0	16,6	8,3	16,6	22,0	3,5	7,2	10,9
Eslovakiar Er.	7,8	11,9	18,0	10,1	15,1	22,8	5,3	8,6	12,9
Erresuma Batua	20,2	18,5	19,5	27,1	25,6	26,5	13,3	11,3	12,1
Errumania	5,8	11,9	16,0	7,3	14,0	18,0	4,4	9,8	13,8
Suedia	13,3	13,6	15,6	17,0	17,8	20,4	9,3	9,2	10,4

(1) Kroaziako datuak alde batera utzita.

Iturria: EUROSTAT Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa

Gazteen prestakuntza maila⁹

Gazteen prestakuntza mailaren adierazlea ere sartu da EBren adierazle estrukturalen artean.

⁹Kontzeptu eta definizio bateratuak abiarazi direla-eta, datu horiek ez datoz bat 2005eko abenduan baino lehen argitaraturikoekin.

Estatistikoki gutxienez 2. Hezkuntzako 2. etapako maila (INSN 3) gainditu duten 20-24 urteko gazteen portzentajea da.

Espainiako Hezkuntzaren zifrak.

2014ko edizioa deritzon txosteneko datuen arabera, goranzko joera du portzentajeak 28ko EBn, eta 2012an %80,3koa zen, Espainiako estatuko batez bestekoa baino handiagoa (%62,8) eta EAEn dagoen ratioaren ildotik (%80). Hala ere, komeni da kontuan hartzea, EBko ratioa hazi den bitartean, EAEn kontrakoa gertatzen dela.

Datuak sexuaren arabera aztertuta, diferentziak ikusiko ditugu gizonen eta emakumeen artean. Hala, 2012an, emakumeen ratioa gizonezkoena baino %5,4 handiagoa da 28ko EBn (%83 eta %77,6). Espainiako Estatuan, are diferentzia handiagoa da, %9,4, emakumeen alde. Bestalde, emakumeen ratioa %4,7koa da emakumeentzat gizonezkoentzat baino.

Helduen ikasketa maila.

Helduen ikasketa maila neurri handi batean biztanleek hezkuntza sistemari buruz dauzkaten itxaropenak baldintzatzen dituen eragilea da, eta ondorioz hezkuntzaren plangintzan eta lan jardueran eragingo du. Irakaskuntza maila jakin bat osatu duten helduen portzentajea erabiltzen da neurtzeko.

ELGAK argitaraturiko eta ondoko taulan bildutako datuen arabera, Estatuko 25-64 urteko biztanleen %46k zuen 2. hezkuntzako 2. etapakoa baino ikasketa maila txikiagoa, %22,4 bigarren hezkuntzako bigarren etapara iritsi zen eta %31,6k zituen maila handiagoko ikasketak.

Herraldez herrialdeko azterketaren arabera, bigarren hezkuntzako 2. etapatik gorako ikasketa mailen portzentajerik txikienen artean daude Portugal, Espainia eta Italia. Lehenengoak %35,1 du, bigarrenak %54 eta hirugarrenak, berriz, %56. Beste muturrean, Txekiar Errepublikan %92,3 dago, Eslovakiar Errepublikan %91,4, Polonian %89,1, Estonian %88,8, Suedian %87,1, Alemanian %86,3, Eslovenian %84,5, Finlandian %83,7, Austrian %82,4, Hungarian %81,7, Luxenburgon %77,2. Erreparatu Greziako datuari: %67,2 du.

HZGMren datuen arabera, 2012an %54,4koa zen ratio hori Estatuan. EAEk %68,1 du, eta egoera onean egon arren, aurreko paragrafoan aipaturiko herrialdeetatik urrun dago oraindik.

I.1.37. KOADROA. GAZTEEN HEZIKETA MAILA (Gutxienez 2. Hezkuntzako 2. etapa gainditu duten 20-24 urteko gazteen portzentajea (INSN 3))

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2002	2007	2012	2002	2007	2012	2002	2007	2012
28-EB	76,8	78,3	80,3	74,2	75,7	77,6	79,4	80,9	83,0
Alemania	73,3	72,9	75,6	72,6	71,1	73,7	73,8	74,7	77,6
Austria	85,3	84,1	86,6	86,1	82,7	85,9	84,6	85,4	87,3
Belgika	81,6	82,6	82,8	78,5	80,4	79,9	84,8	84,9	85,8
Bulgaria	77,4	83,3	85,8	75,2	83,0	86,0	79,5	83,6	85,5
Kroazia	90,6	95,3	94,8	89,4	94,6	94,4	91,8	96,1	95,2
Zipre	83,5	85,8	87,8	76,7	79,8	84,0	89,5	91,0	91,3
Danimarka	78,6	69,4	72,0	74,3	62,7	66,5	82,6	76,3	77,7
Eslovenia	90,7	91,5	90,1	88,3	89,0	88,1	93,3	94,3	92,5
Espainia	63,7	61,1	62,8	57,4	55,1	56,7	70,3	67,3	69,1
Estonia	81,4	80,9	81,3	77,1	72,2	75,9	85,8	89,6	86,7
Finlandia	85,8	86,5	86,3	82,6	84,8	85,5	89,0	88,0	87,1
Frantzia	81,7	82,4	84,4	80,5	79,7	82,1	82,8	85,0	86,7
Grezia	81,1	82,1	85,4	76,1	77,5	82,2	86,0	87,0	88,6
Hungaria	85,9	84,0	83,5	85,5	82,5	82,1	86,3	85,6	85,1
Irlanda	84,0	86,8	87,2	80,7	83,8	85,3	87,3	89,8	89,0
Italia	69,6	76,3	77,6	64,8	72,7	73,7	74,3	80,0	81,6
Letonia	77,1	80,2	84,1	70,0	76,4	78,6	84,3	84,1	89,8
Lituania	81,3	89,0	89,3	79,4	86,5	86,8	83,2	91,5	91,9
Luxenburgo	69,8	70,9	71,5	74,0	65,6	66,3	65,5	76,4	76,8
Malta	39,0	64,3	73,6	36,1	59,5	68,3	42,2	69,6	79,2
Herbehereak	73,1	76,2	79,0	68,8	71,9	75,9	77,4	80,5	82,1
Polonia	89,2	91,6	89,8	86,5	89,7	86,6	91,9	93,4	93,2
Portugal	44,4	53,4	67,5	36,1	46,3	59,6	52,9	60,8	75,6
Txekiar Er.	92,2	91,8	90,9	92,4	91,3	90,2	92,0	92,4	91,7
Eslovakiar Er.	94,5	91,3	92,7	93,5	90,5	91,8	95,4	92,1	93,6
Erresuma Batua	77,1	78,1	81,8	76,6	77,2	80,2	77,6	79,0	83,4
Errumania	76,3	77,4	79,6	74,8	77,1	78,4	77,7	77,7	80,8
Suedia	86,7	86,5	86,4	85,2	84,5	84,4	88,3	88,5	88,4
EAE	80,9	80,8	80,0	78,6	75,3	77,6	83,4	86,6	82,3

Iturria: EUROSTAT Espainiako Hezkuntzaren zifrak. 2014ko edizioa

I.1.38. KOADROA. HELDUEN EHUNEKOEN BANAKETA, PRESTAKUNTZAREN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA

	2. hezkuntzako 2. etapatik beherako maila			2. hezkuntzako 2. etapa (2) (INSN 3)			Goi mailako hezkuntza		
	25 - 64 urte	25- 34 urte	55 - 64 urte	25 - 64 urte	25 - 34 urte	55 - 64 urte	25 - 64 urte	25 - 34 urte	55 - 64 urte
Europar Batasuna (1)									
Alemania	13,7	13,2	15,9	58,7	59,1	57,9	27,6	27,7	26,2
Austria	17,5	11,8	27,7	63,1	67,0	56,7	19,3	21,2	15,6
Belgika	28,7	18,1	44,5	36,7	39,4	30,4	34,6	42,5	25,1
Danimarka	23,1	19,7	30,2	43,2	41,7	41,9	33,7	38,6	27,9
Eslovenia	15,5	6,0	27,1	59,4	60,2	56,5	25,1	33,8	16,4
Espainia	46,0	35,2	66,2	22,4	25,6	15,2	31,6	39,2	18,7
Estonia	11,1	14,3	13,4	52,1	46,7	51,4	36,7	39,0	35,2
Finlandia	16,3	9,8	28,7	44,4	50,8	40,0	39,3	39,4	31,3
Frantzia	28,4	16,7	42,4	41,8	40,3	38,9	29,8	43,0	18,6
Grezia	32,9	19,9	52,8	41,1	47,6	28,7	26,1	32,5	18,5
Hungaria	18,2	12,7	24,7	60,6	59,2	59,1	21,1	28,1	16,3
Irlanda	26,6	15,0	47,7	35,7	37,8	29,5	37,7	47,2	22,8
Italia	44,0	28,7	59,7	41,1	50,3	29,5	14,9	21,0	10,8
Luxenburgo	22,7	16,6	29,1	40,2	36,7	42,6	37,0	46,6	28,3
Herbehereak	27,7	18,3	39,7	40,2	41,9	34,4	32,0	39,8	25,9
Polonia	10,9	5,9	20,0	65,4	54,9	67,2	23,7	39,2	12,8
Portugal	65,0	44,3	81,6	17,8	28,8	7,5	17,3	26,9	10,9
Txekiar Er.	7,7	5,7	13,4	74,1	69,1	74,4	18,2	25,1	12,1
Eslovakiar Er.	8,7	5,9	15,9	72,6	68,4	70,1	18,8	25,7	13,9
Erresuma Batua	23,2	15,7	33,3	37,4	37,4	35,4	39,4	46,9	31,3
Suedia	13,0	9,1	21,8	51,9	48,0	50,1	35,2	42,9	28,2

(1) Kanpora utzi dira EBko 21 herrialdeak, ELGAko hemeretzi eta 2 elkartu (Eslovenia eta Estonia).

(2) Kanpoan utzi dira INSN 3C mailako programa laburrak.

ITURRIA: Hezkuntzaren egoera 2013. ELGAren adierazleak Espainiako Hezkuntzaren zifretan. 2014ko edizioa

Jarduera- eta langabezia-tasak hezkuntza mailaren arabera

2012ko Memoria irakurtzea gomendatzen diogu irakurleari.

International Standard Classification of Education (ISCED 1997)	Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (INSN)
Kalitate eta Ebaluazio Erakunde Nazionalak (KEEN) adierazle hori lantzen du INSNtik hartutako definizioak erabiliz	
<p>Niveles de estudios:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pre-primary education: ISCED 0 - Primary education: ISCED 1 First stage of basic education - Lower secondary education: ISCED 2 Second stage of basic education - (Upper) secondary education ISCED 3 - Post-Secondary non tertiary education ISCED 4 - First stage of tertiary education ISCED 5 (not leading directly to an advanced research qualification) - Second stage of tertiary education ISCED 6 (leading to an advanced research qualification) 	<p>Ikasketa maila:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehen Hezkuntza aurrekoa (INSN 0): Irakurtzen eta idazten ez dakiten personak eta idazten eta irakurtzen jakin arren gutxienez eskolako 5 urte bete ez duten biztanleak. - Lehen Hezkuntza (INSN 1): Gutxienez eskolako 5 urte, orokorrean 5 edo 6 urterekin hasi eta 12rekin bukatuta, bete duten biztanleak, goragoko mailarik bete gabe. - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (INSN 2) - Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko hezkuntza (INSN 3 eta 4): Batxilergoko titulua, titulu tekniko (maila ertaineko prestakuntza zikloak) eta pareko titulua eta parekagarriak dituzten biztanleak. - Goi mailako hezkuntza (INSN 5): Goi mailako teknikari (goi mailako prestakuntza zikloak), unibertsitateko diplomatu, lizentziatu, doktore titulua eta parteko titulua edo parekagarriak dauzkaten biztanleak - Goi mailako hezkuntza (INSN 6): Diploma aurreratua eta doktorego-tesiak

2. EGITURA PRODUKTIBOA ETA BERRIKUNTZA EAE-N

2.1. EGITURA PRODUKTIBOA

2.1.1. Enpresa egitura eta demografia

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (JEGID) 2013ko azken datuen arabera, guztira 161.067 enpresa¹⁰ ziren jardunean EAEn (lehen sektorekoak barne), eta orotara 855.093 pertsonari ematen diete lana. Beraz, batez besteko tamaina 5,3 lanpostukoa da enpresako. Egoitza soziala oraindik EAEn duten enpresa horien portzentajea % 97,7 da, kopuru absolutuetan gutxiago izan da. 2012 eta 2013 bitartean, enpresa kopurua %2,7 eta enplegua %2,1 murriztu dira.

I.2.1. KOADROA. EAE-KO ENPRESAK, SOZIALTATE EGOITZAREN ETA ENPLEGUAREN ARABERA

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2008/13 (%)	12-13 (%)
Guztira (EAE eta ESTATUA)*	184.290	182.284	171.345	165.995	165.517	161.067	-12,6	-2,7
EAE	179.953	178.062	167.270	161.658	161.626	157.405	-12,5	-2,6
ESTATUKO gainerakoak	4.337	4.222	4.075	4.337	3.891	3.662	-15,6	-5,9
EAE (%)	97,6	97,7	97,6	97,4	97,7	97,7	0,1	0,1
ESTATUKO gainerakoak (%)	2,4	2,3	2,4	2,6	2,3	2,3	-3,4	-3,3
Enpresa horien lanpostuak, guztira*	942.479	952.510	906.044	890.093	873.121	855.093	-9,3	-2,1
Batez besteko tamaina*	5,1	5,2	5,3	5,4	5,3	5,3		
Lehen sektorerik gabeko enpresak, guztira	184.290	182.284	171.345	165.995	159.383	154.001	-16,4	-3,4


* Lehen sektoreko enpresak barne hartzen ditu estatistikak 2012. urtetik iturrria: EUSTAT. JEGID

Ikuspegi zabalagoa harturik, nabarmentzekoa da 1995-1999 bitartean izandako hazkundea (1993ko krisialditik irten ondoren) enpresen kopuruaren aldetik (%5,2), baina ondorengo bost urteko aldia (2000-2003) erritmo txikiagoa izan da enpresa dinamismoan (%1,1).

Enpresen sarearen hedapen handiagatik (urte arteko batez besteko %3,5eko hazkundea) nabarmentzen da 2004-2008ko epealdia, eta 2008an gehieneko historikoa lortu zen, guztira 184.290 enpresarekin.

Urte honetatik hasita, etengabe egin du behera kopuruak, halako moldez non 2009 eta 2013¹¹ bitartean 28.283 enpresako

I.2.1. GRAFIKOA. EMPRESEN EBOLUZIOA (LEHEN SEKTOREA BARNE)



	1995-1999	2000-2003	2004-2008	2009-2013*
Enpresak	137.304	153.157	171.158	166.602
Urte arteko b.b. tasa (%)				
Enpresak	5,2	1,1	3,5	-3,5

*Seriea arazteko, alde batera utzi dira lehen sektoreko enpresak 2012an eta 2013an
Oharra: Kontsideraturiko epealdi bakoitzeko urteko batez bestekoa
Iturria: JEGID, EUSTAT

¹⁰ Enpresa: establezimenduei lege euskarria ematen dion unitate juridikoa, hots, edozein sozietate, erakunde, pertsona fisiko edo edozein erakunde publiko edo pribatu, bere nortasun juridikoa duena, eta haren erantzukizunpean eta zuzendaritzapean egiten dira jarduerak. 2012tik urtetik hona, lehen sektoreko enpresak biltzen ditu EUSTATen estatistikak

¹¹ Serie historikoa arazteko, alde batera utzi dira lehen sektoreko enpresak 2012an eta 2013an

galera garbia izan baita (urtean 7.000 enpresa baino gehiago, eta urte arteko tasa, batez beste, %-3,5ekoa da.

I.2.2. KOADROA. EAE-KO ENPRESEN KOPURUAREN BILAKAERA, JARDUERA ADARRAREN (CNAE 09) ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA

	ENPRESAK			ENPLEGUA			B.B. ENPLEGUA	
	2012	2013	12-13 (%)	2012	2013	12-13 (%)	2012	2013
GUZTIRA	165.517	161.067	-2,7	873.121	855.093	-2,1	5,3	5,3
Zehaztugabea								
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	6.134	7.066	15,2	11.910	13.593	14,1	1,9	1,9
B. Erauzketa industriak	39	42	7,7	493	481	-2,4	12,6	11,5
C. Manufaktura industria	12.455	11.858	-4,8	182.421	175.172	-4,0	14,6	14,8
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura	135	120	-11,1	2.349	2.246	-4,4	17,4	18,7
E. Ur hornidura; saneam. jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea	240	232	-3,3	6.694	5.952	-11,1	27,9	25,7
F. Eraikuntza	24.095	22.007	-8,7	69.392	60.823	-12,3	2,9	2,8
G. Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordun eta motozikleten konponketa	36.843	36.096	-2,0	133.323	129.617	-2,8	3,6	3,6
H. Garraioa eta biltegiatzea	11.520	11.011	-4,4	42.482	41.148	-3,1	3,7	3,7
I. Ostalaritza	13.436	13.256	-1,3	49.202	50.784	3,2	3,7	3,8
J. Informazioa eta komunikazioak	2.936	2.869	-2,3	22.055	21.259	-3,6	7,5	7,4

I.2.2. KOADROA. EAE-KO ENPRESEN KOPURUAREN BILAKAERA, JARDUERA ADARRAREN (CNAE 09) ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA

	ENPRESAK			ENPLEGUA			B.B. ENPLEGUA	
	2012	2013	12-13 (%)	2012	2013	12-13 (%)	2012	2013
K. Finantza jarduerak eta aseguruetakoa	2.976	2.903	-2,5	21.758	20.662	-5,0	7,3	7,1
L. Higiezin jarduerak	4.043	3.288	-18,7	6.240	5.278	-15,4	1,5	1,6
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	20.734	20.554	-0,9	58.293	57.924	-0,6	2,8	2,8
N. Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak	6.282	5.907	-6,0	56.810	58.985	3,8	9,0	10,0
O. Admin. publ. eta defentsa; nahitaezko gizarte segurantz	444	448	0,9	73.036	72.613	-0,6	164,5	162,1
P. Hezkuntza	3.871	3.918	1,2	36.086	36.403	0,9	9,3	9,3
Q. Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak	7.926	8.128	2,5	67.064	68.842	2,7	8,5	8,5
R. Arte aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	2.985	2.946	-1,3	11.234	11.269	0,3	3,8	3,8
S. Beste zerbitzu batzuk	8.423	8.418	-0,1	22.279	22.042	-1,1	2,6	0,2
Pertsona fisikoa	97.941	96.017	-2,0	138.737	136.329	-1,7	1,4	1,4
Sozietate anonimoa	7.215	6.790	-5,9	231.907	222.954	-3,9	32,1	32,8
Erantzukizun mugatuko sozietatea	44.189	42.421	-4,0	262.059	258.227	-1,5	5,9	6,1
Beste sozietate eta elkarte batzuk	15.147	14.821	-2,2	118.735	115.586	-2,7	7,8	7,8
Beste sozietate bat*	6.645	6.662	0,3	51.653	48.358	-6,4	7,8	7,3
Ondasun erkidegoa	7.156	6.736	-5,9	20.497	19.740	-3,7	2,9	2,9
Sozietate kooperatiboa	1.346	1.423	5,7	46.585	47.488	1,9	34,6	33,4
Beste forma juridiko batzuk	1.025	1.018	-0,7	121.683	121.997	0,3	118,7	119,8
Tokiko korporazioa	384	382	-0,5	26.678	26.109	-2,1	69,5	68,3
Erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erljio erakundea	591	588	-0,5	26.370	26.137	-0,9	44,6	44,5
Estatuko eta AAEetako administrazio organoa.	50	48	-4,0	68.635	69.751	1,6	1372,7	1453,1

* (Erregular kolektiboa, komandita, elkarte, sozietate zibila eta definitu gabeko beste mota batzuk)

Iturria: EUSTAT, JEGID

Enpresa egitura

Sektorez sektore, 2012 eta 2013 bitartean, eta energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzeko jarduerak alde batera utzita, honako hauetan izan dira jaitsierarik handienak enpresen eta lanpostuen kopuruaren aldetik: Higiezin jarduerak (%-18,7 enpresetan eta %-15,4 enpleguan) eta Eraikuntza (%-8,7 enpresetan eta %-12,3 enpleguan).

Manufaktura-industriak, bestalde, enpresen %4,8 eta lanpostuen %4 galdu du; finantza jarduerak eta aseguruetakok enpresen %2,5, eta lanpostuen %5 eta garraioak eta biltegiatzeak, berriz, enpresen %4,4 eta lanpostuen %3,1.

Bereziki deigarriak dira administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak; izan ere, enpresen %6 galdu dute, baina lanpostuen kopurua, berriz, %3,8 hazi da. Ostalaritzak, bestalde, enpresen %1,3 galdu du, baina enplegua %3,2 handitu da.

Enpresaren batez besteko tamaina, lehen ere aipatu dugun moduan, 5,3 enplegukoa da. Administrazio publikoa eta defentsa eta gizarte segurantzak alde batera utzita, enpresako batez besteko tamaina handiena ageri duten sektoreak hauek dira: Ur hornidura; saneamenduko, hondakin kudeaketako eta kutsadura kentzeko jarduerak (25,7), energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura (18,7), manufaktura industria (14,8) eta erazketa industriak (11,5).

Nortasun juridikoa aintzat hartuta eta tamaina txikieneko enpresak kanpoan utzita¹², hain zuzen ere titulartzat pertsona fisiko bat dutenak (enpresa bakoitzeko 1,4 pertsonako batez bestekoarekin), batez besteko tamaina 11 pertsonako kopuruan kokatzen da (10,9 2012an). Bertan, Sozietate Anonimoetako batez besteko lan-taldea 32,8 langilekoa da (32,1 2012an) eta Kooperatibena, aldiz, 33,4 pertsonakoa (34,6 aurreko ekitaldian ere).

EAEko enpresa jardueraren erdia baino gehiago (% 59,6) "pertsona fisiko" motako estaldura juridikopean egiten da, baina formula horrek enpleguaren % 15,9 baino ez du biltzen. Horrenbestez, "pertsona juridikoen" estaldura juridikopean egiten den enpresa jarduera % 40,4koa da, eta enpresa horiek enpleguaren % 84,1 biltzen dute.

Pertsona fisikoak kontuan hartu gabe, enpresa jardueren ia bi heren (% 65,2) erantzukizun mugatuko sozietate moduan egiten dira; enpleguaren bi heren baino zertxobait gehiago (% 66,9) Sozietate Anonimoen eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateen artean banatzen da; Sozietate Kooperatiboak enpresen % 2,2 dira eta enpleguaren % 6,6 biltzen dute. Merkatuko edo enpresako ekonomia sozialaren egituraren (batez ere Sozietate Kooperatiboak eta Lan Sozietateak) analisiak erakusten du Sozietate Kooperatiboko izaera juridikoa daukaten

I.2.3. KOADROA. EAE-KO KOOPERATIBEN KOPURUAREN BILAKAERA, MOTEN ARABERA SAILKATUTA (XII-31N)						
	2011	2012	2013	% 2013	Gehikuntza 2012/2013	Gehikuntza 2007/2013
GUZTIRA	1.770	1.814	1.843	100,0	29	202
Nekazaritza	105	109	111	6,0	2	12
Kontsumoa	34	34	35	1,9	1	3
Zerbitzuak eta beste batzuk	88	88		5,2	8	20
Elkarlana	1.074	1.078	1.090	59,1	12	33
Irakaskuntza	93	95	94	5,1	-1	2
Etxebizitza	288	316	322	17,5	6	98
Kreditua	1	1	1	0,1	0	0
Mistoak	36	43	45	2,4	2	28
2. gradua edo handiagoa	51	50	49	2,7	-1	6

Iturria: Kooperatiben Erregistroa. Enplegu eta Gizarte Politiketarako Saila. EUSKO JAURLARITZA.

enpresen kopurua 1.423 dela 2013an, EUSTATEN arabera. Gainera, 47.488 langile daukate. Beraz, batez besteko plantilla 33,4 langilekoa da, lehenago ere esana dugunez.

2013ko abenduaren 31n Gizarte Segurantzak altan dauden 1.522 kooperatiba enpresa (aurreko urtean baino 3 gehiago) erregistratu ditu, guztira; horiek 54526 langile zituzten. Horrek 35,8 langileko batezbestekoa dakar kooperatibako (EUSTATEko ratioa baino handiagoa), eta Estatuko batezbesteko handiena da, haren batezbestekoa (12,6) hirukoiztuta.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sozialaren Zuzendaritzako Kooperatiben Erregistroaren arabera, kooperatiben kopurua 1.843¹³ izan da 2013an. Haien artean, erdia baino gehiago (1.090) elkarlaneko kooperatibak dira; haietatik 568 (% 52) kooperatiba txikiak dira (figura horrek bere erregimena eta araudia dauzka, ekainaren 25eko 6/2008 Legea dela bide). Elkarlaneko kooperatiba horiek 12 gehiago dira aurten, eta aurreko urtean 4 izan ziren. Hazkunderik handiena etxebizitzako kooperatibetan (+6) izan da; izan ere, azken bost urteotan kategoria horrek 98 kooperatiba gehiago hartu ditu, hau da, gorakadaren % 50 baino gehiago eragin du.

¹²Titular edo enpresaren nortasun juridikoa (IFK, IFZ, NAN), kategoria hauetan bilduta: pertsona fisiko; sozietate anonimoa; erantzukizun mugatuko sozietate; beste sozietate eta sozietate elkarte batzuk (erregular kolektiboa, komandita, elkarte, sozietate zibila eta definitu gabeko beste batzuk (ondasun-erkidegoa, sozietate kooperatiboa) eta beste forma juridiko batzuk (tokiko korporazioa, erakunde autonomoa edo haren parekoa. Erljio kongregazioa edo erakunde, autonomia erkidegoen edo estatuaren administrazioaren organoa). Eustat (Metodologia, definizioak)

¹³Ikusi Gizarte Segurantzaren eta EUSTATEN datuekiko aldea.

Lan Sozietateei dagokienez¹⁴, Gizarte Segurantzaren arabera, kotizatutako kopuru osoa 678 da, hau da, 2012an baino 44 gutxiago (irailaren 30eko datuak). 6.877 langile dauzkate (2012an baino % 9,2 gutxiago). Batez besteko tamaina 10,1 langilekoa da sozietate bakoitzeko, estatuko batezbestekoa (5,5 langile) baino askozaz ere handiagoa.

Enpresei dagokienez eta establezimendua analisi-unitatetzat hartuta, aurreko urteetan bezala, ikus daiteke enpleguaren tamainaren araberrako egitura ez dela aldatu. 2.260 establezimendu eskasek, kopuru osoaren % 1,3ak hain zuzen ere, 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 325.474 lanpostu (lanpostu guztien % 38,1). Aldiz, 133.793 establezimendu, kopuru osoaren % 74,6, ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 19,5 bakarrik hartzen dute. Bestela esanda, garrantzizkoa da gogoeta egitea eta jardutea enpresen tamainak euskal enpresa sarean duen hazkunderaren inguruan.

Enpresa-txandakatzea

Enpresa-txandakatzeari buruzko azterketa (altak, bajak eta saldoa) funtsezkoa da enpresa dinamismoari buruzko ezaugarriak ondorioztatzeko, hots, enpresa berriak sortzeko gaitasunari buruzkoak; izan ere, jarduerari uzten dioten enpresak baino gehiago izan beharko dira oparoaldian.¹⁵

2013an, behera egin du enpresen kopuruak (lehen sektorea barne), 14.977 enpresa berrik jarduera hasi izanaren eta 19.427 enpresak jarduerari¹⁶ utzi izanaren ondorioz. Hala, saldo garbia -5326 da. Bestalde, %9koa da enpresen sorkuntzaren tasa gordina eta enpresa-galerarena, berriz, %11,7koa.

Azterketaren ardatz orain establezimendua hartuta (banakapen maila handiagoa ematen du nortasun juridikoaren arabera), honako hau esan dezakegu: establezimenduen kopuru txikiagoa izan da 13.829 jarduera hasi izanaren eta 19.015 jarduera utzi izanaren ondorioz. Hala, saldo garbia -5.186 da.

Txandakatzerik handiena, 2013an, arlo hauetan gertatu da: nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza (gehikuntza handia establezimendu kopuruan), eraikuntza, handizkako eta txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunen eta bizikleten konponketa, higiezin jarduerak eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak.

Txandakatze handieneko mailak enpresa txikienei dagozkie berriz ere: 2 lanpostu edo txikiagoko establezimenduei.

Nortasun juridikoa kontuan hartuz gero, EUSTATen arabera, txandakatze handiagoa egon da pertsona fisikoaren formula juridikopean sortutako establezimenduetan: alden % 66,6 (9.209) eta bajen % 60 (11.401). Bigarrenik, sozietate mugatuak agertzen dira.

¹⁴Haietan, sozietatearen kapitalaren gehiena langile bazkideena da. Bazkide bakoitzak gehienez eduki dezakeen kapital soziala ezin daiteke izan guztiaren herena baino handiagoa (partaidetza publikoarekin salbuespen batzuk gertatu ohi dira). Kapital soziala akzio izendunetan banatzen denean, lan sozietate anonimoa da (SAL). Partaidetza sozialetan banatzen denean, izaera juridikoa lan-erantzukizun mugatuko sozietateena da (SLL). Nolanahi ere, bai akzioak bai partaidetzak bi taldetan banatzen dira: bazkide langileenak eta beste pertsona batzuenak.

¹⁵Kontuan izan behar da alta eta baja jarduera batzuk gertatzen direla erregistro edo izenen aldaketengatik, bat-egiteengatik eta erosketengatik, etab. Ez da alta do bajaren zioa agerrarazi.

¹⁶Urte jakin bateko alden eta aurreko urtean dauden enpresen arteko zatiduraren bidez kalkulatu. Enpresa galerei dagokienez, bajekin kalkulatu da zatidura. nuan izan behar da alta eta baja jarduera batzuk gertatzen direla erregistro edo izenen aldaketengatik, bat-egiteengatik eta erosketengatik, etab. Ez da alta do bajaren zioa agerrarazi.

I.2.4. KOADROA. ESTABLEZIMENDUEN EGITURA ENPLEGUAREN ARABERA

	2012		2013	
	Kop.	Enplegua	Kop.	Enplegua
Guztira	184.471	873.121	179.285	855.093
=< 2	137.997	171.849	133.796	166.463
3-5	24.790	90.907	24.210	88.766
6-9	8.390	60.174	8.357	60.119
10-14	4.245	49.580	4.164	48.502
15-19	2.326	38.849	2.278	38.119
20-49	4.409	132.893	4.220	127.650
50-99	1.397	96.738	1.365	94.638
100-249	686	102.361	674	101.539
250-499	156	53.656	140	48.495
>= 500	75	76.114	81	80.802

Iturria: EUSTAT, JEGID

I.2.5. KOADROA. ENPRESEN ALTAK, BAJAK ETA SALDO GARBIA

	2012	2013
Enpresak	165.517	161.067
Altak	15.791	14.977
Bajak	22.862	19.427
Saldo garbia	-6.711	-5.326
Enpresa sorkuntzaren tasa gordina (%)	9,5	9,0
Enpresa galeraren tasa gordina (%)	13,8	11,7

Iturria: EUSTAT, JEGID

2.1.2. Nekazaritza eta arrantza

Kontu Ekonomikoen eta Hiruhilekoen Kontu Ekonomikoen –HKE- datuen arabera (2014ko otsailean argitaratuak), lehen sektoreak 2005eko pisu berdinari eusten dio EAEko BPGd korrontean (%0,8). Zehazki, 2013an 501,3 milioi euro lortu dira, eta lanaldi osoaren pareko lanpostuei (LOPL) dagozkien 12.918 lanposturekin, LOPLen lanpostu guztien %1,5 dira. 2005ean, berriz, %1,7 zen.

HKEen arabera, 2012 eta 2013 bitartean %6,1 egin du gora lehen sektorearen BEGak 2013an kopuru errealetan, noiz-eta aurreko epealdian, 2011-2012an, %8,7 hazi zenean. LOPLen kopurua, berriz, %3,7 jaitsi da. Aurreko urtean %0,3 jaitsi zen.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Baso ustiapena

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren datuen aurrerapenaren arabera, honakoa izan da nekazaritza sektoreak izan duen bilakaera xehea.

I.2.6. KOADROA. ENPRESA-TXANDAKATZEA JARDUERA SEKTOREAREN, ENPLEGU-MAILAREN ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA, 2013. (establezimenduak)				
	Altak	Bajak	Irauten duten establezimen duen saldoa	Saldo orok. (altak-bajak+irauten dutenen saldoa)
Guztira 2013	13.829	19.015	0	-5.186
01. Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	1.674	780	34	928
02. Erauzketa industriak; manufaktura industria; energia elektriko, gas, lurrun eta uraren hornidura; saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea	544	1.116	-26	-598
03. Eraikuntza	2.151	4.340	-15	-2.204
04. Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta bizikleten konponketa; garraioa eta biltegiatzea; ostalaritza	4.214	5.929	7	-1.708
05. Informazioa eta komunikazioak	390	474	-17	-101
06. Finantza jarduerak eta aseguru-taktoak	305	521	-19	-235
07. Higiezin jarduerak	184	980	-2	-798
08. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak	2.365	2.941	-36	-612
09. Administrazio publikoa eta defentsa; nahitaezko gizarte segurantzak; osasun jarduerak eta gizarte zerbitzu-taktoak	1.137	962	42	217
10. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	865	972	32	-75
Enplegu maila				
0 eta 2 artean	12.545	17.244	498	-4.201
3tik 5era	918	1.183	-315	-580
6tik 9ra	196	275	46	-33
10etik 19ra	76	126	-31	-81
20tik 49ra	28	65	-11	-48
>= 50	49	99	-139	-189
Nortasun juridikoa				
Pertsona juridikoa	9.209	11.401	-40	-2.232
Sozietate anonimoa	270	750	359	-121
Sozietate mugatua	3.144	5.189	143	-1.902
Beste sozietate bat	581	575	-471	-465
Ondasun-erkidegoa	421	867	-16	-462
Sozietate kooperatiboa	174	175	23	22
Tokiko korporazioa	12	32	0	-20
Organismo autonomoa edo haren parekoa. Erljio erakundea	14	20	-4	-10
Estatuaren eta AAEEetako administrazio organoa	4	6	6	4

Iturria: EUSTAT, JEGID

Nekazaritzako Azken Produkzioa (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta beste produkzio batzuk) Nekazaritzako azken produkzioaren balioa prezio arruntetan 2012koa baino % 3,5 txikiagoa izan da, prezioak % 3 handitzeari eta produkzioa % 6 murrizteari esker.

Zehazkiago, gora egin dute abeltzaintza eta nekazaritza produktuen batez besteko prezioek, eta pixka bat jaitsi dira zurarenek.

Bolumenaren bilakaera (prezio iraunkorretan), murrizpena ageri da nekazaritza produkzioan (-%8), abeltzaintzan (-%4) eta basogintzan (-%5).

Nekazaritzako Azken Produkzioa. Nekazaritzako Azken Produkzioa 2012koa baino %3,9 txikiagoa izan da. Prezioen %5eko igoerak eta produkzioaren %4ko murrizpenak eman dute aldakuntza hori.

Abeltzaintzako Azken Produkzioa. Abeltzaintzako Azken Produkzioa %1,5 jaitsi da 2013an. Prezioen %2,2ko igoerak eta bolumenaren %4ko jaitsierak eman dute aldakuntza hori.

Basogintzako Azken Produkzioa. Basogintzako Azken Produkzioa %11,3 jaitsi da 2013an. Mozketen %5eko jaitsierak eman du aldakuntza hori, eta gainera, prezioen beste jaitsiera batek ere izan du eragina, %6koa hain zuzen ere.

Barne-eskaerarik ez dagoenez, sektoreko eragileak zura esportatzen ari dira, baita barne-merkatuko eremu berriak bilatzen ere.

Bitarteko kontsumoak. Gastuak %2,1 igo ziren 2012an, kopuruen %3ko igoeragatik eta prezioen jaitsiera txikiagatik (%-1).

Diru-laguntzak ustiapenerako. 2013. urtean zehar, ustiapenerako diru-laguntza osoak % 1 jaitsi dira; nekazaritzako errenta osoaren % 25 dira (2012an % 24 ziren).

Amortizazioak. %0,2 hazi dira.

Nekazaritza errenta nominala edo balio arruntetako (BEG) Nekazaritza errenta kalkulatzeko Gastuak eta Amortizazioak kendu behar zaizkio Nekazaritzako Azken Produkzioaren (nekazaritza + abeltzaintza + basogintza + bestelakoak) eta Diru-laguntzen baturari. Nekazaritza errenta %7,4 jaitsi da 2013an.

I.2.7. KOADROA. NEKAZARITZA MAKROMAGNITUDEEN BILAKAERA (mila euro)

	2010 Behin betikoa	2011 Behin betikoa	2012 Aurrerapena	2013 Aurrerapena	2012-13ko aldak.
NEKAZARITZAKO AZKEN PRODUKZIO.	410.940,1	427.519,2	465.563,6	449.154,4	-3,5
Nekazaritzako Azken Produkzioa	221.593,4	241.521,7	259.706,2	249.576,3	-3,9
Zerealak	36.773,3	45.602,0	52.216,5	35.833,6	-31,4
Lekadunak	3.315,2	3.717,7	2.319,6	2.434,8	5,0
Patata	10.001,7	11.847,7	9.579,5	9.942,6	3,8
Erremolatxa	6.894,3	8.124,2	7.476,8	6.108,3	-18,3
Industriako beste batzuk	853,3	1.125,6	1.199,1	1.483,8	23,7
Barazkiak	68.470,1	67.107,3	69.948,8	70.687,7	1,1
Fruituak	12.099,7	14.658,6	15.594,7	14.432,2	-7,5
Mahastia	55.696,6	62.307,2	71.479,5	75.872,1	6,1
Beste batzuk	27.489,3	27.031,4	29.891,7	32.781,3	9,7
Abeltzaintzako Azken Produkzioa	146.025,5	139.972,5	151.504,9	149.189,4	-1,5
Behi animaliak/haragia	37.261,6	38.190,3	38.776,3	43.062,3	11,1
Ardi-ahuntz anim./haragia	6.492,2	5.494,5	5.545,2	5.483,5	-1,1
Txerri animaliak/haragia	2.665,0	1.888,4	2.404,9	3.557,7	47,9
Behi-esnea	60.290,9	58.059,9	57.817,5	60.988,7	5,5
Arrautzak	23.549,2	21.512,9	32.554,8	22.236,4	-31,7
Beste batzuk	15.766,6	14.826,5	14.406,2	13.860,8	-3,8
Basogintzako Azken Produkzioa	35.153,2	36.819,6	44.821,6	39.734,4	-11,3
Insignis Pinuaren zura	27.986,7	29.596,2	36.174,4	31.979,1	-11,6
Beste batzuk	7.166,5	7.223,4	8.647,1	7.755,3	-10,3
Beste produkzio batzuk	8.168,0	9.205,5	9.531,0	10.654,3	11,8
BITARTEKO KONTSUMOAK	169.676,3	185.112,2	190.129,2	194.072,8	2,1
DIRU-LAGUNTZAK	71.584,9	68.643,2	68.156,5	67.496,5	-1,0
AMORTIZAZIOAK	51.196,5	56.547,9	56.731,7	56.843,5	0,2
BEG bbs	241.263,8	242.407,0	275.434,4	255.081,6	-7,4
BEG ald	312.848,7	311.050,2	343.590,9	322.578,1	-6,1
NEKAZARITZAKO ERRENTA (BEG)	261.652,2	254.502,3	286.859,2	265.734,6	-7,4

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

Nekazaritza errenta erreala. Nekazaritza errenta errealak, hau da, inflazioaren efektua kendu ondoren geratzen denak, beheranzko joera izan du. Izan ere, %35 murriztu da 1985etik.

EAEko balio errealeko Nekazaritza errenta (deflazioa aplikatuta) EBko eta Estatuko errentekin konparatzea

EUROSTATEk inflazioa kenduta konparatzen ditu Estatuen arteko Kontuen Aurrerapenak, herrialde bakoitzak berea baitu. Horrez gain, basogintza sektorea kanpoan uzten du.

Metodologia horren arabera, nekazaritza errenta erreala % 7,8 gutxitu da EAEn eta %-2,1 27ko EBn, eta % 7,3 hazi da Estatuan.

I.2.8. KOADROA. NEKAZARITZA ERRENTA ERREALAREN BILAKAERA (basogintza sartu barik). Aldakuntza tasa. 2012-13			
	EAE	ESTATUA	27-EB
Nekazaritza errenta (termino errealetan)	-7,8	7,3	-2,1
Nekazaritzako azken prod. (nekazaritza eta abeltzaintza)	-3,9	4,5	0,1
Nekazaritzako azken prod.	-5,1	7,7	-1,1
Abeltzaintzako azken prod.	-2,7	0,0	1,5
Bitarteko kontsumoak	0,8	1,1	0,8
Diru-laguntzak	-2,2	0,8	

Iturria: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.

Arrantza

EBko Arrantza Politika Komuna berritzeko prozesuan, euskal arrantzako flotak, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren estatistika organoaren datuen arabera, behera jarraitzen du, bai arrantzontzietan, bai arrantzaleen kopuruan.

Euskal arrantzontzien kopuruaren (baxurakoak, itsas zabalekoak eta bakailao-ontziak) bilakaerak atzerako joerari eusten dio. 2013an 6 itsasontzi gutxiago izan dira, eta urtearen amaieran, guztira, 221 itsasontzi izan dira. Bestalde, tripulazioak ere behera egin du, %7,3 hain zuzen ere. Hots, 2.099 itsasgizon ari ziren lanean.

I.2.9. KOADROA. EAE-KO ARRANTZONTZIETAKO TRIPULAZIOA ETA ITSASONTZIAK			
	2011	2012	2013
Itsasontziak	245	227	221
Tripulazioak	2.455	2.264	2.099

Iturria: Estatistika Organoa. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Eusko Jaurlaritza

EAEko baxurako lonjetan 2013. urteetan egindako enkanteak guztira 46.224,8 tona izan dira (2012an baino % 17,3 gutxiago).

I.2.10. KOADROA. EAE-KO BAXURAKO LONJETAKO ENKANTEAK					
		2011	2012	2013	
Legatza	Kopurua (Tm)	3.387,4	2.312,4	1.429,3	
	Mila €	6.708,5	5.634,0	3.617,2	
Antxoa	Tm	8.750,9	6.699,9	9.694,6	
	Mila €	18.018,7	15.009,1	24.079,0	
Hegaluzea	Tm	4.536,9	6.362,3	3.577,7	
	Mila €	16.757,1	22.205,6	12.521,1	
Atuna	Tm	471,2	134,4	0,0	
	Mila €	3.070,0	985,5	0,0	
Sardina	Tm	7.120,6	19.303,2	12.224,5	
	Mila €	3.444,3	11.059,4	5.977,5	
Txitxarroa	Tm	6.246,3	5.091,2	6.442,3	
	Mila €	3.710,7	3.269,5	4.261,9	
Gainerako espezieak	Tm	11.214,2	15.966,8	12.856,4	
	Mila €	18.290,9	22.580,1	16.001,1	
Guztira	Tm	41.727,5	55.870,1	46.224,8	
	Mila €	70.000,2	80.743,0	66.457,9	
	Batez besteko prezioa, guztira (€/kg)	1,67	1,45	1,44	

Iturria: Estatistika Organoa. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Eusko Jaurlaritza

EAEko baxurako lonjetan egindako enkanteetan lortutako kopuruei dagokienez, 66,5 milioi euro bildu dira. Beraz, diru-sarrerak 2012an baino % 17,7 txikiagoak izan dira (orduak 80,7 milioi euro lortu ziren).

EAEko baxurako lonjetan 2013an enkantean jarritako arrainaren batez besteko prezioa 1,44 /Kg izan da, hau da, 2012an baino pixka bat merkeagoa, 1,45 €/kg.

Lurralde lurralde, Bizkaian (Armintza, Bermeo, Lekeitio, Mundaka, Ondarroa eta Santurtziko portuetan) nahiz Gipuzkoan (Donostia, Getaria, Hondarribia, Mutriku eta Pasaiako portuetan) gertatu dira kopuru eta diru-sarrera murrizketak.

I.2.11. KOADROA. ENKANTEEN KOPURUAK ETA BALIOAK EAE-KO BAXURA LONJETAN, PORTUZ PORTU (2011-2012)

Portua	2012. urtea		2013. urtea		Aldak. %	
	Kopuruak tonatan	Mila €	Tm	Mila €	Tm	Mila €
Bizkaia	24.416,0	29.624,5	21.345,3	26.425,4	-12,6	-10,8
Gipuzkoa	31.452,9	51.111,7	24.879,5	40.032,5	-20,9	-21,7
Guztira	55.868,9	80.736,1	46.224,8	66.457,9	-17,3	-17,7

Iturria: Estatistika Organoa. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Eusko Jaurlaritzza

2.1.3. Industria

Kontu Ekonomikoen eta HKEen datuen arabera (datuak 2014ko otsailean argitaratu dira), industria sektorea prezio arruntetan 2005ean BPGd-aren % 25,8 izatetik 2012an % 20,7 (13.402 mila euro) izatera igaro da; lanaldi osoaren pareko lanpostuak (LOPL) 187.703 izanda, LOPLen enplegu osoaren % 21,4 da; 2005ean, aldiz, % 25,8 zen.


HKEen datuek erakusten dutenez, 2007ko bigarren hiruhilekotik aurrera industria produkzioaren hazkundetasa errealak apurka-apurka ahultzen joan ziren, eta 2009ko hirugarren hiruhilekoa % 15,1eko urte arteko aldakuntza-tasa negatiboarekin amaitu zen;

une horretatik aurrera hobera egin zuen egoerak. Alabaina, 2011ko bigarren hiruhilekotik hasita, industriako BEGd-ak berriz ere izan du hazkunde motelagoa, eta laugarren hiruhilekotik hasita tasa negatiboak izan ziren; izan ere, are jaitsiera handiagoa izan zen 2012. urtean, eta hazkundearen bidean jarri zen 2012ko azken hiruhilekotik hasita. Horrenbestez, industriako BEGd-ak %-4,2ko aldakuntza tasa negatiboa izan zuen 2012ko hirugarren hiruhilekoan, %-3,8koa laugarrenean eta %0ko tasarekin bukatu du 2013ko laugarren hiruhilekoan.

Horrela, industriako BEGd-aren urte arteko gehikuntza errealak, 2013. urtean, % -3,7koa izan zen.

Enpleguari dagokionez, kopuruek erakusten dute (lanaldi osoaren pareko 187.703 lanpostu, EUSTATen hiru hilez behingo kontu ekonomikoen arabera) urteko batezbestekoa % 4,3 jaitsi dela. Sektorearen produktibitateak urteko

I.2.2. GRAFIKOA. INDUSTRIA SEKTOREAREN BILAKAERA



Iturria: CET. EUSTAT

I.2.12. KOADROA. INDUSTRIAREN SEKTOREAREN ADIERAZLEAK

		2008	2009	2010	2011	2012	2013
BEGd	Bolumen kateatua	112,6	98	100	101,6	97,8	96
	Prezio korrontek (milioiak)	16.532	13.386	13.984	14.244	13.750	13.402
LOPLeko enplegua*		240.778	215.791	208.400	205.616	196.159	187.703
BEGaren aldak. (errealak)		-0,7	-12,9	2,0	1,6	-3,7	-1,9
Enpleguaren aldakuntza		-2	-10,4	-3,4	-1,3	-4,6	-4,3
Produktibitatea (LOPLeko enpleguan neurtua)		1,4	-2,9	5,6	3,0	1,0	2,5
Deflatorea		1,7	-7,0	2,4	0,3	0,2	-0,7

*Lanaldi osoaren pareko lanpostuei dagozkie.
Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta HKE

%2,5eko batez besteko hazkundera du.

Eraikuntzaren BEGd-aren urteko batez besteko txikitzea EAEn Estatuan igarritakoa baino handiagoa da; Estatuan % 1,2 murriztu da, INEren arabera.

EUSTATen 2014ko maiatzeko datuen arabera, Industri Ekoizpenaren Indizearen (IPI, datu gordinak izanda) urteko batez besteko aldakuntzak jardueraren % 3,3ko jaitsiera agertu du 2013. urtean (% -5,6 2012. urtean) EAE osoan.

Lurralde Historikoen arabera analisiari esker ondorioztatu da jaitsiera handiena Gipuzkoan (% -4,4) egon dela, horren atzetik Bizkaia (% -2,5) eta Araba (% -2,7) daudela.

EUSTATen arabera, ondasunen helmuga ekonomikoa aztertuta, EAEn batez besteko jaitsiera hori ondasun guztien ekoizpenaren jaitsieran oinarritu da: Kontsumo-ondasunak, iraunkorrak eta ez iraunkorrak (-%10,8 iraunkorretan eta %-2,7 ez iraunkorretan), ekipo-ondasunak (-%3,3), bitarteko ondasunak (-%2,6) eta energia (-%3).

I.2.13. KOADROA. IPIren BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ETA ONDASUNEN DESTINO EKONOMIKOAREN ARABERA. Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundera

	Guztira, EAE	Lurralde historikoak			Ondasunen destino ekonomikoa					
		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Kontsumo ondasunak			Ekipo ondasunak	Bitarteko ondasunak	Energia
					Guztira	Iraunkorra	Ez iraunkorra			
2008	-2,9	-4	-2,5	-2,6	-7	-16,7	-3,2	-1,1	-4,1	3,6
2009	-21,7	-24	-22	-20,3	-14,6	-29,1	-9,8	-23,2	-26	-6,9
2010	2,1	8	0,8	0,8	0,9	0,9	0,9	-2,6	7,1	-5,3
2011	3,5	7,7	1	3,9	-0,7	0	-1	10,3	5,1	-7,8
2012	-5,6	-4,6	-7,3	-4,4	-3,8	-5,1	-3,3	-5,9	-7,2	-2
2013 b-b	-3,3	-2,7	-4,4	-2,5	-5	-10,8	-2,7	-3,3	-2,6	-3

Behin-behinekoak. Iturria: EUSTAT IPI (2014ko maiatzeko datuak)

INEk 2013ko otsailean emandako datuen arabera, aurreko urtearekin alderatuta 2013. urtean IPIren (indize orokorra datu gordinetan) batez bestekoak % -1,8ko aldakuntza izan zuen estatuan. INEren EAerako batezbestekoa % -3,5ekoa izan da.

EUROSTATen datuen arabera, Industri Ekoizpenaren Indizearen batez besteko aldakuntza (doitua) 2013an, 2014ko maiatzeko datuekin, -%0,8 da eurogunean eta %-0,5ekoa 28ko EBn.

I.2.14. KOADROA. IPI, JARDUERA SEKTOREEN ARABERA. Datu gordinak. Urteko batez besteko hazkundera

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
IPI	-2,9	-21,7	2,1	3,5	-5,6	-3,3
02. Erauzketa industriak	-14	-26,8	-20,7	-21,7	-10,3	-18
03. Elikagaien, edarien eta tabakoaren ind.	-1,1	-4,8	3,9	-2,8	0,7	0,5
04. Oihal prod., jantzigintza eta oinetakoak	-7,3	-30,7	4,5	6,8	-23,4	-14,4
05. Zura, papera eta arte grafikoak	-7,1	-18,8	-4,2	5,5	-4,3	-2,6
06. Kokea lortzeko eta petrolio finkatzeko fabrikak	5,7	-10,6	-9,6	-5,4	-6,5	14,6
07. Industria kimikoa	-8,5	-23,6	2,2	-0,6	-12,4	-1,7
08. Produktu farmazeutikoak	4,3	-3,3	4,8	2,6	-15	1,6
09. Kautxua eta plastikoak	-8	-20,4	9,8	1,9	-14,1	-6
10. Metalurgia	-4,5	-29,3	6,2	5,3	-5	-2,9
11. Produk. informatikoak eta elektronikoak	-13	-24,4	3,8	12,5	1	-6,2
12. Material eta ekipo elektrikoa	-1,8	-22,7	-0,2	0,5	-4,9	-7,9
13. Makineria eta ekipoa	-2,2	-30,2	-4,9	15,2	-0,9	-0,3
14. Garraio materiala	6,2	-15	6,8	12,2	-9,5	-3,4
15. Altzariak eta beste manufaktura batzuk	-3,7	-22,5	-13	1,6	-9,5	-6
16. Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	2,5	-6,4	-3,8	-8,2	-1,2	-6

Iturria: EUSTAT IPI (2014ko maiatzeko datuak)

IPIren sektorekako azterketatik (datu gordinekin) ondorioztatzen denez, EAerako hiru industri sektore garrantzitsuenetatik (Metalurgia, Makineria eta ekipoak eta Garraio Materiala), batez bestekotik beherako jaitsiera

dago metalurgian eta makinerian (-%2,9 eta %-0,3 hurrenez hurren, -%3,3aren aldean). Garraio materialean, berriz, batez bestekoaren antzeko jaitsiera izan da (-%3,4 eta -%3,3).

Industriako ondasunen prezioei dagokienez, EUSTATen arabera, Industriako Prezioen Indizeak (IPRI) gure Erkidegoan urteko %0,6ko jaitsiera izan zuen batez beste 2013an, aurreko urteko % 2,4ko hazkuntzaren aldean

Hauexetan izan da igoyerarik handienak: Metalurgia eta produktu metalikoak (-%2,7), kokea lortzea eta petrolio fintzea(-%2,6) eta erauzketa industriak (-%1,4).

I.2.15. KOADROA. IPRI, ONDASUNEN DESTINO EKONOMIKOAREN ETA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA, CNAE-2009 (urteko batez besteko hazkundeak)						
	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Indize orokorra	5,5	-6	3,3	8,1	2,4	-0,6
Ondasunen destino ekonomikoa						
Kontsumo-ondasunak	4,2	0,5	0,2	3,1	1,7	0
---Kontsumo iraunkorreko ondasunak	3	0,2	-0,5	0,6	0,5	0,2
---Kontsumo ez iraunkorreko ondasunak	4,7	0,6	0,5	4	2,2	0
Ekipo-ondasunak	2,6	1,3	0,1	1,5	1,2	1,3
Bitarteko ondasunak	3,8	-7,9	3,1	6,5	0,1	-1,3
Energia	15,7	-14,6	11,7	21,7	7,8	-1,8
Jarduera sektoreak						
-Erauzketa industriak	15,3	5,5	-1,3	-0,6	-1,5	-1,4
-Manufaktura industria	4,9	-6,5	3,8	6,6	2	-0,7
---Elikagai, edari eta tabakoaren ind.	8,4	-1,2	1,6	5,8	2,9	-0,6
---Oihal prod., jantzigintza, larrugintza eta oinetakoak	3,1	1,1	0,8	-1,5	2,2	0,6
---Zura, papera eta arte grafikoak	1,2	-3,2	1	4,9	-0,3	-1,1
---Kokea lortzeko eta petrolio fintzeko fabrikak	19,4	-24,1	23,9	21,9	10,1	-2,6
---Industria kimikoa	4,9	-2	1,9	6,7	2,8	0,4
---Produktu farmazeutikoak	1,7	1	0,4	1,1	0,2	1,5
---Kautxua eta plastikoak	3,5	-0,3	0,9	2,5	0,2	3,8
--- Metalurgia eta produktu metalikoak	3,4	-10,7	3,6	7,1	-0,4	-2,7
---Prod. informatikoak eta elektronikoak	4,2	0,9	0,5	2,2	0,5	-1,7
---Material eta ekipa elektrikoak	3,1	-1,7	2,1	5,6	3,3	-0,3
--- Makineria eta ekipoa	2	1,7	-0,6	0,8	0,6	2,2
--- Garraio materiala	1,9	2,7	0,6	1,2	0,2	1,2
---Altzariak eta beste manufaktura batzuk	3,8	2,4	-0,2	1,5	2,4	-0,3
-Energia elektrikoak, gasa eta lurruna	10,9	-1,5	-1,3	19,8	5,6	-0,1

2005eko oinarria. Iturria: EUSTAT. IPRI

EAEko funtsezko hiru industri sektoreei dagokionez, metalurgian eta produktu metalikoetan %2,7ko jaitsiera izan da; makinerian eta ekipoen eta garraio materialean, berriz, aldakuntza tasa positiboak ageri dira (%+2,2 eta %+1,2, hurrenez hurren).

Ondasunen destino ekonomikoen arabera, energiaren prezioa %1,8 jaitsi da, bitarteko ondasunen %1,3 eta kontsumo ez iraunkorreko ondasunenak, berriz, ez du aldakuntzarik. Bestalde, ekipoen ondasunen prezioa %1,3 hazi da, eta %0,2 handitu da kontsumo iraunkorreko ondasunenak.

INEren behin-behineko datuen arabera (2013ko urtarrilean argitaratuak), EAEko IPRI urteko %-0,2ko aldakuntza tasa izan du. Estatuko aldakuntza, berriz, %0,6 da.

EUROSTATen datuen arabera, Industri Prezioen Indizearen batez besteko aldakuntza, 2013an, %-0,2 da eurogunean eta zero 28ko EBn, 2014ko maiatzeko datuen arabera.

EUSTATen industri estatistikak sektoreari buruzko azterketa xehatuagoa eskaintzen digu, baina 2012ko datuekin (2014ko maiatzean argitaratuak). Horien arabera, 2011 eta 2012 bitartean, %5,4ko jaitsiera nominaleko tasa duen industri sektorearen BEGd-ak, eta enpleguan, berriz, %4,8koa. Bestalde, inbertsioa %9,5 gutxitu zen, eta zergen ondoren eragiketa jarraituen emaitzak %36,1 jaitsi ziren

Ekoizpena eta enplegua kontuan hartuz gero, Metalurgia eta produktu metalikoak, Makineria eta ekipoa eta Garraio materiala dira, oraindik ere, gure ekonomiako oinarrizko arloak (BPGd-aren %5,69, %2,07 eta %1,93 dira hurrenez hurren), baina guztiek ere beherakada izan dute enpleguaren eta inbertsioaren aldetik; ez da gauza bera gertatu faktoreen kostuarekin, inbertsioarekin eta zergen ondorengo emaitzekin, BEGd-ari dagokionez.

I.2.16. KOADROA. INDUSTRIAREN SEKTOREKO MAGNITUDEAK SEKTOREKA.

	Banaketan %a (Industria = 100) 2012					Inbertsioa (milaka euro) /enpl. 2012	Emitza (milaka euro) /enpl. 2012	BEG	Enplegua	Inbertsioa	Emitzak eragiketa jarraituetan*, zergak eta gero
	BEG	Enplegua	Inbertsioa	Salmenta garbiak	Emitzak zergen ondoren						
GUZTIRA, INDUSTRIA	100	100	100	100	100	-	-	-5,4	-4,8	-9,5	-36,1
Erauzketa industria	13.983.941	203.174	1.991.536	55.661.105	1.281.645	-	-	-5,4	-4,8	-9,5	-36,1
Elikagai, edari eta tabakoaren industria	0,5	0,3	0,7	0,4	0,7	23,7	16,0	-9,7	-5,0	-47,9	-56,8
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoak	6,1	7,2	4,1	6,5	20,6	5,6	18,1	-8,8	-6,3	-38,1	28,5
Zura, papera eta arte grafikoak	0,7	1,3	0,2	0,6	1,4	1,6	6,7	-11,4	-6,5	16,9	-19,9
Petrolio kokea eta findegiak	5,2	6,4	3,7	4,2	6,4	5,8	6,3	-12,6	-7,2	-24,5	-29,7
Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoen fabrikazioa	0,9	0,6	4,7	12,2	1,5	81,5	16,9	-32,9	-2,7	-60,3	-81,3
Kautxua eta plastikoak	2,8	2,2	2,7	2,6	6,8	11,7	19,4	-10,9	-8,2	-5,7	-21,5
Metalezkoak ez diren bestelako produktu mineralak	7,2	6,9	5,8	5,7	12,8	8,3	11,8	-4,1	-9,3	47,6	-23,0
Metalurgia eta produktu metalikoak	2,6	3,0	1,5	2,0	-5,5	5,1	-11,7	-17,7	-6,1	-63,1	-209,1
Prod. Informat. eta elektronikoak eta optikoak	27,5	33,9	22,3	25,4	12,4	6,5	2,3	-5,4	-5,0	-8,0	30,7
Material eta ekipo elektrikoa (etxeko tresna elek. barne)	2,2	2,9	1,6	1,4	3,1	5,5	6,7	2,7	2,5	9,8	-2,0
Makineria eta ekipoa	5,1	5,9	4,8	4,8	4,7	8,0	5,1	-9,8	-4,6	9,2	-43,6
Garraio materiala	10,0	10,2	5,6	7,6	17,1	5,4	10,6	-2,7	-3,3	-16,5	-5,6
Altzariak eta bestelako manufakturak	9,3	8,3	14,0	10,3	17,2	16,4	13,0	-3,1	-2,7	75,0	-32,5
Argindarra, gasa eta lurruna	4,2	6,9	2,2	2,6	2,1	3,2	1,9	-3,7	-2,2	0,5	-30,5
Ur hornidura eta saneamendua	12,4	1,2	18,9	11,9	-7,3	160,0	-39,5	-0,1	-4,0	-0,7	-143,7
	3,2	3,0	7,1	1,8	6,0	22,8	12,5	6,5	-2,9	-17,0	9,4

*Eragiketa horientatiko ustiapen eta finantza emaitza sartzen da. Iturria: EUSTAT. Industriari buruzko estatistika

Sektoreok jarduera adarren arabera bananduz gero, metalurgia eta produktu metalikoen arloa honakoetan banatzen da. Siderurgia, Burdinazkoak ez diren metalen ekoizpena, Metalen galdaketa, Metalezko eraikuntza, Forjaketa eta estanzazioa, Ingeniaritza mekanikoa eta Metalezko artikulua sektoreek industriako BEGd-aren % 27,5 hartzen dute prezio arruntetan, enpleguaren % 33,9, inbertsioaren % 22,3 eta negozio-zifra garbiaren % 25,4, eta enpleguaren eta inbertsioaren aldetik % 5,4, %5 eta %8ko jaitsiera izan dute, hurrenez hurren.

Makineria eta ekipoa, honako hauek biltzen dituena: erabilera orokorreko makinak eta makina-erreminta industriako BEGd-aren % 10 da, enpleguaren % 10, inbertsioaren % 7,6 eta negozio-zifra garbiaren % 7,6, eta enpleguaren eta inbertsioaren aldetik % 2,7, %3,3 eta %16,5eko jaitsiera izan du.

I.2.17. KOADROA. INDUSTRIAK EAE-N DUEN EDUKI TEKNOLOGIKOA, ELGA-REN SEKTOREAK GORABEHERA.

	2011	2012	Pisua 2011n	Pisua 2012an	2011-12ko aldak.
ENPLEGUA (kopurua)					
Guztira	213.405	203.174	100	100	-4,8
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	63.293	61.414	29,7	30,2	-3,0
Maila teknologiko altua	8.577	9.025	4,0	4,4	5,2
Maila teknologiko ertain-altua	54.716	52.389	25,6	25,8	-4,3
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	140.741	132.700	66,0	65,3	-5,7
Maila teknologiko ertain-baxua	102.042	96.813	47,8	47,7	-5,1
Maila teknologiko baxua	38.699	35.887	18,1	17,7	-7,3
Sailkatu gabe	9.371	9.060	4,4	4,5	-3,3
BEG c.f. (mila euro)					
Guztira	14.789.069	13.983.941	100	100	-5,4
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	4.352.453	4.148.292	29,4	29,7	-4,7
Maila teknologiko altua	523.344	552.408	3,5	4,0	5,6
Maila teknologiko ertain-altua	3.829.109	3.595.884	25,9	25,7	-6,1
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	8.206.541	7.586.347	55,5	54	-7,6
Maila teknologiko ertain-baxua	6.069.732	5.686.345	41,0	40,7	-6,3
Maila teknologiko baxua	2.136.809	1.900.002	14,4	13,6	-11,1
Sailkatu gabe	2.230.075	2.249.302	15,1	16,1	0,9
SALMENTAK (mila euro)					
Guztira	58.733.508	55.661.105	100	100	-5,2
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	15.484.783	14.688.208	26,4	26,4	-5,1
Maila teknologiko altua	1.694.034,0	1.780.574,0	2,9	3,2	5,1
Maila teknologiko ertain-altua	13.790.749,0	12.907.634,0	23,5	23,2	-6,4
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	35.489.861	33.182.455	60,4	59,6	-6,5
Maila teknologiko ertain-baxua	27.958.294	26.157.132	47,6	47,0	-6,4
Maila teknologiko baxua	7.531.567	7.025.323	12,8	12,6	-6,7
Sailkatu gabe	7.758.864	7.790.442	13,2	14,0	0,4
PRODUKTIBITATEA					
Guztira	4,1	-0,7			
Maila teknologiko altua eta ertain-altua	7,7	-1,8			
Maila teknologiko altua	2,9	0,3			
Maila teknologiko ertain-altua	8,4	-1,9			
Maila teknologiko ertain-baxua eta baxua	2,9	-2,0			
Maila teknologiko ertain-baxua	2,8	-1,3			
Maila teknologiko baxua	2,9	-4,1			
Sailkatu gabe					

Garraio materiala. Bertan honako hauek egongo lirateke: Motordun ibilgailuen fabrikazioa, Ontzizintza eta Bestelako garraio materialak. Industriako BEGd-aren % 9,1, enpleguaren % 8,3, inbertsioaren % 7,2 (2011. urtean) eta negozio-zifra garbiaren % 10,3 hartzen ditu, eta BEGd-aren eta enpleguaren aldetik % 3,1 eta %2,7ko jaitsiera izan du. Inbertsioa, berriz, %75 handitu da.

Idazpuru honetan biltzen diren taulek erakusten duten BEGd, enplegu, inbertsio, negozio-kopuru eta zerga ondorengo emaitzen inguruan egindako sektorekako azterketatik ondoriozta daitekeenez, jarduera-azpisektore ezberdinek ez dute eboluzio homogeneorik izan.

Eduki teknologikoari dagokionez¹⁷, EUSTATen datuen arabera, 2011 eta 2012. urteak alderatuta, faktore kostuen eta enpleguaren arabera, gora egin du eduki teknologiko maila handiko eta maila handi-ertaineko sektoreen pisuak eta behera egin du maila txiki eta ertain-txikiei dagokienak. Salmenta datuetan, berriz, gora egin du eduki teknologiko handiko sektoreen pisuak, eta behera egin dute maila ertain-handikoei, ertain-baxukoei eta maila baxukoei dagokiena.

Era berean, maila teknologiko handieneko sektoreek bakarrik izan dituzte hazkundeak BEG, enplegu eta salmenta kopuruetan.

2.1.4. Eraikuntza


Kontu Ekonomikoen eta HKEen datuen arabera (datuak 2014ko otsailean argitaratu dira), eraikuntza sektorea prezio arruntetan 2005ean BPGd-aren % 8,7 izatetik % 6,1 (3.941,3 mila euro) izatera igaro da 2013an; lanaldi osoaren pareko lanpostuak (LOPL) 58.632 izanda, LOPLn enplegu osoaren % 7,6 da; 2005ean, aldiz, % 10 zen. Datuen iturri horren arabera, eraikuntza sektoreak 2013an % 5 egin du behera BEGd-aren termino errealetan (%-8,2 2012an). Eraikuntzaren hiruhilekoen urte arteko bilakaeran, beherakada moteldu egin dela ageri da, hots, lehen hiruhilekoaren %6,8tik %-1,2ra laugarrenean.

Eraikuntzaren BEGd-aren urteko batez besteko beherakada EAEn Estatuan egondakoa baino txikiagoa da: Estatuan % 7,7 murriztu da, INEren arabera.

Enpleguari dagokionez, EUSTATen Hiru Hilez Behingo Kontu Ekonomikoek urteko batez besteko % -10,8ko aldakuntza agerrarazi dute; aurreko urtekoa, aldiz, % -12,2koa izan zen. Sektorearen produktibitatea, guztira % 6,5 handitu da.

Aldi berean, EUSTATen datuen arabera, BPGd-aren deflaktoreak %2,8ko murrizpena izan du 2013an.

I.2.3. GRAFIKOA. ERAIKUNTZA SEKTOREAREN BILAKAERA



Iturria: CET. EUSTAT

— Eraikuntza BEGd-aren urte arteko aldakuntza-tasa. Bolumen indizea
— Eraikuntza enplegu aldakuntza-tasa. (ETC)

I.2.18. KOADROA. ERAIKUNTZAREN SEKTOREAREN BILAKAERA

	Eraikuntzaren koiuntura indizea Urteko batez besteko hazkuntza			Enplegua	Hiru Hilez Behingo Kontu Ekonomikoak. (Datu zuzenduak) Urte arteko aldakuntza tasa			
	Guztira	Eraikuntza	Obra zibila		BPG bolumen kateatua	Lanpostuak	Produktib.	Deflaktorea
	Produktzio indizea. Datu zuzenduak							
2009	-12,5	-15,7	-6,4	-7,9	-7,4	-7,9	0,5	3,9
2010	-16,9	-13,6	-22,4	-8,4	-7,9	-7	-1,0	-3,0
2011	-10,1	-10,8	-8,7	-8,1	-7,9	-9,9	2,2	1,8
2012	-20	-18,3	-23,2	-14,6	-8,2	-12,2	4,6	-1,6
2013	-16,5	-18,1	-13,3	-13	-5	-10,8	6,5	-2,8

Iturria: EUSTAT

¹⁷ Eduki teknologikoari dagokionez eta EUSTATEk erabiltzen duen ELGaren sailkapenaren arabera, maila teknologiko handiak honako hauek barne hartzen ditu: 1. Produktu farmazeutikoen fabrikazioa, 2. Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak, eta 3. Aeronautika eta espazio eraikuntza. Maila teknologiko ertain-handian, honako hauek daude: 4. Industria kimikoa, 5. Arma eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipo elektronikoaren fabrikazioa, Makineria eta ekipoen fabrikazioa, Ibilgailuen fabrikazioa, 7. Bestelako garraio materialen fabrikazioa, Ontzigtza eta Aeronautika eraikuntza izan ezik, eta 8. Tresna eta hornigai medikoen eta odontologikoen fabrikazioa. Ertain-baxuak hauek biltzen ditu: 9. euskarri grabatuen erreproduktzioa, 10. Kokea lortzeko eta petrolioa fintzeko jarduerak, 11. Kautxu eta plastikoen produktuen fabrikazioa, metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa. Metalurgia, 12. Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta armak eta munizioak izan ezik, 13. Ontzigtza, eta 14. Makineriaren eta ekipoaren konponketa eta instalazioa. Baxuaren barruan: 15. Elikagaien, edarien, tabakoaren industria eta jantzigtza. Larrugintza eta oinetakoak. Zuraren eta paperaren eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoak, 17. Altzarien fabrikazioa, 18. Beste manufaktura-industria batzuk; eta 19. Saikatu barik.

Eraikuntzaren Koiuntura Indizeari dagokionez, urteko batez besteko aldakuntza 2013. urtean -%16,5ean kokatzen da. Obra zibilean izandako erorketa (-%18,1) eraikuntzan izandakoa baino (-%13,3) altuagoa izan da. Enpleguak erregistratu duen urteko batez besteko aldakuntza % -13koa izan da.

EUROSTATen datuen arabera, Eraikuntzaren Produkzio Indizearen batez besteko aldakuntza 2013an, 2014ko maiatzeko datuen arabera, %-2,9koa da euroaren eremuan eta %-2,2koa 28ko EBn.

2.1.5. Zerbitzuak¹⁸

Kontu Ekonomikoen eta HKEen datuen arabera (datuak 2014ko otsailean argitaratu dira), zerbitzuen sektorea prezio arruntetan 2005ean BPGd-aren % 53,8 izatetik 2013an % 63,2 (40.908 mila euro) izatera igaro da; lanpostuak 617.953 izanda, LOPLn enplegu osoaren % 70,5 da; 2005ean, aldiz, % 62,4 zen.

I.2.19. KOADROA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN BILAKAERA (urte arteko aldakuntza tasak)								
	Zerbitzuen BEG. Bolumen indizea				Lanean ari diren langil.	Produktib.	Deflak-torea	
	Guztira	Merkat., ostalaritza eta garraioak	Ad. Publikoa, Hezk., Osasun eta Gizarte Zerbitzuak	Gainerako zerbitzuak				
2008	3,4	1,2	6,2	3,4	2,0	1,4	3,3	
2009	0,0	-2,8	3,4	0,0	-1,0	1,0	2,3	
2010	0,7	0,4	3,8	-0,8	0,2	0,5	0,5	
2011	0,9	-0,6	3,5	0,4	0,5	0,4	1,6	
2012	-0,4	-1,1	,4	-0,3	-1,1	0,7	0,6	
2013	-0,6	-1,4	-0,3	-0,2	-0,5	-0,1	1,6	

Datu zuzenduak. Urte arteko aldakuntza tasak. Iturria: EUSTAT

EAEko zerbitzuen sektoreko balio erantsi erreala % 0,6 jaitsi da 2013. urtean (aurreko urtean % -0,4ko aldakuntza izan zen). Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa % 1,4 murriztu dira, Administrazio Publikoak, Hezkuntzak, Osasunak eta Gizarte Zerbitzuek %-0,3 egin dute behera eta Gainerako Zerbitzuak, berriz, % -0,2 jaitsi dira.

EAEn sektore osoaren BEGd-aren beherakada erreala (EUSTATen arabera, % -0,6) txikiagoa da estatukoa baino (INERen behin-behineko datuen arabera, % 0,5 murriztu da estatuan

EUSTATen datuen arabera, gure Erkidegoan zerbitzuen sektoreko enplegua % 0,5 murriztu da; aurreko urtean, berriz, % 1,1 jaitsi zen. Produktibitatea %0,1 jaitsi da. Bestalde, %1,6ko hazkunde tasa du deflaktoreak.

Zerbitzuen sektorearen barruan, merkataritzaren eta konponketen adarra da nabarmena orain ere, BPGd-aren nahiz enpleguaren kopuruetan: Zerbitzuen sektoreko BPG korrontearen %15,2 2012an (eskuragarri dugun azken datua) eta enpleguaren %19,3 (2011ko datua). Halaber, BPGd-aren aldetik honako hauek ere nabarmenak izan dira: higiezin jarduerak (zerbitzuen sektorearen BPGd-aren % 15,5, Finantza eta aseguru jarduerak (% 9,4), Osasun jarduerak (%7,9), Administrazio publikoa eta defentsa (% 7,3 biak), Hezkuntza (% 7). Enpleguaren aldetik, honakoak izan dira nabarmenenak: Etxeetako jarduerak (zerbitzuen sektore osoaren enpleguaren %10,3), Hezkuntza (%10), Zerbitzu Osagarriak (%8,4), Administrazio Publikoa eta defentsa (%8), Ostalaritza (%7,4) eta Osasun Jarduerak (%6,5).

2009 eta 2012 bitartean, BPGd-aren urteko batez besteko aldakuntza-tasa % +0,5ekoa izan da. BPGd-aren hazkunde handienak honako adar hauetan egon dira: Gizarte zerbitzuen jarduerak (%3,5, urteko batez bestekoa), jarduera publikoak eta defentsa eta ostalaritza (%3,2), etxeetako jarduerak eta aisialdi eta kultur jarduerak (biak %2,7, urteko batez besteko tasa), osasun jarduerak (%2,6, urte batez bestekoa) eta Hezkuntza (%1,7, urte arteko batez besteko tasa).

Enpleguari dagokionez, hazi egin da hura 2009. eta 2011. urteen artean, urteko % 0,6ko batez besteko tasarekin. Hala ere, gehikuntza handiak egon dira honako adar hauetan: Ikerkuntza eta Garapena (%6,6), Etxeetako Jarduerak

¹⁸ "EAEko Gizarte Babesari buruzko IV. Kapituluaren, gure Erkidegoko gizarte zerbitzuei buruzko atal bat dago.

(%5,4) Aisialdi eta Kultur jarduerak (%1,8), Hezkuntza (%1,7), Aholkularitza eta Jarduera teknikoak (%1,6) eta osasun jarduerak (%0,7).

Zerbitzuen sektorean prezioek izandako urteko batez besteko hazkundea, 2009. eta 2012. urteen artean, % 0,8koa da.

I.2.20. KOADROA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA ETA BILAKAERA EAE-N

	ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA										% urteko aldak.		
	BPG korrontea					Lanpostuak					BPG*	Prezioak	Lanpostuak
	2008	2009	2010	2011	2012	2007	2008	2009	2010	2011	2009-2012		2009-11
19. Merkataritza; ibilgailuen konponketa	16,7	15,3	15,2	15,3	15,2	20,7	20,3	19,6	19,4	19,3	-1,2	2,8	-0,1
20. Garraioa eta biltegiak	8,3	7,9	7,5	7,6	7,3	6,6	6,6	6,3	6,1	6,0	-1,9	1,6	-1,5
21. Ostalaritza	6,2	6,1	6,4	6,6	6,7	7,3	7,3	7,3	7,3	7,4	3,2	2,0	1,2
22. Edizioa, irudia, irratia eta telebista	1,1	1,0	1,0	0,9	0,9	1,0	1,0	1,0	1,0	0,9	-4,1	1,8	-3,2
23. Telekomunikazioak	3,0	2,8	2,8	2,8	2,8	0,4	0,4	0,4	0,4	0,4	2,0	-0,6	0,0
24. Informatika	1,7	1,6	1,6	1,6	1,6	2,0	2,0	2,0	1,9	1,8	0,9	0,3	-2,7
25. Finantza jarduerak eta aseguruak	11,3	10,5	9,6	9,3	9,4	3,1	3,1	3,1	3,0	2,9	-4,3	2,7	-2,5
26. Higiezin jarduerak	15,3	15,3	15,2	15,5	15,5	1,2	1,2	1,0	1,0	0,9	0,6	1,7	-6,0
27. Aholkularitza eta jarduera teknikoak	6,6	6,1	6,2	6,4	6,4	5,9	5,9	5,9	6,0	6,0	2,0	1,8	1,6
28. Ikerketa eta garapena	1,1	1,0	1,1	1,1	1,1	0,7	0,8	0,9	0,9	1,0	1,0	2,4	6,6
29. Beste lanbide jarduera batzuk	1,3	1,2	1,1	1,2	1,1	1,7	1,6	1,6	1,6	1,6	-3,4	1,9	-1,2
30. Zerbitzu osagarriak	4,4	4,1	4,1	4,2	4,0	8,6	8,5	8,6	8,6	8,4	-0,2	1,4	-0,3
31. Administrazio publikoa eta defentsa	8,3	7,8	7,7	7,8	7,3	7,9	7,9	8,0	8,1	8,0	3,2	-3,5	0,3
32. Hezkuntza	7,3	7,4	7,5	7,4	7,0	9,2	9,4	9,8	9,9	10,0	1,7	-1,4	1,7
33. Osasun jarduerak	8,2	8,2	8,2	8,2	7,9	5,9	6,2	6,4	6,5	6,5	2,6	-1,8	0,7
34. Gizarte zerbitzuen jarduerak	1,5	1,6	1,5	1,6	1,5	3,4	3,5	3,5	3,6	3,4	3,5	-2,0	0,2
35. Aisialdi eta kultur jarduerak	1,7	1,7	1,8	1,9	1,9	1,9	1,9	1,9	2,0	1,9	2,7	2,7	1,8
36. Beste zerbitzu batzuk	1,4	1,4	1,4	1,4	1,4	3,3	3,2	3,2	3,2	3,2	0,5	1,5	-0,7
37. Etxeetako jarduerak	1,3	1,3	1,3	1,4	1,4	9,0	9,1	9,4	9,5	10,3	2,7	1,8	5,4
38. Lurralde gaindikotako erakundeak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Guztira, zerbitzuak (BPG, mila eurotan emana, eta lanaldi osoko lanpostuak)	35.684.180	38.096.896	38.961.160	39.411.902	40.377.914	691.076	705.571	702.305	706.690	711.274	0,5	0,8	0,6

* BPG erreala (bolumen kateatua) Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak

Merkataritza

EUSTATen Kontu Ekonomikoetatik eskuragarri ditugun azken datuen arabera, ibilgailuen konponketaren eta merkataritzaren sektorea EAEko BPG korrontearen %9,5 da (6.120,5 milioi euro, 2012ko datua), eta horren enplegua, berriz, %14,2 (130.687 lanpostu, lanaldi osoaren parekoak, 2011ko datua).

EUSTATEk handikako eta txikizkako merkataritza indizeei buruz argitaraturiko datuak oinarri hartuta ondoriozta daitekeenez, merkataritzaren salmentak murriztu egin dira 2013an, baina 2012an baino gutxiago. Hala, handikako merkataritza indizea %0,9 gutxitu da 2013an; 2012an, berriz, %3,5 jaitsi zen, eta txikizkako merkataritza, berriz, %4 jatsi da, aurreko urteko %5,1aren aldean.

Aldi berean, 2013an behera egin dute salmentek txikizkako salmentek handikakoei baino.

Txikizkako merkataritza dagokionez, salmenten jaitsiera izan da elikagaietan (%-4,1) nahiz gainerako produktuetan (%-4,5). Hala ere, elikagaien jaitsiera handiagoa da salmenta ez espezializatueta (%-6,1) espezializatueta baino (%-0,2). Gainerako produktuetan, berriz, alderantziz gertatzen da, eta jaitsierarik handiena pertsonarentzako ekipamenduetan gertaturikoa dago (%-8,3), eta ondoren etxerako ekipamendua (%-4,4).

I.2.21. KOADROA. MERKATARITZA SALMENTEN INDIZEAREN BILAKAERA* (urte arteko tasak)

	HANDIZKAKO MERKATARITZA			TXIKIZKAKO MERKATARITZA										
	Indize orok.	Elikagaia k	Gain. produk.	Indize orok.	Elikagaiak			Gainerako produktua					Automoziorako erregaia	Zerbitzугuneen indize orokorra
					Guztira	Espezializ. atua	Ez espezial.	Guztira	Perts. ekipam.	Etxeko ekipam.	Beste konts. ondasun batzuk	Ez espezial.		
2011	-5,4	-2,6	-6,9	-3,9	-3,2	-2,9	-3,4	-3,7	-2,6	-3,6	-3,4	-8,1	-8,2	-3,6
2012	-3,5	-1,8	-4,6	-5,1	-4,2	-4,5	-4	-5,8	-5,7	-7,5	-5	-3,5	-5,6	-5,2
2013	-0,9	-0,7	-1,3	-4	-4,1	-0,2	-6,1	-4,5	-8,3	-4,4	-1,7	3,3	-0,8	-4,2

(*) Urteko batez besteko hazkundera prezio iraunkorretan Iturria: EUSTAT

Iturri horren okupazio datuek erakusten dutenez, sektorearen enpleguaren beherakada gertatu da 2013an, 2012an baino handiagoa. Hala, %4,4ko murrizpena dugu enpleguan denda handietan. Aurreko urtean, berriz, %-3,5ekoa izan zen eta %2,5ekoa txikizkako merkataritzan, noiz-eta 2012an %1ekoa izan zenean.

I.2.22. KOADROA. LANEAN ARI DIRENEN INDIZEAREN BILAKAERA
Urte arteko tasak

	Denda handiak	Txikizkako merkataritza			
		Indize orokorra	Elikagaiak	Gainerako produktua	Automoziorako erregaia
2011	-1,1	0,5	-2,3	4,1	-1,1
2012	-3,5	-1	-5,4	4,1	-3,6
2013	-4,4	-2,5	-5,8	-2,8	-1,6

Iturria: EUSTAT

Ondorioz, enplegua gehiago jaitzi da denda handietan txikizkako merkataritzan baino.

Ostalaritza

EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGd-aren balioaren % 4,2 inguru hartzen du (2.695,2 milioi euro; 2012ko datua) eta enpleguaren % 5,1 inguru (lanaldi osoaren pareko 52.521 lanpostu; 2011ko datua).

EUSTATen establezimendu turistiko hartzaileen inkestako datuetan, EAEn kokaturiko ostatueta jasotako bidaiariak biltzen dira, eta EAEn igarotako gauak eta bidaiariak zenbatuta ikus daitekeenez, igarotako gauen, batez besteko egonaldiaren eta okupazio mailaren kopuruak behera egin du 2012 eta 2013 bitartean.

I.2.23. KOADROA. BIDAIARIAK, IGAROTAKO GAUAK, BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO MAILA EAE-KO OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUETAN

	Bidaiariak	Okupaturiko plazak guztira (igarotako gauak)	Batez besteko egonaldia (egunetan)	Okupazio maila plaza bakoitzeko	Okupazio maila gela bakoitzeko
2011	2.420.997	4.574.989	1,89	46,00	55,20
2012	2.420.107	4.622.303	1,91	46,10	55,80
2013	2.368.080	4.478.672	1,89	44,30	53,80

Iturria: EUSTAT, establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

¹⁹ Hilabeteroko definitzen da ehunekoak: hilabete jakin batean igarotako gau guztien eta hoteleko plaza/gela (egokia den moduan) kopuruaren eta hile horrek dituen egun kopuruarekin biderkatuta lortzen den erlazioa.


²⁰ Pertsonen ostatueta eskaintzeko jarduera nagusia duen establezimendua da, prezioa ordainduta, maiztasunez eta modu profesionalean, beste zerbitzu osagarri batzuekin edo horiek gabe. Hala, hotel, ostatu edo antzeko izendapena ematen zaio. Ez dira talde horren barruan sartzen, inkesta honen ondorioetarako, araudi espezifikoa menpe dauden ostatu turistiko gainerako establezimenduak hala nola oporretako turismo etxeak, landa-turismoak, kanpalekuak, etab.

Bidaiarien kopuruaren jaitsiera gertatu da EAEko (%-5,9) eta Estatuko (%-4,8) bidaiarien murrizketagatik, zeren eta atzerriko bidaiarien kopuruak gora egin baitu (%+3,3).

EAEko berezko bidaiariak alde batera utzita ikusten dugunez, EAEko hoteletan ostatua hartu duten bidaiarien kopuruak ere behera egin du 2012 eta 2013 bitartean, eta guztira 2.021.824 izan dira.

Igarotako gauen kopurua (EAEko berezkoak kenduta) %2,2 jaitsi da (baina atzerriko turistak gehitu egin dira). Hala, batez besteko egonaldia 1,94 egunean kokatzen da, eta 1,94koa da Estatuko bisitarien kasuan. Estatutik kanpokoetan, berriz, 1,93 da.

I.2.4. GRAFIKOA. BIDAIAIARIEN EAE-RAKO BIDAIAEN BILAKAERA. HOTEL ERAKO ESTABLEZIMENDUAK



Iturria: EUSTAT

I.2.24. KOADROA. BIDAIAIRIAK, IGAROTAKO GAUAK BATEZ BESTEKO EGONALDIEN (EGUNAK) KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N, BIDAIAIARIEN JATORRIAREN ARABERA

	2011			2012			2013			Aldakuntza		
	Bidaiariak	Gau-emeak	B.b. egonaldia (egunak)	B	P	B.E.	P	B.E.	B (%)	P (%)	B.E. (Dif.)	
Guztira, EAE gabe	2.021.195	3.917.063	1,94	2.052.004	4.005.146	1,95	2.021.824	3.915.498	1,94	-1,5	-2,2	-0,02
Estatua EAE gabe	1.236.274	2.407.248	1,95	1.210.448	2.374.003	1,96	1.152.554	2.236.107	1,94	-4,8	-5,8	-0,02
Atzerrikoak	784.921	1.509.815	1,92	841.556	1.631.143	1,94	869.270	1.679.391	1,93	3,3	3,0	-0,01
Eneko berezkoak	399.802	657.926	1,65	368.103	617.157	1,68	346.256	563.174	1,63	-5,9	-8,7	-0,05

Iturria: EUSTAT, establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Finantza sektorea

EUSTATen Kontu Ekonomikoek eskura jarritako azken datuen arabera, Ostalaritza sektoreak EAEko BPGd-aren balioaren % 5,8 inguru hartzen du (3.786,5 milioi euro; 2012ko datua) eta enpleguaren % 2,2 inguru (lanaldi osoaren pareko 20.272 lanpostu; 2011ko datua).

Finantza esparrua ardatz hartuta, esku-hartzearen tasa, euro eremuaren egunean, %0,75ean amaitu zen 2012. urtean. Europako Banku Zentralak, 2013an, bi aldiz jaitsi du tasa hori, maiatzean (%0,5ean utzita) eta azaroan (%0,25ean).

Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak, aldiz, beren esku-hartze tasak mantendu dituzte 2012 eta 2011 urteetan itxi zuten modu berdinean: lehenengoak % 0,25ekin eta bigarrenak % 0,1ekin.

I.2.25. KOADROA. KREDITU ENTITATEEK ETXEBIZITZEI ETA EZEIXGE-ei EMANDAKO INTERES-TASA*

	DMTE** (Definizio murriztuko tasa efektiboa)			UTB (Urteko tasa baliokidea)		
	Hatzatutako batez besteko tasa					
	Etxebiz. kreditua	Konts. Kreditua*	Beste xede batzuk	Etxebizitza	Kontsumoa	Beste xede batzuk
2009	2,53	9,28	4,48	2,62	9,72	4,95
2010	2,60	6,92	5,16	2,66	7,47	5,64
2011	3,58	8,57	5,94	3,66	9,11	6,29
2012	2,81	7,76	5,81	2,93	8,31	6,23
2013	2,99	8,90	5,58	3,16	9,52	5,92

* Familien zerbitzurako irabazteko asmorik gabeko erakundeak
 ** DMTEk ez du komisorik biltzen, UTBk, aldiz, bai. ***2010eko maiatzera arte, hura barne; zutabe honetan sartzen da kreditu txartel bidez emandako kreditua
 Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Buletina.

Diru merkatuko interes tasei dagokienez, horiek areagotu egin ziren epe guztietan, urterakoetan izan ezik. Horrela, hilabete bateko Euriborra % 0,12an zegoen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta % 0,16an amaitu zuen laugarrenean.

Hiru hilabeteko Euriborra % 0,21etik % 0,24ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean. Sei hilabeteko Euriborra %0,34tik %0,36ra igaro da, eta urtebeterako Euriborra % 0,57an hasi zen eta % 0,53an amaitu.

Kreditu-entitateek EAEn emandako kreditu osoa hazi egin da 2012 eta 2013 bitartean, %8,31tik %9,52ra. Gauza bera etxebizitzan, %2,93tik %3,16ra hain zuzen ere.

I.2.26. KOADROA. KREDITU ENTITATEEK SEKTORE PUBLIKOARI ETA PRIBATUARI EMANDAKO KREDITUA (saldoak 12/31n)									
	Milioi euro					Banaketa EAE 2013	Estatua 2013	%a Estatuaren gainean	Aldakuntzaren % 2012-13
	2009	2010	2011	2012	2013				
Guztira	83.863	86.884	85.956	79.338	73.237	100	1.469.010	5,0	-7,7
Adm. Publikoa	2.757	3.562	3.859	4.277	4.862	6,6	73.627	6,6	13,7
Sektore Pribatua (BSE)	81.106	83.322	82.097	75.062	68.375	93,4	1.392.384	4,9	-8,9

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Buletina

Gordailu-entitateek EAEn emandako kreditu osoa berriro ere txikitu egin da 2013. urtean, 79.338 milioi eurotik 73.237 milioi eurora, hain zuzen (% -7,7).

Beharakada hori sektore pribatuari emandako kredituak izandako beharakadaren (% -8,9) ondorioa da, Administrazio Publikoei emandako kreditua handitu egin baita berriz ere (% +13,7).

Beste sektore egoiliar batzuetan kreditu-saldoak jaitsi izanak ziurrenik eragina eduki du etxebizitza erosteko hipoteka-bermea duen kredituaren beharakadan ere. Gauzak horrela, Espainiako Bankuak estatu osoarentzat dituen datuen arabera (ez dago Autonomia Erkidegoetako daturik), magnitude hori % 4,2 murriztu da 2012 eta 2013 bitartean (594.405 milioi eurotik 569.692 milioi eurora).

I.2.27. KOADROA. ETXEBIZITZA ESTATUAN EROSTEKO HIPOTEKA-BERMEA DUTEN KREDITUAK ESTATUAN		
	Milioi €	Aldakuntza tasak
2008	611.483	5,3
2009	611.813	0,1
2010	620.433	1,4
2011	612.829	-1,2
2012	594.405	-3,0
2013	569.692	-4,2

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika buletina

Ildo horretan, INEren Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoak Hipoteken Estatistikan argitaratu dituen datuen arabera, %30 egin du behera EAEn eraturiko hipoteken kopuruak 2012 eta 2013 bitartean. Hipotekaturiko finkaren gainean emandako batez besteko zenbatekoa %0,3 jaitsi da, hots, 138.694 euro, aurreko ekitaldiko 139.139 euroren aldean. Etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua ere % 34,6 murriztu da, eta hipotekatutako etxebizitza kontuan hartuta maileguan emandako batez besteko zenbatekoa % 8,5 erori da (133.038 milioi eurotik 121.711 milioi eurora).

I.2.28. KOADROA. LANDA FINKEN ETA HIRI FINKEN HIPOTEKAK EAE-N												
	2011			2012			2013			Aldak. 2012-13		
	Kopurua	Zenbatekoa (Milioi €)	B.b. zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (Mil. €)	B.b. zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (Milioi €)	B.b. zenbatekoa (€)	Kopurua	Zenbatekoa (Milioi €)	B.b. zenbatekoa (€)
HIPOTEKAK GUZTIRA	33.954	5.216	153.620	25.284	3.518	139.139	17.708	2.456	138.694	-30,0	-30,2	-0,3
Landa finkak	743	150	201.884	527	97	183.491	497	80	160.966	-5,7	-17,3	-12,3
Hiri finkak	33.211	5.066	152.540	24.757	3.422	138.224	17.211	2.375	137.993	-30,5	-30,6	-0,2
Etxebizitza	23.065	3.355	145.458	16.920	2.251	133.038	11.059	1.346	121.711	-34,6	-40,2	-8,5
Orubeak	625	698	1.116.800	535	342	639.252	340	313	920.588	-36,4	-8,5	44,0
Beste hiri finka batzuk	9.521	1.013	106.396	7.302	829	113.531	5.812	716	123.193	-20,4	-13,6	8,5

Iturria: INE Hipoteken estatistika (Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa)

²¹ 2011n, Espainiako Bankuak ere informazio hori Bankuen, Aurrezki Kutxen eta Kreditu Kooperatiben artean banakatuta emateari utzi zion.

Finantza entitateetan jarritako gordailuei dagokienez, hain zuzen titularrak Administrazio Publikoak diren horiei dagokienez, 2.660 milioi euroan kokatu zen saldo osoa EAEn 2013ko ekitaldia amaitzean, Espainiako Bankuaren Estatistika Buletinaren datuen arabera. Kopuru hori bat dator urteko % 5eko gehikuntza tasarekin. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuak (BSE) 71.068 milioi euroan kokatu ziren, hots, % 2,4ko gehikuntza aurreko aldiarekiko

I.2.29. KOADROA. SEKTORE PRIBATUKO GORDAILUAK ETA HERRI ADMINISTRAZIOENAK GORDAILU ENTITATEETAN (SALDOAK ABENDUAREN 31N)

	Milioi euro				Banak.	Estatua	%a Estatu osoaren aldean	Aldak. %	
	2010	2011	2012	2013				2011-12	2012-13
Guztira pribatua eta publikoa	78.799	74.850	71.947	73.729	-	1.196.710	6	-3,9	2,5
Guztira sektore publikoa	4.937	2.757	2.533	2.660	-	61.796	4,3	-8,1	5,0
Guztira sektore pribatua (BSE)	73.862	72.093	69.414	71.068	100	1.134.914	6,3	-3,7	2,4
Ageriko gordailuak	13.866	15.795	18.805	23.175	32,6	290.344	8,0	19,1	23,2
Aurrezko gordailuak	18.624	15.919	12.749	9.832	13,8	206.530	4,8	-19,9	-22,9
Eperako gordailuak	41.374	40.379	37.860	38.062	53,6	638.040	6,0	-6,2	0,5

Iturria: Espainiako Bankua. Estatistika Buletina.

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuek izan ditzaketen modalitate ezberdinak (agerikoa, aurrezkoa eta eperakoa) kontuan hartuta aztertuz gero, ikusiko dugu ageriko gordailuek berriro ere gora egin dutela eta 23.175 milioi eurora iritsi direla (% +23,2), aurrezki gordailuen saldoak % 22,9 egin duela behera (9.832 milioi euro) eta eperako gordailuen saldoa pixka bat igo egin da, %0,5, 38.062 milioi eurora jaitsi arte.²²

Burtsari dagokionez, Espainiako Bankuaren Estatistika Buletinaren datuen arabera, Madrilgo Burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa 595.395 milioi eurokoa izan zen 2013an, eta %29,6 hazi da aurreko urtearen aldean; batez besteko kontratazio-bolumena, 698.744 milioi eurokoa, %0,4 igo da 2013an aurreko urtearen aldean, eta IBEX-35 indizea, 8,715,6 puntukoa (urteko batez bestekoa), %14,9 igo zen 2012an aurreko urtearen aldean.

I.2.30. KOADROA. BILBOKO 2000 BURTSAREN INDIZEA

	AZKENA	GEHIEN.	GUTXIEN.	ALDAK. % (azkena)
2008	1.589,9	2.625,7	1.338,6	-39,5
2009	1.921,6	1.936,2	1.149,3	20,9
2010	1.615,2	1.975,4	1.398,7	-15,9
2011	1.366,6	1.808,9	1.210,8	-15,4
2012	1.331,0	1.443,3	974,8	-2,6
2013	1.658,6	1.660,8	1.231,7	24,6

Iturria: Bilboko Burtsa

I.2.31. KOADROA. BILBOKO BURTSAREN KONTRATAZIO BOLUMENA (*)

	2010		2011		2012		2013		2012-2013ko aldak.	
	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak	Guztira (erosketak eta salmentak)	Erosketak
ERRENTA ALDAGARRIA	238.568,6	123.907,6	189.937,1	94.431,9	148.300,5	73.156,8	139.476,7	68.651,2	-6,0	-6,2
<i>Etengabeko merkatua: SIBE</i>	238.568,6	123.907,6	189.937,1	94.431,9	148.300,5	73.156,8	139.476,7	68.651,2	-6,0	-6,2
ERRENTA FINKOA	8.165,4	4.082,3	4.290,4	2.145,2	3.071,8	1.533,5	2.758,7	1.367,4	-10,2	-10,8
<i>Etengabeko merkatua: Elektronikoa</i>	6,4	2,8	3,6	1,8	9,2	2,2	28,2	2,1	205,7	-4,0
<i>Merkatu tradizionala: Parketa (hitzez)</i>	4,6	2,3	0,9	0,5	0,3	0,6	0	0	-100	-100,0
<i>Konturako Anotazio Zerbitzuak (KAZ)</i>	8.154,4	4.077,2	4.285,9	2.142,9	3.062,2	1.531,1	2.730,5	1.365,3	-10,8	-10,8
GUZTIRA BURTSA	246.734,0	127.989,9	194.227,5	96.577,1	151.372,3	74.690,3	142.235,4	70.018,6	-6,0	-6,3

(*) Milioi euro.

Iturria: Bilboko Burtsa

²² 2011n, Espainiako Bankuak ere informazio hori Bankuen, Aurrezki Kutxen eta Kreditu Kooperatiben artean banakatuta emateari utzi zion.

Bilboko Burtsaren 2000 Indizea 1.658,6 puntuan egon da 2013ko abenduan, eta horrek esan nahi du % 24,6ko igoera izan duela aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta.

Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak) % 6 murriztu da 2013an, 9.136,8 milioi euro, alegia. Beherakada hori errenta aldagarriak (%-6) eta errenta finkoak (%-10,2) izan duten galerak eragin du. Kontratazio osotik % 49,2 erosketek dagokie; esan beharra dago % 6,2ko beherakada izan dutela aurreko ekitaldiaren aldean.

2.2. I+G+B JARDUERAK ETA IKT-AK

2.2.1. I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak

I+G gastua.

2012. urtean, Eustaten datuen arabera, 1.372,9 milioi euro inbertitu ziren, aurreko urtean baino % 0,5 gehiago. Hots, 629,9 euroko per capita gastua. 2011koa baino %0,86 txikiagoa da kopuru hori, eta gutxienez azken hamalau urteetako lehenengoa da (EUSTATEN webeko informazioa 1999an abiarazi zen). Ez du bilakaera positiborik aurreko urtearen aldean.

I+Gn eginiko ahalegina.

I+Gn eginiko gastuak, 2012an, BPGaren %2,12 bildu du, EUSTATEN arabera (aurreko urtekoa baino pixka bat handiagoa, %2,08), euroguneko %2,14ko ratioa baino txikiagoa eta arloan erreferentzia diren herrialdeen azpitik: Finlandia (%3,55), Suedia (%3,41), Japonia (%3,25, 2010eko datua), Danimarka (%2,99), AEB (%2,67, 2011ko datua), Alemania (%2,92), eta Frantzia (%2,26) (EUROSTATen datuen arabera).

Lurralde historikoen arabera, Araban %1,7, Bizkaian %1,9 eta Gipuzkoan, berriz, %2,7.

INEk EAerako bildutako ahaleginak, 201a2n, BPGaren %2,19 bildu du. Estatuko batez bestekoa %1,30 da (%1,39 2010ean eta %1,33 2011n), eta autonomia erkidego hauek dituzte ratorik handienak: EAE, Nafarroa (%1,91) eta Madril (%1,82). Hona hemen hazkunde tasa positiboak izan dituzten erkidego bakarrak: Gaztela eta Leon (%7,5) eta EAE (%2,4).

Nolanahi ere, iturritzat EUSTAT (%2,12) nahiz INE (%2,19) hartuta, BPGarekin alderatuta I+G+b-rako erabilitako diru-baliabideak oso urrituta daude Eusko Jaurlaritzak 2011ko abenduan proposaturiko helburua lortzeko egokia izango litzatekeenetik; izan ere, Zientzia eta Teknologia Plana onetsi zuenean, hurrengo urtera BPGaren %3a gainditu nahi zuen arlo horretan.

I+G langileria egikaritze-sektorearen arabera²³.

EAEko I+Gn eginiko enpresa gastua guztizkoaren %76 da, aurreko aldiaren ikusitakoaren gainetik (orduan %75,8 izan zen). Enpresek egikaritutako gastu hori sektoreak Estatuan egindakoa baino handiagoa izan da. Izan ere, INEren arabera, estatuko enpresek (IAGEP alde batera utzita) I+G gastuaren % 53k egikaritu dute.

Herri Administrazioak EAEn egikarituriko gastua guztizkoaren %6,3 da, eta 2011n baino bi hamarren gehiago. EB-27an izandakoa baino ratio txikiagoa da, %12,7, baita Estatu osokoa ere (%19,1).

Bestalde, goi mailako irakaskuntza gastu guztiaren %17,9 da, aurreko ekitaldian erregistraturiko portzentaje bera.

²³ Komeni da kontuan hartzea Administrazioaren I+G-ko gastuaren zati handi bat Teknologi Elkarteekin sarearekin bideratzen dela, haien izaera juridikoa dela-eta enpresa sektorearen barruan sartuta estatistika eragiketa honetan.

I+G-ko gastuaren finantzaketa (Gastua funtsen jatorriaren arabera). Nahiz eta sektore pribatua I+G-ko gastuaren finantzaketa-iturri nagusia izan den, azken urteotan ikusi izan denez, galdu egin du pisua gastu horren finantzaketan. Alabaina, joera hori hautsi egin da krisialdian, halako moldez non gora egin baitu sektore pribatuak gastuaren finantzaketan izan duen partaidetzak: 2010 eta 2011 bitartean %53,3tik %54,3ra, eta 2012an, berriz, %55,9raino iristen da. Administrazioak, bestalde %36a finantzatzen du.

I.2.32. KOADROA. EAE-KO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA ADIERAZLEAK

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
I+G gastuak												
Guztira (milaka euro)	619.049	672.104	699.960	768.884	823.459	907.721	1.090.265	1.263.877	1.280.917	1.360.271	1.366.234	1.372.901
Urteko gehik. (%)	4,2	8,6	4,1	9,8	7,1	10,2	20,1	15,9	1,3	6,2	0,4	0,5
Per capita (euro)	296,9	321,6	334,1	365,4	389,3	426,0	507,6	584,3	590,5	625,7	626,3	620,9
BPGaren aldean (%)	1,42	1,47	1,43	1,45	1,45	1,48	1,65	1,87	2,00	2,09	2,08	2,12
DOB langileak												
Guztira	10.621,1	11.165,0	11.352,6	11.925,1	12.505,5	13.065,3	14.434,9	15.373,2	16.690,4	17.531,9	17.879,2	18.681,9
Urteko gehikuntza	16,8	5,1	1,7	5,0	4,9	4,5	10,5	6,5	8,6	5,0	2,0	4,5
Lanpostu baliokideen aldean (%)	12,6	12,9	12,8	13,1	13,4	13,7	14,7	15,6	17,7	18,8	19,4	20,8
Ikertzaileak (DOB)												
Orotara	5.809,2	6.294,8	7.142,1	7.414,2	7.819,7	8.145,0	9.220,4	9.640,1	10.386,2	11.070,8	11.283,1	11.771,7
Urteko gehikuntza	5,7	8,4	13,5	3,8	5,5	4,2	13,2	4,6	7,7	6,6	1,9	4,3
Lanpostu baliokideen aldean (%)	6,9	7,3	8,1	8,1	8,4	8,5	9,4	9,8	11,0	11,9	12,2	13,1

Iturria: EUSTAT. Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko Jardueri buruzko Estatistika.

Ondorioz, 10,1 puntura dago Lisboako helburuetatik: I+G-ko gastu guztiaren %66 funts pribatuekin finantzatua izatea.

Estatuan, INEren datuen arabera, herri administrazioak %43,1 finantzatzen du eta sektore pribatuak %45,6 (20,4 puntura Lisboako helburutik).

Eurogunean, EUROSTATen datuen arabera, %33,9 eta %56,3 dira hurrenez hurren 2012. urtean. I+G gastuaren finantzaketa pribatuko ratorik handienak izateagatik nabarmentzen dira: Japonia (%75,9, 2010ean), AEB (%60), Finlandia (%67), Alemania (%65,6), Danimarka (%60,3) eta Suedia (%57,3).

Kontuan hartzen badugu Eustaten arabera 2012. urtean 64.706 milioi eurokoa zela EAEko BPGa, orduan sektore pribatuak finantzatutako I+Ga (767,4 milioi euro) BPGaren % 1,19 da²⁴.

Europako helburuan, %2koa ezarri da 2020. urterako. Bestalde, EAEn Administrazio Publikoak finantzatutako I+Ga (494 milioi euro) BPGaren % 0,76 da. Bartzelonako helburuak balioa % 1ean zenbatzen du.

I+G gastua diziplina zientifikoaren arabera.

Berriro ere ingeniariaritz eta teknologia nabarmentzen dira (gastu osoaren % 71,5); ondoren, oso atzetik, zientzia zehatzak/natura-zientziak daude, % 10arekin; eta zientzia medikoak, ostera, % 9,9 dira. Bestalde, gizarte-zientziak eta nekazaritza-zientziak, hurrenez hurren, % 6,1 eta % 2,5 dira.

Funtsen jatorriaren arabera, ingeniariaritz eta teknologiaren arloko ikerketa oraindik ere sektore pribatuak finantzatzen du gehienik. Hala, % 70 sektore pribatuak finantzatzen du, eta % 23 sektore publikoak. Zientzia medikoetan, zientzia zehatzetan/natura-zientzietan, nekazaritza-zientzietan eta gizarte-zientzietan, justu kontrakoa gertatzen da; izan ere, Administrazioak finantzatzen du, hurrenez hurren, gastuaren % 62, % 76,4, % 66,1 eta % 67.

²⁴ 2014ko otsailaren 13ko datua.

I.2.33. KOADROA. HORMA BARRUKO GASTUAK, DIZIPLINA ZIENTIFIKOAREN ETA EGIKARITZE-SEKTOREAREN ARABERA, FUNTSEN JATORRIA KONTUAN HARTUTA

	2012						Aldakuntzaren % 2011-12					
	Orotara	Datuen jatorria					Orotara	Funtsen jatorria				
		Admin.	G.M. Irakask.	Enpr	IAGEP	Atzer.		Admin.	G.M. irakask.	Enpr	IAGEP	Atzer.
Diziplina Zientifikoa												
Orotara	1.372.901	494.050	34.705	767.400	5.877	70.869	0,5	-6,2	9,8	3,5	-1,4	17,3
Z. medikoak	137.032	104.736	5.679	17.183	1.114	8.321	-3,3	-6,5	-7,8	3,6	202,7	27,7
Ingeniaritza eta teknologia	981.826	226.114	15.100	691.488	1.294	47.830	0,3	-8,4	13,4	2,9	-49,2	7,5
Z. zehtzak/naturala	136.277	84.557	2.096	39.262	2.933	7.428	7,4	-1,0	8,5	20,1	30,8	64,2
Nekazaritza Z.	33.682	22.273	139	8.605	9	2.656	-3,4	-11,0	-5,4	10,3	125,0	40,9
Gizarte Z.	84.084	56.370	11.691	10.863	526	4.634	0,5	-2,0	16,4	-	-34,1	54,3
Egikaritze sektorea												
Enpresak	1.041.198	233.195	604	746.548	4604	56248	0,2	-12,4	858,7	4,0	-5,7	12,7
Herri Administrazioa	86.575	76.643	135	5.913	610	3.274	4,0	3,6	-41,8	-4,6	27,9	38,1
Goi mailako irakask.	245.128	184.212	33966	14.940	664	11.347	0,4	-1,2	8,5	-	11,2	38,9

Iturria: EUSTAT. "I+G jardueri buruzko estatistikak"

I+G-ko D.O.B.

Gorako joerari eusten dio. Hala, 2012. urtean 18.681,9 lagun dira, hots, lanpostu baliokideen milako 20,8 (milako 19,4 izan zen aurreko urtean). Bestalde, ikerlariak milako 13,1 (milako 12,2 aurreko ekitaldian).

I+G guztizko langileria egikaritze sektorearen arabera.

2011ren aldean, behera egin du 2012an langileria horrek enpresan duen ratioa; izan ere, guztizkoaren %65,3tik %64,8ra igaro da. Goi mailako hezkuntzan, berriz, %24,2tik %24,7ra igo da, eta egonkor eusten dio administrazio publikoan %10,5ean.

Lanbidea kontuan izanik (ikerlariak, teknikariak edo laguntzaileak), %59,2 ikerlariak dira, %30,4 teknikariak eta %10,3 laguntzaileak dira; hala ere, portzentaje horiek desberdinak dira lanbide sektorearen arabera, halako moldez non ikerlarien ratioa guztizkoaren %84,4koa baita goi mailako hezkuntzan.

Sexuaren araberako azterketak agerian uzten duenez, jarduera horietan diharduen langile guztien %35,7 emakumeak dira, aurreko ekitaldian erregistraturiko portzentaje bera.

I.2.34. KOADROA. LANGILE GUZTIAK, EGIKARITZE-SEKTOREAREN ETA LANBIDEAREN ARABERA

	OROTARA		EMAKUMEAK		Ikerlariak		Teknikariak		Laguntzaileak	
	2011	2012	2011	2012	2012					
					n	Guztizko horizontalaren %	n	Guztizko horizontalaren %	n	Guztizko horizontalaren %
Orotara	28.658	29.770	10.218	10.627	17.636	59,2	9.062	30,4	3.074	10,3
Enpresak	18.712	19.299	5.317	5.308	10.265	53,2	6.671	34,6	2.365	12,3
Administrazio publikoa	3.016	3.123	1.630	1.792	1.170	37,5	1.833	58,7	120	3,8
Goi mailako irakaskuntza	6.930	7.348	3.271	3.527	6.201	84,4	558	7,6	589	8,0

Iturria: EUSTAT, "I+G jardueri buruzko estatistikak"

Patenteak eta eredu baliagarriak

Azkenik, esan behar berriro egin duela behera patenteen eskabideen kopuruak 2011 eta 2012 bitartean, 173ra 149ra; indarreko patenteak, ostera ez: 210 dira (196 2011n). Bestalde, eredu baliagarriak jaitsi egin dira, eskaturikoak nahiz emandakoak.

I.2.35. KOADROA. PATENTEAK ETA EREDU BALIAGARRIAK EAEN								
	Eskabide kop.				Emakida kop.			
	2009	2010	2011	2012	2009	2010	2011	2012
Patente kop.	206	185	173	149	190	184	196	210
Patente baliagarrien kop.	104	122	146	124	107	119	141	112

Iturria: EUSTAT. I+G jardueri buruzko Estatistika

Berrikuntza Adierazleen Panela (IUS 2013) kontuan hartuta beste lurralde-eremu batzuekin alderatuz gero, ondoriozta liteke EAE, EAP patenteen²⁵ eskabideen adierazlea BPGko bilioiko (EAP eurotan) 1,75ekoa baitu, Estatuko batez bestekotik gora dagoela (1,43) baina EB-27ko batez bestekotik behera dagoela (3,90) eta oso urrun dagoela eredu herrialdeetatik, hala nola Suediatik (10,54), Finlandiatik (10,47), Alemaniatic (7,42) eta Herbehereetatik (6,24).

I.2.36. KOADROA. I+G GASTUAREN ETA ESKATURIKO PATENTEEN ALDERAKETA		
	I+G gastua/BPG (%)	Patenteak, PBGaren bilioi bateko (EAP)
EAE	2,12	1,75
Alemania	2,92	7,42
Danimarka	2,99	7,04
Suedia	3,41	10,54
Finlandia	3,55	10,48

Iturria: EUSTAT eta IUS, 2013

Datu horiek agerian uzten dutenez, EAEk zailtasunak ditu I+G jardueretan egiten duen gastua emaitzetan islatzeko, eta horrek erakusten du eraginkortasun edo produktibitate txikiagoa duela.

2.2.2. Europako Berrikuntza Adierazleen Panela, IUS 2013

Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria (IUS) herrialdeen ekonomiek berrikuntza-jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da. 2013an argitaraturiko azken edizioan, adierazle horiei buruz dauden azken datuak ematen dira eremu geografikoen arabera, eta rankinga ezartzen du adierazle sintetikoaren oinarri hartuta.

Eustaten datuen arabera, 2013. urtean, Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berrian, EAEk 0,48ko balioa lortu zuen. Hala, EB-27ko 15. lekuan dago, batez bestekotik behera (0,54).

EB-27ko herrialdeak lau kategoriatan taldeka daitezke, lortutako puntuazioa kontuan hartuta. Lehenengoan, berrikuntzan aitzindari diren herrialdeen taldean, honako hauek daude: Suedia (0,75), Alemania (0,72), Danimarka (0,72) eta Finlandia (0,68). Europar Batasuneko kide ez direnak ere kontuan hartuz gero, talde horretan sartzen da Suitza ere, 0,84rekin; beraz, berrikuntzaren abangoardian dago.


Bigarren taldean, "berrikuntza maila handiko herrialdeak": Belgika, Erresuma Batua, Herbehereak, Austria, Luxenburgo, Irlanda, Frantzia, Eslovenia, Zipre eta Estonia, 0,65 eta 0,50 bitarteko puntuazioarekin.

Eta hirugarrenengoan, berrikuntza-maila ertaina duten herrialdeen taldean, Italia, Espainia, Portugalen, besteak beste, 0,44 -0,28 puntu.

Eta laugarrenengoan, "berrikuntza-maila txikia" duten herrialdeen taldean, Errumania, Bulgaria eta Letonia daude: 0,27 -0,19.

²⁵ Patenteen Lankidetzarako Ituna.

Hortaz, gure Erkidegoak 0,48 puntu ditu, eta hirugarren taldeko goiko aldean kokatuko litzateke, berrikuntza maila ertainekoan.



Panela hiru multzo nagusitan egituratuta dago, eta multzo horien barruan 8 alderdi biltzen dira, guztira 25 adierazle dituztela.

Hona egitura:

- ✓ Berrikuntza «bideratzaileen» multzoan, «Giza baliabideak», «Ikerketa-sistemak»; eta «Finantzaketa eta Laguntza»; alderdiak sartzen dira. 8 adierazle ditu.
- ✓ «Enpresa-jarduerak» multzoak 3 alderdi ditu, «Enpresa-inbertsioak», «Loturak eta Enpresa-ekimena» eta «Aktibo intelektualak». 9 adierazle ditu.
- ✓ «Output» multzoak «Berritzaileak» eta «Ondorio ekonomikoak» alderdiak biltzen ditu. 8 adierazle ditu.

Europako batez bestekoari dagokionez, bi dimentsio hauetan nabarmentzen da EAE: Giza baliabideak eta enpresa inbertsioa; eta beste bitan lortzen da: Ikerketa sistema eta loturak eta enpresa-ekimena, oso antzeko zifrekin. Gainerako beste lauei dagokienez, EBn lorturikoa baino puntuazio txikiagoa lortu da.

Hala, prestakuntza handiko pertsonen baliagarritasuna neurtzen duen **Giza baliabideak** dimentsioan, hauxe dugu:

- Hirugarren mailako irakaskuntza (unibertsitatekoa edo goi-mailako lanbide heziketa) egin duten 30-34 urteko biztanleen portzentajea % 42,6 da, eta Europar Batasuneko batez bestekoa % 34,6 da.

I.2.37. KOADROA. EUROPAKO BERRIKUNTZA-ADIERAZLEEN PANELA, IUS 2013. MULTZOAK ETA ALDERDIAK. INDIZE KONPOSATUAK

	EB27	EAE	Espainia
IUS 2013	0,54	0,48	0,41
BIDERATZAILEAK	0,53	0,50	0,46
Giza Baliabideak	0,56	0,62	0,43
Ikerkuntza sistema	0,48	0,47	0,49
Finantziarioa eta laguntza	0,59	0,36	0,44
ENPRESA JARDUERAK	0,51	0,45	0,33
Enpresa inbertsioa	0,41	0,44	0,22
Enpresa loturak eta ekimena	0,53	0,50	0,30
Aktibo intelektualak	0,56	0,43	0,40
OUTPUT-ak	0,59	0,50	0,45
Berritzaileak	0,57	0,42	0,32
Ondorio ekonomikoak	0,60	0,53	0,51

Iturria: EUSTAT

- Gutxienez bigarren mailako irakaskuntza amaitu duten 20-24 urteko biztanleen ehunekoak Europako batez bestekoaren (% 82,6); EB-27an, berriz, %79,5.
- 25 eta 34 urte bitarteko doktore graduatu berriak milako 1,19 dira EAEn. EB-27n, berriz, milako 1,50 dira.

Enpresa-inbertsioari dagokionez, enpresek I+Gn eta berrikuntzan dituzten gastuak neurtzen dituela esan behar da.

- I+G-ko gastu pribatua gailentzen da BPGaren gaineko ehuneko gisa: %1,57. Europako batez bestekoa, berriz, %1,27koa da.
- I+G-koa ez den berrikuntzan, aldiz, negozio zifraren ehuneko gisa, %0,46 dugu EAEn. EB-27n, aldiz, %0,56koa da.

Irekiera-mailaren dimentsioak, **Ikerkuntza-sistemaren** bikaintasuna eta erakarpenak, zientzia arloaren nazioarteko lehiakortasuna neurtzen du.

- Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoek milioi biztanleko kopurua nabarmentzen da: 456 EAEn eta 300 Europan.
- Zifra txikiagoetan daude, berriz, nazioarte mailan gehien aipaturiko argitalpen zientifikoa (bikainak), EAEn %10,5 eta %31,8 EB-27an; eta EBtik kanpoko doktoreen portzentajea herrialdeko guztien artean, hots, %17,1ekoa, eta %20koa EB-27an.

Loturak eta enpresa-ekimenetan, enpresa-ahaleginak eta lankidetzahaleginak hartzen dira kontuan beste enpresa edo erakunde batzuekiko berrikuntzan.

- Barne berrikuntza duten ETEen portzentajea handiagoa da EAEn (%33,7) EB-27an baino (%31,8).
- Berrikuntzaren arloan lankidetzan diharduten ETE berritzaileen portzentajea, berriz, %9,5 da EAEn, eta Europar Batasunean, berriz, %11,7.

Nahiz eta gainerako alderdietan lortutako puntuazioa Europako batez bestekoa baino txikiagoa den, EAEk beste hainbat adierazletan ere lortu ditu Europar Batasunaren antzeko emaitzak, hala nola honako hauetan:

- Emaizta hobeekin: EBko marka komertzialak eta teknologia ertain eta altuko produktuen esportazioak.
- Antzeko emaitzekin: Produktuan edo prozesuan, ezagutza trinkoko jardueretako enpleguan eta enpresarako edo merkatuturiko produktu berrien salmentan berritzaileak diren ETEak.

Ez alderdi positiboan, oraindik Europako batez bestekoaren azpitik dauden zenbait adierazle daude. Hauexek dira:

- **Finantzaketan eta laguntzan**, sektore publikoak I+Gn egikarituriko gastua nahiz arrisku-kapitalaren eskuragarritasuna.
- **Aktibo intelektualen** dimentsioan, EAP patenteen eskabideak eta EBren diseinuak.
- **Berritzaileetan**, marketineko edo antolaketako ETE berritzaileen portzentajea.
- Eta **Ondorio ekonomikoetan**, ezagutza maila altuko zerbitzuen esportazioak eta atzerriko diru-sarrerak lizentzien eta patenteen zioz.

2.2.3. ZTESko Teknologi Elkartegien I+G jarduerak

EAEko berrikuntza sistemaren ezaugarrietako bat bertako teknologi elkartegien sare garrantzitsua da, Eusko Jaurlaritzak laurogeita hamarreko hamarkadatik hona aplikaturiko politika teknologikoaren ondorioz. Hala gelditzen da agerian FEDITekin (Espainiako Berrikuntza eta Teknologia Erakundearen Federazioa) lotutako euskal zentroak aintzat hartzean: Espainiako teknologi elkartegien laurdena dira.

Estatistikako beste erakunde batzuekin bezala²⁶, enpresen sektorearen barruan sartzen ditu Eustatek teknologi elkartegiak. Alabaina, gure Erkidegoan I+G zerbitzuen hornitzaile gisa duten eginkizun garrantzitsua dela-eta, azterlan berezia merezi dute, laburra bada ere.

Elkartegi horietan, gehienbat I+G jarduerak egiten dihardute, eta bigarren mailan, aholkularitza zerbitzuak, prestakuntza, industri entseguak, eta teknologiko beste batzuk. Hiru mota bereiz daitezke: Askotariko

sektoreetako teknologi elkartegiak, hots, hainbat sektoretan zerbitzua ematen dutenak; teknologi elkartegi sektorialak, hots, sektore jakin bateko enpresetan zerbitzua ematen dutenak; eta enpresetako aparteko I+G unitateak, gehienbat enpresa bati edo enpresa talde bati zerbitzua ematen diotenak, normalean haiek dauden enpresei.

I.2.38. KOADROA. TE-K BARRUKO I+G GASTUAN DUTEN PISUAREN BILAKAERA				
	2011		2012	
Orotara	1.366.234	% bertikala	1.372.901	% bertikala
Enpresak (TE dituztenak)	1.038.726	76,0	1.041.198	75,8
Teknologi Elkartegiak	231.160	16,9	222.924	16,2
Administrazio Publikoa	83.246	6,1	86.575	6,3
Goi mailako irakaskuntza	244.262	17,9	245.128	17,9

Iturria: EUSTAT. I+G jardueren estatistika

2012an, EAEko teknologi elkartegietan 223 milioi euroko gastua egin zen I+Gn, hots, enpresen sektoreek ikerkuntzan eginiko gastuaren %21,4 ia eta guztizko gastuaren %16,2 (1.372.901 mila euro).

I.2.39. KOADROA. ZTES-KO TEKNOLOGIA ELKARTEGIEN ADIERAZLEAK (1)								
	Gastuak, funtsen jatorriaren arabera (mila eurotan)				DBO langileak			
	Orotara	Administ.	Enpres.	Bestelakoak(2)	Orotara	Ikerlariak	Teknikariak	Laguntzaileak
2010	218.762	89.432	103.184	26.146	2.672,8	2.049,5	406,7	216,6
2011	231.160	77.740	119.605	33.815	2.831,7	2.157,2	409,6	264,9
2012	222.924	73.559	111.205	38.160	2.877,1	1.990,6	513,5	373,0

(1) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea

(2) IPSFL, Goi mailako hezkuntza eta atzerritarak

Iturria: EUSTAT. I+G jardueren buruzko estatistikak

Bilakaerari dagokionez, esan behar da I+G gastu hori gutxitu egin dela 2011koaren aldean (%-3,6), baita EAEko I+G guztizko gastuarekiko pisu erlatiboa ere (%16,9tik %16,2ra); eta enpresen sektorearen gastuarekiko pisua (%22,3tik %21,4ra).

Funtsen jatorriaren arabera, gastu horren erdia baino gehiago (%50,3) enpresen sektoreak finantzatuta dago, eta administrazioa da bigarren finantza-iturri nagusia (%33).

DOB langileei dagokienez, gora egin du 2011 eta 2012 bitartean, eta guztira 2.877,1 lagun dira, gehienak ikerlariak (%69,2).

²⁶ Frascatiren metodologia erabiltzen dute. Gogora dezagun Frascatiren Eskuliburuaren metodologiak berekin dakar enpresen sektorean sartzeko gehienbat finantzaketa pribatua duten teknologi zentroen taldea. Eskuliburuaren izen ofiziala "Arau praktikorako proposamena Ikerkuntzaren eta Garapen Esperimentalerako Inkestetarako" ELGaren proposamena da, gaur egun erreferentziatzen hartua jakiteko zein jardura hartu behar den ikerkuntza eta garapeneko jardueratzen.

2.2.4. I+G+b jarduerak enpresaren sektorean

I.2.40. KOADROA. I+G ARLOKO ENPRESA ETA LANGILE KOPURUAREN BILAKAERA (teknologi elkarteak alde batera utzita)

	Enpresa kop.				DOB langileria			
	2010	2011	2012	Aldak. 2011-12	2010	2011	2012	Aldak. 2011-12
Orotara	1.515	1.488	1.565	5,2	10.500,7	10.347,8	10.643	2,9
Primarioa, erazketak eta energia	11	14	17	21,4	154,1	217,5	265	22,0
Industria	750	691	716	3,6	5.390,9	5.177,0	5.473	5,7
Eraikuntza	41	46	50	8,7	131,3	162,3	167	2,9
Zerbitzuak	713	737	782	6,1	4824,5	4.791,0	4.738	-1,1

Iturria.- Eustat, I+G jarduerari buruzko estatistika.

a) Enpresa sarearen I+G adierazleak, ZTESko teknologi elkarteak alde batera utzita

Eustaten datuen arabera, 2012. urtean 1.522 enpresak (2011n baino 77 gehiago) egin zituzten I+G jarduerak (Zientzia eta Teknologiko Euskal Sareko zentro teknologikoak alde batera utzita); horietatik 716 industria-sektorekoak dira eta 782 zerbitzuen sektorekoak. Halako jardueretan dedikazio osoz jarduten duten langile enplegatuei dagokienez, industrian eta zerbitzuetan antzeko proportzioa dago: %51,4 industrian (5.473 DOBen) eta %44,5 (4.738 DOBen) zerbitzuetan.

I.2.41. KOADROA. ENPRESA-SEKTOREAREN ADIERAZLEAK (ZTESko zentro teknologikoak alde batera utzita), JARDUERA-ARLOAREN ARABERA. I+G 2012

	Enpresa kop.	DOB langil.	Barne gastuaren banaketa		Funts prop. %	Inoren funt.%	Enpl. guztira EAEn	EAEn I+Gn enpl. %
			2011	2012				
Orotara	1.565	10.643	808.245	822.805	589.025	233.780	875.794	1,2
Nekazaritza-abeltz. eta arrantza, eraztekoak eta energiakoak	17	265	20.463	19.629	18.053	1.576	16.221	1,6
Industria	716	5.473	417.078	449.135	373.813	75.322	185.419	3,0
M-A Kimika eta petrolio fintzea	42	251	18.670	19.075	16.685	2.390	5.604	4,5
M-B Kautxua eta plastikoa	54	271	16.445	21.250	16.749	4.501	14.607	1,9
M-B Industria ez metalikoa	22	70	7.291	6.965	6.083	882	5.350	1,3
M-B Metalurgia	50	274	23.587	24.212	18.400	5.812	19.817	1,4
M-B Produktu metalikoak	156	661	45.618	49.086	41.753	7.333	42.970	1,5
M-A Makina-erreminta	35	365	34.121	29.307	21.538	7.769	3.781	9,6
M-A Etxetresnak	5	345	34.366	34.875	31.078	3.797	3.554	9,7
M-A Bestelako makineria	104	912	60.483	67.663	60.327	7.336	21.808	4,2
M-A Material elektrikoa	53	535	37.497	44.331	36.916	7.415	8.225	6,5
A Material elektronikoa	21	346	20.496	19.876	12.484	7.391	3.609	9,6
A Zehaztapen materiala	31	350	19.448	22.131	16.542	5.589	2.997	11,7
M-A Garraio materiala	42	823	80.771	93.105	82.331	10.774	17.023	4,8
Beste manufaktura batzuk	101	272	18.285	17.259	12.926	4.333	36.074	0,8
Eraikuntza	50	167	10.184	9.816	6.758	3.058	69.394	0,2
Zerbitzuak	782	4.738	360.520	344.226	190.401	153.824	604.760	0,8
A Jarduera informatikoak	146	859	45.799	42.904	28.894	14.010	14.106	6,1
A I+G jarduerak	139	1.889	158.593	157.226	67.326	89.900	6.783	27,9
Beste enpresa jarduera batzuk	274	1.392	99.693	101.409	67.999	33.410	59.218	2,3
Beste zerbitzu batzuk	223	599	56.434	42.686	26.183	16.504	524.653	0,1

Iturria: Eustat, I+G jarduerari buruzko estatistika.

I+G arloko jarduera-arloa alde batera utzita —horren barruan sartzen dira jarduera nagusiztat I+G jarduerak dituzten enpresak (hau da, ingeniariarritza eta aholkularitza teknologikoak) eta, beraz, gainerakoek ez bezalako profila, helburuak eta finantzaketa dutenak—, ikusten dugu sektore hauek bideratzen dutela langile gehien I+G jardueretara:

zehaztaperen materiala, I+G-ko langileen %11,7 EAEn; etxeko aparatuak, %9,7; makina-erreminta eta material elektrikoa, biak %96; material elektrikoa, %6,5 eta jarduera informatikoak, %6,1.

Paraleloki, ikusten da euskal enpresek oraindik ere halako gastuak, portzentaje handi batean, enpresaren beraren funtsekin finantzatzen dituztela.

b) Berrikuntza enpresa sarean

Has gaitezen berrikuntzari buruzko inkestak eta definizioak ikusiz:

- Enpresa berritzailea izango da inkestan kontuan hartutako tartean berrikuntzaren bat sartu duen enpresa.

Berrikuntzat hartuko da produktu (edo zerbitzu) berria nahiz zeharo hobetua, prozesu berria, komertzializazio-metodo berria edo antolakuntza-metodo berria sartzea enpresaren barne-praktiketan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan. Berrikuntza guztien ezaugarri komuna zera izango da, aldaketa horiek dagoeneko sartuta egon beharko direla enpresaren lanean, hau da, merkatura atereak. Prozesu, komertzializazio-metodo edo antolakuntza-metodo bat sartuta dagoela esan daiteke modu eraginkorrean sartzen denean enpresaren eginkizunetan.

Definizio hori kontuan hartuta, bi berrikuntza mota bereiz daitezke: berrikuntza teknologikoak eta berrikuntza ez teknologikoak: Berrikuntza teknologikoa produktu bat (ondasun bat edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua denean eta merkaturan sartuta dagoenean) edo prozesu bat (establezimenduan bertan prozesu berria edo nabarmenki hobetua ezartzea) izan daiteke, eta berrikuntza ez teknologikoak antolakuntzaren edo komertzializatzeko moduaren berrikuntzek osatzen dituzte.

- Jarduera berritzaileak dituen enpresa inkestan aztertutako urteetan berrikuntza-jarduerak garatu dituen enpresa da, abian diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne.

Enpresa berritzaileak

I.2.42. KOADROA. JARDUERA BERRITZAILEAK DITUZTEN ENPRESEN EHUNekoAREN BILAKAERA, EAE-KO ENPRESA GUZTIEKIKO

		2007-09	2008-12	2009-2011	2010-2012
Guztira enpresak	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa) (1)	19,8	19,8	17,8	17,3
	Berrikuntza teknologikoa duten enpresak (1)	14,5	13,8	12,3	11,6
	Berrikuntza ez teknologikoa duten enpresak	11,7	11,8	10,7	10,0
	Jarduera berritzaile teknologikoak edo ez teknologikoak dituzten ENBak	17,4	20,3	18,3	17,7
9 lanp. baino gehiagoko enp. (INE, Eurostat etab.ekin konparatzeko)	Enpresa berritzaileak (berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa) (1)	38,9	38,9	37,8	36,2
	Berrikuntza teknologikoa duten enpresak (1)	29,8	30,1	30,7	28,6
	Berrikuntza ez teknologikoa duten enpresak	26,3	26,2	23,7	23,1
	Jarduera teknologikoak edo ez dituzten ENBak	40,2	41,4	39,8	38,3

(1) Ez daude sartuta soilik hasitako edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak, (ondasuna edo zerbitzua), zeren eta enpresaren barruko jardunean, lantokiaren antolamenduan edo kanpoko harremanetan sartuta baitaude ENBak; enpresa berritzaileak edo hasitako edo arrakastarik gabeko berrikuntzak dituztenak
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoaren Estatistika

I.2.43. KOADROA. 10 LANGILE EDO GEHIAGO DITUZTEN ESTABLEZIMENDUEN PORTZENTAJEA, BERRIKUNTZA ETA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA

	2010-2012					
	Berrikuntza ez teknologikoa		Establezimendu berritzailea ez teknologik.	Establezimendu berritzaile teknolog. (1)	Establezimendu berritzaileak (1) (teknolog. edo ez tek.)	Establ. berritzaileak ENB (2) (tek. edo ez tek.)
	antolamenduak	Merkaturatzeak				
Guztira	18,7	11,6	23,1	28,6	36,2	38,3
Industria	16,7	13,1	23,0	39,4	44,5	49,1
Erauzketa-industriak, kokea lortzeko eta petrolioaren fintzeko fabrikak	4,3	.	4,3	15,2	15,2	26,1
Elikagaien, edariaren, tabakoaren ind.	10,8	17,9	20,8	26,5	34,0	36,1
Oihal prod., jantz., larru prod. eta oinet.	17,0	4,5	21,5	18,8	34,4	34,4
Zura, papera eta arte grafikoak	7,1	6,6	11,5	23,7	27,1	28,8
Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak	11,0	23,4	26,9	55,8	65,9	73,3
Kautxua eta plastikoak	19,0	15,7	22,6	43,7	48,7	57,6
Metalurgia eta produktu metalikoak	13,2	11,2	18,5	38,0	42,1	44,7
Prod. Informatikoak eta elektronikoak. Material eta ekipu elektrikoak	32,6	14,6	37,9	61,8	68,6	74,8
Makineria eta ekipoa	28,7	17,9	41,0	47,4	54,0	58,9
Garraio materiala	21,7	3,7	21,7	64,1	65,8	72,7
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	12,3	14,1	19,3	30,9	33,9	39,7
Argindarra, gasa eta lurrina	46,9	30,6	46,9	61,0	72,8	84,5
Ur hornidura eta saneamendua	20,9	7,7	20,9	29,2	33,3	46,4
Eraikuntza	18,5	6,0	18,5	14,4	23,2	26,2
Zerbitzuak	19,5	11,7	23,7	25,9	34,4	35,4
Ibilgailuen merkataritza eta konponketa	14,1	12,4	19,5	15,4	26,6	26,6
Garraioa eta biltegiatzea	11,6	1,7	12,1	20,9	25,8	29,7
Ostalaritza	9,1	12,3	14,8	12,4	20,6	20,9
Telekomunikazioak, informatika eta hedabideak	31,2	20,4	35,7	47,1	56,9	59,0
Finantza eta aseguru jarduerak	61,5	62,3	67,3	57,3	67,7	70,0
Higiezinaren alorreko jarduerak	61,7	16,7	61,7	25,0	70,0	70,0
I+G, aholkularitzak eta bestelako jarduerak profesionalak eta teknikoak	26,2	12,2	29,4	39,6	47,1	50,8
Zerbitzu lagungarriak	6,9	3,8	9,1	4,9	13,0	13,2
Bidaia-agentziak eta operadore turistikoak	.	4,5	4,5	27,9	27,9	32,4
Hezkuntza	19,0	7,6	22,4	34,3	41,5	42,0
Osasun jarduerak	68,6	11,2	74,4	79,8	83,2	83,5
Gizarte, aisialdi, kultur eta beste arlo batzuetako jarduerak	14,1	9,4	18,7	17,3	26,1	26,1

(1) Ez daude sartuta soilik hasitako edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten establezimenduak.

(2) Barruan sartuta daude soilik hasitako edo bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten establezimenduak.

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoari buruzko Estatistika

Eustaten Berrikuntzaren Inkestako datuen arabera²⁷ EAEn, 2010-2012 aldian, enpresen % 17,3 izan ziren berritzaile (aurreko aldian izandakoa baino bost hamarren txikiagoa). Portzentaje hori lortzeko, kontuan hartu behar dira bai berrikuntza teknologikodun (produktua edo/eta prozesua) enpresak (enpresen % 11,6, %12,3 aurreko aldian) eta bai berrikuntza EZ teknologikoa (antolakuntza edo/eta komertzializazioa) egiten duten enpresak (enpresen % 10).

²⁷ Tamaina guztietako eta lehen sektorea, administrazio publikoa eta etxe zerbitzua ez beste jardueraren sektore guztietako euskal enpresei zuzendua (ikus, INEK ez bezala, hezkuntza osoa hartzen duela).

Tamaina guztietako eta lehen sektorea, administrazio publikoa eta etxe zerbitzua ez beste jardueraren sektore guztietako euskal enpresei zuzendua (ikus, INEK ez bezala, hezkuntza osoa hartzen duela). Hots, hauxe da populazioaren eremua: edozein tamainatako establezimenduak eta CNAE-93 1. Ber. delakoaren arabera jardueraren sektore hauetakoak: C, D, E, F, G, H, I, J, K, M, N eta O. Hortaz, aparte uzten ditu lehen sektorea (A eta B), herri administrazioa (L) eta etxe zerbitzua (P).

Soilik hamar langile edo gehiagoko enpresak kontuan hartzen baditugu (horrek modua ematen baitigu INE, Eurostat eta 10 langile baino gutxiagoko enpresei buruzko informaziorik ematen ez duten beste estatistika-erakundeekin konparatzeko), enpresa berritzaileen portzentajea (teknologikoak eta ez teknologikoak) % 36,2 da. Estatuan, INEren Berrikuntzaren Inkestaren arabera, aldi horretako portzentajea % 25,9koa da (%31,1ekoa aurreko aldian).

Bilakaeraren ikuspegitik, EAEn, 2009-11tik 2010-2012ra bitartean, 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileen portzentajeak egonkor eutsi dio % 37,8an, eta berrikuntza teknologikoak sartu dituztenen portzentajea txikitu egin da, % 30,7tik % 28,6ra.

Bestalde, enpresa berritzaileen edo hasitako zein arrakastarik gabeko berrikuntzak (teknologikoak edo ez) dituzten enpresen portzentajea % 39,8tik %38,3ra jaitsi da.

Nahiz eta datuak aurrekoekin guztiz konparagarriak ez izan (industrian NACE 05-39 adarretan eta zerbitzuetan NACE 46, 49-53, 58. 61-66 eta 71 adarrak, 10 langile edo gehiagokoak baitaude sartuta), Community Innovation Survey 2010 (CIS7) delakoaren arabera, argitaraturiko azken datua, EB27n industri eta zerbitzuen sektoreetako enpresen %53 jarduera berritzaileak ekarri dituzte (aribidean edo hutsik egindako berrikuntzak dituzten enpresak barne) 2008 eta 2010 bitartean. Estatu kideen artean, hona hemen portzentajerik handienak: Alemanian (enpresen %79), Luxenburgon (%68), Belgika (%61), Portugalen, Suedian eta Irlandan (guztietan %60). Espainian, %41,4, eta hauexek dira batez bestekotik urrutien dauden estatuak: Errumania eta Hungaria (%31), Lituania (%30), Polonia (%28) eta Bulgaria (%27).

Sektoreen aldetik, berritzaileak dira industri establezimenduen %44,5, zerbitzuetako %34,4 eta eraikuntzetako %23,2. Jardueraren azpisektoreetan, hauexek nabarmentzen dira, industrian: argindarra, gasa eta lurrina (%72,8), produktu informatikoak eta elektronikoak; material eta ekipo elektrikoa (%68,6), industria kimikoa eta produktu farmazeutikoak (sektoreko enpresen %65,9 berritzaileak dira), eta garraio materiala (%65,8). Zerbitzuetan: osasun jarduerak (%83,2), higiezin alorreko jarduerak (%70) eta finantza jarduerak eta aseguruetoakoak (%67,7).

Eta berrikuntza teknologikoak dira: industri establezimenduen %39,4, zerbitzuetako %25,9 eta eraikuntzetako %14,4. Jardueraren azpisektoreetan, hauexek nabarmentzen dira, industrian: garraio materiala (%64,1), produktu informatikoak eta elektronikoak; material eta ekipo elektrikoa (%61,8), argindarra, gasa eta lurrina (%61). Zerbitzuetan: osasun jarduerak (%79,8), finantza eta aseguru jarduerak (%57,3) eta telekomunikazioak, informatika eta hedabideak (%47,1).

Berrikuntza teknologikorako jardueretako gastua

Eustaten Berrikuntza Teknologikoaren Inkestako datuen arabera, berrikuntza teknologikorako jardueretan guztira egindako gastua % 3,4 gutxitu da 2012an; hain zuzen, 2.583,7

I.2.44. KOADROA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUERETAN EGINDAKO GASTUA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA, 10 LANPOSTU BAINO GEHIAGOKO ENPRESETAN, 2012		
	Milakoak	Bertikala %
Guztira	2.179.543	100,0
Industria	926.012	42,5
Erauzketa-industriak, kokea lortzeko eta petrolioia fintzeko fabrikak	3.314	0,2
Elikagaien, edarien, tabakoaren ind.	26.298	1,2
Oihal prod., jantz., larru eta oinet.	4.426	0,2
Zura, papera eta arte grafikoak	10.148	0,5
Industria kimikoa eta prod. Farmaz.	34.026	1,6
Kautxua eta plastikoak	42.165	1,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	194.908	8,9
Prod. Informatikoak eta elektron.	198.896	9,1
Material eta ekipo elektrikoa		
Makineria eta ekipoa	111.848	5,1
Garraio materiala	236.446	10,8
Altzariak eta beste manif. batzuk	40.208	1,8
Argindarra, gasa eta lurrina	15.620	0,7
Ur hornidura eta saneamendua	7.708	0,4
Eraikuntza	53.171	2,4
Zerbitzuak	1.200.360	55,1
Ibilgailuen merkataritza eta konp.	28.445	1,3
Garraioa eta biltegiatzea	18.366	0,8
Ostalaritza	7.289	0,3
Telekom., informat. eta hedabideak	118.513	5,4
Finantza eta aseguru jarduerak	12.981	0,6
Higiezin alorreko jarduerak	29	0,0
I+G, aholkularitzak eta bestelako jarduera profesionalak eta teknikoak	580.841	26,6
Zerbitzu lagungarriak	4.286	0,2
Bidaia-agentziak eta operadore turistikoak	42	0,0
Hezkuntza	280.499	12,9
Osasun jarduerak	131.360	6,0
Gizarte, aisialdi, kultur eta beste arlo batzuetako jarduerak	17.709	0,8

Iturria: EUSTAT. Berrikuntza Teknologikoari buruzko Inkesta

milioi eurokoa izan da gastua, BPGaren % 3,99. 10 langile edo gehiagoko enpresei dagokienez, 2.179,5 milioi euroko gastua da, eta %1,6 jaitsi da aurreko urtearen aldean, hots, BPGaren %3,37.

Beste urte batez, gastu horren zatitik handiena barruko I+Gari (BPGaren % 2,12 enpresa guztiak kontuan hartuta eta % 1,99 hamar langile baino gehiagoko enpresak kontuan hartuta) eta makineriaren erosketari dagokie (BPGaren % 0,78, enpresa guztiak kontuan hartuta eta % 0,58 hamar langile baino gehiagoko enpresak kontuan hartuta).

Jarduera-sektorearen arabera, 9 lanpostu baino gehiagoko enpresen artean, industriaren esparruan, gastua arlo hauetan egiten da: garraio-materiala (gastuaren % 10,8), metalurgia eta gai metalikoak (% 8,9), produktu informatikoak eta elektronikoak (%9,1), metalurgia eta produktu metalikoak (% 8,9) eta makinak eta ekipamendua (% 5,1).

Bestalde, zerbitzuen sektorean, nabarmentzekoa da I+Garen, aholkularitzen eta bestelako jarduera profesional eta teknikoaren arloa, gastuaren % 26,6 hartzen baitu.

Ondorioz, berrikuntzarako jardueren gastua nahiz enpresa berritzaileen portzentajea jaitsi egin dira, baina joera hori ez da sektore guztietan gertatzen.

I.2.45. KOADROA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO JARDUERETAN EGINDAKO GASTUA, BPG-AREB GAINEAN

	ENPRESAK GUZTIRA					>= 10 LANGILE				
	2008	2009	2010	2011	2012	2008	2009	2010	2011	2012
Guztira (milioi €-tan)	2.782,0	2.753,4	2.581,9	2.675,7	2.583,7	2.193,9	2.219,9	2.159,5	2.214	2.179,5
BPGd gaineko %	4,1	4,1	3,95	4,04	3,99	3,2	3,3	3,3	3,34	3,37
Barruko I+G	1,8	1,9	2,08	2,06	2,12	1,7	1,7	1,94	1,93	1,96
Kanpoko I+G	0,6	0,5	0,52	0,54	0,57	0,5	0,4	0,38	0,45	0,48
Makineria	1,2	1,2	0,82	0,82	0,78	0,8	0,7	0,60	0,61	0,58
Bestelako ezagutzak	0,1	0,1	0,10	0,08	0,12	0,1	0,1	0,06	0,05	0,07
Prestakuntza	0,1	0,1	0,06	0,09	0,05	0,0	0,0	0,04	0,04	0,03
Merkaturatzea	0,2	0,2	0,10	0,07	0,09	0,1	0,1	0,07	0,04	0,05
Diseinua eta prestakuntza-lanak	0,1	0,1	0,27	0,37	0,27	0,1	0,1	0,22	0,22	0,20

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza Teknologikoari buruzko Inkesta

2.2.5. Unibertsitateetako ikerkuntza, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitatean egiten diren I+G+b jarduerari dagokienez, ikerkuntzak behera egin du nabarmen 2011ko datuekin alderatuta (eskuragarri dauden azken datuak²⁸), hain zuzen ere 72,9 mila eurotik 49,6 mila eurora (%-32) 2010 eta 2011 bitartean.

Gehiena, %53,5 (26,5 milioi euro) ikerkuntza proiektuei dagokie, eta ondoren Unibertsitatea Antolatzeko Legearen UAL) 83. artikulua izan den itzalpean izenpeturiko kontratuak. Urrutiago gelditzen dira ikerkuntza-taldeentzako diru-laguntzak eta ikerlariak eta teknikariak kontratatuzko funtsak, guztizkoaren %7,6 eta %6,7 hurrenez hurren, baita prestakuntzako langileentzakoak ere, guztizkoaren %4,8 hain zuzen.

Arlo zientifikoaren arabera, I+G+b jardueretako gastua zientzia esperimentaletan bildu izan da, eta bigarrenik eta nahikoa urruti, teknikoetan (Ingeniaritza eta Arkitektura).

Funtsen jatorriari dagokionez, lehenik eta behin Eusko Jaurlaritzakoak daude (%22,3), eta ondoren zuzeneko kontratazioa (%21,3) eta Estatuaren ekarpenekoak (%19,85).

²⁸ Ikuspegi zabala izateko, jo beza irakurleak gure 2012ko Memoria Sozioekonomikora.

Bukatzeko, patenteei dagokienez, emaitzak urriak dira oraindik ere, baina ugaritzen ari dira. Hala, 2011n 90 patente erregistratu ziren. Bestalde, pixkanaka haziz joan den argitalpenen kopurua, 2010ean 1.852 lortu arte, jaitsi egin zen 2011n 1.755eraino.

2.2.6. IKT ekipamenduak eta erabilerak EAEn

Etxeetan

Eustaten Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak agertzen duenez (urteko lehenengo hiruhilekoko datuak) IKTen ekipamendu zabalduenak honako hauek dira 2013an²⁹: sakelako telefonoa (familia inkestatuen % 92,4ak diote ekipamendu hori badutela), telebista teletestuduna (familien % 87,49), DVDa (% 64,3) eta ordenagailua (% 66,9).

Nolanahi ere, ekipamenduaren arabera analisi eginez gero, agerian geratzen dira horien artean dauden aldaketak, ordezko ondasunak egonkortzearen ondorioz. Halaxe gertatu zen bideoarekin: indarra galdu zuen DVD hedatu izanaren ondorioz, eta aldi berean, DVD pisua galtzen ari da interneten eta ordaindutako telebistaren hazkundeagatik.

I.2.46. KOADROA. FAMILIAK, ETXEKO IKT EKIPAMENDUAREN ARABERA (%)					
		2010	2011	2012	2013
Orotara (milakoetan)		834,7	846,3	856,3	866,5
IKT ekipamenduak	Ordenagailua	61,4	62,4	63,2	66,9
	Internet	54,9	57,0	58,4	62,9
	Telefono mugikorra	90,1	90,1	91,4	92,4
	E-posta	-	55,1	56,9	60,4
Telebista ekipamenduak	Bideoa	48,7	43,3	36,0	33,5
	DVDa	-	70,1	66,1	64,3
	Teletestua	90,0	89,2	90,9	87,4
	Kable bidezko TB	-	28,4	26,0	20,0
	Ordainpeko TB	10,3	13,3	13,4	20,4
	Interneteko TB	3,8	3,3	3,2	3,3

Iturria: EUSTAT, ESIF.

Familia-motaren arabera, bere hartan dirau aurreko urteetan sumatutako joerak, eta seme-alabak dituzten familiek jarraitzen dute ekipamendu gehien izaten. Bigarrenik, seme-alabarik gabeko familiak daude, eta ondoren pertsona bakarreko etxeak.

Eurostatekin konparatzeko, beharrezkoa da analisisa gutxienez 16-74 urteko kide bat duten etheen portzentajearekin egitea. Hala, EAEk %72ko ratioa du, eta Europako batez bestekoaren azpitik dago (%79); eta oso urrutik dago erreferentziako herrialdeetatik: Islandia (%96), Holanda (%95), Norvegia eta Luxenburgo (%94), Suedia (%92), Danimarka (%93), Finlandia (%89), Alemania eta Erresuma batua (%88).

15 urte edo gehiagoko biztanleak. Ordenagailuaren sarrera eta Internet konexioa eta erabilera

Etxeetan/familietan izandako IKT ekipamenduen sarrerarekin gertatu bezala, IKTak zabaltzen ari dira oraindik 14 urtetik gorako biztanleen artean, bideoaren kasuan izan ezik, teletestua eta kable bidezko TB.

²⁹ 2003 eta 2008 bitartean, urteko 2 eta 4. Hiruhilekoetan biltzen zuen informazioa ESIFek eta, beraz, inkestaren urtean sartzen zen Administrazio Elektronikoaren erabilerari buruzko erantzunerako erreferentziako hiruhilekoa (erabileraz galdetzen zen azken hiru hileetan). 2009tik aurrera, urteko lehen hiruhilekoan biltzen da informazioa. Hori dela-eta, aurreko urteko azken hiruhilekoan kokatuko litzateke erabilerako erreferentziako urte. Inketako urtea utzi da kasu guztietan.

PCaren eremura eta Internet konexiora mugatuta, ikusten da 2012 eta 2013 artean lehenengoaren artean ordenagailuaren sarrera %3,8 igo dela eta biztanle horien artean % 75,6ra iritsi dela. Bestalde, etxean internet duten 15 urteko edo gehiagoko biztanleen portzentajea hazi egin da, %66,9tik %71,5era, eta posta elektronikoa duten 14 urtetik gorako biztanleenak %65,6tik %69,4ra egin du gora.

Aurreko urteetan bezala, generoaren, adinaren, ikasketa-mailaren eta lan-egoeraren arabera azterlanetik ondorioztatzen da oraindik ere badirela desberdintasunak hala sarreran nola erabilera. Beraz, oraindik ere bada taldeen arteko arrakala digitala, eta horrek gizarte-taldeen ongizatea bera ere baldintza dezake.

Sarrera, generoaren arabera: Ordenagailuei dagokien tasa hazi egin da gizonezkoen artean (4,4 puntu) 2013an. Bestalde, interneteko sarrera-tasak gora egin du bi sexuetan, eta nabarmenezkoa da emakumezkoetan dagoen gehikuntza (%5,7).

Konparazioz, sarrera-tasak handiagoak dira gizonezkoetan emakumezkoetan baino, eta arrakala handiagoa da 2012an erregistratutakoa baino. Hain zuzen, 2012. urtean, aldea, ordenagailuaren sarrerari dagokionez, 7,1 puntukoa zen, eta 2013an 5,9koa. Internet konexioari dagokionez, 2012. urtean 6,6 puntukoa zen aldea, eta 2013. urtean ere 4,4 puntuetara iritsi da.

Interneten erabilera, generoaren arabera: Tasa handitu egin da bi sexuetan, eta bien artean dagoen aldeari eusten zaio 2011koarekiko. Hala, erabilera tasa %70,8koa da gizonezkoetan eta %61,1ekoa emakumezkoetan. Aldea, 2012an, 7,9 puntukoa zen gizonezkoen alde; 2013an, berriz, 9,7 puntukoa da.

Sarbidea, adinaren arabera: Ordenagailua eta Internet konexioa duten biztanleen portzentajea gutxitu egiten da adinarekin (nahiz eta tasak, zenbaki orokorretan, hobetzen doazen urtez urte adin-taldearen arabera). Hala, oso handiak dira 15-24 urtekoen adin-tartean, hurrenez hurren % 97,2 eta % 95,4. 25 eta 44 urte bitarteko taldea bigarren lekuan dago; zehazki, sarrera-ratioa % 90,3tik gorakoa da ordenagailuari dagokionez, eta % 84,5ekoa Interneti dagokionez. Eta 45 urte edo gehiagoko adin-taldean, sarrera oraindik ere txikiagoa da, hurrenez hurren % 63,5 eta % 59,6.

Interneten erabilera, adinaren arabera: Erabilera-ratioak ere gutxitu egiten dira adinarekin, baina kasu honetan nabarmenagoak dira adin txiki eta handieneko taldeen arteko aldeak. Hala, 15 eta 24 urte bitarteko EAEko biztanleen % 98,6, erabiltzaileak dira, eta 45 urtetik gorako artean % 45.

I.2.47. KOADROA. ETXEAN INTERNETERAKO SARBIDEA DUTEN FAMILIAK*. URTEKO BATEZ BESTEKOA (%)

	2009	2010	2011	2012	2013
EB28	66	70	73	76	79
Eurogunea	67	71	74	76	79
Belgika	67	73	77	78	80
Bulgaria	30	33	45	51	54
Txekiar Errep.	54	61	67	65	73
Danimarka	83	86	90	92	93
Alemania	79	82	83	85	88
Estonia	63	68	71	75	80
Irlanda	67	72	78	81	82
Grezia	38	46	50	54	56
Espainia	54	59	64	68	70
Frantzia	69	74	76	80	82
Kroazia	50	56	61	66	65
Italia	53	59	62	63	69
Zipre	53	54	57	62	65
Letonia	58	60	64	69	72
Lituania	60	61	60	60	65
Luxenburgo	87	90	91	93	94
Hungaria	55	60	65	69	71
Malta	64	70	75	77	79
Holanda	90	91	94	94	95
Austria	70	73	75	79	81
Polonia	59	63	67	70	72
Portugal	48	54	58	61	62
Errumania	38	42	47	54	58
Eslovenia	64	68	73	74	76
Eslovakia	62	67	71	75	78
Finlandia	78	81	84	87	89
Suedia	86	88	91	92	93
Erresuma Batua	77	80	83	87	88
Islandia	90	92	93	95	96
Norvegia	86	90	92	93	94
EAE	60	63	66	68	72

* 16-74 urteko biztanleak.

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT, ESIF

Sarrera, ikasketa mailaren arabera: Zenbat eta ikasketa maila handiagoa izan, orduan eta handiagoak dira ordenagailuen sarrera eta interneteko konexioa, eta tasek gora egin dute aurreko urteekin alderatuta, salbu eta oinarriko hezkuntza dutenekin. Hala, goi-mailako ikasketak dituzten 15 urtetik gorakoek %94,9k ordenagailua du, baina %86,4ra murrizten da bigarren mailako ikasketak dituztenekin eta %36,4ra oinarriko ikasketen jabeekin (nabarmenezkoa da berri ere behera egin duela ratioak). Interneteko konexioei dagokienez, jokaera bera ikus daiteke: zenbat eta ikasketa mailago handiagoa izan, orduan eta ratio handiagoa, baina portzentaje txikiagoak dira: %91,9 goi-mailako ikasketak dituztenentzat, %81,2 bigarren mailako ikasketak dituztenentzat eta %33,6 oinarriko ikasketetakoentzat.

I.2.48. KOADROA.15 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLEAK, ETXEAN DITUZTEN IKT EKIPAMENDUEN ARABERA (%)

		2010	2011	2012	2013
Orotara (milakoetan)		1.883,5	1.885,4	1.889,9	1.887,7
IKT ekipamenduak	Ordenagailua	70,2	71,2	71,8	75,6
	Internet	63,9	65,7	66,9	71,5
	Telefono mugikorra	94,0	94,3	94,9	95,6
	E-posta	-	64,0	65,6	69,4
Telebista ekipamenduak	Bideoa	52,5	47,0	39,2	36,3
	Teletestua	91,8	90,9	92,5	89,9
	Ordainpeko TB	11,3	14,6	15,7	22,7
	Kablez bidezko TB	-	31,2	28,1	22,9
	Interneteko TB	4,1	3,6	3,3	3,9

Iturria: EUSTAT, ESIF

I.2.49. KOADROA.ORDENAGAILUAREN SARRERA ETA INTERNET KONEXIOA ETA ERABILERA EAE-KO 14 URTETIK GORAKO BIZTANLEEN ARTEAN, EZAUGARRIEN ARABERA (%)

		Ordenagailua etxea					Internet									
							Etxeko interneteko konexioa					Erabilera				
		I 2012	I 2013	Ald. 2012-13	Batez b. aldak. 2012	Batez b. aldak. 2013	I 2012	I 2013	Ald. 2012-13	Batez b. ald. 2012	Batez b. ald. 2013	I 2012	I 2013	Ald. 2012-13	Batez b. ald. 2012	Batez b. ald. 2013
15 urte edo gehiagoko biztanleak		71,8	75,6	3,8	0	0	66,9	71,5	4,6	0	0	57,6	65,8	8,2	0	0
Sexua	Gizona	75,4	78,6	3,2	3,6	3	70,3	73,8	3,5	3,4	2,3	61,7	70,8	9,1	4,1	
	Emakumea	68,3	72,7	4,4	-3,5	-2,9	63,7	69,4	5,7	-3,2	-2,1	53,8	61,1	7,3	-3,8	5
Adina	15-24	95	97,2	2,2	23,2	21,6	93,1	95,4	2,3	26,2	23,9	96	98,6	2,6	38,4	-4,7
	25-34	87	90,3	3,3	15,2	14,7	78,8	84,5	5,7	11,9	13	85,1	93	7,9	27,5	32,8
	35-44	84,9	88,1	3,2	13,1	12,5	78,8	84,5	5,7	11,9	13	78,6	88,9	10,3	21	27,2
	45 eta geh.	58,6	63,6	5	-13,2	-12	54,6	59,6	5	-12,3	-11,9	35,6	45	9,4	-22	23,1
Ikasketa maila	Lehen m.	36,8	36,4	-0,4	-35	-39,2	32,7	33,6	0,9	-34,2	-37,9	9,3	10,7	1,4	-48,3	-20,8
	Bigarren m	82,1	86,4	4,3	10,3	10,8	77	81,2	4,2	10,1	9,7	69,4	80,1	10,7	11,8	-55,1
	Goi maila	92,7	94,9	2,2	20,9	19,3	87,5	91,9	4,4	20,6	20,4	91,9	94,8	2,9	34,3	14,3
Erl. Jardue-rarekin	Ikaslea	96,5	98	1,5	24,7	22,4	94,6	96,4	1,8	27,7	24,9	97,9	98,4	0,5	40,3	29
	Okupatua	88,1	91	2,9	16,3	15,4	82,8	86,9	4,1	15,9	15,4	78	85,7	7,7	20,4	32,6
	Ezaktiboa/l angabetua	49,9	54,6	4,7	-21,9	-21	45	50,2	5,2	-21,9	-21,3	28,7	38	9,3	-28,9	19,9

Iturria: EUSTAT, ESIF

Interneten erabilera, ikasketa mailaren arabera: aurreko kasuan bezala, ikasketa maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da interneteko konexioa.

Sarrera, lan-egoeraren arabera: Ikasten eta/edo lanean ari diren biztanle-taldearen artean daude, berriro ere, ordenagailu-zuzkiduraren eta Internet konexioaren tasarik handienak, eta tasa horiek nabarmen gutxitzen dira pertsona ez-aktiboak eta/edo langabeak direnean. Hala, ikasleen artean ordenagailuaren sarrera-ratioa % 98tik gorakoa da eta Internet konexioarena % 96,4koa; ez-aktiboan/langabeen artean ez dira iristen, hurrenez hurren, %55era eta % 51era.

Interneten erabilera, lan-egoeraren arabera: Aurrez azaldutakoaren antzeko egoera ikusten da Interneten erabileran ere; ikasten ari diren pertsonen % 98,4k erabiltzen duten Internet, eta soilik lanik gabe edo aktibo ez daudenen % 38k. Bereziki nabarmentzekoa da ikasleen erabilera-ratioa konexioarena baino handiagoa dela oraindik ere (% 98,4 vs % 96,4); horren arrazoia da etxetik kanpo sartzan direla.

Oinarrizko IKTen hornidura (PCa, posta elektronikoa, Internet eta sakelako telefonoa) enpresetan

Enpresetan eginiko Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren azken edizioak (IGI-enpresak) erakusten du oraindik ere hazten ari dela euskal enpresetan IKT ekipamenduak txertatzeko prozesua. Aldi berean, teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen portzentajea urtez urte ari da igotzen.

I.2.50. KOADROA. IKT EKIPAMENDUEN BILAKAERA EAE-KO ESTABLEZIMENDUETAN, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA (establezimenduen %)

	Industria					Eraikuntza					Zerbitzuak					OROTARA				
	PCa	e-posta	Internet	Tif mug.	Weba	PCa	e-posta	Internet	Tif mug.	Weba	PCa	e-posta	Internet	Tif mug.	Weba	PCa	e-posta	Internet	Tif mug.	Weba
2009	82,9	76,0	77,0	85,5	42,9	74,1	62,8	66,8	91,1	17,1	75,7	66,8	69,5	77,1	34,3	76,0	66,9	69,6	79,8	32,4
2010	83,0	77,6	78,7	89,1	44,6	76,3	64,8	67,9	91,0	21,8	75,9	68,2	69,5	79,1	35,3	76,5	68,3	69,9	81,7	33,9
2011	83,8	78,6	79,1	88,9	49,3	74,4	67,5	71,0	94,4	26,6	77,1	70,5	72,0	80,0	38,1	77,2	70,7	72,4	82,8	37,3
2012	86,6	82,7	82,6	90,2	51,7	70,4	67,3	67,8	90,0	27,6	77,9	73,4	74,0	79,9	41,3	77,5	73,2	73,8	82,1	40,2
2013	87,4	85,1	84,7	89,8	57,7	80,5	79,8	78,7	89,3	29,8	81,9	77,8	78,3	82,0	44,1	82,1	78,6	78,8	83,6	43,2

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak

Ekipamendurik zabalduea sakelako telefonoa da oraindik ere, eta horren ondotik daude ordenagailu pertsonala, Interneterako sarbidea eta posta elektronikoa.

Hala, establezimenduen aldetik, langileen esku sakelako telefonoa jartzen dutenak %83,6 dira; langileen eskura ordenagailua jartzen dutenak, berriz, %82,1; internet dutenak %78,8 dira; posta elektronikoa dutenena %78,6 eta web orria dutenak, berriz, %43,2 dira. Jarduera sektoreen arabera, berriz ere nabarmentzen da argi eta garbi industria gainerako sektoreen aldean.

Bestalde, enpleguari dagokionez: langileen % 66,7k du ordenagailu pertsonala, % 59,6k helbide elektronikoa eta % 58,8k Internet. Jarduera sektorearen arabera, beste urte batez, aurreko kasuan ez bezala (establezimenduen %), zerbitzuen sektorea nabarmentzen da. Horren arrazoia hau da, funtsean: zerbitzuen sektorean halako ekipamenduak sartzeko eta erabiltzeko joera handiagoa duten jarduerak daudela. Horien artean aipatzekoak dira teknologia berriei, finantza-bitartekaritza eta enpresentzako zerbitzuei loturikoak.

I.2.51. KOADROA. IKT-EN ENPRESA EKIPAMENDUAREN BILAKAERA (IKT dituzten langileen %)

	Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak			GUZTIRA		
	PCa	e-posta	Internet	PCa	e-posta	Internet	PCa	e-posta	Internet	PCa	e-posta	Internet
2009	49,8	39,0	35,1	42,1	38,0	37,6	70,0	60,0	61,2	62,5	52,8	52,7
2010	51,3	40,6	36,6	46,2	41,0	42,2	71,2	62,1	61,6	64,1	55,0	53,8
2011	50,4	40,1	36,5	48,4	45,7	46,5	70,2	61,4	61,1	63,8	55,3	54,3
2012	51,4	42,0	38,1	42,7	41,2	40,3	72,4	64,1	63,4	65,2	57,3	55,9
2013	51,6	42,6	39,3	48,9	48,4	47,8	73,4	66,2	66,2	66,7	59,6	58,8

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak

Enplegu-mailaren araberako analisiak lehenik eta behin erakusten du IKT ekipamenduak zabalduego daudela establezimenduen tamaina handitu ahala. Bigarrenik, lanpostuak gehituz doazen heinean, hobetzeko marjina txikia dela-eta, txikiagoak dira gehikuntzak ekipamenduetan; izan ere, 10 langile edo gehiagoko enpresek, web orrietan izan ezik, IKTen ekipamendu berei eusten diete: ia asetze-atalasera iritsita daude.

1.2.52. KOADROA. ENPRESETAKO IKT EKIPAMENDUA, TAMAINAREN ARABERA (IKTtik dituzten establezimenduen edo langileen %)

	Ordenagailu pertsonala				Posta elektronikoa				Internet				Web orria	
	Establezimenduen gaineko %		Enpleguaren gaineko %		Establezimenduen gaineko %		Enpleguaren gaineko %		Establezimenduen gaineko %		Enpleguaren gaineko %		Establezimenduen gaineko %	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
Orotara	77,5	82,1	65,2	66,7	73,2	78,6	57,3	59,6	73,8	78,8	55,9	58,8	40,2	43,2
0 - 2	66,3	74,0	62,0	67,7	62,4	70,4	56,8	63,0	63,5	71,0	58,6	64,5	25,6	28,6
3 - 9	89,2	90,9	65,0	67,1	84,0	87,0	55,7	58,8	83,9	86,9	56,4	59,5	52,8	56,7
10 - 19	97,6	98,0	62,9	64,9	95,2	95,6	55,5	57,6	94,4	94,4	54,8	58,2	72,4	73,8
20 - 49	98,6	98,2	62,2	64,1	97,4	98,5	55,1	56,2	96,8	98,2	54,4	57,0	84,0	85,2
50 - 99	100,0	99,7	66,6	67,8	99,6	99,2	59,7	60,9	99,6	99,2	57,3	58,4	90,7	93,8
>= 100	99,9	100,0	67,5	66,8	99,8	99,7	58,6	60,3	99,8	99,7	54,3	57,4	94,3	96,5

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak

Teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen portzentajeari dagokionez, ekipamenduetan ez bezala, hemen garrantzitsua da esatea oso antzekoak direla teknologiek erabiltzen dituzten portzentajeak, establezimenduen tamaina edozein delarik ere, besteak beste establezimendu txikietan aurrerapen handiagoa dagoelako eta handietan langile guztiek ez dutelako eskuratzetik horrelako ekipamendurik.

Joera horiek ikusten dira Europa mailan ere, non, EUROSTATen datuen arabera, asebetetze-mailara iristen ari da interneten sarrera. Hala, 2012an, 9 langile baino gehiagoko enpresen %95ek zuen interneterako atzipena EB-27n. Ratorik handienak dituztenak: Lituania, Holanda eta Finlandia (hiru estatuetan %100eko ratioak), Danimarka, Frantzia eta Islandia (%99) eta Luxenburgo, Austria, Eslovenia, Eslovakia eta Suedia (horietan guztietan %98).

IKTen erabilera enpresan: presentzia interneten

Interneteko sarbidea duten euskal enpresak guztien %78,8 dira 2013an, aurreko ekitaldian interneteko konexioa zutenekiko %5eko gehikuntzaren ondotik.

Sarbide nagusia orain ere ADSL lineen bidezkoa da; izan ere, sarbidea duten enpresen %84,6k darabil bitarteko hori. Ondoren, konexio mugikorrek daude, %63,3, eta gainera hazkunderik handiena dute. Jarraian, kable bidezkoak –zuntz optikoa–: %28,6.

EUROSTATen datuen arabera, gorako joera du ere banda zabaleko sare finkoko sarbidea duten enpresen kopuruak, hain zuzen %90 EB28 2013an. Ratorik handienak dituztenak: Finlandia (%99), Islandia eta Frantzia (%98), Danimarka (%97), Lituania, Holanda, Luxenburgo eta Eslovenia (%96), Belgika, Txekiar Errepublika, Espainia, Malta eta Erresuma Batua (%95).

Enpresak gero eta jabetuago daude interneten web orri baten bidez agertzearen garrantziaz. Orrialde horietan, kasurik gehienetan, ondoko taulan ageri denez, enpresari berari buruzko informazio orokorra aurki daiteke. Bigarren mailan, eskaintzen diren produktuen eta zerbitzuen arteko erlazioari buruzko informazioa eta informazioaren

1.2.53. KOADROA. BANDA ZABALEKO ATZIPENA DUTEN ENPRESAK (%) (gutxienez 10 lanpostu dituzten enpresak)

	2010	2011	2012	2013
EB28	84	86	90	90
Eurogunea	88	89	92	92
Belgika	89	86	94	95
Bulgaria	61	68	76	78
Txekiar Errep.	85	87	91	95
Danimarka	84	91	90	97
Alemania	88	88	88	86
Estonia	87	90	94	94
Irlanda	84	90	88	91
Grezia	80	76	80	78
Espainia	95	96	95	95
Frantzia	93	92	97	98
Kroazia	76	80	88	77
Italia	83	84	92	93
Zipre	85	88	95	93
Letonia	66	82	86	91
Lituania	78	87	95	96
Luxenburgo	87	93	95	96
Hungaria	78	84	85	85
Malta	91	94	94	95
Holanda	90	91	96	96
Austria	75	82	86	86
Polonia	66	73	77	77
Portugal	83	83	87	90
Errumania	49	54	:	61
Eslovenia	85	92	97	96
Eslovakia	71	76	90	87
Finlandia	93	96	98	99
Suedia	88	94	95	94
Erresuma Batua	87	92	93	95
Islandia	95	:	98	98
Norvegia	84	87	85	89

Iturria: EUROSTAT

privatutasunaren adierazpena sartzan dira. Emandako gainerako prestazioek presentzia txikiagoa dute, eta enplegu eskaintzak eta salmenta ondoko zerbitzuak nabarmentzen dira.

I.2.54. KOADROA. WEB GUNEA DUTEN ENPRESEN WEB PRESTAZIOAK, SEKTORE ETA ENPLEGU MAILAREN ARABERA
(interneteko sarbidea duten enpresen %)

	Enpresa guztien %		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak		9 langile baino gehiago	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
Enpresari buruzko informazio orokorra	99	99	98,7	98,8	100	96,6	98,7	99,3	99,2	99,7
Ondasun eta zerbitzuen zerrenda edo katalogoa	65	63,8	61,8	64,9	59	65,1	65,5	63,6	66,6	65,2
Produktu./zerbitzuen zuzeneko ordainketa	13	14	5,3	7,6	2	1,5	15,3	16,2	12,8	13,2
Eskarien jarraipena	11	12,1	7,4	7,8	2	4,6	12,8	13,5	15,2	15,3
Salmenta ondoko zerbitzua	22	20,3	15,1	11,5	9	5,2	24,4	23,2	26,3	21,6
Produktu digitalen zuzeneko banaketa	7	5,6	1,5	1,7	3	1,2	7,9	6,6	7,5	8,3
Babesturiko transakzioak	20	19,2	9,7	9,8	9	11,3	22,1	21,3	20,2	21,8
Informazioaren pribatutasunaren adierazpena	49	48,8	36,8	39,7	34	43,7	51,8	50,5	57,1	57,5
Lan eskaintzei buruzko informazioa	25	23	12,1	12,1	15	9,8	27,7	25,8	36,7	35
Ohiko erabiltzaileentzako edukiek pertsonalizatzea	14	12,4	5,8	4,9	5	0,5	16,1	14,8	17,8	15,9
Ezinduen irisgarritasuna	12	12,4	5,6	6,4	5	3,8	13,3	14,1	17,3	18,3
Pertsonalizatzeko edo produktuak sortzeko posibilitatea	6	5,4	2,8	2,9	1	0,2	6,7	6,3	8,5	8,3

Iturria: EUSTAT, IGI enpresak

Administrazio elektronikoa

Justizia eta Herri Administrazio Sailaren datuen arabera, EAEn bizi diren 16-74 urteko milioi erdi biztanlek baino gehiagok erabili zuten 2013an administrazioek herritarrekin batera jarduteko eskaintzen dituzten posibilitateetako bat, hots, populazio guzti horren %35,9k.

Hazkundera motelagoa eta indar txikiagokoa izan da enpresetan izandakoa baino: 7 urte behar izan dira baliabideak bikoizteko (2003tik 2009ra)

Sexuaren aldetik, ez da orekatua izan erabiltzaileen igoera. Administrazio elektrikoaren erabileraren aldea murriztuz joan da azken urteetan, eta -%4,5koa da emakumezkoetan: erabiltzaileen %33,7.

Enpresa sareari dagokionez, EAEko lehen sektoretik bazterturiko 86.230 establezimenduk administrazio elektronikoa erabili zuten 2012an, guztizkoaren %50,3k. 10 langile edo gehiagokoen kasuan, %88,6ra iristen da.

Askotariko erabilera edo interakzioa da: informazioa lortzea, formularioak jaiste edo izapide edo prozedura bat osorik izapidetzea telematikaren bidez.

Azken 13 urtean, bi epealdi antzeman daitezke eskuragarri ditugun datuen arabera: 2000tik 2008ra, hazkundera handia izan zen enpresek administrazio elektronikoko erabileran (bider zortzi baino pixka bat gehiago), eta 2009tik 2012ra, hazkundera moteldu egin da administrazioekin internet bidez elkarreragitea.

I.2.55. KOADROA. ADMINISTRAZIOAREN ADIERAZLEAK

	2000	2003	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Administrazio elektronikoa erabili duten 16-74 bitarteko biztanleak (%)	-	15,4	26,3	30,7	32,2	32,9	31,4	35,9
Administrazio elektronikoa erabili duten establezimenduak* (establezimendu guztien %)	5,9	16,1	41,6	43,0	44,7	47,2	50,3	-
Administrazio elektronikoa erabili duten 9 langile edo gehiagoko establezimenduak * (establezimendu guztien %)	33,6	53,9	78,9	81,6	82,8	84,9	88,6	-

Iturria: Justizia eta Herri Administrazio Saila. Administrazio Elektronikoko Barometroa

() Ez dira sartzen lehen sektoreko establezimenduak. 'Administrazio elektronikoa erabili dutela' esan nahi du herri administrazioetan informazioa eskatu dutela, formularioak elektronikoki jaitsi edo bidali dutela edo izapide edo prozedura bat telematika bidez izapidetu dutela.*

Baldin eta datu horiek honekin batera doan taula erantsian agertzen diren Euskadiko 2015eko Agendan planteaturiko helburuekin konparatzen baditugu, adierazleak zuzenean konparagarriak ez badira ere, nekez lor daitezke herritarren inguruan planteaturiko helburuak .

Enpresei dagokienez, hobetzeko marjina dagoela egia izanik ere, bilakaera hobea da.

**2.2.7. Merkataritza elektronikoa
EAEn. Familiak eta
erabiltzaileak**

Familiak eta erabiltzaileak

INEn datuen arabera, interneteko erabiltzaile guztien (16-74 urte) kopuruan, inkestaren erreferentziako aldian, iguera ageri da azken hilean internet bidez erosi dutenen kopuruan; izan ere, %24,6ko ratiotik %26ra igaro da 2012 eta 2013 urte artean. Estatuan ere ikusten da jokaera hori: %18,5etik %19,3ra igo da.

I.2.56. KOADROA. 2015EKO AGENDA DIGITALAREN HELBURUAK EUSKADIN

	2015
Internet administrazioaren informazioa begiratzeko erabiltzen duten 15 urtetik gorako biztanleak (%)	65
Internet administrazioaren formularioak deskargatzeko erabiltzen duten 15 urtetik gorako biztanleak (%)	50
Internet administrazioaren formularioak betetzeko eta bidaltzeko erabiltzen duten 15 urtetik gorako biztanleak (%)	45
Lizitazio elektronikoko (eprocurement) sistema batean proposamenak aurkezteko administrazioarekin izapideak egin dituzten enpresak (%)	10

Iturria: Euskadiko Agenda Digitala

I.2.57. KOADROA. AZKEN 3 HILEAN INTERNET ERABILI ETA ELEKTRONIKAREN BIDEZ EROSI DUTEN PERTSONAK

	2011		2012		2013	
	Estatua, guztira	EAE	Estatua, guztira	EAE	Estatua, guztira	EAE
Azken hiru hilabeteetako Internet erabiltzaileak guztira	23.196.058	1.144.754	24.075.125	1.200.375	24.824.110	1.233.243
Azken hilabetean erosi duten pertsonen %	16,6	19,3	18,5	24,6	19,3	26,0
Duela hilabete baino gehiago eta hiru baino gutxiago erosi duten pertsonen %	11,5	12,7	13,4	14,8	12,5	14,4
Duela hiru hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago erosi duten pertsonen %	12,3	13,8	12,4	16,2	12,4	13,7
Duela urtebete baino gehiago erosi duten pertsonen %	6,7	7,3	6,6	7,1	7,8	7,1
Internet bidez erosi ez duten pertsonen %	52,9	46,8	49,1	37,4	48,0	38,8

Iturria: INE

Internet bidez erosi ez duten pertsonen portzentajea kontuan izanda ondoriozta daitekeenez, EAEk tokirik onena betetzen du autonomia erkidegoen rankinean, %38,8arekin, zeren autonomia erkidego batek ere ez baitu ehuneko txikiagorik.

Bestalde, azken hilean erosi duten pertsonen portzentajea aztertuta, Euskadi lehen tokian dago era berean (%26), eta ondoren Madril (%25,2) eta Nafarroa (%22,4).

Alabaina, merkataritza elektronikoak EAEn duen hedadura oso urruti dago EBtik. Izan ere, EUROSTATen arabera, 2013an EB-28n eta Eurogunean azken hiru hilean internetez erosi duten pertsonen portzentajea %38 da. EUROSTATEk %23koa eman du Estaturako. Era horretako merkataritzarako joera handiena duten herrialdeen artean ondoko hauek daude: Erresuma Batua (%71), Danimarka (%65), Alemania (60%), ...), Holanda eta Luxenburgo (%59), Suedia (%57) eta Norvegia (%56).

2013an, helburu pribatuarekin edo etxean erabiltzeko EAEn azken 12 hilean internetez gehien erositako lau produktuak, INEren arabera, 2012an erregistraturiko berberak izan dira, baina gora egin du produktuok erosten dituztenen kopuruak, kirol materialean eta arropan izan ezik: Hona hemen produktuak: oporretarako ostatua (hotela, apartamentua eta abar), azken hamabi hilabetean Internet bidez erosi duten pertsonen % 61,9k erosi baitute; bidaietarako beste zerbitzu batzuk (garraio publikoko txartelak, autoen alokairua eta abar), %51,9rekin eta ikuskizunetarako sarrerak (zinema, antzerkia, kontzertuak) % 48,2rekin. kirol-materiala eta arropa, %45,5ekin.

I.2.58. KOADROA. AZKEN 3 HILEAN INTERNET ERABILI ETA INTERNET BIDEZ EROSI DUTEN PERTSONAK, ETA EROSI EZ DUTEN PERTSONAK, 2013

	Azken hilean erosi dute	Internet bidez erosi ez duten pertsonak
Estatua, guztira	19,3	48
Andaluzia	15,6	52,8
Aragoi	20,6	49,6
Asturias	20,3	42,9
Balearrak	18,2	43
Kanariar U.	13,5	55
Kantabria	18,9	46,6
Gaztela eta Leon	18	47,5
Gaztela-Mantxa	20,8	46,7
Katalunia	19	43
Valentzia	16,3	55,9
Extremadura	15,9	54,2
Galizia	21,4	46,5
Madril	25,2	44,6
Murtzia	14,3	53
Nafarroa	22,4	43,3
EAE	26	38,8
Errioxa	20,6	50,9

Iturria: INE

I.2.59. KOADROA. ERABILERA PRIBATURAKO EDO ETXERAKO MERKATARITZA ELEKTRIKOA (portzentaje bertikalak)

	2012		2013	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
Internet bidez azken 12 hileetan erosi duten pertsonak, guztira	10.704.452	666.862	10.990.805	666.752
Elikagaiak	13,5	18,2	12,2	15,4
Etixerako ondasunak (altzariak, jostailuak, etab.)	21,8	31,9	24,2	31,9
Medikamenduak	1,1	0,7	1,2	1,9
Filmak, musika	11,8	16,2	12,7	15,6
Liburuak, aldizkariak, egunkariak (liburu elektronikoak barne)	19,2	25	21,1	22,9
On line prestakuntza materiala	9,5	13,6	9,2	12,4
Kirol material eta jantziak	32,8	41,1	38,4	45,5
Ordenagailuko eta bideo-kontsolen jokoaren softwarea eta horien egokitzapenak	12,6	13,3	11,1	10,7
Ordenagailuko beste software bat eta horien egokitzapenak	11,8	18,8	13,1	13,2
Ekipo informatikoa (ordenagailuak eta osagarriak)	16,7	16	18,7	21,6
Ekipamendu elektronikoak (adibidez: kamerak)	17	21,7	19,8	24
Telekomunikazio zerbitzuak (banda zabaleko harpidetzak, telefono lineen kontratuak, telefono kargak, etab.)	11,4	12,6	13,8	15,3
Akzioen erosketak, aseguru-polizak edo bestelako finantza zerbitzuak	7,1	11,1	6,5	9
Oporraldiko ostatua (hotela, apartamentua, etab.)	54,6	73,4	48	61,9
Bidaietarako bestelako zerbitzuak (garraio publikoko txartelak, autoen alokairua, etab.)	49,7	57,9	44,5	51,9
Ikuskizunetarako sarrerak (zinema, antzerkiak, kontzertuak,...)	40,3	51,6	36,6	48,2

Iturria: INE

Estatuan, lau eremu hauetan erosi da gehien: oporretarako ostatua (hotela, apartamentua eta abar), azken hamabi hilabetean Internet bidez erosi duten pertsonen % 48k erosi baitute; bidaietarako beste zerbitzu batzuk (garraio publikoko txartelak, autoen alokairua eta abar), %44,5; kirola material eta arropa, %38,4 eta ikuskizunetarako sarrerak % 36,6rekin.

Enpresak

Eustaten datuen arabera, EAEko enpresa-ehunean merkataritza elektronikoa sortzen dituzten zenbaki ekonomikoetan handitu da, eta bertan parte hartzen duten enpresen kopurua ere areagotu da.

I.2.60. KOADROA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA EGITEN DUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA (%)

	Establezimenduak, guztira					10 enplegatu edo gehiago				
	2008	2009	2010	2011	2012	2008	2009	2010	2011	2012
Merkataritza elektronikoa	15,0	14,9	15,1	17,3	19,7	22,2	23,7	23,1	24,9	27,7
Erosketak	13,9	13,8	14,2	16,1	18	19,1	20,2	20,3	21,4	23,6
Salmentak	3,4	3,4	3,9	4,1	4,6	8,0	8,0	8,5	9,8	10,4
% /erosketak (*)	22,6	24,9	28,1	30,8	33,7	15,3	20,3	24,6	30,5	33,7
% /salmentak (*)	26,9	32,5	38,6	39,3	36,6	28,6	34,2	38,4	40,9	42,8

() Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa/salmenta guztien gaineko erosketa/salmenta elektronikoen batez besteko %.*

Iturria: EUSTAT-IGI Enpresak

2012. urtean sarearen bidez edo bestelako sistema elektronikoen bidez (EDI, datu elektronikoen trukea eta abar) sortutako negozio-bolumena 10.699,2 milioi eurokoa izan zen, salmenta elektronikoei dagokienez, eta 7.207,6 milioioi, erosketei dagokienez. Hau da, aurreko urtearekin alderatuz, % 1,6 igo da salmenten arloa eta % 8,4 erosketen arloa.

I.2.61. KOADROA. EROSKETAK ETA SALMENTAK, JARDUERA-ARLOAREN ETA ENPLEGU-MAILAREN ARABERA (MILIOIAK, EUROTAN)

	Erosketak					Salmentak				
	2008	2009	2010	2011	2012	2008	2009	2010	2011	2012
Orotara	3.452,4	4.626,4	5.284,8	6.649,3	7.207,6	7.157,0	7.401,8	8.773,6	10.530,4	10.699,2
Enplegu mailak										
0 - 9	1.010,5	1.752,2	1.764,5	2.012,7	2.082,9	652,1	1.096,7	1.528,5	1.943,7	2.067,2
10 eta gehiago	2.441,9	2.901,2	3.520,3	4.636,6	5.124,7	6.504,9	6.305,1	7.245,0	8.586,7	8.632,0

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizartearen Inkesta -IGI Enpresak.

Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen portzentajea (zentzu zabalean) %2,4 igo da: 2011ko %17,3etik 2012ko %19,7ra.

Nahiz eta zifra ekonomikoetan salmentak erosketak baino gehiago izan, partaidetzan, produktuak bide elektroniketatik erosten dituzten establezimenduen kopurua askoz ere handiagoa da saltzen dutenena baino. Are gehiago esatearren, erosketak egiten dituzten establezimenduek ematen dute gehienbat %19,7ko proportzioa, saltzen dutenak %4,6 besterik ez baitira.

Zenbatesten da halako establezimenduek prozedura elektronikoen bidez egiten dituzten erosketak beren erosketa guztien % 33,7 direla, eta salmentak, berriz, salmenta guztien % 36,6.

Establezimenduak tamainaren arabera bereizita, ikusten da 9 langile baino gehiagoko enpresen artean merkataritza elektronikoa egiten dutenen portzentajea handiagoa dela, eta % 27,7ra ere iristen dela (% 19,7, zenbaki orokorretan, lehen aipatu dugun bezala), eta, bestalde, segmentu horretan handiagoak dira erosketa elektronikoa egiten dituztenak (% 23,6) saltzen dutenak baino (% 10,4).

Eurostaten datuen arabera (databasea, 2013ko datuak, NACE 2. ber.), online (Internet, EDI edo beste sare batzuen bidez) saldu zuten 9 langile baino gehiagoko enpresen portzentajea % 18koa da EB-28n eta Eurogunean %14koa. Eta online erosi zuten enpresen portzentajea: UE28n % 37 eta Eurogunean %36.

3. EAE-KO NATUR INGURUAREN EGOERA

3.1. AIREAREN KALITATEA

Airearen kalitate indizea ateratzeko, kontrol eta zaintza sare bat dago, puntako teknologiako analizagailuak eta sentsoreak dauzkana, europar zuzentarauak gaiaz markatzen dituen kutsatzaileak denbora errealean neurtzen dituen, batez ere sufre dioxidoa (SO₂), nitrogeno oxidokoa, ozono troposferikoa (O₃), karbono monoxidoa (CO) eta esekitako partikulak.

LURRALDEAREN ZONAKATZEA

1. Hegoaldeko Araba	7. Urola Garaia
2. Arabako lautada	8. Ibaizabal - Debagoiena
3. Arabako Errioxa	9. Nerbioi Garaia
4. Kostaldea	10. Enkarterriak
5. Donostialdea	11. Nerbioi Behea
6. Oria Garaia	

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak hamaika gune eta indizearen 6 maila (airearen kalitate ona, onargarria, neurritsua, txarra, oso txarra eta arriskutsua) bereizten ditu. Horrela, zonetako bakoitzak kontrol estazio zenbait dauzka, sentsore edo analizagailu automatikoekin, indizea kalkulatzeko neurtzen diren kutsatzaileak denbora errealean neurtzen dituztenak.

Airearen kalitate indizeak esleitutako balio bat izango du, eta balio hori zenbat eta handiagoa izan, gune horretako airearen kalitatea txarragoa izango da. Gainera, eguneroko indizea da.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak emandako informazioaren arabera, azken urteetan EAEko airearen kalitatea nabarmen hobetu da eta dauden azken datuen arabera kalitatea ona, edo gutxienez onargarria da. Datu erantsietan, urtean kalitate ona edo onargarria zuten egunak %93,8 ziren 2007an. 2012an, ordea, %98,6 izan dira.

I.3.1. KOADROA. EAE-ko AIRE KALITATEAREN INDIZEA MAILEN ETA URTEEN ARABERA (URTEKO EGUNEN %)

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Ona	46,3	53,0	57,4	61,7	57,2	68,5
Onargarria	47,5	43,8	40,0	37,5	40,7	30,1
Neurritsua	5,1	2,4	2,2	0,8	1,8	1,2
Txarra	1,0	0,8	0,4	0,1	0,4	0,2
Oso txarra	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0
Arriskutsua	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Hala ere, datuek agerian utzi dutenez, 2011 eta 2012 artean, 11 laginketa-estazioetan airearen kalitate oso txarra edo txarra erregistratzen den egun kopurua 16tik 8ra jaitsi da. 2011rekiko aurrerapen hori gorabehera, airearen kalitate txarra edo oso txarra duten 8 egunen kopurua 2009an nahiz 2010ean lortuaren bikoitza da; bi epealdietan, maila horretako 4 egun izan ziren. Bestalde, behera egin du neurritzko aire kalitateko egun kopuruak: 71 egun 2011n eta 2012an, berriz, 49.

I.3.2. KOADROA. AIRE KALITATE TXARREKO EDO OSO TXARREKO EGUN KOPURUA GUNEEN ETA URTEEN ARABERA

	2009		2010		2011		2012	
	Neurritsua	Txarra edo oso txarra	Neurritsua	Txarra edo oso txarra	Neurritsua	Txarra edo oso txarra	Neurritsua	Txarra edo oso txarra
Hegoaldeko Araba	6	0	2	0	3	0	6	0
Arabako lautada	1	0	0	0	2	0	0	0
Arabako Errioxa	0	0	0	0	1	0	5	0
Kostaldea	4	0	0	0	3	0	2	0
Donostialdea	1	0	0	0	1	0	0	0
Oria Garaia	12	0	3	0	10	1	3	0
Urola Garaia	45	4	24	4	36	14	21	8
Ibaizabal - Debagoiena	13	0	1	0	7	0	4	0
Nerbioi Garaia	0	0	0	0	0	0	2	0
Enkarterriak	0	0	0	0	0	0	0	0
Nerbioi Behea	7	0	1	0	8	1	6	0
OROTARA, EAEn (egunak).	89	4	31	4	71	16	49	8

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politikarako Saila

Zehazki, 2012. urtean, Urola Garaia nabarmentzen da, neurrizko aire kalitateko 21 egunekin eta kalitate txarreko 8 egunekin; Hegoaldeko Araban eta Nerbioi Beherean 6 egun neurrizko kalitatearekin, hurrenez hurren; eta Arabako Errioxa, neurrizko kalitateko 5 egunekin.

I.3.3. KOADROA. EGUN KOPURUA ESKUALDEAREN ETA AIREAREN KALITATEAREN ARABERA, 2012

	Ona	Onargarria	Neurritsua	Txarra	Oso txarra	Arriskutsua	Orotara	Jasangarritasun adierazlea (%)
Hegoaldeko Araba	171	189	6	0	0	0	366	98,4
Arabako lautada	261	100	0	0	0	0	361	100
Arabako Errioxa	210	151	5	0	0	0	366	98,6
Kostaldea	224	120	2	0	0	0	346	99,4
Donostialdea	321	41	0	0	0	0	362	100
Oria Garaia	245	118	3	0	0	0	366	99,2
Urola Garaia	167	169	21	8	0	0	365	92,1
Ibaizabal - Debagoiena	251	106	4	0	0	0	361	98,9
Nerbioi Garaia	292	72	2	0	0	0	366	99,5
Enkarterriak	299	47	0	0	0	0	346	100
Nerbioi Behea	269	78	6	0	0	0	353	98,3
Orotara, EAEn (egunak).	2.710	1.191	49	8	0	0	3.958	98,6
Egunen %, airearen kalitatearen arabera	68,5	30,1	1,2	0,2	0,0	0,0	100	-

* *Jasangarritasun adierazlea = ("Ona" kalif. egunen kop.+ "Onargarria" kalif. egunen kop.)/Urteko egunen guztizko kop. Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila*

3.2. KLIMAREN ALDAKETA NEGUTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURIAK (NEG)

1992an, herrialderik gehienek bat egin zuten nazioarteko itun batekin (Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Esparrua (KANBHE)), atmosferaren berokuntza murrizteko zer egin zitekeen pentsatzen hasteko. 1997. urtean, Alderdien Hirugarren Biltzarrean (Kyotoko CP3, 1997ko abenduaren 11), gobernuek erabaki zuten itunari eranskin bat gehitzea, Kyotoko Protokoloa izena jaso zuena.

EBk Kyotoko Protokoloa onartu ondoren (Kontseiluaren 2002ko apirilaren 25eko 2002/358/CE Erabakia), NEG isuriak murrizteko konpromisoa ezarri zen 2008-2012 aldirako, hain zuzen ere 1990eko isuriak baino %8ko gutxiago batez beste. Modu ezberdinean banatu zen konpromiso hori estatuetan, eta oinarrizko urtearen aldean gehienez %15eko igoera egokitu zitzaion Espainiari.

Autonomia erkidegoek ez daukate NEGak murrizteko helbururik, juridikoki loteslea den helbururik. Baina Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko 2008-2012ko Euskal Planean -gai horretako erreferentea da gure erkidegoan- ezarri zen helburu boluntarioa EAeko isuriak denboraldi horretan mugatzea da, oinarrizko urtekoa %14 baino gehiago ez gairiditzeko moduan.

Ikuspuntu teknikitik, Nazio Batuen isuriak kuantifikatzeko estandarrek ezarri dute isurien inbentarioetan erakunde aitortlearen lurralde eremuan sortutako isuriak sartu behar direla.

I.3.4. KOADROA. NEGUTEGI-EFEKTUKO GASEN ZUZENENKO ETA GUZTIZKO ISURIEN BILAKAERAREN INDIZEA SEKTOREEN ARABERA. EAE. OINARRIZKO URTEA: 1990. Unitateak: Oinarrizko urteko indizea 1990=100 (CO₂-eq(t)).(1)

	1990	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Energiaren sektorea	100	189,4	226,4	294,2	293,6	274,1	268,8	269,5	215,0	178,1	205,1
Industria	100	88,7	80,0	76,9	77,0	74,6	77,8	68,6	75,3	63,6	60,1
Garraioa	100	185,8	193,0	202,1	209,7	224,0	210,5	194,8	188,0	185,4	194,8
Egoitzakoa	100	134,1	146,8	149,5	123,2	123,5	139,4	137,9	140,2	122,1	126,7
Zerbitzuak	100	170,5	188,2	194,0	182,1	180,2	209,7	201,3	214,2	203,4	200,5
Nekazaritza	100	104,4	103,3	101,8	99,0	74,8	71,9	72,7	69,0	67,7	66,8
Hondakinak	100	113,0	112,8	111,1	109,3	103,9	111,0	107,2	96,3	93,1	95,2
Zuzeneko isuriak	100	130,0	135,0	148,0	147,7	143,4	142,8	135,7	126,6	112,7	118,0
Inportaturiko energia elektrikoa(IEE)	100	108,2	95,3	43,8	52,4	68,1	47,4	20,3	33,6	56,6	47,1
Energiaren sektorea + IEE	100	138,7	144,6	138,0	143,2	145,6	130,7	114,1	101,9	102,3	106,6
Guztizko emisioa epigrafeen arabera NFR(2)	100	124,8	125,5	123,1	125,0	125,4	120,0	108,2	104,5	99,3	101,1

(1) CO₂-eq(t) = CO₂ren tona baliokideak

(2) NFE sailkapena da (Txostenetarako Formulario Komuna) Negutegi-efektuko gasen isuriei buruzko informazioa emateko nazioarteko erakundeei. Erakunde horien artean, bereziki, Europako Batasunaren Batzordea eta Nazio Batuen Erakundearen Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmenaren Idazkaritza Orokorra daude (SMCCC edo UNFCCC), Kyotoko Protokoloa betetzeko eremuan. Sailkapen horren arabera, sektoretik datozen erregaien isuri guztiak sartzen dira epigrafe honetan: "1. Epigrafe. Energia".

(3) Kanpoko elektrizitatea sartzen da aparteko epigrafe gisa, IPCCk baimentzen duenez.

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika. Negutegi Efektuko Gasen Isurien Inbentarioa.

Horrek, ordea, isurien inbentarioko kontabilitatetik at utziko luke erakunde aitorleak kontsumitu baina bere lurraldean ekoizten ez duen energiari lotutakoak. Azaldutakoa bezalako egoeretan, jardunbide egokitzat jotzen da erreferentziako urteko eta ondorengo aldietako argindarraren azken kontsumoari lotutako isuri guztiak kontabilizatzea. Jardun hori jarraitu da EAEn negutegi-efektuko gasen inbentarioa egiteko. Haren emaitzak aurkeztu eta komentatuko dira ondoren, honako taula honetan bilduak:

I.3.5. KOADROA. NEGUTEGI-EFEKTUKO GASEN ZUZENENKO ETA GUZTIZKO ISURIEN BILAKAERAREN INDIZEA SEKTOREEN ARABERA. EAE. OINARRIZKO URTEA:1990. Unitateak: Oinarrizko urteko indizea 1990=100 (CO₂-eq(t)).(1)

	1990	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Diferentzia: 11-12
Energiaren sektorea	100	115,7	121,3	114,5	125,4	127,4	125,7	115,4	101,6	101,9	100,5	-1,3
Industria	100	106,8	103,0	97,8	98,9	98,2	92,4	77,0	79,4	71,6	69,8	-1,8
Garraioa	100	184,7	191,3	200,6	208,0	221,8	208,1	192,6	185,7	183,1	192,4	9,3
Egoitzakoak	100	129,0	137,6	138,1	126,1	126,8	125,9	126,6	115,0	108,0	119,1	11,1
Zerbitzuak	100	241,3	255,6	258,9	256,8	261,0	249,6	244,7	225,1	225,4	249,0	23,7
Nekazaritza	100	105,5	104,5	103,1	100,2	76,7	73,7	74,3	70,3	69,1	68,4	-0,7
Hondakinak	100	113,0	112,8	111,1	109,3	103,9	111,0	107,2	96,3	93,1	95,2	2,0
Guztizko isuriak epigrafeen arabera NFR(2)	100	124,8	125,5	123,1	125,0	125,4	120,0	108,2	104,5	99,3	101,1	1,8

(1) CO₂-eq(t) = CO₂ren tona baliokideak

(2) NFE sailkapena da (Txostenetarako Formulario Komuna) Negutegi efektuko gasen isuriei buruzko informazioa emateko nazioarteko erakundeei. Erakunde horien artean, bereziki, Europako Batasunaren Batzordea eta Nazio Batuen Erakundearen Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmenaren Idazkaritza Orokorra daude (SMCCC edo UNFCCC), Kyotoko Protokoloa betetzeko eremuan. Sailkapen horren arabera, sektoretik datozen erregaien isuri guztiak sartzen dira epigrafe honetan: "1. Epigrafe. Energia".

(3) Kanpoko elektrizitatea sartzen da aparteko epigrafe gisa, IPCCk baimentzen duenez.

Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika. Negutegi Efektuko Gasen Isurien Inbentarioa.

Negutegi efektuko gasen isurien (NEG isuriak) inbentarioak emandako azken datuek erakusten dutenez, NGen guztizko isurietan, CO₂ren termino baliokideetan neurtuta, %1,8ko igoera izan da 2012an EAEn aurreko urtearen aldean.

Sektoreen ikuspegitik, guztizko isuriak murriztu egin dira energiaren sektorean aurreko urtearekiko, hain zuzen ere %1,3 gutxiago. 1990eko datuen aldean, gora egin dute isuriek. Ildo horretan, funtsezkoa da hazkunde ekonomikoa baliabideen gehiegizko edo gutxiegiako erabileratik eta kutsaduratik bereiztea garapen iraunkorra lortzeko.

Industriaren sektorean, behera egin dute guztizko isuriek aurreko urtearekiko eta 1990. urtearekiko, %1,8 eta 30,2 hurrenez hurren. Horrek agerian uzten du sektorean izandako eraldaketa eta aldaketa teknologikoa. Garraioaren sektoreari dagokionez, guztizko isuriek %9,3 egin dute gora 2011ko urtearekiko. 1990eko datuekiko, 92,4 puntu gehiago.

Egoitzen sektorean, guztizko isurietan %11,1 igora izan da 2011rekiko eta 19,1 puntu 1990etik. Zerbitzuen sektorean, 23,7 igo da aurreko urtearekiko eta 149 puntu 1990eko datuen aldean.

3.3. UR-MASEN KALITATEA

3.3.1. Lur gaineko ur-masak

Uraren Esparru Zuzentarauenez dagoenez, lur gaineko ur-masak ibai, laku, trantsizioko ur edo kostaldeko uren kategoriaren barruan sailkatzen dira, eta horien izaeraren arabera, natural, artifizial edo oso aldatutzat sailkatu ahal izango dira.

Legegintzazko ikuspegi berria ere ezarri zuen, “egoera” terminoa zentzu ekologikoan sartzen duena. Horrela, **egoera ekologiko onaren ingurumen helburua planteatzen** da, egoera kimiko onaren helburuaz gain.

Plangintza Hidrologikoaren Araudiaren 26. artikulua arabera³¹, egoera ekologikoaren eta egoera kimikoaren balio txarrenak zehaztuko du lur gaineko ur-masen egoera.

- Adierazle biologikoen, hidromorfologikoen eta fisikokimikoen konbinazioaren bidez ezartzen da **egoera ekologikoa**. Bost egoera ekologikotan sailkatzen dira ur-masa naturalak: “oso ona”, “ona”, “neurritzkoa”, “eskasa” edo “txarra”. Lur gaineko ur-masei edo oso aldaturiko ur-masei dagokienez, lau motatan sailkatuko da ahalmen ekologikoa: “oso ona”, “ona”, “neurritzkoa”, “eskasa” edo “txarra”.
- Lur gaineko uren **egoera kimikoaren** sailkapena: “ona” edo “ez da egoera onera iristen”.
- Ur-masen egoera ekologikoa eta egoera kimikoa lortu ondoren, bi egoerak erlazionatu egiten dira ur-masaren **gustizko egoera edo orokorra** kalkulatzeko “ona edo hobea” edo “ona baino okerragoa” izan daiteke.

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-estrategiak (2002-2020) proposatutako konpromisoa honakoa da: 2012rako lurrazaleko ur-masen %80k egoera ekologiko eta kimiko ona edo oso ona izatea; eta ur artifizial eta oso aldatuen masen %80k ahalmen ekologiko ona eta egoera kimiko ona izatea.

EAEko uren egoeraren jarraipen sareari esker dauden ur-masen (ibaiak, lakuak eta hezeguneak, tarteko urak, kostaldekoak eta lurrazpikoak) kalitate eta kantitate helburuak eta programak azter, kontrola eta jarrai daitezke.

Orokorrean, EAEko lur gaineko ur-masen kalitateak pixkanaka hobetzen jarraitu du 2012an, baina ingurumen-helburuak gutxi bete dira.

³⁰ 2000/60/CE Zuzentaraua, Uren Politiken eremuko jardueretarako eremu komunitarioa ezarri duena.

³¹ Uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretua, Plangintza Hidrologikoaren Arautegia onetsi duena.

a) Ibaien egoera

EAEren esparruan, guztira 136 ur-masa daude ibaien kategoriaren barruan (urtegiak ez), eta horietatik 114 naturaltzat hartzen dira eta 22k oso aldatutako ur-masaren izendapena dute. Uraren Euskal Agentziak ustiatzen dituen masen egoera kontrolatzeko programek, gaur egun, ibaien kategoriako 111 ur-masa kontrolatzen dituzte orotara (urtegiak ez).

I.3.6. KOADROA. IBAI KATEGORIAKO UR-MASAK (URTEGIAK IZAN EZIK). EGOERA EKOLOGIKOAREN ETA EGOERA KIMIKOAREN BILAKAERA, 2008-2012.

		Egoera orokorra		Egoera ekologikoa					Egoera kimikoa	
		Ona edo hobea	Ona baino okerragoa	Oso ona.	Ona	Neurrizkoa	Eskasa	Txarra	Egoera kimiko ona	Ez da iristen
Naturala	2008	33	67	3	34	26	30	7	87	13
	2009	32	68	4	30	26	19	21	85	15
	2010	38	63	6	39	24	22	10	74	26
	2011	36	64	6	33	26	18	17	85	15
	2012	51	49	2	51	27	17	3	90	10
UMOA*	2008	10	90	0	10	33	24	33	73	27
	2009	14	86	5	10	24	19	43	71	29
	2010	19	81	0	24	43	14	19	77	23
	2011	27	73	5	29	24	24	19	68	32
	2012	18	82	0	23	41	27	9	82	18
IBAIK	2008	28	72	2	29	28	29	13	83	17
	2009	28	72	4	26	26	19	26	82	18
	2010	33	67	4	35	28	20	12	74	26
	2011	34	66	5	32	26	19	17	81	19
	2012	44	56	2	45	30	19	5	88	12

*Iturria: URA. Uraren Euskal Agentzia *UMOA: Ur masa oso aldatuak.*

Zuzeneko kontrola dagoen ibai kategoriako masen (urtegiak ez) urte arteko azterketatik ondoriozta daitekeenez (95 masa 2007-11ko aldian eta 111 2012ko aldian), masa horietatik gehienek nahikoa egoera egonkorra badute ere 2008-2012ko aldian, hobetzeko joera dago. Izan ere, halaxe dela egiazta daiteke emaitzarik ezkorrenak 2008koak direla eta baikorrenak 2012koak direla ikusita.

Egoera orokorrari dagokionez, helburuen betetze maila %28koa izan zen 2008an eta, 2012an, berriz, %44koa da (hau da, egoera "ona edo hobea"). Hala, oso aldaturiko ur-masei dagokionez, egoera orokorrean %10eko betetze maila izatetik 2008an %18ra igaro da 2012an. Ur-masa naturalak direla-eta, helburuen betetze mailako %33tik %51ra igaro da 2012an.

Egoera ekologikoari dagokionez, 2012an ur-masa naturalen %53,k (%37k 2008an) bete dituzte egoera ekologikoko ingurumen-helburuak. Oso aldaturiko ur-masei dagokionez, berriz, helburuen betetze maila %25 ingurukoa da. Egoera ekologikoaren ebaluazioan ikus daitekeenez, urtez urte, murrizteko joera dago egoera edo potentzial ekologikoaren ingurumen-helburuak argi eta garbi betetzen ez dituzten masen portzentajea, hots, egoera eskasa edo txarra dutenena; izan ere, 2008an masen %42 zen (%37 naturalak eta % 57 oso aldatuak), eta 2012an %24 (%20 naturalak eta %36 oso aldatuak). Aldeko joera orokor hori izan daiteke presioen gaineko zuzenketa neurriak aplikatu izanagatik. Ondorioz, hobera egin du egoerak.

Egoera kimikoa dela-eta, helburuen betetze maila %83 izan zen 2008an eta, 2012an, berriz, %85era igo da. Ur-masa naturalen %10 eta oso aldaturiko masen %18 ez dira iristen egoera ekonomiko onera 2012ko kanpainan. Hala, azterturiko urteetako egoera egonkorra dela esan daiteke.

b) Trantsizio uren egoera (estuarioak)

Trantsizio ur guztientzako helburuen balorazioaren azterketaren arabera, oraindik ere baxua da betetze maila (%14 2012an, 2 masa, bata oso aldatua eta bestea naturala).

Ez da hain egoera ona antzematen ibaietan. Hala eta guztiz ere, horrelako masa motaren egoera isurialdeko arro osoaren egoeraren isla denez gero, ibaietarako espero den hobekuntza trantsizio uretan ere islatzea espero da.

c) Kostaldeko urak

EAEko kostaldeko uren kategoriako 4 ur-masak kontuan izanik, esan beharra dago 2008-2012ko aldian emaitzen egonkortasuna gertatu dela. Emaitza horiek, oro har, ingurumenaren gaineko helburuen betetze maila handia erakusten dute **egoera ekologikoaren** aldetik. 2012an, kostaldeko uren kategoriako lau masek bete egiten dituzte ingurumenaren gaineko helburuak egoera ekologikoari dagokionez.

Egoera kimikoa dela-eta, kontrol estazio gutxi batzuetan baino ez dira ageri kalitate arauen ez betetze mailak eta, beraz, ez dira egoera kimiko onera iristen. Hala, egoera egonkorra dela esan daiteke aztertutako azken bost urteetan.

d) Lakuen eta barneko hezeguneen egoera

Oro har, ematen du bilakaera positiboa izan dela, baina oraindik ere ez da nahikoa. Aztertutako 14 hezeguneetatik, azken zikloetan, %21 eta %29 bitarteko balioetan mantentzen da ingurumen helburuak betetzen dituzten guneen proportzioa, eta emaitzen egonkortasuna erakusten du.

3.3.2. Lur azpiko ur-masak

ULTBren³² 92. artikuluan ezarritakoaren arabera, lur azpiko uretarako ingurumen-helburuen artean, hauexek daude: bertan kutsagarriak sartzeari saihestea edo mugatzea, egoerak okerrera egin ez dezan; ur-masa horiek babestea, hobetzea eta birsortzea, erauzketaren eta kargaren arteko oreka bermatuz, egoera onean izan daitezen lortzeko; eta azkenik, giza jardueraren ondoriozko kutsagarrien metaketa handiagorako joera nabarmen eta iraunkor guztiaren kontra egitea, lur azpiko uren kutsadura pixkanaka gutxitzeko.

Egoera kuantitatiboaren³³ eta egoera kimikoaren arteko baliorik txarrenetik lortzen da lur azpiko ur-masen egoera, horretarako ezarritako kontrol programetan bildutako informazioa oinarri hartuta.

EAEn, guztira, lur azpiko 44 ur-masa identifikatu eta mugatu dira, gure Erkidegoan osorik edo zati batez banatzen direnak. Ezarritakoaren arabera, horietan guztietan egoera kuantitatibo ona dago, eta gaur egun hiru masatan ez dago egoera kimiko ona (Gernika, eta Gasteizko eta Miranda de Ebroko alubialak).

3.3.3. Bainurako uren kalitatea

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko otsailaren 15eko 2006/7/CE Zuzentarauan eta bainurako uren kalitatearen kudeaketari buruzko urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera ebaluatzen da bainurako uren kalitatea. Hala, bainurako uren sailkapena "eskasa", "nahikoa", "ona" eta "oso ona" da parametro mikrobiologikoetarako loturiko datu-seriearen ebaluazioaren arabera.

Araudian ezarritako helburuaren arabera, agintari eskudunek beharrezko neurriak aplikatuko dituzte, zertarako-eta, 2015eko bainurako denboraldiaren amaieran, bainurako ur guztien kalitatea "nahikoa" izateko.

2011n eginiko azterketan, bainurako 59 eremuetatik (Arabako urtegiak barne), %66k kalitate oso ona zutela adierazi zen, %22k ona, %3,4k nahikoa eta %8,5ek eskasa. Zehazki, Bizkaian nahikoa kalitatea izan ez zutenak: Laidatxu, San Antonio, Toña eta Karraspio; eta Gipuzkoan: Saturrarán.

³² Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, Uren Legearen testu bategina onetsi duena.

³³ Egoera kuantitatiboa zehaztean, ur baliabide berriztagarrien eta erauzketen (ustiapen indizea) eta maila piezometrikoen eta deskarga naturalen arteko erlazioa erabilzen dira; egoera ekonomikoan, berriz, indarreko kalitate arauak aplikatzen dira, baita beste parametro batzuen kontzentrazioen bilakaeraren gaineko azterlana ere. Bi egoera horiek, kuantitatiboa eta kimikoa, "ona" edo "txarra" sailkapena dute.

2012. urtean, kalitate bikaineko ur-masen ratioa %75ekoa izan zen, eta %16,7k kalitate ona zuten; %1,7k nahikoa kalitate lortu zuten eta %6,7k, berriz, ez nahikoa. Zehazki, nahikoa kalitatea izan ez zutenak: Laidatxu, San Antonio, Toña (dagoeneko Karraspion ez, 2011n gertatu bezala) eta Gipuzkoan: Saturraran.

I.3.7. KOADROA. EAE-KO BAINURAKO UREN KALITATEA, KATEGORIEN ETA URTEEN ARABERA (bertikalaren % eta bainurako eremuak, orotara)								
	2011				2012			
	OROT.	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA	OROT.	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA
Bikaina	66,1	69,7	72,7	-	75,0	71,9	73,9	100,0
Ona	22,0	15,2	18,2	100,0	16,7	18,8	17,4	-
Nahikoa	3,4	3,0	4,5	-	1,7	-	4,3	-
Ez nahikoa	8,5	12,1	4,5	-	6,7	9,4	4,3	-
BERTIKALAREN %	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
GUZTIRA (absolutua)	59	33	22	4	60	32	23	5

Iturria: Osasun Publiko eta Mendekotasunen Zuzendaritza

3.4. NATUR BALIABIDEEN KONTSUMOA: UR GEZATAKO BALIABIDEAK.

a) Ur gezetako baliabideak: ura biltzea eta kontsumitzea

Europako Garapen Jasangarrirako Estrategian, natur baliabideen erabilera jasangarria ezarri zen lehentasunezko eremuetako bat. Ondorioz, agintari komunitarioek jarraitu eta aztertu egingo dute ura, giza jarduerarako ezinbesteko natur baliabidea den aldetik.

INEk eginiko "Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko Inkesta"ren arabera, 2011n 165,2 Hm³ ur bildu³⁴ zen herri hornidurarako EAEn, hots, %11,7ko jaitiera 2010eko kopuruarekiko. Lur gaineko eta lur azpiko uren bilketari eta bereizketari dagokienez, lur azpikoek %14,2 egin dute behera eta jaitsi egin da guztizkoan duten pisua. Hala, %96,1ekoa izatetik %93,4ra igaro da. Bestalde, lur azpiko ur-bilketak %49,3 hazi dira.

Ur erabilgarri guztia 165 Hm³ da. %100a geurea da, hots, ez da inori erositia.

EAEko herri hornidurarako erregistraturiko eta banaturiko guztizko ur bolumena 176,2 Hm³ izan zen 2011. urtean, hots, %3,9ko jaitiera. Horietatik 91,8 Hm³ (guztizkoaren %52,1) etxeak hornitzeko erabiltzen dira, 54,5 Hm³ (%30,9) sektore ekonomikoetarako (industria, zerbitzuak eta abeltzaintza) eta 30 Hm³ (%17) udal kontsumorako (lorategiak urreztatu, kaleetan ura bota eta beste erabilera batzuk).

Aurreko urtearen aldean, jaitsierak izan dira kontsumoan erabiltzaile-talde guztietan. Etxeetako %4 jaitsi da, sektore ekonomikoena %3,8 eta udal kontsumoa, berriz, %4,1.

³⁴ Ur-bilketak naturako ura atera edota biltzean eta erabiltzeko biltegitzatzean datza. Hemen, urtegi eta lehen mailako ateria eta hodiedatik gidatze zerbitzuak sartzen dira. Besteak beste, lurrazaleko eta lur azpiko ur-bilketak bereizten dira. Azkena, zundaketa edo zulatzeko bidez egiten da.

Kontinenteko lurrazaleko urak lurrazaleko korronea duten urak edo lehorreko sakonune baten gainean atxikitakoak, hots, ur pilatuak, dira. Lurrazaleko korronea duten uren artean ubide naturalak (ibaiek eta errekek) eta ubide artifizialekoak (ureztatzeko bideratze sistemak, industria eta nabigazioa, drainatze sistemak eta erreberba artifizialak) sartzen dira.

Inkesta honen xedeetarako, ibaiertzetan gertatutako iragazteak lurrazaleko uren artean hartzen dira, eta trantsizioko urak, zingira gazikarak eta estuarioak, lurrazaleko urtzat jo beharrean, bestelako baliabide hidrikoen artean sartzen dira.

Lur azpiko urak orokorrean lur azpiko egitura, hots, akuifero batetik edo baten bidez ateratakoak dira. Akuiferoak lur azpian dauden ur biltegi iraunkor edo behin behineko guztiak dira, bai artifizialki zein berez birbetetzen direnak, erabilera jakin baterako behar beste kalitate badaukate. Atal horretan, iturburuetatik bildutako ura ere sartzen da. Kanpoan geratzen da iragazteetatik datorren lur azpiko ura, lurrazaleko uretan sartuko baita.

I.3.8. KOADROA. EAE-KO HORNIDURA PUBLIKORAKO KONTROLATUTAKO ETA BANATUTAKO UR BOLUMENA

	2008	2009	2010	2011	Aldak. %: 10/11
ENPRESAREN BERAREN UR-BILKETAK (mila m³)					
OROTARA	223.644	194.880	187.157	165.198	-11,7
Lur gaineko urak	217.568	188.281	179.838	154.274	-14,2
Lur azpiko urak	6.076	6.599	7.319	10.924	49,3
Gatzgabetzeak	0	0	0	0	
Bestelako baliabide hidrikoak	0	0	0	0	
EDATEKOA BIHURTU GABEKO GUZTIZKO UR ESKURAGARRIA (mila m³)					
Orotara (a)	223.644	194.880	187.157	165.198	-11,7
SAREAN HORNITURIKO URAREN BOLUMENA (mila m³)					
1.1. Erregistratu eta banaturiko uraren guztizko bolumena, erabiltzaile motako	203.974	187.875	183.420	176.180	-3,9
1.2. Erregistratu gabeko uraren bolumena	43.911	44.076	51.936	53.042	2,1
1.2.1. Benetako galerak (b)	36.007	34.380	36.965	39.251	6,2
1.2.2. Itxurazko galerak	7.904	9.696	14.971	13.791	-7,9
Banaketa sare publikoan galdutako uraren % (a/b): benetako galerak (b/a)	16,1	17,8	19,9	23,8	-3,9
UR BANAKETA ERABILTZAILE TALDE HANDIEN ARABERA (mila m³)					
Erregistratu eta banaturiko uraren guztizko bolumena, erabiltzaile motako	203.974	187.875	183.420	176.180	-3,9
Sektore ekonomikoak	61.016	60.347	56.643	54.501	-3,8
Familiak	108.694	97.852	95.564	91.753	-4,0
Udal kontsumoak eta beste batzuk	34.264	29.676	31.213	29.926	-4,1
Banaturiko uraren guztizko zenbatekoa (mila euro)	113.344	107.541	105.398	109.847	
Hornidura zerbitzuetako inbertsioaren guztizko zenbatekoa (mila €)	6.570	7.048	9.629	2452	

Iturria: INE. Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta.

Erregistratu gabeko ura bitan banatzen da: benetako galerak (saneamendu-sareko ihesak, hausturak eta matxurak) eta itxurazko galerak (neurketa akatsak, iruzurrak eta kontsumo zenbatetsiak). Itxurazko galerak %7,9 jaitsi dira 2010 eta 2011 bitartean. Benetakoak, aldiz, %6,2 hazi dira, hots, 39,25 milioi m³ eta guztizko erabilgarriaren %23,8. Estatuan, ur baliagarriaren %17,1 galdu zen banaketako herri sareetan ihesak, hausturak, etab. zirela eta.

I.3.9. KOADROA. EAE-KO HONDAR-URAREN BILAKETA ETA TRATAMENDUA (m³/eguna)

	2008	2009	2010	2011	Ald. % 10/11
Trataturiko hondar-uraren bolumena	616.474	851.532	830.902	718.825	-13,5
Berriz erabilitako ur bolumena, orotara	47.493	13.405	16.907	15.458	-8,6
Hondar-urak biltzeko eta tratatzeko inbertsioak gastuen guztizko zenbatekoa (mila €)	13.179	13.179	9.854	372.256	3.677,7
Saneamendu eta arazketa kuoten guztizko zenbatekoa (mila €)	77.837	77.837	104.810	101.349	-3,3

Iturria: INE. Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta

Bestalde, 2010 eta 2011 bitartean %13,5 jaitsi da trataturiko hondar-ura, hau da, 719 Hm³. Gainera, berriz erabilitako ur bolumena (15.458 m³/eguna) %8,6 gutxitu da 2010eko datuen aldean. Hala, beheranzko joera erakusten du eta 2008an izandako bolumenetik urruntzen da; izan ere, urte hartan 47.493 m³ zenbatu ziren eguneko.

Saneamendu eta arazketa kuotei dagokienez, 2010. urtean hazkundera izan ondoren, datuek jaitsiera erakusten dute 2011n (%-3,3), hots, guztira 101,3 milioi euro.

Azkenik, hazkunde nabarmena izan dute hondar-urak biltzeko eta tratatzeko jarduerak ordura arte ikusten zen joeraren aldean. 2010 eta 2011 bitartean, 9,85 milioi eurotik 372,2 milioi eurora igaro zen; hazkunde hori oso deigarria da, baina ez du azalpenik.

EAEko uraren per capita kontsumoa berriz ere da Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa, 117 litro/biztanle/egun (142 litro Estatuan). Gainera, erkidego guztietatik txikiena da, 2009an gertatu zen bezala. Horrez gain, jaitsiera ageri da 2010 eta 2011 bitartean, Estatuko %1,4koa baino handiagoa (%4,1 EAEn).

I.3.10. KOADROA. URAREN BATEZ BESTEKO KONTSUMOA ETA ALEKO BALIOA FAMILIETAN

	BATEZ BESTEKO KONTSUMOA (litroak/biztanleak/eguna)					BATEZ BESTEKO PREZIOA (€/m ³)				
	2008	2009	2010	2011	Ald. % 10/11	2008	2009	2010	2011	Ald. % 10/11
ANDALUZIA	157	156	143	140	-2,1	1,12	1,25	1,36	1,46	7,4
ARAGOI	150	148	144	132	-8,3	1,18	1,27	1,34	1,29	-3,7
ASTURIAS	177	165	159	153	-3,8	0,94	1,10	1,07	1,17	9,3
BALEARRAK	139	127	121	124	2,5	1,89	2,00	2,69	2,19	-18,6
U. KANARIARRAK	157	141	149	150	0,7	1,70	1,90	1,9	2,02	6,3
KANTABRIA	188	180	173	161	-6,9	0,89	1,18	1,14	1,3	14,0
GAZTELA ETA LEON	153	162	167	170	1,8	1,94	1,07	0,98	0,9	-8,2
GAZTELA-MANTXA	155	146	152	156	2,6	0,99	1,15	1,31	1,28	-2,3
KATALUNIA	139	132	133	130	-2,3	1,59	1,76	1,83	1,84	0,5
VALENTZIA	189	174	157	152	-3,2	1,52	1,54	1,69	1,78	5,3
EXTREMADURA	158	163	160	144	-10,0	1,11	1,21	1,23	1,27	3,3
GALIZIA	146	139	132	133	0,8	0,75	0,93	1,01	1,07	5,9
MADRIL	144	145	140	141	0,7	1,57	1,67	1,64	1,69	3,0
MURTZIA	159	166	158	152	-3,8	1,87	1,84	2,17	2,29	5,5
NAFARROA	131	135	128	135	5,5	1,23	1,23	1,36	1,25	-8,1
EAE	139	126	122	117	-4,1	0,94	1,08	1,14	1,20	5,3
ERRIOXA	151	131	122	123	0,8	0,97	0,93	0,91	0,90	-1,1
CEUTA ETA MELILLA	133	126	-	170	4,3	1,38	1,40	-	1,43	-
ESTATUA	154	149	144	142	-1,4	1,31	1,42	1,51	1,54	2,0

Iturria: INE. Uraren hornidurari eta tratamenduari buruzko inkesta

Bestalde, uraren aleko balioa (koziente hau honela kalkulatzen da: ura hornitzeko tasen zenbatekoa gehi hondakin-uren saneamenduko tasak edo kanonak, zati kontsumorako banatutako ur bolumena) EAEn, 2011n, 1,2 euro/m³ izan zen, hau da, beste gehikuntza bat, %5,3koa kasu honetan, aurreko urteko balioaren aldean. Estatuan, batez besteko prezioa handiagoa da, 1,514 euro/m³. Horrek esan nahi du %2 garestitu dela aurreko denboraldiaren aldean.

3.5. HONDAKINEN SORKUNTZA: HIRI HONDAKINAK ETA INDUSTRI HONDAKINAK

INERen sektore industrialeko hondakinen sorkuntzari buruzko inkestako azken datuen arabera, 2010ean, euskal industriak sortutako hondakin guztietatik (1.841,2 mila Tm), erkidegoko araudiaren arabera 201,7 mila Tm sailkatu dira hondakin arriskutsutzat eta 1.639,5 mila Tm ez arriskutsu gisa.

Bilakaerari dagokionez, EAEn hondakin ez arriskutsuen sorkuntza, 2009 eta 2010. urteen artean, %10,6 handitu da, eta industriako hondakin arriskutsuena, %19,8. Orotara, %11,5 egin dute gora industriako hondakinek, baina kontuan hartu behar da balio murriztuak direla oinarria (190 mila Tm-ko igoera), baita 2005etik izan den beherako joera ere, hain zuzen %36koa.

Hala, EAE industria sektorean hondakin arriskutsu gehien sortzen duen hirugarren erkidegoa da (201,7 Tm). Lehenengoa Katalunia da, 333 Tm, eta bigarrena Valentzia, 212,7rekin. Estatu osoan, aipatu hondakin arriskutsuak %0,8 gehitu dira, EAEn baino gutxiago. Askoz nabariagoa da hondakin ez arriskutsuen igoera Estatuan aurreko urtearekiko (%+26,8), EAEkoa baino handiagoa (%+10,6). EAEn ere hazi egin da.

Hiri hondakinei dagokienez, INERen hiri hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko inkestak erakutsi du 2010ean hiri hondakinak kudeatzen dituzten enpresek, EAEn, 1.076,1 mila Tm hiri hondakin bildu zituztela, aurreko urtean baino %13,1 gutxiago. Nahastuen eta selektiboki batuen artean bereizita, gehienak (%66,8) hondakin nahastuak dira. Bilakaeraren ikuspuntutik, lehenak %28,6 gutxitu dira eta selektiboki batutakoak %53,8 gehitu. Estatuan bilakaerak joera bera du, hurrenez hurren, %-4,7 eta %+12,9.

Selektiboki batutako hiri hondakinen artean, bolumenagatik honakoak nagusitu dira: papera eta kartoia (169.542 Tm), beira (54.075 Tm), eraikuntza eta eraispeneko hondakinak (42.783 Tm), ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak (31.046 Tm) eta zura (22.625 Tm).

I.3.11. KOADROA. HIRI ETA INDUSTRI HONDAKINEN SORKUNTZA (*) (milaka tonatan)

	ESTATUA					EAE				
	2007	2008	2009	2010	2009-10eko aldak.	2007	2008	2009	2010	2009-10eko aldak.
Hiri hondakinak	28.240,5	26.322,4	24.758,1	24.380,0	-1,5	1.333,8	1.345,9	1.239,0	1.076,1	-13,1
Hiri hond. nahastuak	21.925,9	21.045,6	20.341,7	19.395,30	-4,7	1.036,4	1.055,1	1.006,2	718,30	-28,6
Selektiboki bildutako hiri hond.	6.314,6	5.276,7	4.416,4	4.984,80	12,9	297,4	290,7	232,6	357,80	53,8
Industri hondakinak	60.692,7	49.957,1	40.156,9	50.551,2	25,9	2.839,3	2.129,1	1.651,4	1.841,2	11,5
Ez arriskutsuak	58.530,1	48.280,4	38.773,8	49.157,4	26,8	2.536,9	1.923,7	1.483,0	1.639,5	10,6
Arriskutsuak	2.162,6	1.676,7	1.383,1	1.393,9	0,8	302,4	205,4	168,4	201,7	19,8

Iturria: INE: Hiri hondakin bilketa eta tratamenduari buruzko inkesta eta Industri sektoreko hondakin sorkuntzari buruzko inkesta.
 (*) Zerbitzu sektorean hondakinak sortzeari buruzko inkestak ez du autonomia erkidegoen arabera sailkapenik egiten.

I.3.12. KOADROA. BILDUTAKO HIRI HONDAKINAK, MOTAREN ETA URTEAREN ARABERA (biztanleko eta urteko kiloak)

	2008		2009		2010	
	Estatua	EAE	Estatua	EAE	Estatua	EAE
Hondakin nahastuak (1)	464,8	493,4	443,9	471	412,5	329,7
Bilketa selektiboa (*)						
Papera eta kartoia	24	39	23,5	35	31,2	77,8
Beira	14,9	24,4	15	25,7	17,1	24,8
Ontzi mistoak	28,4	52,7	19,1	24,8	13,6	14,3


* Selektiboki bildutako hondakinak: baliogarri bihurtzeko hondakinak materialak bereiztea ahalbidetzen duen bilketa bereziaren emaitza dira.

Iturria: INE. Prentsa oharrak

Per capita kopuruari dagokionez, INEren inkesta bereko datuen arabera, EAEn 2010ean 329,7 kg hiri hondakin nahastu bildu ziren biztanleko eta urteko, Estatuko batez besteko 412,5 kiloak baino gutxiago.

Azkenik, 2011n, guztira 480 kg hiri hondakin solido sortu ziren EAEn biztanleko eta urteko; estatukoa eta erkidegokoa baino kopuru txikiagoa da. Hala ere, ezberdintasun handiak daude EAEn barruan, hiru lurraldeen artean. Hala, Araban sortzen da hiri hondakin solido gutxien, azken urtean nahiz aurrekoetan. 2011n per capita sortutako 443 kg-ren aurrean, ia 494 sortu ziren Bizkaian biztanleko, eta 474 gipuzkoar bakoitzeko.

I.3.1. GRAFIKOA. INDUSTRI HONDAKINEN SORKUNTZAREN BILAKAERA (MILA TM)



Iturria: INE

3.6. MANUFATURAKO ENPRESA ETA INGURUMENA

3.6.1. Ingurumena babesteko gastua manufakturako enpresetan

Enpresa industrialek ingurumen babesean izandako gastuari buruz INEk eginiko inkestako azken datuen arabera, 2011n EAEn aipatu enpresek ingurumen babesean izandako gastua (inbertsioa barne) guztira 231 milioi euro izan zen, hots, 2010ean baino %10,1 gehiago da.

231 milioi euro horietatik, 190.053 mila euro, hots, %17,8, inbertsioetako gastuari (%28,9 2009an) dagozkio eta %82,2 gastu arruntei.

Gastua BPGaren portzentaje bezala neurtuta, 2010ean beste murrizketa bat ikusten da, %0,36an geratuz. Hala, 2010ean EAE zazpigarren tokian dago 2011n, Kantabriaren (%0,53), Asturiasen (%0,41), Nafarroaren (%0,40), Errioxaren (%0,38), Kataluniaren (hor ere %0,38) eta Murtziaren (%0,37) atzean. Hala ere, 2010eko datuei dagokienez, hiru puntu behera egin du gure Erkidegoak ranking-een: gastuan eta inbertsioan esfortzu gehien egiten duen laugarrenetik zazpigarrenera.

I.3.13. KOADROA. INGURUMENA BABESTEKO GASTUA ETA INBERTSIOA MANUFATURAKO ENPRESETAN

	Gastura, orotara (€)				BPGaren gaineko ehunekoa			
	2008	2009	2010	2011	2008	2009	2010	2011
ANDALUZIA	333.706.017	319.597.574	292.198.091	334.654.096	0,22	0,22	0,21	0,24
ARAGOI	152.715.582	126.819.753	96.013.484	95.851.658	0,44	0,38	0,29	0,29
ASTURIAS	203.592.138	119.890.531	93.752.135	92.303.613	0,86	0,54	0,42	0,41
BALEARRAK	15.926.230	11.967.058	10.599.922	8.895.000	0,06	0,05	0,04	0,03
U. KANARIARRAK	37.648.101	43.506.247	45.868.295	37.718.762	0,09	0,11	0,11	0,09
KANTABRIA	60.171.683	68.062.157	67.769.326	67.450.825	0,45	0,53	0,53	0,53
GAZTELA ETA LEON	299.968.059	185.273.761	137.330.218	150.870.720	0,53	0,34	0,25	0,27
GAZTELA-MANTXA	138.824.580	127.241.776	106.371.486	119.858.520	0,36	0,34	0,29	0,32
KATALUNIA	679.930.605	604.809.446	610.820.604	737.626.020	0,34	0,31	0,31	0,38
VALENTZIA	281.986.018	224.121.489	201.638.909	251.006.497	0,26	0,22	0,20	0,25
EXTREMADURA	33.739.426	26.372.435	35.042.315	13.989.697	0,19	0,15	0,20	0,08
GALIZIA	339.158.902	177.151.529	173.971.852	158.227.324	0,59	0,32	0,31	0,28
MADRIL	153.948.869	201.936.810	150.839.913	113.467.556	0,08	0,11	0,08	0,06
MURTZIA	66.781.317	58.194.751	66.621.034	100.183.663	0,23	0,21	0,24	0,37
NAFARROA	75.287.814	65.811.746	63.514.761	73.247.657	0,41	0,37	0,35	0,40
EAE	232.735.174	206.511.412	209.956.055	231.216.205	0,35	0,33	0,33	0,36
ERRIOXA	22.734.686	18.786.049	21.802.971	30.556.176	0,27	0,24	0,27	0,38

Iturria: INE

4. PRODUKZIOAREN AZPIEGIETURAK

Azpiegitura fisikoak oinarriko elementua dira garapen ekonomikoa, ongizate orokorra eta edozein gizarteren kohesioa posible izan daitezen, eta herrialde baten ekonomia orokorraren jardunaren gainean eragin garrantzitsua dute. Zehazki, produktibitatea eta hazkundera areagotzen laguntzen dute.

4.1. GARRAIOA

Egoera estrategikoagatik nahiz industria jarduera handiagatik, EAE mota guztietako trafikoaren maila handienetakoa ageri duen Europako zona bat da. Errepide sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate handiagokoak diren zerbitzu batzuk eskainita.

Gure Erkidegoko **errepide sarea** Europako sare trinkoenetako bat da, azalerako dentsitate handienetakoa baitu (0,58 km errepide km² azalerako, Estatuak duenaren —0,33— bikoitza, nahiz eta biztanleko dentsitate txikiagoarekin). Sarearen % 14,4 baino gehiago edukiera handiko bideek osatzen dute eta Estatuan mota horretako bideak % 9,9 dira; edukiera handiko bide horietatik % 41,1 bidesaria duten autobideak dira, eta Estatuan, aldiz, % 18,5 dira bidesaridunak.

I.4.1. KOADROA. ERREPIDE SAREA. ADIERAZLEAK

	EAE					ESTATUA	
	2008	2009	2010	2011	2012	2011	2012
Km errepideak*	4.203	4.209	4.198	4.190	4.185	165.885	165.595
Biztanleak (udal errolda, INE)	2.172.175	2.178.339	2.184.606	2.193.093	2.191.682	47.265.321	47.129.783
Ibilgailu parkea	1.275.782	1.286.541	1.299.807	1.309.534	1.309.104	31.269.081	31.203.203
Sare osoa (km) /azalera	0,58	0,58	0,58	0,58	0,58	0,33	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	1,93	1,93	1,92	1,91	1,91	3,51	3,51
Ibilgailu parkea / sare osoa	303,5	305,7	309,6	312,5	312,8	188,50	188,43
Ibilgailu parkea / biztanle	0,59	0,59	0,59	0,60	0,60	0,66	0,66

Iturria: 2013. urtean argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2012ko urtekaria.

Salgaien garraioari dagokionez, eskualde arteko trafikoa kontuan hartuta, trukeen bolumen handiena alboko autonomia erkidegoekin egiten da: Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Kantabria. Ikusten denez, salgaien guztizko trafikoaren hiru laurdenak ia eskualde artekoa da.

Trenbideko garraioari dagokionez, trenbide-sareak jatorritik eduki dituen sorrera-arazo ugariak (bide-zabalera ezberdinak, estatu mailan trenaren

bitarteko garraioa modu erradialean egitea, lotura falta eta abar) larritu egiten dira gure Erkidegoan orografia zaila delako eta egituratze horretan nagusi ez zelako lurralde barruko antolamendua, eta, ondorioz, salgaien zirkulazioa eta Europarekin lotzea nabarmenki zailak dira. Arrazoi horiek direla eta, EAEn trena ez da lehiakorra beste garraibide batzuen aldean, batez ere hiriburuen arteko loturretan. Aitzitik, trenbidea XXI. mendeko garraio publikoaren sistematzat hartzen da, ustiapen kostu txikiak dituelako eta ingurumenari beste garraibide batzuek baino kalte txikiagoa ekartzen diolako.

I.4.2. KOADROA. ERREPIDE SAREA, BIDE MOTAREN ETA ALDIAREN ARABERA. (Km)

	2008	2009	2010	2011	2012
ESTATUA					
Errepide km guztira	165.008	165.463	165.787	165.885	165.595
Edukiera handiko bideak	15.105	15.621	15.965	16.182	16.335
Bidesaria duten autobideak	2.997	3.016	2.991	3.022	3.025
Autobiak	10.521	11.005	11.271	11.509	11.676
Galtzada bikoitzeko errepidea	1.587	1.599	1.703	1.651	1.634
EAE					
Errepide km guztira	4.203	4.209	4.198	4.190	4.185
Edukiera handiko bideak guztira	588	607	598	598	602
Bidesaria duten autobideak	240	256	254	247	248
Autobiak	270	273	281	282	284
Galtzada bikoitzeko errepideak	78	78	63	69	70

Iturria: 2013. urtean argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2012ko urtekaria.

Sustapen Ministerioaren datuen arabera, 2012an, 607,11 kilometrok osatzen dute bide elektrikoa, eta horietatik %50 Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko zerbitzuak kudeatzen dituen ADIFena da.

Gainera, Penintsularako ibilbide luzeko eta distantzia ertaineko zerbitzuekin lotutako azpiegitura ere kudeatzen du. Eusko Treni, berriz, %41,3 dagokio, hain zuzen ere Bilbo-Donostia-Hendaia linea, eta %7,6 Bilbo Handiko eskualde arteko loturak eta Bilbo-Santander, Bilbo-Leon eta Bilbo Santander lineak kudeatzen dituen FEVEren bide estuko trenbideei.

Ibilbide luzeko lineei eta haiek nazioartearekin dituzten loturei dagokienez, azpimarratzekoak dira Irunen eta Frantziako TGVren arteko lotunea eta euskal Y-aren proiektua. Azken hori abiadura handiko tren bati lotutako trenbide trazatu berria da EAerentzat; Erkidegoko hiru hiriburuak 30 minutu inguruan lotzea agintzen du, eta Madril eta Bordelerekin 2 ordu baino pixka bat gehiagoan.

I.4.3. KOADROA. ERREPIDEKO SALGAIEN HELMUGA ETA JATORRIA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. (mila tona)

	2011		2012	
	Helmuga EAE	Jatorria EAE	Helmuga EAE	Jatorria EAE
OROTARA	73.966	74.992	64.378	61.381
ANDALUZIA	512	594	441	433
ARAGOI	1.809	1.674	2.149	1.878
ASTURIAS	1.071	720	1.049	720
BALEARRAK	-	-	:	:
U. KANARIARRAK	-	-	:	:
KANTABRIA	3.214	2.307	3.321	2.091
GAZTELA ETA LEON	4.534	5.844	3.879	3.704
GAZTELA-MANTXA	602	539	437	519
KATALUNIA	2.016	1.639	1.920	1.741
VALENTZIAKO E.	851	761	968	741
EXTREMADURA	180	91	173	109
GALIZIA	980	808	1.242	1.020
MADRIL	1.750	1.948	1.617	1.564
MURTZIA	255	386	177	164
NAFARROA	3.062	3.784	3.391	3.618
ERRIOXA	1.188	1.956	1.538	995
CEUTA-MELILLA	-	-	:	:
EAE	51.928	51.928	42.076	42.076

Iturria: 2013. urtean argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2012ko urtekaria.

I.4.4. KOADROA. TRENBIDE KM EAE-N

	ELEKTRIFIKATU BARIK						ELEKTRIFIKATUTA					
	2010		2011		2012		2010		2011		2012	
	Oro-tara	Bide bak.	Orotara	Bide bak.	Oro-tara	Bide bak.	Orotara	Bide bakarra	Orotara	Bide bakarra	Orotara	Bide bakarra
OROTARA	47,98	47,98	47,98	47,98	42,3	42,3	592,89	252,00	597,54	248,07	607,11	239,98
ADIF (bide zabal.)	0	0	0	0	0	0	304,5	86,80	305,0	87,0	304,0	86,8
FEVE	42,30	42,30	42,30	42,30	42,2	42,3	45,91	20,71	46,12	20,71	46,12	20,71
EUSKO TREN	5,68	5,68	5,68	5,68	0	0	242,29	144,49	246,42	140,36	256,99	132,47

Iturria: 2013. urtean argitaratutako Sustapen Ministerioaren 2012ko urtekaria.

Geltoki intermodal bakarra dago EAEn, Arabako Judizekoa, RENFErena eta Baionatik hurbil dagoen Baiona-Mugerreko pleiteko Europako zentroarekin lehian ari dena Europa trafikoa bereganatzeko. 20 Ha ditu, gehi erreserbako lurren 50 Ha, baita trenbideko loturak eta autopistako sarbideak ere.

I.4.5. KOADROA. EUSKOTREN ETA BILBOKO METROREN BIDAIAK

	2009	2010	2011	2012	2011-12
Eusko Tren, orotara	24.638.334	26.518.183	26.494.162	25.695.379	-3,0
Bizkaia	9.263.776	9.047.821	8.766.677	8.528.568	-2,7
--Deustu - Lezama	2.072.941	1.915.064	1.811.246	1.745.190	-3,6
--Bilbo - Bermeo	2.003.722	1.949.492	1.775.738	1.644.402	-7,4
--Bilbo - Ermua	2.209.681	2.158.413	2.019.590	1.899.375	-6,0
--Larreinetako funikularra	177.980	175.244	161.260	155.919	-3,3
--Bilboko tranbia	2.799.452	2.849.608	2.998.843	3.083.682	2,8
Gipuzkoa	10.685.276	10.492.521	10.301.839	9.890.846	-4,0
--Ermua - Amara	3.872.618	3.863.239	3.758.281	3.538.367	-5,9
--Lasarte Oria - Hendaia	6.775.308	6.592.487	6.511.908	6.352.479	-2,4
--Azpeitia - Lasao lurrin trena	37.350	36.795	31.650	7.275.965	-2,0
Araba	4.689.282	6.977.841	7.425.646	7.275.965	-2,0
--Gasteizko tranbia	4.689.282	6.977.841	7.425.646	7.275.965	-2,0
Bilboko metroa	87.043.712	88.566.281	89.616.398	87.615.087	-2,2

Iturria: EUSTAT

Bidaiarien trenbideko garraioari dagokionez, Metro Bilbaori eta Euskotreni buruzko datuak besterik ez ditugu. Horietan antzeman da Metro Bilbaok garraiatutako bidaiarien kopurua jaitsi egin dela %2,2 2011 eta 2012 bitartean, eta 87,6 milioikoa dela. Bestalde, Euskotrenek garraiatutako bidaiarien kopurua %3 jaitsi da 2011 eta 2012 bitartean.

Aireko garraioari dagokionez, esan behar dugu EAEko hiru aireportuetatik, guztira, 4,03 milioi bidaiari igaro zirela 2013an, hots, %9,2ko jaitsiera 2012. urtearen aldean. Salgaien trafikoan, berriz, %8,4 egin zuen gora salgaien bolumenak aldi berean.

Bilboko aireportutik, guztira, 3,8 milioi bidaiari igaro zirela 2013an, hots, %9,1eko jaitsiera 2012. urtearen aldean. Salgaien trafikoan, berriz, %12,1 egin zuen gora salgaien bolumenak aldi berean.

Forondako aireportuak %7,7ko gorakada izan zuen 2012 eta 2013 bitartean, salgaien garraioari dagokionez. Bidaiarien aldetik, berriz, %70,8 egin zuen behera trafikoaren bolumenak.

Donostiako aireportuan, 2012 eta 2013 bitartean, bidaiarien trafikoa %5,1 jaitsi zen eta salgaiena, aldiz, %44,4.

1.4.6. KOADROA. AIRETIKO TRAFIKOAREN BILAKAERA KONTZEPTU, EREMU ETA AIREPORTUKA

	EAE		Gasteiz		Bilbo		Donostia		2012-2013ko aldakuntzak			
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	EAE	Gasteiz	Bilbo	Donostia
Guztira aireontziak	56.057	47.950	5.486	5.086	44.448	38.593	6.123	4.271	-14,5	-7,3	-13,2	-30,2
Guztira bidaiariak (mila)	4.440	4.032	24	7	4.162	3.784	254	241	-9,2	-70,8	-9,1	-5,1
Naziokoa	2.996	2.543	14	2	2.729	2.301	253	240	-15,1	-85,7	-15,7	-5,1
Nazioartekoa	1.443	1.489	10	5	1.433	1.483	0	1	3,2	-50,0	3,5	
Guztira salgaiak (Tm.)	15.499	16.779	13.201	14.223	2.262	2.536	36	20	8,3	7,7	12,1	-44,4
Naziokoa	4.819	5.124	2.994	3.332	1.790	1.772	35	20	6,3	11,3	-1,0	-42,9
Nazioartekoa	10.681	11.655	10.207	10.891	473	764	1	0	9,1	6,7	61,5	-100,0

Iturria: Sustapen Ministerioa eta EUSTAT

Itsas garraioari dagokionez, 2012 eta 2013 bitartean, portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) %1,9 hazi zen Bilboko Portuan, eta guztira 30 milioi Tm izan ziren. Horietatik 20 milioi ontziratatu gabe ziren, eta azken horietatik %78 (15,8 milioi Tm) likidoak ziren. Bestela esanda, garraiatutako salgaien %52,4 ontziratatu gabeko likidoak dira, gehienbat petrolioaren produktuak.

1.4.7. KOADROA. ONTZIAK, BIDAIRIAK ETA ITSASOKO GARRAIOAK MUGITUTAKO SALGAIAK, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA

		2008	2009	2010	2011	2012	2013	%	% aldak. 2012-13
Bilbo	Portuko trafikoa, guztira (mila Tm.)	39.398	32.180	34.666	31.998	29.507	30.073	100	1,9
	Likido solteak	23.057	20.498	19.763	17.855	15.061	15.761	52,4	4,6
	Solido solteak	5.267	3.828	4.452	4.006	4.262	4.422	14,7	3,8
	Edukiontzia	6.139	4.757	5.696	6.081	6.393	6.335	21,1	-0,9
	Salgai konbentzionalak	3.518	2.522	3.750	3.789	3.238	3.085	10,3	-4,7
	Bestelako trafikoa*	1.418	576	1.005	274	553	470	1,6	-15,0
	Guztira ontziak (kopurua)	3.585	3.042	3.240	2.992	2.808	2.789		-0,7
Guztira bidaiariak (kopurua)	179.572	166.104	165.024	151.421	142.754	141.979		-0,5	
Pasaia	Guztira portuko trafikoa (mila Tm.)	4.778	3.519	3.896	3.252	3.094	2.955	100	-4,5
	Likido solteak	0	0	0	0	0	0	0,0	
	Solido solteak	2.353	1.658	1.657	1.247	1.420	1.212	41,0	-14,6
	Edukiontzia	0,4	0,0	295	0,1	0	0	0,0	
	Salgai konbentzionalak	2.372	1.810	2.181	1.949	1.622	1.694	57,3	4,4
	Bestelako trafikoa	53	51	58	56	52	50	1,7	-3,8
	Guztira ontziak (kopurua)	1.320	943	1.086	963	895	879		-1,8
Bidaiariak guztira (kopurua)	0	0	0	0	0	0			

* Hornidura eta arrantza.

Iturria: Sustapen Ministerioa eta EUSTAT

Ontzien kopurua jaitsi egin da 2013. urtean (%-0,7), eta 2.789 erregistratu ziren. Bidaiarien kopurua ere jaitsi egin da %0,5 jaitsi ere, eta 141.979 izan dira guztira.

Pasaiaiko Portuko kopuruak askoz ere murrizagoak dira. Salgaien portuko trafikoa %4,5 egin du behera, eta 2011n hasitako joerari eusten dio: 3 milioi Tm, eta jaitsi egin da horniduren eta arrantzaren trafikoa eta ontziratu gabeko solidoena, baina ez salgia konbentzionalena

Bestalde, ontzien kopurua txikitu egin da 2012 eta 2013 bitartean, eta 879 daude.

4.2 ENERGIA: EKOIZPENA ETA KONTSUMOA


Inportatutako energiaren eraldaketa EAren jardura ekonomikoaren barruan pisu adierazgarria duen industria da, petrolio finitza eta energia elektrikoa sortzeko sektoreekin batera. Aldi berean, azken urteetan gas eta elektrizitateko azpiegitura berriek izandako sarrerak energiaren euskal eskaintzaren kalitatea indartzeko joera du.

Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoa. Energia eskaria edo barne kontsumo osoa, funtsean, lurraldean bertan sortutako lehen mailako energia gehi inportazioen, esportazioen eta galeren (garraioagatik, biltegiatzeagatik, banaketagatik...) arteko orekaren berdina da. Amaierako kontsumoa amaierako kontsumitzaileen sektoreetako kontsumoen batura da, hau da, industriaren, garraioaren, lehen sektorearen, zerbitzuen eta egoitzen kontsumoaren batura.


Energiaren Euskal Erakundeak 2012an argitaratu "Euskadi Energia 2013. Datu energetikoak" txostenak erakutsi zuenez, energiaren barne-kontsumo gordinak edo eskariak (alegia, ekoiztako energia gehi energia inportatua ken esportatua), 90etako amaieratik 2008 arte goranzko joera izan du, euskal ekonomiak izandako bizkortzearen ondorioz. Ondoren kontsumo hori moteldu egin zen, krisi ekonomikoko prozesuaren ondorioz eta, 2011 eta 2012 artean zehazki, %1 jaitsi da eta 6.550 Ktep-ekoa izan da.

Bestalde, goranzko joera izan du energiaren amaierako kontsumoak 2008ko krisira arte. Ondoren kontsumoak gora egin zuen, eta berriz jaitsi da 2011 eta 2012 artean, zehazki %4,2, 5.132 Ktep-eraino. Amaierako kontsumorik handieneko sektoreak industria (guztizkoaren %42,3) eta garraioa (%35,5) dira; baina murrizketa gertatu da industri kontsumoaren beherakadagatik (%-6,7), zeren eta gainerako sektoreetan amaierako kontsumoa hazi egin baita: egoitza sektorea (%+3,3), zerbitzuak (%+1,3), nekazaritza eta arrantza (%+1,4) eta garraioa (%+4,8).

I.4.1. GRAFIKOA. BARNE KONTSUMO GORDINA ETA AMAIERAKO ENERGIA KONTSUMOA



I.4.2. GRAFIKOA. LEHEN MAILAKO ENERGIAREN EKOIZPENA (KTEP)



Halaber, 2011 eta 2012 artean lehen mailako energiaren ekoizpena 3,9 murriztu da, 380,2 Ktep-etik 365,5era; eta ekoizpen hori, batez ere, energia berriztagarrietan oinarritu da (norberaren iturri nagusia). Energia horiek, bestalde, %2,6 murriztu dira (369 Ktep-etik 359,5era).

Lehen mailako energiako norberaren (365,5 Ktep) produkzio eskas horrek EAEko energia eskariaren (barne kontsumo gordina) %5,8 asetzea bakarrik ahalbidetzen du (6.642 Ktep). Ondorioz, EAeren kanpoko energiarekiko mendetasuna %94,5aren ingurukoa da, Estatukoa baino handiagoa (%76,4), 2011n, eta EB27koaren gainetik (% 53,8). Aldi berean, iturri berriztagarrietan oinarrituriko ekoizpenaren bidez (359,5 Ktep), amaierako kontsumoaren %7 baino ezin bete daiteke, hots, energia berriztagarriek amaierako kontsumoan duten partaidetza ratioa EB-27koa baino askoz txikiagoa da (%10 2011n) eta gure Erkidegoak Euskadi 2020 Energia Estrategian (3E2020) ezarritako %14ko helburutik oso urruti³⁵.

I.4.8. KOADROA. EAeren ENERGIA BALANTZEA

	2012							2011-2012 aldakun.						
	Erregai solidoak	Petrolio eta deribatuak	Gas naturala	Energia deribatuak	Energia berriztagarriak	Argindarra	Orotara	Erregai solidoak	Petrolio eta deribatuak	Gas naturala	Energia deribatuak	Energia berriztagarriak	Argindarra	Orotara
Lehen mailako energiaren produkzioa	0,0	0,0	0,0	6,0	359,5	0,0	365,5	0,0			-46,9	-2,6		-3,9
Barne kontsumo osoa eskuragarri (eskaria)	326,1	2574,0	2640,7	6,0	455,5	640,5	6642,8	117,7	0,9	4,4	-46,9	-1,4	-25,3	1,4
Transformazio sarrerak	329,1	7669,3	1101,7	6,0	89,7	0,0	9195,8	82,4	-18,3	10,5	-46,9	5,5		-13,8
Transformazio irteerak	62,5	7459,9	0,0	0,5	0,0	742,7	8265,6	-39,5	-18,6		0,0		16,1	-16,6
Energiaren amaierako kontsumoa	51,4	2016,9	1444,6	0,5	302,5	1316,5	5132,4	-13,2	4,2	0,0	0,0	-5,0	-7,2	-0,9
Industria	51,4	139,6	1069,5	0,0	160,7	748,0	2169,2	-13,2	-4,2	-1,6		-12,6	-11,9	-6,7
Garraioa	0,0	1703,4	0,0	0,0	104,2	14,8	1822,4	0,0	5,0			3,1	-5,1	4,8
Nekazaritza eta arrantza	0,0	75,9	1,6	0,5	0,3	4,3	82,5	0,0	2,7	-36,0	0,0		-4,4	1,4
Zerbitzuak	0,0	22,9	128,4	0,0	2,6	303,2	457,1	0,0	2,7	5,0		-13,3	-0,1	1,3
Egoitza	0,0	75,1	245,1	0,0	34,8	246,2	601,3	0,0	4,7	5,0		13,7	0,0	3,3


Iturria: EEE. ENERGIA 2012

Izan ere, energia motaren araberako amaierako kontsumoari dagokionez –oso interesgarria bera ingurumenaren ikuspegitik, energia mota bakoitzak inpaktu ezberdina daukalako– ikus daiteke petrolio eta hartatik eratorritakoak direla oraindik ere kontsumo horren zati handiena, %39,3. Edonola ere, Ktep murriztapena eduki dute aurreko urtearen aldean, %4,2 hain zuzen ere. Garrantziaren aldetik atzetik ditu gas naturala (kontsumoaren %28,1 da eta aldaketarik izan gabe Ktep terminoetan) eta argindarra (eskariaren % 25,7 da eta %7,2 jaitzi da aurreko

Iturria: EEE

urtearen aldean). Oso urruti daude energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatz eta deribatuak) eta energia deribatuak (gehienbat industri prozesuetatik edo energiaren transformaziotik berreskuratutako beroa barne, baterako

I.4.3. GRAFIKOA. ENERGIAREN INTENSITATEAREN BILAKAERA




³⁵ Gogoratu behar dugu Europako Estrategia 2020an EBrako helburua %20 dela.

sorkuntzatik adibidez). Adibidez, energiaren intentsitatearen azterketak, ekonomiaren energia eraginkortasunaren adierazlea denak eta BPGaren unitateko amaierako kontsumoa neurtzen duenak, agerian uzten du BPGaren unitate hor, 2012n, 2005ekoaren %91 dela, eta aurreko urtekoa baino ehuneko bat hobe.

Sektoreka banatuta, industriako energi intentsitatea ehuneko 6 puntu hobetu da 2012an, zeren eta energiaren kontsumoaren igoera askoz handiagoa izan baita industriaren BPGean galdutako puntua baino. Garraio eta zerbitzuen sektorearena, berriz, 5,7 eta 2,3 okertu da, hurrenez hurren.

II. KAPITULUA

EAEko ekonomia



1. KANPOKO EKONOMI INGURUA

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK¹

Munduko ekonomiak hazkunde erritmo txikian jarraitu zuen 2013. urtean, eta banaketa heterogeneoa izan da gune ekonomikoen artean. Izan ere, oraindik hauskorra da susperraldia, eta badirau finantzen arloko ezegonkortasunak.

Hazkundearen dinamika egonkortuz joan zen 2013an; are gehiago, finkatu egin zen bigarren seihilekoan ekonomia aurreratu gehienetan. Ekonomia horietan finkatu da, besteak beste, ekonomia egonkortzeko moneta politikengatik, zerga karga txikiagoagatik eta inflazio murriztagatik.

Bestalde, goranzko herrialdeetako ekonomiak, dinamismo handiagorako aurreikuspenen kontra, berriz ere moteldu ziren 2012ko amaieran hazi ondoren.

Hala, urte osoan eta 2012ko datuen aldean, NMFren zenbatespenen arabera, %3 hazi zen munduko BPGd haztatua, erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera. 2012an, berriz, %3,2 izan zen.

Ekonomia aurreratuek % 1,3ko gorakada izan zuten: AEBko BPGd-a % 1,9 (%2,8 2012. urtean) eta Japoniakoa % 1,5 handitu ziren (%1,4 2012an), eta Euroaren Eremua, aldiz, % 0,5 jaitzi zen. (-%0,7 2012an).

Bestalde, goranzko ekonomien eta garatzeko bidean diren ekonomien hazkunde tasa %4,7aren ingurukoa da. Aurreko urtean, berriz, %5ekoa izan zen. Brasilek %2,3ko hazkundea izan zuen, aurreko epealdian %1 txikiaren ondotik; eta Txina eta India %7,7 eta %4,4 hazi ziren, hurrenez hurren; hots, portzentaje horrek ez du aldakuntzarik Txinaren kasuan, eta txikiagoa da Indian (%4,7 2012. urtean).

Munduko merkataritzak gorako joerarekin jarraitu zuen 2012ko bigarren erdialdean izandako maila txikien ondotik, baina hiruhilekoaren hazkunde txikia eta hegazkorra izan zuen ezaugarri nagusi. Haren hazkundea, kopuru errealetan, 2012an izandakoa baino pixka bat handiagoa izan zen: %3 (%2,8 aurreko urtean).

II.1.1. KOADROA. ALDAGAI EKONOMIKO NAGUSIEN AURKIBIDEA

	2012	2013
BPGd-a (urteko portzentajezko aldakuntza)		
Mundua	3,2	3,0
Ekonomia aurreratuak (1)	1,4	1,3
AEB	2,8	1,9
Japonia	1,4	1,5
Eurogunea (Letonia barik)	-0,7	-0,5
Beste ekonomia aurreratu batzuk (G7 eta eurogunea izan ezik, baina Letonia barne)	5,0	4,7
Goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak	5,0	4,7
Amerika Latinoa eta Karibea	3,1	2,7
Brasil	1,0	2,3
Mexiko	3,9	1,1
Estatu Independenteen Komunitatea	3,4	2,1
Errusia	3,4	1,3
Errusia alde batera utzita	3,3	3,9
Asiako goranzko ek. eta garatzeko bideak daudenak	6,7	6,5
Txina	7,7	7,7
India	4,7	4,4
ASEAN (Indonesia, Thailandia, Filipinak, Malaysia eta Vietnam)	6,2	5,2
Europako goranzko ekonomiak eta garatzeko bideak daudenak	1,4	2,8
Ekialde Erdia, Afrikako Iparraldea, Afganistan eta Pakistan	4,2	2,4
Afrika azpisahararra		
Hegoafrika		
Ondasunen eta zerbitzuen munduko merkataritza (Ondasunen eta zerbitzuen munduko esportazioen eta inportazioen urteko aldakuntzaren %ren batez b.)	2,8	3,0
Kontsumoko prezioak (urteko %-en aldakuntza)		
Ekonomia aurreratuak	2,0	1,4
Goranzkoa ekonomiak eta garatzeko bideak daudenak	6,0	5,8
North Sea Brent petrol. prezioa (\$/upel, urteko b.b.)	111,7	108,7
Lehengaien prezioak () (2005eko indizea = 100)		
Elikagaiak	209,9	183,2
Industria-gaiak (ez metalak)	166,0	151,3
Industria-gaiak (metalak)	150,8	136,3
Esku-hartzearen interes-tasa (aldiaren amaieran)		
EDB	0,75	0,25
AEB funts federalen tasa objektiboa	0,25	0,25
Japonia – Call Money (2)	0,10	0,10
Euroaren truke-tasa (moneta unit. €-ren arabera)		
Dolarrak euroaren arabera	1,286	1,328
Libera esterlina euroaren arabera	0,811	0,849
Yen japoniarra euroaren arabera	102,62	129,66
Burtsa: kotizazio-indizea (abendutik abendurako portzentajezko aldakuntza)		
Dow Jones (New York)	7,3	26,5
Nikkei	22,9	56,7
Euro Stoxx zabala	15,5	20,5
Ibex 35	-4,6	21,4

(1) Ekonomia aurreratuak: AEB, Kanada Japonia, eurogunea, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Zipre, berriki industrializatu diren Asiako ekonomiak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Berriki industrializatu diren Asiako ekonomiak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong, Singapur. (2) Bermerik gabeko maileguen egun baterako interes-tasa. Iturria: NDF "Munduko ekonomiaren perspektibak" (2014ko apirila) eta Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa "Adierazle ekonomikoen sintesia. Taula eta grafikoak, 2014ko otsaila"

¹ Epigrafe honetan agertzen den informazioa hainbat iturritatik dator: Nazioarteko Moneta Funtsa, Europako Banku Zentralea, Espainiako Bankua eta Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioa.

Prezioen bilakaerari dagokionez, 2013an jarraitu egin zuen 2011n munduko inflazioan ikusitako igoera txikiak, baina ezkutuan utzi zituen herrialde batzuen eta besteen arteko jokabide desberdinak. Ogasun eta Herri Administrazioak 2012 eta 2013 bitartean argitaraturiko "Adierazle Ekonomikoen Laburpena. Taulak eta Grafikoak" izeneko txostenaren arabera, Brent upelaren batez besteko prezioa %2,3 murriztu zen, 111,7 7 \$/upeletik 108,7 \$/upelera. Bestalde, energiakoak ez diren lehengaien prezioek ere behera egin dute, elikagaienak nahiz industri produktuenak (dela metalezkoak, dela metalezkoak ez direnak).

Finantzen eta monetaren inguruko baldintzak hobetuz joan ziren 2012ko udatik, eta egonkortu egin ziren 2013. urteak aurrera egin ahala, urtean zehar garaturiko ekonomietan izandako bilakaera positiboaren aurrean.

Europako Banku Zentralak urtebeterako esku-hartzearen tasa jaitsi zuen euro gunean bi aldiz, maiatzean (%0,5ean utzita) eta azaroan (%0,25ean).

Diru merkatuko interes-tasei dagokionez, horiek areagotu egin ziren epe guztietan, urtebeterakoak izan ezik. Horrela, hilabete bateko Euriborra % 0,12 izan zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta % 0,16an amaitu zen laugarrenean. Hiru hilabeteko Euriborra % 0,21etik % 0,24ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean; sei hilabeteko Euriborra %0,34tik %0,36ra igaro zen, eta urtebeterakoak % 0,57an hasi zuen urtea eta % 0,53an amaitu.

Horrez gain, AEBko Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak 2013an beren eskuhartze-tasei eutsi zieten, 2011 eta 2012aren amaieran bezala: lehenengoak % 0,25eko tasa zuen, eta bigarrenak, berriz, % 0,1ekoa.

Azkenik, truke eta burtsa merkatuei dagokionez, dibisen merkaturan AEBko dolarraren benetako truke-tasa errealak tokia galdu zuen eta, ondorioz, euroak balio pixka bat irabazi zuen. Halaber, Europako dibisak balioa galdu zuen, libera esterlinaren eta yenaren aldean.

Munduko burtsaren merkatuetan, IBEX 35ek urte arteko %21,4ko hazkundea izan zuen (2013ko abenduan 2013ko abenduarekiko), aurreko urteko %14,6aren aurrean; Nikkei %56,7 hazi zen noiz-eta 2012an %22,8 igo zenean; Dow Jonesek %26,5 egin zuen gora (+%7,2 2012. urtean); Euro Stoxx zabala, berriz, %20,5 hazi zen (%15,5 aurreko urtean).

1.2. EKONOMIAREN BILAKAERA GUNEEN ARABERA²

Ameriketako Estatu Batuak.

Urteko batez besteko hazkunde errealak %1,9koa izan zen, 2012ko %2,8koa baino txikiagoa, baina PBGD-aren hazkundearen tasa %3,3koa izan zen urtean batez beste 2013ko bigarren seiuhilekoan; lehen seiuhilekoan, berriz, %1,2koa izan zen.

Barneko eskari pribatuaren etengabeko igoerak, neurri handi batean, finkapen fiskalaren ahalegin handia konpentsatu zuen; izan ere, %1,25 eta %1,5 bitarteko balioa kendu zion PBGD-aren hazkundeari.

Etxebizitzaren eta akzioen prezio altuagoek bultzatu zuten kontsumoa, baita familiek sarrera eskuragarriarekiko duten zorra etengabe murrizteak ere. Horren ondorioz, familien ondare garbia handitu zen. Inbentarioen metaketaren erritmo azkarragoak eta esportazioen hazkunde sendoa ere (bereziki petrolioaren produktuenak) lagungarriak izan ziren jarduera iraunkorrerako 2013ko bigarren seiuhilekoan.

Langabezi tasak beherantz jarraitu zuen 2013an, eta %7,4an kokatu zen. Alabaina, murrizpen honen atzean dagoen faktore garrantzitsua partaidetza-tasaren kontratazioa berria izan zen lan-merkatuan.

² *Idem.*

Prezioen presio txikietan eta kontsumitzailearentzako prezioen indizearen inflazioaren maila orokorrean (%1,5koa, 2012an %2,1koa izan ondoren) islatu da ekonomian erabili gabeko ahalmena .

Kontu korronteko defizita BPGd-aren %2,3 murriztu zen 2013an, 15 urteko mailarik txikiena. Neurri handi batean energiaren barneko produkzioaren gehikuntzari eta petrolioaren inportazioen etengabeko gutxipenari esker.

Plan fiskal orekatua, mailakatu eta sinesgarria da oraindik ere politikaren arloko lehentasun nagusia, zor publikoa beheranzko ibilbide sendoan bideratuko duena. Plan horren barruan, hauek sartuko lirateke: gizarte prestazioen gastua mailaka kontrolatzeko neurriak, sarrerak erakartzeko zergen erreforma eta aurrekontuko gastuaren murrizketa automatikoen ordeztu ondorio diferitua duten nahitaezko sarrera berriak eta aurrezpenak ezartzea. Bi alderdien aurrekontuen gaineko legea urrats txikia da norabide horretan.

Europako ekonomia aurreratua

Nazioko eta nazioarteko erakunde ofizialek argitaraturiko dokumentuetan adierazten denez, eurogunea atzeralditik irten da. Jarduera, kopuru errealean, %0,5 murriztu zen 2013an, baina bigarren seihilekotik hasita eta produktua gutxitu deneko aldi luzearen ondoren, hazkunde positiboa izan da.

NMFren arabera, susperraldia gertatu da neurri batean zergen presio txikiagoatik eta lehen aldiz 2010etik izandako barneko eskari pribatuaren nolabaiteko dinamismoagatik. Alabaina, susperraldia desberdina da herrialdeen eta sektoreen artean:

- Hazkunderik handieneko guneein batera (Alemanian esaterako), ez aurrera ez atzera edo beherako joeran dauden BPGd-ak dauzkaten herrialdeak daude. Hazkunderen eragile nagusia esportazioak dira orain ere, baina barneko eskaria igotzen hasia dela antzematen da (esaterako, Frantzia eta Espainian, eta bereziki Alemanian). Alabaina, euro gune osoan eskari pribatua oraindik ez da indartsu suspertu.
- Kontu korronteko saldoak asimetrikoki hobetu dira; superabitek diraute guneko zenbait ekonomietan, eta beheranzko kanpoko saldoak daude defizita duten ekonomietan.
- Erabili gabe dagoen ahalmen handiak eta iraunkorrak inflazio tasen igoera txikia eragin dute; izan ere, EBZak helburutzat ezarritako mailaren azpitik zeuden orduan ere.
- Tirabiren menpe dauden zenbait estatutan, geldotze-tasa handiei eta kredituaren murrizpenari egin behar die aurre sektore pribatuak.
- Zenbait herrialdeetako erreforma garrantzitsuak gorabehera, epe luzeagoko kezkek badiraute oraindik ere produktibitatearen eta lehiakortasunaren inguruan.

Finantzen merkatuari dagokionez, hasi berria den hazkundeak eta muturreko arriskuen murrizpen nabarmenak ekonomiaren dinamizazioa ahalbidetu zuten; diferentzia subiranoak trinkotu dira nabarmen tirabiren menpeko ekonomietan, baina diferentzian igoera txikiagoa izan da merkatuetan berriki izandako hegazkortasuna dela medio.

Ondorio gisa esan daiteke egiteke dagoela krisiak utzitako ondorioak lantzeko ataza (langabezi tasa handia, kontsumoa murrizteko etengabeko joera, balantza pribatu eta publiko ahulak, kredituaren murrizpena eta zorraren zama astuna), baita hazkundeak epe luzeagoko dituen oztopoak ere. Horrek guztiak kezka pizten du susperraldiaren sendotasunaz eta iraunkortasunaz.

Japonia.

2013ko urte osoan, %1,5 hazi zen ekoizpena, 2012ko %1,4koa baino pixka bat handiagoa.

Barneko eskariaren eskutik etorri zen jardueraren aurrerapena, zeren eta inportazioek esportazioekiko izan zuten hazkunde handiagoak beste zama bat ekarri baitzuen kanpoko sektorean.

Bestalde, deflaziorako arriskua desagertuz doala dirudi. Monetaren zabalkuntza fruituak ematen hasi dela dirudi prezioen arloan.

Bestalde, lan-merkatuan ere izan du oihartzuna egoera ekonomiko hobek, eta langabezi tasa %3,7raino jaitsi zen abenduan, langabezi tasarik txikiena 2007ko amaieratik eta ELGA osoko txikiena, Koreako %3koaren atzetik.

Europako goranzko ekonomiak.

Kanpoko eskariak bultzatu izan zuen 2013an ere susperraldia, Turkian eta Baltikoko herrialdeetan izan ezik, non kontsumo pribatua izan baitzen hazkundearen eragilea.

Alabaina, hasierako hobekuntzaren ondotik, hazkundera moteldu egin zen 2013ko bigarren seihilekoan, zeren eta, eskualde horretan (Turkian izan ezik) kapital kopuru handiak kanpora atera baitira.

Oro har esan daiteke beheranzko arrisku handiak dakartzatela euro gunearen ahuleziek, barneko politikak nolabait zorrozteak, finantzen merkatuen gero eta hegazkortasun handiagoak eta Ukrainako gertaeren ondoriozko arrisku geopolitikoak areagotzeak.

Asiako goranzko ekonomiak.

Asiako hazkundera areagotu egin zen 2013ko bigarren seihilekoan, ekonomia aurreratuetarako esportazioen susperraldiari (bereziki Estatu Batuetara eta euro gunera) eta barneko eskari sendoari esker.

Alabaina, Txina %7,7 hazi zen 2013an kopuru errealean, gobernua ezarritako helburua baino %0,2 gehiago; ehuneko horrek ez du aldakuntzarik 2012koarekiko, eta azken 14ko urteko txikiena da berriz ere. Izan ere, oraindik ez dute eman espero zen emaitzarik Txinako gobernua eredu ekonomikoa aldatzeko ahaleginek, hots, esportazioetan eta inbertsioan oinarrituriko eredutik kontsumo pribatuan oinarrituriko ekonomiara. Bilakaera hori gertatu da barneko eskariaren ahuleziagatik, baita inbertsioaren hedapen txikiagatik eta esportazioen erritmo txikiagatik ere.

Bestalde, Indian %4,4ko hazkunde erreala izan zen, hots, 2012ko %4,7ko ratioa baino txikiagoa.

Estatu Independenteen Erkidegoa (EIK)³.

EIKren hazkundera oraindik txikia da kontsumo dinamikoa bada ere, inbertsio ahulengatik, tirabira politikoengatik eta politiken inguruko ziurgabetasunagatik zenbait kasutan. Tirabira geopolitikoak kezka sortzen ari dira eskualdean.

Kaukason eta Erdiko Asian (KEA), berriz, hazkunde handia izan zen.

Amerika Latinoa eta Karibea (ALK).

Amerika Latinoaren eta Karibearen eskualde osoko jardura ekonomikoaren jardura nahikoa motela izan zen 2013an. Urte osoko hazkundera 2013an, zenbatespenen arabera, %2,25ekoa izan ze, hots, aurreko urteetan ikusitako tasak baino nabarmen txikiagoak.

Inbertsio urriak eta esportazioen eskari txikiak jardura geldiarazi zuten, eta gauza bera egin zuten zenbait ekonomiatan gero eta murriztaileagoak diren neurriek ere.

Politika ekonomiko sendoak dituzten herrialdeetan, oro har, ez zuten horrenbesteko eragina izan 2013ko erdialdean merkatuan izandako presioek. Hala ere, dibisen, akzioen eta bonoen merkatu gehienetako jardura aurreko urteetako mailen azpitik egon zen Amerika Latino eta Karibe osoan, hain zuzen ere kanpoko baldintza murriztaileagoengatik eta epe ertainerako aurreikuspenen ebaluazio berriagatik.

³ Herrialde hauek osaturiko nazioz gairik erakundeak: SESBko ohiko 15 errepubliketatiko 10ek (Baltikoko hiru estatuak izan ezik: Estonia, Letonia eta Lituania), Turkmenistanek eta Georgiak

Afrika azpisahararra.

Afrika azpisahararraren hazkundera %4,8koa izan zen 2013an, hots, ia aldaketarik gabe 2012koarekiko (%4,9), nekazaritza produkzio hobean eta baliabide naturaletako eta azpiegiturako inbertsioan oinarrituta.

Hazkunde handia izan zen, batik bat sarrera txikiko herrialdeetan. Nigerian, iparraldeko segurtasun arazoak eta 2013ko lehen seihilekoan izandako petrolio-lapurreta handiak gorabehera, hazkunde indartsua izateari eutsi zitzaion petrolioaren prezioen maila nahikoa handiari esker. Hegoafrikako hazkunderak, aldiz, beheranzko joeran jarraitu zuen, meatzaritzaren sektoreko industri harreman tirabiratsuen ondoriozko murrizpenak, argindarraren hornidura urria, inbertsio pribatu ahula eta kontsumitzaileen eta inbestitzaileen arteko konfiantza txikia direla medio.

Inflazioak beheranzko joerari eutsi zion, salbuespen gutxi batzuekin.

II.1.2. KOADROA. BPGd ERREALA, KONTSUMITZAILEARENTZAKO PREZIOAK ETA KONTU KORRONTEKO SALDOAK (NDF)							
	BPGd errealearen urteko portzentajeazko aldakuntza		KPIren urteko portzentajeazko aldakuntza		Kontu korronteko saldoa BPGd-aren % gisa		Langabezi tasa 2013
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	
Ekonomia aurreratuak	1,4	1,3	2,0	1,4	-0,1	0,4	7,9
AEB	2,8	1,9	2,1	1,5	-2,7	-2,3	7,4
Eurogunea	-0,7	-0,5	2,5	1,3	2,0	2,9	12,1
Japonia	1,4	1,5	0,0	0,4	1,0	0,7	4,0
Goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak	5,0	4,7	6,0	5,8			-
Asian garatzeko bidean dauden ekonomiak	6,7	6,5	4,6	4,5	0,8	1,1	
Txina	7,7	7,7	2,6	2,6	2,3	2,1	4,1
India	4,7	4,4	10,2	9,5	-4,7	-2,0	-
Amerika Latinoa eta Karibea	3,1	2,7	5,9	6,8	-1,9	-2,7	
Argentina	1,9	4,3	10,0	10,6	-0,1	-0,9	7,1
Brasil	1,0	2,3	5,4	6,2	-2,4	-3,6	5,4
Mexiko	3,9	1,1	4,1	3,8	-1,2	-1,8	4,9
Hego Amerika	-	3,2	-	8,1	-	-2,7	-
Erdiko Amerika	-	4,0	-	4,2	-	-6,9	-
Karibea	-	2,8	-	5,0	-	-3,7	-
Europako goranzko ekonomiak (Erdiko eta Ekialdeko Europa)	1,4	2,8	5,8	4,1	-4,5	-3,9	-
Turkia	2,2	4,3	8,9	7,5	-6,2	-7,9	9,7
Polonia	1,9	1,6	3,7	0,9	-3,5	-1,8	10,3
Errumania	0,7	3,5	3,3	4,0	-4,4	-1,1	7,3
Estatu Independenteen Erkidegoa (12 herrialde + 1)	3,4	2,1	6,5	6,4	2,6	0,7	-
Errusia	3,4	1,3	5,1	6,8	3,6	1,6	5,5
Energia esportatzaile garbiak (Errusia alde batera utzita)	-	6,8	-	6,4	-	3,6	-
Energia inportatzaile garbiak	-	1,2	-	4,9	-	-8,9	-
Afrika azpisahararra	4,9	4,8	9,0	6,3	-2,7	-3,6	-
Petrolio esportatzaileak	-	5,8	-	7,4	-	3,9	-
Sarrera ertaineko ekonomiak	-	3,0	-	5,8	-	-5,7	-
Sarrera txikiko ekonomiak	-	6,5	-	6,0	-	-11,8	-
Ekialde Ertaina eta Ipar Afrika	4,1	2,2	10,5	10,5	-	10,3	-
Petrolio esportatzaileak	-	2,0	-	11,3	-	14,1	-
Petrolio inportatzaileak	-	2,7	-	7,9	--	-6,4	-

Ekonomia aurreratuak (34 herrialde): AEB, Kanada, Japonia, Euroaren Eremua, Erresuma Batua, Australia, Danimarka, Israel, Islandia, Suedia, Norvegia, Zeelanda B., Suitza eta Asiako ekonomia industrializatu berriak. Estatu Independenteen Erkidegoa (12 herrialde + 1). Sobietar errepublika ohiak, 13 Mongolia sartuz gero
Iturria: NDF "Munduko ekonomiaren aurreikuspenak" (2014ko apirila)

Hegoafrikako eta zenbait merkatu-ekonomiatako monetak egonkortu egin ziren munduko monetaren inguruko baldintza zorrotzagoengatik eta, zenbait kasutan, kanpoko saldo baxuengatik edo fiskalengatik (Ghana, Nigeria, Hegoafrika, Zambia).

Defizit fiskal handiak direla-eta, jaitsi egin ziren zenbait herrialdetako kreditu-kalifikazioak, eta presio handiagoa ekarri zuten errendimenduetan eta atzeratu egin zuten bono subiranoen jaulkipena zenbait herrialdetan.

Ekialde Ertaina eta Afrikako Iparraldea (EEAI)

Hazkunde txikia izan zen Ekialde Ertaineko, Afrikako Iparraldeko, Afganistango eta Pakistango (EEAIAP) eskualde osoan 2013an, non petrolioaren ekoizpen txikiagoak eta inbertsio pribatuaren hazkunde ahulak (etengabeko gatazka politikoen eta trantsizioen testuinguruan) indarrik gabe utzi baitzituzten gastu publikoaren gehikuntzak.

Konfiantza hauskorra, langabezi handia, lehiakortasun urria eta, kasu askotan, defizit publiko handiak zama handia dira, oraindik ere, eskualde horretako igurikapen ekonomikoetarako.

Produktu potentziala handitzeko eta dibertsifikatzeko eta lehiakortasuna eta susperraldirako ahalmena hobetzeko erreformak funtsezkoak dira hazkunde iraunkorra eta inklusiboa lortzeko eta enplegua sortzeko.

1.3. EUROPAR BATASUNA. EUROAREN EREMUA

Ahulezialdi luze baten ondotik, euroaren eremuko ekonomia atzeralditik atera zen 2013an barneko eskariaren susperraldiaren (moneta politika egokitzeko biderapenean eta giro ekonomikoaren eta finantza-merkatuen giroaren hobekuntzan oinarrituta) eta kanpoko eskaria indartu izanaren eraginez.

Izan ere, pixkanaka indartu zen barneko eskaria, maila txikietatik abiatu arren, enpresen eta kontsumitzaileen konfiantza handiarekin bat.

EUSTATen Ekonomi Kontuen arabera, 2013. urtea $-1,2\%$ ko aldakuntza tasarekin hasi zen lehen hiruhilekoan, eta laugarrenean, berriz, $+0,5\%$ ko tasarekin bukatu. Beraz, EAEko ekonomiak, 2013an, urte arteko $0,4\%$ ko jaitsiera izan du termino errealean. 2012. urtean, berriz, $0,6\%$ ko jaitsiera izan zen.

Europako Banku Zentralak adierazi duenez, eskariaren aldetik, jaitsi egin da kontsumo pribatua, enpleguaren bilakaera negatiboaren eraginpean, baina 2012koa baino neurri txikiagoan ($-0,7\%$ $1,4\%$ koaren aurrean); kontsumo publikoa ez da hazi, euro guneko zenbait herrialdetako finkapen fiskalerako etengabeko ahaleginengatik, baina politika fiskalaren orientazio orokorra ez da 2012an bezain murriztailea izan; eta inbertsioa, ziurgabetasun txikiagoak lagunduta, moteldu egin da finantzen sektorearen nahiz finantzakoa ez den sektorearen susperraldirako beharregatik, baita kreditu-eskaintzaren murrizpenengatik eta petrolioaren etengabe prezio altuengatik ere.

Bestalde, kanpoko merkataritza orain ere lagungarria da euro guneko BGBd-aren hazkundera 2013. urtean. Alabaina, hazkundera kanpoko eskari garbian izandako ekarpena txikiagoa izan zen 2012an baino.

Eskaintzaren aldetik, industri sektoreak, urteko $0,6\%$ ko batez besteko murrizpena izan arren 2013an (-1% koa 2012an), jaitsiera txikiagoa izan zen urtean zehar, eta laugarren hiruhilekoan aldakuntza-tasa positiboa ekarri zuen ($1,4\%$), aurreko hiruhilekoen aldakuntza negatiboaren aurrean. Eraikuntzaren produkzioak berriz ere egin zuen behera 2013an, eta ahulezialdi luzeak jarraitu egin. Hala, 2012ko $4,1\%$ ko jaitsieraren ondotik, jaitsi egin zen eraikuntzaren balio erantsia, urte arteko $3,8\%$ batez beste. Bizkitartean, zerbitzuen balio erantsia igoera txikia izan zuen 2013an, $0,1\%$ koa, 2012an egonkor eutsi izan ondoren.

$0,9\%$ egin zuen behera enpleguak 2013an, 2012ko $0,7\%$ ko murrizpenaren ondotik. Hala ere, hobetuz joan ziren inkestetako emaitzak urtean zehar. Bestalde, Langabezia-tasa, 2013 osoa kontuan hartuz, 12% koa izan zen, hau da, aurreko aldiko tasa baino 7 ehunen altuagoa.

II.1.3. KOADROA. EUROAREN EREMUKO ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK

	2012	2013	2012	2013			
			IV. hir.	I	II	III	IV
<i>Urte arteko aldakuntza-tasak(q/q-4). Serie desestazonizatuak</i>							
Merkatuko prezioetako BPGd-a	-0,6	-0,4	-1,0	-1,2	-0,6	-0,3	0,5
BARNEKO ESKARIA							
Gastua azken kontsumo pribatuan	-1,4	-0,7	-1,5	-1,4	-0,8	-0,6	0,1
Gastua azken kontsumo publikoan	-0,6	0,1	-0,8	-0,3	-0,1	0,5	0,2
KFEGd-a	-3,8	-2,9	-4,8	-5,5	-3,7	-2,5	-0,0
KANPOKO ESKARIA	1,5	0,6	1,2	0,9	0,8	0,2	0,5
Esportazioak	2,7	1,4	1,9	0,1	1,6	0,9	2,8
Inportazioak	-0,8	0,0	-0,8	-2,1	-0,2	0,4	1,9
BEGd erreala							
Nekazaritza	-4,7	-0,2	-6,6	-2,6	-0,9	0,5	1,9
Industria	-1,0	-0,6	-1,4	-1,7	-1,0	-1,0	1,4
Eraikuntza	-4,1	-3,8	-5,3	-5,1	-4,8	-3,6	-1,5
Merkatuko zerbitzuak	0,0	0,1	-0,3	-0,4	-0,1	0,2	0,5
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA							
Enplegua (urte arteko aldakuntza-tasa)	-0,7	-0,9	-0,8	-1,1	-1,0	-0,8	-0,5
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren gaineko %)	11,3	12,0	11,7	12,0	12,0	12,0	11,9

Iturria: Espainiako Bankua (Estatistikak, Adierazleen laburpena. Euro gunea. Adierazle ekonomiko orokorrak).2014ko apirilaren 30a

II.1.4. KOADROA. EUROPAR BATASUNAREN BILAKAERA EKONOMIKOA

	Biztanle bakoitzeko BPGd-a (1)		BPGd errealearen hazkundera		Langabezi tasa (2)		Enplegu tasa (%) (3)		Inflazioa (KPIB) (urteko batez bestekoak)		Produktibitatea/laundun pertsonako (1)		ald. %a. Unit. lan-kostuaren indizea	
	2011	2012	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2011	2012	2012	2013
EB28	100	100	-0,4	0,1	10,4	10,8	68,4	68,3	2,6	1,5	99,8	99,9	0,8	-0,3
EB27	100	100	-0,4	0,1	10,4	10,8	68,5	68,5	2,6	1,5	100	100	0,8	-0,3
Eurogunea (18)	109	108	-0,7	-0,4	11,3	12	68	67,7	2,5	1,3	108,5	108,5	0,6	-0,2
Eurogunea (17)	109	108	-0,7	-0,4	11,3	12	68	67,7	2,5	1,4	108,8	108,7	0,6	-0,3
Belgika	120	120	-0,1	0,2	7,6	8,4	67,2	67,2	2,6	1,2	128,4	128,3	2,1	0,3
Bulgaria	47	47	0,6	0,9	12,3	13	63	63,5	2,4	0,4	42,9	44,5	1,3	:
Txekiar E.	81	81	-1	-0,9	7	7	71,5	72,5	3,5	1,4	74,5	73,8	1,7	-2
Danimarka	126	126	-0,4	0,4	7,5	7	75,4	75,6	2,4	0,5	111,6	111,9	-0,8	-0,2
Alemania	123	123	0,7	0,4	5,5	5,3	76,7	77,1	2,1	1,6	108,1	106,9	1,6	-0,1
Estonia	69	71	3,9	0,8	10	8,6	72,1	73,3	4,2	3,2	69,8	69,9	0,9	:
Irlanda	129	129	0,2	:	14,7	13,1	63,7	65,5	1,9	0,5	141	141,6	-0,6	:
Grezia	80	75	-7	-3,9	24,3	27,3	55,3	53,2	1	-0,9	89,7	91,6	-4,8	-4,9
Espainia	96	96	-1,6	-1,2	25	26,4	59,3	58,2	2,4	1,5	106	109,5	-3	-2,3
Frantzia	109	109	0	0,2	9,8	10,3	69,4	69,5	2,2	1	116,6	116,1	0,6	:
Kroazia	61	62	-1,9	-1	15,9	17,2	55,4	53,9	3,4	2,3	77,1	80,6	-0,7	:
Italia	102	101	-2,4	-1,9	10,7	12,2	61	59,8	3,3	1,3	110,5	109,2	0,6	:
Zipre	94	92	-2,4	-5,4	11,9	15,9	70,2	67,1	3,1	0,4	89,8	92,5	-4,2	:
Letonia	60	64	5,2	4,1	15	11,9	68,1	69,7	2,3	0	63,7	66,1	0,1	2,1
Lituania	68	72	3,7	3,3	13,4	11,8	68,5	69,9	3,2	1,2	72,2	73,9	-0,7	:
Luxenburgo	266	263	-0,2	2,1	5,1	5,8	71,4	71,1	2,9	1,7	165,2	162,4	1,6	-1
Hungaria	67	67	-1,7	1,1	10,9	10,2	62,1	63,2	5,7	1,7	72,5	71,1	-0,6	1,3
Malta	86	86	0,6	2,4	6,4	6,5	63,1	64,9	3,2	1	94,6	92,3	1,8	:
Holanda	129	128	-1,2	-0,8	5,3	6,7	77,2	76,5	2,8	2,6	109,8	108,3	1,5	0,6
Austria	129	130	0,9	:	4,3	4,9	75,6	75,5	2,6	2,1	115,4	114,8	1,3	:
Polonia	65	67	2	1,6	10,1	10,3	64,7	64,9	3,7	0,8	71,9	73,5	-0,9	:
Portugal	77	76	-3,2	-1,4	15,9	16,5	66,5	65,6	2,8	0,4	74,4	75,9	-2,7	:
Errumania	48	50	0,6	3,5	7	7,3	63,8	63,9	3,4	3,2	50,4	51	-0,2	:
Eslovenia	84	84	-2,5	-1,1	8,9	10,1	68,3	67,2	2,8	1,9	81,2	80,8	0,5	-1,8
Eslovakia	75	76	1,8	0,9	14	14,2	65,1	65	3,7	1,5	81,5	81,9	-0,2	:
Finlandia	116	115	-1	-1,4	7,7	8,2	74	73,3	3,2	2,2	109,8	108,9	1,6	0,2
Suedia	125	126	0,9	1,5	8	8	79,4	79,8	0,9	0,4	114	114,2	1,9	-0,2
Erresuma Batua	105	106	0,3	1,7	7,9	7,5	74,2	74,9	2,8	2,6	100,1	99,7	0,8	:

(1) EAPn. 27ko EB=100 (2) 15 eta 74 urte artean. (3) Industria eta Zerbitzuak (Administrazio Publikoa eta Komunitaterako Zerbitzuak izan ezik).

* Kapitulu hau amaitzean, ez daude eskuragarri 2013ko datuak

Iturria: EUROSTAT

EUROSTATen arabera, estatu kide guztien egoera honako hau da.

Per capita BPGd-a, PPSen neurtua⁴: Mailen arabera egiten da azterketa, ez bilakaeraren arabera, betiere EB-27ko batez bestekoa kontuan izanik; EB-27=100.

Eurogunearena baino askoz balio handiagoa duten herrialdeak (108)⁵ hauexek izan dira 2012an: Luxenburgo (263), Austria (130), Irlanda (129), Holanda (128), Suedia eta Danimarka (bietan 126), Alemania (123), Belgika (120), Finlandia (115) eta Frantzia (109).

Batez bestekoaren azpitik baina %70aren gainetik daude: Erresuma Batua (106), Italia (101), Espainia (96), Zipre (92), Malta (86), Eslovenia (84), Portugal eta Eslovakia (bietan 76) eta Grezia (75).

BPGd-aren aldakuntza tasa kopuru errealean: EB-27an eta EB-28an %0,1 izan zen 2013an, aurreko urtean -%0,4ko aldakuntzaren aldean. Eurogunean, bestalde, -%0,4 izan zen, 2012ko -%0,7aren aldean.

Hazkunde tasarik handienak Letonian (%4,1), Errumanian (%3,5), Lituania (%3,3), Maltan (%2,4) eta Luxenburgon (%2,1). Tasa handiekin baina ez hain nabarmenekin: Erresuma Batua (%1,7) Polonia (%1,6), Suedia (%1,5) eta Hungaria (%1,1). Tasa txikiagoekin, hauexek daude: Bulgaria (%0,9), Eslovakia (%0,9), Estonia (%0,8), Danimarka eta Alemania (bietan %0,4), Frantzia eta Belgika (bietan %0,2).

Aintzat hartzekoa da Estonian 2012 eta 2013 bitartean izandako hazkunde txikiagoa (%3,9tik %0,8ra).

Europako gainerako estatuetan, tasa negatiboak izan ziren, eta jaitsierarik handienak Zipren (-%5,4) eta Grezian (-%3,9) izan ziren. Espainian -%1,2koa izan zen.

Langabezi tasa: Langabezi tasak bi digitu izaten jarraitzen du hainbat estatutan. Zehazkiago, %10 eta %12 bitarteko tasekin, hauexek daude: Letonia, Lituania, Frantzia, Hungaria, Polonia, Eslovenia. %12 eta %15 bitartekoa: Bulgaria, Irlanda, Italia eta Eslovakia. Eta %15aren gainetik, EB-28ko langabezi tasarik handienekin, Grezian (%27,3), Espainian (%26,4), Kroazian (%17,2), Portugalen (%16,5) eta Zipren (%15,9) daude. Tasarik txikiak, berriz, hauexetan ikusten dira: Austria (%4,9), Alemania (%5,3) Luxenburgo (%5,8), Malta (%6,5) eta Holanda (%6,7).

Inflazioa: Inflazioa, Kontsumo Bateratuaren Prezioen Indizearen arabera, eurogunean urteko batez besteko %1,4aren inguruan kokatu zen, aurreko urteko ratioa baino ehuneko puntu bat gehiago. Espainiako Estatuan %1,5ekoa izan da. Azterketa zabalagoa egiteko, Prezio, Kostu eta Errenten Kapituluak irakurtzea gomendatzen diogu irakurleari.

Lan-produktibitatea (BPGd-aren (EAPn) eta enpleguaren arteko erlazio gisa kalkulatu). Mailen arabera egiten da azterketa, ez bilakaeraren arabera, betiere EB-27ko batez bestekoa kontuan izanik; EB-27=100.

18koen euro guneko batez bestekoa 108,5 izan zen. Espainian 109,5 izan zen, aipaturiko batez bestekoaren gainetik. Hona hemen produktibitate handieneko estatuak: Luxenburgo (162,4, 100eko oinarriaren gainean), Irlanda (141,6), Belgika (128,4) eta Suedia, Frantzia, eta Austria (hiruretan 115 100eko oinarriaren gainean). Azterketa zabalagoa egiteko, Prezio, Kostu eta Errenten gaineko Kapituluak irakurtzea gomendatzen diogu irakurleari.

Unitateko laneko kostua⁶: Europar Batasunean eta euro gunean, -%0,3ko balio negatiboa ageri da ULK errealean 2013an. Lanpostuko soldatapekoen ordainsariak oinarri hartuta kalkulatu dira ULKak. Espainiako Estatuan -%2,3koa izan da. Azterketa zabalagoa egiteko, Prezio, Kostu eta Errenten Kapituluak irakurtzea gomendatzen diogu irakurleari.

⁴ PPS: erosahalmenaren parekotasuna

⁵ 18koen eurogunea: Alemania, Austria, Belgika, Zipre, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Letonia, Luxenburgo, Malta, Herbehereak eta Portugal.

⁶ Unitateko Laneko Kostu (ULK) korronea zera da: soldatapeko bakoitzaren laneko kostuaren eta okupatu bakoitzeko produktibitatearen arteko ratioa.

Finantza publikoak: Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren xedapenen arabera, estatu kideek bi irizpide errespetatzeko konpromisoa hartu dute: % 3ko defizita/BPGd-a ratioa eta % 60ko zorra/BPGd-a ratioa.

EUROSTATen datuen arabera, 2013an BPGd-aren gaineko zor publikoa estatu guztietan handitu da, Txekiar Errepublikan, Danimarkan, Alemanian, Letonian, Hungarian eta Lituania. Egonkortasun Itunean ezarritako % 60ko muga Belgikan (% 101,5), Alemanian (% 78,4), Irlandan (% 123,7), Grezian (% 175,1), Espainian (% 93,9), Frantzia (% 93,5), Italian (% 132,6), Zipren (% 111,7), Hungarian (% 79,2), Maltan (% 73), Holandan (% 73,5), Austrian (% 74,5), Portugalen (% 129), Eslovenian (%71,7) eta Erresuma Batuan (% 90,6) gairitu zen. 18koen Euroaren Eremuan, BPGd-aren gaineko zor publikoa % 92,6koa izan zen

Defizitari dagokionez, 18koen euro gunean, BPGd-aren %3ko balioidea den balioa kokatu zen defizit publikoa. Estatu hauetan gairitu zen Egonkortasun eta Hazkunderako Itunean ezarritako BPGd-aren %3ko muga: Irlanda (-%7,2), Grezia (%12,7), Espainia (-%7,1), Frantzia (-%4,3), Kroazia (-%4,9), Ziper (-%5,4), Polonia (-%4,3), Portugal (-%4,9), Eslovenia (-%14,7) eta Erresuma Batua (-%5,8).

%0 eta -%1,5 bitartean ditugu: Bulgaria eta Txekiar Errepublika (bietan -%1,5), Danimarka (-%0,8), Estonia (-%0,2), Letonia (-%1), Austria (-%1,5) eta Suedia (-%1,1). Alemaniak defizit nulua izan zuen; eta Luxenburgon bakarrik izan zen superabita (%0,1).

II.1.5. KOADROA. FINANTZA PUBLIKOAK EB-N				
	Gobernuak BPGd-aren gainean duen zor publikoaren %		BPGd-aren gaineko defizit/superabit publik. % (moneta nazionalan)	
	2012	2013	2012	2013
EB28	85,2	87,1	-3,9	-3,3
EB27	85,5	87,4	-3,9	-3,3
Eurogunea (18)	90,7	92,6	-3,7	-3
Eurogunea (17)	90,8	92,7	-3,7	-3,1
Belgika	101,1	101,5	-4,1	-2,6
Bulgaria	18,4	18,9	-0,8	-1,5
Txekiar E.	46,2	46	-4,2	-1,5
Danimarka	45,4	44,5	-3,8	-0,8
Alemania	81	78,4	0,1	0
Estonia	9,8	10	-0,2	-0,2
Irlanda	117,4	123,7	-8,2	-7,2
Grezia	157,2	175,1	-8,9	-12,7
Espainia	86	93,9	-10,6	-7,1
Frantzia	90,6	93,5	-4,9	-4,3
Kroazia	55,9	67,1	-5	-4,9
Italia	127	132,6	-3	-3
Ziper	86,6	111,7	-6,4	-5,4
Letonia	40,8	38,1	-1,3	-1
Lituania	40,5	39,4	-3,2	-2,2
Luxenburgo	21,7	23,1	0	0,1
Hungaria	79,8	79,2	-2,1	-2,2
Malta	70,8	73	-3,3	-2,8
Holanda	71,3	73,5	-4,1	-2,5
Austria	74,4	74,5	-2,6	-1,5
Polonia	55,6	57	-3,9	-4,3
Portugal	124,1	129	-6,4	-4,9
Errumania	38	38,4	-3	-2,3
Eslovenia	54,4	71,7	-4	-14,7
Eslovakia	52,7	55,4	-4,5	-2,8
Finlandia	53,6	57	-1,8	-2,1
Suedia	38,3	40,6	-0,6	-1,1
Erresuma Batua	89,1	90,6	-6,1	-5,8

Iturria: EUROSTAT

1.4. ESPAINIAKO EKONOMIA

Espainiako ekonomia, 2013an, pixkanaka hobetzeko ibilbidean murgildu zen eta, horri esker, 2011n hasitako atzeralditik atera zen.

INEek argitaraturiko Hiruhilekoko Kontabilitate Nazionalaren (HKN) aurrerapenaren zenbatespenaren arabera eta Espainiako Bankuak⁷ argitaraturiko informazioarekin, hiruhileko arteko %0,3ko hazkundera izan zen jarduera ekonomikoan 2014ko laugarren hiruhilekoan, hots, hirugarren hiruhilekoan izandakoa baino bi hamarren handiagoa. Urte arteko kopuruetan, BPGd-ak %1,2ko batez besteko jaitsiera izan zuen 2013an, 2012ko %1,6ko jaitsieraren aldean.

Eskari nazionalaren jaitsieraren ondorioz gertatu da produkzioaren beherakada (-%2,7), nahiz eta aldagai horretako jaitsiera moteldu egin zen ekitaldian zehar, harik eta udatik hasita hiruhileko arteko aurrerapen txikieta iritsi arte, lehen aldiz 2010eko amaieratik. Osagai guztietan hobekuntza izan zen urteak aurrera egin ahala, intentsitate handiagoarekin kontsumo pribatuaren kasuan. Gastuaren osagai publikoek ekarpen negatibo txikiagoa izan zuten

⁷ *Ekonomi aldizkaria, 2014ko urtarrila, Espainiako ekonomiaren hiruhilekoko txostena.*

jardueran Europako Kontseiluaren ekaineko erabakiaren ondorioz, hots, 2013rako aurrekontuko helburua jaisteko erabakia eman zuenetik, BPGd-aren aurreko %4,5etik bide berriko %6,5era⁸.

Bestalde, kanpoko eskari garbiak leundu egin zuen seigarren urtez jarraian barneko gastuaren murrizpenak jardueran izandako eragina; izan ere, produktuari eginiko ekarpena %1,6koa dela zenbatetsi da, esportazioetan oinarrituta, zeren eta, aurreko urteko jaitsiera handien ondorioz, egonkortu egin baitziren inportazioak. Kanpoko eskari garbiaren ekarpenak, ordea, beheranzko joera izan zuen esportazioen igoera moteldu ahala, goranzko ekonomiak ahuldu izanaren ondorioz, eta goraka jarri ziren munduko gainerako herrialdeetara eginiko erosketak.

Eskaintzaren aldetik, urteko batez bestekoan produkzio-adarretako balio erantsiaren jaitsierak aurreko urtekoak baino txikiagoak izan ziren, eta ekitaldi osoko jokaera hobea industriako eta merkatuko zerbitzuetako igoera txikitzen izatu zen hirugarren hiruhilekotik hasita.

Enplegua ere 2012an baino abiada txikiagoan jaitsi zen, eta landunen (lanaldi osokoak) kopuruan %3,4ko jaitsiera zenbatetsi da. Hala ere, urteko kopuru horrek, BPGd-aren kasuan bezala, arrastatze ondorio nabarmena du, enpleguak 2012ko azken zatian izandako jokaera negatiboaren eraginez. Izan ere, lanpostuak desagiteko erritmoa moteldu egin zen urteak aurrera egin ahala.

Soldatak % 4,1 jaitsi ziren; aurreko urtean, berriz, -%5,8. Bestalde, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) agerian uzten du langabezia-tasaren gorako joera (16 urtetik gorakoena), lehen hiruhilekoan 25,7 eta laugarren hiruhilekoan, berriz, %27 handitu dela.

II.1.6. KOADROA. ESTATUKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA. 2008KO OINARRIA

Urte arteko aldakuntza tasak. Kateatutako bolumena. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.

	2012	2013	2012				2013			
			I	II	III	IV	I	II	III	IV
Barneko eskaria (*)	-4,1	-2,7	-3,4	-4,2	-4,2	-4,7	-4,3	-3,6	-2,1	-0,6
Gastua azken kontsumoan	-3,3	-2,1	-2,6	-3,4	-3,3	-3,9	-3,7	-3,1	-1,2	-0,3
Etxeen kontsumo pribatua	-2,8	-2,1	-1,8	-3,1	-2,8	-3,6	-4,2	-3,0	-1,8	0,7
Kontsumo publikoa	-4,8	-2,3	-4,9	-4,4	-4,9	-5,0	-2,3	-3,4	0,2	-3,5
Kapital finkoaren eraketa gordina	-7,0	-5,1	-6,0	-6,9	-7,5	-7,7	-7,2	-5,8	-5,3	-1,7
-Aktibo finko materialak	-7,8	-5,5	-6,8	-7,6	-8,6	-8,3	-7,9	-6,1	-5,6	-2,5
Eraikuntza	-9,7	-9,6	-8,6	-9,3	-10,9	-10,0	-9,8	-10,1	-9,8	-8,6
Aktibo finko materialak	-3,9	2,2	-2,9	-4,3	-3,8	-4,8	-4,1	1,7	2,2	9,5
- Aktibo finko immaterialak	2,9	-0,2	3,6	2,6	4,8	0,4	-0,3	-3,3	-2,9	6,0
Kanpoko eskaria										
Ondasunak eta zerbitzuak esportatzea	2,1	4,9	0,1	0,5	3,3	4,4	2,9	9,5	3,5	3,7
Ondasunak eta zerbitzuak inportatzea	-5,7	0,4	-6,9	-7,7	-4,6	-3,5	-4,9	3,2	0,6	2,7
BPGd-a merkatuk prezioetan	-1,6	-1,2	-1,2	-1,6	-1,7	-2,1	-1,9	-1,6	-1,1	-0,2
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	-10,9	1,1	-6,9	-12,6	-11,2	-12,7	-4,1	3,9	0,9	4,1
Industria	-0,5	-1,2	-1,7	-0,7	0,2	0,4	-2,5	-2,1	-0,8	0,3
Eraikuntza	-8,6	-7,7	-9,1	-8,6	-8,7	-7,7	-7,0	-8,3	-7,8	-7,7
Zerbitzuak	-0,3	-0,5	0,7	-0,1	-0,4	-1,1	-1,1	-0,9	-0,6	0,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	-4,9	-1,2	-5,0	-4,7	-4,9	-5,1	-2,0	-1,0	-0,8	-1,2
Lan-merkatua										
Lanaldi osoaren pareko lanpostuak										
Landunak	-4,8	-3,4	-4,3	-5,1	-4,7	-5,0	-4,7	-4,0	-3,3	-1,6
Soldatapekoak	-5,8	-4,1	-5,0	-5,9	-6,0	-6,2	-5,7	-5,0	-3,8	-1,9
16 urtekoen edo zaharragoen langabezia-tasa (BAI) (**)			25,8	24,8	24,4	24,2	25,7	25,7	26,1	27,0
Produktibitatea langileko (Espainiako Bankua)	3,3	2,3					2,9	2,5	2,2	1,5

(*) (*) Merkatuko prezioetako BPGd-ari egindako ekarpena.

(**)Kapitulu hau amaitzean, urteko emaitzak ez zeuden eguneratuta 2011ko populazioaren oinarriaren arabera berrikusitako BAI datuekin.

Memoria honetako Lan-merkatuari buruzko kapituluak begiratzeko gomendatzen diogu irakurleari

Iturria: INE (Hiruhileko Kontabilitatea eta BAI) eta Espainiako Bankua. Adierazle ekonomiko orokorrak

⁸ Erabaki hori 2013ko ekainean hartu zen esparru orokorrigoan. Europako Seihilekoa amaitutakoan, exijituriko epeak luzatzera ebatzi zen, defizita %3aren azpitik kokatzeko egoera makroekonomikorik txarrean zeuden ekonomietan (Espainiari dagokionez, bi urtekoa izan zen luzapena, 2016ra arte).

Langileko itxurazko produktibitateari dagokionez esan behar da bizkortu egin zela urtean zehar, lehen hiruhileko %2,9tik laugarren hiruhileko %1,5era.

Ordainketa-balantzari dagokionez, finantzazio ahalmena⁹, izan zen 2013an lehen aldiz 1997tik, batez ere energiakoak ez diren ondasunen merkataritza-saldoaren hobekuntzaren ondorioz.

Ekonomiaren finantziaziorako ahalmena (superabita) 15.799 milioi eurokoa izan zen, hots, BPGd-aren %1,5.

Espainiako Administrazio Publikoek 72.400 milioi euroko defizitarekin (behin-behineko datuak) amaitu zuten 2013. urtea, Kontabilitate Nazionalaren arabera neurtuta. Horrek esan nahi du 2012 eta 2013 artean BPG % 10,6tik % 7,1era igaro zela.

Bananduta, Administrazio Zentralek, Autonomia Erkidegoek eta tokiko korporazioek, hurrenez hurren, % 4,8, % 1,5 eta % 1,2ko defizitarekin itxi zituzten euren kontuak. Tokiko Korporazioek (TTKK), aldiz, %0,4ko superabita izan zuten.

II.1.7. KOADROA. ESPAINIAKO EKONOMIAREN ORDAINKETA-BALANTZA (milioi euro)			
	2011	2012bb	2013p
PIB bb	1.046.327	1.029.279	1.022.988
Finantziario gaitasuna/premia	-36.961	-6.658	15.653
BPGd-aren gainean (%)	-3,5	-0,6	1,5
Kontu korrontearen eta kapitalaren saldoa	-33.537	-5.834	15.799
Kontu korrontea	-38.968	-12.428	7.965
Ondasunak (merkataritza-balantza)	-43.451	-27.796	-11.637
Zerbitzuak (zerbitzuen balantza)	35.281	37.554	40.870
Errentak	-24.329	-17.918	-15.277
Transferentzia arruntak	-6.469	-4.267	-5.992
Kapital kontua	5.431	6.594	7.834
Finantza-saldoa	30.307	324	-25.286
Guztira, Espainiako Bankua salbu	-78.924	-173.191	88.981
Zuzeneko inbertsioa	-9.197	23.098	9.890
Zorroko inbertsioa	-25.700	-54.928	40.360
Bestelako inbertsioak	-41.961	-149.711	35.254
Finantza-deribatuak	-2.067	8.349	3.477
Espainiako Bankua	109.231	173.516	-114.267
Erreserbak	-10.022	-2.211	-462
Eurosistemari aurre egiteko aktibo garbiak	124.056	162.366	-123.660
Bestelako aktibo garbiak	-4.803	13.361	9.855
Akatsak eta jaulkipenak	3.230	5.509	9.487

bb: behin-behinekoa. Iturria. Espainiako Bankua. "Adierazle ekonomikoak"

EUROSTATen zein Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioaren datuen arabera, Estatuaren defizita BPGd-aren %7,1 da. Defizit horrek BPGd-aren %0,6ko (pp) desbideratzea dakar berrikusitako helburuarekiko; izan ere, %6,5koa da (ikus kapitulu honetako 7. orriko orri-oina).

Sarrerren barnean, egonkor eusten dio zerga nagusietako zerga-bilketak (aldakuntza nulua), autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza barne. Hori dela-eta, zuzeneko zergen zerga-bilketa %2,2 murrizten den bitartean (non PFEZA %1 murriztu baita, Sozietateena %6,9 eta "beste batzuk" partidakoa %1,1 hazi baita); zeharkako zergena, berriz, %3 hazi da (non BEZarena %2,9 igo den, bereziana %4,7 eta "beste batzuk" partidakoa %6,8 jaitsi).

Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak %4,9 hazi ziren Bereziki nabarmena da kapital transferentzien kapituluaren hazkundera (%53,8) eta inbertsioen jaitziera (-%24,2).

II.1.8. KOADROA. ORDAINKETA-BALANTZA
Kontu korrontearen balantza (KKB)
<ul style="list-style-type: none"> • Merkataritzaren balantza (ondasunena) • Zerbitzuen balantza (turismoa eta beste batzuk) • Errenten balantza • Transferentzia arruntaren balantza
Kapitalaren balantza (Kapital b.)
<ul style="list-style-type: none"> • Kapital-transferentziak (EGEF, Kohesio Funtsa...) • Finantza kanpoko aktibo ez produktiboak eskuratzea eta besterentzea (lurra, lur baliabideak, aktibo ukiezinak, egile eskubideak...) • Errenten balantza
Kanpoko aurrezki eskaera = Finantziario ahalmena (premia)
KKB + Kapitalaren balantza + Kanpoko egoiliarren inbertsioak.

⁹ Ekonomiako sektoreen ondoriozko aurrezpena eginiko inbertsioari aurre egiteko nahikoa denean sortzen da, eta Kontu Korronteatik Balantzaren saldoak, kapitalarena eta egoiliarrek kanpoan eginiko inbertsioak batuta kalkulatzen da.

II.1.9. KOADROA. SALDO PUBLIKOAK AGENTEEN ARABERA* (milioi euro)

	Milioi €				BPGd-aren %			
	2010	2011p	2012p	2013a	2010	2011p	2012	2013
Herri Administrazioak Finantzazio gaitasuna (+) / premia (-) Finantzazioa EKNren arabera*	-100.539	-100.035	-109.295	-72.400	-9,6	-9,6	-10,6	-7,1
Administrazio zentralak								
Administrazio Zentrala (Estatua eta erak. auton.)	-51.826	-36.499	-82.477	-49.196	-5,0	-3,5	-8,0	-4,8
Gizarte Segurantza	-1.934	-741	-10.161	-11.861	-0,2	-0,1	-1,0	-1,2
Lurralde erakundeak								
AAEE	-39.724	-54.582	-19.009	-15.635	-3,8	-5,2	-1,8	-1,5
Tokiko Korporazioak (TTKK)	-7.055	-8.213	2.352	4.292	-0,7	-0,8	0,2	0,4

p: behin-behinekoa; a: aurrerapena (*) (*) Finantzazio gaitasuna/premia Espainiako Kontabilitate Nazionalaren arabera.

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa. Adierazle ekonomikoaren laburpena. Taulak eta grafikoak.2014ko otsaila

II.1.10. KOADROA. ESTATUKO ZERGA-BILKETA

(Autonomia Erkidegoek eta Tokiko Korporazioek PFEZ, BEZ eta zerga bereziei egindako ekarpena barne) (milioi euro)

	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Orotara		
	Orot.	PFEZ	Sozietateen zerga	Beste b.		BEZ	Bereziak	Beste b.	Estatua	AAEE eta TTKK	Orot.
2009	87.521	63.857	20.188	3.476	55.662	33.573	19.349	2.739	82.761	60.422	143.183
2010	86.913	66.977	16.198	3.738	71.886	49.079	19.806	3.001	111.087	47.712	158.799
2011	89.641	69.803	16.611	3.227	71.241	49.302	18.974	2.965	88.026	72.855	160.881
2012	96.152	70.631	21.435	4.086	71.594	50.464	18.209	2.921	75.643	92.102	167.746
2013	94.040	69.946	19.964	4.130	73.733	51.939	19.073	2.722	97.796	69.977	167.773
2011-12ko aldak.	7,3	1,2	29,0	26,6	0,5	2,4	-4,0	-1,5	-14,1	26,4	4,3
2012-13ko aldak.	-2,2	-1,0	-6,9	1,1	3,0	2,9	4,7	-6,8	29,3	-24,0	0,0

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa. Adierazle ekonomikoaren laburpena. Taulak eta grafikoak.2014ko otsaila

II.1.11. KOADROA. AURREKONTUAREN BETEARAZPENA: ESTATUAK ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK (milioi euro)

	Pertsonala*	Ondasunen eta zerbitzuen erosketak	Interesak	Ohiko transferentziak*	Kapital transferentziak	Inbertsioak	Orotara
2009	17.083	4.965	17.652	117.096	11.840	10.625	179.260
2010	16.937	4.452	19.641	112.751	13.663	8.070	175.514
2011	16.623	4.041	22.195	97.494	7.878	6.163	154.394
2012	15.449	3.529	26.059	96.700	4.658	7.195	153.689
2013	15.708	3.190	28.410	101.314	7.163	5.457	161.242
2011-12ko aldak.	-7,1	-12,7	17,4	-0,8	-40,9	16,7	-0,5
2012-13ko aldak.	1,7	-9,6	9,0	4,8	53,8	-24,2	4,9

(*) 2014an Estatuak ordaindutako pentsioen tratamenduan sartutako aldaketaren inguruko datu bateratuak.

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa. Adierazle ekonomikoaren laburpena. Taulak eta grafikoak.2014ko otsaila

1.5. AUTONOMIA ERKIDEGOAK

INEren Eskualdeko Kontabilitateari buruzko datu ofizialen arabera, 2013an BPGd-aren aldakuntza errearen estatuko batez bestekoa % -1,2koa izan zen. Zazpi autonomia erkidegotan jaitsiera txikiagoa izan zen, baina guztietan eurogunekoaren gainetik edo batez bestekoaren parean (-%0,4): Balearrak eta Kanariak (bietan -%0,4, eurogunearen batez bestekoaren parean), Katalunia eta Valentzia (bietan -%0,8), Galizia (-%1) eta Gaztela-Mantxa eta Ceuta (bietan -%1,1). Aragoi eta Madril Estatuko batez bestekoaren parean daude (-%1,2); eta hauexek izan zituzten emaitzarik txarrenak: Gaztela eta Leon (-%2,5), Asturias (-%2,1), Kantabria eta EAE (bietan -%1,9), eta Errioxa (-%1,8).

Per capita BPGd nominalari dagokionez, lehenengo tokian EAE dago, biztanleko 29.959 euroko BPGd-arekin, estatuko batezbestekoa (22.279 euro) baino % 35,4 gehiago. Haren atzetik datoz Madril (28.915 euro per capita), Nafarroa, 28.358 euro per capita BPGd-arekin, Katalunia (26.666 euro biztanleko), Aragoi (24.732) eta Kanariar Uharteak (23.446). Beraz, horiek guztiak estatuko batezbestekoaren gainetik daude.

Kontrako egoeran daude Extremadura (15.026 euro), Andaluzia (16.666) eta Melilla (16.426).

Lan-merkatuari dagokionez, estatu osorako langabezia-tasa % 26,5ekoa izan da 2013an. Tasa txikienak dituzten autonomia erkidegoak honako hauek dira: EAE (% 15,9), Nafarroa (% 18,1), Errioxa (% 20), Madril (% 20,3) eta Kantabria (% 20,7). Estatuko batez bestekoaren gainetik daude Andaluzia (% 36,5), Ceuta (%36,1), Melilla (% 34,5), Kanariar Uharteak (% 34,3), Extremadura (% 33,8), Gaztela-Mantxa (% 30,3), Murtzia (% 29,5) eta Valentziako Erkidegoa (% 28,8).

Galerarik handienak enpleguaren aldetik, 2012an, Aragoi (-%5,8), Kantabrian (-%5,5), Gaztela eta Leonen (-%4,6), Nafarroan (-%4,2) Madril (-%4,1) eta Galizian (-%4) izan ziren. Estatuko batez bestekoa -%3,1 da eta EAEkoa, berriz, -%3,8,

II.1.12. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO BPGd-aren HAZKUNDEA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA-TASAK

	Landun pertsonen kopuruaren aldakuntza		Langabeen kopuruaren aldakuntza		Langabezi tasa (16-64 urte)		BPGd bolumenaren aldakuntza		Per capita BPGd-a		
	2011-12	2012-13	2011-12	2012-13	2011-12	2012-13	2011-12	2012-13	2012 a	2013 e	
									Estatua = 100	Estatua = 100	€ per capita
Orotara	-4,5	-3,1	15,4	3,9	25,2	26,5	-1,6	-1,2	100	100	22.279
Andaluzia	-5,3	-3,2	14,7	4,5	34,7	36,5	-2,1	-1,5	75,1	74,8	16.666
Aragoi	-0,8	-5,8	9,8	12,0	18,7	21,5	-1,9	-1,2	111,3	111,0	24.732
Asturias	-4,6	-3,9	22,1	9,5	21,9	24,3	-2,1	-2,1	93,6	92,4	20.591
Balearrak	0,9	1,2	8,8	-3,7	23,3	22,4	-0,8	-0,4	105,8	105,2	23.446
U. Kanariarrak	-3,5	-1,9	12,5	2,9	33,3	34,3	-1,4	-0,4	84,9	84,7	18.873
Kantabria	-2,6	-5,5	16,2	13,6	17,9	20,7	-0,9	-1,9	97,3	96,7	21.550
Gaztela eta Leon	-4,2	-4,6	17,3	7,8	19,9	21,8	-2,0	-2,1	98,7	98,2	21.879
Gaztela-Mantxa	-7,7	-2,9	23,5	5,1	28,6	30,3	-3,1	-1,1	79,4	79,8	17.780
Katalunia	-6,2	-2,5	15,3	1,5	22,8	23,5	-1,3	-0,8	118,5	119,7	26.666
Valentziako E.	-4,5	-1,5	12,6	3,2	27,8	28,8	-1,6	-0,8	87,4	87,5	19.502
Extremadura	-9,2	0,0	33,8	3,0	33,1	33,8	-2,8	-1,4	67,9	67,4	15.026
Galizia	-4,0	-4,0	18,6	4,4	20,8	22,3	-0,9	-1,0	91,2	91,6	20.399
Madril	-2,7	-4,1	13,5	3,9	19,2	20,3	-1,6	-1,2	129,7	129,8	28.915
Murtzia	-2,7	-3,7	10,4	3,6	28,0	29,5	-2,0	-1,7	80,9	80,3	17.901
Nafarroa	-4,2	-4,2	24,7	9,6	16,4	18,1	-1,6	-1,5	127,8	127,3	28.358
EAE	-6,0	-3,8	20,3	3,7	15,0	15,9	-1,3	-1,9	134,8	134,5	29.959
Errioxa	-6,5	-1,3	17,7	-4,8	20,6	20,0	-2,0	-1,8	113,0	113,5	25.277
Ceuta	-10,9	5,7	34,3	-6,8	38,8	36,1	-1,2	-1,1	84,5	84,3	18.771
Melilla	-2,1	-3,9	21,1	26,1	28,9	34,5	-1,7	-1,3	74,9	73,7	16.426

a: aurrerapena. e: estimazioa. Iturria:INE. Eskualde-kontabilitatea eta PAI

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA

2.1. BILAKAERA OROKORRA

EUSTATen Ekonomi Kontuen arabera, 2013. urtea %1,9ko aldakuntza tasarekin hasi zen lehen hiruhilekoan, eta laugarrenean, berriz, %-0,3ko tasarekin bukatu. Ondorioz, EAEk 2013. urtean %1,2ko igoera izan zuen kopuru errealetan, EUSTATen arabera (2012an, berriz, %1,6ko gutxipena izan zen); eta BPGd 64.703 milioi eurokoa da kopuru arruntetan.

Euskal ekonomiak jardueraren hazkunde-tasa aurreko urteetako baino nabarmen txikiagoa zuela itxi zuen 2008. urtea (%1,3koa, 2007ko %4,2aren aurrean). 2009an, areagotu egin ziren ekoizpenaren beherakadak, eta BPGd-aren aldakuntza tasa erreal negatiboa izan zen (-%3,9). 2010ean, nolabaiteko susperraldia antzeman zen; 2011n, ordea, hiruhileko aldakuntza-tasen hazkundera (urte arteko kopuru errealetan neurtuak) jaitsi egin zen; negatiboak izan ziren 2012. urte osoan, eta 2013an ere bai, baina 2013an jaitsiera leundu dela ikusten da.

II.2.1. KOADROA. EAE-KO ABAGUNE MAKROEKONOMIKOAREN BILAKAERA (Urte arteko aldakuntza tasa)

	2008	2009	2010	2011	2012 (a)	2013 (a)	I	II	III	IV
BPG erreala merkatuko prezioetan	1,3	-3,9	0,4	0,3	-1,6	-1,2	-1,9	-1,5	-1,1	-0,3
Eskatzen dute										
Barne eskaria (hazkundera)	0,8	-5,4	-0,3	-0,9	-2,4	-1,5	-2,0	-1,8	-1,8	-0,5
Barne eskariaren ekarpena (1)	0,9	-5,7	-0,3	-0,9	-2,5	-1,5	-	-	-	-
Azken kontsumoko gastua	1,9	-1,7	1,1	-0,4	-1,2	-1,0	-1,2	-1,1	-1,3	-0,6
Kontsumo pribatua	0,6	-3,6	0,8	-0,7	-1,3	-1,0	-1,7	-0,9	-1,3	-0,1
Kontsumo publikoa	7,0	5,0	2,2	0,6	-0,8	-1,3	0,5	-2,1	-1,1	-2,3
Kapitalaren Eraketa Osoa (KEO)	-1,8	-14,3	-4,3	-2,3	-6,3	-3,2	-4,7	-4,0	-3,8	-0,3
Kapital finkoaren eraketa osoa	-1,0	-23,2	-2,6	2,9	-5,5	-1,2	-2,8	-1,1	-0,8	0,1
ondasun ekipoetan										
Gainerako KEO	-	-	-	-	-6,6	-4,1	-5,5	-5,3	-5,1	-0,5
Kanpoko saldoaren ekarpena (1)	0,5	1,6	0,9	1,3	0,8	0,4	-	-	-	-
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa	-0,2	-13,4	7,7	0,9	-3,3	1,1	-6,7	2,9	5,5	3,1
Estatua	-3,4	-9,9	2,4	-6,8	-4,8	-	-	-	-	-
Atzerria	3,4	-16,9	13,8	9,3	-1,8	-	-	-	-	-
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa	-0,8	-14,5	5,9	-0,9	-4,2	0,5	-6,6	2,3	4,0	2,7
Estatua	-0,6	-7,3	3,2	-0,1	-0,2	-	-	-	-	-
Atzerria	-1,2	-25,0	11,3	-2,2	-10,2	-	-	-	-	-
Eskaintza										
Lehen mailakoa	-6,1	-4,8	20,8	7,9	8,7	-6,1	-5,0	-1,6	-1,8	-12,9
Industria eta energia	-0,7	-12,9	2,0	1,6	-3,7	-1,9	-3,0	-2,7	-1,9	0,0
Manufaktura-industria	-	-	-	-	-3,7	-1,9	-3,2	-2,5	-1,9	0,1
Eraikuntza	-5,8	-7,4	-7,9	-7,9	-8,2	-5,0	-6,8	-6,6	-5,2	-1,2
Zerbitzuak	3,4	0,0	0,7	0,9	-0,4	-0,6	-1,0	-0,7	-0,4	-0,1
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	1,2	-2,8	0,4	-0,6	-1,1	-1,4	-2,0	-1,6	-1,4	-0,6
Administrazio publikoa, osasun eta gizarte zerbitzuak	6,2	3,4	3,8	3,5	0,4	-0,3	-1,7	-0,4	-0,1	0,9
...Gainerako zerbitzuak	3,4	0,0	-0,8	0,4	-0,3	-0,2	-0,2	-0,1	0,0	-0,4
Oinarritzko prezioei erantsitako balio osoa	1,2	-4,3	0,3	0,3	-1,7	-1,2	-1,9	-1,6	-1,1	-0,3
Zerga garbiak produktuen gainean	2,4	-0,1	1,9	-0,2	-1,1	-0,7	-0,9	-0,5	-0,6	-0,6
BPG nominala merkatuko prezioetan	2,3	-5,2	1,8	0,9	-1,5	0,0	-0,4	-0,5	0,0	0,8

Aurrerapena

(1) BPGaren hazkundeari egindako ekarpenaren portzentajezko puntuak. (2) Ez dago lanaldi osoko enpleguari buruzko informaziorik. Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak eta Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak (2014ko otsaila)

Lurralde historikoen araberako BPGd-aren bilakaera, 2013an, negatiboa izan zen hiru lurraldeetan, baina aurreko urtekoa baino txikiagoa. Araban dago jaitsierarik txikiena (-%1,4); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, %1,1eko beherakada dugu kasu bietan.

INERen Eskualdeko Kontabilitateari buruzko 2013ko datu ofizialen arabera, BPGd-aren aldakuntza errearen (urte artekoa) estatuko batezbestekoa % -1,9koa izan zen 2013an.

Bestalde, Espainiako ekonomiaren BPGd-ak, 2013an, urte arteko % -1,2ko aldakuntza tasa du kopuru errealean, INERen arabera, aurreko urteko %1,6ko jaitsieraren aurrean.

EUROSTATen arabera, %0,5koa izan zen jaitsiera eurogunean. 28ko EBn, berriz, %0,1eko igoera. Ondorioz, ekoizpenean jaitsiera handiagoa da EAEn eurogunean eta 28ko EBn baino.

Eskariaren inguruko azterlanaren arabera, %1,5eko jaitsiera erreala da barneko eskarian, BPGd-aren urte arteko %1,2ko jaitsieraren aurrean. Horrek agerian uzten du kanpoko saldoaren ekarpen positiboa, hain zuzen ere %0,4koa, eta gora egin dute esportazioek eta inportazioek, %1,1 eta %0,5 hurrenez hurren.

Estatuan, INERen datuen arabera, eskari nazionalak BPGd-aren hazkundeari eginiko ekarpena -2,7 puntukoa izan zen, eta +1,5koa kanpoko eskariak.


Eskariari dagokionez, barneko eskariak aldakuntza tasa negatiboa izanik ere, 2012koa baino jaitsiera txikiagoa izan da (-%1,5koa, -%2,4koaren aldean). Bilakaera hori eman du bai kontsumoan bai inbertsioan izandako beherakadak. Familien azken kontsumoaren jaitsieraren (-%1,0) eta herri administrazioen azken kontsumoaren murrizpenaren (-1,3) ondorioz, behera egin du azken kontsumoak, %1,0 hain zuzen ere. Bere bi osagaien bilakaera negatiboa dela-eta, barneko eskariaren profilik negatiboena du Kapitalaren Eraketa Osoak; izan ere, %3,2ko jaitsiera izan du 2013. urte osoan.

Egiaztatu denez, barneko eskarian behera egin duen faktore bakarra sektore publikoaren kontsumoa izan da 2013an 2012koaren aldean: krisialdi osoaren erregistrorik txarrena bildu du, eta jaitsiera nabarmenarekin bukatu du urtea, hasieran jaitsiera txikia izan ondoren.

Barneko eskariari dagokionez, gora egin dute esportazioek 2012 eta 2013 bitartean, %1,1 kopuru errealean batez beste urtean (2012an %3,3ko jaitsiera izan zen), eta inportazioek %0,5 egin dute gora (2012an, berriz, %4,2 jaitsi ziren guztira).

Eskaintzaren aldetik, behera egin du BPGak kopuru errealean lau sektore nagusiek berekin eramanda. Hori dela-eta, jaitsi egin da jarduera maila. Lehen sektoreak %6,1eko aldakuntza negatiboa du. Bigarrik tokian, eraikuntzaren sektorea dago, %5,0ko murrizpenarekin. Industriaren sektoreak ere berriz izan du bilakaera negatiboa, baina aurreko urtekoa baino txikiagoa: %1,9ko jaitsiera balio erantsian, neurri handi batean manufaktura-industriaren pisuaren eraginez. Bestalde, zerbitzuen sektorean ere behera egin du jarduera mailak, hain zuzen ere %0,6. Merkataritza, Ostalaritza eta Garraio sektorearen bilakaera negatiboan aurkituko dugu zioa; izan ere, %1,4 jaitsi da. Gainera, bilakaera negatiboa izan da Herri Administrazioa, Hezkuntza eta Osasuna biltzen dituen adarrean: 2012ko %0,4ko hazkuntza izatetik 2013. urteko -%0,3ko hazkunde negatibora. Gainerako zerbitzuetan ere behera egin dute jarduera mailek (%0,2).

Enpleguaren bilakaerari dagokionez (lanaldi osoaren baliokidetzan neurtuta), EUSTATen HEKren arabera, negatiboa izan da, hain zuzen ere %2,1a batez beste 2013 urte osoan. Sektore guztietan gertatu da jaitsiera, txikiagoa zerbitzuen



sektorean (-%0,5) eta sakonagoa eraikuntza (-%10,8) eta industrian (-%4,3), baita lehen sektorean ere, baina azken horretan neurri txikiagoan (-%3,7).

Lurralde historikoen arabera, 2013an, negatiboa izan da hiru lurraldeetan. Araban dago jaitsierarik txikiena (-%2,4); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, %2,1eko beherakada dugu kasu bietan.


Prezioei eta produktibitateari buruzko azterketa xehatuago bat egin nahi izanez gero, "Prezioak, kostuak eta errentak" kapituluak irakurtzea gomendatzen dugu.

2.2. BARNEKO ESKARIA

Arestian aipatu dugunez, barneko eskariaren jaitsiera aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen 2013an (-%1,5 -%2,4aren aldean).

Hiruhilekoaren bilakaera aztertuta ikusten denez, barneko eskariaren jaitsiera motelagoa izan da 2012ko laugarren hiruhilekoan, eta 2013an -%2ko aldakuntza-tasarekin (urte artekoa) hasi zen eta laugarrenean, berriz, -%0,5ekoarekin.

Osagaiak berezita, familien azken kontsumoaren gastua -%1,7koarekin hasi zen lehen hiruhilekoan, eta hiruhileko arteko gorabeheren ondorioz, laugarren hiruhilekoan -%0,1eko beherakada izan zen. Bestalde, herri administrazioen gastua %0,5eko aldakuntza tasa positiboarekin hasi zen lehen hiruhilekoan, eta laugarrenean, berriz, %2,3ko ratioarekin bukatu. Horrenbestez, honako bilakaera izan da azken kontsumoan: lehen hiruhilekoan, -%1,2ko aldakuntza tasa eta laugarrenean, berriz, -%0,6koa. Hala, batez besteko urteko tasa -%1ean kokatzen da.



Iturria: EUSTAT. HKE

Inbertsioari dagokionez, dagoeneko esanda dugunez, barneko eskariaren profilik negatiboa ageri da, hain zuzen ere %2,3ko jaitsiera 2013. urtean. Alabaina, ondasun ekipoen kasu zehatzean, egoera hobea uzten dute agerian datuek, zeren eta jaitsiera tasak gero eta txikiagoa baitira urteak aurrera egin ahala: lehen hiruhilekoan -%2,8ko aldakuntza negatibotik laugarreneko %0,1eko aldakuntza positibo txikira.

EUSTATEk emandako informazioarena arabera, kontsumoaren eta inbertsioaren uneko adierazleak erakutsitako egoera berresten dute.

Hala, kontsumo pribatua, salbu eta industri ekoizpen indizea kontsumo ondasunekiko (horren jaitsiera tasa aurreko urtekoa baino txikiagoa du (-%5,1etik -%4,1era), gainerako adierazleen tasek hobekuntza erakusten dute 2012koen aldean:

II.2.2. KOADROA. BARNEKO ESKARIAREN ZENBAIT ADIERAZLEREN BILAKAERA (Urte arteko aldakuntza tasa)

	2011	2012	2013
Kontsumo publikoaren adierazleak			
Herri administrazioen kontsumo gastua (HEKren arabera)	0,6	-0,8	-1,3
Kontsumo pribatuaren adierazleak			
IPI kontsumo ondasunak	-0,1	-4,1	-5,1
Turismoen matrikulazioa (ziklo-joerako datuak)	-26,4	-13,3	8
Txikizkako merkataritza indizea (p. korr.)	-3,8	-5,2	-4,5
Salmentak saltoki handietan (p. korr.)	-5,7	-3,2	-1
Beste batzuk			
Hoteletan igarotako gauak (EAEkoak aparte)	-	2,2	-2,2
Inbertsioaren adierazleak			
IPI inbertsio-ondasunak	11,2	-6,2	-3,1
Kargako ibilgailuen matrikulazioa	-19,3	-42,9	7

Iturria: EUSTAT eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaria

Txikizkako Merkataritza Indizea, prezio iraunkorretan, %4,5 jaitsi da, 2012ko -%5,2koaren aldean. Saltoki handietako salmentek ere, prezio iraunkorretan ere, %1 egin dute behera, -%3,2aren aldean. Eta datu positibo gisa, turismoen matrikulazioak %8 egin du gora, 2012ko %13,3aren jaitsieran aldean.

Inbertsio-adierazleei dagokienez, ekipo-ondasunen industria-ekoizpenaren indizeak %3,1 egin du behera, hots, 2012koa baino jaitsiera txikiagoa (-%6,2). Kargako industri ibilgailuen matrikulazioak %7ko igoera izan du. 2012an, berriz, %42,9ko jaitsiera izan zuen.

Deigarria da hoteletan emandako gaueri buruzko datua. Izan ere (EAEkoak direnak alde batera utzita), %2,2 jaitsi dira, 2012an izandako %2,2ko hazkundearen aldean.

2.3. KANPOKO ESKARIA


EUSTATen Kontu Ekonomikoak eta Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

EUSTATen HKEren behin-behineko datuak 2014ko otsailean argitaratu ziren, Estatuari eta munduko gainerako herrialdeei eginiko ondasunen eta zerbitzuen salmentei buruzkoak. Datu horien arabera, esportazioek %1,1 egin dute gora urtean batez beste eta kopuru errealetan, noiz-eta 2012an %3,3 jaitsi zirenean. Inportazioetan, berriz, %0,5eko igoera izan da. 2011 eta 2012 bitartean, berriz, %4,2 jaitsi ziren.

Bi aldagaiek hiruhilekoko bilakaeraren antzeko profila ageri dute. Esportazioetan %6,7ko jaitsiera izan zen lehen hiruhilekoetan; bigarrenean %2,9 hazi ziren, hirugarrenean %5,5 eta hazkundera moteldu ondoren, laugarren hiruhilekoan, azkenean urte arteko %3,1eko tasa izan da. Bestalde, inportazioetan %6,6ko jaitsiera izan zen lehen hiruhilekoetan; bigarrenean %2,3 hazi ziren, hirugarrenean %4 eta hazkundera moteldu ondoren, laugarren hiruhilekoan, azkenean urte arteko %2,7ko tasa izan da.

Euskal ekonomiaren irekiera-maila¹⁰ (Estatuarekiko eta atzerriarekiko harremanak) hazi egin da 2012 eta 2013 bitartean, % 140,8tik %143,1era igaro baita. Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak esportazioarekin duen estaldura-maila¹¹ ehuneko puntu bat igo da, % 95etik % 96ra igaro baita.

II.2.3. GRAFIKOA. KANPOKO SEKTOREAK EAEN IZAN DUEN BILAKAERA (BOLUMEN INDIZEAREN ALDAKUNTZAREN URTE ARTEKO TASA. (DATU ZUZENDUAK)



Iturria: Eustat. Kontu Ekonomikoak eta HKE

II.2.3. KOADROA. IRIKIERA ETA ESTALDURA MAILA

	Irekiera maila	Estaldura maila	BPG p. korr.
2007	142,6	91,6	65.962.032
2008	146,1	90,9	67.478.054
2009	123,5	90,1	63.988.786
2010	133,9	92,6	65.120.174
2011	142,9	93,9	65.684.285
2012	140,8	95,0	64.706.357
2013	143,1	96,0	64.703.235

Iturria: EUSTAT

¹⁰ Irekiera maila: (Esportazioak+Inportazioak prezio arruntetan)/BPG prezio arruntak *100

¹¹ Estaldura maila: Esportazioak prezio arruntetan / Inportazioak prezio arruntak *100

BPGaren prezio korranteen bilakaeraren azterketaren arabera, Estatura eginiko esportazioetan jaitsiera izan da BPGan: 2005eko %37,5etik 2012ko %32,4ra. Atzerrirakoetan, berriz, igoera izan da, hain zuzen %28,5etik %36,2ra. Bestalde, Estatuko inportazioetan jaitsiera izan da, %45etik %44,8ra; atzerrikoak, berriz, %26,7tik %27,4ra.

EUSTATen Kanpoko Merkataritza Estatistika

Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzari buruz ematen dituen datuen arabera, betiere Aduanetako Erregistroetan oinarrituta, %0,3ko jaitsiera izan da esportazioen ohiko balioan 2013. urtean, eta %0,6ko igoera energiakoetan eta %8,8ko jaitsiera energiakoak ez direnetan (guztizkoaren %90,8 dira). Bestalde, inportazio osoek % 1,8 egin zuten gora. Bertan, energia inportazioen balioak (guztiaren % 35) % 5,5 hazi ziren, eta energiakoak ez direnen kasuan % 0,2koa izan zen hazkundera.

Datu horiek oinarri hartuta, euskal ekonomiaren irekiera-maila (atzerriarekiko harremanak) % 55,3tik 55,7ra igaro zen, eta ondasunen eta zerbitzuen esportazioak inportazioarekin duen estaldura-maila % 130,9tik % 128,2ra igaro zen.


EAEko energiakoak ez diren esportazioen aduanasarien taldeko azterketan agerian gelditu denez, lehenik eta behin ekipo-ondasunak nabarmentzen dira, esportaturiko guztizkoaren %43,2 (makinak, 4.442,6 milioi euro, eta garraio materiala, 4.312 milioi euro). Esportazioak %2 egin du gora, makinaren eta aparatuen esportazioaren gehikuntzagatik (%4,7), zeren garraio materialak behera egin baitu (-%0,6). Bigarrenik, metal komunak eta horien manufaktura esportazioa nabarmentzen da, guztizkoaren %24,8. %1ko jaitsiera izan da horien esportazioan Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa nabarmentzen da, guztizkoaren %7,8; aldakuntza tasa negatiboa du (%-7,3).

Energiakoak ez diren inportazioen aldetik, metalak eta horien manufaktura nabarmentzen dira, guztizko inportazioen %21,4, hain zuzen %2,9 igota, eta bigarrenik guztizko inportazioen %2,1 diren ondasun-ekipoak. Izan ere, %2,1 jaitzi dira, makinaren eta aparatuen (%3) nahiz garraio materialaren (%1,2) igoeragatik.

Kanpoko saldoa 4.450 milioi eurokoa da, BPGaren % 6,9

Energiakoak eta energiakoak ez diren produktu eta ondasunak bereizita ondoriozta daitekeenez, energi saldoa defizitariora da (-3.863,9 milioi euro). Aldiz, energetikoak ez diren produktuenak superabita erregistratu zuen, 8.314 milioi euro, BPGaren % 12,9, hau da, 2012. urteko ratioa (% 12,6) baino ehuneko 0,3 puntu gehiago.

II.2.4. GRAFIKOA. ESPORTAZIOEK (X) ETA INPORTAZIOEK (M) BPGEAN (PREZIO ARRUNTAK) DUEN PISUA



Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak

II.2.4. KOADROA. KANPOKO MERKATARITZAREN BILAKAERA (urteko aldakuntza tasak, eurotan)

	Esportazioak			Inportazioak		
	Guzt.	Energi-akoak	Ez energi-akoak	Guzt.	Energi-akoak	Ez energ.
2006	16,4	51,4	14,1	20,2	32,9	14,6
2007	14,6	12,5	14,7	8,2	-3,2	14,1
2008	6,3	22,6	4,9	6,4	22,9	-0,8
2009	-26,3	-30,5	-25,9	-38,9	-40,1	-38,2
2010	19,6	22,7	19,3	25,5	24,6	26,0
2011	14,6	17,3	14,4	12,2	13,8	11,3
2012	-0,9	10,8	-2,1	-10,4	-10,2	-10,5
2013	-0,3	-8,8	0,6	1,8	5,5	-0,2

Iturria: EUSTAT. Kanpo Merkataritzaren Estatistika, Aduanen Erregistroetan oinarritua

II.2.5. KOADROA. EAE-K ATZERRIAREKIN IZANDAKO ONDASUN ETA ZERBITZUEN KANPOKO MERKATARITZA (mila eurotan) (muga-zergako taldeen sailkapena)

MUGA-ZERGA KO TALDEAK	ESPORTAZIOAK					IMPORTAZIOAK					SALDOA		
	2011	2012	2013 b-b		12-13ko aldak.	2011	2012	2013 b-b		12-13ko aldak.	2011	2012	2013 b-b
	milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak	% bertikala		milioiak	milioiak	milioiak
Guztira	20.488,2	20.302,6	20.242,0	100,0	-0,3	17.309,7	15.508,3	15.792,1	100,0	1,8	3.178,5	4.794,3	4.450,0
Energiakoak (Energiako produktu eta mineralak)	1.839,8	2.039,3	1.860,0	9,2	-8,8	6038,1	5424,0	5.723,9	36,2	5,5	-4.198,4	-3.384,7	-3.863,9
Energiakoak ez direnak	18.648,4	18.263,3	18.382,0	90,8	0,6	11271,6	10084,3	10.068,1	63,8	-0,2	7.376,8	8.179,0	8.313,9
Nekazaritzako produktuak	706,3	994,5	1.054,2	5,2	6,0	912,1	914,4	853,0	5,4	-6,7	-205,9	80,1	201,2
Produktu kimikoak	449,1	385,5	490,8	2,4	27,3	769,5	688,2	890,4	5,6	29,4	-320,4	-302,7	-399,6
Plastikoak eta kautxua	1.668,5	1.700,3	1.575,4	7,8	-7,3	1.136,5	922,6	834,0	5,3	-9,6	532,0	777,7	741,4
Papera	506,8	501,1	523,0	2,6	4,4	397,3	328,7	324,2	2,1	-1,4	109,5	172,4	198,8
Metal komunak eta haien manufakturak	5.472,6	5.069,5	5.017,8	24,8	-1,0	3.942,9	3.289,3	3.383,5	21,4	2,9	1.529,7	1.780,2	1.634,3
Ondasun ekipoak	8.754,3	8.579,0	8.754,6	43,2	2,0	3.052,9	2.970,4	2.907,7	18,4	-2,1	5.701,4	5.608,6	5.846,9
Makinak eta aparatuak	4.055,7	4.241,4	4.442,6		4,7	2.410,5	2.340,7	2.270,4		-3,0	1.645,2	1.900,7	2.172,3
Garraio materiala	4.698,6	4.337,6	4.312,0		-0,6	642,4	629,7	637,4		1,2	4.056,2	3.707,9	3.674,6
Beste manufak.batzuk	922,6	867,4	896,9	4,4	3,4	1.032,6	910,7	865,0	5,5	-5,0	-110,0	-43,3	32,0
Sailkatu gabe	168,3	166,1	69,2	0,3	-58,3	27,7	60,0	10,2	0,1	-83,0	140,6	106,1	59,0

b-b: behin-behinekoak.

Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzako Estatistika

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

II.2.6. KOADROA. ATZERRIKO HERRIALDEEK EAE-N EGINIKO INBERTSIOAREN ETA EAE-K ATZERRIAN EGINIKO INBERTSIOAREN ARTEKO ERKAKETA (Atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuta)

	2009	2010	2011	2012	2013
Atzerriko inbertsio EAEn	90.976,21	155.062,23	528.149,86	427.454,29	984.083,21
EAEn inbertsio osoa atzerrian	1.475.398,34	2.018.238,14	5.331.501,97	408.527,52	1.120.818,44


* ABDE deskontatuta.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

Atzerriko inbertsioa EAEn

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, atzerriko inbertsioa EAEn areagotu egin zen 2012 eta 2013 artean, hain zuzen ere % 130,2 atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuz gero. Orotara, 984,1 milioi euro jaso ditu EAEk, Estatuko datuaren gainean EAEk duen proportzioa hazi egin da: 2012ko %2,9tik 2013ko %6,2ra. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontaturik, %13,7rainokoa da, eta %8,2tik %13,7 horretara igo da 2012 eta 2013 bitartean.

II.2.5. GRAFIKOA. EAE-REN INBERTSIO OSOA ATZERRIAN*



* * ABDE deskontatuta.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa

II.2.7. KOADROA. ATZERRIKO INBERTSIO OSOA AAE GORABEHARA* (milaka eurotan)

	2009	2010	2011	2012	2013
Orotara	12.405.263,60	12.281.642,02	24.756.322,46	14.536.409,32	15.814.304,68
EAE	90.976,21	155.062,23	528.149,86	427.454,29	984.083,21
Andaluzia	325.169,70	1.226.514,67	626.499,96	592.890,23	313.319,17
Aragoi	133.696,88	47.478,87	38.342,35	151.232,16	168.455,24
Kantabria	12.104,43	3.766,98	16.790,50	22.032,61	14.320,34
Gaztela eta Leon	67.796,38	56.976,35	190.328,69	17.404,58	172.335,90
Gaztela-Mantxa	178.345,72	55.667,19	462.593,97	51.657,18	7.927,56
Katalunia	1.569.170,78	4.823.957,30	3.044.116,88	2.669.082,71	3.511.008,75
Ceuta eta Melilla	727,05	2,65	35,66	1.399,76	362,26
Madril	8.042.599,95	4.450.934,14	17.161.049,61	9.294.433,94	8.635.077,85
Valentzia	443.690,21	134.342,72	390.156,23	96.327,49	166.195,50
Extremadura	28.635,00	30.404,96	36.260,31	31.554,16	3.794,77
Galizia	182.465,30	50.483,48	524.606,22	185.811,79	218.951,44
Balearrak	420.348,36	169.860,56	409.878,47	265.332,96	785.543,40
Kanariar Uharteak	77.527,77	168.908,93	125.920,68	70.431,59	36.479,82
Errioxa	3.595,54	36.414,21	2.718,46	10.267,53	62.205,93
Nafarroa	31.121,43	111.510,30	49.302,33	161.338,73	7.192,40
Asturias	11.304,10	29.323,33	505.266,78	62.737,35	22.494,60
Murtzia	11.680,67	28.594,97	72.065,13	24.572,42	52.610,84
EMAN GABE	774.308,12	701.438,18	572.240,37	400.447,84	651.945,70

* * ABDE deskontatuta.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

Hala, 2013. urtean, EAEk hirugarren lekua hartu du inbertsio-bolumenean, Madrilen (8.635,1 milioi euro jasotzen baititu, ABDEak kenduta) eta Kataluniaren atzetik (3.511 milioi euro jasotzen baititu). Erregistro horrekin, maila bat egin du gora EAEk autonomien rankingean, 2012an laugarren tokian baitzegoen.

Sektoreen ikuspegitik, bereziki nabarmenak dira guztizkoan duen pisuagatik honako hauetan eginikoak:

- Ur hornidura, saneamendu, hondakinen kudeaketa eta kutsadura desagerrarazte jarduerak. Hain zuzen ere *kutsadura kentzeko jarduerak eta beste zerbitzu batzuk*. EAEn eginiko inbertsioaren %63,5 dira eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %80,9.
- Argindarraren hornidura, gasa, lurrina eta aire egokitua EAEn kanpoko inbertsioaren %15,2 eta Estatuk atzerrian eta sektore horren eginikoaren %21,3 dira.

- Higiezin jarduerak EAEn eginiko inbertsioaren %7,7 dira eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %4,2.
- Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak EAEn eginiko inbertsioaren %4,6 dira eta sektore horretan Estatuan eginikoaren %7,5.

Lurralde ikuspegitik begiraturaz gero, inbertsioaren azken titularra bizi den herrialdea ELGAko herrialde batean kokatzen da kasuen % 93,1ean, eta % 88,9tan 15-Ebean (guztira 874,9 milioi euro).

Hona hemen EB-15en herrialde inbestitzaile nagusiak: Espainiako Estaturia (atzerriko inbertsioetat hartzen da estatistika honetan eta, beraz, EBren eta ELGaren kopuruen barrukotzat), 624,8 milioi euroekin (EAEko inbertsio guztien %63), Erresuma Batua (135 milioi), Luxenburgoko (35 milioi) eta Alemania (20 milioi euro).

Bereziki nabarmentzekoa da Afrika, Mexiko eta Brasildik datozen inbertsioen hazkundera.

II.2.8. KOADROA. INBERTSIOA OSOA EAE-N*(ETA ESTATUAN EGINIKOAREKIKO ALDERAKETA), SEKTOREEN ARABERA (milaka €) (CNAE-09)

	2011	2012	2013	Estaturia 2013p	Banaketa EAE	% Estat. gainean	%11-12	%12-13
A. Nekaz., abeltz., basog. eta arrantza	3.487,1	0,0	0,0	53.179,8	0,0	0,0	-100,0	
B. Erauzketa industriak	0,0	0,8	8.678,0	99.645,6	0,9	8,7		1.156.966,7
C. Elikadura, Edariak eta Tabakoa	2.138,9	23,3	633,9	296.420,3	0,1	0,2	-98,9	2.625,5
C. Ehungintza eta jantzigintza	0,0	0,9	3,0	18.671,8	0,0	0,0		229,7
C. Larrugintza eta zapatagintza	0,0	0,0	0,0	3.484,3	0,0	0,0		
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	50,0	0,0	0,0	223,0	0,0	0,0	-100,0	
C. Papergintza eta arte grafikoen industria	15,9	0,0	0,0	21.169,7	0,0	0,0	-100,0	
C. Kokea lortzeko eta petrolioaren fintzeko fabrikak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Ind. Kimikoak eta kautxu eta plastiko transf.	0,0	56.380,8	0,0	77.750,9	0,0	0,0		-100,0
C. Prod. Farmaze. Fabrik.	0,0	0,0	0,0	744.285,0	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	3.822,7	2.850,0	854,0	817.115,2	0,1	0,1	-25,4	-70,0
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik.	30,0	2,3	0,0	29.454,7	0,0	0,0	-92,2	-100,0
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik.	240,0	340,0	7.842,3	121.689,7	0,8	6,4	41,7	2.206,6
C. BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	36.031,0	9.341,1	2.077,1	84.501,8	0,2	2,5	-74,1	-77,8
C. Ibilgailu motordunen eta beste garraio-mat. batzuen fabrik.	46.711,7	45,0	1.307,7	263.088,9	0,1	0,5	-99,9	2.805,9
C. Altzarien fabrik.	100,0	204,7	254,1	317,7	0,0	80,0	104,7	24,2
C. Beste manufaktura batzuk	8.600,0	168,2	0,0	158.745,1	0,0	0,0	-98,0	-100,0
C. Makineria-instala. Konponk.	0,0	0,0	723,6	3.610,1	0,1	20,0		
C. Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura.	377.651,7	13.391,0	149.336,3	701.437,4	15,2	21,3	-96,5	1.015,2
D. Ur hornidura, saneam. jarduerak, hondakinen kud. eta deskutsatzea	585,0	0,0	624.700,0	772.213,9	63,5	80,9	-100,0	
F. Eraikuntza	1.188,5	6.263,7	10.429,0	1.439.110,1	1,1	0,7	427,0	66,5
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	12.516,6	29.327,3	27.850,9	897.281,2	2,8	3,1	134,3	-5,0
H. Garraioa eta biltegiak	18.002,3	9.016,0	451,4	1.103.271,4	0,0	0,0	-49,9	-95,0
I. Ostalaritza	0,0	3,0	45,5	376.181,5	0,0	0,0		1.416,7
J. Informazio eta Komunikazio jard.	2.009,8	198.847,9	720,3	673.680,8	0,1	0,1	9.793,9	-99,6
K. Finantza jarduerak eta Aseguruetak	3.479,6	16.584,4	27.477,0	3.139.750,6	2,8	0,9	376,6	65,7
L. Higiezin jard.	140,0	1.500,4	75.350,3	1.787.110,6	7,7	4,2	971,7	4.922,1
M. Jard. profesionalak, zientif. eta tek.	5.797,2	2.103,0	45.316,1	606.983,4	4,6	7,5	-63,7	2.054,9
N. Administrazio jarduerak eta	5.551,5	45.478,4	5,2	425.722,8	0,0	0,0	719,2	-100,0

II.2.8. KOADROA. INBERTSIOA OSOA EAE-N*(ETA ESTATUAN EGINIKOAREKIKO ALDERAKETA), SEKTOREEN ARABERA (milaka €) (CNAE-09)

	2011	2012	2013	Estatua 2013p	Banaketa EAE	% Estat. ganean	%11-12	%12-13
zerbitzu lagungarriak								
O. Administ. Publikoa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	50,6	0,0	0,0		
P. Hezkuntza	0,0	0,0	3,0	55.467,6	0,0	0,0		
Q. Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetaoak	0,0	34.216,6	16,5	55.069,5	0,0	0,0		-100,0
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	0,0	202,9	8,0	974.214,9	0,0	0,0		-96,1
S. Beste zerbitzu batzuk	0,5	1.162,7	0,0	13.403,7	0,0	0,0	258.273,3	-100,0
T. Etxebizitzetako jarduerak	0,0	0,0	0,0	1,2	0,0	0,0		
U. Lurraldetik kanpoko erakundeen eta organismoen jarduerak.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
Inbertsioa guztira	528.149,9	427.454,3	984.083,2	15.814.304,7	100,0	6,2	-19,1	130,2

(*) Inbertsio osoa ABDE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

II.2.9. KOADROA. INBERTSIO OSOA EAE-N*(ETA ESTATUAN EGINIKOAREKIKO ERKAKETA, HERRIALDEKA (milaka €) (CNAE-09)

	2011	2012	2013	Estatua 2013p	Banaketa EAEn	% Estatuaren ganean	%11-12	%12-13
Inbertsioa guztira	528.149,9	427.454,3	984.083,2	15.814.304,7		6,2	-19,1	130,2
Inbertsioaren azken titularraren bizitokia dagoen herrialdea	ELGA.	341.642,6	374.459,8	916.600,8	14.284.514,7	93,1	6,4	144,8
	EB-15	167.920,9	277.343,8	874.894,9	11.517.820,7	88,9	7,6	65,2
	EB-27	167.931,9	277.825,9	874.976,9	11.633.680,2	88,9	7,5	65,4
	Ipar Amerika	171.784,6	15.787,6	24.040,3	1.411.787,3	2,4	1,7	-90,8
	Kanada	0,0	0,0	0,0	110.361,3	0,0	0,0	
	AEB	171.784,6	15.787,6	24.040,3	1.301.425,9	2,4	1,8	-90,8
	Latinoamerika	2.883,8	4.491,4	56.173,2	1.119.214,9	5,7	5,0	55,7
	Argentina	818,1	0,0	0,0	8.556,7	0,0	0,0	-100,0
	Brasil	3,0	1.162,7	3.644,5	178.288,9	0,4	2,0	38.656,0
	Txile	0,0	227,3	246,7	8.083,6	0,0	3,1	
	Mexiko	107,4	250,0	6.431,2	558.776,2	0,7	1,2	132,7
	Asia eta Ozeania	183.957,3	103.346,4	8.328,0	782.163,1	0,8	1,1	-43,8
	Txina	18,0	0,0	38,7	20.478,0	0,0	0,2	-100,0
	Arabiar Emirerriak	181.808,0	1.657,3	3,0	11.898,2	0,0	0,0	-99,1
	India	0,0	45.306,3	0,0	5.645,9	0,0	0,0	
	Japonia	240,0	0,0	0,0	262.911,9	0,0	0,0	-100,0
	Zeelanda Berria	0,0	56.379,8	0,0	18.289,6	0,0	0,0	
	Afrika	3,0	48,1	17.010,0	171.936,9	1,7	9,9	1.499,3
Paradisu fiskalak	185.595,1	3.222,7	1.184,7	575.412,1	0,1	0,2	-98,3	
Errusia	1,6	0,0	4,0	59.896,1	0,0	0,0	-100,0	

(*) Inbertsio osoa ABDE gabe. b-b: behin-behineko datuak.


Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

Euskal Inbertsioa atzerrian

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak kanpo utzita, hazi egin zen 2012. urtetik 2013. urtera bitartean, 408,5 milioi eurotik 1.120,8 milioi eurora. Estatukoa, bestalde, %2,7 hazi da, hots, 15.325 milioi eurotik 15.733,2 milioi eurora.

Atzerrian egindako inbertsioaren alorrean, EAEk hirugarren tokiya betetzen du autonomia erkidegoen hurrenkeran. Madrilek (10.766 milioi euro) eta Kataluniak (1.846,4) bakarrik gainditzen dute.

Hala, Estatuko datuaren gainean EAEk atzerrian eginiko inbertsioaren proportzioa hazi egin da: %2,7tik 2012 eta 2013 bitarteko %7,1era. Madrileko Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontaturik, %22,6rainokoa da, eta %7,4tik %22,6 horretara igo da 2012 eta 2013 bitartean.



* ABDEak kanpo utzita. Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa

II.2.10. KOADROA. ATZERRIAN EGINDAKO INBERTSIO GORDINA* AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA (mila eurotan)

	2009	2010	2011	2012	2013
Orotara	19.971.089,21	30.745.561,36	30.359.997,33	15.325.076,22	15.733.246,15
EAE	1.475.398,34	2.018.238,14	5.331.501,97	408.527,52	1.120.818,44
Andaluzia	385.094,22	708.851,63	876.585,95	124.398,23	232.415,74
Aragoi	48.589,18	153.468,35	145.539,74	184.946,83	18.164,77
Kantabria	4.572.933,35	1.486.571,17	4.980.455,37	1.604.328,11	441.131,76
Gaztela eta Leon	205.404,61	87.940,64	28.530,86	154.904,79	15.664,04
Gaztela-Mantxa	22.344,01	1.463,35	91.720,48	35.890,41	14.779,67
Katalunia	2.321.488,35	2.093.024,35	2.899.487,68	1.983.793,47	1.846.379,33
Ceuta eta Melilla				0,11	
Madril	7.970.930,48	20.953.062,86	14.502.522,13	9.783.088,19	10.766.070,14
Valentzia	1.616.721,89	1.790.765,29	425.824,27	249.657,66	102.866,04
Extremadura	870,95	2.202,43	1.213,33	2.256,51	1.228,47
Galizia	668.537,94	786.735,06	723.499,50	426.732,34	547.620,30
Balearrak	48.814,52	425.661,17	45.131,61	154.200,81	530.031,58
Kanariar Uharteak	29.957,58	3.863,82	3.819,33	16.311,40	1.111,68
Errioxa	154,75	4,81	2.135,30	10.855,89	0,00
Nafarroa	34.244,56	5.876,73	27.221,44	26.609,56	39.310,27
Asturias	550.390,83	224.944,69	216.033,57	147.006,28	54.764,67
Murtzia	19.213,65	2.886,87	58.774,80	11.568,11	889,25

(* Inbertsio osoa ABDE gabe.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

Sektoreen arabera, hauek nabarmentzen dira:

- Argindarraren hornidura, gasa, lurruna eta aire egokitua EAEn kanpoko inbertsioaren %58,5 eta Estatuak atzerrian eta sektore horren eginikoaren %59,3 dira.
- Finantzetako eta aseguru-takako jarduerak kanpoko herrialdeek EAEn eginiko inbertsioaren %22,3 eta Estatuak sektore horretan atzerrian eginikoaren %3,3 da.
- Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio materialen fabrikazioa EAEn inbertsioaren % 6,7 da eta Estatuak kanpoaldean eta sektore honetan egindakoaren % 14,2. Nabarmen hazi da aipaturiko epealdian.
- Eraikuntza EAEn inbertsioaren %4 eta Estatuak atzerrian sektore horretan eginikoaren %4,9 da.
- Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak deritzena EAEk kanpoan egiten duen inbertsioaren % 2,4, eta Estatuak kanpoan eta sektore honetan egindakoaren % 29.

Herrialdeen arabera, hauexek izan dira EAEn inbertsioaren helmuga nagusiak 2013an EB15ean: Erresuma Batua (612,9 milioi euro), Portugal (50 milioi euro) eta Frantzia (27,8 milioi). Eta eurogunetik kanpora: Mexiko (189,4 milioi euro) eta AEB (96 milioi).

II.2.11. KOADROA. INBERTSIO OSOA EAE-N* (ETA ESTATUAN EGINIKOAREKIKO ERKAKETA), SEKTOREEN ARABERA (milaka €) (CNAE-09)

	2011	2012	2013 b-b	Estatua 2013b-b	Banaketa EAEn (%)	% Estatuaren gainean	%11-12	%12-13
A. Nekaz., abeltz., basog. eta arrantza	0,0	256,9	6.578,2	17.401,4	0,6	37,8		2.460,2
B. Erauzketa industriak	0,0	2.458,2	0,0	398.759,0	0,0	0,0		-100,0
C. Elikadura, Edariak eta Tabakoa	0,0	0,0	0,0	182.561,8	0,0	0,0		
C. Ehungintza eta jantzigintza	0,0	0,0	0,0	725,1	0,0	0,0		
C. Larrugintza eta zapatagintza	0,0	0,0	0,0	80,0	0,0	0,0		
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu	0,0	0,0	0,0	30,0	0,0	0,0		
C. Papergintza eta arte grafikoen industria	0,0	0,0	0,0	55.252,5	0,0	0,0		
C. Kokea lortzeko eta petrolioaren fintzeko fabrikak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Ind. Kim. eta kautxu eta plast transf.	3.455,9	494,5	5.664,8	419.882,5	0,5	1,3	-85,7	1.045,5
C. Prod. Farmaze. Fabrik.	0,0	0,0	0,0	835.213,5	0,0	0,0		
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	24.477,8	5.663,6	14.324,0	719.127,3	1,3	2,0	-76,9	152,9
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik.	0,0	896,1	8.438,8	13.622,2	0,8	61,9		841,8
C. Prod. Informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik.	20.794,6	8.001,2	1.054,9	24.757,0	0,1	4,3	-61,5	-86,8
C. BESE makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	27.187,9	2.284,3	603,4	3.057,5	0,1	19,7	-91,6	-73,6
C. Ibilgailu motordunen eta beste garraio-mat. batzuen fabrik.	52.287,7	58.845,9	0,0	35.156,3	0,0	0,0	12,5	-100,0
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Beste manufaktura batzuk	2.000,0	9.439,0	23.275,1	614.391,2	2,1	3,8	371,9	146,6
C. Makineria-instala. Konponk.	0,0	0,0	0,0	84,8	0,0	0,0		
C. Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotuaren hornidura.	56.992,1	89.796,0	655.280,2	1.105.318,3	58,5	59,3	57,6	629,7
D. Ur hornidura, saneam. jarduerak, hondakinen kud. eta deskutsatzea	1,2	8,3	0,0	3.863,0	0,0	0,0	589,2	-100,0
F. Eraikuntza	12.066,7	28.753,9	44.317,2	899.362,3	4,0	4,9	138,3	54,1
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa	7.182,6	9.141,2	9.348,4	404.158,6	0,8	2,3	27,3	2,3
H. Garraioa eta biltegiak	0,0	0,0	0,0	1.108.018,1	0,0	0,0		
I. Ostalaritza	8.984,5	0,0	0,0	5.749,9	0,0	0,0	-100,0	
J. Informazio eta Komunikazio jard.	30.365,6	0,8	75.028,8	528.856,6	6,7	14,2	-100,0	9.378.500,0
K. Finantza jarduerak eta Aseguruetak	4.999.094,9	184.786,9	250.037,4	7.526.659,7	22,3	3,3	-96,3	35,3
L. Higiezin jard.	48.578,3	0,0	102,5	676.034,2	0,0	0,0	-100,0	
M. Jard. profesionalak, zientif. eta tek.	37.972,5	5.271,2	26.615,2	91.869,0	2,4	29,0	-86,1	404,9
N. Administ. jard. eta zerbitzu lagung.	17,6	2.429,6	149,5	50.543,2	0,0	0,3	13.704,8	-93,8
O. Administ. Publikoa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
P. Hezkuntza	0,0	0,0	0,0	989,3	0,0	0,0		
Q. Jarduerak sanitarioak eta gizarte zerbitzuak	0,0	0,0	0,0	4.061,8	0,0	0,0		
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	42,3	0,0	0,0	7.660,4	0,0	0,0	-100,0	
S. Beste zerbitzu batzuk	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
T. Etxebizitzeko jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
U. Lurraldetik kanpoko erakundeak eta organismoen jarduerak.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
INBERTSIOA GUZTIRA	5.331.502,0	408.527,5	1.120.818,4	15.733.246,2	100,0	7,1	-92,3	174,4

(* Inbertsio osoa ABDE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

II.2.2. KOADROA. EAE-K ATZERRIAREN EGINIKO INBERTSIO OSOA EAE-N* (ETA ESTATUAN EGINIKOAREKIKO ERKAKETA), HERRIALDEEN ARABERA (milaka €) (CNAE-09)

	2011	2012	2013 b-b	Estatua 2013b-b	Banaketa EAEn (%)	% Estatuaren gainean	%11-12	%12-13	
OROTARA INBERTSIOA	5.331.502,0	408.527,5	1.120.818,4	15.733.246,2		7,1	-92,3	174,4	
Inbertsioaren berehalako herrialdea	ELGA	4.606.367,8	306.427,5	1.046.470,2	12.148.968,3	93,4	8,6	-93,3	241,5
	EB-15	263.843,6	200.506,8	751.618,8	10.186.625,9	67,1	7,4	-24,0	274,9
	EB-27	314.608,6	229.728,8	755.194,5	10.465.021,1	67,4	7,2	-27,0	228,7
	Ipar Amerika	2.152,7	8.354,6	96.044,0	455.219,4	8,6	21,1	288,1	1049,6
	Kanada	0,0	2,3	0,0	109.310,3	0,0	0,0		-100,0
	AEB	2.152,7	8.352,4	96.044,0	345.909,1	8,6	27,8	288,0	1049,9
	Latinoamerika	345.342,7	121.613,0	247.340,5	3.278.151,2	22,1	7,5	-64,8	103,4
	Argentina	11.657,7	175,2	0,0	301.326,6	0,0	0,0	-98,5	-100,0
	Brasil	20.967,5	10.213,2	32.016,0	964.732,3	2,9	3,3	-51,3	213,5
	Txile	3.672,1	11,7	149,5	173.122,8	0,0	0,1	-99,7	1173,3
	Mexiko	83.497,6	45.350,7	189.350,0	462.316,1	16,9	41,0	-45,7	317,5
	Asia eta Ozeania	481.548,9	33.983,6	21.736,2	584.935,4	1,9	3,7	-92,9	-36,0
	Txina	433.611,5	15.375,7	155,7	200.594,6	0,0	0,1	-96,5	-99,0
	Hego Korea	23.635,9	10.086,6	3.036,8	3.036,8	0,3	100,0	-57,3	-69,9
	Arabiar Emirerriak	2.549,3	0,0	0,0	237,4	0,0	0,0	-100,0	
	India	4.262,4	6.896,6	4.416,6	39.696,6	0,4	11,1	61,8	-36,0
	Japonia	0,0	0,0	2.999,6	3.077,1	0,3	97,5		
Taiwan	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
Afrika	5.820,1	254,3	0,0	76.479,5	0,0	0,0	-95,6	-100,0	
Paradisu fiskalak	3.170,6	12.378,7	1.054,2	184.507,1	0,1	0,6	290,4	-91,5	

(* Inbertsio osoa ABDE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa

3. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK

3.1. KONTSUMO ONDASUN ETA ZERBITZUEN PREZIOAK


2013an, kontsumorako prezioek igoera txikiagoa izan dute nabarmen Euskadin, baina motelaldia agerikoa izan da bigarren zatian, zenbait prezio arauturen igoeraren eta 2012ko irailaren BEZaren igoeraren ondorioak ezeztatu ondoren. Igoera txiki hori are nabarmenagoa izan zitekeen, zeren eta petrolioaren prezioak urteko erdiko hiletakoak baino prezio handiagoak izan baitzuten.

II.3.1. KOADROA. KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKAPENA: URTEKO BATEZ BESTEKO ALDAKUNTZA TASAK.

	2009	2010	2011	2012	2013
GUZTIZKO INFLAZIOA (%100)	0,3	1,7	3,1	2,3	1,6
EZKUTUKO INFLAZIOA (%81,8)	1,1	0,7	1,8	1,5	1,6
- Landutako elikagaien KPI (%14,1)	1,2	0,7	3,8	3,3	3,1
- Industri Ondasunen KPI (%26,2)	-1,9	-0,2	0,7	0,3	0,5
- Zerbitzuen KPI (%41,5)	2,5	1,4	2,0	1,7	1,8
HONDAR-INFLAZIOA (%18,2)	-3,6	6,6	9,5	6,1	1,4
- Landu gabeko elikagaien KPI (%7,0)	0,2	0,2	1,5	2,7	3,7
- Energiaren KPI (%11,2)	-7,3	11,5	15,3	8,3	0,0

Iturriak: INE eta Eusko Jaurlaritzaren KOIUNTURAZ buletina.

II.3.1. GRAFIKOA. KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEA: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAK. EAE ETA ESTATUA.



Iturria: INE.

Inflazioa bultzatu dute produktu talde nagusi guztiek, izandako balio txikiagoek agerian utzi dutenez, ezkutuko inflazioaren ondorioz (energi produktuei eta elikagai freskoei dagokien zatia deskontatuta), nahiz hondar-inflazioaren eraginez (bi talde horiek izandakoa). Lehen kasuan, BEZaren igoeraren eragina desagertu izanagatik azaltzen da

neurri txikiago hori gehienbat. Zerbitzuen taldea izan zen onurarik handiena jaso duten taldeetako bat. Bestalde, landutako elikagaietan ere moteldu da igoera, lehengaiak merkatu izanaren ondorioz. Azkenik, energiakoak ez diren industri ondasunek nahikoa hazkunde txikiak izan dituzte, PIVE Planaren ondorioen onura jasota.

Nahiz eta prezioen jokabidearen joera azaldutakoa den, 2012an baino are joera txarragoa ageri da 2013an zenbait osagaitan; izan ere, ezkutuko inflazioa hamarren bat igo da, eta horren barruan, industri ondasunak nahiz zerbitzuak; eta

II.3.2. KOADROA. KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEA. EAE ETA ESTATUA.

	EAE						Estatua	
	Urteko b.b.			Abendua (urte artekoa)			2012ko ab.	2013ko ab.
	2011	2012	2013	2011	2012	2013		
Indize orokorra	3,1	2,3	1,6	2,4	2,7	0,6	2,4	0,3
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	2,2	2,7	2,9	2,5	3,4	0,8	2,1	1,2
Alkoholdu edariak eta tabakoa	9,7	5,8	6,0	3,9	5,8	5,1	4,2	5,6
Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,2	0,1	0,3	0,4	0,2	0,3	0,0
Etxebizitza	7,8	5,7	1,1	7,0	6,1	0,0	5,8	0,0
Etxeko tresnak eta zerbitzuak	1,5	1,1	2,0	1,3	2,6	-0,2	1,1	0,2
Zerbitzu medikoak eta osasuna	-0,6	-0,7	7,5	-2,2	3,9	9,2	-2,8	0,0
Garraioa	7,7	4,3	0,3	4,7	2,4	1,2	4,9	1,0
Komunikazioak	-0,8	-3,4	-4,3	-1,6	-2,8	-6,5	-1,6	-6,6
Aisialdia eta kultura	0,3	1,0	1,6	0,6	1,9	-0,8	1,3	-1,2
Irakaskuntza	1,3	2,8	3,0	1,3	3,4	2,5	2,8	1,9
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,7	1,0	1,1	1,1	1,1	0,7	1,2	0,2
Beste ondasun eta zerbitzu batzuk	2,7	2,4	2,1	2,4	3,6	0,5	2,7	0,3

Iturria: INE.

hondar-inflazioan, garrantzitsua da landu gabeko elikagaien puntuko igoera; kapitulu sentikorra da herritarren erosketetan.

KPIaren osagairik hegazkorreneri dagokienez, igoera txikiekin jarraitzen dute, baina urte arteko aldakuntzaren erritmoa handitu egin da energi produktuen prezioek urteko azken hileetan izandako igoeragatik. Bizkitartean, landu gabeko prezioek azken hiruhilekoan izan dituzten igoerarik txikienak dira 2011ko amaieratik.

KPI osatzen duten taldeek modu orokorrean izan dute eragina inflazioaren beheranzko bilakaeran; salbuespen bakarrak Botiken eta Alkoholdun Edari eta Tabakoaren taldeak dira, bietan urte arteko tasa nabarmenekin. Lehenbiziko kasuan, baterako ordainketa farmazeutikoa abiarazi izanak baldintzatu duen igoera, eta bigarreanean, berriz, tabakoaren gaineko zergen igoerak eragin du taldearen tasarako goranzko joera. Bi talde horiei irakaskuntzarena gehitu behar zaie, unibertsitateko tasen igoeragatik. Gainerako taldeetan, aldiz, %2tik beherako gehikuntzak daude; izan ere, horixe da Europako Banku Zentralaren erreferentziako helburua. Lau taldetan prezio jaitsierak izan dira. Horien artean, Komunikazioen taldea nabarmentzen da: prezioen jaitsiera handiak metatzen ditu, sektorearen lehia gogorragatik eta izandako aurrerapen teknologikoengatik.

Orotara, %0,6aren inguruan kokatzen da 2013an metaturiko inflazioa, hots, KPIaren urte arteko tasa abenduan, hain zuzen ere estatistika egiten hasi zenetik urtearen amaieran izan den ratorik txikiena. Bestalde, urteko batez besteko inflazioa %1,6 izan zen, bigarren txikiena 2009ko %0,3aren atzetik.

Bestalde, Europar Batasunaren Kontsumorako Prezioen Indize Bateratuaren ¹² (KPIB) abenduko datuek erakusten dutenez, %0,3ko igoera izan da Estatu osorako 2012ko abenduaren aldean, %+3 aurreko urtearekiko. EB28an, berriz, %1eko igoera izan da prezioetan, 2012ko abenduan baino 1,3 puntu gutxiago, eta euroguneko ratioa %0,8 izan da (%2,2koa 2012ko abenduan). Hori dela-eta, gure Erkidegoak %-0,2ko diferentzia du EBMren erreferentziaren aldean.

2013an, Batasuneko herrialdeen artean, prezioen igoera txikia gertatu da oro har. Izan ere, horietan guztietan aurreko urtean baino aldakuntza tasa txikiagoak daude, eta horietatik lauretan (Bulgaria, Grezia, Zipre eta Letonia) aldakuntza negatiboak dituzte prezioetan.

II.3.3. KOADROA. KPI: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAK. 2005EKO OINARRIA.

	2011ko ab.	2012ko ab.	2013ko ab.
EB28	3,0	2,3	1,0
EUROGUNEA	2,7	2,2	0,8
BELGIKA	3,2	2,1	1,2
BULGARIA	2,0	2,8	-0,9
TXEKIAR E.	2,8	2,4	1,5
DANIMARKA	2,4	1,9	0,4
KROAZIA	:	4,4	0,5
ALEMANIA	2,3	2,0	1,2
ESTONIA	4,1	3,6	2,0
IRLANDA	1,4	1,7	0,3*
GREZIA	2,2	0,3	-1,8
ESPAINIA	2,4	3,0	0,3
FRANTZIA	2,7	1,5	0,8
ITALIA	3,7	2,6	0,7
ZIPRE	4,2	1,5	-1,3
LETONIA	3,9	1,6	-0,4
LITUANIA	3,5	2,9	0,4
LUXENBURGO	3,4	2,5	1,5
HUNGARIA	4,1	5,1	0,6
MALTA	1,3	2,8	1,0
HOLANDA	2,5	3,4	1,4
AUSTRIA	3,4	2,9	2,0
POLONIA	4,5	2,2	0,6
PORTUGAL	3,5	2,1	0,2
ERRUMANIA	3,2	4,6	1,3
ESLOVENIA	2,1	3,1	0,9
ESLOVAKIA	4,6	3,4	0,4
FINLANDIA	2,6	3,5	1,9
SUEDIA	0,4	1,1	0,4
ERRESUMA BATUA	4,2	2,7	2,0

Iturria: EUROSTAT.

* Azaroko urte arteko datua.

3.2. KOSTUAK

a) Lan-kostuak

EAEko lan-kostuen adierazle batzuek zein bestek adierazten dutenez, azken urtean motelaldia egon da, Estatuan eta EB osoan bezala:

¹² Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du. Alderaketa homogeneo hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren %5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar). 2006an oinarriko urtea aldatu zen, 1996. urtetik 2005. urtera igaroz.

- Adierazleetatik lehenengoa indarrean dauden hitzarmenetan adostutako soldata hazkunderi buruzkoa da, eta berrikusitako soldaten hazkundera¹³ erakusten dute, %1,34koa 2013. urtean gure erkidegoan, 2012ko datua baino 0,77 puntu gehiago eta Estatuaren multzoan itundutakoak baino puntu bat gehiago, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren datuak gorabehera¹⁴.

II.3.4. KOADROA. LAN-KOSTUEN ADIERAZLE MAKROEKONOMIKOAK									
	EAE ¹			ORDAINSARIAK LANPOSTUKO (ALDAK. %.)				SOLDATEN IGOERA HITZARMENETAN ⁴	
	Soldatapekoen ordainsariak (milioi €)	Lanpostuak	Ordainsariak lanpostuko (€)	EAE ¹	Estatua ²	EB28 ³	EBM ³	EAE (ald. %)	Estatua (ald. %)
2008	33.140	982.441	33.732	5,5	5,3	0,7	3,3	5,01	3,60
2009	32.686	942.985	34.662	2,8	4,2	-1,0	1,6	2,67	2,24
2010	33.307	930.293	35.802	3,3	0,0	3,3	1,7	1,67	2,16
2011	33.343	921.487	36.184	1,1	2,7	2,2	2,0	3,03	2,29
2012*	33.103	896.213	36.936	2,1	-0,1	3,0	1,8	2,09	1,21
2013*	:	:	:	:	0,7	0,9	:	1,34	0,57


Iturriak: (1)EUSTATEN Hiruhileko Kontuak, 2010eko oinarria. (2) INEren Kontabilitate Nazionala. (3) EUROSTAT. (4) Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioa. Laneko Hitzarmen Kolektiboaren Estatistika. (*) Behin-behineko datuak.

- Beste adierazle bat Soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaria da. EUSTATEN Kontu Ekonomikoetan eta INEren estatistikan oinarrituta kalkulatzen den adierazleak erakusten duenez, ordainsari hori gure Erkidegoan %1,1 igo zen 2011n, eta %2,1, 2012an (behin-behineko datuak). Estatu osoan 2013an, berriz, %0,7 igo zen (Hiruhilekoko Kontabilitate Nazionalaren behin-behineko datuen arabera).

Bestalde, EUROSTATEk 2013rako emandako behin-behineko datuak erakusten dutenez, %0,9ko igoera izan da lanpostuko ordainsarietan EB28an (%+3 2012an). Eurogunean, berriz, %1,8ko igoera erakusten du 2012an, azken datu eskuragarriaren arabera.

- Lan-kostuen hirugarren adierazlea unekoa da; halaxe gertatzen da INEren “Lan-kostuaren Hiruhilekoko Inkesta”.¹⁶ Inkestako datuak erakusten dutenez, %1,7 egin zuten gora langileko lan-kostuak EAEn 2013. urtean (2012an baino puntu 1 gehiago). Estatu batez bestekoa, berriz, %0,2 jaitsi da.

II.3.2. GRAFIKOA. LAN-KOSTUEN HAZKUNDEA JARDUERA SEKTORERAKA EAE-N. €/ORDUA.



Iturria: INE. LKHI.

¹³ Babes klausulagatik soldata berrikuspenak jatorrian itundutako soldata hazkunderi eranstearen emaitza. Aintzat hartu behar da adierazle partziala dela, izan ere, batetik, azken urteotan batez besteko hazkunderi horiek adostu dituzten hitzarmenek soldatapekoen % 50 inguru estaltzen dute eta, bestetik, ordainsari hazkunderi heltzen diete, hau da, ez dute aintzat hartzen ezohiko orduen ordainketaren eragina, ezta lan egindako ordu kopurua ere, eta soldatakoak ez diren beste kostu batzuk ere ez ditu hartzen.

¹⁴ Urtean berrituriko hitzarmen kolektiboetan izandako soldaketa aldaketak baino ez dituzte biltzen zifra horiek. Informazio gehiago izateko, jo beza irakurleak Laneko Harremanen ataleko kapitulu honetara: “II.6.Lan-merkatua”.

¹⁵ Langileek euren zerbitzuak emateagatik jasotzen duten ordainketa osoa.Barnea hartzen ditu ekoizleek beren behargin eta enplegatuei egiten dizkieten soldata eta ordainsarien ordainketa guztiak, eta Gizarte Segurantzarako ekarpenak ere bai. Beste hainbat kontzepturen artean barnean hartzen ditu hobariak eta aparteko orduen, primen, gabonsarien, haborokinen eta kalte-ordainen ordainketak.

¹⁶ Inkesta hau oinarri hartuta, Lan Kostuaren Indize Harmonizatua lantzen da, hain zuzen ere EB osorako laneko kostuen neurri alderagarria.

Eurogunean, bestalde, %1,4 egin dute gora lan-kostuek 2013an (behin-behineko datuak). Aurreko urtean %1,4koa izan zen, EB-28koaren antzeko ratioak, EUROSTATen “Lan-eskuaren Kostuaren Indizea”ren arabera.

II.3.5. KOADROA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA JARDUERA SEKTOREEN ARABERA. €/URTE.

	ESTATUA				EAE			
	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2009	30.202	33.432	30.911	29.384	34.721	38.202	36.045	33.253
2010	30.324	34.187	30.945	29.435	35.215	39.086	35.932	33.725
2011	30.681	34.775	31.799	29.731	35.420	39.727	36.756	33.809
2012	30.483	35.438	32.266	29.353	35.655	40.173	35.698	34.131
2013	30.530	36.071	32.428	29.320	36.266	41.865	35.967	34.470
% 2011/12	-0,6	1,9	1,5	-1,3	0,7	1,1	-2,9	1,0
% 2012/13	0,2	1,8	0,5	-0,1	1,7	4,2	0,8	1,0

Iturria: INEren datuekin eginikoa. LKHI.

II.3.6. KOADROA. LAN-KOSTUEN BILAKAERA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA. LANGILEKO KOSTUA, €/ORDU


	ESTATUA				EAE			
	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2009	19,0	20,5	17,8	18,9	23,3	25,6	22,0	22,6
2010	19,1	20,7	17,8	19,0	23,4	25,7	22,1	22,7
2011	19,6	21,0	18,5	19,4	23,6	25,5	22,5	23,0
2012	19,5	21,5	18,9	19,2	24,1	25,8	22,0	23,7
2013	19,6	21,8	18,9	19,2	24,6	26,6	21,9	24,1
% 2011/12	-0,1	2,6	2,4	-1,0	2,4	1,2	-2,1	3,2
% 2012/13	0,5	1,3	0,1	0,3	1,8	3,0	-0,7	1,6

Iturria: INEren datuekin eginikoa. LKHI.

Jarduera sektoreen arabera, %0,8 egin dute behera kostuek EAEn eraikuntzan. Zerbitzuetan %1 (batez bestekoaren azpitik), industrian, berriz, gora egin dute (%4,2). Kopuru absolutuetan, 36.266€-koa izan da langileko kostu osoa batez beste 2013an, Estatuko batez bestekoa baino %19 gehiago.

Bestalde, lan egindako orduko guztizko kostuek %1,8 egin dute gora EAEn 2013an, 2012n baino %0,6 gutxiago. Estatuko batez bestekoa, berriz, %0,5 hazi da. Sektoreen arabera, %0,7 jaitsi da eraikuntzan. Zerbitzuetan, berriz, %1,6 hazi da, eta %3 industrian.

II.3.3. GRAFIKOA. LANeko KOSTUEN BILAKAERA LAN EGINDAKO ORDU BAKOITZEKO. EB, ESTATUA ETA EAE. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA %.



Iturria: INE eta EUROSTATen datuekin eginikoa.

b) Produktibitatea


Produktibitatea produkzioaren eta hura lortzeko erabilitako baliabideen arteko harremanean datzan kontzeptua da, eta garrantzitsua da ekonomia baten lehiakortasuna neurtzeko. Kontzeptu erraza da; aitzitik, kalkulua konplexua da, faktore erabakigarriak ugariak direlako (lan egiten duen biztanleriaren kualifikazioa, kapital ondasunen zuzkidura, baliabide hauen erabilera eraginkorra eta hura erakundeak, legezkoak, eta abarrekoak diren beste faktore batzuekin

konbinatuta erabiltzea). Hori dela eta, lanaren itxurazko produktibitatearen kontzeptuaren bitartez hurbilketa egiten da, hura ikuspegi ezberdinen bitartez neurtua.

Lehenik eta behin, laneko itxurazko ekoizpena, BPGaren bilakaeraren (2013. urtean % 1,2 erori zen) eta enpleguarenaren lanpostuetan neurtuta-arteko bilakaera gisa kalkulaturik (EUSTATen Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen arabera % 2,1 murriztu zena azken urtean), % 1 hazi zen kopuru errealetan aurreko urtearen aldean, hau da, aurreko urtean¹⁷ baino hamarren bat gutxiago.

Eraikuntzaren produktibitatea berreskuratu izanaren ondorioz egonkortu da EAEn laneko itxurazko produktibitatearen bilakaera azken hiru urtean; izan ere, %6,5 hazi da, eta batez bestekoaren oso gainetik hazi zen aurreko ekitaldian (%4,6). Zerbitzuen produktibitatea, berriz, pixka bat jaitsi egin da aurreko urtearen (%-0,1) eta industriakoa batez bestekoaren gainetik igo da (%+2,5).

II.3.4. GRAFIKOA. LANEKO PRODUKTIBITATE ERREALAREN ALDAKUNTZA EAE-N. %.



Iturria: EUSTAT. LKHI.


II.3.7. KOADROA. LANEKO ITXURAZKO PRODUKTIBITATEAREN BILAKAERA EAE-N

	PRODUKTIBITATE ERREALA (BOLUMEN KATEATUA)					PRODUKTIBITATE NOMINALA (OHIKO PREZIOAK)				
	Guztira	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Guzt.	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2008	1,1	-6,1	1,4	-1,1	1,4	2,1	-11,3	3,0	2,8	4,7
2009	0,1	-1,4	-2,9	0,5	1,0	-1,2	-9,0	-9,9	-2,5	3,3
2010	1,8	21,8	5,6	-1,0	0,5	3,1	1,7	8,0	0,8	1,0
2011	1,2	13,5	3,0	2,2	0,4	1,8	8,9	3,3	0,6	2,0
2012*	1,1	9,1	1,0	4,6	0,7	1,3	16,8	1,2	1,8	1,3
2013*	1,0	-2,4	2,5	6,5	-0,1	2,2	0,8	1,8	4,6	1,5

Iturria: EUSTATen Hiruhileko Ekonomi Kontuetako datuekin eginikoa.
(*) Behin-behineko datuak.

EAEko produktibitate errealearen hazkunde hori Europar Batasunean izandakoa baino handiagoa da (EBn behin-behineko datua %0,4 da, eta kapitulu hau bukatu den egunean, ez dugu eurogunerako datuaren berri, baina azken urteetan antzeko zifrak izan dira bi eremuetan), non, 2012an bilakaera laua izan ondoren, produktibitatea igoerarako joeran sartu dela baitirudi. Aldi berean, benetako tasa askoz handiagoa dago Espainiako Estatuan, %+1,8 behin-behineko datuen arabera, lanpostuen galera handiaren ondorioz.

II.3.5. GRAFIKOA. LANEKO PRODUKTIBITATE ERREALAREN ALDAKUNTZA EAE-N, ESTATUAN ETA EUROPAR BATASUNEAN



Iturria: Geuk eginikoa EUSTAT eta EUROSTATen datuekin.

¹⁷ Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATen datuetatik abiatuz kalkulaturik.

EAEk testuinguru europarrean duen kokaleku lehiakorralderatzeko aintzat hartu dezakegun beste produktibitate adierazle bat laneko produktibitatea da, BPGdaren (erosketa ahalmenaren parekotasuna gorabehera) eta enpleguaren arteko erlazio gisa kalkulaturik. Informazio erabilgarritasuna aintzat hartuta, alderaketak egiteko erraztasuna ageri du abantaila gisa, nahiz eta kasu honetan azterketa maila gorabehera egiten den eta ez bilakaera gorabehera.

Ratio hori aintzat hartuta, ikus daiteke EAE EBk 2012. urtean zuen batez bestekoaren gaitetik dagoela %28,5ean (2012arekin alderatuta %+1,3), Belgikaren mailaren parean, eta Luxenburgok eta Irlandak (%142,6) bakarrik gainditzen dute Batasunean (%167,8ko balioa dauka). Postu hori estatu espainiarrekoa baino askoz ere altuagoa da. Azken hori EBko batez bestekoaren %9 gaitetik dago, Holanda eta Finlandia bezalako herrien antzeko mailetan.

Era berean, adierazle horrek erakusten du EAEren posizio erlatiboak EBren barruan hobera egin duela aurreko urteen aldean (1995-2003 denboraldiko batez bestekoari erreparaturik gero, produktibitate erlatiboa EBren batez bestekoaren %125,7 zen), azken urtean puntu erdi jaitsi den arren.

Gainera, euskal produktibitatearen adierazle hori 2012an azken hamabi urteetako laugarren altuena da, eta 2011koaren gaineko hazkundea ez dator bat EBan pisua duten ekonomien jaitsierarekin: Alemania, Erresuma Batua, Frantzia eta Italia.

c) Unitateko lan-kostuak

Behin produktibitatearen eta lan-kostuen bilakaera ikusita, EAEko ekonomiaren Unitateko Lan-kostuak¹⁸ aztertuko ditugu.

2013rako behin-behineko datuek erakusten dutenez, igoera dago gure ekonomiaren ohiko ULKetan (%+0,7, eta 2012an, berriz, %-0,4), eta behera egin du eraikuntzan (%-5,7) eta gora industrian (% 1,7). Zerbitzuek, berriz, igoera dute ULKetan, %1,1. Aurreko urtean, aldiz, %0,3 hazi zen.


Europar Batasunean, lanpostuko soldatapekoen ordainsaririk kalkulaturiko UKLak %0,4 hazi dira 2013an (EB-28). Eurogunerako azken datua 2012. urteari dagokio: %+1,9. UKL erreala kontuan hartuz gero, negatiboa da EBrako datua 2013an, %-03 (%+0,5 eurogunean 2012an).

II.3.8. KOADROA. ENPLEGATUKO LANEKO PRODUKTIBITATEA, HERRIALDE ETA URTEKO (EB 27=100). (EROSTEKO AHALMENAREN PAREKOTASUNEAN)

	2010	2011	2012
EB 27	100,0	100,0	100,0
EB 28	99,8	99,9	99,9
ALEMANIA	106,0	107,1	106,2
AUSTRIA	115,7	115,8	115,2
BELGIKA	128,4	127,2	127,3
BULGARIA	40,6	42,7	44,3
ZIPRE	91,0	90,8	92,8
KROAZIA	75,2	77,4	80,2
DANIMARKA	113,1	111,5	111,4
ESLOVAKIA	81,1	79,8	80,7
ESLOVENIA	79,0	80,4	78,8
ESPAINIA	107,1	106,6	109,0
ESTONIA	68,5	69,0	68,7
FINLANDIA	108,8	108,3	107,6
FRANTZIA	116,2	116,4	115,1
GREZIA	92,4	89,2	91,7
HOLANDA	111,7	110,9	108,9
HUNGARIA	70,4	70,4	69,8
IRLANDA	137,6	142,7	142,6
ITALIA	110,0	108,8	107,0
LETONIA	53,7	62,3	64,0
LITUANIA	67,5	71,1	72,1
LUXENBURGO	167,0	168,8	167,8
MALTA	98,1	95,7	92,8
POLONIA	67,2	68,8	72,0
PORTUGAL	76,9	75,4	75,1
ERRESUMA BATUA	107,2	105,4	105,0
TXEKIAR E.	73,5	73,8	72,0
ERRUMANIA	48,5	49,3	50,1
SUEDIA	114,4	114,9	115,6
EAE	127,6	127,2	128,5
ESTATU BATUAK	147,5	147,9	146,8
JAPONIA	95,7	93,8	93,7

Iturria: EUROSTAT eta EUSTAT.

II.3.6. GRAFIKOA. UNITATEKO LAN-KOSTUAK: SOLDATAPEKOEN ORDAINSARITIK KALKULATURIKO URTEKO ALDAKUNTZA.



Iturria: EUSTAT eta EUROSTATen datuekin eginikoa.

¹⁸ Unitateko Laneko Kostu (ULK) korronea zera da: soldatapeko bakoitzaren laneko kostuaren eta okupatu bakoitzeko produktibitatearen arteko ratioa. ULK erreala zatidura berdin hori da, nahiz eta deflatoea aplikatzearen bitartez "prezioen eragina" ezabatuta. Epigrafe honetan aztertzen dena adierazle hauen urteko aldakuntza da, Estatu eta Europako batez bestekoaren aldean.

Bitartean, Estatuan, 2011n %1eko aldakuntza negatiboa egon da, eta -%3,0koa 2012an (eskuragarri dugun azken datua). Ratio errealak kontuan hartzen baditugu, %-1 eta %-3 dira hurrenez hurren 2011 eta 2012. urteetarako. EUROSTATEk, era berean, Espainiaren KLU ematen du 2013rako (behin-behineko datua): %-2,3.

Emaizta hauek alderatzen baditugu ULK errealekin gure Erkidegoko soldatapekoen Ordainsaritik abiatuz, eta 2013rako daturik ez dagoen arren, 2008an ikus zitekeen jada balio positiboko joera aldaketa (+%3,5), eta %3,8 2009an, grafikoan ikusten den bezala. Hala ere, 2010ean, behin-behineko datuekin, adierazle horrek nabarmen egin du behera, %0,7ra arte, eta negatiboa da 2012an, %-2, behin-behineko datuekin.

II.3.9. KOADROA. EAE-KO ALEKO LANEKO KOSTUAK: URTEKO ALDAKUNTZA								
	LANEKO KONSTUEN ALDAK.		PRODUKTIBITATEAREN ALDAK.		K. KORRONTEEN ALDAK.		K. ERREALEN ALDAK.	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
GUZTIRA	0,7	1,7	1,1	1,0	-0,4	0,7	-0,6	-0,5
INDUSTRIA	1,1	4,2	1,0	2,5	0,1	1,7	-0,1	2,4
ERAIKUNTZA	-2,9	0,8	4,6	6,5	-7,5	-5,7	-4,7	-3,8
ZERBITZUAK	1,0	1,0	0,7	-0,1	0,3	1,1	-0,3	-0,5


Iturria: EUSTAT eta INEREN DATUEKIN EGINIKOA.

3.3. ERRENTAK

a) Errenten banaketa faktoriala

Gure ekonomian sortutako balio erantsia banatu egiten da hasiera batean hura soldatapeko lanaren ordainsari gisa, soldatapekoa ez den lanaren eta kapitalaren Ustiapenaren soberakin oso gisa, urte osoan zeharreko produktibitate

II.3.6. GRAFIKOA. FAKTOREEN ERRENTAREN EHUNEKOEN BANAKETAREN BILAKAERA EAEN



Iturria: EUSTATen datuekin eginikoa. Ekonomi Kontuak.

taldearen balio galeraren balioagatiko Kapital Finkoko Kontsumo gisa eta, azkenik, produkzioari eta inportazioari dagozkion zerga gisa –Administrazio Publikoari dagozkionak– sortzen lagundu duten faktore produktiboaren artean. Bigarren maila batean, errenta hori banatu egiten da pertsona eta familia ezberdinen artean, faktore produktibo hauetako partaidetza eta eskuratutako errenta ezberdinak gorabehera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, EUSTATen “*Ekonomi kontuek*” erakusten dutenez, PBGren ohiko prezioetan %1,5eko jaitiera erreferentziatzat hartuta 2012an (behin-behineko datuak), zerga garbiak %2,5 murriztu dira, soldatapekoen errentak %0,7 egin du behera, kapital finkoaren kontsumoa %3,1 igo da eta ustiapenaren soberakin garbia, azkenik, %3,6 jaitsi da aurreko urtean %5,3 hazi ondoren.

II.3.10. KOADROA. EAE-KO ERRENTAREN BANAKETA, ESTATUA ETA EUROGUNEA

	Milioi eurotan				% bertikala			% urteko aldakuntza		
	2009	2010	2011	2012p	2010	2011	2012	09/10	10/11	11/12
EAE										
1. Soldatapekoen ordainsariak	32.686	33.307	33.343	33.103	51,1	50,8	51,2	1,9	0,1	-0,7
2. Ustiapen soberakin garbia	20.481	20.310	21.378	20.611	31,2	32,5	31,9	-0,8	5,3	-3,6
3. Kapital finkoaren kontsumoa	5.268	5.584	5.448	5.617	8,6	8,3	8,7	6,0	-2,4	3,1
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	5.554	5.920	5.515	5.375	9,1	8,4	8,3	6,6	-6,8	-2,5
BPG MERKATUKO PREZIOAK	63.989	65.120	65.684	64.706	100,0	100,0	100,0	1,8	0,9	-1,5
ESTATUA										
1. Soldatapekoen ordainsariak	524.658	514.824	510.968	482.607	49,2	48,8	46,9	-1,9	-0,7	-5,6
2. + 3. Ustiapen soberakin gordina / Errenta misto gordina*	445.148	436.902	445.104	452.417	41,8	42,5	44,0	-1,9	1,9	1,6
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	77.088	93.894	90.255	94.255	9,0	8,6	9,2	21,8	-3,9	4,4
BPG MERKATUKO PREZIOAK	1.046.894	1.045.620	1.046.327	1.029.279	100,0	100,0	100,0	-0,1	0,1	-1,6
EUROGUNEA										
1. Soldatapekoen ordainsariak	4.440.110	4.501.924	4.620.889	4.670.809	49,2	49,0	49,3	1,4	2,6	1,1
2. + 3. Ustiapen soberakin gordina / Errenta misto gordina*	3.487.627	3.629.246	3.734.377	3.709.650	39,6	39,6	39,1	4,1	2,9	-0,7
4. Diru-laguntzen zerga garbiak	978.339	1.022.057	1.069.011	1.103.103	11,2	11,3	11,6	4,5	4,6	3,2
BPG MERKATUKO PREZIOAK	8.906.472	9.153.227	9.424.277	9.483.562	100,0	100,0	100,0	2,8	3,0	0,6

Iturria: EUSTAT "Ekonomi kontuak (2000ko oinarria)", INE "Espainiako Kontabilitate Nazionala" eta EUROSTAT.

* Ustiapen soberakin gordina edo errenta misto gordina soberakin garbiaren eta kapital finoko kontsumoaren arteko batura da. EAEn dagokionez, EUSTATEk bi aldagaia ematen ditu, baina ez EUROSTATEk ez INEk eurogunerako eta Estaturako

Bilakaera hori kusita, soldatapeko laneko errentak 2012an BPGdaren %51,2 dira, aurreko urtean baino 4 hamarren gutxiago. Ustiapeneko soberakin garbia, berriz, %31,9 da (BPGdaren gaineko pisua 0,6 puntu galdu du) eta kapital finkoaren kontsumoa %8,7, aurreko urtean baino 4 hamarren gutxiago. Horrela, Ustiapeneko soberakin gordina, magnitude bi horien batura, BPGdaren %40,5 da. Produktzioaren eta inportazioaren gaineko zergei dagokienez, ken produktio sektoreei emandako diru-laguntzak kenduta, PBGan duen proportzioa hamarren bat gutxitu da, hots, haren %8,3

Errenten bilakaera hori Estatukoekin alderatuta (BPG %1,6 jaitsi da Estatuan 2012an) ikus daitekeenez, aurten soldaten errentek askoz proportzio handiagoan egin dute behera, %5,6. Hala ere, kontuan hartu behar da INEren kontabilitateak jaitsiera ezarri diola Euskadiri soldatapekoen ordainsarian, EUSTATena baino askoz handiagoa (%-5,8 bata eta %-0,7 besteak), Estatu bategi bestekoaren ildotik. Esana dugunez, %-5,6 da Estatuan.

Halaber, ustiapenaren soberakinaren eta errenta mistoaren batura jaitsi egin da EAEn, %2,2. Espainian, berriz, %1,6 igo. Diru-laguntzen zerga garbiei dagokienez, PBGaren proportzioa handiagoa da Estatuan (%9,2) EAEn baino (%8,3), eta bilakaera ezberdina dute 2011rekiko: EAEn %2,5 jaitsi dira eta Estatuan %4,4 igo.

Eurogunean, EAEna eta Estatuarena ez bezalako bilakaera dute aztergai izan diren bi faktoreek. Izan ere, positiboa da BGGaren aldakuntza nominala, %0,6 hazi baita (aurreko urtean %+3). Soldatapekoen ordainsariei %1,1 egin dute gora. Ustiapenaren soberakin gordinak edo errenta misto gordinak %0,7 egin du behera. Aldi berean, zerga garbiak %3,2 jaitsi dira.

b) Errenta biztanleko

Lehenik eta behin, INEk urtero egiten duen "Espainiako Eskualde Kontabilitatea" deritzonari esker, Autonomia Erkidegoaren eta probintzien maila zein den jakin daiteke, eta "Familien errenten kontuek", berriz, termino agregatuetan nahiz per kapitakoetan.

EAEko familiek izan zuten errenta eskuragarri gordinik handiena biztanleko, 20.058 euroekin, aurreko urtean baino %0,2% gutxiago eta Estatu bategi bestekoa baino %33,8 gehiago; guztira, 14.882€ (era berean, behera egin du 2011n, %0,1 kasu honetan). Gure Erkidegoaren atzetik, Nafarroa, Madril eta Katalunia daude estatuko rankinean.

Lurraldeka, per capita errenta gordin eskuragarri handiena Arabako eta Gipuzkoako familiei dagokie (21.762 eta 20.791 euro hurrenez hurren). Bizkaiak, berriz, batez besteko 19.150€-ko errenta edukita, hirugarren postuan dago, Nafarroako Erkidegoko batez bestekoaren azpitik.

Bestalde, EUSTATEk foru aldundien laguntzaz bi urterik behin egiten duen “**EAEko errenta pertsonal eta familiarri buruzko estatistikak**” erakusten duenez, 2011n, informazioa dugun azken urtea, **batez besteko errenta pertsonala** 19.715 eurokoa zen, 2009an baino % 0,4 gehiago.


Lurraldean arabera, Gipuzkoak du errenta pertsonalik handiena, 20.396€ (2009an baino %0,6), eta ondoren Araba, 20.148€ (%+2,5) eta Bizkaia (19.187€, 2009koaren aldean jaitsi den bakarra, % 0,3).

Errenten jatorriari dagokionez, %62,7 (2009ko ratio bera) lanetikoa da, %7,3 higigarrien kapitalekoa eta %1,8 higiezinena. Bestalde, errenten %4,4aren jatorria jarduera ekonomikoren bat da, eta %23,7 transferentziak. Bestalde, errenta eskuragarria, hain zuzen ere PFEZaren ordainketak eta langilearen pentzurako gizarte kotizazioak guztizko errentatik deskontatuzetik lortzen dena, 16.711€ da 2011n, 2009an baino %0,6 gutxiago, eta familien guztizko errentaren %84,8 da.

II.3.11. KOADROA. FAMILIEN ERRENTA ESKURAGARRI GORDINA, PER CAPITA. EUROTAN ADIERAZIA. 2008KO OINARRIA					
	2009	2010	2011 (b-b)		
			Balioa (€)	Indizea Espainian = 100	Aldakuntza tasa 2010-11
ANDALUZIA	12.644	12.047	12.011	80,1	-0,6
ARAGOI	17.269	16.661	16.763	111,8	0,0
ASTURIAS	15.827	15.429	15.732	104,9	1,5
BALEAR (ILLES)	15.835	15.108	15.047	100,4	-0,5
KANARIAK	12.783	12.448	12.534	83,6	0,7
KANTABRIA	15.896	15.100	15.136	101,0	-0,1
GAZTELA ETA LEON	15.601	15.176	15.345	102,4	0,5
GAZTELA-MANTXA	12.942	12.521	12.570	83,8	-0,2
KATALUNIA	17.661	17.093	17.147	114,4	0,0
VALENTZIAKO E.	13.795	13.371	13.334	88,9	-0,9
EXTREMADURA	11.841	11.541	11.508	76,8	-0,8
GALIZIA	14.554	14.131	14.233	94,9	0,5
MADRIL	18.643	17.870	17.989	120,0	0,1
MURTZIA	12.882	12.446	12.198	81,4	-2,4
NAFARROA	19.503	19.089	19.167	127,8	0,1
EAE	20.416	20.034	20.058	133,8	-0,2
Araba	21.567	20.840	21.762	145,2	4,5
Bizkaia	19.896	19.455	19.150	127,7	-2,2
Gipuzkoa	20.756	20.623	20.791	138,7	0,7
ERRIOXA	16.532	15.977	16.302	108,7	1,2
CEUTA	15.053	14.163	13.790	92,0	-2,8
MELILLA	13.770	12.812	12.420	82,8	-2,5
GUZTIRA	15.488	14.959	14.882	100,0	-0,1

Iturria: INE. Espainiako Eskualde Kontabilitatea. 2008ko oinarria.

II.3.8. GRAFIKOA. EAE-KO BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALAREN BILAKAERA, ERRENTA MOTEN ARABERA (EUROAK)



Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonal eta familiarri buruzko estatistika.

4. SEKTORE PUBLIKOA

Lehenik eta behin agerrarazi behar dugu kapitulu hau ixtean, 2014ko ekainaren 16an, ez dugula EAEko sektore publikoaren 2013ko laugarren hiruhilekoko aurrekontuaren betearazpenari buruzko informaziorik eta, beraz, ez dugu EAEko sektore publikoak 2013ko ekitaldian izan dituen magnitude ekonomiko nagusien bilakaeraren jarraipen zuzena egiterik.

Betearazpenari buruz eskuragarri ditugun ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoetako datuekin, lehenik eta behin esan behar dugu ezen, 2012an sarrera publikoetan %0,1eko hazkunde txikia izan ondoren, 2013ko irailean %2,7 egin zutela behera (2012ko irailaren aldean), gehienbat zuzeneko eta zeharkako zergen ondoriozko sarreraren igoerak ez dituztelako konpentsatu sarrerako gainerako kapituluaren jaitsierak, finantza pasiboak barne (-%12,6), Eusko Jaurlaritzaren zorpetze txikiagoarekin lotuta.

EAEko sektore publikoaren guztizko gastua, bestalde, %0,4 murriztu da 2012ko hirugarren hiruhilekoaren aldean. Gastuak behera egin du Eusko Jaurlaritzan (-%3,9) eta foru aldundietan (-%2,8), eta neurri txikiagoan izan da negatiboa agregatuaren aldakuntza (-%0,4), zeren eta partidetako zenbait erakunderen artean konpentsatzen baitira (transferentzien zati bat, adibidez).

Sarreraren eta gastuaren bilakaeraren ondorioz, %25,3ko jaitsiera izan da aurrezpen publikoan, eta aldi berean, superabit bihurtu da 2012ko defizit publikoa (finantzazio gaitasuna) 2013ko irailaren 30ean, guztira 673,3 milioi eurokoa.

Bestalde, EAEko sektore publiko osoaren zorpetze garbia (tokiko erakundeak alde batera utzita) %1 murriztu da azken urtean (2013ko iraila 2012ko irailaren aldean), eta zor bizia 9.247,8 milioi eurokoa da aldiaren amaieran.

4.1 SARRERAK

II.4.1. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. MILA EURO.

	OROTARA 2012			2013KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA			2012.III-2013.III aldak. %		
	EJ	FF.AA.	ESP.	EJ	FF.AA.	ESP.	EJ	AA.FF.	ESP.
Zuzeneko zergak	-	5.843.583	5.843.583	-	4.364.841	4.364.841	-	1,2	1,2
Zeharkako zergak	2.476	5.813.085	5.815.562	1.391	4.029.647	4.031.037	73,2	2,5	2,6
Tasak eta bestelako sarrerak	180.245	567.347	747.591	70.676	243.121	313.797	22,0	-47,1	-39,4
Transferentzia arruntak	8.423.796	361.559	570.791	5.924.737	202.168	850.111	-8,6	19,1	-7,5
Ondare sarrerak	165.032	13.399	178.430	41.474	2.018	43.492	-61,1	-58,6	-61,0
Inbers. errealean besterentzea	71.952	1.476	73.428	13	453	467	.	-65,0	-88,7
Kapital transferentziak	371.590	26.452	388.136	180.993	15.277	190.691	72,2	-30,7	53,6
FINAN. EZ SARRERAK GUZTIRA	9.215.091	12.626.899	13.617.522	6.219.284	8.857.524	9.974.436	-8,0	5,7	-1,3
Finantza aktiboen aldak.	48.738	12.500	61.237	23.929	1.692	25.621	57,9	-96,2	-57,5
Finantza pasib. aldak. (zorra)	1.084.420	348.570	1.432.990	693.978	262.340	956.318	-17,7	4,7	-12,6
FINAN. SARRERAK GUZTIRA	1.133.158	361.070	1.494.228	717.908	264.032	981.939	-16,4	-10,7	-14,9
SARRERAK GUZTIRA	10.348.249	12.987.969	15.111.750	6.937.192	9.121.556	10.776.375	-8,9	-0,8	-2,7
SARRERAREN % / BPG	15,99	20,07	23,35						

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika.

Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailaren "Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika"ren datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek likidaturiko guztizko sarrerak, 2013ko irailean, 10.776 milioi euro ziren, zeren eta memoria hau ixtean ez baitugu urteko laugarren hiruhilekoko aurrekontuaren betearazpenari buruzko datuen berri. %2,7ko jaitsiera izan dute aurreko urteko une beraren aldean (2012ko ekitaldi osoan %0,1 hazi zen), gehienbat zuzeneko eta zeharkako zergen ondoriozko sarreraren igoerak (%1,2 eta %2,6koak hurrenez hurren) ez direlako gai izan sarrerako gainerako kapitulu guztietan izandako jaitsiera handiak konpentsatzeko. Bi partidek Euskal Sektore Publikoaren diru-sarreraren % 78 biltzen dute.

Era berean, finantza pasiboan bariazioan % 12,6ko jaitsiera izan zen, Eusko Jaurlaritzaren 2012ko iraileko zorpetze handiagoarekin lotuta (Foru Aldundientzat ratioa negatiboa baita: +%4,7).

II.4.2. KOADROA. FORU ALDUNDIAK: ITUNDUTAKO ZUZENENKO ETA ZEHARKAKO ZERGENGATIKO DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. MILA EURO

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		FF.AA. GUZTIRA	
	ZUZENENKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENENKOAK	ZEHARK.	ZUZENEK.	ZEHARK.	ZUZENENKOAK	ZEHARKAKOAK
2009	859.496	878.854	2.891.913	2.665.840	1.641.350	1.753.711	5.392.759	5.298.405
2010	855.962	1.048.586	2.823.317	3.213.485	1.579.155	2.069.443	5.258.435	6.331.514
2011	867.029	952.926	3.103.477	2.882.984	1.673.654	1.890.671	5.644.160	5.726.581
2012	843.440	927.322	3.121.454	2.825.398	1.733.893	1.847.009	5.698.787	5.599.729
2013	840.168	945.347	3.191.198	2.965.556	1.761.697	1.934.547	5.793.064	5.845.450
% 11/12	-2,7	-2,7	0,6	-2,0	3,6	-2,3	1,0	-2,2
% 12/13	-0,4	1,9	2,2	5,0	1,6	4,7	1,7	4,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN (Ogasun eta Finantza Saila) datuekin eginikoa.

Jaitsiera gertatu da Eusko Jaurlaritzan nahiz foru aldundietan, baina neurri desberdinean: Eusko Jaurlaritzaren beherakada handiagoa izan da, %8,9koa, gehienbat transferentzia arrunten eta ondare-sarrerren jaitsieragatik. Foru aldundietan, berriz, sarrerak batez bestekoa baino gutxiago murriztu dira (-%0,8, finkaturiko guztizkoaren -%2,7aren aldean), gehienbat zerga itunduengatik bilketaren susperraldiatatik; izan ere, 2013ko urteko guztizko datuen berria izan dugu.


Zerga itunduengatik bildutakoa 2013an:

Zuzeneko eta zeharkako sarrerren multzoa eta guztizkoaren %90 baino gehiago da zerga itunduengatik bildutakoa eta kopuru horrek, behin-behineko datuekin, %3ko gehikuntza izan zuen 2013an, noiz-eta aurreko urtean %0,6 murriztu zirenean.

Osotasunean ikusten denez, aurreko ekitaldian ez bezala, bilakaera positiboa dago zeharkako zergan (+%4,4) zuzenekoan baino (+%1,7). Eta lurraldez lurralde, nolabaiteko ezberdintasuna antzematen da, zeren eta zuzeneko bilketa negatiboa izan baita Araban (-%0,4) eta zeharkakoa, berriz, positiboa (+%1,9%), baina Bizkaian (+%5) eta Gipuzkoan (+%4,7) baino neurri txikiagoan.

Zuzeneko zergetan aurreko urtean baino %1,7 gehiago bildu zen 2013an (2012an %1 hazi zen), PFEZaren joera negatiboa izanik ere (-%1,5), hain zuzen ere zuzeneko beste zerga batzuegatik hala nola Sozietateen gaineko zergagatik (+%7,5) eta Ondarearen gaineko Zergagatik (+%19,6). Era berean, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergak bilakaera positiboa izan du, eta hain zuzen %17,7 hazi da haren bilketa.

II.4.1. GRAFIKOA. EUSKO SEKTORE PUBLIKOAREN SARRERAK: ZERGA NAGUSIENGATIKO BILKETAREN BILAKAERA (MILA €)



Iturria: Euskoko Jaurlaritzaren datuekin eginikoa (Ogasun eta Finantza Saila)

II.4.3. KOADROA. EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOA. (MILA EURO)

	EAE 2012	2013				2011-12ko aldak. %	2012- 13ko aldak. %
		AFA	BFA	GFA	EAE		
ZEHARKAKO ZERGAK	5.698.787	840.168	3.191.198	1.761.697	5.793.064	1,0	1,7
PFEZ	4.329.195	643.243	2.219.846	1.401.903	4.264.991	0,2	-1,5
- Laneko atxik. eta jard. prof.	4.404.481	664.854	2.265.408	1.395.230	4.325.492	-1,0	-1,8
- Kapital higigarrien etekinen atxikip	241.769	29.155	115.948	69.925	215.028	11,0	-11,1
- Kapital higiezinaren atxikip	87.749	10.160	49.251	26.770	86.181	3,0	-1,8
- Ondare-irabazien atxikipenak	20.110	1.906	13.016	14.753	29.674	36,1	47,6
- Profes. eta enpr. ordainketa zatituak	151.589	25.429	63.555	54.877	143.862	-1,9	-5,1
- Kuota diferentzial garbia	-576.503	-88.261	-287.333	-159.653	-535.246	3,8	7,2
SOZietateen GAINeko ZERGA	1.131.784	160.814	796.428	259.695	1.216.937	-2,5	7,5
EZ-EGOILARREN GAINeko ZERGA	32.787	3.747	33.934	5.453	43.135	-60,1	31,6
ONORD ETA DOH. GAINeko ZERGA	89.532	11.831	55.741	37.844	105.417	16,1	17,7
ONDAREAREN GAINeko ZERGA	115.490	16.555	72.811	48.710	138.076	-	19,6
Energ. elek. ekoizp. gaineko zerga	-	3.978	12.438	8.092	24.508	-	-
ZEHARKAKO ZERGAK	4.617.351	945.347	2.965.556	1.934.547	5.845.450	-3,6	4,4
BEZ	4.038.258	694.431	2.171.434	1.412.822	4.278.687	-1,4	6,0
- Kudeaketa propioa	2.962.490	509.530	1.593.263	1.036.641	3.139.434	-4,4	6,0
- Doikuntza	1.075.769	184.431	578.171	376.181	1.139.253	7,8	5,9
OEZ	79.899	8.939	34.114	25.835	71.889	-18,9	-10,0
EJDZ	41.308	6.790	16.689	14.987	38.466	-29,4	-6,9
GARRAIOEN GAINeko Z.B.	17.350	2.077	6.919	4.649	13.645	-29,9	-21,4
FABRIKAZIOAREN Z.B. GUZT.	1.393.919	220.643	689.934	448.899	1.359.475	0,9	4,5
ASEGURU-PRIMEN GAINeko ZERGA	73.818	10.476	37.241	23.303	71.019	-4,6	-3,8
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	109.708	11.898	63.604	38.101	113.602	-0,4	3,5
JOKO TASAK	49.102	6.328	28.374	14.033	48.735	-9,2	-0,7
ERREKARGUAK, BERAND ETA ZEHAP	60.606	5.570	35.229	24.069	64.868	8,1	7,0
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA	11.408.224	1.797.413	6.220.358	3.734.345	11.752.116	-0,6	3,0

Iturria: Ogasun eta Finantza Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Hala eta guztiz ere, EAEko zuzeneko zerga-bilketaren %73,6 da PFEZ, eta hurrengoa Sozietateen gaineko Zerga da garrantzi ordenan: %21 da.

II.4.4. KOADROA. EAE-KO FORU ALDUNDIEN ZERGA ITUNDUENGATIKO ZERGA-BILKETAREN BILAKAERAREN AZTERKETA

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
ZENBATEKOA (MILA EURO)							
Zuzeneko zergak	6.706.737	6.601.180	5.392.758	5.258.435	5.644.160	5.698.787	5.793.064
Zeharkako zergak	6.946.919	6.119.330	5.298.405	6.331.514	5.726.581	5.599.729	5.845.450
Tasak eta beste batzuk	118.466	113.689	100.914	110.058	110.172	109.708	113.602
ZERGA-BILKETA GUZTIRA	13.772.123	12.834.199	10.792.077	11.700.007	11.480.913	11.408.224	11.752.116
URTEKO ALDAKUNTZA (%)							
Zuzeneko zergak	17,2	-1,6	-18,3	-2,5	7,3	1,0	1,7
Zeharkako zergak	3,3	-11,6	-13,4	19,5	-9,6	-2,2	4,4
Tasak eta beste batzuk	14,3	-4,0	-11,2	9,1	0,1	-0,4	3,5
ZERGA-BILKETA GUZTIRA	9,7	-6,8	-15,9	8,4	-1,9	-0,6	3,0
INDIZE ZENBAKIAK (2007=100)							
Zuzeneko zergak	100,0	98,4	80,4	78,4	84,2	85,0	86,4
Zeharkako zergak	100,0	88,1	76,3	91,1	82,4	80,6	84,1
Tasak eta beste batzuk	100,0	96,0	85,2	92,9	93,0	92,6	95,9
ZERGA-BILKETA GUZTIRA	100,0	93,2	78,4	85,0	83,4	82,8	85,3

Iturria: Ogasun eta Finantza Sailaren datuekin eginikoa. EUSKO JAURLARITZA.

Zeharkako zergei dagokienez, horietan ere bilakaera positiboa izan zen 2012koaren aldean (urte horretan %3,6 egin zuen behera egoera ekonomikoagatik), eta %4,4ko gehikuntzarekin bukatu zuen 2013. urtea. Kudeaketa propioko BEZa %6 hazi zen, eta gauza bera gertatu zen Administrazio Zentralak egiten duen BEZaren doikuntza (+%5,9), halako moldez non zerga horretan bildutakoak %1,4 egin baitzuen behera 2012an, zerga-tasa igo bazen ere: %6ko gehikuntza. Hori guztia dela-eta, zeharkako zergetatik bildutakoaren %73,2 da zerga hori.

Labur adieraztearren, bildutako bolumen osoa 11.752 milioi eurokoa da. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko BPG arruntaren % 17,6 izan zen 2013. urtean (2012an % 17,6). Bildutako diruaren %36,3 PFEZari dagokio, %36,4 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne eragiketengatik eta aduanengatik doikuntza), %10,4 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, %16,9, zenbait zerga bereziri.

II.4.5. KOADROA. GASTU FISKALAK ZERGA ITUNDUENGATIK. MILA EURO.							
	2009	2010	2011				ALDAK. % 2009/10
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	
PFEZ	2.491.186	2.365.004	330.722	1.136.901	678.443	2.146.066	-9,3
Ondarearen gaineko Z.	-	50.620	-	-	-	-	-
Sozietateen gaineko Z.	569.416	524.932	66.917	207.838	151.696	426.451	-18,8
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	3.060.602	2.940.556	397.639	1.344.739	830.139	2.572.517	-12,5
BEZ	3.282.144	2.499.025	565.863	1.693.543	1.112.842	3.372.248	34,9
OEEJZ	119.851	88.368	52.863	27.067	22.654	102.584	16,1
Garraioen gaineko Z.B.	7.809	5.941	922	3.377	1.864	6.163	3,7
Fabrikaz. gaineko Z.B.	194.550	250.905	38.430	115.016	75.579	229.025	-8,7
Hidrokarb. salm. zerga	3.468	3.451	206	3.072	366	3.644	5,6
Aseguru primen zerga.	20.900	19.212	3.345	10.011	6.578	19.934	3,8
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	3.628.722	2.866.902	661.629	1.852.086	1.219.883	3.733.598	30,2
OROTARA	6.689.324	5.807.458	1.059.268	3.196.825	2.050.022	6.306.115	8,3

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOARAKO ORGANOAREN datuekin egina.

Sarreraren murrizpena dakarten partidei dagokienez, aurrekontuaren arabera 2011rako gastu fiskala¹⁹ -urte hori baita informazio xehea daukagun azken urtea-, (hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak: salbuespenak, gastu kengarriak, murrizpenak, kenkariak, hobariak, diferimenduak eta abar izan daitezkeenak) 6.306 milioi eurotara iristen dira, aurreko urtean baino %8,6 gehiago, hau da, sarrera teorikoen %34,1 (aurrekontuan sartutako sarrerak eta gastu fiskalak). Gastu fiskalen %42,4 (2.674 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei dagokie.

4.2 GASTUAK

EAEko sektore publikoaren guztizko gastua (tokiko erakundeak alde batera utzita) 9.340,4 milioi euro zen 2013ko irailean, hots, %0,4 gutxiago 2012ko irailaren aldean (memoria hau ixtean, ez dugu urteko laugarren hiruhilekoko aurrekontuaren betearazpenari buruzko datuen berri), 2012ko urteko guztizkoaren -%2,6aren aldean.

II.4.6. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA. MILA EURO.									
	GUZTIRA 2012			2013KO HIRUGARREN HIRUHILEKOA 2013			2012.III-2013.III aldak. %		
	EJ	FF.AA.	ESP.	EJ	FF.AA.	ESP.	EJ	AA.FF.	ESP.
Langileria gastuak	1.781.937	332.141	2.114.078	1.344.499	250.178	1.594.3677	-0,7	1,2	-0,4
Funtzionamendu gastuak	3.257.516	503.363	3.760.879	2.194.154	316.877	2.511.031	0,3	-2,3	-0,1
Finantza gastuak (interesak)	196.679	72.438	269.117	142.168	44.955	187.123	20,4	-4,5	13,3
Transferentzia arruntak	3.458.135	10.720.393	5.963.964	2.095.829	7.378.274	4.197.309	-7,3	-1,6	4,3
Inbertsio errealak	519.081	236.433	755.514	225.403	120.165	345.569	4,5	1,3	3,4
Kapital transferentziak	783.580	453.784	1.227.458	196.541	94.396	285.359	-38,2	-36,2	-38,3
FINAN. EZ GASTUAK GUZT.	9.996.928	12.318.552	14.091.010	6.198.595	8.204.844	9.121.067	-4,0	-2,1	0,2
Finantzak aktiboen aldak.	73.511	110.116	183.627	33.539	33.265	66.803	11,4	-33,6	-16,7
Finantza pasiboen aldak. (Amort. zorra)	174.483	235.462	409.945	12.500	140.048	152.548	.	-24,3	-22,7
FINANTZA GASTUAK GUZTIRA	247.994	345.578	593.572	46.039	173.313	219.351	8,0	-26,3	-21,0
GASTUA GUZTIRA	10.244.922	12.664.130	14.684.582	6.244.634	8.378.157	9.340.418	-3,9	-2,8	-0,4
% LIKIDATUTAKO GASTUA / BPG	15,83	19,57	22,69						

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko Aurrekontu Orokorren Betearazpena.

¹⁹ Gastu fiskalaren kontzeptuak ez du ondo argitutako eta denek onartutako definizioarik ogasunaren doktrinaren barruan. Halere, gastu fiskalen aurrekontua honela defini dezakegu: zerga sarreraren murriztapenaren aurreikuspenaren zenbatekoa, politika ekonomiko eta sozialeko zenbait helburu lortzeko asmoz onura fiskalak aplikatzearen ondorioz. ELGAren definizioaren arabera, zergaren egitura "arruntaren" edozein desbideratze da.

II.4.7. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUAREN BILAKAERA, SAILKA. MILA EUROTAN.

	Mila euro				2013 Banak. %	Aldak. %		
	2010	2011	2012	2013*		10/1 1	11/1 2	12/1 3
00 Eusko Legebiltzarra	30.789	30.430	26.612	27.565	0,3	-1,2	-12,5	3,6
01 Jaurlaritzako Lehendakari	41.409	82.299	99.312	49.774	0,5	98,7	20,7	-49,9
02 Administra Publikoa eta Justizia	292.767	288.000	264.316	224.489	2,3	-1,6	-8,2	-15,1
03 Ekonomia eta Lehiakortasun S.				358.563	3,7	-	-	-
04 Enplegu eta Gizarte Politikak	669.832	965.996	1.088.826	1.014.418	10,6	44,2	12,7	-6,8
05 Ogasun eta Finantzak	58.769	78.027	66.851	143.156	1,5	32,8	-14,3	114,1
06 Hezkuntza, Hizkuntza P. eta Kultura	2.783.639	2.715.639	2.625.112	2.697.648	28,2	-2,4	-3,3	2,8
07 Segurtasuna	689.285	658.496	606.672	577.105	6,0	-4,5	-7,9	-4,9
08 Osasuna	3.542.339	3.415.770	3.365.367	3.299.953	34,4	-3,6	-1,5	-1,9
09 Ingurumena eta Lurralde P.	291.892	279.479	251.555	622.361	6,5	-4,3	-10,0	147,4
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa	436.154	306.425	327.579			-29,7	6,9	
Kultura	297.384	280.470	262.493			-5,7	-6,4	
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila	718.013	599.329	805.134			-16,5	34,3	
Plan Berezia	103.579	-	-			-	-	
51 Lan Harremanen Kontseilua	2.510	2.459	2.318	2.165	0,0	-2,0	-5,7	-6,6
52 Ekonomia eta Gizarte Kontseilua	1.766	1.729	1.637	1.310	0,0	-2,1	-5,3	-20,0
53 Kooperatiben Goren Kontseilua	968	937	889	889	0,0	-3,2	-5,1	0,0
54 Euskal Kontu Auzitegia	7.695	7.490	7.243	7.013	0,1	-2,7	-3,3	-3,2
55 Datuak Babesteko Euskal Agentzia	1.837	1.579	1.497	1.336	0,0	-14,0	-5,2	-10,8
90 Zor publikoa	197.987	312.935	364.806	412.969	4,3	58,1	16,6	13,2
95 Erak. balibideak eta konpromisoak	158.952	145.706	75.217	138.749	1,4	-8,3	-48,4	84,5
OROTARA	10.327.556	10.173.197	10.246.438	9.579.463	100,0	-1,5	0,7	-6,5
% BPGd bb	15,8	15,4	15,7	14,8				

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko Aurrekontu Orokorren Betearazpena.

* 2013ko datuak: 2012ko aurrekontuaren luzapenaren behin-behineko likidazioa, 2013ko abenduan.

Gastuak bilakaera negatiboa izan du bai Eusko Jaurlaritzan (-%3,9) baita foru aldundietan ere (-%2,8). Ondorioz, agregatuaren aldakuntzak indar gutxiago dauka (-%0,4), izan ere, diru partidetako batzuk erakundeen artean orekatzen dira (transferentzien zati bat, esaterako).

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak alde batera utzita) gastu kapituluetakoa aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero. Lehenik eta behien, beheranzko joeran diraude laugarren urtez jarraian langileria gastuek, neurri txikiagoan bada ere (%0,4 murriztu da, 2012ko -%6,4aren aldean). Funtzionamendu gastuetan, berriz, oso jaitsiera txikia da, %0,1 (-%2,2koa aurreko urtean). Bestalde, gora egin zuten transferentzia arruntek (%4,3, aurreko urteko -%6,5aren aldean), baita inbertsio errealek ere, 2012ko irailean baino %3,4 gutxiago, noiz-eta 2012ko ekitaldi osoan %12 murriztu zirenean.

Zorpetzearen ondoriozko gastuei dagokienez, azken urteetan izandako gehikuntzaren eraginez (zor bizia %240 hazi da gutxi gorabehera 2009tik, 5.000 milioi euro baino gehiago), goraka jarraitu zuten 2013an, %13,2 hain zuzen ere baina finantza-pasiboen aldakuntza barne dutela (174,5 milioi euroko zorraren amortizazioa): %22,7 murriztu da azken urtean.

Eusko Jaurlaritzaren gastuan arreta jarrita, 2013ko behin-behineko likidazioak % 6,5eko jaitsiera agertu du 2012ko ekitaldiaren aldean. Halere, legegintzaldiaren 2009aren erdialdeko aldaketatik ondorioztatutako sailen berrantolamenduak gastuaren zenbaki handien zenbait ataletako bilakaeraren jarraipena zailtzen du aurreko urtetik harantzago.

Gastu bolumenagatik bi sail nagusiek Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak (gastu osoaren % 28,2) eta Osasun Sailak (% 34,4) izaten jarraitzen dute. Lehenengoa % 2,8 hazi da eta bigarrena, aldiz, % 1,9, 2012aren aldean. 2013rako likidatutako gastu osoa 9.579 milioi eurokoa da, kopuru hori gure Erkidegoaren urte horretako BPGd-aren % 14,8 dela, behin-behineko datuen arabera.

4.3 AURREKONTUKO SALDOA

2013ko irailean, aurreko urteko hil berarekin erkatuta, Euskal Sektore Publikoaren (Jaurlaritza gehi foru aldundiak) sarrera arruntak %1,9 jaitsi direnez izaera bereko gastuak %2,3 igo diren bitartean, %25,3 jaitsi da aurrezki gordina, hau da, 1.113 milioi euro guztira.

Gainera, 673,3 milioi euroko defizit publikoa (finantziazio gaitasuna) erregistratu da; izan ere, gastu ez-finantzarioek (arruntak gehi kapitalekoak) izaera bereko diru-sarrerak gainditzen dituzte.

Aurreko ekitaldian, 2012an, 473, milioi euroko defizita erregistratu zen (BPGd-aren %0,73), baina ratio horrek gora egin zuen BPGd-aren %1,39raino EAEko 2012-2014ko oreka berriko Ekonomi eta Finantza Planaren defizitaren datua kontuan hartuz gero. Datu horretan, EAEko Administrazio Orokorraz gain, bere erakunde autonomoen datuak sartzen dira (LANBIDE eta OSAKIDETZA). Horixe da Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak duen erreferentzia eta erkidego erakundeei bidali diena.

II.4.8. KOADROA. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA: AURREKONTUKO MAGNITUDE FINKATUAK. MILA EUROTAN.

	2011	2012	% 2011/12	2012ko III. hir	2013ko III. hir	2012-III/2013-III.%
1.- Sarrera arruntak	13.311.335	13.155.957	-1,2	9.791.037	9.603.278	-1,9
2.- Gastu arruntak	12.698.066	12.108.038	-4,6	8.301.542	8.490.140	2,3
2.1.- Pertsonal gastuak	2.257.491	2.114.078	-6,4	1.601.617	1.594.677	-0,4
2.2.- Funtzionamendu gastuak	3.844.670	3.760.879	-2,2	2.512.385	2.511.031	-0,1
2.3.- Finantza gastuak	220.037	269.117	22,3	165.102	187.123	13,3
2.4.- Transferentzia arruntak	6.375.868	5.963.964	-6,5	4.022.437	4.194.309	4,3
3.- Aurrezpen gordina (1-2)	613.270	1.047.919	70,9	1.489.496	1.113.138	-25,3
4.- Kapital sarrerak	340.500	461.565	35,6	128.317	191.158	49,0
5.- Kapital gastuak	1.782.110	1.982.972	11,3	797.086	630.927	-20,8
5.1.- Inbertsio errealak	859.056	755.514	-12,1	334.339	345.569	3,4
5.2.- Kapital transferentziak	923.046	1.227.458	33,0	462.747	285.359	-38,3
6.- Finantziazio ahalmena (+) / Premia (-) (3+4-5)	-828.340	-473.488	-42,8	820.727	673.369	-18,0
7.- Finantza-aktiboan aldakuntza garbia	-78.148	-122.390	56,6	-19.956	-41.182	-106,4
7.1.- Finantza-aktiboan aldakuntza. Sarrerak	109.923	61.237	-44,3	60.235	25.621	-57,5
7.2.- Finantza-aktiboan aldakuntza. Gastuak	188.071	183.627	-2,4	80.191	66.803	-16,7
8.- Finantza pasiboan aldakuntza garbia	928.394	1.023.045	10,2	896.223	803.770	-10,3
8.1.- Finantza pasiboan aldakuntza. Sarrerak	1.331.677	1.432.990	7,6	1.093.667	956.318	-12,6
8.2.- Finantza pasiboan aldakuntza. Gastuak	403.283	409.945	1,7	197.444	152.548	-22,7
9.- Aurrekontuko superabita / Defizita (6+7+8)	21.906	427.168	1.850,0	1.696.994	1.435.957	-15,4
9.1.- Ordaintze dauden obligazioak	1.698.259	1.745.651	2,8	585.453	325.723	-44,4
9.2.- Kobratzeke dauden eskubideak	1.683.914	1.943.147	15,4	2.599.582	2.101.873	-19,1
10.- Aurrekontuko superabita / Defizita kutxa terminoetan	36.251	229.672	533,6	-317.134	-340.192	-7,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuko betearazpenaren estatistika.

Finantza aldagaia sartuta eta gehienbat zorpetzeari esker, aurrekontuko superabiteko 1.435,9 milioiraino igo da 2013ko iraileko superabita, 2012. urtea ixtean zeuden 427,1 milioi euroak baino askoz gehiago, baina ekitaldi bereko irailean izandakoa baino %15,4 txikiagoa.

4.4 SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

2013ko hirugarren hiruilekoko Aurrekontuen Betearazpenaren Estatistikak agerian uzten du (eskuragarri dugun azken datua), lehenik eta behin, EAEko sektore publiko osoaren zorpetze garbia (Eusko Jaurlaritza gehi Foru Aldundiak) %10,3 murriztu dela aurreko urtearen aldean, 2012ko ekitaldi osoan %10,2 hazi ondoren. Zor garbia (zorpetze gordina ken amortizazioa) 803,77 milioi eurokoa izan zen irailean, eta horietatik 681,4 Eusko Jaurlaritzari dagozkio eta gainerako 122,3 milioi euroak, berriz, Foru Aldundiei.

Ondorioz, 2013ko hirugarren hiruilekoko amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 9.247,8 milioi euroko bolumena zuten, 2012ko irailean baino %1 gutxiago. Beste urte batez, zorraren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzari dagokio (guztizkoaren %77,4, %76,7 aurreko urtean).

Zorpetze gordina %12,6 jaitsi zen 2013ko irailean 2012ko irailarekin erkatuta, eta guztira 956,3 milioi dira. Horietatik 694 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-%17,7 2012ko irailaren aldean) eta gainerako 262,3 milioiak Foru Aldundiei (+%4,7).

II.4.9. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA (MILA EUROTAN)


	Zorpetze gordina		Amortizazioa (2)	Zorpetze garbia		Aldiko azken zor bizia		
	(1)	Urte arteko aldak. %		(1)-(2)=(3)	Urte aldak. %I	Orotara	Urte arteko aldak. %	
EUSKO JAURLARITZA								
2010	1.893.000	34,2	123.650	1.769.350	31,1	4.776.100	58,8	
2011	960.077	-49,3	169.483	790.594	-55,3	5.556.694	16,6	
2012	1.084.420	13,0	174.483	909.937	15,1	6.476.631	16,3	
Ira. 2013	693.978	-17,7	12.500	681.478	-18,0	7.158.109	-2,0	
FORU ALDUNDIAK								
2010	494.048	39,6	109.551	384.497	48,5	1.716.549	28,9	
2011	371.600	-24,8	233.800	137.800	-64,2	1.854.349	8,0	
2012	348.570	-6,2	235.462	113.108	-17,9	1.967.457	6,1	
Ira. 2013	262.340	4,7	140.048	122.292	86,3	2.089.749	2,8	
ESP., GUZTIRA								
2010	2.387.048	35,2	233.021	2.153.847	33,9	6.492.649	49,6	
2011	1.331.677	-44,2	403.238	928.394	-56,9	7.421.043	14,3	
2012	1.432.990	7,6	409.945	1.023.045	10,2	8.444.088	13,8	
Ira. 2013	956.318	-12,6	152.548	803.770	-10,3	9.247.858	-1,0	

Iturria: Zerga Koordinaziorako Organoaren eta EUSTATen datuekin egina.

Beste alde batetik, EUSTATen "Sektore Publikoaren aurrekontuko estatistika" (eskuragarri dagoen azken informazioa 2011koa da) txostenari esker foru aldundi bakoitzaren eta udal bakoitzaren zorpetze kopurua ezagut dezakegu, baita EAEko Administrazio osoarena ere (Jaurlaritza + Aldundiak + udalak).

Foru aldundiei dagokienez, 2011n 526 milioi euroko zorra jaulki zuten (aurreko ekitaldiko 494 milioien aurrean). Horien artetik 65 milioi Arabako Foru Aldundiari dagozkio, 243 Gipuzkoakoari eta gainontzeko 218 milioi

II.4.2. GRAFIKOA. EAE-KO ADMINISTRAZIOEN FINANTZA-ZORRA (MILAKA EUROTAN)



Iturria: EUSTAT. Sektore Publikoaren aurrekontuko estatistika.

euroak, berriz, Bizkaikoari. Horrez gain, 229 milioi euroko balioarekin amortizatzen dute, aurreko ekitaldian baino % 108,9 gehiago Amortizatutako kopurutik % 69 Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, % 18 Gipuzkoakoari eta gainerako % 13a Arabako Foru Aldundiari. Aldundien zorraren saldo bizia %17,1 hazi zen aurreko urtearen aldean, baita BPGd-arekiko ere: 2010eko %2,6tik 2011ko %3,1era. EAEko udalei dagokienez, Estatistika berak erakusten duenez, 2011n zorra jaulki zuten, guztira 54,2 milioi eurokoa, eta 56,3 amortizatu zituzten. Horren ondorioz, ekitaldiaren amaieran, 642.000 eurotan murriztu zen ordaintzeke dagoen zorra, 681,7 milioi euroraino.

Beste alde batetik, guztira, EAEko administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritzak gehi aldundiek gehi udalek) 2011n (memoria ixterakoan eskuragarri zeuden azkenengo datuak) 7.616 milioi euroko zorra zeukaten. Diru zenbateko hori urte horretako BPGd arruntaren %11,6 da (2010ean, %10,4).

Zorraren %64,3 Eusko Jaurlaritzari dagokio, %15,2 Bizkaiko Foru Aldundiari, %4,4 Arabakoari eta %7,1 Gipuzkoakoari. Gainerakoa, 681,7 milioi euro, hain zuzen ere, EAEko udaletako finantza-zorrari dagokio, eta EAEko administrazioen zor osoaren % 9 da (2010ean % 10).

4.5 ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK

Euskal Autonomia Erkidegoak bere jarduera finantzatzeko sistema berezia dauka. Izan ere, zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. Kupoa deritzonaren bidez EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du. EAEren eskumenen banaketaren barruan, zerga-bilketa lurralde historiko bakoitzeko Foru Aldundiek egiten dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga-bilketa egiten dute. EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zenbait fondo ematen diete, arrazoi desberdinengatik: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, Foru Aldundiek eta Udalek zerga ez itunduetan duten partaidetzagatik, elkarrekiko, kiroleko eta ongintzako apustuetatik eta Estatuko Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionaletik bildutako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioek eta erakunde autonomoek egiten dituzten finantzazio hitzarmen eta akordioen ondorioz.

II.4.10. KOADROA. FORU ALDUNDIEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE KOMUNEI EGITEN DIZKIETEN EKARPENEN BILAKAERA (MILA EUROTAN EMANA)


KONTZEPTUA	2009	2010	2011	2012	2013	2011-12ko ald. %	2012-13ko ald. %
EK. OROKORRAK	6.847.227	7.774.246	7.314.810	7.447.837	7.428.008	1,8	-0,3
EK. BEREZIAK	230.403	203.882	600.619	864.106	392.825	43,9	-54,5
OROTARA	7.077.630	7.978.128	7.915.428	8.311.943	7.820.933	5,0	-5,9
ARABAREN EK	1.196.827	1.349.101	1.328.209	1.380.614	1.269.337	3,9	-8,1
BIZKAIAREN EK	3.534.569	4.000.233	3.975.128	4.195.869	3.969.124	5,6	-5,4
GIPUZKOAREN EK	2.346.234	2.628.793	2.612.091	2.735.460	2.582.472	4,7	-5,6
ARABAKO %	16,91	16,91	16,78	16,61	16,23		
BIZKAIKO %	49,94	50,14	50,22	50,48	50,75		
GIPUZKOAKO %	33,15	32,95	33,00	32,91	33,02		

Iturria: Kupoaren eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritzan oinarrituta egina. Ogasun eta Finantza Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Lehenik eta behin, Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari egiten dizkioten ekarpenak aipatu behar ditugu, bolumen handia baitute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpenen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin Foru Aldundiek biltzen dituzten zerga itunduetatik zein zati transferitu behar dioten Aldundiek Eusko Jaurlaritzari erabakitzen du legeak, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen diru-sarreraren %90 baino gehiago ekarpen horietatik datoz). 2013an egindako ekarpenak 7.820,9 milioi eurokoak izan ziren, hots, 2012. urtean baino %5,9 gutxiago eta 2011n baino %5 gehiago.

2007-2011²⁰ denboraldiko berrikuntzen artean, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak zenbait aldaketa ezarri zituen aldundien ekarpenak zehazteko eta baliabideak banatzeko metodologian. Bestek beste, ondoko hauek nabarmendu behar ditugu: koefiziente bertikala % 70,44tik % 70,04ra jaitsi zen, toki erakundeen partaidetza areagotzeko; Foru Aldundien artean BEZagatik biltzen duten kopuruan doikuntza berria egin zen; eta Doikuntzako Fondo Orokorra sortu zen (lehen Elkartasun Fondoa zena), lurralde historikoentzako berme mekanismo gisa; EAEko erakundeen artean banatu beharreko baliabideetan lurralde historikoen zenbatekoa % 0,75 izatetik % 1 izatera igaro zen.

II.4.3. GRAFIKOA. FORU ALDUNDIEK EUSKO JAURLARITZARI EGINIKO EKARPENEN BILAKAERA. MILA EURO.



Iturria: Kupo eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritza. EUSKO JAURLARITZA.

II.4.11. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAK LIKIDATUTAKO DIRU-SARRERAK, JATORRIAREN ARABERA (MILA EUROAN).						
	2009	2010	2011	2011ko dist. %	09/10eko ald. %	10/11ko ald. %
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	7.077.630	7.978.128	7.915.428	81,4	12,7	-0,8
. Ekarpn orokorra	6.847.227	7.774.246	7.314.810	75,3	13,5	-5,9
. Ekarpn bereziak	230.403	203.882	600.619	6,2	-11,5	194,6
2. ERAKUNDEEN BESTELAKO DIRU-SARRERAK	132.176	299.399	371.024	3,8	126,5	23,9
. EAEko erakundeen transferentziak	15.466	7.134	7.746	0,1	-53,9	8,6
. Estatuaren transferentziak	45.605	208.596	254.805	2,6	357,4	22,2
. Europar Batasunaren fondoak	71.105	82.935	108.151	1,1	16,6	30,4
- EGIF	7.041	1.709	7.594	0,1	-75,7	344,4
- EGEF	3.323	13.904	34.809	0,4	318,4	150,4
- NBBEF- Orientazioa	900	-	-	-	-	-
- LGENF	2.881	11.514	5.719	0,1	299,7	-50,3
- NBEUF	50.739	52.137	51.272	0,5	2,8	-1,7
- ABFT	3.051	-	6.376	0,1	-	-
- Kohesio fondoa	2.560	1.833	-	-	-28,4	-
- Beste fondo batzuk	610	1.838	2.381	0,0	201,3	29,5
. EBren kanpoko fondoak	-	734	322	0,0	-	-56,1
3. BESTE BALIABIDE BATZUK	1.720.574	2.198.307	1.479.248	15,2	27,8	-32,7
- Zor publikoa	1.411.000	1.893.000	960.077	9,9	34,2	-49,3
- Zeharkako zergak	4.641	4.274	3.010	0,0	-7,9	-29,6
- Ondare sarrerak	48.974	83.868	197.261	2,0	71,3	135,2
- Inbertsio errealeen besterentzeak	386	713	1.064	0,0	84,7	49,2
- Beste transferentzia batzuk	65.402	9.502	11.072	0,1	-85,5	16,5
- Finantza aktiboen aldakuntza	20.413	17.485	49.078	0,5	-14,3	180,7
- Tasa eta prezio publikoak	169.758	189.464	210.864	2,2	11,6	11,3
SARRERAK, GUZTIRA	8.930.380	10.475.834	9.718.879	100,0	17,3	-7,2

Iturria: ZERGA KOORDINAZIO-RAKO ORGANOA

Bestalde, Europar Batasunaren fondoetatik datozen diru-laguntzak Europar Batasunak hartutako aurrekontu konpromisoen arabera gauzatzen dira. Diru-laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daiteke, kasu bakoitzean araututa dagoenaren arabera. 2011n (informazioa duen azken urtea) % 30,4 handitu ziren, aurreko ekitaldian % 30,4ko hazkundera izan ondoren, Horrenbestez, 108,2 milioi eurokoak izan ziren.

²⁰ 2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzekoak egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. Oraindik ere indarrean dago, ez baitu beste batek ordeztu 2012-2016ko bosturtekoak.

Diru-partida nagusia 2007an LGENFekin (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa) batera nekazaritzara zuzendutako diru-laguntzak kudeatzeko sortu zen BENFri (Bermerako Europako Nekazaritza Funtsa) dagokio. Horren bitartez 51,3 milioi euro jaso ziren 2011n, urte horretan jaso ziren funts europarren % 47,4. Bigarrenez, FEDER-Eskualdeko Garapenerako Europako Funtsaren bitartez (eskualdeetako garapen ekonomikoa sustatzeko sortu zen finantza tresna) 34,8 milioi euro jaso dira, guztizkoaren % 32,2.

II.4.12. KOADROA. EAE-K ESTATUARI ORDAINDUTAKO KUPOAREN BILAKAERA. MILA EUROTAN.					
	2010	2011	2012	2013	11/12ko ald. %
Kupo ordaindua	492.567	513.742	367.089	879.347	139,5
Konpentsazioak*	-118.768	-99.460	-78.482	-97.541	24,3
KUPO ORDAINDUA	373.799	414.282	297.607	781.807	162,7


*Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ogasun eta Finantza Saila.
(*) Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziengatik finantza-konpentsazioak.*

Beste partida interesgarri bat estatuarentzako kupoa da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Bost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2013. urtean (behin-behineko likidazioen arabera) 781,8 milioi eurokoa izan zen. 2012. urtearen aldean %162,7 hazi zen.

Amaitzeko, Estatuari egiten zaizkion ordainketa horiek ez ezik, zenbait zenbateko ere jasotzen dira; horietatik nabarmenena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza da, barne merkatuan eta inportazioetan (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik. Estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko finantza-doikuntza da, zerga administrazioen artean zerga-bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra dagoelako, zerga administrazioek beren lurraldean jarduten baitute muga fiskalik gabeko espazio batean. Doikuntza horiei zerga bereziei dagozkienak erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek kargatzen zaizkien produktuen behin-betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egitean gertatzen den distortsioa zuzentzeko beharrezkoak dira.

2011. urtean, informazioa dugun azken urtean, BEZagatiko doikuntza EAEn 997,6 milioi eurotara iritsi zen. Kopuru hori aurreko urtekoarekin erkatuta %3,8 jaitsi zen. Diru-partida horren barnean, aduanetan bildutakoagatik doikuntza guztizkoaren % 62,3 da eta gainerakoa, % 37,7, hain zuzen, aurreko eragiketei dagokie. Lurralde banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.

II.4.4. GRAFIKOA. BEZAGATIKO DOIKUNTZAREN BILAKAERA LURRALDEEN ARABERA. MILA EURO.



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Zerga Koordinaziorako Organoa.

5. EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN KONTUAK.²¹

Gizarte ekonomiaren barruan, bi zati nagusi ditu Kontabilitate Nazionalak: a) merkatukoa edo enpresena eta b) ekoizleena, ez merkatukoa, "hirugarren sektorea" esan ohi zaiona. Azken sailkapen hori oso erabilgarria da estatistikak egiteko eta jarduera ekonomikoaren analisiak egiteko orduan, gaur egun indarrean dauden kontabilitate nazionaleko sistemekin bat etorritz.


Horrela, merkatu edo enpresako gizarte ekonomia, funtsean, kooperatibek eta lan sozietateek eta mutuek osatuko lukete. Bestalde, merkatukoa ez den

gizarte ekonomia batez ere elkarrekin eta fundazioek osatzen dute. Beste forma juridiko batzuk dauzkaten erakundeak ere egon litezke. Kontabilitate nazionalean ezarritako irizpideen arabera, merkatuz kanpoko ekoizleak diren gizarte-ekonomiako erakundeek osatzen dute, hau da, beren ekoizpena batez ere dohainik edo prezio ekonomiko ez-esanguratsuetan hornitzen dituzten erakundeek osatzen dute.

EAEen, Gizarte Ekonomiaren estatistikako azken datu bateratuen arabera (2009-2010 biurtekoari dagozkionak), gizarte ekonomia guztira 2.171 enpresak osatzen dute, EAEen 2.997 establezimendu dauzkatenak. Aipatutako denboraldian 59.915 pertsonari lan eman zieten (erkidegoko lanpostuen % 6,3) eta 2.823,6 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG) sortu zuten (euskal ekonomiaren BEGaren %4,8)²².

2009-2010 biurtekoari dagokionez, hasteko, enplegu galera handia egon da, 2006 eta 2008 artean ikusitako bideari jarraituz eta areagotuz. Hala, galera %4,3koa izan da, gure erkidegoan guztira enpleguaren jaitsiera %3,9koa izan den bitartean.

II.5.1. GRAFIKOA. GIZARTE EKONOMIAK EAE-N DUEN PISUAREN BILAKAERA.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Kontuak.

II.5.1. KOADROA. EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN MODU BERRIAK: ADIERAZLE NAGUSIAK (DATU GORDINAK) 2010.

	Kopurua	Ordaindutako lana	BEG (MIL. €)
1. Fundazioak	585	10.213	360,7
2. Elkarteak	185	2.235	112,4
3. Enplegurako Zentro Bereziak	11	5.563	116,3
4. Laneratze enpresak	44	783	14,4
5. BGAE	175	90	217,8
6. Arrantza Kofradiak	16	103	4,4
7. Eraldaketako Nekazaritzako Elk.	26	104	1,7
GUZTIRA	1.042	19.091	827,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Estatistika.


²¹ Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Estatu Legea mugarrria izan da. Haren arabera, gizarte ekonomiaren erakunde dira "kooperatibak, mutualitateak, fundazioak eta jarduera ekonomikoa garatzen duten elkarteak, lan sozietateak, gizarteratzeko enpresak, enplegu zentro bereziak, arrantzaleen kofradiak, eraldaketako nekazaritza sozietateak", eta baita jarduera ekonomikoa eta enpresakoa egiten duten erakundeak ere, betiere, haien funtzionamenduak arauaren 4. artikuluan bildutako printzipio multzoari erantzuten badie. Printzipio horiek honakoak dira:

- Pertsonak eta gizarte-xedea gailendu egingo zaizkio kapitalari; horretarako, kudeaketa autonomo eta gardena, demokratikoa eta partaidea egingo da, eta erabakiak hartzerakoan pertsonak eta horiek erakundeari eskaini dizkieten lana edo zerbitzuak zein gizarte-xedea gehiago hartuko dira kontuan sozietatearen kapitalari egindako ekarpenak baino.
 - Jarduera ekonomikoaren bidez lortutako emaitzak batez ere egindako lana eta zerbitzua zein bazkide edo kideek egindako jarduera kontuan hartuta aplikatzea, edo erakundearen gizarte-xedean aplikatzea.
 - Erakunde barruko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea, tokiko garapenarekiko, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonen gizarteratzearekiko, kalitatezko enplegu egonkorra sortzearekiko, bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bat egitearekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa bultzatze aldera.
 - Botere publikoekiko mendekotasunik eza.
- ²² Ikerketari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2012ko edizioa.

Horren ondorioz, gizarte ekonomiak EAEko guztizko enpleguan duen garrantzi erlatiboa galdu du eta hala, 2010eko ratioa -%6,3-, 2008aren aldean eutsi arren, 2002an izandako maximotik -%6,8- urrundu da.

Bestalde, eta lanpostu kopuruaren jaitsieraren aurrean, enpresa sareak egonkor iraun du 2009-2010 biurtekoan eta establezimendu kopuruak %0,4ko hazkunde txikia ere izan du, 2.997ra iritsi arte. Hala, eta enpleguarekin ez bezala, aurreko biurtekoan egondako jaitsierarako joera hautsi da. Biurteko horretan EAEko gizarte ekonomiako establezimenduak %3,6 gutxitu ziren. Bilakaera horrek, 2008 eta 2010 artean, establezimenduen tamainaren murrizketa ekarri du (21 lanpostutik 20 lanpostura, batez beste).

II.5.2. GRAFIKOA. GIZARTE EKONOMIAK ENPLEGUAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOA: SEKTOREEN ARABERAKO PISUA.




Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Kontuak.

Sektoreen ikuspegitik, Gizarte Ekonomiak -industrial tradizioz- tertziarizazio prozesuan izan du, estatistika 1994an abiarazi zenetik. Azken bi urtean, industri enpleguaren jaitsierak Gizarte Ekonomiaren enpleguaren beherakada orokorra ekarri du eta, ondorioz, tertziarizaziorako egiturako joera hori areagotu da. Industriako 3.412 lanposturen galera garbia (%-11,4) izanik ere, zerbitzuen sektorean +818 lanpostuko igoera izan da (%+2,7). Horren ondorioz, gizarte ekonomiak guztizko industri enpleguan duen pisu erlatiboa %12,1etik %11,8ra igaro da, eta zerbitzuetan, ratio hori igo egin da 2008tik 2010era, %4,8tik %4,9ra, non gizarte ekonomiak enpleguan duen pisua egonkor eusten dion, guztizkoaren %6,3.

Bestalde, Gizarte Ekonomiaren estatistikaren 2011rako aurrerapenak nolabaiteko hobekuntza aurreratu du. Enpleguak bilakaera apur bat positiboa izango luke (%+0,9 2010aren aldean, enplegua aldi berean orotara %1,4 eroriko den bitartean), 60.448 lagun izan arte.

Lanpostuen igoera hori oso nabarmena da kualitatiboki, zeren eta aurretik ezarritako ibilbidea hautsiko bailuke, 2007 eta 2010 bitartean etengabe galdu direlako lanpostuak. Hala ere, aurreikusitako enplegu kopurua 2002an izandakoa baino txikiagoa da (61.000). Hobekuntza horren oinarria fakturazioaren aurreikuspen ona da; izan ere, %6,4ko hazkundera aurreikusten da termino nominaletan, 9.109,6 milioi euroraino.

II.5.3. GRAFIKOA. LANPOSTUEN ETA FAKTURAZIOAREN BILAKAERA EAE-KO GIZARTE EKONOMIAN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte Ekonomiaren Kontuak.

Hazkunde tasa hori okupazioaren hazkundera (%+0,9) baino nahiko handiagoa da; horrek, beraz, gizarte-ekonomiaren produktibitatearen igoera handia dakar 2010-2011 biurtekoan.

Azkenik, eta gainerako Autonomia Erkidegoekin alderatuta gizarte ekonomiak gure erkidegoan duen garrantzia jakiteko xedez, Sozietate Kooperatiboetako eta Lan-sozietateetako langileen eta forma hori duten enpresen kopurua aurkeztu dugu Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak oinarri hartuta (jakin dakigu EAEko kopuruak ez datozela bat Gizarte Ekonomiaren Kontuetako Estatistikan aurkeztutakoekin).

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera, 2013an EAEn 2.200 enpresa egon dira (irailaren 30eko datuak) Gizarte Segurantzaren emanda, beraz, Sozietate Kooperatibo eta Lan-sozietate gehien duen seigarren Autonomia Erkidegoa da (%-1,8 2012aren aldean, Estatuko batez bestekoa %-4,2 delarik).

Sozietate Kooperatiboetan eta Lan-sozietateetan lan egiten duten langileen kopuruaren araberako garrantzia neurtuz gero, aldiz, estatuko lehen Autonomia Erkidegoa da EAE (61.403, aurreko urtean baino %0,9 gutxiago), eta ondoren Andaluzia dator (56.521 langile).

II.5.2. KOADROA. KOOPERATIBA ETA LAN-SOZIEATEAK: ENPRESA KOPURUA ETA GIZARTE SEGURANTZAN ALTA EMANDA DAUDEN LANGILEAK (3. HIRUHILEKOA)						
	Enpresak			langileak		
	2000	2012	2013	2000	2012	2013
Andaluzia	8.079	7.022	6.576	65.130	59.237	56.521
Aragoi	1.317	1.211	1.179	9.572	9.163	8.910
Asturias	766	714	650	5.730	5.568	4.962
Balearrak	367	347	332	3.493	3.335	2.911
U. Kanariarrak	803	663	618	7.505	6.606	6.136
Kantabria	203	195	190	2.404	2.183	2.105
Gaztela-mantxa	2.861	2.440	2.330	20.070	17.316	17.282
Gaztela eta Leon	2.140	1.909	1.836	14.571	12.905	13.398
Katalunia	6.205	5.905	5.751	46.905	44.915	45.091
Valentzia	3.912	3.532	3.403	42.541	40.306	39.836
Extremadura	1.031	949	891	8.751	7.896	7.711
Galizia	1.681	1.588	1.562	12.050	11.850	11.557
Madril	2.647	2.451	2.333	24.236	22.017	21.664
Murtzia	2.375	2.142	2.051	20.919	19.979	20.507
Nafarroa	760	731	710	9.713	9.625	9.365
EAE	2.309	2.241	2.200	64.489	61.958	61.403
Errioxa	179	156	158	1.946	1.928	1.792
Ceuta eta Melilla	56	53	46	543	692	619
OROTARA	37.691	34.249	32.816	360.568	337.416	331.770

Iturria: LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA

Estatu osoan ere jaitsiera izan da lanean dabiltzanen kopuruan, baina EAEkoa baino datu handiagoa da: ia bi aldiz handiagoa (%-1,67 2012an; EAEn, berriz, aipaturiko % -0,9 da).

6. LAN-MERKATUA

Hamabost urtez enplegua sortu ondoren, okupazioaren zifren jaitsierako aldi berria hasi zen EAEko lan-merkatuan 2009. urtean, eta 2012ra artea jarraitu zuen. 2013an, EUSTATen BJaren arabera, badirudi enplegua egonkortu egin dela, eta bigarren seihilekoan gelditu egin da lanpostuen suntsidura. Urteko batez beste, 2012aren oso antzekoa da Euskadin lanean dabiltzan pertsonen kopurua (500 gehiago).

Bestalde, batez beste %3,1 egin du behera Gizarte Segurantzaren kotizatzaileen kopuruak (baina %2,5 azken hiruhilekoan, zeren eta profil negatiboa leundu egin baita urtean zehar); aldi berean, okupazioak, EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera, profil negatiboa du era berean, baina positiboa ekitaldian.

II.6.1. KOADROA. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA EAE-N. URTE AREKO ALDAKUNTZA TASAK ETA BALIO ABSOLUTUAK (MILAKA).

	BATEZ B. 2011	BATEZ B. 2012	BATEZ B. 2013	2013KO HIRUHILEKOAK			
				I	II	III	IV
Lana dutenen kopurua, BJaren arabera	937,6	904,4	904,9	888,3	902,9	913,9	914,3
OKUPAZIOAREN ALDAK. (BJA)	-1,2	-3,5	0,1	-2,6	-1,2	1,0	3,2
Lana dutenen kopurua, HKE-en arabera*	922,1	899,2	877,2	876,8	880,1	873,6	878,4
LANPOSTUEN ALDAK. (HKE)*	-0,9	-2,5	-2,1	-2,9	-2,3	-2,1	-1,2
Segurantzaren afiliatutakoaren kopurua	919,6	896,0	868,6	869,7	870,2	863,5	871,1
GIZARTE SEGURANTZAREN AFILIAZIOAREN ALDAK.**	-0,6	-2,6	-3,1	-4,3	-4,1	-4,0	-2,5
Lana dutenen kopurua, BJaren* arabera	114,1	124,8	155,0	142,4	153,6	158,3	165,6
LANGABETUEN ALDAK. (HKE)	19,0	9,4	24,2	13,4	24,9	31,3	27,2
Erregistraturiko langabetuen kopurua, EEZPren arabera	145,1	162,4	175,4	177,5	176,9	173,7	173,4
ERREGISTRATURIKO LANGABEZIAREN ALDAK. (EEZP)	9,7	11,9	8,0	11,6	10,4	8,1	2,4
LANGABEZI TASA (BJA)	%10,8	%12,1	%14,6	%13,8	%14,5	%14,8	%15,3


Iturria: Geuk egina EUSTATen eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuekin.

* Lanaldi osoaren pareko lanpostuak.

**Gizarte Segurantzaren alta egoeran dauden kotizatzaileak.

Alabaina, langabetuen kopurua nabarmen hazi da aurten, populazio aktiboaren igoeraren ondorioz. Zehazki, urtearen amaierako langabezi tasa (%15,3 BJaren arabera) handiena da 2000tik, eta guztira 165.600 langabetu zenbatu dira Inkesta horren arabera, eta 167.000 baino gehiago abenduan, LANBIDEn arabera.

II.6.1. GRAFIKOA. ENPLEGUAREN EAE-KO BILAKAERAREN ADIRAZLEAK: URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK.



Iturria: EUSTATen, INEren eta Gizarte Segurantzaren datuak erabilia egindakoa.

²³ "Kotizatzaileak" esatean, maiz erabiltzen den "afiliazioaz" ari gara. Egia esan, Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden afiliatuak, hau da, kotizatzaile behartuta dauden pertsonak aipatu nahi dira. Hortik ondorioztatzen da "kotizatzaileak" hitza. Kontuan hartu behar da afiliatuen kopurua ez datorrela bat langileen kopuruarekin, kotizatu beharra sortzen duten egoerekin baizik. Hau da, pertsona batek araubide berean lan jardura asko izateagatik edo hainbat araubidetan lan jardura izateagatik dituen kotizazio egoerak zenbatu, eta horietatik islatzen dira. Gainera, afiliazioa bizitza osorako da: bajak heriotzagatik baino ez dira gertatzen, eta afiliazioa gizarte segurantzaren sistemaren edozein araubidetan sartzea dakarren lehenengo enpleguarekin batera sortzen da.

6.1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA²⁴

6.1.1. Jarduera eta okupazioa

Lehenik eta behin, BJaren datuek erakusten dute EAEko biztanleria aktiboaren urteko batez bestekoa hazi egin dela 2013an. Hala, 2012an lan-merkatuan parte hartzen zuen % 56,2koaren aldean, % 56,6 dugu 2013. urtean, hots, % 1,7 gehiago. Krisia luzatzearen ondoriozko uzkurduak nabarmen jaitsarazi zituen jarduera tasak 2012an, noiz-eta enplegurako aukerarik ezagatik lan egiteko adinean diren eta lana galtzen zuten langabetu asko zuzenean langabeziara igarotzen zirenean. 2013an, gutxi gorabehera 1.029.200 pertsona zeuden lanik gabe, 2012an baino %3 gehiago, edo bestela esanda, aurreko urtean baino 30.600 pertsona gehiago.

Emakumeen jarduera tasak urteko %50,5eko batez bestekoa du, 2012. urtean baino 1,4 puntu handiagoa. Gizonezkoena, berriz, 2012ko %61,1etik 2013ko %63ra igaro da. Halaber, jarduera ratio guztiek gora egin duten adin talde guztietan.

BJaren datuek diotenez, 2013an Euskal Autonomia Erkidegoan erregistraturiko enpleguaren galeraren ondorioz, enplegu-tasa % 66,2 izan zen 20 -64 urtekoen artean, Europako Batzordeak 2020rako ezarritako xedea (% 75) baino 8,8 puntu gutxiago hain zuzen ere. Europako batezbestekoa % 68,3 da, gure Erkidegoko datua baino 2,1 puntu handiagoa, beraz.

EUROSTATen datuen arabera, azken urtean enplegu-tasak handitu egin dira 14 herrialdetan (hiru herrialde baltikoetan eta Irlandan eta Maltaan ia bi puntu portzentual baino gehiago), baina Europako batezbestekoa bere horretan mantendu da (hamarren bat inguru murriztu da), eta EAEko datua 1,6 hamarren hazi da. Estatuko ratioa (% 58,2) 1,1 jaitsi da, 2012ko datuarekin alderatuta.

2012ko abenduaren eta 2013ko abenduaren artean EAEn izan den okupazioaren igoera %3,2 izan da (-%4,6 aurreko aldian), eta 28.500 lanpostu gehiago dira. Gizonen enpleguak izan du bilakaerarik txarrena (gutxiago hazi da, %2,8) eta azken urtean 13.500 lanpostu irabazi ditu; emakumeenak, aldiz, 15.100 enpleguko igoera izan da (%3,7).

Gainera, azken urtean % 33,6 hazi da 25 urtetik beherako gazteen enplegua eta % 5,7, aldiz, 25 eta 44 urte artekoena; 44 urtetik gorako langileen enplegua, berriz, % 5,7 hazi da.

Urteko batez besteko balioak kontuan hartuz gero, 2013an berreskuratu diren 500 lanpostuetatik (% 0,1 besterik ez 2012ko datuen aldean), 900 gizonak galdu zituztenak izan ziren (-%0,2), aldiz, emakumeek irabazitakoak 1.500 (+%0,4);

II.6.2. KOADROA. 20 ETA 64 URTE BITARTEKO OKUPAZIO-TASA: BILAKAERA "EUROPA 2020" ESTRATEGIAREN HELBURUA BETETZEAREN ARABERA

	2012	2013	Aldak. 2012-13	Aldak. %75era
EB 28	68,4	68,3	-0,1	6,7
EURO GUNEA	68,0	67,7	-0,3	7,3
BELGIKA	67,2	67,2	0,0	7,8
BULGARIA	63,0	63,5	0,5	11,5
TXEKIAR E.	71,5	72,5	1,0	2,5
DANIMARKA	75,4	75,6	0,2	-0,6
ALEMANIA	76,7	77,1	0,4	-2,1
ESTONIA	72,1	73,3	1,2	1,7
IRLANDA	63,7	65,5	1,8	9,5
GREZIA	55,3	53,2	-2,1	21,8
ESPAINIA	59,3	58,2	-1,1	16,8
FRANTZIA	69,3	69,5	0,2	5,5
KROAZIA	55,4	53,9	-1,5	21,1
ITALIA	61,0	59,8	-1,2	15,2
ZIPRE	70,2	67,1	-3,1	7,9
LETONIA	68,2	69,7	1,5	5,3
LITUANIA	68,7	69,9	1,2	5,1
LUXENBURGO	71,4	71,1	-0,3	3,9
HUNGARIA	62,1	63,2	1,1	11,8
MALTA	63,1	64,9	1,8	10,1
HOLANDA	77,2	76,5	-0,7	-1,5
AUSTRIA	75,6	75,5	-0,1	-0,5
POLONIA	64,7	64,9	0,2	10,1
PORTUGAL	66,5	65,6	-0,9	9,4
ERRUMANIA	63,8	63,9	0,1	11,1
ESLOVENIA	68,3	67,2	-1,1	7,8
ESLOVAKIA	65,1	65,0	-0,1	10,0
FINLANDIA	74,0	73,3	-0,7	1,7
SUEDIA	79,4	79,8	0,4	-4,8
ERR. BATUA	74,2	74,9	0,7	0,1
EAE	64,6	66,2	+1,6	8,8

Iturria: EUROSTAT eta LANBIDEn datuekin geuk egindakoa.

²⁴ Epigrafe honetan, gehienbat BJA eta LANBIDEn datuek erabiltzen dira, eta beste batzuk, HKE adibidez; izan ere, azterketarako posibilitate gehiago ematen baitute. Gogoratu behar dugu iturriek, batzuetan, emaitza ezberdinak eta bilakaera desberdinak ematen dituztela.

horrenbestez, enpleguaren feminizazioa hamarren bat gehitu da, eta talde horren enplegua % 46,3koa da (%46,3aren aldean).

Sektoreen arabera, 2012an lanpostu gehienak hirugarren sektorean galdu ziren (-14.500, guztizko jaitsieraren %44), eta ehunekoen murrizpenik handiena eraikuntzari dagokio (%14,3 2011ren aldean). 2013an, berriz, hirugarren

II.6.3. KOADROA. LANA DUTEN ETA LANGABEZIAN DAUDEN BIZTANLEAK, SEKTOREKA. 2011-2012.						
	BATEZB. (milakotan)		IGOERA (milakotan)		Urte arteko aldakuntza tasa (%)	
	2012	2013	11-12	12-13	11-12	12-13
LANDUNAK - BJA	904,4	904,9	-33,2	0,5	-3,5	0,1
LEHEN S.	8,1	8,7	0,2	0,6	2,5	7,4
INDUSTRIA	214,2	207,6	-9,4	-6,6	-4,2	-3,1
ERAIKUNTZA	57,7	48,0	-9,6	-9,7	-14,3	-16,8
ZERBITZUAK	624,3	640,5	-14,5	16,2	-2,3	2,6
LANGABEZIA - BJA	124,8	155,0	10,7	30,2	9,4	24,2
LEHEN S.	0,7	1,0	0,2	0,3	40,0	42,9
INDUSTRIA	22,9	29,6	3,0	6,7	15,1	29,3
ERAIKUNTZA	16,8	19,2	-1,9	2,4	-10,2	14,3
ZERBITZUAK	75,0	96,3	7,7	21,3	11,4	28,4
1. lanpostuaren bila	9,4	8,8	1,7	-0,6	22,1	-6,4

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".

sektorea da hasita dagoen susperraldiaren protagonista; izan ere, %2,6 hazi da, eta 16.200 lanpostu sortu. Industriak, bestalde, beherantz jarraitzen du, %3,1 hain zuzen ere (-6.600 lanpostu), eta eraikuntza neurri handiagoa jaitsi da: enpleguaren %16,8, 9.700 lanpostu gutxi gorabehera.

Behin-behinekotasun mailari dagokionez, BJAren datuek erakusten dute 2013an urteko batez bestekoa aurreko urtean baino zertxobait baxuagoa izan zela (% 21,7 eta % 21,4 aurreko urtean). Enpleguaren suntsidurak bereziki eragin die aurten kontratu finkoa zutenei (%-3; langabezia, berriz, % 2,6 jaitsi da), lan guztiaren % 1,5eko igoera duen aldi baterako kontratua dutenen aldean.

Behin-behinekotasunak modu ezberdinean eragiten die bi sexuei. Hala, gizonen artean aldi baterako lana %3,7 jaitsi bada, soldatapeko lanaren gaineko %18,8ko proportzioari eutsita, emakumezkoetan %0,3 hazi da, hots, 2012ko %24,4etik 2013ko 24,7ra. Horren ondorioz, handitu egin da behin-behinekotasunean gizonen eta emakumeen artean dagon tartea gure erkidegoan 2013an; izan ere, %5,9koa da, aurreko urtean baino puntu erdi gehiago.

II.6.4. KOADROA. ENPLEGUAREN ADIERAZLEAK EUROPAR BATASUNEAN 2011-2012						
	LANGABEZI T.		GAZTEEN LANGABEZI T.		BEHIN-BEHINEKOTASUN T.	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013
EB-28	10,4	10,8	23,0	23,4	13,7	13,8
EDB	11,3	12,0	23,1	24,0	15,2	15,2
BELGIKA	7,6	8,4	19,8	23,7	8,1	8,1
BULGARIA	12,3	13,0	28,1	28,4	4,5	5,6
TXEKIAR E.	7,0	7,0	19,5	18,9	8,8	9,1
DANIMARKA	7,5	7,0	14,1	13,0	8,5	8,8
ALEMANIA	5,5	5,3	8,1	7,9	13,8	13,5
ESTONIA	10,2	8,6	20,9	18,7	3,7	3,5
IRLANDA	14,7	13,1	30,4	26,8	10,2	10,0
GREZIA	24,3	27,3	55,3	58,3	10,0	10,0
ESPAINIA	25,0	26,1	53,2	55,5	23,6	23,4
FRANTZIA	10,2	10,3	24,3	24,8	15,2	16,4
KROAZIA	15,9	17,2	43,0	49,7	12,8	14,1
ITALIA	10,7	12,2	35,3	40,0	13,8	13,2
ZIPRE	11,9	15,9	27,8	38,9	15,0	17,5
LETONIA	14,9	11,9	28,4	23,2	4,7	4,3
LITUANIA	13,3	11,8	26,4	21,9	2,6	2,7
LUXENBURG	5,1	5,8	18,1	17,4	7,7	7,0
HUNGARIA	10,9	10,2	28,1	27,2	9,4	10,8
MALTA	6,4	6,5	14,2	13,5	6,9	7,6
HOLANDA	5,3	6,7	9,5	11,0	19,5	20,3
AUSTRIA	4,3	4,9	8,7	9,2	9,3	9,2
POLONIA	10,1	10,3	26,5	27,3	26,9	26,8
PORTUGAL	15,9	16,5	37,7	37,7	20,7	21,5
ERRUMANIA	7,0	7,3	22,7	23,6	1,7	1,5
ESLOVENIA	8,9	10,1	20,6	21,6	17,1	16,3
ESLOVAKIA	14,0	14,2	34,0	33,7	6,8	6,8
FINLANDIA	7,7	8,2	19,0	19,9	15,6	15,3
SUEDIA	8,0	8,0	23,7	23,4	16,4	16,3
ERRESUMA BATUA	7,9	8,0	21,0	20,5	6,3	6,1
EAE	12,1	14,6	32,8	40,4	21,4	21,7

Iturria: EUROSTATen (2014eko maiatzaren 19an jasotako datuak) eta EUSTAT eta BJAren datuen bidez egindakoa.

Gure Erkidegoan behin-behinekotasuna % 20-22 ingurukoa da, Holanda (% 20,3) eta Portugal (% 21,5) bezalako herrialdeetan bezalatsu; Europar Batasunean batezbestekoa % 13,8 da eta Euroaren Eremuan, aldiz, % 15,2. Behin-behinekotasunaren ratorik handienak Espainian (% 23,4) eta Polonian (% 26,8) daude.

Horrez gain, kontraturik gabeko egoerak eta bestelakoak, funtsean emakumeak ukitzen dituztenak, biltzen dituen tasa azken urtean puntu bat murriztu da % 6,9raino. Emakumeei dagokionez, % 1,3koa da; gizonei dagokionez, berriz, % 0,6koa baino ez.

Adin talde bakoitzari dagokionez, oraindik ere aldi baterako kontratuak dituztenen eta kontraturik ez dutenen ratorik handienak adinez gazteenak direnek osatzen dituzte, aurreko urtekoak baino gehiago izan direla. Zehazki, 16 eta 24 urte arteko emakumeen % 69,4k (2012an baino 10,9 puntu portzentual gehiago) eta gizonen % 69,6k (aurreko urtean baino 4 puntu gehiago) aldi baterako kontratua dute. "Kontratu barik eta beste batzuk" egoeran dauden soldatapekoen tasak, adin bererako, % 6,7 eta % 2,6 dira hurrenez hurren. Aurreko adierazpenak zehazteko, komenigarria da kontuan hartzea 16 eta 24 urte arteko pertsonen % 16,6k baino ez dutela lanik izan 2013an (% 30ek 2010ean), jarduera- eta langabezia-tasen bilakaera dela-eta.

Halaber, EUSTATEk BJaren laginaren akats handiez ohartarazi du 2013an, 25 urtetik beherako kontratu motaren arabera soldatapekoen datuetan. Beraz, kontuz hartu behar dira datuak.

II.6.5. KOADROA. EAE-N 16 URTE EDO GEHIAGO ETA SOLDATAPEKO LANA DUTEN BIZTANLEEN BILAKAERA, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA, 2011-2012.

		BATEZ BESTE (milakotan)		% BERTIKALAK		Urte arteko aldakuntza tasa (%)	
		2012	2013	2012	2013	2011-12	2012-13
GUZTIRA	Guztira	742,7	723,2	100,0	100,0	-4,3	-2,6
	Gizonak	385,9	370,8	100,0	100,0	-5,2	-3,9
	Emakumeak	357,8	352,3	100,0	100,0	-3,0	-1,5
MUGAGABEA-FINKOA	Guztira	574,5	557,1	77,4	77,0	-4,5	-3,0
	Gizonak	312,3	298,9	80,9	80,6	-6,1	-4,3
	Emakumeak	262,2	258,2	73,3	73,3	-2,6	-1,5
ALDI BATERAKOA	Guztira	159,1	156,7	21,4	21,7	2,2	-1,5
	Gizonak	72,5	69,8	18,8	18,8	0,6	-3,7
	Emakumeak	86,6	86,9	24,2	24,7	3,6	0,3
KONTRATU BARIK ETA BESTE BATZUK*	Guztira	10,1	9,4	1,4	1,3	-46,0	-6,9
	Gizonak	1,0	2,1	0,3	0,6	-60,0	110,0
	Emakumeak	9,1	7,2	2,5	2,0	-43,8	-20,9

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta".


* Laginetaren akats maila handia antzeman da eta, beraz, kontua hartu behar dira datuak.

II.6.6. KOADROA. JARDUERA ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA SEXU ETA ADIN TALDE BAKOITZEKO. URTEKO BATEZ BESTEKOAK.

	JARDUERA TASA			LANGABEZIA TASA		
	2011	2012	2013	2011	2012	2013
Populazioa >16	56,2	54,9	56,6	10,8	12,1	14,6
16-24	30,3	26,1	27,9	24,1	32,8	40,4
25-34	87,1	83,3	86,5	13,8	16,5	20,6
35-44	88,2	88,2	90,3	10,6	10,8	12,2
45-54	82,8	82,9	85,0	8,6	9,7	11,2
55-64	48,6	48,8	52,6	5,5	6,4	9,2
+64	1,0	0,8	1,0	0,0	0,0	6,8
GUZT., gizonak	63,2	61,1	63,0	11,3	12,5	15,1
16-24	30,0	25,4	27,3	26,0	35,0	41,4
25-34	88,2	84,7	86,9	14,9	18,2	22,1
35-44	93,6	93,3	94,8	10,6	10,6	12,4
45-54	92,1	89,8	92,3	9,2	9,7	11,9
55-64	60,1	58,1	62,7	6,0	7,1	10,0
+64	1,3	1,2	1,5	0,0	0,0	7,4
GUZT., emak.	49,5	49,1	50,5	10,3	11,7	14,0
16-24	30,5	26,8	28,5	22,0	30,2	39,4
25-34	85,8	81,8	86,1	12,6	14,7	19,2
35-44	82,4	83,0	85,5	10,7	10,9	12,1
45-54	73,7	76,0	77,7	7,8	9,6	10,4
55-64	37,6	40,0	43,0	4,8	5,4	8,0
+64	0,8	0,6	0,7	0,0	0,0	5,9

Iturria: EUSTAT, BJA.

II.6.2. GRAFIKOA. ALDI BATERAKO KONTRATUEK ETA "KONTRATU BARIK ETA BESTE BATZUK" EGOEREK SOLDATAPEKO GUZTIEN GAI NEAN DUTEN PISUAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA, EAE-N.



Iturria: EUSTAT. BJA.

* Laginen akats maila handia. Kontuz hartu behar dira datuak.

Azkenik, eta Gizarte Segurantzaren kotizatzaileei dagokienez 2013ko abenduan (ikus kapitulu honetako 1. orriko oin-oharra), %1,4 jaitsi dira aurreko hilearen aldean (-%0,5 batez beste Estatuan), eta 12.505 afiliatu gutxiago daude alta emanda. Jaitsiera hori 2012koa baino txikiagoa da, baina 2010 eta 2011koa baino handiagoa. Nabarmenezkoa da otsailetik hasita egonkortu egin dela afiliatuen kopurua, noiz-eta joera negatiboa izan zenean 2012 urte osoan.

Lurraldeka, Araba eta Bizkaia dira bilakaerarik txarrena izan dutenak, hango kotizatzaileak % 1,8 eta %1,7 murriztu baitira; Gipuzkoan, berriz, beherakada % 0,7koa izan da. Sexuaren arabera, gizonen afiliazioa % 2,2 murriztu da eta emakumeena, aldiz, % 0,5.

Horrez gain, eraikuntza da Gizarte Segurantzako kotizatzaile gehien galdu dituen jarduera: % 8,2, 2012ko amaieraren aldean. Industria % 3,2 jaitsi da, eta, zerbitzuak % 0,2 eta lehen sektorea % 4 murriztu dira. Eraikuntzarekin lotutako jardueraz gain (-4.720 afiliatu alta emanda), beste batzuk ere nabarmendu dira kotizatzaileen jaitsieragatik: manufaktura-industria (-5.727), merkataritza (-1.936), informazioa eta komunikazioak (-1.189) eta garraioak eta biltegiatze-lanak (-1.184). Hauexek, berria, gehien hazi diren jarduerak: hezkuntza (+1.883), osasun jarduerak (+1.068) eta etxeko langileak (+912); izan ere, etxeko langileei buruzko araudi berriaren eragin positiboari eutsi diote 2013an.

Horrez gain, kotizatzaile atzerritarren kopurua % 6,8 murriztu da azken urtean; bertako afiliatuen kopurua, aldiz, % 1,1. Bilakaeraren sexuaren araberrako aldea oso handia da: gizonekoetan %8,5 jaitsi da eta emakumezkoetan, berriz, %5,1. Kotizatzaile atzerritarren kopuruaren jaitsiera hori oso nabarmena izan da Araban, % 13,1 murriztu baita. Gipuzkoan % 3,6 murriztu da, eta Bizkaian % 6,6. EBko beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen artean, % 4 murriztu da, eta Europar Batasunetik kanpokoen artean, aldiz, % 8,1.

6.1.2. Langabezia

2013ko lan-merkatuaren bilakaeraren ondorioz, BJAraiko langabezia-tasa orokorra % 15,3koa izan da urtearen amaieran eta % 14,6koa batez beste lau hiruhilekoetan. Datu horiek ez dira agertu 2000tik, eta EBko batezbestekoa gaitzen dute (% 10,8 28ko EBn eta % 12 Euroaren Eremuan).

Europar, oso ezberdinak dira langabeziaren kopuruak: % 25etik gorako balioak ditugu, adibidez, Espainian (% 26,1) edo Grezian (% 27,3), eta % 6koak edo txikiagoak Austrian, Holandan edo Luxemburgen, esate baterako. AEBetan % 6,7ko langabezia-tasa dago, % 3,7koa Japonian, eta Frantziak, Poloniak eta Esloveniak Europako batezbestekoaren antzeko ratioak dituzte, zenbait adibide aipatzearen.

2013. urtea gure Erkidegoan langabeen kopurua gehitu den ondorengo seigarren urtea izan da, eta gehikuntza horrek adin tarte guztiei eragin die. Bereziki gazteenen (25 urtetik beherakoak) artean hedatu da, talde horretan 2012an baino 4.300 langabe gehiago egon direla. Horren ondorioz, haren langabezia ratioa urtean % 40,4ko batezbestekora heldu arte, baita 45 urtetik gorakoetan ere. Talde horren langabeziak %30 egin du gora, 10.700

II.6.7. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN BATEZ BESTEKO KOTIZATZAILEAK, LURRALDE ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO HILEAK*

		ABENDUKO HILEAK		12-13KO ALDAKUNTZA	
		2012	2013	Abs.	%
ARABA	GIZONAK	81.277	78.994	-2.283	-2,8
	EMAK.	64.055	63.819	-236	-0,4
	GUZTIRA	145.335	142.816	-2.519	-1,7
GIPUZKOA	GIZONAK	159.093	157.084	-2.009	-1,3
	EMAK.	134.314	134.275	-39	0,0
	GUZTIRA	293.409	291.360	-2.049	-0,7
BIZKAIA	GIZONAK	273.524	231.179	-42.345	-15,5
	EMAK.	211.391	209.805	-1.586	-0,8
	GUZTIRA	448.917	440.985	-7.932	-1,8
GUZTIRA, EAE	GIZONAK	477.894	467.257	-10.637	-2,2
	EMAK.	409.760	407.898	-1.862	-0,5
	GUZTIRA	887.660	875.155	-12.505	-1,4

*Ikus kapitulu honetako 1. orriko oin-oharra.

Iturria: LANBIDE, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuak erabilia egindakoa.


pertsona gehiago. Hala ere, lan-merkatuen duen pisua dela-eta, batez bestekoaren azpitik dago haien langabezi tasa: %10,5koa da:

II.6.8. KOADROA. EAE-KO LANGABETUAK. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA.

	Pertsona kop.			Diferentzia		Aldakuntzaren %		Langabezi tasa	
	2011	2012	2013	2011-12	2012-13	2011-12	2012-13	2012	2013
GUZTIRA	114.100	124.800	155.000	10.700	30.200	9,4	24,2	12,1	14,6
GIZONAK	64.800	69.600	86.400	4.800	16.800	7,4	24,1	12,5	15,1
EMAKUMEAK	49.300	55.200	68.500	5.900	13.300	12,0	24,1	11,7	14,0
16-24 URTE	12.400	14.200	18.500	1.800	4.300	14,5	30,3	32,8	40,4
25-44 URTE	70.400	75.000	90.100	4.600	15.100	6,5	20,1	13,3	15,8
45 URTE BAINO GEHIAGO	31.300	35.700	46.400	4.400	10.700	14,1	30,0	8,5	10,5
Lehen mailako ikasketak	9.800	9.400	8.700	-400	-700	-4,1	-7,4	12,3	16,4
Erdi mailako ikasketak	79.400	84.500	111.100	5.100	26.600	6,4	31,5	14,3	17,3
Goi mailako ikasketak	24.900	30.900	35.100	6.000	4.200	24,1	13,6	8,6	9,6
Inoiz lan egin dute	106.400	115.500	146.200	9.100	30.700	8,6	26,6		
Lehen lanaren bila	7.700	9.400	8.800	1.700	-600	22,1	-6,4		

Iturria: EUSTAT "BJA".

II.6.3. GRAFIKOA. LANGABEZIA-TASEN BILAKAERA EB-N ETA EAE-N, SEXUAREN ARABERA




Iturria: EUSTATen eta EUROSTATen datuak erabilia egindakoa.

Europar gazteen langabezia-tasa % 23tik gorakoa izan da Batasun osorako, baina Italian, Portugalen eta Zipren, besteak beste, % 30etik gorakoa izan da, eta Grezian eta Espainian, aldiz, % 50etik gorakoa. Beste muturrean kokatu dira Alemania, Holanda eta Austria, % 8-9 inguruko ratioak izan baitituzte.

Sexuaren arabera, langabetuen %55,7 gizonezkoak dira eta %44,3, eta langabezia proportzio berean sexu bietarako (+%24,2). Hala ere, langabezi tasa handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (% 15,1 eta % 14 hurrenez hurren).

II.6.4. GRAFIKOA. LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: EUSTATen BJA

Sektoreka, langabetuen % 62 zerbitzuen sektorekoak izan dira; sektore horretan langabezia % 28,4 hazi zen (2012an % +11,4). Halaber, industrian langabezia % 29,3 handitu da (batezbestekoa den % +24,2aren gainetik), eta eraikuntzaren sektorean, aldiz, % 14,3 murriztu da langabeen kopurua (+2.400 pertsona). Bestalde, lehenengo lanpostua bilatzen ari diren pertsonen taldean 600 gehiago izan ziren, 8.800 batez beste urtean.

Gainera, lehen mailako ikasketak dituzten langabeak 8.700 izan dira, hau da, % 7,4ko murrizketa izan dute eta % 16,4ko langabezia-tasa izan dute. Bestalde, erdi mailako ikasketak dituztenak 111.100 ziren (guztien % 71,7), % 31,5 gehiago, langabezi tasa batezbestekoa baino handiagoa izan arte: %17,3. Amaitzeko, goi mailako ikasketak dituzten langabeak batezbestekoaren (% 13,6) gainera gehitu dira, haien langabezia-tasa % 9,6koa izan dela, 2012an baino puntu bat gehiago.

Lurraldeka, desberdintasunak aurkitu dira langabezia-tasen mailai eta bilakaerei dagokienez: Gipuzkoak batez besteko %12 du urtean, tasarik txikiena, eta 3 puntu igo da 2012aren aldean; Araba EAeko batez bestekoaren gainera dago pixka bat, %14,9ko langabeziarekin, zeren eta 5,2 hazi baita aurreko urtearen aldean. Bizkaiak, azkenik, tasarik handiena du batez beste (%16,1), baina gutxien hazi dena da 2012ko batez bestekoaren aldean: +%1,4.

Bestalde, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak erregistraturiko langabeziak BJAREN datuak gainditzen dituela egiaztatu da. 2013ko abenduan LANBIDEn 167.374 langabetu erregistratu ziren (% -1 aurreko urtearekin alderatuta eta Estatuko batezko %3aren aurrean), eta EUSTATen biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestak 165.600 langabetu kalkulatu zituen urteko laugarren hiruhilekoan, izan ere, inkesta horretako langabetuen sailkapenak kanpo uzten ditu enplegu-eskatzaille gisa izena eman duten hainbat pertsona²⁵.

II.6.9. KOADROA. EAE-KO LANBIDEREN BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. (ABENDUKO HILEAK).					
	2011	2012	2013	% 2011-12	% 2012-13
GUZTIRA	145.394	169.083	167.374	16,3	-1,0
GIZONAK	71.255	84.571	82.528	18,7	-2,4
EMAKUMEAK	74.139	84.512	84.846	14,0	0,4
< 25 urte	11.935	13.281	10.216	11,3	-23,1
Gainerako adinak	133.459	155.802	157.158	16,7	0,9
ATZERRITARAK	20.646	23.061	22.595	11,7	-2,0

Iturria: LANBIDE. Euskal Enplegu Zerbitzua

Krisia hasi zenetik erregistraturiko langabeziaren saldo negatiboa gertatu den lehenbiziko urtea da, eta gainera, ikusten denez, behera egin du langabeziak gizonetzkoetan (-%2,4), baina, pixka bat hazi egin da emakumeen artean (+%0,4). Alabaina, lan-eskatzaille kopuruak gorantz jarraitu du Euskadin 2013an (guztira 243.665 pertsona dira, 2012ko abenduan baino %4,2 gehiago); Espainian, berriz, %2,9 murriztu da.²⁶

Adinen arabera, korrelazio handia antzematen da erregistraturiko langabeziaren jaitsieraren eta gazteen artean, halako moldez non behera egin baitu 34 urtetik beherakoaren artean (nabarmentzekoa da bereziki 25 urtetik beherakoaren jaitsiera, %23,1ekoa hain zuzen ere). 55-64 urtekoen artean, berriz, %8,5 igo da.

II.6.10. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEAK, IRAUPENAREN ARABERA					
		GUZTIRA	< URTEBETE	> URTEBETE	% >URTEBETE
2011	GIZONAK	71.255	47.269	23.986	33,7
	EMAKUMEAK	74.139	41.265	32.874	44,3
	GUZTIRA	145.394	88.834	56.860	39,1
2012	GIZONAK	84.571	52.542	32.029	37,9
	EMAKUMEAK	84.512	44.258	40.254	47,6
	GUZTIRA	169.083	96.800	72.283	42,8
2013	GIZONAK	82.528	45.054	37.474	45,4
	EMAKUMEAK	84.846	38.802	46.044	54,3
	GUZTIRA	167.374	83.856	83.518	49,9

Iturria: LANBIDE.

Langabeziaren iraupenari dagokionez, gora egin du 2013an iraupen luzeko langabetuen ehunekoak, hots, lanik gabe urtebetetik gora daramatenenak. 2013ko abenduan, erregistraturiko pertsonen %49,9ri eragiten zien; 2012ko abenduan, berriz, %42,8ri. Sexuen arabera, iraupen luzeko gizonekoak guztizkoaren %45,4 dira, eta emakumezkoetan %54,3ko ratioa

²⁵ Bi operazioen arteko alde metodologikoak oso handiak dira, eta, beraz, ezin dira erkatu, langileak sailkatzeko modu desberdinez gain, LANBIDEn kopuruak erregistroetatik datozen bitartean, BJARENak lagin batean oinarrituta egindako inkesta batetik datozelako. Halaber, kontuan izan behar da Europako Batzordearen 1897/2000 araudiari jarraituz, BJAk langabetzat jotzen dituela, soldatapeko lanik edo independenterik ez izateaz eta egun lan bila eta lan egiteko prest egoteaz gain, aurreko lau asteetan Araudi horretan lan bilaketa;tzat jotako gestioaren bat egin duten pertsonak. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarenkin kontaktatzea. Horren ondorioz, EUSTATen inkestak "langabea" kontzeptutik kanpo uzten ditu LANBIDEn hala erregistraturiko pertsona asko.

²⁶ Hauexek osatzen dute lan-eskatzaille guztizko kopurua: erregistraturiko langabeak (gehienak dira 2013ko abenduan: lan-eskatzaille guztien %68,9) eta lana eskuratu nahi dutenak eta bestelako egoeran daudenak, hala nola lanik ez duten eskatzailleak baina lan-eskaera bereziak eta baliagarritasun mugatua dutenak (soilik etxez etxe, atzerrian, telelana, etab.)

dugu.

Halaber, INEren Populazio Aktiboaren Inkestari esker, zehatzago ikus daiteke langabetuen banaketa langabeziaren iraupenaren arabera. 2013ko laugarren hiruhilekoko datuei erreparatuta, Euskadiko langabetuen %41,9k urtebete baino denbora laburragoa darama langabezia (batez beste %39,3 Estatuan), %21,8k urtebete eta bi urte artean (ratio bera Estatuan) eta %36,3k bi urtetik gora daramatza langabezia (%38,9 Estatuan), hots, "iraupe luzeko langabezia" deritzon horretan. Iraupen luzeko langabezia zeuden urtebete lehenago (2012ko laugarren hiruhilekoa) euskal langabetuen %29 (batez beste %32,1 Estatuan).

EBn, 28 herrialdeetako iraupen luzeko langabetuen batez besteko tasa %47,5ekoa da 2013rako guztizko langabeziaren gainean: Eslovakiako %70,2koaren Suediako %18,5ekoaren artean dago. EUROSTATen arabera, iraupen luzeko langabezia %49,7koa da Espainian 2013an, Eurogune osorako ia ratio berdina hain zuzen ere (%49,9).

Azkenik, Lanbideren datuek erakusten dute 2013an batez bestekoa baino neurri handiagoan murriztu dela langabezia atzerritarren artean (-%2) eta, beraz, beheara egin du pixka bat langabetu atzerritarren pisuak: guztizkoaren %13,6tik %13,5era. Estatuan langabetuen %11,8 dira, aurreko urtean baino 8 hamarren gutxiago.

6.2. KONTRATAZIOEN ETA IRAIZPENEN BILAKAERA

6.2.1. Kontratazioaren egoera

Kontratazioa hazi egin da 2013an aurreko urtearen aldean (guztira +%0,8, %1,1 hasierako kontratuen kopuruan). Kontrakoa gertatu zen 2012an, noiz-eta guztizko kontratazioa %6,9 murriztu zenean, eta hasierako kontratuak %6,6. Kontuan izan behar da, hala ere, etxeko zerbitzuko kontratuen kontabilizazio zuzenak 2012an urteko guztizko kontratazioa handiarazi duela, arauetan izandako aldaketan ondorioz, eta 2013ko datuak 2012koekin erkatzean, bilakaera negatiboa izan liteke, ez positiboa²⁷.


II.6.11. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA IRAUPENAREN ETA SEXUAREN ARABERA					
		2012	2013	Aldak. Abs. 2012-13	Aldak. % 2012-13
Mugagabea	Gizonak	22.026	21.063	-963	-4,4
	Emak.	21.260	23.531	+2.271	10,7
	Guztira	43.286	44.594	+1.308	3,0
Aldi baterakoa	Gizonak	304.832	309.726	+4.894	1,6
	Emak.	325.411	324.626	-785	-0,2
	Guztira	630.243	634.352	-4.109	0,7
GUZTIRA	Gizonak	326.858	330.789	+3.931	1,2
	Emak.	346.671	348.157	-1.486	0,4
	Guztira	673.529	678.946	+5.417	0,8
Mugagabeen tasa	Gizonak	6,74	6,37	-0,37	
	Emak.	6,13	6,76	+0,63	
	Guztira	6,43	6,57	+0,14	

Iturria: LANBIDEko datuekin eginda EEZPren datuak oinarri hartuta. Kontratuen estatistika.

2013ko kontratu guztietatik (berrikusteko datuen zain), 44.594 mugagabeak izan dira, hots, guztizkoaren %6,6 (%6,4 2012an). Mugagabeen kopuru hori aldi baterako kontratuen gainetik hazi da, %3 lehen kasuan eta %0,7 bigarrean.

Gainera, bilakaera positiboak eragina du zatizko lanaldiko kontratuetan; izan ere, 268.942 dira (+%4,5 2012aren aldean eta kontratu guztien %38,2). Lanaldi osoko kontratuak, bestela, 410.004 dira, eta %1,5 murriztu dira.

II.6.5. GRAFIKOA. EAE-KO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA, JARDUERA SEKTOREEN ARABERA



Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

²⁷ Izan ere, ohiko prozeduraren eta 2012ko urtarri eta irail arteko familien etxeko zerbitzuaren kontratuen kontabilizazio zuzenaren arteko diferentzia, familien etxeko zerbitzuaren lan-harreman bereziak araupetzen dituen azaroaren 14ko 1620/2011 EDaren ondorioz, Espainian 2012an izandako kontratazio guztiak berrikusi beharra izan da. Horren ondorioz, bilakaera positiboa izan da kontratazioan 2012 eta 2013 bitartean, baina kontuz baloratu beharra dago, zifrak behin betikoak izan arte.

II.6.12. KOADROA. EAE-KO KONTRATAZIOA (KONTRATU BERRIAK ETA BIHURTUAK) SEXUAREN ETA JARDUERAREN ARABERA (EJSN 2009)

	2012	2013KO KONTRATUAK				Aldak. % 11/12	Aldak. % 12/13
		GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	% bertikala		
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza	13.930	14.060	1.469	15.529	2,3	9,1	11,5
Erauzketa industriak	70	54	10	64	0,0	-9,1	-8,6
Manufaktura-industriak	51.638	40.312	12.508	52.820	7,9	-8,6	2,3
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren hornikuntza	68	52	18	70	0,0	7,9	2,9
Uraren hornikuntza, hondakinen kudeaketa	3.399	3.243	319	3.562	0,5	-5,7	4,8
Eraikuntza	32.612	30.263	1.254	31.517	4,7	-19,3	-3,4
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketak	60.287	21.155	40.967	62.122	9,3	-3,0	3,0
Garraioa eta biltegiatzea	24.559	17.599	6.332	23.931	3,6	-10,1	-2,6
Ostalaritza	73.907	28.883	53.534	82.417	12,4	1,6	11,5
Informazioa eta komunikazioak	17.614	8.577	5.979	14.556	2,2	-14,8	-17,4
Finantza jarduerak eta aseguruetak	2.738	969	2.076	3.045	0,5	-19,8	11,2
Higiezin jarduerak	787	607	381	988	0,1	-10,6	25,5
Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	23.413	7.930	12.936	20.866	3,1	-15,9	-10,9
Administrazio-jarduerak	191.845	102.008	81.260	183.268	27,6	-11,3	-4,5
II.6.12.	6.647	2.527	3.425	5.952	0,9	-32,5	-10,5
Hezkuntza	29.171	9.005	20.966	29.971	4,5	-3,7	2,7
Jarduera sanitarioak eta gizarte zerbitzuetakoak	77.686	14.696	66.275	80.971	12,2	0,8	4,2
Jarduera artistikoak, jolas eta entretenimendurakoak	28.016	14.906	10.707	25.613	3,9	3,0	-8,6
Bestelako zerbitzuak	12.985	4.748	8.403	13.151	2,0	-8,3	1,3
Langileen enplegatzaile gisako etxeak	6.023	1.505	12.593	14.098	2,1	669,2	134,1
Lurraldeez kanpoko erakundeak eta organismoak	8	6	6	12	0,0	14,3	50,0
GUZTIRA	657.403	323.105	341.418	664.523	100,0	-6,6	1,1

Iturria: LANBIDEko datuekin eginda EEZPren datuak oinarri hartuta. Kontratuen estatistikak.

Azken finean, EEZPren datuek erakusten dutenez, 2013an 678.946 lan-kontratu ziren guztira (berriak nahizko bihurtetako kontsideraturik). Horietatik % 51,3 emakumeek sinatu zituzten (aurreko urteko % 51,5arekin alderatuta), eta 2013an kontratatutako % 47,6 emakumeak izan ziren baita ere.

Lurraldeez kanpoko, Araban %3,8koa izan da kontratazioaren igoera, eta %2,3koa Gipuzkoan. Bizkaian, berriz, %1 egin du behera kontratazioaren kopuruak.

Estatuan 2013an 14,8 milioi kontratu erregistratu ziren, hau da, 2012an baino % 7,5 gehiago, nahiz eta urte horretan % -1,3ko gehikuntza egon zen aurreko urtearen aldean.

Sektoreka, industriak kontratuen % 2,4 irabazi zuen eta zerbitzuek % 0,9; eraikuntzak, aldiz, % 3,4 galdu zuen. Lehen sektoreko kontratazioa, bestalde, %11,5 hazi da. Hala, hirugarren sektoreak erregistratutako kontratuen % 84,4 hartu du, aurreko urtean baino hamarren 1 gutxiago, industriak % 8,5 (hamarren 1 gehiago), eraikuntzak % 4,7 (-3 hamarren) eta lehen sektorea % 2,3an mantendu da (2012an baino 2 hamarren gehiago). Bestalde, hauexek dira gehien kontratatzen duten enpresen jarduerak: administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak, eta horien artean, ABEak daude (hasierako kontratuen guztizkoaren %27,6), ostalaritza (%12,4), osasun jarduerak (%12,2), merkataritza (%9,3) eta manufaktura-industria (%7,9).

II.6.13. KOADROA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA LANALDI MOTAREN ETA IRAUPENAREN ARABERA, ETA BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK

		2011	2012	2013	Abs. 2012- 13	% 2012- 13
Zatizko lanaldia	Mugagabea	12.307	14.597	16.843	+2.246	15,4
	Aldi baterako	243.117	242.783	252.099	+9.316	3,8
	Guztira	255.424	257.380	268.942	+11.562	4,5
Lanaldi osoa		472.226	416.149	410.004	-6.145	-1,5
KONTRATUAK, GUZTIRA		727.650	673.529	678.946	+5.417	0,8
Zatizko lanaldiaren tasa		35,1	38,2	38,2	0,0	
Hasierako kontratuak		704.152	657.403	664.523	+7.120	1,1
Bihurtetako*		19.668	16.126	14.423	-1.703	-10,6
Kontratuak atzeritarrei		86.029	75.820	74.968	-852	-1,1

Iturria: EEZPren datuekin eginkoa.


* Kontratuak guztira, ken hasierakoak; Gizarte Lankidetzako Atxik. Kontratuak barne

Halaber, EEZPren datuek adierazi dute 2013an, gure Erkidegoan inskribatutako lan-kontratu guztietatik 74.968 atzerritarrek sinatu dituztela; kopuru hori kontratu guztien % 11 da, eta 2012an baino % 1,1 gutxiago. Horren ondorioz, EAE ukitzen duen kontratazioaren murrizketa are handiagoa da atzerritarrentzat. Atzerritarrek sinatutako kontratu guztietatik % 14,3 lehen sektoreko jardueri dagozkie, %5,5 industriari, % 10,2 eraikuntzari eta % 70 zerbitzuei. Halaber, gizonezkoek sinaturikoak izan ziren %59,8 eta gainerako %40,2a emakumeek.

Amaitzeko, lan-txandakatzeari (sinatutako kontratuen kopuruaren eta kontratatutako pertsonen kopuruaren arteko zatidura) buruzko datuek

gehikuntza handia agertu dute 2013an, ratioak 2,99 kontratuko balioa hartzen baitu pertsonako urtean zehar, 2012an baino 26 ehunen gehiago. Bilakaera hori bi sexuetan gertatu da, txandakatzea handiagoa izan baita gizonentzat (2,68 kontratutik 2,78ra) eta neurri handiagoan emakumezkoentzat (2012ko 2,75 kontratutik 2013ko 3,22ra). Txandakatzea 3,22koa da langile atzerritarren artean eta 3,14 bertakoen artean.

II.6.6. GRAFIKOA. LAN TXANDAKETAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA EAE-N



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.


6.2.2. Banakako eta taldeko irazpenen bilakaera

Lehenengo eta behin, gogorarazi behar da erregistraturiko banakako irazpenak Autonomia Erkidegoko lan-administrazioko agintaritzaren eskudunaren aurrean (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ordezkatuta) egindako adiskidetzaren ondorioz eta bi aldeak ados egonik egin direla, baita Lan arloko Epaitegien bidez izapidetutakoak ere; irazpen horiek Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioari jakinarazten zaizkio.

Horrez gain, taldeko irazpenak enpresak lan harremanak arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolaketa eta ekoizpen arrazoiengatik, ezinbestean edo enpresaburuaren nortasun juridikoa iraungitzeagatik suntsiarazteko (langileen legezko ordezkariek ados egonda edo ados egon gabe) erabakitzen dituenak dira.

Nabarmendu behar da 2012ko otsailean indarrean sartu zen lan erreformak taldeko irazpenetarako administrazio baimenaren behar historikoa ezabatu zuela. Horrenbestez, orduetik aurrera enpresak berez erabakitzen du, langileen ordezkariek ados egonda edo ados egon gabe, eta lan agintaritzari taldeko irazpena gauzatzeko erabakia jakinarazi besterik ez du egin behar. Kasu berezi gisa, ezinbesteko irazpenei dagokienez, oraindik lan agintaritzak egiaztatu behar du zirkunstantzia hori egon badagoela, enpresak irazpen horiek gauzatu ditzan.

II.6.7. GRAFIKOA. EAE-KO IRAIZPENAK: KALTETURIKO LANGILEEN BILAKAERA



Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak arlo horri buruz argitaratzen dituen estatistikek ez dituztela islatzen egindako irazpen guztiak, ez baitituzte biltzen arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolaketa edo ekoizpen arrazoiengatik gertatu direnak, taldeko irazpentzat jotzen denak²⁸ ezarri duen langile kopuruari baino gutxiagori eragiten badie; gainera, enplegu-erregulazioko erabakien ondoriozko erretiro aurreratutako adostutako iraungipentzat jotzen dira estatistikoki, eta ez irazpentzat.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ere EAEn erregistratutako enplegua erregulatzeko espedientei buruzko estatistikak argitaratu ditu. Iturri horretako eta Enplegu Ministerioko datuak bat etorri ez arren (Ministeriokoak gehiago dira, erkidegoa baino esparru handiagoko espedienteak, euskal langileak ukitzen dituztenak, erregistratzen dituelako), interesgarria da bi estatistikek egindako azterketa, bien bilakaera norabide berean baitoa.

Iturri horrek 2.426 EEE jaso zituen 2013an; enplegua erregulatzeko espediente horiek 31.720 langileri eragin zieten (aurreko urtean baino % 15,3 gutxiago), horietatik % 76 behin-behineko etete-espedienteak ezarri zitzaizkien (% 76,5 2012an), % 18,3ri lanaldia murriztu zitzaizen (% 14,6 2012an) eta gainerako % 5,9ari amaiera-espedientea ezarri zitzaizen (% 8,9 aurreko urtean). Kausen arabera, kalteturiko langileen %98,3 dira kasua ekonomikoak, eta ondoren datoz teknologikoak, %1ekin, eta soilik horietako %0,7 (225 langile) ezinbesteko kausengatik.

II.6.14. KOADROA. ENPLEGUA ERREGULATZEKO EAE-N BAIMENDUTAKO ESPEDIENTEAK: KALTETURIKO LANGILEAK ETA HAIEN KOPURUA (EUSKO JAURLARITZA)					
	Espedient.	Eraginpeko langileak			
		Guzt.	Murrizketa	Etetea	Amaitea
2008	496	12.795	108	11.217	1.470
2009	2.565	68.722	1.170	65.574	1.978
2010	1.993	35.426	1.051	32.349	2.026
2011	1.560	22.072	2.203	17.991	1.878
2012	2.636	37.429	5.466	28.627	3.336
2013	2.426	31.720	5.814	24.104	1.872
Aldak. %, 11/12	69,0	69,6	148,1	59,1	77,6
Aldak. %, 12/13	-8,0	-15,3	6,4	-15,8	-43,9

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politika Saila. EUSKO JAURLARITZA.

II.6.15. KOADROA. KALERATUEN BILAKAERA EAE-N (ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA)					
	Balio absolutuak			Aldak. %	
	2011	2012	2013*	2011/2012	2012/2013
Kalteturiko langileak					
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	955	2.248	4.144	135,4	84,3
Gizarteko gai judizialak	4.049	4.478	6.055	10,6	35,2
Enpleguaren erregulazioa	28.492	51.948	42.449	82,3	-18,3
GUZTIRA	33.496	58.674	52.648	75,2	-10,3
ADOSTUTAKO KALERATZEEN BANAKAKO ADISKIDETZEETAN ERABAKITAKO KOPURUAK:					
Zenbatekoa guztira (mila €)					
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	41.447	96.156	..	132,0	..
Gizarteko gai judizialak	30.289	41.642	..	37,5	..
GUZTIRA	71.736	137.798	..	92,1	..
Batez besteko zenbatekoa (€)					
Bitartekotza, arbitrajea eta adiskidetzea	43.400	42.774	..	-1,4	..
Gizarteko gai judizialak	7.481	9.299	..	24,3	..

Iturria: MESS. Estatistika datuen bankua.

** Behin-behineko datuak.*

Horrez gain, Enplegu Ministerioaren datuak oinarri hartuta (Estatuko gainerako erkidegoetan gertatzen denarekin erkatzea ahalbidetzen baitute) EAEn erregistratutako irazpenen kopuru osoa, 2002 eta 2007 bitartean beharrezko ibilbidea izan arren, % 355,5 handitu zen 2009an, 2010-2011 biurtekoan murriztu zen, eta 2012an berriro areagotu da eta 2013an, berriz %10,3 jaitsi (behin-behineko datuekin). Joera hori Estatukoaren antzekoa da; izan ere, irazpen gutxiago dago Estatuan, neurri txikiagoan bada ere (-%8,9). Beraz, EAEko irazpenen pisuari eusten zaio EAEn guztizkoarekiko, eta %8,7 da.

²⁸ Taldeko irazpentzat jotzen da hark 5 langiletik gorako langileria osoari eragiten dionean, enpresa jarduera erabat amaitzearen ondorioz edo, lauogeita hamar eguneko epean, 100 langiletik beherako enpresetan gutxienez 10 soldatapekori, langileen % 10i 100 eta 300 langile arteko enpresetan edo 30 soldatapekori 300 langiletik gorako enpresetan (Langileen Estatutuaren Legeko 51. artikulua)

Iraizpenen kopuruaren EAEko jaitsierak EEk ukitzen ditu bereziki, irazpen guztien % 80,6 arrazoi horrengatik izan baitira (% 18,3 gutxitu dira aurreko urtearekin alderatuta); bitartekaritza, arbitraje eta adiskidetzeez inguruko kontuen eragina jasan duten langileen kopurua % 84,3 handitu da eta gizarteko gai judizialez sartutako pertsonen kopurua, aldiz, % 35,2 handitu zen.

Iraizpenei buruzko kalte-ordainengatik adostutako zenbatekoei dagokienez, 2012an (eskuragarri dugun azken datua), guztira, 137,8 milioi euro izan dira, 2011n baino % 92,1 gehiago.

6.3. LAN-OSASUNA

EAEko lan istripuei buruzko datuek, Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak) erregistratuek, erakusten dute 2013an 28.737 lan istripu gertatu direla, 2012an baino % 3,5 gutxiago (lan istripua izan eta baja eskuratu duten langileen kopurua kontuan izanik, lansaioan eta "in itinere" gertatuko istripuak eta lanbide gaixotasunak barne); Estatu osoan, ordea, jaitsiera % 2,4koa izan da, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera. Jaitsiera horrekin bat egiten dute gure Erkidegoan 2009tik izan diren beherakadeekin; izan ere, %28,6 jaitsiera metatu da.

Lanaldian istripua izan duten pertsonen helduta, azken urtean larritasunaren araberrako mota guztiak murriztu dira (24.611, hots, 2012an baino %3,9 gutxiago): % 3,8 istripu arinak eta % 13,8 larriak; istripu hilgarriak, aldiz, % 9,7 murriztu dira.

II.6.16. KOADROA. LANeko EZBEHAREN BILAKAERA EAE-N: LANeko BAJA DUTEN LANGILE KALTETUAK.

	LANALDIKO ISTRIPIAK								IN ITINERE	LAN. GAIX.	GUZT.
	GUZT.	LARRITASUNA			SEKTOREAK						
		ARINAK	LARRIAK	HERIOTZAK	NEKAZA- RITZA	INDUS- TRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK			
2009	35.200	34.932	233	35	718	12.996	6.274	15.212	4.008	1.067	40.275
2010	34.110	33.849	225	36	667	12.455	5.770	15.218	4.002	1.041	39.153
2011	30.628	30.392	199	37	665	11.460	4.372	14.124	3.384	1.028	35.040
2012	25.615	25.424	159	32	616	9.322	3.143	12.534	3.326	945	29.886
2013	24.611	24.445	138	28	574	8.611	2.562	12.864	3.349	777	28.737
11/12ko aldak. %	-16,4	-16,3	-20,1	-13,5	-7,4	-18,7	-28,1	-11,3	-1,7	-8,1	-14,7
12/13ko aldak. %	-3,9	-3,8	-13,8	-9,7	-6,5	-7,6	-18,5	2,7	0,7	-9,7	-3,5


Iturria: OSALAN.

Gainera, sektorekako azterketak erakusten duenez, istripuen kopuruaren jaitsiera bereziki garrantzitsua gertatu da eraikuntzaren (-%18,5) eta industriaren (-%7,6) sektoreetan; zerbitzuetan, berriz, bilakaera positiboa ageri da (+%2,7).

Kopuru horiek enplegu bolumentarekin erlazionatuz gero, aurreko urtearen antzeko bilakaera dugu: Istripuen indizea 27,2koa da lanean ari diren mila pertsonako

(milako 28,3 2012an eta, beraz, %4 egin du behera). Sektore bakoitzari erreparatuta, jaitsierarik handiena nekazaritzan (-%13,2) eta industrian (-%4,7) daude, hain zuzen 41,5 istripu sektorean lanean diharduten mila pertsonako.

II.6.8. GRAFIKOA. EZBEHARRA IZAN DUTENEN INDIZEA 1.000 LANDUN BAKOITZEKO, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA, EAE-N



Iturria: EUSTAT eta OSALANen datuekin eginikoa.

Adierazitako lanbide gaixotasunei dagokienez (guztira 777, 2012an baino %9,7 gutxiago), laneko istripuen %2,7 dira guztira. Azken urteetan izandako bilakaeraren azterlana baldintzatu du jakinarazpenetarako sisteman izandako aldaketak sartzeak eta, beraz, kontuz hartu behar dira kopuruak.

Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak Autonomia Erkidego bakoitzeko kalkulaturiko

lanaldiko²⁹ istripu kopuruak erakusten du 2013an Balear Uharteek eta ondoren Asturiasek izan zituztela kopururik handienak.

EAEk 3.1215eko indizea du (-%2,2 2012aren aldean) Estatuko batez bestekoaren gainera dago kopuru absolutuetan, baina aurreko urtearen aldean gehien murriztu diren erkidegoen artean dago; gainera, ehunekoetan emana, estatuko aldakuntza positiboa da urte horretan (+%0,7).

II.6.17. KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEAN LANALDIAN BAJAN EGOTEA ERAGIN DUTEN EZBEHARREN INDIZEA						
	2010	2011	2012	2013*	11/12ko aldak.	12/13ko aldak.
ESTATUA	3.871	3.515	2.849	2.869	-18,9	0,7
ANDALUZIA	3.677	3.384	2.721	2.872	-19,6	5,5
ARAGOI	3.417	3.148	2.610	2.657	-17,1	1,8
ASTURIAS	4.887	4.398	3.510	3.491	-20,2	-0,5
BALEAR U.	5.007	4.703	3.873	4.025	-17,6	3,9
KANARIAR U.	4.348	4.110	3.332	3.373	-18,9	1,2
KANTABRIA	3.475	3.224	2.589	2.626	-19,7	1,4
GAZTELA-MANTXA	4.546	4.087	3.361	3.434	-17,8	2,2
GAZTELA ETA LEON	3.948	3.433	2.763	2.750	-19,5	-0,5
KATALUNIA	4.001	3.576	2.897	2.844	-19,0	-1,8
VALENTZIAKO E.	3.437	3.122	2.574	2.672	-17,6	3,8
EXTREMADURA	3.439	3.038	2.560	2.666	-15,7	4,1
GALIZIA	4.369	3.819	2.999	2.839	-21,5	-5,3
MADRIL	3.510	3.231	2.598	2.534	-19,6	-2,5
MURTZIA	3.595	3.365	2.713	2.859	-19,4	5,4
NAFARROA	3.852	3.616	2.790	2.839	-22,8	1,8
EAE	4.282	3.874	3.286	3.215	-15,2	-2,2
Araba	4.690	4.193	3.498	3.403	-16,6	-2,7
Gipuzkoa	4.065	3.756	3.257	3.185	-13,3	-2,2
Bizkaia	4.274	3.838	3.231	3.170	-15,8	-1,9
ERRIOXA	3.951	3.678	2.895	2.932	-21,3	1,3
CEUTA	4.874	3.456	2.915	2.888	-15,7	-0,9
MELILLA	3.782	3.683	2.875	2.873	-21,9	-0,1

Iturria: ENPLEGUA ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA, Laneko Istripuen Estatistikak. () Datuen aurrerapena.*

II.6.18. KOADROA. KONTRATUAREN ARABERAKO EZBEHARREN BILAKAERA EAE-N

	2009	2010	2011	2012	%10/11	%11/12
Lan-kontratu finkoak						
Soldatapekoak (BJA)	622.000	607.200	601.500	574.500	-0,9	-4,5
Bajadun istripuak	21.823	21.291	19.614	17.116	-7,9	-12,7
<i>Ezbehar-tasa (milakotan) (A)</i>	35,1	35,1	32,6	29,8	-7,1	-8,6
Behin-behineko kontratuak						
Soldatapekoak (BJA)	146.500	158.200	155.700	159.100	-1,6	2,2
Bajadun istripuak	11.183	10.306	8.887	6.829	-13,8	-23,2
<i>Ezbehar-tasa (milakotan) (B)</i>	76,3	65,1	57,1	42,9	-12,3	-24,8
B / A	2,17	1,86	1,75	1,44		

Iturria: Testuaren egileak egindakoa ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOAREN (lan-istripuen estatistika) eta EUSTATen (BJA) datuekin.

Beste alde batetik, kontratu motaren arabera lan istripuen datuek adierazten dute ezbehar kopurua askoz handiagoa dela aldi baterako kontratua duten pertsonen artean kontratu mugagabea duten pertsonen artean baino.


Horrela adierazi dute Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren azken datuek, 2012ari dagozkienek. Izan ere, kontratu mugagabea duten pertsonen arteko ezbehar kopurua 29,8koa izan da milaka; aldi baterako kontratua dutenen artekoa, berriz, 42,9koa izan da milaka. Edonola ere, sektore, adin talde eta okupazio mota bakoitzaren arabera gertatzen diren istripuen banaketa ezagutu behar da, behin betiko ondorioak ateratzeko.

²⁹ Istripu kopurua 100.000 langileko istripu kopuruaren eta Gizarte Segurantzaren lan-istripuen arriskua berariaz estalita duten afiliatutakoen kopuruaren arteko zatidura bezala kalkulatzen da.

6.4. LAN HARREMANAK

6.4.1. Lan gatazka

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 2013an 331 greba egon dira guztira EAEn, horietan 36.506 pertsonak hartu dute parte eta lan egin gabeko 139.001 egun eragin dituzte; zifra horiek urte arteko goranzko joera erakusten dute: % 19,1, % 69 eta % 6,2, hurrenez hurren. Bestalde, greba bakoitzeko partaideen kopurua 110 langile izan da (+%41,9 2012aren aldean), grebagatik lan egin gabeko lanegunak 420 (-%10,8) eta greba egin duen langile bakoitzeko lan egin gabeko orduen kopurua, berriz, 30 (%-37,2 2012aren aldean).



Kopuru horiek direla-eta, Lan Harremanen Kontseiluak ohartarazi du datu horietan ez direla sartzen EAEko greba orokorrekoak, ezta Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioan aurrean aurkezturiko azaroko eta abenduako grebak ere (EAEn izan dituzte ondorioak), daturik ezagatik.

Grebak egiteko arrazoiei dagokienez, enplegu erregulazioen eta irazpenen ondorioz eginiko grebak izan dira gehienak (greba guztien %45,6). Negoziazio kolektiboak, berriz, kalteturiko langile kopururik (%68,9) eta lan egin gabeko lanegunen (gutzizkoaren %66,6) kopururik handienak biltzen ditu.

Greba guztietatik (331), 316 enpresaren arloan izan ziren. Sektorearen arloan, berriz, 15. Sektoreka, industrian izan dira greba

gehien (%48,9), kalteturiko langile gehien (%58,1) eta lan egin gabeko lanegunik gehien (%60,9). Bestalde, zerbitzuetan %45,9, %40,5 eta %34,4 izan dira hurrenez hurren, eta partaidetza handitu egin da urteak aurrera egin ahala.

Estatu osoan ere greba kopurua gehitu egin da 2013n. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren datuen arabera, gatazken batura 994, guztira % 13,2 gehitu da; partaideen kopurua, berriz, % 38,3. Alabaina, lan egin gabeko lanegunen kopurua, guztira 1.098.480 izanik, % 14,9 jaitsi zen.

II.6.19. KOADROA. GREBA KOPURUA, KALTETUTAKO LANGILEAK ETA GALDUTAKO LANEGUNAK

		2010	2011	2012	2013*	% 2011/12	% 2012/13
Araba	Grebak	59	67	64	86	-4,5	34,4
	Partaideak	2.392	4.755	3.050	3.869	-25,9	26,9
	Lanegunak	10.361	10.095	21.017	12.916	108,2	-38,5
Bizkaia	Grebak	144	104	133	152	27,9	14,3
	Partaideak	20.092	9.462	10.115	27.956	6,9	176,4
	Lanegunak	85.960	44.235	49.190	96.645	11,2	96,5
Gipuzkoa	Grebak	95	69	81	93	17,4	14,8
	Partaideak	15.606	4.423	8.435	4.681	90,7	-44,5
	Lanegunak	83.198	29.605	60.723	29.440	105,1	-51,5
EAE	Grebak	298	240	278	331	15,8	19,1
	Partaideak	38.090	18.640	21.600	36.506	15,9	69,0
	Lanegunak	179.519	83.935	130.930	139.001	56,0	6,2

Iturria.- Lan Harremanen Kontseilua.


*Behin-behineko datuak. EAEko maiatzeko greba orokorrari dagozkionak ez dira sartu partaideen eta lan egin gabeko egunen datuetan.

6.4.2. Negoziazio kolektiboa: soldaten igoera eta lanaldia

LHKaren 2013ko “Negoziazio Kolektiboaren Balantzea”ren arabera, urte horretan zehar gure erkidegoko langileen %87ari dagozkion hitzarmen kolektiboak berriztatu behar ziren. 2012koa (% 79,2) baino handiagoa da ehuneko hori. Urtea bukatzean, EAEko langileen %60,3k berritzeke zuen hitzarmena (%68,3k 2012an).

2013ko amaieran, oso txikia izaten jarraitzen zuen EAEn ondorioak dituen negoziazio kolektiboak, zeren eta

II.6.10. GRAFIKOA. EAE-N IZANDAKO HITZARMENEK ERAGINDAKO PERTSONEN KOPURUA. EHUNEKOAK.



indarreko hitzarmenek soldatapekoen %39,7 hartzen baitute, 2011n izandakotik hurbilago dagoen ehunekoa da (%40,7) 2012an egondakotik baino (%30,8). %39,7 horretatik, 13 puntu aurreko urteetan hitzartutako hitzarmenek estalitako langileei dagozkie. Hala, 2011n eta 2012an ehuneko horiek %23,4 eta %20 zirela hurrenez hurren, LHKek ondorioztatzen du dinamikoagoa dela 2013ko 12 hileetan adosturiko negoziazio kolektiboa. Negoziazio eremuen arabera, dinamismo hori handiagoa da Estatuan adostu diren eta ondorioak EAEn dituzten hitzarmenetan, eta handiagoa ere enpresakoan sektorekoan baino.

Laburbilduz, 2013. urtearen amaieran, eta eskuragarri dauden azken datuen arabera (2013/12/31ra arte erregistraturiko hitzarmenak), berritutako 613 hitzarmen zeuden guztira, eta 230.046 pertsonari eragiten zieten (horietatik % 68 sektoreko hitzarmenen mende daude eta gainerako % 32 enpresa hitzarmenen mende); horiez gain, beste 600 hitzarmen zeuden berritzeke, 349.769 langileri eragiten zietenak.

Guztira, 2013rako adostutako batez besteko soldataren igoera %0,93koa zen (%1,15 gure erkidegoan erregistraturiko hitzarmenetan eta %0,51 EAEn eragina duten Estatuko hitzarmenetan). Halaber, enpresa-hitzarmenetan, soldataren igoera %1,11koa izan zen eta sektore-hitzarmenetan %0,85ekoa.

Oro har, beheranzko bilakaera handia antzematen da 2013rako adosturiko soldata igoeretan aurreko urtearen aldean (%0,93 %2,18aren aldean), neurri handi batean 201ean berrituriko hitzarmen batez besteko soldata gehikuntza berrikusteko klausulen gutxieneko ondorioa ere. Gainera, 2013rako adosturiko batez besteko gehikuntza 2013ko batez besteko inflazioa baino 7 hamarren txikiagoa da EAEn (%1,6).

II.6.20. KOADROA. EAE-N 2012 ETA 2013RAKO ADOSTURIKO SOLDATA IGOERAK

	IGOERA BERRIKUSPEN KLAUSULARIK GABE		BERRIKUSPEN KLAUSULEN ERAGINAK		SOLDATEN IGOERA GUZTIRA	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013
ARABA	2,41	1,23	0,24	0,02	2,65	1,25
BIZKAIA	1,67	0,99	0,75	0,03	2,42	1,02
GIPUZKOA	2,64	1,08	0,11	0,02	2,75	1,10
LURRALDE ARTEKOAK	2,71	2,15	0,02	0,00	2,73	2,15
EAE-N EGONDAKOAK	1,09	1,15	0,00	0,00	1,09	1,15
ESTATUA	1,28	0,49	0,27	0,02	1,55	0,51
GUZTIRA, EAE	1,93	0,91	0,25	0,02	2,18	0,93

Iturria: LHK.

Bestalde, EAEko herri administrazioen zerbitzurako funtzionarioek gehikuntza nulua izan zuen 2013an lansarietan.

Amaitzeko, berritzen ari diren hitzarmenek azken urteotan antzemandako joera neurri handian berreskuratu dute; horrela, lanaldia murrizten duten gero eta hitzarmen gutxiago daude. Lanaldia murrizten duten hitzarmenen portzentajea % 5,9koa da, hau da, 2012koa (% 7,4) baino txikiagoa. EAEn eragina izanda berritu diren hitzarmen guztietan 0,4 orduko

murrizketaren batezbestekoa lortu da urtean (aurreko urteko -0,9 orduko murrizketaren aurrean). Kontuan hartu behar da, hitzarmen asko berritu ez direnez, eremu horietan lanaldia aldatu gabe egon dela, eta zenbait kasutan aspalditik, gainera.

II.6.21. KOADROA. EAE-N ADOSTURIKO LANALDIAREN MURRIZKETA URTEKO ORDUETAN.						
	2008	2009	2010	2011	2012	2013
ARABA	1,6	1,1	0,3	0,7	1,4	0,6
BIZKAIA	1,5	0,7	-0,2*	0,7	0,5	0,1
GIPUZKOA	1,6	1,6	1,1	0,5	1,3	0,6
LURRALDE ARTEKOAK	9,7	1,5	2,9	2,9	3,8	1,6
EAE-N EGONDAKOAK	1,8	1,2	0,6	0,8	0,0	0,2
ESTATUA	0,6	0,9	0,5	0,8	0,3	0,0
GUZTIRA, EAE	1,5	1,2	0,6	0,8	0,9	0,4

Iturria: LHK
* Bizkaiko emaitza horren kasuan, hitzartutako lanaldia 0,2 ordu/urtean hazi zen.

6.5. SOLDATAK EAE-N

6.5.1. 2011ko soldata-egiturari buruzko inkestaren emaitzak

INEren "Soldata-egituraren urteko Inkestak" autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen arabera soldatei buruz. Ordura arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa soldata-egituraren inkesten bidez, hain zuzen ere, eta gainera, 10 langile edo gehiagoko enpresei buruzkoa baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturritako administrazio-erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantzza edo Zerga Agentziak, baita INEren beraren lan-kostuari buruzko hiruhilekoko inkestako informazioaren zati bat ere. Emaitzetan erabiltzen diren soldaten kontzeptuak balio gordinetan daude, hau da, PFEZren konturako atxikipena edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin gabe.

Inkestaren arabera, 2011n EAEn urteko batez besteko irabaziaz 26.370 euro ziren langile bakoitzeko, aurreko urtearekin alderatuta %0,7 hazi zen (2009 eta 2010urteen artean %+1,7). Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino % 15,2 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da; ondotik Madrilgo Erkidegoa eta Katalunia daude. Soldata gordin hori 2011n 29.493 euro ziren gizonentzat eta 22.450 euro emakumeentzat, hortaz, sexu bien artean % 31,4ko aldea dago. Alde hori 6 hamarrenetan murriztu da azken urtean (% 30,8koa zen 2010ean), gizonen soldata emakumeena baino gutxiago hazi baita (% -0,7 eta % +1,1 hurrenez hurren).

II.6.22. KOADROA. LANGILE BAKOITZAREN URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK (EUROTAN). 2010-2011.			
	2010	2011	10/11ko aldak.
ESTATUKO B.B.	22.790	22.899	0,5
ANDALUZIA	20.913	21.351	1,5
ARAGOI	22.317	22.334	0,0
ASTURIAS	22.241	22.286	0,7
BALEARS, ILLES	21.614	21.351	-0,1
KANARIAK	19.316	19.517	0,5
KANTABRIA	21.157	20.932	-0,5
GAZTELA ETA LEON	20.961	21.029	-0,7
GAZTELA-MANTXA	20.363	20.665	2,1
KATALUNIA	24.449	24.499	1,5
VALENTZIAKO E.	20.707	21.316	3,6
EXTREMADURA	19.481	19.879	2,6
GALIZIA	20.242	19.970	-1,1
MADRIL	25.989	25.845	-0,4
MURTZIA	20.863	21.077	-0,1
NAFARROA	23.825	24.385	3,2
EAE	26.594	26.370	-0,7
ERRIOXA	21.036	20.997	-0,5

Iturria: EIN. EES 2012.

II.6.23. KOADROA. SEKTOREKA LANGILE BAKOITZAREN URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK, EAE ETA ESTATUA. SEXUAREN ARABERAKO DATUAK.

	SEXU BIAK			EMAKUMEAK			GIZONAK		
	2010	2011	Aldak. %	2010	2011	Aldak. %	2010	2011	Aldak. %
EAE									
Sektore guztiak	26.594	26.370	-0,8	22.706	22.450	-1,1	29.709	29.493	-0,7
Industria	29.626	30.198	1,9	25.351	25.637	1,1	30.592	31.190	2,0
Eraikuntza	25.579	26.486	3,5	25.646	26.698	4,1
Zerbitzuak	25.591	24.953	-2,5	22.337	22.023	-1,4	29.980	28.849	-3,8
ESTATUA									
Sektore guztiak	22.790	22.899	0,5	19.735	19.768	0,2	25.480	25.668	0,7
Industria	25.377	25.872	2,0	20.926	21.067	0,7	26.871	27.484	2,3
Eraikuntza	21.962	22.541	2,6	20.190	21.030	4,2	22.240	22.784	2,4
Zerbitzuak	22.332	22.315	-0,1	19.607	19.613	0,0	25.677	25.552	-0,5
EAE/Estatuko %									
Sektore guztiak	116,7	115,2	-1,3	115,1	115,1	-1,3	116,6	114,9	-1,5
Industria	116,7	116,7	0,0	121,1	121,1	0,5	113,8	113,5	-0,3
Eraikuntza	116,5	117,5	0,9	115,3	117,2	1,6
Zerbitzuak	114,6	111,8	-2,4	113,9	113,9	-1,4	116,8	112,9	-3,3

ITURRIA: INE.SOLDATA-EGITURARI BURUZKO INKESTA.

Jarduera sektoreetako soldatei dagokienez, Soldata-egituraren Inkestak agertu duenaren arabera, handienak industriaren jardueran daude, EAEn zein Estatu osoan. Zehazki, sektorearen urteko batez besteko irabaziaz 30.198 euro dira Euskal Autonomia Erkidegoan 2011n (2010ean baino % +1,9 gehiago), batez beste 31.190 euro gizonekoentzat eta 25.637 emakumezkoentzat. Industriako batez besteko soldata hori Estatu osokoa baino % 16,7 handiagoa da. Estatuan ere generoen arteko aldeak daude.

Ondoren, zerbitzuen sektoreko soldatak dira handienak (urtean batez beste 26.486 euro EAEn, 2010ean baino % 3,5 gehiago); gainera, Estatuko batezbestekoa baino handiagoak ere badira, % 17,5 hain zuzen. Amaitzeko, eraikuntzaren sektoreko soldatek 24.953 euroko batezbestekoa izan dute (%-2,5, aurreko urtearen aldean), eta zenbateko hori Estatuko batez besteko balioen gainetik (% 11,8 gorago) dago.

II.6.24. KOADROA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK EAE-N ETA ESTATUAN, SEXUAREN ETA KONTRATU-MOTAREN ARABERA. 2010-2011.

	Sexu biak			Emakumeak			Gizonak		
	2010	2011	Aldak. %	2010	2011	Aldak. %	2010	2011	Aldak. %
EAE									
Guztira	26.594	26.370	-0,8	22.706	22.450	-1,1	29.709	29.493	-0,7
Iraupen mugagabea	28.846	28.335	-1,8	24.090	23.703	-1,6	32.532	32.015	-1,6
Iraupen jakina	19.451	19.182	-1,4	18.636	17.887	-4,0	20.176	20.222	0,2
Mugagab./Iraup. Jakina %	48,3	47,7		29,3	32,5		61,2	58,3	
ESTATUA									
Guztira	22.790	22.899	0,5	19.735	19.768	0,2	25.480	25.668	0,7
Iraupen mugagabea	24.565	24.495	-0,3	20.989	20.855	-0,6	27.677	27.684	0,0
Iraupen jakina	16.694	16.463	-1,4	15.553	15.487	-0,4	17.740	17.358	-2,2
Mugagab./Iraup. Jakina %	47,1	48,8		35,0	34,7		56,0	59,5	

ITURRIA: INE. Soldata-egiturari buruzko inkesta.

Beste alde batetik, langile bakoitzaren batez besteko irabaziaz kontratu-harreman motaren arabera ere aldatzen dira. Gauza logikoa da, enpresako antzinasunagatik jasotzen diren ordainsarietara gora egiten dutelako. Zehazki, urteko batez besteko soldata gordina % 47,7 handiagoa da kontratu mugagabea duten langileentzat aldi baterako kontratua duten langileentzat baino. Aldea, gainera, handiagoa da gizonen artean (% 58,3) emakumeen artean baino (% 32,5).

6.5.2. Lan-kostuari buruzko urteko inkesta 2012aren emaitzak


Lan-kostuari

buruzko urteko inkesta langileek jasotzen duten soldataren hurbilketa egiten duen INEren bigarren estatistika da. Lan-kostuaren hiru hilez behingo inkestaren galdetegi erantsia oinarri hartuta lantzen da, eta lan-kostuaren urteko maila eta haren osagaiak ezagutzeko ahalbidetzen du.

Horien artean,

“soldata eta lansariak” direlakoek ordainsari guztiak biltzen dituzte, eskudirutakoak nahiz gauzazkoak, inoren konturako langileei eginikoak. Soldata-egiturari buruzko Inkestan bezala, kopuru gordinetan biltzen dira zenbatekoak, langileak Gizarte Segurantziari kotizazioak edo atxikipenak egin baino lehen.

II.6.11. GRAFIKOA. LAN-KOSTUAREN "SOLDATAK ETA LANSARIAK" PARTIDAREN ZENBATEKOA LANGILEKO ETA URTEKO. EAE-ESTATUAREN ARTEKO ALDERAKETA.



Iturria: INE. Lan-kostuei buruzko urteko inkesta.

II.6.25. KOADROA. LANGILE ETA URTE BAKOITZAGATIKO LAN-KOSTUA; AUTONOMIA ERKIDEGOEN ETA KOSTUAREN OSAGAIEN ARABERAKO DATUAK. 2012.

	KOSTU GORDINA	Soldata eta lansariak	Ezinbesteko kotizazioak	Borondatezko kotizazioak	Zuzeneko gizarte-prestazioak	Beste batzuk (1)	Diru-laguntzak eta dedukzioak	KOSTU GARBIA	Lansariak eta soldata GUZTIRA %-tan
ESTATUA	30.906	22.636	6.859	188	289	933	238	30.667	73,24
ANDALUZIA	28.078	20.404	6.348	125	298	903	254	27.824	72,67
ARAGOI	29.394	21.446	6.852	159	258	679	245	29.149	72,96
ASTURIAS	30.233	22.043	6.944	192	292	761	248	29.984	72,91
BALEAR (ILLES)	28.615	20.928	6.496	109	261	820	208	28.407	73,14
KANARIAK	25.587	18.653	5.902	109	216	707	168	25.419	72,90
KANTABRIA	27.935	20.271	6.580	147	306	632	279	27.656	72,56
GAZTELA ETA LEON	28.464	20.509	6.516	182	324	934	203	28.262	72,05
GAZTELA-MANTXA	28.253	20.475	6.445	163	280	890	166	28.087	72,47
KATALUNIA	33.158	24.431	7.325	187	273	941	255	32.903	73,68
VALENTZIAKO E.	27.902	20.371	6.461	137	198	735	239	27.662	73,01
EXTREMADURA	26.007	19.084	5.971	118	180	654	322	25.685	73,38
GALIZIA	26.733	19.432	6.173	140	216	772	226	26.507	72,69
MADRIL	36.110	26.658	7.376	322	373	1.381	219	35.891	73,82
MURTZIA	27.817	20.321	6.306	130	296	765	231	27.586	73,05
NAFARROA	32.225	23.373	7.612	137	288	814	316	31.908	72,53
EAE	36.201	26.726	8.084	261	367	763	299	35.902	73,83
ERRIOXA	28.549	20.875	6.536	130	206	802	223	28.327	73,12

Iturria: Lan-kostuen urteko inkesta, 2012. INE.

(1) Beste batzuk: Kaleratzeengatikoa kalte-ordainak barne hartzen ditu, lanbide-heziketaren, garraioaren gastuak, gastu sozialak, kontratuaren amaierako kalte-ordainak, konpentsazio-ordainak, erremintak-laneko arropa eta beste gastu batzuk.

2012ko lan-kostuari buruzko inkestaren arabera, EAEn langile bakoitzaren lan-kostu gordina 36.201 euro dira; horietatik %73,83 “lansariei eta soldatei” dagozkie, hau da, 26.726 euro. Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino %18,1 handiagoa eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidegoen artean kopuru handiena da.

“Soldatak eta lansariak” partida hori etengabe handitu da 2002tik hona, eta 2012an %0,6 hazi da aurreko urtearen aldean; Estatuko batez bestekoa %0,6 jaitsi da³⁰.

6.6. ENPLEGU POLITIKAK

Enplegu politikek politika aktiboak biltzen dituzte, langabetuek enplegua lor dezaten eta lana dutenek lanari eutsi diezaioten; eta politika pasiboak, langabetuen babes ekonomikorako.

6.6.1. Enplegu politika aktiboak

2011ko urtarrilaren 1ean, EAEko Administrazio Autonomikoei eskualdatu zitzaizkien lan eremuko legeria betearaztearen, enpleguaren eta enplegurako lanbide heziketaren arloko funtzioak eta zerbitzuak. Izan ere, bere gain hartzen ditu ataza horiek LANBIDEk –Enplegurako Euskal Zerbitzuak-. Itun ekonomikoaren araubidearen arabera, erabaki horrek estatu eremuan lotutako kargak, 472 milioi eurokoak izan direnak, baloratzea dakar. Erabaki horrek egozpen indizea (gaur egun % 6,24koa da) aplikatzeko mekanismoak zein hobarien bidez antolatzen diren eta eskualdatu diren jarduketeta eta programa publikoen finantzaketa autonomikoa ezarri ditu. Langileei dagokienez, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministeriotik 491 lanpostu lekualdatzea dakar, horietatik 18 Itsasoko Gizarte Institutuari eta gainerakoak EEZPri (lehenengo INE) dagozkiola. Zehatz-mehatz, gauzatzeko funtzioak honako arlo hauetan eskualdatu dira³¹: Laneko bitartekotza, enplegurako laguntza eta sustapena eta enplegurako lanbide heziketa.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 2011ko abenduan onetsi zuen “Enplegurako Euskal Estrategia 2011-2014”. Horren xedea enpresen lehiakortasuna eta enplegua hobetzea da; gazteen enplegarritasuna sustatzea eta hezkuntza-enpleguko trantsizioa hobetzea.

Amaitzeko, 2013ko abenduan Eusko Jaurlaritzak Enplegurako Euskal Estrategia 2014-2016 onetsi zuen, enpresa lehiakortasuna eta enplegarritasuna hobetzeko, gazteen enplegua indartzeko eta hezkuntzaren eta enpleguaren arteko bidea hobetzeko funtsezko helburu duena. Halaber, enpleguan eragin zuzena duten obretan eta proiektuetan inbertsio pribatua izatea bultzatzea du xede eta,aldi berean, erakundeen arteko lankidetzeta eta erakunde pribatu eta publikoen arteko laguntza sustatu nahi du lanpostuen galera geldiarazteko. Batzorde honek Planaren zirriborroari buruzko irizpena eman zuen, eta berau begira dezala irakurleak informazio zabalagoa izateko³².

(a) LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jarduera 2013an

LANBIDEn³³ 2013ko Balantzea oinarri hartuta, lehenik eta behin esan behar da Zerbitzuak, guztira, 137,12 milioi euro erabili zituela lan-merkatuan sartzeko posibilitateak hobetzeko neurrietarako. 180.000 pertsonak hartu zuten parte horietan.

II.6.26. KOADROA. LANBIDE: EPAen JARDUERAREN BALANTZEA 2013. MILIOI EUROTAN.

	PROGRAMAK	2013KO ZENBAT.	2013KO %
A. Laneko pizgarriak ematea	Enpleguaren sustapena	44,84	32,7
	Tokiko eta eskualdeko garapena	5,65	4,1
	Enpresentzako zerbitzuak	3,31	2,4
	Laneko bitartekotza eta orientazioa	8,87	6,5
	GUZTIRA	62,67	45,7
B. Enplegurako prestakuntza	Landunak - Hobetuz	19,90	14,5
	Langabetuak	54,55	39,8
	GUZTIRA	74,45	54,3
GUZTIRA		137,12	100,0

Iturria: LANBIDEn datuekin eginikoa.

³⁰ Kontuan izan behar da, hala ere, beste iturri batzuen arabera Espainian soldaten jaitsiera askoz handiagoa dela 2012an. Ikus bedi, adibidez, Espainiako Bankuaren 2014ko otsaileko buletina:

<http://www.bde.es/ff/webbde/SES/Secciones/Publicaciones/InformesBoletinesRevistas/BoletinEconomico/14/Feb/Fich/be1402-art5.pdf>

³¹ Informazio zabalagoa izateko, irakurleak Memoria honen 2012ko ediziora jo dezake.

³² Euskadiko EGABen 7/2013 Irizpena, abenduaren 20koa, 2013-2016ko Enplegu Planaren zirriborroari buruzkoa: http://www.cesegab.com/Portals/0/Libros/D13-07_Dictamen.pdf

³³ Ez dugu Lanbideren jardueraren 2012ko kopuruen berri eta, beraz, ez dira 2013ko datuak aurreko ekitaldiko jarduerarekin erlazionatu.

Bestetik, 62,67 milioi euro erabili ziren lan jarduerako ekimenterako. Lau programatan daude banatuta, eta 120.630 pertsonak hartu zuten parte. Lan bitartekotza eta orientazio zerbitzuetarako 8,87 milioi euro erabili ziren, 44,84 ezohiko merkatuko kontratazioak sustatzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegarritasunaren gehikuntza, 5,56 milioi tokiko eta eskualdeko garapen ekimenerako eta 3,31 milioi zerbitzu eta enpresetarako.

Bestalde, 74,45 milioi euro erabili ziren *enplegua sustatzeko* programetarako, lanean ari direnena (Hobetuzen bitartez; hartara, 19,9 milioi euroko inbertsioa egin da, eta guztira 37.170 partaide) nahiz langabetuena. Bigarren atal honetan, 54,55 milioi euro inbertitu dira, eta horietatik gehienak (funtzen %60) laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langabetuak gaitzeko erabili dira. Zentro publikoetan eta pribatuetan ematen den prestakuntzak 33,01 milioi euro izan zuen arte grafikoaren, merkataritzaren, elektrizitatearen, fabrikazio mekanikoaren, eta abarren ikastaroetarako. Langabetuentzako beste programa batzuk: kontratatze konpromisoa duen prestakuntza, Hezibi (3,07 milioi euro), laneratzeko zerbitzurako prestakuntza baliabideak (16 milioi) eta Enplegu Berderako (2,47 milioi euro).

(b) EPAen beste zifra batzuk


Horrez gain, EEZPren Lanbideen Behatokiak egiten duen *Espainiako Lan-merkatuari buruzko Txostena 2013* izenekoak argitaratutako datuak ezagutu dira. Txosten horrek agertu du 2012an (erabilgarri dagoen azken datua), Enplegu Politika Aktiboen atalean, EAEn 128.557 pertsonak baino gehiagok, hau da, 2011n baino %12,1 gehiago eta Estatu osoko % 4k, eskuratu zituztela bitartekaritza eta aholkularitza ekintzak. Horietatik % 15,5 Arabakoak, % 55,4 Bizkaikoak eta % 29,1 Gipuzkoakoak ziren. Hala eta guztiz ere, dokumentuak berak ohartarazi du balioespen zifrak direla eta osagabeak izan daitezkeela.

Zerbitzu horietako erabiltzaileen eredu profila (Estaturako datuak, autonomia erkidegoka erabilgarri ez daudela) erakutsi du gizonen eta emakumeen arteko banaketa orekatua dagoela eta asko daudela 25 eta 45 urte arteko pertsonen adin-taldean. Izan ere, adin hori daukatenak zerbitzu motaren bat hasi edo egin duten pertsonen % 58,9 izan dira. Horrez gain, 25 urtetik beherakoek % 15,6 egin zuten, eta 45 urtetik gorakoek, aldiz, zerbitzuen % 25,5.

Halaber, txosten horren arabera, 6.477 pertsonak enplegurako prestakuntza ekintzak gauzatu zituzten gure Erkidegoan 2012an, hots, 2011n baino %68,8 gutxiago eta Estatu osoko % 2 dela. Horietatik % 16,2 Araban, % 51,8 Bizkaian eta % 32 Gipuzkoan bizi ziren. Estatu osoan garatutako prestakuntza ekintzetatik, proportzio handiena (% 23,7) administrazioa eta kudeaketa lanbide familiari dagokio; horren atzetik gizarte-kultura zerbitzuak eta erkidegoarentzako zerbitzuak (%15,7) eta Informatika eta komunikazioak (% 10,3) daude.

Enplegurako prestakuntza ekintzen erabiltzaileen profila bitartekotza eta aholkularitza ekintzetarako ematen direnen oso antzekoa da sexuaren eta adinaren banaketaren aldetik, baina presentzia pixka bat handiagoa da emakumezkoetan (%53), eta adin ertaineko pertsonen presentzia da nagusi, 25-45 urtekoena. Prestakuntza mailari dagokionez, EEZPren txostenak nabarmentzen duenez, kasuen %60 araturiko ikasketa orokorra duten pertsonak dira, eta kasurik hoberenean, Batxilergoa zuten amaituta (%25,6).

II.6.12. GRAFIKOA. EPA-EKIN LOTURIKO ZERBITZUEN ERABILTZAILEEN ZENBATESPENA EAE-N. 2012.



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

II.6.27. KOADROA. AUTONOMIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO EGINIKO GASTUA 2011-12AN.

	ZENBATEKOA (milioi €-tan)				GASTUA (€/langabetua)			
	2011	2012	% dist. 2012	11-12ko aldak. %	2011	2012	2012 erlatiboa (Estatua=100)	2011-12ko aldak. %
ESTATUA	5.547,72	4.889,00	100,0	-11,9	1.464,73	1.013,50	100,0	-30,8
ANDALUZIA	1.139,04	1.137,87	23,3	-0,1	1.175,3	1.049,86	103,6	-10,7
ARAGOI	143,11	138,50	2,8	-3,2	1.403,3	1.253,19	123,6	-10,7
ASTURIAS	145,93	145,94	3,0	0,0	1.611,9	1.406,16	138,7	-12,8
BALEARS (ILLES)	93,30	62,84	1,3	-32,6	951,2	655,72	64,7	-31,1
KANARIAK	324,02	291,01	6,0	-10,2	1.220,1	1.021,39	100,8	-16,3
KANTABRIA	67,83	74,28	1,5	9,5	1.376,3	1.318,39	130,1	-4,2
GAZTELA ETA LEON	294,09	181,64	3,7	-38,2	1.410,7	765,56	75,5	-45,7
GAZTELA-MANTXA	297,18	149,04	3,0	-49,8	1.315,9	568,12	56,1	-56,8
KATALUNIA	797,10	780,88	16,0	-2,0	1.297,7	1.207,01	119,1	-7,0
VALENTZIAKO E.	494,21	437,39	8,9	-11,5	923,7	767,70	75,7	-16,9
EXTREMADURA	237,16	221,54	4,5	-6,6	1.751,6	1.517,97	149,8	-13,3
GALIZIA	326,35	311,82	6,4	-4,5	1.263,8	1.118,48	110,4	-11,5
MADRIL	529,07	253,39	5,2	-52,1	1.082,6	465,38	45,9	-57,0
MURTZIA	120,10	103,25	2,1	-14,0	840,3	668,06	65,9	-20,5
NAFARROA	91,04	67,29	1,4	-26,1	1.939,4	1.295,45	127,8	-33,2
EAE	419,17	481,24	9,8	14,8	2.883,0	2.846,17	280,8	-1,3
ERRIOXA	29,02	51,08	1,0	72,4	1.167,2	1.852,32	182,8	58,7

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioaren datuekin eginikoa (Lurralde datu-basea). Autonomia erkidegoetako aurrekontuen likidazioetako datu finkatuak. Saillapen funtzionala, "enpleguaren sustapena" 23 kodea, baita Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioarena ere.

Bestalde, Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioak, lurralde estatistiken bere datu-basetik aurrera, autonomia erkidego bakoitzak "enplegua sustatzeko" egindako gastua jakitea ahalbidetzen du, haien aurrekontu likidazioetako partida orokorra den aldetik. Informazio horren arabera, 2012an (ezin izan da eguneratu informazioa 2012ko Memoriak dakarrenarekin alderatuta) Euskadin gutxitu egin dira laneko prestakuntza, orientazio eta laneratzearen gaineko programetarako baliabideak, %1,3 2011rekin alderatuta. Alabaina, programa horietarako funts bolumen handiena erabili zuen autonomia erkidegoa da EAE kopuru erlatiboetan (2.846,17€ langabetu bakoitzeko) eta jaitsierarik txikiena izan duena (Estatuko batez bestekoa %30 murriztu zen). Kopuru horiek erakusten dute EAEk, Estatuan erregistratutako langabeziaren % 3,5 izanik (abenduko datua), fondoan % 9,8 erabili dituela (Estatuan 4.889 milioi eurotik gorakoak izan dira). Beraz, langabe bakoitzeko zenbatekoa Espainiako batezbestekoa baino bi aldiz handiagoa izan da (Estatuan langabe bakoitzeko 1.013,50 euro izan dira).

(c) Etengabeko prestakuntza

Indarreko araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorioz, langileentzako etengabeko prestakuntzako jarduerak Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ) eta Estatuko Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioaren (EPHF) bidez kudeatzen dira EAEn. Ekintza horien finantzazioa baterako bilketako kuoten eta Europako Gizarte Funtsak emandako kopuruen eta aurrekontu publikoetatik, bai administrazio zentraletik (EEZPri emandakoak bai) bai Eusko Jaurlaritzatik (HOBETUZen kasuan) eratorritako funtsen kargura egiten da, batez ere.

Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioaren (HOBETUZ)³⁴ bidez burutzen diren etengabeko prestakuntzako jardueren kasuan, 2012an (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua) 1.119 espediente kudeatu zituen, gutzira (% -1,7, 2012aren aldean). Horretarako 25,96 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren (% -4,3). HOBETUZ organismoak landunen etengabeko prestakuntza kudeatzen du EAEn.

³⁴ Enpresa eta sindikatu erakundeetako ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzak osatzen dute.

II.6.28. KOADROA. HOBETUZ: 2012KO DEIALDIAREN BALANTZEA. BEHIN BETIKO DATUAK.

		PLAN MOTA	ESPEDIEN-TEAK	EMANDAKO DIRUL. (mila €-tan)	PARTAIDEAK
ENPRESAK	EKINTZA	ENPRESA PLANAK	358	3.064	12.440
	ESTRATEGIKOAK	ENPRESA TALDEEN PLANAK	58	1.022	3.248
	PRESTAKUNTZA BEHARREN	ENPRESA DIAGNOSTIKOAK	180	453	0
		ENPRESA TALDEEN DIAGNOSTIKOAK	15	39	0
	AZTERLANAK ETA AZTERKETAK	ENPRESAZ GAINDIKO DIAGNOSTIKOAK	27	218	0
		GUZTIRA	638	4.826	15.688
LANGILEAK	SEKTOREEN ARTEKO SEKTORE PLANAK. SINATATZAILEAK	ERAKUNDE SINATATZAILEAK	24	7.908	11.366
		ERAK. SINATZAILEAREN SEKT.	4	547	952
		ERAKUNDE SINATZAILEAREN SEKTORE ARTEKOA	20	7.361	10.414
	PRESTAKUNTZA ERAKUNDEEN PLANA -AUTONOMOAK- GIZARTE EKONOMIA, ZENTRO ETA ERAKUNDE EZ SINATZAILEEN SEKTORE ARTEKOA ETA SEKTOREKOAK	PRESTAKUNTZA ERAKUNDEEN SEKTORE ARTEKOA	18	123	914
		EZ SINATZAILEEN SEK.	30	446	1.610
		KATALOGO MODULARRA	173	7.649	8.528
		GIZARTE EKONOMIKOA	2	222	216
		AUTONOMOAK	6	350	659
		PRESTAKUNTZA ERAKUNDEEN SEKT. ARTEKOA	202	3.241	8.260
		GUZTIRA	455	19.939	31.553
LAGUNTZA	SUSTAPENA ETA ZABALKUNTZA	5	424	0	
	BERRIKUNTZA	6	451	0	
	FOROAK	1	49	0	
	AZTERLANAK	4	276	0	
	GUZTIRA	26	1.200	0	
		GUZTIRA	1.119	25.964	47.241

Iturria: HOBETUZ.

2013ko emaitzen aurrerapenari dagokionez, 1.046 espediente kudeatu dira, guztira, enpresen, enpresa eta sindikatu erakundeen eta prestakuntza zentroen eremuan, eta 21,2 milioi euroko diru-laguntzak eman dira.

Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioak (enpresa planetarako, sektore arteko eta sektoreetako prestakuntza planetarako, gizarte ekonomiarako eta langile autonomoentzako) sustaturiko langileen etengabeko prestakuntzarako ekintzetan 2012an 174.725 pertsonen hartu zuten parte behin-behineko datuen arabera, hau da, aurreko urtean baino % 4,9 gehiagok, 22.196 enpresa formatzaileraren esku-hartzeari esker (% +7,1, 2011ren aldean). Guztira, enplegurako prestakuntzarako erabilgarri dauden fondoan 46,13 milioi euro erabili dituzte, eta horrengatik hobera izan dute Gizarte Segurantzako kuotetan.

Partaidetza mailari dagokionez, prestakuntza ekintza horietan parte hartzen duten sektoreko soldatapekoen ehuneko %29,4 da (Estatuko batez bestekoa, berriz, %28), eta enpresen %33,6 (Estatuko batez bestekoa %31,1 da guztira).

Enpresek lehenik eta behin lehen eta bigarren mailako ofizialak prestatu dituzte (% 19,1), eta bigarrenez ofizial administrariak (guztien % 14). Horrez gain, ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten langileen prestakuntza % 26,3koa izan da, eta bigarren mailako eta lanbide ikasketak dituzten langileen proportzioa nabarmendu da, guztien % 40,9 izan baitira.

II.6.29. KOADROA. EPHF: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EAE-N: 2011-2012KO EKITALDIEN BILAKAERA

	2011	2012	11/12ko aldak. %
EAE-N PRESTATURIKO PARTE-HARTZAILEAK			
GUZTIRA	166.599	174.725	4,9
IKASKETA MAILAREN %			
Lehen mailako ikasketarik gabe	25,1	26,3	4,8
Bigarren mailakoak eta LH	39,5	40,9	3,5
Unibertsitate diplomaturoak	12,9	12,4	-3,9
Goi mailako unibertsitate ikask.	21,9	19,7	-10,0
ENPRESA TREBATZAILEAK			
GUZTIRA	20.727	22.196	7,1
JARDUERA SEKTOREA			
Nekazaritza	61	95	55,7
Industria	4.943	5.465	10,6
Eraikuntza	2.835	2.636	-7,0
Merkataritza	2.671	2.886	8,0
Ostalaritza	3.264	3.461	6,0
Beste zerbitzu batzuk	6.952	7.653	10,1
FINANTZAKETA: kreditu baliagarria (milioi €-tan)	37,13	46,13	24,2


Iturria: Enplegurako Prestakuntzaren Hirutariko Fundazioak emandako datuekin egina.

Prestakuntza edukie dagokienez, enpresetako prestakuntza Laneko Arriskuen Prebentzioari (prestakuntza jaso duten partaideen % 18,2), Giza Baliabideen Kudeaketari (% 9,2), Hizkuntzei (% 8,3) eta Informatika eta ofimatikari (% 6,6) lotuta egon da nagusiki, besteak beste.

Amaitzeko, parte-hartzaileen % 67,3k prestakuntza aurrez aurre jaso dute, % 14,1ek urrunean, % 11,9k modu mistoan parte hartu dute, eta gainerako % 6,7k teleprestakuntza jaso dute.

6.6.2. Enplegu politika pasiboak

Langabeziagatiko prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta, horren ondorioz, soldatak antzeko moduan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Kotizaziopeko prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatiko subsidioa) daude. 2012ko uztailean, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko 20/2012 Errege Dekretu-legea aplikatzearen ondorioz, murriztu egin dira langabeziagatiko prestazioen zenbatekoak, eta kopuru hauek ditugu:



- Kotizaziopeko prestazioen zenbatekoa langileek eta enpresariak Gizarte Segurantzari egoera horretarako ordaindutako kotizazioekin finantzatzeko da, eta langabeziaren lehenengo 6 hiletan langabearen kotizazio oinarriaren % 70 da (gainerakoan % 50), langabe bakoitzaren familia egoeraren arabera zenbait muga dituela.
- Langabeziagatiko subsidioa familia egoeraren arabera Askotariko Eftuetan Errentaren Adierazle Publikoaren gaineko ehuneko jakin baten erreferentzia duen prestazio ekonomikoa da. 2013rako AEEAP 532,51ekoa izan da hilean, aurreko bi urteetako berdina, beraz.

II.6.30. KOADROA. LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK EAE-N. 2013KO ABENDUA.

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE	ESTATUA	EAE/ESTATUA %-TAN
Onuradunak, guztira	13.236	25.602	45.454	84.292	2.742.905	3,07
- Kotizaziopeko prestazioa	8.161	15.657	27.323	51.141	1.221.534	4,19
- Subsidioa	4.553	8.904	15.700	29.157	1.140.367	2,56
- Txertaketarako Errenta Aktiboa	522	1.041	2.431	3.994	381.004	1,05
ESTALDURA TASA*	49,39	54,93	48,37	50,36	58,34	-
Hileko prestazioa (euroak milaka)	14.775	30.008	50.960	95.743	2.295.814	4,17
Urtean metatutakoa (euroak milaka)	199.407	392.508	662.356	1.254.217	29.805.140	4,21
Batez besteko gastua onuradun bakoitzeko (/hileko)	1.116,3	1.172,1	1.121,1	1.135,8	837,0	136,0

Iturria: Gobernuak EAEn duen Ordezkaritza, EEZPren datuekin. "Ekonomia leihoa" aldizkaria, 2014ko martxoa.

* Onuradunak/erregistraturiko guztizko langabezia.

³⁵ EAO, 168 zk., 2012ko uztailearen 14koa.

a) Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak

II.6.31. KOADROA. EAE-N LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTENEN KOPURUA BATEZ BESTE. BILAKAERA									
	ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKO PRESTAZIOAK			LAGUNTZAKO PRESTAZIOAK			PRESTAZIOAK GUZTIRA*		
	Gizona	Emakum.	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira
2009	33.011	22.947	60.958	9.938	12.459	22.397	42.949	35.406	78.355
2010	31.011	22.720	53.731	15.397	16.257	31.654	46.408	38.977	85.385
2011	28.632	22.357	50.989	14.841	16.016	30.857	43.473	38.374	81.847
2012	31.014	24.471	55.485	16.065	16.586	32.651	47.079	41.057	88.136
2013	30.526	25.082	55.608	17.313	16.611	33.924	47.839	41.693	89.532
11/12ko aldak. %	8,3	9,5	8,8	8,2	3,6	5,8	8,3	7,0	7,7
12/13ko aldakk. %	-1,6	2,5	0,2	7,8	0,2	3,9	1,6	1,5	1,6

(*) Gizarteratzeko Errenta Aktiboa barne.
Iturria: EEZP (Prestazioen Zuzendariordetza) eta ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA.

2013an langabeziagatiko prestazioen onuradunak, batez beste, 89.532 lagun izan dira EAEn, aurreko urtean baino % 1,6 gehiago, nahiz eta urte horretan % 7,7 handitu. Estatuan jasotzaileen kolektiboa neurri txikiagoan handitu da 2013an: urtean %7,3 batez beste, halako moldez non EAEk Estatuko onuradunen guztizko kopuruan partaidetza handitu egin baita: 2012ko %3tik 2013ko %3,3ra. Gainera, EAEko 89.532 hartzaileen %46,6 emakumezkoak dira (pixka bat batez bestekoaren azpitik hazi da kopurua, %1,5) eta %53,4 gizonezkoak (+%1,6).

Jasotzaileen hileko bilakaeran arreta jartzen badugu, uztailean eta abuztuan neurri txikian gora egin duela antzeman daiteke; gero jaitsi irailan, eta urrian eta azaroan berriro handitu da. Hala ere, bilakaera irregular horren baitan, joera negatiboa antzematen da; hala, bada, 2013ko abenduan, jasotzaileen kopurua 84.292 zen, hots, 2012. urteko abendukoa baino %4,6 gutxiago.

2013ko abenduko datuei dagokienez, 84.929 jasotzaileetatik % 60,7k kotizaziopeko prestazioak jaso dituzte, % 34,6k subsidioak eta gainerako % 4,7k Txertaketarako Errenta Aktiboa. Estatuan, berriz, kotizaziopeko prestazioak jasotzen dituzten jasotzaileen ratioa % 44,5ekoa izan da, subsidioak jasotzen dituztenak, aldiz, % 41,6 izan dira eta Txertaketarako Errenta Aktiboa % 9,1ek jaso dute. Gainera, % 4,8k Nekazaritzako aldi baterako langileen subsidioa jasotzen zuten.

Erregistratutako langabeziaren zifrak kontuan izanik, esan liteke 2013ko abenduan EAEko 100 langabetik 50ek ez dutela inolako prestaziorik jaso (48 2012an); bai ordea, ehunetik 52k, eta horien artean 33k kotizaziopeko prestazioa jaso dute, 18k subsidioa eta bik bakarrik Txertaketarako Errenta Aktiboa.

II.6.32. KOADROA. ESTALDURA ADIERAZLEAK ETA LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN GASTUA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. ABENDUA.							
	Estaldura tasa*			Kotizaziopeko prestazioaren batez bestekoa onuradun bakoitzeko (€/hil.)			
	2012	2013	2012-13ko aldak. pp.	2012	2013	12/13ko aldak. %	
Andaluzia	67,4	64,1	-3,2	830,6	784,9	-5,5	
Aragoi	64,6	60,4	-4,2	876,5	849,4	-3,1	
Asturias	63,1	59,2	-3,9	883,3	822,6	-6,9	
Balearrak	107,6	111,5	3,9	918,6	911,5	-0,8	
Kanariak	60,2	56,3	-3,9	781,4	744,8	-4,7	
Kantabria	60,0	60,8	0,8	856,1	814,1	-4,9	
Gaztela-Mantxa	57,8	54,5	-3,2	851,0	800,8	-5,9	
Gaztela eta Leon	61,0	53,0	-8,0	839,6	803,7	-4,3	
Katalunia	70,2	67,4	-2,7	914,5	878,9	-3,9	
Valentziako E.	57,7	55,4	-2,3	847,7	812,9	-4,1	
Extremadura	69,8	66,9	-2,9	753,8	705,1	-6,5	
Galizia	63,3	60,0	-3,3	818,2	789,0	-3,6	
Madril	58,3	58,5	0,2	887,9	858,0	-3,4	
Murtzia	58,8	55,1	-3,7	826,3	791,7	-4,2	
Nafarroa	66,7	61,0	-5,7	957,4	927,5	-3,1	
EAE	57,0	55,0	-2,0	961,3	929,9	-3,3	
Errioxa	61,5	58,0	-3,5	898,5	864,0	-3,8	
Ceuta	48,5	38,8	-9,7	856,7	842,1	-1,7	
Melilla	42,7	41,7	-0,9	806,3	793,5	-1,6	
GUZTIRA	64,0	61,4	-2,6	864,3	829,8	-4,0	

Iturria: ESSMren datuak erabilia egindakoa.

(*) Ministerioaren metodologia berriaren arabera kalkulatu dira estaldura tasak, hots, hileko azken egunean alta emanda zeuden prestazioen jasotzaileen kopuruaren (kotizaziopekoak gehi subsidiarioak) eta laneko esperientzia duten eta erregistraturik dauden langabetuen eta nekazaritzako balizkoen subsidiarioaren (Andaluzia eta Extremadura) onuradunen arteko batura.


Erregistratutako langabeziaren aldean, langabeziagatiko prestazioen estaldura-tasak ezberdinak dira autonomia erkidego bakoitzean. Balear Uharteetan, eskuragarri dauden datuen arabera, aurretiko lan esperientzia duten langabe guztiak jasotzen dute nolabaiteko prestazioen bat eta, aldiz, Ceutan eta Melillan langabeen erdiek baino gutxiagok jasotzen dute prestazioen bat (%40k besterik ez).

2013ko abenduko datuen arabera, Estatuko batezbestekoa % 61,4 izan da (2012ko abenduan baino 2,6 puntu portzental gutxiago). Horrekin alderatuta, EAEko datua txikiagoa da (hil horretan erregistratu diren eta aurretik lan egin duten langabeen % 55, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak erabiltzen duen metodologiaren arabera). Gure Erkidegoan ere egin du behera estaldura tasak 2012ko abenduaren eta 2013ko abenduaren artean, %2 hain zuzen ere.

Langabeziagatiko

kotizaziopeko prestazioaren batez besteko zenbatekoa 929,9 eurokoa izan da EAEn 2013ko abenduan (aurreko urtean baino % 3,3 gutxiago), Estatu osoko batezbestekoaren (829,8€, 2012ko abenduan baino %4 gutxiago) gainerik dagoela.

Beste era batera esanda, onuradun bakoitzeko prestazioa Estatu osokoa baino % 12,1 handiagoa izan da EAEn. EAE, Nafarroa, Katalunia eta Balear Uharteak datu horren zerrendan lehenak dira.



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

(b) Langabeziaren babeseko gastua eta diru-sarrera

II.6.33. KOADROA. EAE-KO LANGABEZIAGATIKO GASTUAREN ETA EEZP-REN GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOEN ONDORIOZKO DIRU SARREREN BILAKAERA (EUROAK MILIOIAK)

	2010	2011	2012	2013*	12ko aldak. %	13ko aldak. %
Ordainutakoaren araberako prestazio gordinak	737,48	667,86	789,87	799,31	18,3	1,2
(-) Gizarte Segurantza langabetuaren kontura	40,67	36,04	42,51	44,02	18,0	3,6
(-) PFEZren atxikipenak	3,39	6,15	6,15	6,16	0,0	0,2
Ordainutakoaren araberako prestazio garbiak	693,42	628,64	741,21	749,13	17,9	1,1
Langabeziagatiko diru-laguntza prestazioak	164,90	161,29	168,60	171,71	4,5	1,8
EEZPren kotizazioak Gizarte Segurantzara	325,21	315,27	342,83	338,04	8,7	-1,4
-EEZPren kargura, ordainutakoaren araberako prestazio bakoitzeko	293,70	279,93	305,61	305,79	9,2	0,1
-EEZPren kargura, laguntzako prestazio bakoitzeko	31,51	35,34	37,22	32,25	5,3	-13,4
LANGABEZIAREN GASTUA GUZTIRA	1.127,59	1.144,42	1.252,64	1.258,88	9,5	0,5
EEZP-RENTZAT BILDUTAKO KUOTAK	1.127,62	1.131,52	1.088,31	..	-3,8	..
SALDOA	0,03	-12,90	-164,33	..		
DIRU SARRERA/GASTUA	1,00	0,98	0,87	..		


Iturria: EEZPren eta GSDoren datuekin egindakoa. Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

*2013ko datuak behin-behinekoak dira.

Langabeziagatiko prestazioetarako erabilitako gastu osoa EAEn 1.258,28 milioi eurokoa izan zen 2013an, behin-behineko datuen arabera, hau da, 2012an baino % 0,5 gehiago. Zenbateko hori EAEko BPGd-aren % 1,94 da, aurreko urteko ratio bera. Horrez gain, Estatuko gastu osoaren % 4,2 da, hau da, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago ditu.

Beste alde batetik, enpresek eta soldatapeko langileek ordaindutako eta EAEko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak bildutako EEZPrentzako Gizarte Segurantzaren kotizazioen diru-sarrerak, 2012an (eskuragarri dauden azken datuak), 1.088,31 milioi euro izan ziren guztira, aurreko urtean baino % 3,8 gutxiago. Hortaz, EAEko langabeziaren arriskua estaltzeko diru-sarreraren eta gastuen arteko kendura murriztu egin da. 2012an, 164,33 milioi euroko saldoa zegoen, 2011n baino 151,43 milioi gehiago.

II.6.15. GRAFIKOA. GASTUAK ETA SARRERAK LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOETAN EAE-N.



Iturria: EEZP eta EUSTAT-en datuekin eginikoa.

III KAPITULUA

Bizitza-kalitatea EAEn



1. FAMILIAK ETA LANA, NORBERAREN BIZITZA ETA FAMILIA BATERATZEA

EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz.

Aldaketa nabarmenen artean¹ Eusko Jaurlaritzaren “2008ko Familien Inkestak” hauexek aipatzen ditu: familia moten aniztasun handiagoa, familien batez besteko tamaina txikiagoa, familia horietako erreferentziako pertsonen profileko aldaketa garrantzitsuak, familian dauden adingabeen proportzio txikiagoa eta mendekotasun egoera gehiago eta guraso bakarrekoen familiek dakarten gizarte errealitatea (beherazko joera izanik ere).

2014ko apirilean, eta berrikuntza gisa, “Familien Etengabeko Inkesta 2013” delakoaren behin-behineko datuak argitaratu ditu INEK. Urtero argitaratzeko sortu da, eta familien gizarte eta demografia aldagaiei buruzko informazioa

biltzen du, populazioaren eta etxebizitzaren zentsuen antzekoa, baina maiztasun handiagoarekin; hala ere, maila agregatuagoa du. Haren lehenbiziko datuek erakusten dutenez, 2013an 890.800 familia daude EAEn, eta horietatik %33,8 elkarrekin bizi diren eta seme-alabak dituzten familiekin dago osatuta, %26,1 pertsona bakarrekokoak dira eta %22,8 seme-alabarik gabeko bikoteekin.

III.1.1. KOADROA. FAMILIA KOPURUA (MILA) ETA MOTAREN ARABERAKO BANAKETA. EAE ETA ESTATUAREN ARTEKO KONPARAZIOA. 2013.

	EAE		ESTATUA	
	GUZTIRA	% BERTIK.	GUZTIRA	% BERTIK.
1. PERTSONA BAKARREKOA	232,5	26,1	4.412,0	24,2
2. GURASO BAKARREKOA	78,5	8,8	1.707,7	9,4
3. FAMILIAN BIZI ETA SEME-ALABARIK EZ DUEN BIKOTEA	202,8	22,8	3.943,2	21,6
4. FAMILIAN BIZI ETA SEME-ALABAK DITUEN BIKOTEA	301,4	33,8	3.362,8	34,9
--SEME-ALABA BAT	150,7	16,9	2.980,9	16,4
--BI SEME-ALABA	131,6	14,8	3.795,5	15,3
--HIRU SEME-ALABA EDO GEHIAGO	19,1	2,1	586,4	3,2
5. FAMILI NUKLEOA BESTE PERTSONA BATZUEKIN BATERA	34,3	3,9	848,5	4,7
6. ELKARREN ARTEAN FAMILI NUKLEOA OSATZEN EZ DUTEN PERTSONAK	32,1	3,6	563,8	3,1
7. BI FAMILI NUKLEO EDO GEHIAGO	9,2	1,0	379,3	2,1
GUZTIRA	890,8	100,0	18.217,3	100,0

Iturria: INE. Familien Etengabeko Inkesta 2013. Behin-behineko datuak.

Aldaketak gorabehera, pertsonen bizitzaren ardatza izateari eusten dio familiak. Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoaren Kabinetearen “Familia EAEn” (2012) azterlanak agerian utzi duenez, elkarriketaturiko pertsonen %96k uste dute familia oso edo nahikoa garrantzitsua dela, beste batzuen aurretik hala nola aisialdia (%93), lagunak (%92) edo lana (%91). Gainera, gehienen ustez, familia aurreko aldietan bezain garrantzitsua da (elkarriketatuen %47), edo are garrantzitsuagoa (%15).

1.1. LANA, NORBERAREN BIZITZA ETA FAMILIA BATERATU BEHARRA.

Azken urteetan, familien osaerak izan dituen aldaketak eta aldaketa horiek ugalkortasun-tasetan izan duten eraginak handituz doan interes publikoa zirikatu dute, dakartzan ondorioak direla eta. Ugaltzeko joera duten adinekoen artean laneratze eta igoketako kontzientziak emakume gazteak oso egoera zailean jartzen ditu seme-alabak izateko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek amatasuna lanarekin bateratu nahi izaten dute eta geroz eta gehiago dira bikoteko bi kideek lan egiten duten eta 15 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiak.

Emakumeak lan-merkatuan sartzea azken hamarkadetak aldaketarik garrantzitsuenetako bat izan da: 2011n euskal familietako %58k emakume landunak² zituzten. Ehuneko hori 1996an %29 zen. Familiako kideen zeregin eta iguripenei,

¹ Datu horiei buruzko informazio zehatzagoa izateko, jo beza irakurleak 2011 eta 2012ko EAEn Memoria Sozioekonomikoetara.

² Eusko Jaurlaritzaren 2011ko Lan-merkatuaren Zentsuko datuak.

familia antolamenduari edo familia-gunea osatzen duten pertsonen zaintzari zuzenean eragiten dien aldaketa kulturala da, tradizioan emakumeek beren gain hartu dituzten eginkizunak izan direlako.

Inguruabar horiek arazo berriak sortzea eragin dute elkarbizitza unitateen barruan, ordaindutako lana eta familiaren zaintza bateratzeko beharrezko inguruan. Lanaren eta familia bizitzaren arteko gatazka une bitan areagotzen da: haurrak txikiak direnean, baina gero eta sarriago, mendeko adinekoei arreta eman behar zaienean ere bai. Hori dela-eta, herritarrek euren familia bizitza eta norberaren konpromisoak eta lana bateratu ahal izatea gizarte politikari buruzko eztabaidaren ardatzetako bat bihurtu da.

“Familia EAEn 2012an” azterlanaren emaitzetatik nabarmendu behar dugu lehenik eta behin elkarrizketatuen %47k uste duela oinordekoak izateak nahikoa oztopatzen duela emakumearen lanbide karrera, eta %19k eragozpen “handia” dela deritzo. Gizonezkoen ustez, aldiz, galdeturikoen %10ek baino ez du uste emakumeek eragozpen asko edo nahikoak dituztela lanbide karreraren seme-alabak izateagatik. Gainera, gehienek uste dute (%51ek 2012an eta %57ak 2001ean) amatasun baja oso laburra dela, baita aitatasun baja ere (%53k uste du 2012an –2001ean ez zegoen baimen hori-aitatasun baimena ez dela nahikoa).

Bestalde, EUROFUNDen (Bizi eta lan-baldintzak hobetzeko Europar Fundazioa) “Bizi Kalitatearen Europako III. Inkestak” (2012) jakinarazi zuen 2012an Europar Batasuneko langileen %53 lanetik itzultzean nekatuegi egoten direla etxeko zereginak egiteko, gutxienez hilean hainbat aldiz, eta langile horien laurdenak hala sentitzen direla astean hainbat alditan. Gainera, grafikoen ageridenez, ordaindutako lanorduak zenbat eta gehiago izan, orduan eta handiagoa da maiztasun hori. Horrenbestez, astean 48 ordu baino gehiago lan egiten duten gizonen %35ek eta emakumezkoen %28k soilik esaten du aipatu nekea “inoiz ere ez” edo “oso gutxitan” jasaten duela. Halaber, % 30ek familiako erantzukizunei erantzuteko arazoak ditu lanari dagokionez, % 14k dio lanean arreta jartzeko arazoak dituela familiako erantzukizunak direla eta.

Gainera, emaitza okerragoak dira, oro har, 2007ko inkestaren aldean, lana dela-eta familiako erantzukizunak betetzeko zailtasunak izan ezik; izan ere, horren garrantziak behera egin du herrialderik gehienetan (Espainian %57tik %41era).

III.1.2. KOADROA. FAMILIA ETA LANA BATERATZEKO ZAILTASUNAK, HERRIALDEKA. DATUAK EHUNEKOETAN ADIERAZITA, 2007 eta 2012.						
	LANA DELA ETA ETXEKO ZEREGINAK EGITEKO NEKATUEGI		LANA DELA ETA FAMILIAKO ERANTZUK. BETETZEKO ZAILTASUNAK		FAMILIAKO ERANTZUKIZUNAK DIRELA ETA LANEAN ARRETA JARTZEKO ZAILTASUNAK	
	2007	2012	2007	2012	2007	2012
AUSTRIA	45	45	45	24	14	14
BELGIKA	37	49	37	28	8	12
BULGARIA	63	66	63	39	17	20
ZIPRE	69	75	69	52	8	23
TXEKIAR ER.	58	60	58	39	9	21
ALEMANIA	39	47	39	24	9	9
DANIMARKA	40	42	40	17	7	5
ESTONIA	61	64	61	32	12	10
GREZIA	72	73	72	48	20	20
ESPAINIA	57	69	57	41	16	21
FINLANDIA	44	46	44	17	7	8
FRANTZIA	47	56	47	26	7	12
HUNGARIA	62	59	62	39	17	23
IRLANDA	40	55	40	25	11	14
ITALIA	36	37	36	21	12	9
LITUANIA	53	43	53	32	15	11
LUXENBURGO	43	50	43	25	13	11
LETONIA	59	70	59	56	22	26
MALTA	58	64	58	36	8	17
HERBEHEREAK	37	36	37	18	6	6
POLONIA	56	61	56	45	18	26
PORTUGAL	46	49	46	27	15	17
ERRUMANIA	65	61	65	38	17	16
SUEDIA	46	54	46	24	5	7
ESLOVENIA	54	48	54	35	11	15
ESLOVAKIA	45	46	45	34	10	20
ERRESUMA BATUA	52	60	52	28	13	15
EB27	48	53	48	30	12	14


Iturria: EUROFOUND. Bizi Kalitatearen Europako II. Inkesta (EQLS), 2007 eta 2012.

EUROFOUNDek (bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko Europako Fundazioa) gogorarazten du lan egiteko adina duen populazioak seme-alabak zaindu behar izaten dituela eta, gero, adineko pertsonak ere zaindu behar izaten dituela. Hori dela eta, bateragarritasuna eta horrekin lotutako arazoak, nola edo hala, lan egiteko adin osoa hartzen dute.

Bizi-kalitateari buruzko 2012ko Inkestaren emaitzen artean, azpimarratzekoa da Europako langileen % 22k adierazten duela ez dagoela pozik beren lanaren, bizitza pertsonalaren eta lanekoaren arteko orekarekin, % 6k uste du bere laneko ordutegia ez datorrela bat, inondik inora ere, bere familia eta gizarte bizitzarekin eta % 16k dio ez dela “oso ongi” moldatzen. Lanaren, bizitza pertsonalaren eta familiako bizitzaren artean duten oreka nahikotzat jotzen ez duten langileen proportzioa % 10etik (Danimarkan, Holandan eta Suedian) % 30etik gorakoa izateraino doa (Grezian, Lituania eta Espainian).

Laneko ordutegian malgutasuna izatea zuzenean lotzen da bateratze hobearekin, halako moldez non sartzeko eta irteteko ordutegi malguak dituzten langileetatik %33k baitio lana eta familia eta norberaren bizitza “oso ondo” moldatzen direla. Malgutasun hori ez dutenen artean, berriz, portzentaje txikiagoa da, %21ekoa hain zuzen.

III.1.1. GRAFIKOA. LANDUNEK ETXETIK LANETAN EMANDAKO ORDUAK EGUNEKO, EZAUGARRIEN ARABERA. EAE, 2012.



Iturria EUSTAT. LBBI, 2012.

EAEn inkesta bat jarri zuen abian EUSTATEk 2010ean, EAEn bizi diren eta lanean ari diren familiek lana familiarekin eta norberaren bizitzarekin bateratzeko dituzten posibilitateak aztertzeko. Urtero egiten den “Lana, Norberaren Bizitza eta familia bateratzeari buruzko inkestak” (LBBI) 2012ko datuen emaitzak aurkeztu zituen 2013an.

Lehenengoz, nabarmena da emakumeek seme-alaba adingabeen eta mendeko pertsonen zaintzan ematen dituzten orduak gizonek ematen dituztenak halako bi direla ia-ia. Alde honetan, emakumeen ustez zailtasun txikiagoa dago ordaindutako lana familiarekin eta eremu pertsonalarekin uztartzeko, eta beharbada horregatik, ia gizonen bi halako ordu kopurua ematen dute seme-alabak eta mendetasunean diren pertsonak zaintzen. Gizonek egunean 2,9 ordu ematen dituzte adingabeen zaintzan; emakumeek, aldiz, 4,6 (4,7, 2010ean). Alde hori handiagoa da mendekotasunean diren pertsonen zaintza aintzat hartzean. Izan ere, gizonetakoek 1,4 ordu ematen dute horretan egunean (1,9, 2010ean), eta emakumeetakoek bi halako. 2,9 ordu (4,3, 2010ean).

Hartutako kargen desberdintasun horrek eragina du gogobetetasun mailan, norberaren bizitzarako, aisialdirako edo prestakuntzarako dagoen denboraren aldetik, zeren eta emakumeek ia laurden batek (%24,2) baitio ez dagoela pozik. Gizonezkoetan, berriz, %16,8 da. Familia osatzen ari den adinaren inguruan biltzen da gogobetetasun maila hain txikia, hau da, 35 eta 44 urte bitartean; adin horretatik gora, aldiz, gogobetetasun maila haziz doa. Gainera, EAEn lanean ari diren pertsonen proportzio handi batek (%29,5) dio zailtasunak dituela lana eta mendetasunean diren senideak bateratzeko, eta zailtasun maila handi hori du lau pertsonetatik batek adingabeak zaintzearen arloan. Aldi berean, %18,1ek zailtasun handiak ditu etxeko lanak egiteko, eta laurdenak adierazi du (%24k) zailtasun handiarekin goza dezakeela aisialdia edo bestelako jarduera pertsonalak egitea, prestakuntzarako adibidez.


Bizitzako alderdien inguruan emandako denborarekin dagoen gogobetetasunaren batez besteko indizeari erreparatuta, 6,3 puntukoa izango litzateke gogobetetasuna maila 10etik, eta esana dugunez, txikiagoa da emakumezkoetan (6,0 puntu) gizonezkoetan baino (6,5).

Orokorrean, EAEko landunek ordaindutako lana eta norberaren bizitza eta familia uztartzeko duten zailtasun maila 3,8 puntukoa da 10etik (3,3koa zen 2010ean). 10 puntu izango lituzke uztartzeko bat ere aukerarik ez duen pertsonak. Landunek familia eta lana uztartzeko duten zailtasun handiena mendekotasuna dutenen zaintzan ageri da (4,1 puntu), eta jarraian seme-alaba adingabeak zaintzea (3,8 puntu).

2010eko datuen aldean, diferentziarik handienak seme-alaben eta mendetasunean diren pertsonen zaintzaren inguruan daude: bateratzearen bi alde horiek uztartzeko zailtasun asko dituzten langileen portzentajeek %4,7 eta 5,6 egin dute behera hurrenez hurren.


Enpresan edo erakundearen zenbait baimen eskatzeko zailtasun mailari dagokionez, EUSTATEN inkestan agerian utzi du lanean ari direnen batez besteko zailtasun maila: 10etik 3,2koa, eta 1,9koa lanera ez joateko, hain zuzen norberaren zerginetarako. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzea erraztu dezaketen neurrien artean, lanaldi murrizketak 3,6ko batez besteko zailtasuna du, ondoren eszedentziek (3,9) eta lan eta soldatarik gabeko egunek, 10etik 3,8 hain zuzen. Oro har, ez da alde handirik ikusten sexuen arabera, kasu batean izan ezik: gizonek lanaldia murrizteko eta

III.1.2. GRAFIKOA. LANDUNEK BATERATZEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ARLOETAN EMANDAKO DENBORAREKIKO GOGOBETETASUNA MAILA, SEXUAREN ARABERA. EAE, 2012.



Iturria: EUSTAT. LBBI, 2012.

III.1.3. GRAFIKOA. LANEAN BATERATZEAREKIN LOTUTAKO BAIMENAK ESKATZEKO ZAILTASUNAREN BATEZ BESTEKO MAILAREN BILAKAERA. EAE.



Iturria: EUSTAT. LBBI. Datu-bankuak.

eszedentziak eskatzeko (4,0 gizonentzat eta 3,38 emakumeentzat) zailtasun handiagoak adierazten dituzte. Seguruena, gainera, adinak eta lanpostuko antzinatasunak murriztu egiten dituzte aipaturiko uztartze neurriak lortzeko zailtasunak.

Azkenik, ordutegi motei eta malgutasunei dagokienez, EAeko langileen %23,9k lanaldia luzatu behar du ia egun guztietan (eta antzeko portzentaje batek hala egin behar izaten du batzuetan). Egoera horretan dira, gainera, enplegatzaileen %52,4 eta autonomoen %46,5.

Irteteko ordutegi malgua, hau da, bateratzea hobetzeko beste baliabide osagarria, langileen %40,6k erabiltzen du (%42,1ek 2010ean), eta emakumeek (%37) gizonezkoek (%43,8) baino gutxiago. Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, %8,2k lantzean behin egiten du lan etxean eta %4,6k egun erdia gutxienez. Lana duten zazpi pertsonetatik batek, oro har, etxean egiten du lan maiztasun ezberdinekin.

Oro har, igoera nabarmena antzematen da, 2010eko datuekiko, lanaldia luzatzen duten langileen portzentajea, zeren eta ohikoak zein lantzean behingoak %5eko igoera baitute. Ordutegien malgutasunari dagokionez, txikitu egin da 2010etik; izan ere, ordutegi malgua duten langileen ratioa %1,5 jaitsi da.

Azkenik, Lan eta Immigrazio Ministerioaren “*Laneko bizi-kalitateari buruzko inkestak*” (2010) agerian jartzen duenez, landunek seme-alaba adingabeak zaintzen igarotzen duten denborarekiko gogobetetzearen batez bestekoa alderatzen badugu, EAEn 6,3 puntu ditugu eta Estatu Espainiarreko gogobetetze mailaren apur bat gaintetik dago, 6,5ekoa baita estatuan dagoen gogobetetzea. Seme-alabak zaintzen igarotzen duten denborarekin EAeko landunen artean dagoen gogobetetze maila gaintitzen duten bakarrak Aragoi eta Galizia dira. Gogobetetze handiago hau ikusten da azterketan sexuaren aldagaia sartuz gero ere; EAeko gizonek 6,2 puntu ematen dizkiote seme-alabei eskaintzen dieten denborari eta Estatuakoak 6,4an geratzen dira. Euskal emakumeak 6,5 puntura iristen dira eta autonomia-erkidego guztiak hartuz gero 6,7ra iristen dira.

III.1.3. KOADROA. ENPRESAN BATERATZEAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT BAIMEN ESKATZEKO LANDUNEK DUTEN ZAILTASUNEN BATEZ BESTEKO MAILA. 2010.				
	LAN ETA SOLD. GABEKO EGUNAK	ESZEDENT.	LANALDI MURRIZKETA	LANTZEN BEHIN LANETIK IRTETEA
ANDALUZIA	3,4	4,2	4,4	3,7
ARAGOI	3,8	4,2	4,6	3,7
ASTURIAS	2,7	3,3	3,4	2,2
BALEARRAK	4,3	4,5	4,4	4,5
KANARIAK	4,5	4,1	4,8	4,3
KANTABRIA	3,4	3,7	4,0	3,2
G.-MANTXA	4,0	4,0	4,4	3,6
G. ETA LEON	3,6	3,8	3,9	3,4
KATALUNIA	3,6	4,2	4,4	3,3
VALENTZIAKO E.	2,9	3,1	3,6	2,8
EXTREMADURA	3,0	3,2	3,7	2,4
GALIZIA	3,4	3,7	3,8	3,2
MADRIL	3,7	4,0	4,4	3,5
MURTZIA	3,8	4,0	4,2	3,6
NAFARROA	3,7	4,4	4,5	3,1
EAE	2,7	2,8	2,9	2,4
ERRIOXA	2,5	2,7	2,9	2,4
GUZTIRA	3,5	3,9	4,1	3,3

Iturria: MESS. Laneko bizi-kalitateari buruzko inkesta 2010.

Gogobetetasun txikiago hori ez dator bat EAeko langileek baimen mota ezberdinak eskatzeko duten zailtasun txikiagoarekin, Estatuako eta autonomia erkidego gehienetako batez bestekoarekin alderatuta. EAeko langileek batez beste 2,7ko zailtasuna adierazten dute lan eta soldatarik gabeko egunak eskatzeko familia dela eta; Estatuaren babeste bestekoa, berriz, 3,5 da (eta 4,5erainoko zailtasuna Kanarietan, adibidez); eszedentziak eskatzeko zailtasuna 2,8koa da EAEn eta batez besteko 3,9koa Estatuan, eta 2,9koa lanaldi murrizketarako (4,1 Estatuan). Azkenik, lantzean behin norberaren zereginetarako lanera ez agertzeko batez besteko zailtasuna 2,4koa da 10etik EAEn. Estatuan, berriz, 3,3koa da.

1.2. FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKA PUBLIKOAK

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, eremuari lerrun juridiko handiagoa emateko eta famili politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera.

Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Famili Planarekin. Harrezkero, 2012ra arte, 500 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harreragatiko laguntzen eta bateratzeagatiko laguntzen artean.

2012ko aurrekontuko likidaziotik jakin izan dugunez, 46,8 milioi euro eman ziren familientzako diru-laguntza horietarako, hots, aurreko urtean baino %25 gutxiago. Horietatik 24,4 bateratzeko laguntzak ordaintzeko (%-25,9 2011rekiko) erabili ziren, eta beste 22,4 milioi seme-alaben jaiotzagatik edo adopzioagatik (%-24,1).


Espediente kopuruari dagokionez, guztira 25.620 diru-laguntza eman ziren (%-21,3 2011rekiko) jaiotzengatik eta adopzioengatik (urte anitzeko laguntzak barne), eta aldi berean, gora egin du bateratzeko laguntzen kopuruak: 26.351 (%-18,9): 25.379 adingabeak zaintzeko eszedentziagatik edo lanaldi murrizketagatik, 466 mendekotasunean edo osasun larritasunean diren senideak zaintzeko eszedentziagatik edo lanaldi murrizketagatik eta 506 3 urtetik beherako enpleguak kontratatuzko.

2010ean, bestalde, Familiei Laguntzeko Planaren laguntzak baliatu dituzten familien ezaugarriak jakin ziren, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte premiei buruzko inkestan oinarrituta. Inkesta horrek dioenez, 2010ean laguntza horiek guztira 65.523 familiak lortu zituzten, EAEn daudenen %8k. Zifra horrek familien kopuruaren %10,2ko beherakada agertzen du, 2006ko familia onuradunekin alderatuta.

Familia horien ezaugarriak kontuan hartuta, gizona buru dutenak nabarmentzen dira, guztien %91,4,, eta 45 urtetik beherako pertsonak buru dituztenak, adin horietan baitaude laguntza guztien %89,2, %67,9 soil-soilik 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen familiei dagokienez.

Laguntza horien onuradunak, gehienbat, aktibo guztiak landunak dituzten etxeen unitateak dira; horixe da nabarmendu beharreko funtsezko alderdi bat (aintzat hartutako laguntzak jaso dituzten etxeen unitateen %81,2 dira etxeen unitate horiek). Gainera, laguntzak eskuratzeko mailek behera egiteko joera dago lan egonkorreko moduetatik urrundu ahala. Izan ere, aktibo guztiak landun egonkorak diren etxeen unitateetan %12,6k jotzen du laguntzetara, baina proportzioa %8,7koa da aktibo landunak dituzten baina horietakoren bat egoera ezegonkorrean

III.1.4. GRAFIKOA. EAEn SEME-ALABEN JAIOTZAGATIKO EDO ADOPZIOAGATIKO LAGUNTZAK. ESKABIDEEN ETA GASTUAREN BILAKAERA, MILA €-TAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Familia eta Erkidego Politikaren Zuzendaritza

III.1.4. KOADROA. FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK EAE-N: EUSKO JAURLARITZAREN FAMILIA POLITIKAREN ZUZENDARITZAK EMANDAKO LAGUNTZEN ETA ESPEDIENTEEN KOPURUAREN BILAKAERA. MILA EUROAN.

	JAIOTZA EDO ADOPZIOAN		BATERATZEA	
	ESPEDIENT.	GASTUA	ESPEDIENT.	GASTUA
2008	28.175	25.333	27.005	11.297
2009	29.754	26.185	46.816	18.830
2010	34.887	31.505	48.140	26.824
2011	32.563	29.521	32.505	32.973
2012	25.620	22.420	26.351	24.434

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontu-likidazioen Memoria.

dauden familien unitateetan, %7,7 langabeak eta landunak dauden (nahiz eta horietakoren bat modu egonkorrean) familien unitateetan, eta %6,9 langabeak eta landun ezegonkorrak dauden familien unitateetan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 2011n eginiko “Familia eta lan bizitza bateratzeko neurriei buruzko azterlan longitudinala” delakotik, datu interesgarri hauek atera daitezke: indarreko neurrietatik gehien erabiltzen dena lanaldi murrizketa da (eskaturiko laguntzen %72,9; eszedentziei, berriz, %26,4 dagokie), eta eskatzaileen %94,5 emakumezkoak dira. Aldagai horri, gainera, eutsi egiten zaio denboran.

Laguntzak baliaitu dituzten pertsonen %20,2k administrazioan edo enpresa publikoan egiten du lan, eta gainerako %79,8ak enpresa pribatuan. Bestalde,

familia gehienek hilean 1.600 eurotik gorako diru-sarrerak dituzte diru-laguntzak jasotzen dituzten unean, eta batez bestekoa 2.100 eta 3.000 €-ren artean dago; EAeko batez besteko famili errentaren barruko diru-sarrerak dira horiek.

Azkenik, 2011ko abenduan EAeko Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana onetsi zen 2011-2015 aldirako eta, gutxi gorabehera 674,6 milioi euroko aurrekontua izanik, familia politiken gaineko zeharkakotasun handiagoa eman zaio aurreko bi planekin alderatuta. Hartara, sailen eta erakundeen arteko lana indartu da.

Lehendik dauden neurriak nahiz neurri berriak modu koherentean ordenatu nahi ditu, printzipio honetan oinarrituta: lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea familiako eta gizarteko kide guztiei dagokiela, denok baitaukagu erantzukizun maila handiagoa edo txikiagoa. Memoria hau amaitu dugun egunean, ez dugu Planaren ondorioz 2012an eginiko jarduketei buruzko informaziorik.

III.1.5. KOADROA. AZKEN URTEAN FAMILIEI LAGUNTZEKO NEURRIETAKO BAT ERABILI DUTEN FAMILIAK (SEME-ALABENGATIKO LAGUNTZAK BARNE DIRELA), FAMILIABURUAREN EZUGARRIEN ARABERA. 2006-2010.

		2006		2010	
		Gorabehera	% bertikala	Gorabehera	% bertikala
Sexua	Gizona	12,5	90,3	9,9	91,4
	Emakumea	3,8	9,7	2,6	8,6
Adina	< 35 urte	21,7	22,4	18,8	21,3
	35-44 urte	34,0	65,1	26,2	67,9
	45-54 urte	5,9	11,1	3,2	8,1
	55-64 urte	0,3	0,6	0,6	1,2
	65-74 urte	0,3	0,4	0,4	0,8
	> 75 urte	0,2	0,4	0,3	0,7
Nazionalitatea	Estatua	9,8	93,2	7,6	90,9
	Beste bat	22,1	6,8	16,7	9,1
OROTARA		10,2	100,0	8,0	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte beharrei buruzko inkesta 2010.

III.1.6. KOADROA. EAE-KO III. FAMILIA PLANA (2011-15): ILDO ESTRATEGIKOAK ETA GASTU AURREKONTUA (MILIOI EUROTAN).

Ilido estrategikoak	Gastua (mil. €)
Familiei laguntzeko eta autonomia bultzatzeko zerbitzuak, neurriak eta politikak indartzea	607,4
Familien jabetzea, gizarte sentsibilizazioa eta prebentzioa bultzatzeko ekintza politikoak eta gizarte balioa sustatzea eta hedatzea	57,2
Familiei laguntzeko eta gizarte partaidetza garatzeko politiken sail arteko eta erakunde arteko koordinazioa	1,1
Paradigma eta jarduteko esparru berriak familiei laguntzeko politketan eta neurrietan	8,7
OROTARA	674,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA, Lan eta Gizarte Politketarako Saila.

2. BIZI-BALDINTZAK

Gizarte bazterkeriaren arazoa zeharkako errealitatea da gizarte garaikideetan. Erakundeek eta ikerlariek urte askoan erabilitako "pobrezia" kontzeptuak ez du agortzen, berez, gizarte bazterkeriaren errealitatea eta hark dakartzen dinamikak. Horrexegatik dago adostasun zabala azken hamarkadetan, bai gizarte ikerkuntzan diharduen pertsonalaren artean, bai kudeaketa publikoko taldeen artean: pobrezia kategoria "gizarte bazterkeria" kategoriara zabalduta da pobrezia ekonomikoaren gaineko ideia zorrotza gainditzea eta, batez ere, egungo gizarteetan gertatu diren eraldaketa sakonak, hain zuzen ere aurrerapen teknologikoek, bizimodu aldaketek eta aribideko gizarte erreformek eragindakoak.


Europar Batasunean, egungo krisiak eragin larria du jarduera ekonomikoan eta enpleguan. Batzordearen arabera, 2013ko amaieran ekonomiaren suspertze txikiaren zantzuak antzematen ari dira, baina ezin izango zaio hazkunderari eutsi, inklusiboa eta lanpostuen sortzailea izan ezean³.

Krisiaren ondorioz, nabarmen egin du gora pobrezian edo bazterkerian bizitzeko arriskuan dauden europarren kopuruak 2008 eta 2012 bitartean (8 milioi pertsona gehiago, horietatik 3 azken urtean). Egoera horrek gaur egun (2012an, azken datu eskuragarria) populazioaren %24,8ri eragiten dio, hau da, 124,5 milioi europarrei (Europar Batasuneko 28 estatu kideak aintzat hartuta, Kroazia sartu ondoren), Europako 2020 Estrategiak⁴ ezarritako irizpideen arabera, "ARPE Tasa" izenekoan (*population at risk of poverty and exclusion*). 2012an, arrisku mailarik handienak herrialde hauetan zeuden: Bulgarian (populazioaren %49,3), Errumanian (%41,7), Letonian (%36,2), Grezian (%34,6), eta Kroazian, Lituanian eta Hungarian (hiruretan %32 gaindituta). Baxuenak, berriz, Holandan (%15), Txekiar Errepublikan (%15,4), Suedian (%18,2), Luxenburgon (%18,4), Austrian (%18,5) eta Danimarkan (%19).

2011ko datuen aldean, nahiz eta Batasunerako batez besteko tasa puntu erdi bakarrik aldatu (Alemanian, Frantzia eta Holandan izan ezik, pixka bat hobera egin dutelako, eta Baltikoko herrialdeetan, Finlandian eta Polonian indar handiagoarekin), Batasuneko gainerako herrialdeetan gora egin du pobrezia arriskuan daudenen kopuruak. Deigarria da Erresuma Batuaren kasua, non talde horretan milioi bat lagun gehiago hazi den soilik urtebetean.

EAEn, populazioaren %17,3 eragiten dio (2011n baino bi hamarren gutxiago) pobrezia eta bazterkeriaren arriskuak 2012an (EUROSTAT eta EINren metodologiaren arabera), hau da, 370.000 pertsonari baino gehiagori⁵. Eragin hori nahikoa baxua da, eta Finlandiarekin, Suediarekin, Austriarekin eta Luxenburgorekin konpara daiteke.

III.2.1. GRAFIKOA. POBREZIAREN ETA BAZTERKERIAREN ARRISKU TASAREN ETA HORREN HIRU OSAGAIEN BILAKAERA EUROPAR BATASUNEAN (EB 28)



Iturria: EUROSTAT.

³ EUROPEAN COMMISSION. *EU Employment and Social Situation. Quarterly Review*, set. 2013.

⁴ "Europako 20120 Estrategia"ren ondorioetarako, pobrezian eta gizarte arriskuan dago pertsona bat baldin eta lan arazoak dituen famili unitatekoa edo laneko intentsitate oso txikiko famili unitatekoa bada; gizarte transferentzien ondorioz pobrezia arriskuan badago edota oinarritzko baldintzak eskuratzeko muga handiak baditu.

⁵ EINek EUROSTATen metodologia oinarri hartuta Bizi-baldintzei buruzko Urteko Inkestatik ateratako eta eginiko kalkuletatik datoz EAerako zifrak, eta atzerantz berrikusi dira 2011ko Populazioaren Zentsuaren zifrak kontuan hartzeko. Horren ondorioz, gora egin dute pobrezia arriskuaren tasek berrikusitako pealdi osoan.

Adierazlearen osagai bakoitzari erreparatuz, lehenik eta behin EBren populazioaren %17 pobrezia arriskuan zegoen 2012an gizarte transferentziaren ondoren, eta egoera horretan dagoela irizten zaio herrialde bakoitzeko unitateko sarreren banaketaren erdiko balioaren %60tik beherako sarrerak daudenean (“pobrezia atalasea” deritzona). Portzentaje hori hamarren bat hazi da 2012an, eta bereziki handia da Bulgarian, Errumanian eta Espainian (%22 ingurukoa, %28,2 Espainian).

Bigarrenik, Europako populazioaren %9,9ko oinarrizko baldintzak eskuratzeko muga larriak zituen 2012an, zeren eta oinarrizko baliabiderik ezak eragindako bizi-baldintzak baitituzte hala nola fakturei aurre egiteko ahalmena (familien ohiko gastuei dagokienez), etxea bero mantentzeko edo urtean astebeteko oporraldia gozatzeko⁶.

Baldintzak eskuratzeko muga horien eragina nabarmen aldatzen da Batasuneko herrialde kideen artean: Luxenburgon edo Suedian %1 da eta, Bulgarian eta Errumanian, berriz, %44,1 eta %29,9 dira hurrenez hurren. Espainian %5,8 da, nahikoa baxua Batasun osoan.

Azkenik, Europako biztanleen %10,4 inguru lan intentsitate oso txikiko familietan bizi da. Hala deritzo azken urtean lanerako ahalmen osoaren %20tik behera egiten dutenean lan familiako helduek. Espainia, Grezia eta Belgika dira Batasuneko lehen postuetan, hiruretan %14tik gorako ratioak.

Ildo beretik, Europako Bizi-baldintzak eta Lan-baldintzak Hobetzeko Fundazioak bost urtean behin egiten duen “Europako III. Bizi-kalitatearen Inkesta”ren arabera (2012ko edizioa III.a da), 2007ko aurreko inkestatik nabarmen aldatu da Europako ekonomia eta gizarte profila: inkestaturikoen herenak baino gehiagok dio haien finantza egoerak okerrera egin duela. Oro har, talderik ahulenetan izan da ongizatearen okertzerik handiena –Europako Ekialdeko langabetuak, sarrera txikiak dituzten pertsonak eta adinekoak-.

Inkesta horrek dakarrenez, sarrerarik txikiak dituzten herritarrentzat are okerragoa da egoera ekonomikoa, eta gainera, gizarte desberdintasunak handitu direnez gero, zailtasun gehiago dituzte lanaren arloan edo osasunaren arloan, bereziki kalitatezko osasun zerbitzuak eskuratu ahal izateko. Halaber, sarrera ertainak dituzten familien bizi-kalitateak okerrera egin duela ikusi da, haien estatus sozioekonomikoa galtzeko beldurraren ondorioz.

Testuinguru horretan, herrialde kideen artean dauden ezberdintasunak areagotu direla ohartarazi du Europako Batzordeak, eta batik bat eurogunean. Krisiak bereziki ukitu ditu hegoaldea eta inguruko herrialdeak, eta horrek arriskuan jartzen du Ekonomia eta Moneta Batasunaren oinarrizko helburuetarako bat: Batasun hori onuragarria izatea estatu kide guztientzat bateratze ekonomikoaren eta herritar guztien bizi-kalitatearen hobekuntzaren bidez.

III.2.1. KOADROA. POBREZIA EDO GIZARTE BAZTERKERIA ARRISKUAN DAUDEN EUROPARRAK, “EUROPA 2020 ESTRATEGIA”REN IRIZPIDEEN ARABERA

	PORTZENTAJEA		ABSOLUTUAK (MILIOIAK)	
	2011	2012	2011	2012
EB 28	24,3	24,8	121,5	124,5
BELGIKA	21,0	21,6	2,3	2,4
BULGARIA	49,1	49,3	3,7	3,6
TXEKIAR ERREPUBLIKA	15,3	15,4	1,6	1,6
DANIMARKA	18,9	19,0	1,0	1,0
ALEMANIA	19,9	19,6	16,1	15,9
ESTONIA	23,1	23,4	0,3	0,3
IRLANDA	29,4	:	1,3	:
GREZIA	31,0	34,6	3,4	3,8
ESPAINIA	27,7	28,2	12,8	13,1
FRANTZIA	19,3	19,0	11,8	11,8
KROAZIA	32,3	32,3	1,4	1,4
ITALIA	28,3	29,9	17,1	17,8
ZIPRE	24,6	27,1	0,2	0,2
LETONIA	40,1	36,2	0,8	0,7
LITUANIA	33,1	32,5	1,1	1,0
LUXENBURGO	16,8	18,4	0,1	0,1
HUNGARIA	31,0	32,4	3,1	3,2
MALTA	21,4	22,2	0,1	0,1
HERBEHEREAK	15,7	15,0	2,6	2,5
AUSTRIA	16,9	18,5	1,4	1,5
POLONIA	27,2	26,7	10,2	10,1
PORTUGAL	24,4	25,3	2,6	2,7
ERRUMANIA	40,3	41,7	8,6	8,9
ESLOVENIA	19,3	19,6	0,4	0,4
ESLOVAKIA	20,6	20,5	1,1	1,1
FINLANDIA	17,9	17,2	0,9	0,9
SUEDIA	16,1	18,2	1,5	1,8
ERRESUMA BATUA	22,7	24,1	14,0	15,1
EAE	17,5	17,3	0,38	0,37

Iturria: Geuk eginkoa, EUROSTAT eta EInren datuekin.

⁶ Zehazki, EUROSTATen arabera, oinarrizko baliabideak eskuratzeko ezintasun larria dago baldin eta bederatzitik gutxienez lau gertatzen badira: fakturak garaiz ordaintzeko modurik ez izatea; etxebizitza epel mantentzea; ezusteko gastuei aurre egitea; okela, arraina edo proteina baliokideak kontsumitzea bi egunik behin; urtean astebeteko oporraldia izatea; autoa, garbigailua, koloretako telebista edo telefonoa edukitzea (mugikorrek barne).

Pobrezia eta bazterkeria handituz doazenez gero, gizarte inbertsiorako neurriak premia zehazteko eta abian jartzeko eskatu die Batzordeak gobernuei hazkunderako eta kohesiorako, pertsonen ahalmenak eta gizarte eta lan partaidetza hobetuz, horrek guztiak banakoan mesederako izan dadin eta ekonomia bultza dezan. Kezkarik handiena sortzen dietenak (horiek guztiak elkarren artean lotuta): iraupen luzeko langabeziaren igoera, ez ikasi ez lanik egiten ez duten gazteen hazkundera, familiako kide guztiak langabezian dituzten familien gero eta kopuru handiagoa eta "langileen pobrezia" deritzonaren (*in-work poverty*) igoera.

Jarraian, EAEko pobrezia eta gizarte bazterkeriaren arloko arazoei eta bizi-baldintzei egoerari buruzko azalpena emango da lehenik eta behin, EINren "Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren" 2012ko emaitzak oinarri hartuta. Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren 2012ko "Pobrezari eta gizarte desberdintasunei buruzko inkesta" iturri nagusizat hartuta, krisiak gehien ukitu dituen gizarte taldeak deskribatuko dira, pobrezian diren haurrengan arreta berezia jarrita. Kapitulu honen bigarren zatian, ezinduen bizi-baldintzak aztertuko dira, Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan berebiziko intereseko taldea den aldetik.

2.1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK

2.1.1. 2012ko Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren emaitzak eta 2013ko Aurrerapena

EINren "Bizi-baldintzei buruzko inkesta" Europako Batasunak Errentari eta Bizi-baldintzei buruz egindako estatistikak bateratzeko prozesuaren baitan kokatzen da ("Statistics on income and living conditions" deritze, EU-SILC). Horren helburu nagusietako bat da pobrezia eta gizarte bazterkeria buruzko azterketa egiteko informazioa ematea. Askotariko informazioa ematen du; etxebizitzari, etxebizitzak dakartzan gastuei, sarrerei, etxeko ekipamenduari, egoera ekonomikoari, helduen

III.2.2. KOADROA.URTEKO BATEZ BESTEKO ERRENTAREN BILAKAERA FAMILIAKO ETA PERTSONAKO (ELKARRIZKETAREN AURREKO URTEA) AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2011-2012. EUROAK.

	BATEZ BESTEKO ERRENTA FAMILIAKO			BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONAKO		
	2011	2012	Aldak. %	2011	2012	Aldak. %
ESTATUKO B.B.	24.176	23.972	-0,8	9.306	9.326	0,2
ANDALUZIA	20.6363	21.096	2,2	7.580	7.822	3,2
ARAGOI	25.067	24.833	-0,9	10.053	10.076	0,2
ASTURIAS	26.928	24.554	-8,8	11.402	10.558	-7,4
BALEARIS (ILLES)	25.304	23.854	-5,7	9.847	9.342	-5,1
U. KANARIARRAK	20.999	19.175	-8,7	7.920	7.313	-7,7
KANTABRIA	23.687	24.919	5,2	9.405	10.047	6,8
GAZTELA ETA LEON	23.266	23.641	1,6	9.514	9.730	2,3
GAZTELA-MANTXA	20.645	19.721	-4,5	7.730	7.446	-3,7
KATALUNIA	25.693	25.787	0,4	10.054	10.185	1,3
VALENTZIako ER.	22.421	22.320	-0,5	8.823	8.853	0,3
EXTREMADURA	20.032	17.649	-11,9	7.773	6.958	-10,5
GALIZIA	24.254	23.947	-1,3	9.214	9.225	0,1
MADRIL	28.644	28.741	0,3	10.944	11.148	1,9
MURTZIA	20.346	20.214	-0,6	7.156	7.167	0,2
NAFARROA	31.121	30.783	-1,1	11.957	12.079	1,0
EAE	29.918	29.108	-2,7	12.119	11.901	-1,8
ERRIOXA	22.456	23.379	4,1	9.168	9.843	7,4
CEUTA	24.741	25.988	5,0	9.535	7.924	-16,9
MELILLA	24.401	28.091	15,1	7.964	8.433	5,9

Iturria: INE. Bizi-baldintzei buruzko inkesta 2012.

jarrierari, osasunari, osasun arreta jasotzeari, hezkuntzari eta datu biografikoei buruzko datuak biltzen ditu.

2012ko Inkesta emaitzetan, hauxe nabarmentzen da lehenik eta behin: urtean jasotako batez besteko errenta, EAEn, 29.108 euro zen (2011n baino %2,7 gutxiago), eta Estatuko batez bestekoa baino %21,4 gehiago, hots, 23.972 euro (%0,8 jaitzi da bertan aurreko urtearen aldean). EBn, %0,5ekoa izan zen famili errentaren aldakuntza epealdi horretan. Soilik Nafarroako Erkidegoak gaintzen du oraindik ere EAEn datua (familiako batez besteko sarrerarik handiena duen erkidegoa da: 30.783 euro), baina familiako batez besteko errentaren jaitzierarik handiena izan duten erkidegoen artean dago.

III.2.3. KOADROA.ZAILTASUN MATERIALAK DITUZTEN EDO HAINBAT GASTU EZIN EGIN DITZAKETEN FAMILIEN PORTZENTAJEA. EAE-ESTATUAREN ARTEKO KONPARAZIOA.

	URTEAN GUTXIENEZ ASTEBETEKO OPORRALDIA		HILAREN BUKAERARA IRISTEKO ZAILTASUNAK		ATZERAPENAK ETXEBIZITZA NAGUSIAREN ORDAINKETAN*		EZUSTEKO GASTUEI AURRE EGITEKO EZINTASUNA	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2006	39,5	22,2	60,8	47,2	5,4	5,3	33,0	20,2
2007	37,0	21,1	57,5	48,5	5,6	4,6	31,9	21,1
2008	34,5	15,8	60,9	44,0	6,0	3,5	29,9	17,7
2009	40,3	22,1	60,4	45,9	8,1	2,5	36,1	22,2
2010	40,8	21,1	60,1	41,6	8,7	3,3	38,5	19,8
2011	40,0	27,4	56,3	41,9	7,0	5,2	37,8	23,4
2012	45,1	23,5	60,9	39,2	8,4	3,2	41,4	19,8
2013p	45,8	25,7	64,9	50,4	9,2	4,9	40,9	24,2

* Atzerapenak izan dituzte etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketan (hipoteka edo alokairua, gasaren ordainagiriak, komunitatea...) azken 12 hilean.

Iturria: INE. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

Gainera, pertsonako batez besteko errenta EAEn 11.901 eurokoa da urtean Inkestaren arabera (aurreko urtekoa baino %1,8 txikiagoa), berriz ere bigarren tokoa Nafarroaren atzetik, eta Estatuko batez bestekoa baino %27,6 handiagoa. Rankingaren beste muturrean, bi aldagaietan (familiako eta pertsonako errenta) eta aurreko urteetan bezala, Extremadura, Murtzia, U. Kanariarrak eta Gaztela-Mantxa erkidegok daude. Aurreko urtearen aldean, 7 erkidegotan baino ez da jaitsi batez besteko errenta, eta neurri txikienean EAEn. Estatuko batez bestekoak, aldiz, %0,2 egin du gora. Beraz, gure Erkidegoak galdu egin du 2011n zuen rankingeko lehen tokoa, Nafarroak hurrengo postua zuenean.

Hilaren bukaerara iristeko zailtasunak dituzten familien portzentajea da bizi-baldintzak eta errenta mailak erakusten dituen beste adierazle bat: egoera horretan daude 2013an gure Erkidegoko familien %50,4 (behin-behineko datuekin), aurreko urtean baino %11,2 gehiago.

Estatuko batez bestekoa %64,9 da, hots, 4 puntu hazi da 2012. urtearekin alderatuta. Gainera, kontuan izan behar da hilaren bukaerara iristeko zailtasunak dituztela dioten euskal familien %50,4tik %12,1ek "zailtasun handiak" dituela (%7,1ek 2012an), %12,6k bakarrik "zailtasunak" eta gainerako %25,7ak dio "nolabaiteko zailtasunak" dituela. Antzeko banaketa dago Estatuan ere, baina pisu handiagoa dago zailtasun mailarik handienera; izan ere, familia espainiarren %28,3koa izango litzateke.

Halaber, zenbait gastu egiteko ezintasuna dutela adierazten duten familien portzentajea kalkulatu du Inkestak: euskal familien %25,7k ezin du 2013an (behin-behineko datuak) urtean astebeteko oporraldia hartu (%45,8k Estatuan) eta %24,2k ezin die aurre egin ezusteko gastuei (Estatuan %40,9 batez beste). Ratio hori %4,4 hazi da 2012ko inkestatik.

III.2.4. KOADROA. EUROPAKO FAMILIEN OINARRIZKO BALDINTZARIK EZAREN ADIERAZLEAK. EAE-REKIKO KONPARAZIOA. 2011-2012.

	EZUSTEKO GASTUEI AURRE EGITEKO EZINTASUNA		OINARRIZKOAK ESK. EZINTASUN INDIZEA	
	2011	2012	2011	2012
EB 28	38,1	40,2	18,5	19,7
EBBB	34,4	35,6	15,2	16,1
BELGIKA	26,1	25,4	12,9	12,5
BULGARIA	65,3	68,6	60,1	61,6
TXEKIAR ERREP.	40,4	42,4	16,1	16,8
DANIMARKA	24,9	28,2	6,9	7,5
ALEMANIA	34,5	33,4	12,4	11,3
ESTONIA	44,7	44,7	21,5	21,3
IRLANDA	54,4	:	22,7	:
GREZIA	34,4	40,5	28,4	33,7
ESPAINIA	37,6	42,1	13,2	16,3
FRANTZIA	33,0	33,0	12,4	12,8
KROAZIA	64,8	67,3	34,5	35,3
ITALIA	38,6	42,5	22,3	25,2
ZIPRE	52,9	50,5	29,8	31,5
LETONIA	80,4	73,6	49,0	44,6
LITUANIA	61,3	60,4	35,1	34,4
LUXENBURGO	23,0	24,8	4,7	4,5
HUNGARIA	74,0	74,3	42,2	44,0
MALTA	26,4	24,3	16,5	18,8
HERBEHEREAK	21,7	22,0	6,6	6,5
AUSTRIA	22,8	22,2	9,5	9,8
POLONIA	51,2	54,2	26,4	27,8
PORTUGAL	29,1	35,9	20,9	21,8
ERRUMANIA	50,3	53,1	47,7	48,0
ESLOVENIA	46,7	45,7	17,2	16,9
ESLOVAKIA	35,8	36,1	22,0	22,7
FINLANDIA	27,4	27,9	8,4	8,9
SUEDIA	16,6	17,6	4,2	4,5
ERRESUMA BATUA	36,7	42,9	13,3	16,6
EAE	23,4	19,8	11,0*	7,4*

Iturria: Geuk eginikoa, INE eta EUROSTATen datuekin.

*Zenbatespena da, zenbait ezberdintasun metodologiko baitaude (ikus testua).


Europaraino ikus daitekeenez, EB-28ko familien %40,2k ezin ziren aurre egin ezusteko gastuei 2012an, %10,8k ezin zuen etxebizitza tenperatura egokian mantendu eta %11,5ek zioen etxebizitza nagusiarekin lotutako ordainketei aurre egiteko arazoak izan zituela azken urtean. Handiak dira herrialdeen arteko aldeak. Bizi-baldintzen egoera txarragatik nabarmentzen dira Kroazia, Bulgaria, Letonia, Lituania eta Hungaria (%60-%75) ezusteko gastuei aurre egiteko eta berriz ere Bulgaria, Zipre eta Errumania (hiruretan %30etik gorako ratioak) etxea mantentzeko.

Ildo beretik, EUROSTATEk "oinarrizko baliabideak eskuratzeko ezintasun indizea" definitu du: sarreran aipaturiko bederatzi gastu kontzeptu eta ekipamenduen zerrendatik gutxienez hiru egiterik ez duten pertsonen kopuruak emango du indize hori: EINEk aurkezturiko lau gastu kontzeptuez gain, hauexek sartzen dira: egunean izatea hipotekaren ordainketak eta garbigailua, koloretako telebista, telefonoa eta autoa edukitzea. Definizio horren arabera, EBko populazioaren %19,7k ezin zituen baliabideak eskuratu 2012an (2011n baino %1,2 gehiago), eta alde handiak daude herrialdeen artean, gehienbat Europako kide berrien eta gainerako kideen artean. Alde batetik, Suedian eta Luxenburgon populazioaren %4 besterik ez dago egoera horretan, eta %10etik behera Europako Iparraldeko herrialdeetan, Holandan eta Austrian (Espainiak %16,3ko ratioa du). Bulgarian, berriz, %60k ezin ditu baliabideak eskuratu eta %40k Letonian, Hungarian eta Errumanian.

EINEk, Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren barruan eta 2010etik autonomia erkidegoen arabera, antzeko adierazlea kalkulatu du, eta horretarako, zazpi gastu kontzeptu eta ekipamendu ezin eskuratzeko hartzen da kontuan. Hala, 2012an, %7,4ko indizea zuen EAEk (7 kontzeptuetatik gutxienez 3 ez dituzten familiak) eta Estatuko batez bestekoa %16,5koa izango litzateke %16,3, EUROSTATen indizean-. Horrenbestez, bi adierazleak -Europakoa eta Espainiakoa- konparagarritzat har litezke aipaturiko ñabardurekin.

Azkenik, pobrezia buruzko deskripzio azterketa egiten da Bizi-baldintzei buruzko Inkestan; moneta pobrezia erlatiboa deritzo hala, eta horretarako, moneta pobrezia erlatiboaren gaineko lerro bat egiten da populazioa kalifikatzeko: pobreak eta pobreak ez direnak. Familiako kontsumo-unitateko sarrera garbietan oinarritzen da erabilerako pobrezia-lerroa; hala deritzo familiaren guztizko sarrera garbiak (errenta eskuragarria) zati kontsumo-unitateen kopuruaren arteko emaitzari. Hortik abiatuta, pertsonen esleituriko kontsumo-unitateko⁷ sarreraren banaketaren erdiko balioaren %60an ezartzen da pobrezia-lerroa edo pobrezia-atalasea. Hala, "pobre" deritzo atalase horretatik azpiko kontsumo-unitateko sarrerak dituen orori (halako moldez non familia bateko kide guztiak modu berean sailkatuko baitira: pobreak eta pobreak ez direnak). Herrialde bakoitzerako⁸ kalkulatu da atalase hori Batasun mailan eta, beraz, herrialde bakoitzari buruzko ikuspegi erlatiboa eskura daiteke, baina ezin konpara daiteke zuzenean herrialdeen artean.

III.2.2. GRAFIKOA. POBREZIAREN ATALASEAREN AZPITIK DAUDEN PERTSONEN PORTZENTAJEA. 2008-2012.



Iturria: INE. Bizi-baldintzei buruzko inkesta.

⁷ Kontsumo unitateko diru-sarrera edo baliokidea da familiaren guztizko diru-sarrera zati "kontsumo-unitate" kopurua. Hala ere, kontzeptu hori ez da per capita diru-sarreraren berdina, zeren eta ez baitaie diru-sarrera bera esleitzen familiako kide guztiei, baizik eta beste faktore batzuk izaten dira kontuan hala nola eskala-ekonomiak. Hots, familiako kideen kopurua handitzeak ez du zertan diru-sarreraren igoera proportzionalarekin batera etorri ongizate maila berari eusteko, eta gainera, kontsumo ildoak ez dira berdinak familiako kide bakoitzaren adinaren arabera.

⁸ Esana dugunez, pertsonen esleituriko kontsumo unitateko diru-sarreraren banaketaren erdiko balioaren %60 da, EBko herrialde bakoitzean. Hortaz, herrialde bakoitzeko errentaren banaketa aztertzen da, ez Batasun osorako.

Hortik aurrera, pobrezia-atalasearen azpitik dauden pertsonen portzentajea kalkulatzeko Inkestak. Batasunean %17koa izan zen 2012. urtean, hitzaurrean aurreratu dugunez, zeren eta metodologia hori erabili baitzen pobrezia arriskuan diren biztanleak kalkulatzeko, AROPE Tasan sartutako hiru dimentsioetatik lehena.

Estatu mailan, egonkor eusten dio ratio horrek azken urteetan %20 inguruan, eta gehienekoa 2012an izan zen, %22,2, hain zuzen ere. Gure erkidegoan, %12,6 da irizpide horren arabera “pobreak” diren pertsonen tasa –Nafarroako Erkidegoan baino ez dago datu hobea-, eta bi hamarren jaitsi da azken urtean. Alabaina, gure erkidegoan %21,1 hazi da pobrezia-atalasearen azpitik dauden sarrerak dituzten pertsonen ratioa (%2,2) 2008. urtetik.

Azkenik, batez besteko errenten edo pobrezia tasen bilakaeraren azterketa bezain interesgarria da errentaren banaketa aztertzea une jakin batean, baita denboran duen bilakaerari dagokiona ere. Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailak berriki argitaratu duen “*Errentaren banaketaren desberdintasuna 1986-2012*”⁹ deritzon azterlanak erakusten duenez, EUROSTATen EU-SILCen datuak eta Eusko Jaurlaritzaren PGDI aztertu ondoren, gure erkidegoa berdintasunezko errenta duten Europako herrialdeen mailan dago.

Hori frogatzeko, beste adierazleen artean, Gini-ren indizea aztertzen da. Ekonomia bateko kideen edo familien diru-sarreraren banaketaren eta berdintasunezko banaketaren artean dagoen alde neurtzen du, halako moldez non 0 indizeak berdintasun perfektua adierazten baitu, eta 100eko indizeak, berriz, berdintasunik ez perfektua. Azterlanean nabarmentzen denez, adierazle horrek egonkor eutsi dio 30aren inguruan azterturiko epealdian zehar EB-15eko herrialdeen artean, baina alde nabarmenak daude azterturiko herrialdeen artean, dela mailetan, dela aldakuntzen denbora erritmoan.

Bestalde, Euskadin pixkanaka hobetu egin da sarreraren banaketa 1996 eta 2008 bitartean, eta hiru puntuz egin du behera haren Gini indizeak: 28tik 25,2ra. Gainera, maila horri eusten zaio krisialdiko lau urteren buruan, 25,3koa baita 2011ko datua. Izan ere, Suediak baino ez du hobetu ratio hori (24,4) EB-15eko herrialdeetan, eta antzeko mailetan Finlandian eta Herbeheretan. Beste muturrean, errentaren banaketaren desberdintasun mailarik handienak Portugalen (34,2) eta Espainian (34,0) daude.

III.2.5. KOADROA. GINI-REN INDIZEAREN BILAKAERA EUROSTAT-EN BALIOKIDETZAN 1996-2011					
	1996	2000	2004	2007	2011
SUEDIA	21,0	24,0	23,0	23,4	24,4
EAE	28,0	27,2	26,0	25,2	25,3
FINLANDIA	22,0	24,0	25,5	26,2	25,8
HERBEHEREAK	29,0	29,0	26,9	27,6	25,8
AUSTRIA	26,0	24,0	25,8	26,2	26,3
BELGIKA	28,0	30,0	26,1	26,3	26,3
LUXENBURGO	28,0	26,0	26,5	27,4	27,2
DANIMARKA	20,0	22,0	23,9	25,2	27,8
ALEMANIA	27,0	25,0	26,1	30,4	29,0
IRLANDA	33,0	30,0	31,5	31,3	29,8
FRANTZIA	29,0	28,0	28,2	26,6	30,8
EB-15	30,0	29,0	30,0	30,2	30,8
ITALIA	32,0	29,0	33,2	32,2	31,9
ERRESUMA BATUA	32,0	32,0	34,6	32,6	33,0
GREZIA	34,0	33,0	33,0	34,3	33,6
ESPAINIA	34,0	32,0	30,7	31,3	34,0
PORTUGAL	36,0	36,0	37,8	36,8	34,2

Iturria: Anton, Colinas eta Iruarrizaga (2013): “Desberdintasuna errentaren banaketan Euskadin 1986-2012”. OGASUN ETA FINANTZA SAILA. EUSKO JAURLARITZA.

2.1.2. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta 2012: gizarte talderik kaltetuenak

Eusko Jaurlaritzak lau urterik behin egiten du “*Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunari buruzko Inkesta*” (PGDI). Horri esker jakin daiteke zein bilakaera izan duen pobrezia gure gizartearen, baita horretan eragina duten arrisku faktoreak eta banaketa ezberdina ere. Pobrezia eragina neurketarako aukeraturiko adierazlearen arabera aldatzen da EAEn.

⁹ Anton, Colinas eta Iruarrizaga (2013): “*Errentaren banaketaren desberdintasuna Euskadin 1986-2012*”. Bilduma: Ikerketak Ekonomia 2013/II. Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Finantza Saila.

III.2.6. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN PGDI-REN OINARRIZKO ADIERAZLEEN BILAKAERA

2012ko PGDIren emaitzek erakusten zuten¹⁰, lehenik eta behin, mantenu pobrezia¹¹ren arriskuaren adierazlea %7,3 zen, 2004

	1996	2000	2004	2008	2012
Ongizaterik ez izateko arriskua (mantentzea)	36,3	24,7	21,9	16,4	19,9
Pobrezia arriskua (mantentzea)	13,3	7,9	5,6	5,7	7,3
Metaketa pobrezia	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4
Benetako pobrezia	8,7	5,1	4,5	4,2	5,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2012.
Oharra: PGDI adierazleak termino egokitueta ageri dira.

eta 2008ko kopuruaren gainera, baina 80ko eta 90eko urteetan izaten zirenen azpitik. Hala, 157.686 pertsona zeuden egoera horretan EAEn. Bestalde, ongizaterik ezak %19,9 hartzen zuen (hori ere mantenu pobrezia¹¹ arabera). Pobrezia¹¹ren adierazle bilakaera hobea da metaketa pobrezia¹¹rekin lotutakoak aztertzen direnean; hartara, familien ondareari buruzko alderdiak eta ondasun materialak hartzen ditu kontuan. Izan ere, metaketa pobrezia jaitsi egin da azken lau urtean, %1,5etik %1,4ra.


Gainera, aztertutako arrisku arazoek edo egoerek berehalako pobrezia¹¹ren edo prekaritatearen benetako bizipena ez dakartenez gero, PGDI adierazle sintetiko bat du bere azterlanean, benetako pobrezia¹¹ egoerak identifikatzeko, hots, zenbait alderditan egoera erosoak izateak beste alderdi batzuetako balizko gabeziak konpentsatzen direneko egoerak. Adierazle hori erabiliz ikus daitekeenez, igoera dago benetako pobrezia¹¹ren; izan ere, %4,2 izan zen 2008an eta 2012an, berriz, %5,3koa. Inkestak berak aitortzen duenez, inoizko daturik altuenetakoa da, baina 1996an erregistraturikoa baino txikiagoa nolahi ere (%8,7), noiz-eta 185.000 pertsona bizi zirenean benetako pobrezia¹¹ren. Zenbatespenen arabera, 114.000 dira 2012an.

Jarraian, azken adierazle oinarri hartuta, pobrezia¹¹ Euskadin gehien kalteturiko familia motak azalduko dira, benetako pobrezia¹¹-ratio handienak dituztenak (%15etik gorakoak) eta, guztira, antzemandako pobrezia¹¹ kasuen %79 dira. Ezaugarri komuna dute guztiek, ikusiko dugunez: pertsona nagusien lanik eza, edo gutxienez lan egonkorrik eza, bestelako arrisku faktoreekin batera: atzeritarra, guraso bakarreko familia eta gazteak, atzean dagoen ikasketa mailaren faktoreekin batera betiere.

a) Guraso bakarreko familia eta, neurri txikiagoan, bakarrik dauden pertsonak eta beste famili talde batzuk

Modu ezberdinean eragiten die benetako pobrezia¹¹ guraso bakarreko familietako pertsonen. Familia mota horretako pertsonen %18,2ri eragiten die, "Beste famili talde batzuk" kategorian ikusitako %10,1aren gainera. Bi familia mota horietan, benetako pobrezia¹¹ tasa %4-%5 egin du gora 2008-2012ko lau urtekoan; 2008an, berriz, %13,2 eta %6,1 izan ziren. Beste famili talde batzuen artean, mantenu pobrezia¹¹ren eraginagatik gertatu da soil-soilik hazkundera (%4,8tik %13,1era), eta guraso bakarreko familietan, sarreraren pobrezia¹¹ modu horretako goranzko joera horrekin batera (%13,7tik %19,2ra), konparazioa eginez, handiak diren kopuruak ageri dira metaketa pobrezia¹¹ren. 2012ko adierazle horrek islatzen duen %4,7 da EAEko batez

III.2.3. GRAFIKOA. POBREZIA EAEn FAMILIA MOTAREN ARABERA. PORTZENTAJEAK, 2012.



¹⁰ Adierazle buruzko xehetasun gehiagorako, ikus bez

¹¹ Mantenu pobrezia, beharizan oinarrikoenei (jar

pobrezia arriskuan egotea. Ongizaterik ezaren arriskua, berriz, gizarte jakin batean espero diren gutxieneko ongizate eta erosotasun mailen eusteko beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko nahikoa sarrera ez izatearekin dago lotuta.

Iturria: Geuk eginikoa EUSKO JAURLARITZAREN datuekin. PGDI.

bestekoa gainditzen duen bakarra, eta agerian uzten du, gainera, goranzko joera. 2008ko %4,1ekoaren aldean.

%6,9ko tasa izanik, benetako pobrezia ere EAeko batez bestekoa gainditzen du bakarrik dauden pertsonen artean. Kasu honetan, ordea, 2008koaren antzeko maila eusten zaie (%6,4), eta mantenu pobrezia %10,4aren inguruan egonkortu dela ikus daiteke, baita metaketa pobrezia ere: %2,2tik %1,2ra.

2012ko egoerarik onena bikotearen inguruan eraturiko familiekin lotutako pertsona dagokie. Benetako pobrezia tasa, 2012an, %3,7 da seme-alabak dituzten bikoteen familietan (%3,3 2008. urtean) eta %2,5 seme-alabarik gabeko bikoteetan (%1,9 2008an). Horrelako familia moten pisu erlatibo handia dela-eta, bikoteen familietako pertsona – seme-alabak dituztenak edo horiek gabe-, berriz, benetako pobrezia egoerarik gehienak biltzen dituzte 2012an, guztizkoaren %51,1. Hala eta guztiz ere, 2008ko %58,1ekoa baino txikiagoa da tasa hori, eta behera egin du ere bakarrik dauden pisu erlatiboak (%13,5etik %12,5era). Baina gora egin du guraso bakarrek familiekin eta beste famili talde batzuekin lotutako zatiak: %28,4tik %36,4ra.

Bestalde, guraso bakarrek familiak eta beste famili talde batzuk ukitzen dituen benetako pobrezia tasa altua eta seme-alabak dituzten bikoteek egoera horien banaketan duten pisu kuantitatibo handia direla-eta, presentzia handia dute pobreen taldeetan seme-alabak dituzten familiek. Hala, benetako pobrezia dauden pertsona horien %53,8 14 urtetik beherakoak dauden familietakoak dira. Kasu horietan, %8,5 da benetako pobrezia tasa; adingaberik gabeko familietan bizi diren pertsona, berriz, %3,7.

b) Erreferentzia nagusia emakumea duten familiak


Pobrezia moduak sexuaren arabera aztertu izanik erakusten duenez, konparaziozko egoerarik okerrera emakumeak buru diren familiena da kasu guztietan. Izan ere, benetako pobrezia 3 aldiz handiagoa da emakumea buru deneko familietan (%11,1 gizonekoetan eta %3,7 emakumezkoetan). Gainera, erreferentziako pertsona gizonekoak duten familietako pertsonen hazkunde txikiaren aurrean (%3,3tik %3,7ra 2008 eta 2012 bitartean), igoera %8,8tik %11,1era da pertsona nagusia emakumea deneko familietan.

Sexu aldagaiak populazio osoan duen eragina aintzat hartzean, familiako pertsona nagusiaren sexua alde batera utzita ikus daitekeenez, ordea, benetako pobrezia hazkunde handiagoa da konparazioz gizonekoaren artean. Hala, tasa %4etik %5,4ra hazi da gizonekoaren artean, eta pixka bat gainditzen du 2012an emakumezkoen erregistroa (%5,2koa 2012an eta %4,3 2008an).

c) Gazteen familiak

Pobrezia arazoak eragin handiagoa du gazteak dituzten familietan. Hala, benetako pobrezia eraginik handiena famili burua 35 urtetik beherako pertsona (%18) edo 35-44 urteko pertsona (%7,4) duen populazioari dagokio. Eragin txikiagoa da, berriz, 45 urtetik gorako pertsona nagusiaren menpeko kideen artean: %4,1 da 45-54 urteko pertsonen familietan, %2,9 55-64 urteko erreferentziako pertsonekin eta %1,7 65 urtetik gorako pertsonen familietan. Izan ere, funtsezko datua da honako hau: benetako pobrezia egoeren %62,2 famili burua 45 urtetik beherako pertsona deneko familietako populazioari dagokio.

III.2.4. GRAFIKOA. BENETAKO POBREZIAREN TASAREN BILAKAERA, FAMILIEN PERTSONA NAGUSIAREN ADINAREN ARABERA. EAE.



Iturria: Geuk eginikoa EUSKO JAURLARITZAREN datuekin. PGDI.

Pobrezian 2008an eta 2012an izandako bilakaera alderatuz ikus daitekeenez, 35 urtetik beherako pertsonen familiekin lotutako biztanleen arteko hazkunde diferentziala dago. Benetako pobrezia %9,4tik %18ra igo da, mantenu pobrezia-ekin inguruko igoera handiarekin lotuta (%11,8tik %19,7ra), baina metaketa pobrezia-aren goranzko joerarekin ere bai (%2,7tik %3,9ra).

d) Atzerritarren familiak

Pobrezia moduen eragina oraindik ere askoz handiagoa da famili burua atzerritarra deneko familietan bizi direnen artean. Benetako pobrezia tasak igoera txikia izan du 2008 eta 2012 bitartean euskal herritarrean artean, hots, %2,9tik %3,3ra. Atzerritarren familietan, berriz, %27,7tik %32ra. 2008 eta 2012 bitartean, azken horien pisua %34,1etik %41,2ra hazi da benetako pobrezia-aren egoeren multzoan.

Hori azaltzeko osagai nagusia mantenu pobrezia-aren eragin diferentziala da: %34,3 batean eta %5,3 bestean, eta igoera handia izan da atzerritarren familietako biztanleen artean 2008ko datuekin alderatuta (%28,5 atzerritarren familietan eta %4,4 euskal herritarren familietan). Alabaina, gora egin du metaketa pobrezia-ak (%3,4tik %4,5era 2008 eta 2012 bitartean), atzerritarren artean izan den beheranzko joeraren kontra (%1,4tik %1,2ra).

e) Lan egonkorra eskuratzeko modurik ez duten pertsona aktiboak dituzten familiak

Benetako pobrezia-aren eragin handienez, batez bestekotik gorako zifrak bildu dira, eta soilik okupatu egonkorrik gabeko pertsona aktiboak dauden familiekin dago lotuta. Populazio aktiborik gabeko familietan, %3,1 ingurukoa da, eta %2 ingurukoa edo txikiagoa okupatu egonkorrak dituzten familietan. Hala, benetako pobrezia %11,8rainokoa da pertsona aktibo guztiak egonkortasunik gabe lanean dabiltzan familien artean, %30,6rainokoa pertsona aktiboak egonkortasunik gabeko okupatuak eta langabetuak direnean eta %37,9koa aktibo guztiak lanik gabe daudenean. Azken hiru taldeek benetako pobrezia-aren %76,4 bildu dute 2012an; 2008an, berriz, %57,8 izan zuten. Erabakigarria da pertsona aktiboak eta lanik gabe dauden pertsonen familien ekarpena; izan ere, benetako pobrezia-aren diren pertsonen %46,8 dira, 2008ko %26,2aren bi halako ia.

Hazkunde handi horrek ez du islatzen, ordea, aktibo guztiak lanik gabe dituzten familien pobrezia-aren arrisku handiagoa. Egia esan, benetako pobrezia-aren eraginak behera egin du talde horretan 2008 eta 2012 bitartean, hain zuzen %49,7tik %37,9ra, eta aldi bereko jaitsiera ikusten da mantenu pobrezia- nahiz metaketa pobrezia-aren. Bilakaera paradoxiko hori langabetuak eta egonkortasunik gabeko pertsona okupatuak dauden familietan ere ikus daiteke: benetako pobrezia %36,4tik %30,6ra jaitsi da. Horrek erakusten duenez, bi talde horiek benetako pobrezia- arazoak dituzten pertsonen multzoan duten gero eta pisu handiagoak (osotasunean, guztizkoaren %62,1; 2008an, berriz, %40,8 zen) lotura handiagoa du taldeok euskal gizartean duten pisu erlatibo handiagoarekin prekaritate konparatu handiagoarekin baino, hain zuzen langabeziaren gehikuntzaren ondorioz.

Izan ere, gaur egun %3tik gorako pobrezia tasa duen talde bakarra ikusten da, benetako pobrezia-aren goranzko joera erakusten duena 2008 eta 2012 bitartean. Pertsona guztiak egonkortasunik gabe dauden pertsona aktiboak dituzten familietakoak dira. Hala denean, benetako pobrezia tasak gora egin du 2008ko %9,7tik 2012ko %11,8ra, mantenu pobrezia-aren igoeraren eraginez: aldi horretan %7,8tik %13,7 hazi da pobrezia mota hori.

III.2.7. KOADROA. POBREZIA ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK (%<600), JARDUERAREKIKO ERLAZIOAREN ARABERA. 2012.

	EAE	EB 28	ESPAINIA
Langabetuak	39,9	46,9	46,0
Beste ezaktibo batzuk	23,5	27,7	26,6
Beren konturako enpleguak	7,7	6,9	8,2
Jubilatuak	15,2	13,1	10,5
Inoren konturako enpleguak	6,4	6,9	8,2
OROTARA, BIZTANLERIA	15,2	15,9	20,5

Iturria: Geuk eginikoa EUROSTAT eta PGDIren 2012ko datuekin.

Oharra: beren herrialdeko errentaren banaketaren batez bestekoaren %60tik beherako diru-sarrerak dituzten 18 urteko eta gehiagoko biztanleen portzentajeari dagokio arrisku adierazlea (pobrezia-aren atalasea).

Ikasketa mailen eragina

Lanaren arloan, ikasketa mailari erreparatzea ere garrantzizkoa da. Oro har, familiako pertsona nagusiaren ikasketa maila zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta arrisku handiagoa dago pobrezia arriskua aztertutako populazioan; horra hor daturik nabarmenena.

III.2.8. KOADROA. POBREZIA ETA PREKARITATEA, FAMILIAKO PERTSONA NAGUSIAREN IKASKETA MAILAN ARABERA. EAE, 2008-2012.

		IKASKETARIK EZ	OINARRIZK OAK	EZ LANBID. /LH I	TREBAKUAK	OROTARA
MANTENU POBR.	2008	10,4	7,2	6,5	2,4	5,7
	2012	14,7	9,6	10,2	2,6	7,3
METAKETA POBR.	2008	4,4	2,0	1,6	0,5	1,5
	2012	7,8	2,2	1,2	0,5	1,4
BENETAKO POBR.	2008	8,8	5,4	5,2	1,2	4,2
	2012	15,8	6,7	8,9	1,0	5,3
ONGIZATERIK EZA	2008	13,0	9,8	10,9	3,7	8,2
	2012	28,4	13,1	14,5	3,2	10,1

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2012.

Oharra: PGDI adierazleak termino egokituetan ageri dira.

Beraz, benetako pobrezia eragin handiena ikasketarik gabeko pertsona baten menpeko familia batean bizi den populazioari dagokio: %15,8ko tasa. 2008an, berriz, %8,8koa zen. %8,9 ingurukoa da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak edo LH I-koak dituen familiako titularra denean, horretan ere igoera nabarmena 2008ko %5,2koaren aldean. Txikiagoa da, aldiz, oinarriko ikasketak dituzten erreferentziako pertsonen familietako biztanleen artean, %5,4tik %6,7ra. Horri esker, bigarren mailako ikasketak dituzten baina pixka bat txikiagoa da pobrezia tasa taldean.

2008. urtean moduan, tasarik txikienak -egia esan Erkidegoko batez bestekoaren azpitik dauden bakarrak-, goi mailako ikasketak dituen pertsona buru deneko familiako populazioari dagokio (goi mailako LH edo unibertsitate ikasketak). Hala denean, benetako pobrezia %1 besterik ez da, 2008ko %1,2koa baino are txikiagoa. Bereziki deigarria da egiaztatzea benetako pobrezia kasuen %91,8 goi mailako ikasketak dituen pertsona buru deneko familiekin dagoela lotuta 2012an.

Hurbilketa sintetikoa

Euskal familietako pertsona nagusien ezaugarri soziodemografiko nagusiak laburbilduta kontuan izanik, polarizazioa dagoela ageri da benetako pobrezia eragin handiaren inguruan euskal gizartean; 2012ko Memoria Sozioekonomikoan ere azpimarratu zen hori. Alde txarrean, berriz, zenbait talde nabarmen ageri dira %15eko edo maila handiagoko pobrezia tasengatik. Aztertutako pobrezia errealitatearen banaketan duten eragin erlatiboaren arabera ordenatuta, honako berezitasun hauengatik nabarmentzen dira benetako pobrezia ukitutako hiru familia mota nagusiak:

III.2.9. KOADROA. EAE-KO POBREZIAREN ERAGINA PERTSONAREN PROFILAREN ARABERA. 2008-2012KO BILAKAERA.

	2008		2012	
	Eragina	Guzt. %	Eragina	Guzt. %
Guraso bak. f. emak, PN okup. egonk. < 45 urte	60,7	8,9	63,8	10,2
Guraso bak. f. emak, PN ez okup. egonk. > 45 urte	9,7	2,5	18,8	4,7
Guraso bakarrek f. emak, PN okup. egonkorra	6,9	2,5	2,7	1,2
Emakumeak bakarrik ez okup. egonkorra < 45 urte	5,4	0,3	16,1	0,7
Emakumeak bakarrik ez okup. egonkorra > 45 urte	30,1	5,0	23,3	2,3
Emakumeak bakarrik < 65 okup. egonkorra	4,1	0,9	0,7	0,1
Gizonak bakarrik < 65 okup. egonkorra	0,0	0,0	0,5	0,1
Gizonak bakarrik < 65 ez okup. egonkorra	24,1	3,9	22,6	2,9
Famili taldeak PN < 45 urte, ez okup. egonkorra	19,1	15,2	19,0	18,2
Famili taldeak PN > 45 urte, ez okup. egonkorra	2,8	5,9	3,9	7,1
Famili taldeak PN < 45 urte okup. egonkorra	1,3	7,4	0,6	2,1
Famili taldeak PN > 45 urte okup. egonkorra	0,8	5,7	0,6	3,0
Gizonak > 65 urte	1,1	4,4	1,0	3,4
Emakumeak > 65 urte	2,4	4,6	3,1	4,1
EBkoak ez diren herrialdeak	34,5	31,2	37,3	36,0
Guraso bakarrek familietako gizonak	7,4	1,6	18,2	3,8
OROTARA	4,2	100,0	5,3	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PDGI 2012.

PN= familiako pertsona nagusia

1. Europar Batasuneko ez beste estatuko nazionalitatea duen erreferentziako pertsona duten familiak. Familia mota horretako populazioak aztertutako pobrezia %36 biltzen du. Benetako pobrezia tasa %37,3koa da populazio horretan; atzeraka doa 2008ko %34,5ekoaren aldean.
2. Egonkortasunik gabeko lanik ez duen eta 45 urtetik beherakoa den erreferentziako pertsona duten famili taldeak. Familia mota horretako populazioak aztertutako pobrezia %18,2 biltzen du. Benetako pobrezia tasa %19 da, kasu honetan 2008ko %19,1aren parekoa.
3. Lan egonkorrik ez duen emakume bat buru deneko guraso bakarreko familiak. Familia mota horretan bizi direnak benetako pobrezia %14,9 dira. Benetako pobrezia tasa %36,3 da, 2008ko %27,9aren gaineratik. Eraginpeko talde nagusia 45 urtetik beherako pertsona nagusiekin dago lotuta: %63,8ko pobrezia tasa (%60,7koa 2008an) eta %10,2 partaidetza benetako pobrezia egoeren multzoan. Termino erlatiboetan, ordea, egoerarik okerrena guraso bakarreko famili mota horri dagokio, famili burua 45 urtetik gorakoa emakumea denean. Kasu honetan, benetako pobrezia tasa %9,7tik %18,8ra igo da 2008 eta 2012 bitartean.

Beste talde batzuetan ere gaituzte egin da 2012an %15eko benetako pobrezia tasa, baina eragina askoz txikiagoa da kontsideraturiko egoeren banaketan. Kasu honetan, honako ezaugarri hauek dituzte erreferentziako pertsonak buru direneko familiek:

- Ekonomikoki aktiboak diren eta bakarrik dauden emakumeak, lan egonkorrik gabekoak. Emakume mota hori aztertutako pobrezia kasu guztien %3 dira. Benetako pobrezia tasa %21,1 da, atzeraka doana 2008ko %24,4aren aldean. 45 urtetik gorako emakumeekin dago lotuta jaitziera (%30,1etik %23,3ra), baina nabarmen egin du gora benetako pobrezia 45 urtetik beherakoen artean (%5,4tik %16,1era).
- Bakarrik dauden gizonezko aktiboak, lan egonkorrik gabekoak. Pobrezia kasuen %2,9 biltzen du gizonezkoen talde horrek. Benetako pobrezia tasa %22,6 da, eta atzeraka doa 2012ko %24,1aren aldean.
- Guraso bakarreko familia baten ardura duten gizonezkoak. Aztertutako pobrezia kasuen %3,8 biltzen dute. Nabarmen egin du gora talde horretan benetako pobrezia tasak: 2008-2012ko lau urtekoan, %7,4tik %18,2ra.


Osozunean, definituriko taldeekin lotutako pertsonak, esana dugunez, 2012an antzemandako benetako pobrezia kasuen %79 dira; 2008an, berriz, %68,6 ziren. Eta mota horietan ez bezala, benetako pobrezia tasak %3tik beherakoak dira gainerako talde demografikorik gehienetan.

2.1.3. Kasu zehatza: Euskadiko haurren pobrezia

Adingabeak dauden familietan eragin handiagoa du pobrezia, ikusia dugunez. Gertaera hori bereziki kezagarria da, adingabeak eta ahulagoak direlako nahiz bizitzan zehar izan ondorioak izan ditzakeelako. Europar Batzordeak horren arriskuz ohartarazi du, zeren eta pobrezia garapen pertsonala galarazten baitu eta kaltegarria baita osasunerako, hezkuntza lorpenetarako eta oro har haurren ongizaterako. Izan ere, bazterketaren gaineko arazoak izango dituen pertsona heldua bihurtzeko arrisku handia du pobrezian eta bazterkerian hazten den haurrak, eta belaunaldiz belaunaldi igarotzen den zikloa errepikatzen da.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak "Euskadiko haurren pobrezia" izeneko txostena egin du 2013an, eta bertan nabarmentzen denez, Euskadin, Europako gainerako herrialdeetan bezala, pobrezia eta baliabideen urritasun tasa handiagoak dira haurren artean helduen artean baino, erabilitako adierazlea edozein delarik ere. Gainera, krisia hasi zenetik, egoera txarra are nabarmenagoa izan da 14 urtetik beherakoen artean.

III.2.5. GRAFIKOA. EAE-KO 14 URTEK BEHERAKOEN EGOERAREN BILAKAERA MANTENU POBREZIA-ONGIZATEAREN ESKALAN



Iturria: "Euskadiko haurren pobrezia" EGPS. 2012ko datuekin.

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren 2012ko PDGIren emaitzen arabera, guztira 14 urtetik beherako 33.864 agindabe bizi dira gure Erkidegoan mantenu pobrezia arriskupean (oinarrizko beharrei aurre egiteko nahikoa baliabiderik ez dutenekin lotutako pobrezia hain zuzen ere). elikagaiak, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak, PGDIren dimentsioa garrantzitsuagoa da azterketa honetan), hots, biztanle horien %11,8. 30.000 inguru (%10,5) ongizaterik gabe bizi dira (ez dute nahikoa sarrera gizarte baten ongizatean espero diren gutxieneko maileri eusteko), eta, beraz, pobrezian edo ongizaterik gabe izateko arriskua %22,3raino iristen da. Gainerako %77,7a ongizatean bizi da.

Egungo krisiaren larritasuna gorabehera, haurren mantenu pobrezia arriskua 1996koan erregistraturikoaren azpitik dago, eta 2000koa baino pixka bat handiagoa besterik ez da. Gainera, 2012an azpimarratu beharreko beste elementu bat ongizaterik gabe bizi diren adingabeen portzentaje txikiagoa dugu. Ondorioz, egonkortu egin da ongizatean bizi diren haurren egoera mantenuaren ikuspegitik. Bestela esanda, 2004tik hona behinik behin, nabarmen hazten ari dira haurren pobrezia egoerak eta, pixka bat gutxiago, ongizateari dagozkionak. Bitarteko egoeran daudenen pisua (ongizaterik gabe, prekarietate hurbilago), berriz, gutxitu egin da.

Pobrezian dauden pertsonen multzoaren banaketaren ikuspuntutik, haurrek arrisku-talde nagusi gisa duten gero eta protagonismo handiagoa nabarmentzen da azterlanean, gutxienez belaunaldien arteko azterketaren ikuspegitik. 2000an talde horren %27 ziren 65 urtetik gorakoak; 2012an, berriz, %12 besterik ez dira. 14 urtetik beherakoak, bestalde, gehiago dira EAEko pobrezia arriskuan daudenen artean: %14tik %21era. Edonola ere, aldaketarik handiena ikusten da kontuan hartzen badugu 2000an pobrezia arriskuan zeuden pertsonen %39 35 urtetik beherakoak zirela eta 2012an %50etik gorakoak direla. Euskadiko pobrezia arriskuan, beraz, gehienbat haurrei eta gazteei dagokie 2012. urtean.

Arrisku-talderik kaltetuenei dagokienez, oso ezaugarri zehatzak ditu EAEko haur txiroen taldeak: horien guztien %53 atzerritarrak dira, %36 guraso bakarreko familietan bizi dira eta %52 pertsona heldu guztiak langabezia dauden familietan. Datu horrek agerian uzten du gogoeta zabala egin behar dela langabeziari ematen zaion estaldura ekonomikoaz familiak adingabeak daudenean; izan ere, gutxi erreparatzen zaio faktore horri langabeziaren babes orokorrean, ikerketa egin dutenen aburuz. Badirudi agerikoa dela immigrazioaren, langabeziaren eta haurren pobrezia arteko erlazioa, txostenak nabarmentzen duenez.

Bigarrenik, konparazioa eginez, 18 urtetik beherako pobrezia tasak, Euskadin, Estatuko gainerako erkidegoetakoak baino askoz txikiagoak dira, eta EBko baino pixka bat txikiagoa, baldin eta lurralde bakoitzaren bizitza-kostuari egokituriko pobrezia atalaseak erabiltzen badira (moneta pobrezia).

III.2.10. KOADROA. POBREZIA EGOEREN ERAGINA ADINGABEKOENGAN, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA, PORTZENTAJEETAN EMANDAKO DATUAK, 2011.


	POBREZIA LARRIA (%40)	POBREZIA ERLATIBOA (%60)
GALIZIA	7,0	16,4
ASTURIAS	7,0	13,3
EAE	7,2	15,0
NAFARROA	8,6	16,5
GAZTELA ETA LEON	10,5	24,9
VALENTZIAKO ER.	11,0	25,7
U. KANARIARRAK	12,1	37,2
KANTABRIA	12,4	24,3
EXTREMADURA	13,7	27,8
MADRIL	13,8	26,9
GAZTELA-MANTXA	14,4	24,4
MURTZIA	15,7	31,5
ARAGOI	15,9	24,7
KATALUNIA	17,5	30,2
BALEARRAK	17,5	31,7
ANDALUZIA	21,0	35,5
ERRIOXA	25,6	37,6
CEUTA	36,8	51,8
MELILLA	37,7	50,4
OROTARA	15,0	28,4

Iturria: "Haurren pobrezia Euskadin", INEren datuekin. Bizi-baldintzei buruzko inkesta. Oharra: EUROSTARen atalaseak erabiltzen dira, egokitzapen parekotasunarekin.

Lehenik eta behin, autonomia erkidego guztien pobrezia erlatiboaren eta larriaren tasak kontuan hartzen baditugu (%60tik eta %40tik beherako errentaren atalasetik beherako populazioa, hurrenez hurren), hauxe dugu, EINren Bizi-baldintzei buruzko Inkesta oinarri hartuta: haurren pobrezia tasak Estatu osokoa baino %50 txikiagoak direla EAEn. Pobrezia larrian diren haurrak guztizkoaren %7,2 dira EAEn. Estatuko batez bestekoa, berriz, %15ekoa da. Pobrezia erlatiboa dela-eta, EAEko ratioa %15 da, eta Estatuan %28,4. Madril eta Katalunia dira EAEn antzik handiena duten erkidegoak historia ekonomikoaren eta sozialaren aldetik, eta horietan ere egoera deigarria da, zeren eta Espainiako batez bestekotik hurbilago dagoen haurren pobrezia baitute EAEko bano.

Europarako konparaziozko datuei dagokienez, EUROSTATen Bizi-baldintzei eta Errentari buruzko Estatistikaren metodologia erabiliz, EAE bitarteko egoeran dago: haurren pobrezia tasa EB-15eko eta EB-27ko herrialdeetako batez bestekoak baino pixka bat txikiagoak dira. Hala, haurren pobrezia larria (%40ko atalasea) haur guztien %5,9 izango litzateke, hain zuzen Belgikaren antzekoa (%4,9) eta EB-15eko (%6,5) eta EB-27ko (%7,1) datutik behera. Espainian, berriz, %14,4 da.

III.2.6. GRAFIKOA. EB-KO HAURREN POBREZIA LARRIA. 2011.



Iturria: "Haurren pobrezia Euskadin" EUROSTAT eta AEMlren datuekin.
Oharra: Batez besteko diru-sarrera baliokidearen %40aren arabera ezartzen da atal

III.2.11. KOADROA. EAE-KO SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAK ADINGABEEN FAMILIETAN BIZI DIREN PERTSONEN BENETAKO POBREZIAN DUEN ERAGINA. 2012.

	TASA	ABS.	BANAK.	BANAK.
PRESTAZIOAK ESKA LITZAKETEN FAMILIETAN BIZI DIRENAK	11,0	94.979	100,0	
SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAN LAGUNTZA JASO DUTENAK	8,0	69.631	73,3	100,0
- POBREZIATIK IRTEN DIRENAK	3,3	28.693	30,2	41,2
- POBREZIATIK IRTETEN EZ DIRENAK	4,7	40.938	43,1	58,8
ESATZAILEAK IZAN DAITEZKEENAK ETA PRESTAZIOA ESKURATZEKO MODURIK EZ DUTENAK	2,9	25.348	26,7	
POBREZIAREN MURRIZPENAREN %			30,2	
MURRIZPENAREN %, POBREZIATIK IRTETEN EZ DIREN HARTZAILEEN ARTEAN DAGOEN POBREZIAREN ATALASEAREKIKO			69,9	

Iturria: EUSKO JAURLARITZA "EAEko haurren pobrezia", PDGren datuekin.

Azkenik, haurren pobrezia prebenitzeko eta gutxitzeko gizarte politiken eraginkortasuna aztertzen du Eusko Jaurlaritzaren azterlanak, eta agerian uzten du Gutxieneko Errenten Euskal Sistemak haurren bizi-baldintzetan duen eragin garrantzitsua. Ondorio gisa esaten da sarrerak bermatzeko euskal sistema, SBE, EPO eta GElen inguruan bideratua, funtsezko eginkizuna betetzen ari dela haurren pobrezia haz ez dadin EAEn, eta adingabeak dituzten familien pobrezia hedadura nahiz intentsitatea murrizten ari da sistema: %30,2 murrizten du familia pobreen kopurua eta %69,9 familia horiek pobrezia atalasetik banatzen duen distantzia. Gainera, krisiak sortutako behar beharrei erantzun die sistemak, azterlanean nabarmentzen denez, zeren eta %38 hazi baita seme-alabak dituzten onuradunen kopurua 2008 eta 2012 bitartean.

2.2. EZINDUEN BIZI-BALDINTZAK

Europar Batasunean, sei pertsonetatik batek baliaezintasun arina, ertaina edo larria du, hots, 80 milioi pertsonak, eta askotan, ez dute behar bezala parte hartzerik gizartean eta ekonomian barrera fisikoengatik eta gizartearen gainerako banakoen jarrerengatik. Gaixotasun, gaitz, traumatismo edo zauriren baten ondorioz, edo bestelako inguruabarrak direla-eta (hala nola zahartzea edo berezko zenbait anomalia), mugak dituzten pertsonak dira, hain zuzen ere gainerako pertsonak zailtasunik gabe burutzen dituzten zereginak edo jarduerak egiteko mugak. Gainera, batez bestekoa baino %70 pobrezia indizea handiagoa du talde horrek, lana eskuratzeko zailtasun handiengoengatik.

Datu berrien azterketek berretsi dutenez, erlazio estua dago baliaezintasunaren eta zahartzearen artean, halako moldez non 75 urtetik gorako pertsonen heren batek baino gehiagok baitu euren posibilitateak mugatzen dituen ezintasunen bat, eta horietatik %20k baino gehiagok oso mugatuta ditu gaitasunak. Gainera, litekeena da kopuru horiek handitzea Europako populazioaren zahartzeagatik. Bestalde, baliaezintasuna duten pertsonak lan-merkatutik baztertuta jarraitzen dute neurritz kanpora, azterlanen arabera, eta emakume ezinduen egoera gizonezkoena baino okerragoa da. Era berean, ezintasun psikikoak edo ikasteko arazoak dituzten pertsonak are aukera gutxiago dute lana aurkitzeko ezintasun fisikoak dituztenek baino.

Azken urteotan, eta batez ere norberaren autonomia sustatzeari eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Estatuko Legea onetsi zenetik, badirudi mendekotasuna duten pertsonak bihurtu direla arreta gune, hain zuzen adina, gaixotasuna edo baliaezintasuna direla-eta inoren laguntza edo laguntza handia behar dutenak eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egin ahal izateko. Memoria Sozioekonomikoaren oraingo edizio honetan, ezinduen bizi-baldintzak hartu nahi izan ditugu ardatz, eta zenbait alderditan (lan-baldintzak, esate baterako), aurreko definizioak ezaugarriak bete eta 16-65 urte dituztenak, hots, lana egiteko adinean daudenak. Beste muturrean daude, berriz, "mendekotasuna duten pertsonak" izendapenarekin Memoria honen beste edizio batzuetan aztergai izan ditugunak.

EAEko 2003ko, 2008ko eta 2010eko Memoria Sozioekonomikoetan, ezinduen bizi-baldintzak aztertu dira, eta horietan nabarmendu denez, ezintasuna duen pertsona ahalik eta independenteena, autonomoena eta gaiena izatea lortzea da gehien aipatu den beharra, hain zuzen ere laneratzea eta bizi-kalitatea sustatzeko, baina ezinduen laneratzearen inguruko arazoetan arreta berezia jartzen duten manifestuak, ekintzak, dokumentuak eta planak ugaritzeak agerian uzten du, araudietan laguntza zabala eskaini arren, administrazioaren eta gizartearen jokabidea ez dela egokiena.

2.2.1. Zifra nagusiak

"Ezintasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendekotasunari buruzko Inkesta" (EAMI) EINren estatistika eragiketa da eta, lehen aldiz 2008an eta *"Ezintasunei, Gabeziei eta Osasun Egoerari buruzko Inkesta"*ren (1999) tokia hartuta, hauxe du xede nagusi: gehienbat aipaturiko Mendekotasunaren Legearen itzalpean sortutako Mendetasunaren Autonomia eta Arretarako Sistema Nazionalerako informazioaren eskaerari erantzuna ematea. Horretarako, funtsezkoa da ezinduen kopurua, haien banaketa geografikoa, mugak eta ezaugarriak zein diren jakitea, haien bizi-baldintzak hobetzea eta laguntzaren inguruko beharrak eta eskariak identifikatzea, baita jasotzen duten laguntza eta horren ezaugarriak ere. Gainera, lehen aldiz aztertu dira aldagai horiek familietan bizi diren pertsonentzat nahiz haien beharretara egokituriko zentroetan (egoitzetan) daudenentzat.

Lehenik eta behin, EAMIren zenbatespenen arabera, 169.000 lagunek adierazten dute ezintasunen bat dutela EAEko familietan, hots, populazioaren %8,4k. Sexuaren arabera, 101.200 euskal emakumek diote ezintasunen bat dutela, eta 68.200 gizonezkoak. Hots, emakume/gizonen 60/40ko ratioa da, Estatukoaren antzekoa. Gainera, emakumezkoen ezintasun tasak handiagoak dira gizonezkoenak baino 45 urtetik gorako pertsonetan; beheragoko tartean, berriz, gizonezkoen tasak emakumezkoena gainditzen du.

Emitza horiek eta EINek 1999an ezintasunari buruz eginiko aurreko azterlanak alderatuta ikus daitekeenez, gora egin du ezinduen kopuruak kontsideraturiko hamarkadan, bai Estatuan, bai EAEn (%8,9 Estatuan eta %18 EAEn).


Alabaina, ezinduen kopuruaren igoera populazio osoarena baino txikiagoa izan denez gero, ezintasun tasa epealdi horretan murriztu egin dela ondoriozta dezakegu. EAMIk azkenean dio ezintasuna adinekoetan agertzen dela, baina luzatu egin da ezintasunaren eraginpeko aldia, bizi-esperantza handitu izanaren ondorioz. Hala, ezinduen batez besteko adina 64,3 urtekoa (Estatuko datua); 1999an, berriz, 63,3 zen. 65 urte eta gehiagokoen adin-taldearen batez besteko adina 78,8 da 2008an, eta 1999an, berriz, 77,1 zen.

Autonomia erkidegoen arabera ikus daitekeenez, hauexek dira ezinduen portzentajerik handiena dutenak: Galizia (%11,3), Extremadura (%11) eta Gaztela eta Leon (%10,9) baita Ceuta eta Melilla hiri autonomoak ere (%11,9 eta %11,3 hurrenez hurren). Portzentajerik txikienak, berriz, Errioxan (%6,2), Kantabrian (%7) eta Balearretan (%7,1). EAMItik ondoriozta daitekeenez, era berean, erkidego guztiek profil berari eusten diote sexuaren eta adinaren arabera, hots, emakume ezindu gehiago daude gizonezkoak baino, eta emakumezkoen tasa txikiagoak dira gizonezkoenak baino 44 urtera arteko adin-taldeetan eta 45etik gorakoetan.

Bestalde, EAMIri esker jakin dezakegu gure Erkidegoko familien %18,5etan ezintasunen bat adierazita duen (%20 Estatuko batez bestekoan) pertsona bat bizi dela gutxienez. Gainera, kasuen %18,4an ezindua bakarrik bizi da. Alabaina, bi kideko familiak dira ohikoena, non horietako batek ezintasunen bat duen.

Halaber, familia horietan bizi diren 6 urte eta gehiagokoen ezinduen talde nagusiak mugikortasunekoak dira (populazioaren %6, hots, 117.000 pertsona baino gehiago eta ezinduen %70), etxeko bizimodukoak (%4,9, hots, 97.500 pertsona guztira) eta nork bere burua zaintzea (%4,3, 82.500 pertsona). Izan ere, ezinduen erdiak baino gehiagok mugak ditu bere jardueran hiru zio horietako batengatik. 80 urtekoen eta gehiagokoen taldean, 10 ezinduetatik 7ri eragiten diete hiru ezintasun talde nagusi horiek. Sexuaren arabera, emakumeek tasa handiagoak dituzte gizonezkoek

III.2.7. GRAFIKOA. EZINDUAK DITUZTEN FAMILIAK. FAMILIA GUZTIEN GAINEKO PORTZENTAJEA, 2008.



Iturria: INE. EAMI 2008.

III.2.12. KOADROA. EZINDUAK ADIN TALDEAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EAE, 2008.


	BI SEXUAK	ADINAREN ARABERAKO BANAK. (%)	GIZONAK	EMAKU MEAK
6-44	22.000	13,0	13.000	9.100
45-64	43.100	25,4	19.900	23.200
65-74	27.000	15,9	12.600	14.500
75-79	25.800	15,2	8.700	17.100
80 eta +	51.500	30,4	14.100	37.300
OROTARA	169.400	100,0	68.200	101.200

Iturria: INE. EAMI 2008.

baino bost ezintasun motatan, baina mota horietako bitan marjina txikiagoarekin. Beste hiru motek presentzia handiagoa dute gizonezkoengan, eta emakumezkoentzat nahiz gizonezkoentzat mugikortasuna da jarduera murrizteko zio nagusia.

Sei urteko edo gehiagoko ezindu guztietatik %74k dio zailtasunak dituela eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko: erdiak ezin du jarduera horietako bat egin laguntza jaso ezean. Sexuaren arabera, emakume ezinduen %80,3k murrizpen horietako bat du; gizonezkoen kasuan, berriz, %64,4k. Zenbat eta adin handiagoa izan, orduan eta murrizpen garrantzitsuagoak dira. Hala, 6 eta 44 urte bitarteko hamar pertsonetatik seik zailtasunen bat dute horrelako jarduera motak egiteko; 80 urtekoen eta gehiagoko taldean, berriz, proportzio handiagoa da: 10etik 8,6k. Bestalde, inkestan zenbatetsi denaren arabera, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko zailtasunak dituzten pertsonen %80,5ek laguntzaren bat jasotzen du, eta horri esker, nabarmen arindu daiteke mugen larritasuna.

III.2.8. GRAFIKOA. EZINDU GUZTIEN GAINEKO PERTSONEN PORTZENTAJEA, EZINDU TALDEAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EAE. 2008.



Iturria: INE. EAMI 2008.

III.2.13. KOADROA. EZINDUAK EGUNEROKO BIZITZAKO OINARRIZKO JARDUERETAN, LARRITASUNAREN GEHIENEN MAILAREN (LAGUNTZARIK GABE) ETA ADINAREN ARABERA. 1.000 BIZTANLEKO TASAK. EAE, 2008.

	GUZTIRA	6-64 URTE	6-44 URTE	45-64 URTE	65-79 URTE	80 URTE ETA +
EZINTASUN ERTAINA	11,73	6,42	3,43	11,69	34,70	30,71
EZINTASUN LARRIA	17,07	8,43	4,42	15,50	38,27	92,53
ERABATEKO EZINTASUNA	29,98	9,5	6,16	15,40	55,83	275,88
EZ DA AGERRARAZI	4,65	2,34	1,40	4,00	5,33	38,51
OROTARA	63,42	26,68	15,42	46,59	134,13	437,63

Iturria: INE. EAMI 2008.

Halaber, ea ezinduek laguntza motaren bat jasotzen duten ikertu da, eta laguntza teknikoak eta beste pertsona batzuek emandakoak bereizten dira. Datuek erakusten dutenez, 6 urtetik gorakoen %10,3k jasotzen ditu Estatuan eta %15,5ek EAEn

III.2.14. KOADROA. 6 URTEKO ETA GEHIAGOKO PERTSONAK, EZINTASUNERAKO DUEN LAGUNTZA MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 1.000 BIZTANLEKO TASAK. ESTATAU ETA EAE, 2008.

	ESTATUA		EAE	
	GIZONAK	EMAK.	GIZONAK	EMAK.
LAGUNTZARIK GABE	23,0	24,7	21,9	24,0
SOILIK LAGUNTZA PERTSONALA	18,4	33,9	15,0	25,5
SOILIK LAGUNTZA TEKNIKOAK	9,8	11,0	10,7	11,8
BI LAGUNTZA MOTAK	15,8	30,7	15,0	31,3

Iturria: INE. EAMI 2008.

laguntza, ikuskapen edo zaintza pertsonalak eta laguntza teknikoak. Sexuaren arabera, alde nabarmenak ikusten dira. Gizonezko ezinduen %31,7k ez du laguntzarik jasotzen; emakumeen portzentajea, berriz, txikiagoa da: %23,2. Laguntza moten azterketaren ondoriozko emaitza: emakume ezinduen %60,7k inoren laguntza jasotzen du; gizonezko ezinduek, berriz, portzentaje txikiagoa dute: %47,1. Zaintzailearen profilari dagokionez, emakumezkoa da, 45 eta 64 urte bitartekoa, eta zaintzen duen pertsonaren etxe berean bizi da. Zaintzaile nagusien %76,3 emakumezkoak dira. Adinen arabera, zaintza-lanak egiten dituen 64 urtera arteko gizonezko bakoitzeko 4 emakume zaintzaile daude.

Bestalde, interesgarria da jakitea ezinduek lorturiko ikasketa maila zein den, dela taldea ezaugarritzearen ondorioetarako, dela lan-merkatuan sartzeko haien baldintzen balorazioa egiteko.

III.2.15. KOADROA. INKESTATURIKO EZINDUAK, BUKATURIKO IKASKETEN ETA ADIN-TALDEEN ARABERA. ADIN-TALDE BAKOITZAREN GAINKO PORTZENTAJEAK. EAE, 2012.

	< 14 URTE	15-24 URTE	25-44 URTE	45-64 URTE	65 URTE +	GUZT.
EZ DAKI IRAKURTZEN EZ IDAZTEN	16	46	26	19	21	24
OINARRIZKO IKASKETAK BUKATU GABE	6	6	16	16	40	17
OINARRIZKO IKASKETAK EDO BALIOKIDEAK	0	9	13	31	25	19
BIGARREN HEZKUNTZAKO LEHEN ETAPA	0	26	9	8	0	8
MAILA ERTAINEKO LANB. HEZIKETA EDO BALIOK.	0	3	8	4	2	5
GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA EDO BALIOK.	0	0	5	3	2	3
BATXILERGO IKASKETAK	0	3	13	7	8	8
UNIBERTSITATE IKASK. EDO BALIOK.	0	0	7	6	2	5
EZ DA EGOKIA, 10 URTEK BEHERAKOA	59	0	0	0	0	5
ED/EE	16	9	4	6	0	6
OROTARA	100	100	100	100	100	100

Iturria: EZINDUEN LIBURU ZURIA EUSKADIN (2013).

Ezinduen Ordezkarien Euskal Koordinatzailea den EDEKAK Eusko Jaurlaritzaren eta ONCE Fundazioaren laguntzaz eginiko “Euskadiko ezinduen egoerari buruzko liburu zuriak” (2013) 2012an talde horrekin gauzaturiko inkesta oinarri hartuta nabarmentzen duenez, EAEko ezinduen %60k ez daki irakurtzen edo idazten edo oinarrizko ikasketa osoak edo ez osoak ditu. %16k baino ez ditu goi mailako Batxilergo ikasketak edo unibertsitatekoak. Ikasketa maila txikiena duten pertsona gehienak 65 urtetik gorakoak dira, jakina, eta inkestatuturiko 25-44 urtekoen %25ek goi mailako ikasketak ditu; 65 urtekoen artean, berriz, %12k besterik ez. Gainera, pertsona horien %47k irakaskuntza normalizatuan ikasi du, eta %18k gela espezializatuetan ikasi du, kasu askotan edo beti.

Bestalde, ikasketek ezinduak laneratzean duten eginkizunaz galdetuta, %40k uste du eginiko ikasketek ez dietela lagundu laneko jardura egiteko. %16k, berriz, uste du gutxitan gertatu dela lagungarri, eta beste %16k, batzuetan. Gainerako %29ak baino ez du uste ikasketak lagungarri izan zaizkiela lana aurkitzeko, beti edo askotan.

2.2.2. Lan-merkatua


Lana da banakoak gizarteratzearekin loturarik handiena duen eremua. Hain zuzen ere baliaezintasunean diren pertsonen jardura-tasa murriztagatik egin du okerrera ezinduen egoerak. Lana eskuratuta, alde batetik bere autonomia eta gizarte laguntzen zirkuitutik irtetea errazten duten diru-sarrerak lortzen ditu ezinduak, eta bestetik gizarteratze-prozesuan hartzen du parte, harreman pertsonalak izateko eta trebetasunak eta gaitasunak eskuratzeko prozesuan.

Europar Batasunak bere “Ezintasunari buruzko Europako Estrategia 2010-2020” delakoan azpimarratzen duenez, independentzia ekonomikoa bermatzen dute kalitateko lanpostuek, norberaren lorpenak sustatzen dituzte eta pobrezia kontrako babes hobea eskaintzen dute. Alabaina, ezinduen langabezi tasa %50aren inguruan dago. Horren ondorioz, EBk proposaturiko hazkundearen gaineko helburuak lortu ahal izateko, nabarmentzen du beharrezkoa dela ezindu gehiagok egitea lan jardueraren bat lan-merkatu arruntean (babestutako merkatutik aparte).

EAMIren datuen arabera, lanean aritzeko adinean diren ezinduen taldetik %31 lanean ari zen 2008an, %3,6 langabezian zegoen, %39,4k kotizaziorik gabeko prestazioak eta kotizaziodunak jasotzen zituen, eta %8,1 ez zen lan egiteko gai. Gainerakoak jarduerak egiteko beste ezintasun mota baten barruan zeuden. Informazio horretatik ondoriozta daitekeenez, taldearen jarduera tasa %34,8 zen (%58,1ekoa 16-64 urteko populazioan, EParen arabera), eta langabezi tasa %10,5 (populazio osoaren %6,5). Konparazio hori, ordea, gutxi gorabeherakoa

baino ez da, zeren eta metodologia ezberdinekin eginiko estatistika-eragiketen emaitzak alderatzen baitira. Urte hartan bertan, Estatu osoan, %35,5 eta %20,3koak ziren ezinduen jarduera tasa eta langabezi tasa, hurrenez hurren.

III.2.9. GRAFIKOA. 16 URTEKO ETA GEHIAGOKO EZINDUEN PORTZENTAJEA, JARDUERAREKIKO ERLAZIOAREN ARABERA. 2008.



Iturria: INE. EAMI 2008.

Era berean, ezinduen lan harreman motak zein diren jakin daiteke EAMIRi esker, hots, erreferentziako urtean lanean ari ziren edo lana egin zuten eta lana eskuratzeko neurrien bat baliatu zuten. Zehazki, une horretan lanean ari ziren EAeko ezinduen (askotariko erantzuna emateko modua dago) %19,7k erreserba kuotaren onura jaso zuen sektore

III.2.16. KOADROA. LANEAN ARITU EDO ARI DIREN ETA LANPOSTUA ESKURATZEKO NEURRIREN BAT JASO DUTEN EZINDUEN PORTZENTAJEA, SEXUAREN ARABERA. EAE, 2008.

		GUZT.	GIZ.	EMAK.
LANEAN	SEKTORE PUBLIKOAREN ERRESERBA KUOTA	19,7	10,4	32,0
	SEKTORE PRIVATUAREN ERRESERBA KUOTA	22,7	12,8	36,0
	KONTRATU ESPEZIFIKOA	60,0	55,7	65,8
	G. SEGURANTZAREN PIZGARRIAK ETA HOB.	28,5	27,1	30,4
	B. BATZUK: KOKAGUNEAK, LAGUNTZA LANP.	4,7	5,5	3,7
INOIZ LAN EGIN DUTE, BAINA ORAIN EZ	SEKTORE PUBLIKOAREN ERRESERBA KUOTA	7,7	11,2	0,0
	SEKTORE PRIVATUAREN ERRESERBA KUOTA	11,5	16,8	0,0
	KONTRATU ESPEZIFIKOA	68,4	66,5	72,5
	G. SEGURANTZAREN PIZGARRIAK ETA HOB.	28,4	23,7	38,7
	B. BATZUK: KOKAGUNEAK, LAGUNTZA LANP.	16,4	11,3	27,5

Iturria: INE. EAMI 2008. Euskadiko Ezinduen Egoerari buruzko Liburu Zuria 2013.

Oharra: portzentajeen batura %100etik gorakoa da. Askotariko erantzuna.

publikoan, %22,7k sektore pribatuan eta %60k taldearentzako kontratu espezifikoak. Era berean, %28,5ek Gizarte Segurantzaren pizgarrietatik eta hobarietatik jaso zuen onura, eta %4,7k beste baliabide batzuetatik hala nola laneko kokaguneetatik, laguntza duten lanpostuetatik, etab. Lehenago lanean ari izanda une hartan lanik ez zutenei erreparatuta ikus daitekeenez, kontratu espezifikoek pisu handiagoa dute (erantzunen %68,4) eta txikiagoa erreserba kuotek (%7,7 eta %11,5, hurrenez hurren, sektore publikorako eta pribaturako).

Bestalde, EINEK "Ezinduen enplegua" izeneko azterlana egin zuen EParen eta Ezinduen Estatuko Basearen datuak gurutzatuta. Autonomia mailako informazio urria izan arren, EAEko ezinduen lan egoera zein den gutxi gorabehera jakiteko modua ematen dute ikerketaren emaitza nagusiek. Zifra nagusien artean, nabarmendu behar da erreferentziako urtean lanean aritzeko adinean zegoen populazioaren %2,8k baliaezintasun-ziurtagiria zuela. Horietatik %66,5 ez aktiboak ziren, eta ezintasunik gabeko adin horretako populaziotik, berriz, %25,1. Ezinduen jardura tasa EAEn %36,2 zen 2008. urtean; ezintasunik gabeko pertsonena, berriz, %74,9. Estatuko batez besteko datuak, urte hartan, %33,5 eta %74,9 ziren, hurrenez hurren.

Gainera, Estatuko ezindu aktiboaren taldeak (ez dago datu hori EAEn) %16,3ko langabezi tasa zuen (%11,3koa ezintasunik gabeko pertsonentzat), eta emakumeen langabezi tasa gizonezkoena baino 4,8 puntu handiagoa zen (%19,4 eta %14,6 hurrenez hurren). Baliaezintasuna

III.2.17. KOADROA. EAE-KO ENPLEGU ZENTRO BEREZITAKO PLANTILLA. 2012.					
		ZENTROAK	EZINDUAK	GAINERAKOA	GUZTIRA
2012	Araba	20	781	91	962
	Bizkaia	44	2.976	474	3.450
	Gipuzkoa	23	3.280	474	3.754
	EAE	87	7.127	1.039	8.166
Aldak. % 2011-2012	Araba	-16,7	-4,1	33,8	-1,4
	Bizkaia	-6,4	-0,9	-7,6	-1,8
	Gipuzkoa	0,0	-1,6	-13,0	-3,2
	EAE	-7,4	-1,6	-7,7	-2,4


Iturria: LANBIDE. Ezinduen lan egoera EAEn.

duten eta lanean ari diren pertsonen %28tik %86,8 soldatapekoak ziren, gehienak kontratu mugagabedunak, eta %3,3k zioen zatizko lanaldian ari zela gaixotasun propioagatik edo baliaezintasunagatik. Lanean zebiltzan ezinduen %74,5 zerbitzuen sektorean ari zen lanean, eta azkenik agerian gelditu zenez, ikasketak mailak lotura zuzena zuen lanarekin: lanean ari zirenen %76,8k 2. mailako ikasketak eta handiagokoak zituen, ezintasunik gabeko populazioak baino 10,7 puntu gehiago.

Ez da ahaztu behar, bestalde, EAE erreferentzia dela ezinduentzako babesturiko enplegurako politiketan, eta handia da **Enplegurako Zentro Bereziek**¹² (EZB) gure Erkidegoan duten tamaina; hain zuzen ere Estatuko modalitate horretako kontratu guztien %20 gutxi gorabehera biltzen da EAEn. Aipaturiko zentro horiek azken hiru hamarkadetan EAEn egin izan duten lanaren ardatza ezinduei zerbitzu osagarriak eskaintzen izan da, eta honako hauetan zehaztu da: laneko zentroen kudeaketan, laguntza duen enplegua merkatu arruntean, laneko kokaguneetako lanean eta ikerketan eta berrikuntza teknologikoan, hain zuzen ere langile ezinduek lanpostuari egokitzeko eta laguntza emateko.


LANBIDEREN "EAEko ezinduen lan egoera 2012an" izeneko txostenean nabarmentzen denez, EAEko EZBren plantilla 87 zentrotan zegoen osatuta, guztira 8.166 langile, eta pertsona horietatik 7.127k (%87,3k) baliaezintasunen bat zuen aintzatetsita; gainera, hiruetatik bi gizonezkoak ziren. Aurreko urtearen aldean, hiru lurretan murriztu da plantilla, %1,6 batez beste, eta hiru kontratuetatik bi mugagabeak ziren.

III.2.10. GRAFIKOA. EUSKADIKO EZB-REN PLANTILLAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa.

III.2.11. GRAFIKOA. EAE-KO ETA ESTATUKO EZINDUEN KONTRATAZIOAREN BILAKAERA



Iturria: LANBIDEREN datuekin eginikoa.

¹² Enplegurako Zentro Bereziak babestutako enplegurako enpresak dira, non plantillaren %70 gutxienez ezinduekin osatuta dagoen. Haren helburua ezinduei ordaindutako lan produktiboa ematea da, ezinduen ezaugarriak egokitzea eta lan-merkatu arruntean sartzea errazteko.

Horrez gain, lau kontratuetatik hiru 25-45 urteko pertsoneri egin zitzaizkien, eta %1,6 besterik ez 25 urtetik beherakoei.


Krisiak ezinduen enpleguan izan duen eraginari dagokionez, LANBIDEn azterlanak nabarmentzen du, lehenik eta behin, azken hamarkadan pixkanaka gora egin duela ezinduen kontratazioak; 2009an behera egin eta ondoren gora egin zuen 2011ra arte, eta berriz ere behera 2012. urtean. Guztira, 9.597 kontratu egin zitzaizkien ezinduei 2012an (kontratu guztien %1,36), 4.116 pertsona, hots, aurreko urtean baino %7,05 gutxiago. Beherakada hori urte hartako kontratazioaren jaitsiera osoa baino bialdi eta erdiz handiagoa da (%-2,76).

III.2.18. KOADROA. EAE-KO EZINDUEN KONTRATAZIO KOPURU HANDIENA DUTEN JARDUERA EKONOMIKOAK*. 2012.		
	EZINDUENTZAKO KONTRATUAK	KONTRATU GUZTIEN GAINEKO %
Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak	2.463	5,44
Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak	1.145	5,70
Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta ekipoa izan ezik	800	6,88
Bulegoko administrazio jarduerak eta beste osagarri batzuk	487	2,16
Egoitzetako laguntza	409	1,02
Elkartegintza	335	4,21
Lurreko eta hodien bidezko garraioa	279	2,19
Publizitatea eta merkatuaren azterketa	195	1,87
Beste zerbitzu pertsonal batzuk	185	3,65
Zinematografia eta bideo jarduerak eta TB programak	164	1,65


Iturria: LANBIDE.
**Ezinduak kontratatzeko EAEn tasa gaititu (%1,36) eta kontratu kopururik handiena duten lehen hamar jarduera ekonomiko.*

Gainera, EAEko kontratu guztien %53,3 emakumezkoen eginiko dira. Ezinduen artean, berriz, proportzio txikiagoa da, %39,1 hain zuzen ere. Kontraturik gehienak, populazio osoarekin gertatzen den bezala, zerbitzuen sektorean erregistratu da (%84,8 eta %84,9 hurrenez hurren), eta kontratuen %58,5 DBHko ikasketa maileri zegozkien (titulazioarekin edo titulazio gabe). Era berean, nabarmentzen du unibertsitate mailako pertsonentzako kontratu gehienak emakumeen dagozkiela ezinduen taldean.

Jarduera ekonomiko garrantzitsuenei dagokienez, hona hemen ezinduentzako kontratu kopururik handiena izan zutenak 2012. urtean: "Eraikinetako eta lorezaintzako zerbitzuak", "Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak" eta "Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta ekipoa izan ezik". Hiruren artean, ezinduentzako kontratuen %46 dira.



Iturria: LANBIDEn datuekin eginikoa.



Iturria: LANBIDEn datuekin eginikoa.

Bestalde, 2012ko abenduaren 31n, 4.799 ezindu langabetu zeuden erregistraturik LANBIDEn, hots, eskatzaile guztien %2,84 hain zuzen ere. Azken urtean, %25,7koa da ezindu langabetuen kopuruaren igoera; populazio osoarena, berriz, %16,3koa izan da. Gainera, 2005eko datuen aldean, ezintasuna duten langabetuen igoera erlatibo nabarmena ikusten da (%+207,6 ezindua eta %+102,8 populazio osoarena). Etengabeko hazkundera izan da epealdi horretako joera; populazio osoari dagokiona, berriz, 2008tik aurrera baino ez da hazi langabezia.

Ezintasuna duten langabetuen %6,1ek unibertsitateko titulazio ertaina edo goi mailakoa du (%12,9 populazio osorako). Sexuaren arabera, prestakuntza maila txikiagoetan ugariagoak dira gizonezkoak, eta soilik unibertsitateko maila ertainetan da handiagoa emakumeen presentzia. Populazio osoan, berriz, emakume langabetuak gehiengoa dira Batxilergotik, eta goi mailako maila guztietan.

Ezintasuna duten pertsonen enpleguaren sustapena dela-eta, hainbat ekimen gauzatzen ditu LANBIDEk aukeraberdintasuna bermatzen dela indartzeko lanpostuak eskuratzean eta mantentzean, eta ezinduen kontratazioarako pizgarriak ematen ditu, ohiko lanpostuetan nahiz EZBen bidez babesturiko enpleguan. Halaber, ezinduak enpresa arruntean sartzeko, bi programa garatzen ditu lana suspertzeko xedearekin: ezinduentzako lagundutako enplegua eta kontratazio mugagabea sustatzea enpresa arruntean. Zehazki, programa hauek garatzen dira:

- Ezinduak EZBen laneratzea sustatzea, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan arautua. Hura finantzatzeko, 30 milioi euro esleitu ziren 2012. urtean, 2011n baino 3 gutxiago.
- Lanbide Jarduera Bultzatzeko Unitateetarako diru-laguntzak EZBetako egokitzapen pertsonal eta sozialetako zerbitzuen esparruan. 2012an, ezintasun motaren bat zuten 3.367 langilek jaso zuten laguntza, eta unitate horietan betearazitako gastua, guztira, 4 milioi euro izan zen.
- Lagundutako enpleguaren programa, lanpostuan banakako laguntasuna emanez eta lanerako prestatzaile espezializatuak eskainiz. Guztira 151 pertsonak jaso zuten laguntasuna, eta orotara 635.000 euroko gastua izan zen.
- Ezinduen enplegu mugagabea sustatzea. 2012. urtean, ezinduentzako 121 kontratazioetarako diru-laguntzak eman zituen LANBIDEk guztira (2011n baino 67 gutxiago), 89 lanaldi osokoak eta 32 zatizko lanaldikoak.

2.2.3. Etxebizitza eta irisgarritasuna

Lehenik eta behin ikus daitekeenez, etxebizitza nagusien irisgarritasunarekin lotutako zenbait itemek eragin handiagoa dute ezinduak dauden familietan: igogailua duten familia gutxiago, etxebizitza irisgarrien kopuru txikiagoa eta irisgarritasun arazo handiagoak ingurunean. 2008ko EAMItik ondoriozta daitekeenez, ezinduak dituzten familien %38k ez du igogailurik, %56k uste du etxebizitzarainoko bidea ez dela irisgarria eta %64k berresten du etxebizitza ere ez dela irisgarria. Gainera, ezinduak dituzten familien %72k aipatzen ditu inguruneko irisgarritasun arazoak.

Mugikortasun arazoak direla-eta, EAMIK jakinarazi duenez, ezinduen %42,5ek dio zailtasunak dituela kaletik ibiltzeko, gehienetan espaloitik jaisteko edo igotzeko (%32,6). Zailtasun horiek handiagoak dira adinekoen artean, eta 80 urteko edo gehiagoko ezinduen erdiari baino gehiagori eragiten dio. Espaloiekin dauden arazoaren ondoren, honako hauek daude, garrantzi ordenaren arabera: oztopoak gainditzea (%38,5), kalea zeharkatzea (%27,2) eta kaleak,

III.2.19. KOADROA. KALEAN IBILTZEAN ZAILTASUNEN BAT DUTEN EZINDUEN PORTZENTAJEA, ZAILTASUN MOTAREN ARABERA* ETA ADINAREN ARABERA. EAE, 2008.

	GUZTIRA	6-64 URTE	65-79 URTE	80 URTE EDO GEHIAGO
ZAILTASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK, OROTARA	42,5	30,6	45,9	54,0
Espaloiara igotzeko edo jaisteko	32,6	18,6	34,7	47,9
Kalea zeharkatzeko	27,2	13,4	26,5	44,9
Espaloietako oztopoak gainditzeko	28,5	15,6	31,8	41,2
Kaleak, bidegurutzeak edo seinaleak identifikatzeko	17,5	9,1	13,5	32,0
Beste arazo batzuk	11,5	6,8	7,2	21,6

Iturria: INE. EAMI 2008.

* Hainbat kategoriatan egon daiteke aldi berean.

bidegurutzeak eta seinaleak identifikatzea (ezinduen %17,5).

Iturri berak nabarmentzen ditu ezinduek zailtasunak dituztela garraio publikoaren inguruan; izan ere, muga handia dakarkie euren autonomian eta bizi-kalitatean: %51,6k dio zailtasunak dituela garraio publikoan (eta %68,2k 80 urtetik gorakoan artean). Zailtasun nagusiak ibilgailuetan igotzeari eta jaisteari (%37,5) buruzkoak dira, eta geltoki, geraleku eta nasetan sartzearen gainekoak (%26,8, eta %47,2 80 urtetik gorakoan artean).

Bestalde, “Euskadiko Ezinduen Egoerari buruzko Liburu Zuria” delakoan ezinduei eginiko inkestaren emaitzetatik nabarmentzen denez, inkestaturiko pertsonen %60k uste du etxebizitza eta eraikineko elementu komunitarioak irisgarriak direla. %11k, berriz, etxebizitza irisgarria dela uste du, baina ez osagai komunitarioak (eskailera, igogailua, ataria...), eta %6ren ustez, ez dira irisgarriak ez etxebizitza ez osagaiak. Era berean, etxeko irisgarritasunak eta egokitzapenak errazteko dauden diru-laguntzei buruz galdetuta, soilik %9k dio horrelakorik jaso izana, eta horietatik %46k nahikoak ez direla irizten dio. Babestutako etxebizitzaren esleipeneko erreserbari dagokionez, inkestaturiko pertsonen %7k baino ez zuen adierazi erreserba jaso izana.

2.2.4. Bizi-baldintzak eta gizarteratzea

Baldin eta ezinduaren testuinguruan bazterkeriarako hainbat arrisku-faktore gertatzen badira eta ezinduaren ondorioekin lotutakoak gehitzen bazaizkie, gutxitu egiten dira gizarte sistemak eskuratzeko aukerak, eta are larriagoa gertatzen da ahulezia. Azken finean, familia, kultura, gizarte edo ekonomia testuinguru txarrean, ezinduek desabantaila erantsia izan dezakete.


Herrialde industrializatueta, populazioaren %10 ingurukoa da ezinduen kopurua, eta %16rainokoa

Europar Batasunean. Datu eta estatistika fidagarririk ez dugunez gero, ez dakigu zenbat pertsona bizi diren pobrezian, baina oro har onartzen da ezinduen %40 gutxienez pobrezia atalasearen azpitik bizi dela Espainian. Gainera, Espainiako Ezinduen Ordezkariei Batzordeak hainbat txostenetan aitortzen duenez, emakume ezinduak, askotan, pobrezia eta gizarte bazterkeriaren ohiko biktimak dira. Halaber, erakundeetan bizi diren pertsonen ez dute finantza pobrezia larrikeria jasaten, baina gizarte bazterkeria ikaragarri handia izaten dute.

Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren txosten batean, ezintasuna eta ongizate ekonomikoaren arteko erlazioa aztertu zen Espainian, EBko familien panel ohiaren datuak oinarri hartuta (2005ean desegin zen). Ondorioen artean, hauexek nabarmentzen dira:

- ✓ Handitu egin da ezinduren bat duten familien pobrezia: ezintasunik larrienaren kasuan, %60-%80 hazi da pobrezia tasa, eta ezintasun larria duen pertsona bat edo bi dauden familietan, ezintasunik ez duten pertsonen tasaren bi halako pobrezia tasak ditugu.

III.2.14. GRAFIKOA. EZINDUEN PORTZENTAJEA, EZINTASUNAGATIK BAZTERTUTA SENTITU DIREN MAIZTASUNAREN ETA ADINAREN ARABERA. EAE, 2008.



Iturria: INE. EAMI 2008.

III.2.20. KOADROA. EZINDUEN BANAKETA, ADIERAZITAKO URTEKO SARRERA GORDINEN ARABERA ETA SEXUAREN ARABERA. EAE, 2012.

	EMAKUMEAK	GIZONAK	OROTARA
10.000 €-tik behera	67,0	64,0	66,0
10.001 - 20.000 €	18,0	21,0	19,0
20.001 - 30.000 €	9,0	6,0	7,0
30.001 - 40.000 €	5,0	7,0	6,0
40.001 - 50.000 €	0,0	1,0	1,0
50.001 - 90.000 €	1,0	0,0	0,0
90.000 €-tik gora	1,0	1,0	1,0
OROTARA	100,0	100,0	100,0


Iturria: Euskadiko Ezinduen Egoerari buruzko Liburu Zuria (2013).

- ✓ Ezintasuna agertu baino lehen, ezintasun egoerarik ez dutenenak baino pobrezia tasa handiagoak dituzte familiek.
- ✓ Pobreziaren atalasearen azpitik egoteko probabilitatea hiru aldiz handiagoa da ezintasun larria duten pertsonentzat. Ezintasunik gabeko egoerara edo larritasun txikiagoko egoerara igarotzean, 1,25 aldiz murrizten da probabilitatea.

Beraz, ezintasunak eta ezintasunean sartzeak pobrea izateko probabilitatea

handiarazten dute, eta gainera, ondorio hori argi eta garbi handiagoa da pertsona batek muga larriak dakartzan ezintasuna duenean. Ezintasunarekin lotutako errentei eusteko sistema bat izan arren, familien pobreziarako arrisku

III.2.15. GRAFIKOA. EZINDUEN PORTZENTAJEA, AZKEN 12 HILEETAN GIZARTE HARREMANETAN IZANDAKO POSIBILITATEEN ARABERA. EAE, 2008.



Iturria: INE. EAMI 2008.

handiagoarekin dago lotuta ezintasuna. Ezintasuna orain ere arazo larria da familien ongizate ekonomikorako, eta ez epe laburrerako soilik, baizik eta epe luzerako ere bai.

Gure Erkidegoan¹³ eskuragarri ditugun azken datuek¹⁴ erakusten dutenez, ezinduen erdia gutxi gorabehera da independentea ekonomikoki. Zati batez beste pertsona baten menpe daudenek eta oso-osorik mendekotasunean diren pertsonak osatzen dute beste erdia, zati berdinetan. Gainera, alde garrantzitsuak ikusten dira ezintasun graduaren arabera, halako moldez non %33-%64ko ezintasun aintzatetsia duten pertsonen ia %50ek lanaren ondoriozko sarrerak ditu, eta portzentaje hori %17,3ra jaisten da %65-%74ko gradukoekin eta %15,5eraino >%74ko ezintasuna dutenentzat. Kasu bietan, baliaezintasun pentsioak eta LISMI/kontribuziorik gabeko pentsioak dira diru-sarrerara iturri nagusiak. Mendekotasunik ezaren profila, horrenbestez, erretiro edo baliaezintasun pentsioa edo ordaindutako lana duten pertsonen dagokie. Gainera, independentzia ekonomikoak genero osagai argia du, zeren eta gizonezkoen bi herenak guztiz independenteak baitira. Emakume ezinduek, berriz, herena besterik ez dira.

Diru-sarreraren mailari dagokionez, "Euskadiko Ezinduen Egoerari buruzko Liburu Zuria" delakoak erakusten du ezinduen (ez famili unitatearena) urteko sarrera gordinak, 2012an, urteko 10.000 € baino gutxiago zirela kasuen %66an, %19k urteko 10.000 - 20.000 €-ko sarrerak zituen eta %7k, berriz, 20.000 - 30.000 bitartekoak. Inkestaturiko pertsonen %8k besterik ez zituen urtean 30.000 € baino gehiago. Haien egoera ekonomikoaz zuten balorazioaz galdetuta, %37k erantzun zuen egoera ekonomikoa nahikoa zela eta nahi dituen jarduerak egiteko modua ematen diela. %29k, berriz, nahikoak ez zirela irizten zien, zeren eta beste pertsona batzuen laguntzara jo behar baitute. %5ek dio oso urria dela eta bizirik irauteko arazoak dituela dio.

Bestalde, pertsona guztien bizi-kalitatearen funtsezko beste alderdi batek gizarteratzearekin eta gizartean parte hartzearekin du zerikusia, herritarren eskubideen aldetik, nahiz harreman pertsonalen aldetik. Ezinduen taldeak, EAMIren 2009ko datuek erakusten dutenez eta haien berezitasunak direla-eta, arazo bereziak dituzte euren gizarte harremanak behar bezala garatzeko eta aisialdi jarduera atseginak egiteko. Inkesta horren arabera, taldearen hiru laurdenak posibilitate gutxi edo batere ez du lagunak egiteko, eta hirutik biri berdin gertatzen zaie ezagutzen ez dituzten pertsonengana zuzentzeko. Grafikoan ageri denez, ondorio hau atera daiteke: ezinduen gizarte harremanak, kasurik gehienetan, senideekin eta hurreneko pertsonekin dituztenetara mugatzen direla.

¹³ EAEko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan ez dira ezinduek aztertzen.

¹⁴ CIRIEC (2009).

Aisialdiko jardueri dagokienez, “Euskadiko Ezinduen Egoerari buruzko Liburu Zuria” lanak erakusten duenez, hauexek dira ezindu gehienek sarrien egiten dituzten jarduerak: telebista ikustea, irratia entzutea eta egunkaria irakurtzea (%79k adierazi du jarduera horiek egunero egiten dituela), ostera bat egitera irtetea edo lagunak edota senideak bisitatzea (%33k egunero egiten ditu eta %35ek astean behin edo gehiagotan), erosketak egitea (%7k egunero eta %36k astean behin edo hainbat alditan). Gutxien egiten diren jarduerak, aldiz, honako hauek dira: boluntario lanak (%81ek ez du inoiz egiten), kirol ikuskizunetara joatea (%68k dio ez duela inoiz egiten), prestakuntza ikastaroetara joatea (%69k inoiz ere ez), turismo bidaia egitea (%56k inoiz ere ez) eta zinema, antzerki eta antzeko ikuskizunetara joatea (%51k ez du inoiz egiten). Gainera, %49k dio inoiz ez duela kirola egiten (emakumeen %54k eta gizonezkoen %45ek). %27k, berriz, astean behin egiten du kirola: gizonezkoen %29ak eta emakumezkoen %23ak.

	EMAKUMEAK	GIZONAK	OROT.
INOIZ EZ	4,0	3,0	3,0
GUTXITAN	11,0	8,0	9,0
BATZUETAN	23,0	24,0	23,0
ASKOTAN	26,0	25,0	25,0
BETI	24,0	23,0	23,0
ED/EE	12,0	917,0	16,0
OROTARA	100,0	100,0	100,0


Iturria: Euskadiko ezinduen egoerari buruzko liburu zuria (2013).

Aisialdi eta denbora libreko jarduerak direla-eta, ezinduen %12k adierazi du inoiz ez dituela edo oso gutxitan egiten dituela aisialdian benetan egitea gustuko dituen gauzak, eta %23k noizean behin bakarrik egiten dituela. %25ek dio askotan eta %23k, berriz, beti. Nahi dituzten jardueraz galdetuta, %31k erantzun du ziorik ohikoena jarduerak haien beharizunetara egokituta ez egotea dela, %28k ez duelako nahikoa dirurik eta %8 erantzun du garraibide irisgarririk eza dela zioa.

2.2.5. Gizarte babesa eta arreta

Dagoeneko esana dugunez, pertsona ezinduak oso gizarte-talde ahula dira; izan ere, baztertuak izateko arrisku faktore askori egin behar diete aurre. Bereziki gizarte-talde ahula den aldetik, prebentziorako eta babeserako hainbat sistema eta baliabide garatuz joan dira, haien garapen pertsonala eta soziala garatzen saiatzeko, betiere aukera-berdintasunean: diskriminaziorik ezerako neurriak, arreta espezializatua, enplegurako sustapena, babes ekonomikoa, egoitza zerbitzuak, famili laguntza, besteak beste. Ezinduak, neurri handiagoan edo txikiagoan, laguntzarako eta sustapenerako sistema horien onura jasotzeko moduan direnean, gutxiago dira ezintasunaren ziozko bazterkeriarako arriskuak.

III.2.16. GRAFIKOA. EZINDUEN PORTZENTAJEA, OSASUN EDO GIZARTE ZERBITZUAK BEHAR IZATEKO ETA JASOTZEKO MODUAREN ARABERA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. 2008.



Iturria: INE, ADINA 2008.

Lehenik eta behin, EINren EAMIK nabarmentzen du ezen, gure Erkidegoan, ezinduen %3,1ek besterik ez zuela adierazi 2008an osasun edo gizarte zerbitzuen beharra izan eta jaso ez izana. %56,5ek, berriz, beharra beteta izan zuen, eta gainerako %42,9ak ez zuen ezelako zerbitzurik behar izan. Bete gabeko beharren ratio hori Estatuko txikiena da.

Bestalde, EAEko ezinduentzako baliabideen eta zerbitzuen erradiografia egiten dute EUSTATEN "Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistikak" eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak (GZEK) haren zifrei buruz eginiko txostenak. Ezinduei buruzko datu nagusiak 2009ko zifrak dira, GZEKren bigarren txostenari dagozkionak:

- 2009an, guztira 122 elkartek ematen zieten arreta ezinduei, 53k Bizkaian, 35ek Gipuzkoan eta 34k Araban. Erakunde horien bilakaera dela-eta, GZEKek erakundeon bilakaerari buruz nabarmentzen du ezen, epe luzera, Gipuzkoa dela hazkunderik handiena izan duen herrialdea, zeren eta elkarteen

III.2.22. KOADROA. EGOITZA ZERBITZUETAKO PLAZAK ETA ZENTROAK EZINDUENTZAT, LURRALDEEN ARABERA. EAE, 2009.

		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
ZENTROAK	Egoitzak	7	18,4	27	38,0	11	20,0	45	27,4
	Pisuak eta apartamentuak	29	76,3	41	57,7	43	78,2	113	68,9
	Atsedeen zentroak	2	5,3	3	4,2	1	1,8	6	3,7
	Orotara	38	100,0	71	100,0	55	100,0	164	100,0
PLAZAK	Egoitzak	255	49,8	681	71,9	408	53,5	1.344	60,5
	Pisuak eta apartamentuak	214	41,8	218	23,0	348	45,7	780	35,1
	Atsedeen zentroak	43	8,4	48	5,1	6	0,8	97	4,4
	Orotara	512	100,0	947	100,0	762	100,0	2.221	100,0
B.B. TAMAINA	Egoitzak	36,4		25,2		37,1		29,9	
	Pisuak eta apartamentuak	7,4		5,3		8,1		6,9	
	Atsedeen zentroak	21,5		16,0		6,0		16,2	
	Orotara	13,5		13,3		13,9		13,5	

Iturria: GZEK. Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko II. Txostena (2012).


kopurua hirukoiztu egin baita 1994tik. Beste muturrean, Araban kopuru hori bider 1,6 aldiz handiagoa da.

- Ezinduentzako aisialdi eta aire libreko zentroek, 2009an, 2.421 plaza eskaintzen zituzten 2009an, horietatik %70,6 Bizkaian. Horiek guztiak zentro pribatuak ziren, irabazteko asmorik gabekoak, eta horien %89k finantzaketa publikoa jasotzen zuen.

- Eguneko laguntza zentroi dagokienez, GZEKek erakutsi du, guztira, 1.836 plaza zituztela, eta zentrozen %80 titularitate pribatukoa zen. Zentro horien estaldura 8,5eko plazakoa da 10.000 biztanleko, eta alde nabarmenak daude lurraldeen artean: Gipuzkoan 10,9, Bizkaian 8,2 eta Araban 0,4 besterik ez.

- Era berean, 2009an guztira 8.961 plaza zeuden EAEn laneko zentroetan eta enpleguko zentro berezietan, horien %42 Gipuzkoan, %43 Bizkaian eta gainerako %15a Araban. Zentro motaren arabera, enplegurako zentro

III.2.17. GRAFIKOA. ELZEN ESTALDURA-TASAREN BILAKAERA (10.000 BIZTANLEKO) EZINDUENTZAT EAEn.



Iturria: GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL KONTSEILUA

berezietako lanpostuei dagokie %63, %19,5 laneko zentroetako plazak15 dira eta plazen %17,5 zentro mistoei dagokie. Bilakaeraren terminoetan, GZEKek nabarmentzen du 2008 eta 2009 bitartean 200 plaza berri inguru sortu zirela zentro horietan, 2007 eta 2008 bitartean izandako jaitsiera gaindituta.

- Ezinduentzako egoitza zerbitzuei dagokienez, EAEk 164 zentro zituen 2009an, guztira 2.221 plaza, hots, 13,5 plaza batez besteko tamaina egoitzako. Zentro motak direla-eta, Gipuzkoan plazen %53,5 egoitzetan dago kokaturik; Bizkaian, berriz, %71,9. Arabako lurraldean %49,8koa da portzentajea. Gainerako plazak egonaldi luzeko pisuei eta apartamentuei eta atsedenaldirako zentroi dagozkie. Titularitatea dela-eta, plazen %63,3 pribatuak dira, eta bilakaeraren terminoetan, nabarmentzekoa da plaza publikoen pisua gutxitu egin dela azken hamarkadan hiru lurraldeetan.

Zentro horien erabiltzaileen ezaugarriak dagokienez, banaketa desberdina erakusten dute datuek gizonen eta emakumeen artean; izan ere, %42 dira emakumeak. Talderik handiena 35-64 urtekoei dagokie (erabiltzaileen %74), eta agerian uzten du ezintasuna duten erabiltzaileen artean gertatzen ari den zahartze-prozesua. Halaber, ezintasun psikiko arina edo ertaina duten pertsonen pisu nagusia dela ikusten da, guztizkoaren %50 gutxi gorabehera, eta gainerakoa ezintasun psikiko larria edo sakona eta ezintasun fisikoa duten pertsonen artean banatzen da.

- Etxez etxeko laguntza zerbitzuek (ELZ), bestalde, guztira 1.455 erabiltzaile zituzten 2009an, hots, 6,7ko estaldura-tasa 10.000 biztanleko. Txostenak nabarmentzen duenez, ezin esan daiteke ELZen erabiltzaile ezinduen kopuruaren igoera handia denik, Araban izan ezik, non estaldura-tasa hori 13,8koa baita 10.000 biztanleko.

- Baterako estaldurari dagokionez, ezinduei arreta emateko zerbitzuek populazio osoaren %0,7ri ematen diote laguntza (66,6 plaza 10.000 biztanleko), eta %0,6 eta %0,8 bitarteko ratioak dira Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren. Nahiz eta EAEko estaldurarik handiena enplegurako zentro bereziei dagokien, zerbitzuen egitura nahikoa desberdina da lurraldeen arabera: egoerarik onena Gipuzkoakoa da, gehienbat enplegurako zentro bereziei esker; Araban, berriz, bitarteko egoera dago egoitzako plazen estaldura handia dela medio.

III.2.23. KOADROA. 65 URTETIK BEHERAKO EZINDUAK, URTEAN ZEHAR MENDEKOTASUN LEGEAREN ONDORIOZKO PRESTAZIO EKONOMIKOEN ONURADUNAK, EAE. 2009.				
	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
FAMILI INGURUNeko ZAINZETARAKO (FIZPE)	1.201	1.572	1.866	4.639
LAGUNTZA PERTSONALEKOA (LPPE)	0	2	70	72
ZERBITZUAREKIN LOTUTAKO PRESTAZIOAK (ZLPE)	22	0	2	24
GUZTIRA	1.223	1.574	1.938	4.735
<i>Iturria: GZEB, ARARTEKOAREN datuak erabiliz.</i>				


- Ezinduentzako arretaren sektoreak 11.081 pertsonari ematen die lana EAEn lanaldi osoko baliokidean, eta guzti-guztiak dira soldata jasotzen duten profesionalak. Gehienak langile propioak dira (%97), eta gainerako %3a azpikontrataturiko pertsonala da.

Bestalde, ezinduek jasotzen dituzten prestazio ekonomikoak direla-eta, Memoria Sozioekonomiko honetako "EAEko Gizarte Babesa" ataletik hainbat datu atera daitezke, hala nola 44.200 pertsonak jaso zituztela EAEn doako pentsioak "baliazintasun iraunkorragatik", 5.736 pentsio ez doakoak "baliazintasunagatik" eta 600k baino gehiago jaso zuten LISMIrekin loturiko prestazio motaren bat (Minusbaliatuaren Gizarteratzeari buruzko 13/82 Legea)¹⁵. Ez dakigu, ordea, beste prestazio motaren bat (erretiroko pentsioa, adibidez) jasotzen duten zenbat pertsonak duten aintzatetsita ezintasun motaren bat.

¹⁵ Komenigarria da bereiztea laneko terapia-plazak eskaintzen dituztela laneko zentroeke eta ezinduentzat egokituriko lanpostuak eskaintzen dituztela enplegurako zentro berezieke.

¹⁶ Ez dakigu zein den zifra zehatza. Azkena 2008. urtekoa da; 680 onuradun izan ziren orduan.

III.2.18. GRAFIKOA. GIZARTE ZERBITZUEK EAEKO EZINDUENTZAT DUTEN GASTU ARRUNTAREN BILAKAERA (MILA EURO) ETA GUZTIZKO GASTUAREN GAINEKO PORTZENTAJEA



Iturria: EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei buruzko Estatistika. Datu bankuak.

Halaber, GZEken txostenak agerian utzi duenez ARARTEKOAREN datuak erabiliz, 65 urtetik beherako 4.735 ezinduk jaso zituzten, guztira, Estatuko Mendetasunaren Legearen ondoriozko Mendetasunerako Laguntza Sistemaren prestazio ekonomikoak (ikus bedi *"Euskadiko Gizarte Babesa"* delakoaren VI. Kapituluko epigrafe espezifiko). Horietatik ia guztiek jaso zuten prestazio ekonomikoa famili inguruan laguntza izateko. Ezinduentzako gizarte zerbitzuek eginiko gastuari dagokionez, EUSTATen *"Gizarte Zerbitzuen Estatistika"*ri esker jakin daiteke 2010ean 428,5 milioi erabili zirela ezinduentzat, hots, guztizko gastuaren %29,3, Horrenbestez, hazi egin da %8,9 aurreko urtearen aldean. 428,5 milioi horien %22 gastu publikoari dagozkio eta gainerako %78a gastu pribatuari. Lurrealdean arabera, Arabak 57,1 milioi euro erabili zituen aipaturiko urtean (EAEko guztizkoaren %13,3), Gipuzkoak 172,4 milioi euro (%40,2) eta Bizkaian 199 milioi euro (%46,5).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailaren *"Gizarte Zerbitzuen gastu publikoa 2011n"* txostenak erakusten duenez, ezinduentzako ohiko gastu publikoa 274,2 milioi eurokoa da erreferentziako urtean, hots, guztizko ohiko gastu publikoaren %17. Hauexek dira aintzat hartu beharreko zerbitzu nagusiak: egoitzak, eguneko laguntza zentroak eta enplegurako zentro bereziak. Ezinduentzako gastuaren %67 dira, eta guztizko gastuaren %11,4. Talde horren barruan egongo litzateke, lehenik eta behin, egoitza zerbitzuetako gastua (ezinduentzako gastuaren %33,2), eta ondoren enplegurako zentro bereziak (%23,3) eta eguneko zentroak (ezinduentzako gastu publikoaren %10,5).

Gastu publikoaren finantzabideei dagokionez, GZEkek nabarmentzen du (2009ko datuak) hiru laurdenak foru aldundiei dagozkiela eta ia %20 administrazio zentralari; izan ere, azken horrek eginkizun nahikoa garrantzitsua betetzen du Enplegurako Zentro Berezien finantzaketaren bidez. Udalek bigarren mailako eginkizuna betetzen dute, hots, 2,8 euroko ekarpena biztanleko; aldundiek, berriz, 90 euro ematen dituzte.

Nolanahi ere, alde nabarmenak daude biztanleko gastuari dagokionez lurraldeen arabera: Araban dugu handiena (154,2 euro per capita), ondoren Gipuzkoa (117,7 euro, EAeko batez bestekoaren antzeko zenbatekoa) eta Bizkaia (107,6 euro biztanleko).

III.2.24. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUEN GASTUA EZINDUENTZAT, LURRALDEEN ETA FINANTZAZIO-ITURRIAREN ARABERA.EAE, 2009.					
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
GASTU PUBLIKO ARRUNTA, OROTARA (MILA €)	UDALAK	272	4.626	1.150	6.048
	FORU ALDUNDIAK	41.381	96.345	58.523	196.249
	EUSKO JAURLARITZA	456	1.246	1.330	3.032
	ADM. ZENTRALA	6.293	21.848	22.079	50.221
	OROTARA	48.403	124.065	83.083	255.550
PER RENTA GASTU PUBLIKOA (EUROAK)	UDALAK	0,9	4,0	1,6	2,8
	FORU ALDUNDIAK	131,9	83,6	82,9	90,3
	EUSKO JAURLARITZA	1,5	1,1	1,9	1,4
	ADM. ZENTRALA	20,1	19,0	31,3	23,1
	OROTARA	154,2	107,6	117,7	117,6
BANAKETA BERTIKALA	UDALAK	0,6	3,7	1,4	2,4
	FORU ALDUNDIAK	85,5	77,7	70,4	76,8
	EUSKO JAURLARITZA	0,9	1,0	1,6	1,2
	ADM. ZENTRALA	13,0	17,6	26,6	19,7
	OROTARA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: GZEK. Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko II. Txostena (2012).

3. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

3.1 OSASUNAREN EGOERA

3.1.1 Bizi-itxaropena

Jaiotze uneko bizi-itxaropena (BI) biztanleriaren osasun egoerara hurbiltzeko modu klasikoa da. Osasun maila ez ezik, adierazleak leku jakin bateko gizarte, ekonomia eta osasun maila islatzen ditu. X adineko bizi itxaropena x adin horretako banako batek ustez biziko duen batez besteko urte kopurua da, adinaren arabera berariazko heriotza tasetan egungo joerek irauenez gero. Batez besteko hori biztanleria osoari dagokio eta ez banakako jakin bati, hark bizi-itxaropenak adierazitakoa baino gehiago bizi dezakeelako edo, alderantziz, dagokion itxaropena baino lehenago hil.

Neurri hipotetikoa da, ez baitu bizirauteko benetako probabilitaterik neurtzen. Egungo heriotza tasen arabera kalkulatzen da eta, jakina, tasa horiek denboran alda daitezke. Abantaila nagusia honakoa da: zenbait eskualde edo herri erkatzeko eta denboran izandako bilakaera aztertzeko erabil daiteke, erkatutako erkidegoetako adin egituren arteko aldeak eragiten ez diotelako.

Alabaina, soilik heriotza tasan oinarrituriko osasun adierazle klasikoak mugatuak dira populazioaren osasun egoeraren bilakaera deskribatzeko. Beharrezkoa da jakitea hilkortasunaren murrizpenarekin batera biztanleriaren osasun maila gehitu den, edo erikortasun eta ezintasun handien kontura gehitu den. Horretarako, biztanleriaren hilkortasuna ez ezik erikortasun edo ezintasun esperientzia aintzat hartzen dituzten osasun adierazleak erabiltzea beharrezkoa da.

Zentzu horretan, biztanleriaren osasun egoeraren indizeak egiteak, hala nola ezintasunik gabeko bizi itxaropena (EGBI) –hilkortasunean eta ezintasunean oinarritua-, gaixotasun kronikorik gabeko bizi itxaropena (GKGBI) edo osasun oneko bizi itxaropena (OOBI), egiteak, neurri bakar batean iraupena ez ezik bizi kalitatea ere laburbiltzea ahalbidetzen du.


X adineko EGBIk x adin horretako pertsona bati hil arte ezintasunik gabe bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu.

X adineko OOBIk x adin horretako pertsona bati hil arte osasun egoera onean bizitzeko geratzen zaizkion batez besteko urteak adierazten ditu. Osasun oneko bizi itxaropenaren (OOBI) eta EGBIren arteko aldea honakoan datza: bizi urteak subjektuek euren osasun egoeraz daukaten pertzepzio subjektiboaren arabera kalkulatzen direla, ezintasunaren arabera kalkulatu beharrean.

EAEko Osasunari buruzko 2013ko Inkestaren datuen arabera (EAEOI13), gora egin du bizi-itxaropenak EAEn, bai gizonentzat, bai emakumeentzat, 2012 eta 2013 artean. Hala ere, EGBI handitu egin da bi sexuetan 2002 eta 2007 artean, baina 2007 eta 2013 artean gizonezkoentzat handitu da baina jaitsi emakumezkoentzat.

Bizi-itxaropenaren gehikuntzak biztanleriaren egitura aldaketa dakar. Egitura berrian adineko pertsonen protagonismo handia izango dute. Aldaketa horrek ondorio garrantzitsuak izango ditu osasunean eta gizartean, besteak

III.3.1. GRAFIKOA. BIZI-ITXAROPENA EAE-N



Iturria: EAEko Osasunari buruzko 2013ko Inkesta

beste: gaixotasun kronikoengatik erikortasuna gehitzea, ezindutako eta mendeko pertsonen gehikuntza, eta gizarte-osasuneko arreta gehiago eskatzea.

3.1.2 Hilkortasuna

Hilkortasuna. Hiltzeko arrazoi nagusiak

Heriotza tasa gordina eta umeen heriotza tasa asko erabili ditu nazioarteko komunitateak biztanleriaren osasun adierazle gisa eta, zeharka, garapen sozioekonomikoaren adierazle gisa.

EUSTATen Heriotzen Estatistikaren datuen arabera, 2012. urteko heriotzen behin-behineko kopurua 20.281 izan zen. Haietatik 10.352 gizonak izan ziren eta 9.929 emakumeak. Hortaz, 2011n baino 449 heriotza gehiago gertatu ziren, hots, %2,3 gehiago. Sexuaren ikuspegitik gertatu da gehikuntza hori, baina askoz handiagoa da emakumezkoetan. Hala, gizonezkoen heriotza kopurua 56 hazi da (%0,5) eta emakumeena, berriz, 393, hots, %4,1.

Bestalde, haurren heriotza-tasa (urtebetez azpikoak) murriztu egin da 2011. urtearen aldean; 50 heriotzatatik 48, baina nesken artean baino ez (36tik 25era), mutilen artean handitu delako (14tik 23ra).

III.3.1. KOADROA. HERIOTZA TASA SEXUAREN ARABERA						
	GUZTIZKOAK			URTEBETETIK BEHERAKOAK		
	Guzt.	Gizonak	Emak.	Guzt.	Gizonak	Emak.
2008	19.437	10.118	9.319	54	29	25
2009	19.624	10.232	9.392	57	35	22
2010	19.357	10.045	9.312	52	25	27
2011	19.832	10.296	9.536	50	14	36
2012	20.281	10.352	9.929	48	23	25
Aldak. 2011-12	449	56	393	-2	9	-11
Aldak. % 11-12	2,3	0,5	4,1	-4,0	64,3	-30,6

Iturria: EUSTAT. Heriotzen Estatistika.

Heriotzetako asko adin handienetako tartetean gertatzen dira, prebentzioan eta gaitzen tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz, eta heriotza horiek goranzko joera erakusten dute. Bestela esanda, biztanleak "laugarren adina" deritzonera iritsi dira Hala, 80-89 urtekoen taldeko heriotza kopurua 7.845 (+146); 90-99 urtekoetan, 4.328 (+499); eta 99tik gorakoetan, berriz, 272 (+30).

EAEko heriotza gehienak, inguru sozioekonomiko bereko herrietan legez, gaixotasun ez transmitigarrien ondorioz gertatzen dira, gaixotasun kardiobaskularrak eta tumoreak gehienbat.

Berez, EUSTATen datuen arabera, 2007tik hasita, heriotza gehienak tumoreen ondoriozkoak izan dira eta zirkulazio sistemako gaixotasunen ondoriozkoak ondoren, aurreko urteetan ez bezala, zirkulazio sistemako gaixotasunek eragiten zutenean heriotza gehien. 2012an, tumorengatik heriotzak guztizkoaren %31,6 dira eta zirkulazio aparatuko gaixotasunen ziozkoak, berriz, %28,5

III.3.2. KOADROA. HERIOTZAK ADIN HANDIENETAKO TARTEETAN				
	80-89	90-99	100-109	>= 110
2008	7172	3481	196	0
2009	7390	3617	241	0
2010	7392	3795	193	0
2011	7699	3829	242	0
2012	7845	4328	272	0
Djf.	146	499	30	0

Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

III.3.3. KOADROA. HERIOTZAK, KAUSAREN ARABERA

	EAE								2012 (b-b)	
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	n	%	
	Gutzira	19425	18507	19252	19437	19624	19357	19832	20281	100,0
Tumoreak	5462	5580	5812	5811	5950	6021	6261	6149	30,3	
Zirkulazio sistema	5891	5615	5710	5692	5799	5675	5655	5736	28,3	
Arnas sistema	2214	1739	1854	1941	1841	1691	1758	1915	9,4	
Digestio sistema	950	949	990	979	940	898	946	956	4,7	
Kanpoko kausak	776	697	734	711	677	653	683	715	3,5	
Gainerako gaixotasunak	4132	3927	4152	4303	4417	4419	4529	4810	23,7	
<i>Hiltzeko arrazoi ohikoaren arteko portzentajeak banaketaren bilakaera:</i>										
Tumoreak	28,1	30,2	30,2	29,9	30,3	31,1	31,6		30,3	
Zirkulazio sistema	30,3	30,3	29,7	29,3	29,6	29,3	28,5		28,3	

(b-b) Behin-behineko datuak. Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika.

Eurostat regional yearbook 2013 delako txostenaren arabera, 2010ean EB27n, heriotzen %39,1ek zirkulazio sistemaren gaixotasunekin du zerikusia, %25,9k neoplasia gaiztoekin (minbizia). %7,7k, berriz, arnas sistemaren gaixotasunengatik.

Txostenak dakarrenez, bestalde, EB27n 2010ean, 70 urte edo gehiagokoei dagokie zirkulazio-aparatuen gaixotasunek eragindako heriotzen %80. Alabaina, neoplasia gaiztoen zizoko heriotzarik gehienak 40-69 urtekoen artean gertatzen dira.

Hilkortasun goiztiarra. Bizi urte potentzial galduak (BUPG)

Adierazle hau, irizpide bateratu batzuk bilduta etorkizuneko epidemiologia azterketa bat osatzen duen pertsona talde batentzat, garaia baino lehenago (70 urte bete baino lehenago) hil diren pertsonen bizi ez dituzten urte guztiak (hiltzeko adinaren eta 70 urteen arteko aldean batuketa metatua) oinarri hartuta eratzen da. Horrela, bizi urte potentzial galduak (BUPG) osasun publikoan neurri ona dira biztanleria gazteenarengan hilkortasunak izandako eragina islatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, 2011n emakumezkoen heriotza goiztiarraren kausa nagusiak 2010ekoaren berdintsuak izan dira, baina ordena ezberdinean. Zehazki: bularreko tumore gaiztoa; trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak; Suizidioa eta nork bere buruari eragindako zauriak; Obulutegiko tumore gaiztoak; Gaixotasun zerebro-baskularrak; Koloneko tumore gaiztoak eta zirrosia eta gibelaren gaitz kronikoak.

Gizonezkoen dagokienez, EAEn BUPGrako zio nagusiak trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoak; suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak; ibilgailu motorduneko trafiko istripuak; zirrosiak eta gibelaren gaitz kronikoak eta ezpain, aho eta faringeko tumore gaiztoak.

III.3.4. KOADROA. BALIZKO BIZI-URTE GALDUAK, SEXUAREN ETA KAUSA NAGUSIEN ARABERA

	BUPG	T. Gordina*	T.Estand.*	BUPG	T. Gordina*	T.Estand.*
	Gizonak 2011			Gizonak 2010		
	Trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak	4.330	4,68	3,94	4.408	4,84
Kardiopatia iskemikoa	3.413	3,68	3,13	3.350	3,68	3,06
Suizidioa eta nork bere buruari eragindako zauriak	2.138	2,31	2,18	1.888	2,07	1,88
Zirrosia eta gibelaren gaitz kronikoak	1.580	1,71	1,43	1.633	1,79	1,50
Ibilgailu motordunetako trafiko istripuak	1.445	1,56	1,61	1.827	2,01	2,10
Entzefaloko tumore gaiztoa	1.139	1,23	1,37	847	0,93	0,84
Gaixotasun zerebro-baskularrak	1.103	1,19	1	910	1,00	0,81
Koloneko tumore gaiztoa	1.050	1,13	0,94	910	1,00	0,85
Psikofarmakoek eragindako istripuzko pozoitzeak eta gehiegizko drogak	1.038	1,12	0,95	813	0,89	0,72

III.3.4. KOADROA. BALIZKO BIZI-URTE GALDUAK, SEXUAREN ETA KAUSA NAGUSIEN ARABERA

Gibelesko eta gibel barruko behazun bideetako tumore gaiztoa	1.035	1,12	0,96	915	1,00	0,86
Entzefaloko tumore gaiztoa	985	1,06	0,98	845	0,93	0,83
Pankreako tumore gaiztoa	718	0,77	0,64	655	0,72	0,60
Ehun linfatikoaren, organo hematopoietikoen eta antzeko ehunen tumore gaiztoak, leuzemia izan ezik	703	0,76	0,71			
Txarto zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak	685	0,74	0,63			
Esofagoko tumore gaiztoa	675	0,73	0,62			
	Emakumeak 2011			Emakumeak 2010		
Bularreko tumore gaiztoa	2.238	2,45	1,98	1.878	2,09	1,67
Trakea, bronkio eta birrikako tumore gaiztoak	2.050	2,24	1,82	2.075	2,31	1,87
Suizidioa eta nork bere buruari eragindako zauriak	848	0,93	0,86	390	0,43	0,34
Obulutegiko tumore gaiztoa	708	0,77	0,64	540	0,60	0,49
Gaixotasun zerebro-baskularrak	695	0,76	0,64	700	0,78	0,67
Koloneko tumore gaiztoa	608	0,66	0,53	713	0,79	0,64
Zirrosia eta gibelaren gaitz kronikoak	488	0,53	0,43	563	0,63	0,49
Entzefaloko tumore gaiztoa	470	0,51	0,42	395	0,44	0,42
Ehun linfatikoaren, organo hematopoietikoen eta antzeko ehunen tumore gaiztoak, leuzemia izan ezik	463	0,51	0,49	403	0,45	0,36
Urdaileko tumore gaiztoa	443	0,48	0,39	515	0,57	0,46
Kardiopatia iskemikoa	423	0,46	0,37	475	0,53	0,42
Pankreako tumore gaiztoa	418	0,46	0,36			
Txarto zehaztutako tokietako, bigarren mailako eta zehaztu gabeko tokietako tumore gaiztoak	335	0,37	0,31	378	0,42	0,34
Motordun ibilgailuen zirkulazio istripuak	320	0,35	0,38	465	0,52	0,78

****Milako tasa gordina eta europar biztanleria estandarrekin estandarizatutako tasa adinaren arabera. Iturria: Heriotzen erregistroa. Osasun plangintza eta antolamenduaren zuzendaritza.**

3.1.3 Ospitaleko erikortasuna

Erikortasun terminoa populazio batean, toki eta denboraldi jakin batzuetan, gaixotasun baten efektuz aritzeko erabiltzen da. Biztanleria batean gaixotasun jakin batek dauzkan presentzia eta ondorioak aztertzea eta kuantifikatzea biztanleriak bere osasun egoeraz egiten duen autobalorazioaz neurtu ahal da. Autobalorazio horri atzemandako erikortasuna esaten zaio, eta haren datuak osasun inkestan jasotzen dira, edo osasun zentroan arreta eta tratamendua eman zaizkion biztanleriaren gaixotasunen erregistroan, ospitaleko laguntzaren kasuan Ospitaleko Erikortasunaren Estatistika dena.

Ospitaleko Erikortasun Estatistika da, Heriotzen Estatistikaren ondoren, herrialderik gehienetako gaixotasunen joera aztertzeke gehien erabiltzen dena. Ospitale publikoetan eta pribatuatan alta emandako gaixoen kopuruari buruzko informazioa ematen du, diagnostiko nagusiaren arabera.

Estatistika helburuekin eta joerak aztertzeke, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenak (GNS) daukan patologia-zerrenda luzea nolabaiteko agregazio mailarekin taldekatzen da. Beraz, ohikoa eta normala da diagnostiko (edo patologia) talde handiak aipatzea ospitaleko erikortasunaz hitz egitean.

EUSTATen datuen arabera, EAeko akutuen ospitaleetan (publikoak eta pribatuak) 310.389 ospitale-alta erregistratu ziren 2012an Alten %76,5 ospitale publikoenak izan ziren eta %23,5 pribatuenak.

Ospitaleratutako pertsona guztien %51,6 emakumezkoak izan ziren eta %48,4 gizonezkoak. Emakumeen presentzia handiagoa da haurdunaldi eta erditze ospitaleratzeengatik. Adinari dagokionez, 65 urte eta gehiagokoen taldea izan zen ugariena; izan ere, horren pisua igoz joan da azken urteetan, eta 2000an %39,5 izatetik %44,4 izatera igaro da 2012an. Hala, 79 urte da ospitaleratzeke adinik ohikoena. Bigarren taldea 15-54 urtekoena izan zen: behera egin zuen 2012an erditzeen kopuruaren jaitsieragatik.

Haurdunaldi, erditze eta puerperioagatiko ingresoak baztertuta, ospitaleratzeko bi kausa nagusiak EAEn, 2012an, nerbio sistemako eta zentzumenen organoen (hauen artean begi-lausoa nabarmendu behar dugu) gaixotasunak izan ziren, gaixo guztien %12,3raino, eta mila biztanleko 18,5 kasuko tasarekin, zirkulazio aparatuen gaixotasunekin batera (%11, kasu bietan). Tumoreek (paziente guztien %9,5) eta hezur-muskulu eta lokomozio gaixotasunek (%9,2 eta %9 hurrenez hurren) osatzen dute bigarren taldea.

Hauxe da aurreko urtearekin alderatuta daturik azpimarragarriena: ospitaleratze konbentzionalak (ospitaleraturiko pertsonak gutxienez 1 bat egiten duenen ingresatuta) %0,6 jaitsi ziren 2012an (%-0,8 Estatuan). Haurdunaldi, erditze eta puerperioen kopuruak behera egin du bigarren urtez jarraian: %4 2012an eta 2011n, berriz, %1.

Gizonezkoen artean, digestio aparatuko gaixotasunak (%14) izan ziren, zirkulazio-aparatukoekin batera (%13,8), ospitaleratzeko kausa nagusiak. Lehen taldean, iztai-hernia eta behazuneko kalkuluak nabarmendu ziren. Bigarrenean, aldiz, bihotz-gutxiegitasuna gailendu zen.

Emakumezkoetan, haurdunaldiko zailtasunak, erditzeak eta puerperioak (%15,4) dira orain ere ospitaleratzeko ziorik ohikoenak, eta bereziki nabarmentzen da haurdunaldi aurreratua. Ondoren, nerbio sistemen eta zentzumen organoen gaixotasunak datoz (%13,6) eta zirkulazio sistemakoak (%8,9), eta begi-lausoa eta barizeak dira diagnostikatuenak, hurrenez hurren.

Tumoreen taldearen barruan (laugarren kausa ospitaleratzeko: %9,5), gizon gehiago ospitaleratu ziren emakumezkoak baino, eta tumorerik ohikoenak puxika, kolon eta bularrekoak dira.

Hezur-muskuluetako gaixotasunek (%9,2), ospitaleratzeko bosgarren kausak, 45-64 urtekoen taldea ukitu zuen gehien, eta maiztasuna antzekoa izan arren emakumeen eta gizonen artean, aldeak egon dira patologien aldetik: Belauneko trastornoa nagusi zen gizonezkoen artean eta hezurretako artrosia emakumezkoetan.

III.3.5. KOADROA. ALTA JASO DUTEN GAIKOAK, DIAGNOSTIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA.

		2011		2012		2012		2012	
		Guztira		Guztira		Gizonak		Emakumeak	
		Altak	Altak/ 1.000 bikt.	Altak	Altak 1.000 bikt.	Altak	Altak/ 1.000 bikt.	Altak	Altak /1.000 bikt.
GNS-9. AK	Guztira	323.621	149,0	310.389	141,3	150.308	140,2	160.081	142,4
001-139	Infekzio-eritasunak	4.179	1,9	4.266	1,9	2.468	2,3	1.798	1,6
011	Birikako tuberkulosia	132	0,1	115	0,1	78	0,1	37	0,0
042	HIES	278	0,1	278	0,1	195	0,2	83	0,1
070	Hepatitis birikoa	161	0,1	165	0,1	111	0,1	54	0,0
140-239	Tumoreak	29.920	13,8	29.399	13,4	15.797	14,7	13.602	12,1
153	Koloneko neoplasia gaiztoa	2.028	0,9	1.954	0,9	1.178	1,1	776	0,7
162	Trakea, bronkio eta birikako neoplasia gaiztoa	1.528	0,7	1.525	0,7	1.173	1,1	352	0,3
174	Emakumearen bularreko neoplasia gaiztoa	1.877	1,7	1.815	1,6	-	-	1.815	1,6
185	Prostatiko neoplasia gaiztoa	1.797	1,7	1.692	1,6	1.692	1,6	-	-
188	Puxikako neoplasia gaiztoa	2.136	1,0	2.205	1,0	1.778	1,7	427	0,4
240-279	Gaitz endokrino eta metabolikoak	4.348	2,0	4.389	2,0	1.846	1,7	2.543	2,3
250	Diabetes mellitusa	1.516	0,7	1.558	0,7	889	0,8	669	0,6
280-289	Odolaren gaitzak	3.343	1,5	3.362	1,5	1.589	1,5	1.773	1,6
290-319	Buruko gaixotasunak	5.055	2,3	5.011	2,3	2.734	2,6	2.277	2,0
320-389	Nerbio-sist. eta zentzumen organoen gaix.	40.090	18,5	38.191	17,4	16.358	15,3	21.833	19,4
360-379	Begi trastornoak eta hari lotutakoak	29.426	13,6	28.243	12,9	11.848	11,1	16.395	14,6
366	Begi-lausoa	22.692	10,4	21.150	9,6	8.593	8,0	12.557	11,2
380-382	Otitisa	1.071	0,5	1.039	0,5	563	0,5	476	0,4
390-459	Zirkulazio-aparatuen gaix.	36.453	16,8	36.480	16,6	20.731	19,3	15.749	14,0
401-405	Hipertentsioa	1.730	0,8	1.712	0,8	789	0,7	923	0,8
410	Miokardioko infartu akutua	2.012	0,9	2.063	0,9	1.513	1,4	550	0,5
460-519	Arnas gaixotasunak	27.348	12,6	27.879	12,7	16.314	15,2	11.565	10,3
480-486	Pneumonia	5.046	2,3	5.052	2,3	3.023	2,8	2.029	1,8
490-491	Bronkitisa	3.098	1,4	3.325	1,5	2.612	2,4	713	0,6
493	Asma	1.673	0,8	1.794	0,8	686	0,6	1.108	1,0

III.3.5. KOADROA. ALTA JASO DUTEN GAIXOAK, DIAGNOSTIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA.

500-519	Pneumokoniosia, beste batzuk	7.922	3,6	7.408	3,4	4.047	3,8	3.361	3,0
520-579	Digestio gaixotasunak	36.526	16,8	36.403	16,6	21.112	19,7	15.291	13,6
531-534	Urdaileko ultzerak	627	0,3	623	0,3	429	0,4	194	0,2
540-543	Apendizitisa	2.566	1,2	2.564	1,2	1.446	1,3	1.118	1,0
550-553	Sabelaldeko barrunbearen hernia	8.599	4,0	8.785	4,0	6.496	6,1	2.289	2,0
574	Kolelitiasia	5.246	2,4	5.212	2,4	2.190	2,0	3.022	2,7
580-629	Aparatu genitourinarioaren gaix.	18.556	8,5	18.540	8,4	8.024	7,5	10.516	9,4
580-584	Nefritisa	1.015	0,5	1.170	0,5	650	0,6	520	0,5
592	Giltzurrun- eta ureter-kalkulua	1.458	0,7	1.420	0,6	874	0,8	546	0,5
630-679	Haurdunaldia eta erditzea	25.629	23,1	24.603	21,9	-	-	24.603	21,9
650	Erditze arrunta	2.068	1,9	1.987	1,8	-	-	1.987	1,8
670	Puerperioko infekzio larria	15	0,0	13	0,0	-	-	13	0,0
680-709	Azal eta larruazalpeko gaix.	5.006	2,3	4.672	2,1	2.701	2,5	1.971	1,8
680-686	Azal eta larruazalpeko infekzioak	2.228	1,0	2.314	1,1	1.468	1,4	846	0,8
690-698	Azal eta larruazalpeko beste hantura batzuk	208	0,1	205	0,1	119	0,1	86	0,1
710-739	Hezur-muskulu eta lokomozio gaix.	29.338	13,5	28.697	13,1	14.245	13,3	14.452	12,9
715	Osteoartrosisa	5.804	2,7	5.701	2,6	2.477	2,3	3.224	2,9
722	Ornoarteko diskoaren trastornoa	1.890	0,9	1.647	0,7	929	0,9	718	0,6
740-759	Sortzetiko anomaliak	2.224	1,0	2.407	1,1	1.459	1,4	948	0,8
760-779	Anomalia perinatalak	2.335	1,1	2.375	1,1	1.345	1,3	1.030	0,9
773-774	Fetoaren gaix. hemolitikoa/Min hori perinatala	513	0,2	495	0,2	279	0,3	216	0,2
780-799	Txarto zehaztutako gaixotasun egoerak	13.330	6,1	12.955	5,9	7.244	6,8	5.711	5,1
800-999	Zauriak eta pozoitzeak	22.113	10,2	22.173	10,1	12.031	11,2	10.142	9,0
820	Femur lepoaren haustura	2.523	1,2	2.553	1,2	667	0,6	1.886	1,7
V01-V84	V kodeak	17.768	8,2	8.558	3,9	4.291	4,0	4.267	3,8
	Kodetu barik	60		29	0,0	19	0,0	10	0,0

(1) GNS-9. AK= Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena 9. Aldaketa Klinikoa

(2) Datuak EAeko akutuentzako ospitaleei (publikoak eta pribatuak) dagozkie.

Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. EUSKO JAURLARITZA. Ospitaleko erikortasunaren estatistika.

Ospitaleratzeke seigarren kasua diren arnas aparatuko gaixotasunak (%9) gehiago diagnostikatu ziren gizonzkoen artean, eta emakumeen artean, berriz, bronkitis kronikoa eta pneumonia.

Ospitaleko batez besteko egonaldia 5,8 egunekoa izan zen 2012an (6 egun 2011n). Egondirik luzeenak buruko gaitzei (14,4 egun), gaixotasun perinataleki (11,2 egun), gaixotasun infekziosoei (9 egun) eta tumoreei (7,9 egun) dagozkie.

Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunak

Osasun publikoaren eginkizunetako bat gaixotasun transmitigarriak kontrolatzea da.

Bizi baldintzen hobekuntzak eta EAEko osasun sistemaren garapenak infekzio-gaixotasun askoren ondorioak murriztu badituzte ere, oraindik osasun arazo handia dira, aldian-aldian agertzen diren gaixotasunak daudelako eta horrek ezinbesteko bihurtzen duelako jagoletza epidemiologiko egokiari eustea.

Jagoletza epidemiologikoko sistemaren eginkizuna informazio azkar eta fidagarria ematea da, EAEn gaixotasun transmitigarriak eta agerraldiak zaindu eta prebenitu ahal izateko.

EUSTATen datuen arabera, 2012an bereziki azpimarragarriak dira, ikusitako kasuen kopuru absolutua eta 10.000 biztanleko tasak direla-eta, gripea (1.110,0 kasu 10.000 biztanleko) eta barizela (398,5 kasu 10.000 biztanleko) eta ohiko gaixotasunak 2011n ere; eta neurri txikiagoan: parotiditisa (96,9), kukutxeztula (16,2), tuberkulosia (10,2), disenteria (6,6), sifilisa (4,5), infekzio gonokozikoa (4,2) eta legionelosisa (3,6), horiek guztiak 10.000 biztanleko kasuetan.

III.3.6. KOADROA. EAEn NAHITAEZ AITORTU BEHAR DIREN GAIXOTASUNAK					
	KASU KOP.			TASAK 10.000 BIZT.	
	2011	2012	DIF. 2011-12	2011	2012
Botulismoa	-	3	3	-	0,1
Kolera	1	-	-1	0,0	-
Disenteria	18	144	126	0,8	6,6
Sukar tifo-paratifikoa	15	7	-8	0,7	0,3
Trikinosia	-	-	0	-	-
Meningokoko gaixotasuna	34	40	6	1,6	1,8
Gripea	24.359	24.195	-164	1.120,5	1.110,0
Legionelosisa	103	79	-24	4,7	3,6
Meningokoko gaixotasuna	4	5	1	0,2	0,2
Tuberkulosia	395	223	-172	18,2	10,2
Barizela	6.678	8.686	2.008	307,2	398,5
Infekzio gonokozikoa	133	92	-41	6,1	4,2
Sifilia	114	97	-17	5,2	4,5
Difteria	-	-	0	-	-
Parotiditisa	866	2.112	1.246	39,8	96,9
Poliomieltitisa	-	-	0	-	-
Errubeola	-	1	1	-	0,1
Elgorria	37	4	-33	1,7	0,2
Tetanoa	2	2	0	0,1	0,1
Kukutxeztula	179	354	175	8,2	16,2
Kukutxeztula	31	35	4	1,4	1,6
B Hepatitisa	23	22	-1	1,1	1,0
C Hepatitisa	11	8	-3	0,5	0,4
Beste hepatitis birikoak	1	2	1	0,0	0,1
Bruzelosia	1	1	0	0,0	0,1
Amorrua	-	-	0	-	-
Sukar horia	-	-	0	-	-
Paludismoa	36	31	-5	1,7	1,4
Izurritea	-	-	0	-	-
Tifus exantematikoa	-	-	0	-	-
Legenarra	2	4	2	0,1	0,2
Sortzetiko errubeola	-	-	0	-	-
Sortzetiko sifilisa	-	-	0	-	-
Jaioberriko tetanoa	-	-	0	-	-

Iturria: EUSTAT.

3.2 FAKTORE ERABAKIGARRI EZ MEDIKOAK: ALKOHOL ETA TABAKO KONTSUMOA

Pertsonen osasunean eragina izan dezakete beren bizi-ohiturek, hau da, beren portaera eta jarrerak, osasuntsuak diren edo ez diren neurrian. Ohitura ez osasuntsuen artean hauek daude: substantzia toxikoen kontsumoa (tabakoa, alkohola eta beste droga batzuk, elikadura desegokia eta ariketa fisiko eza).

EAEn, estatistika ofizialaren barruan, hiru informazio iturri daude, gure gizarte eta osasun errealitatearen ezaugarriak aztertzen dituztenak, eta bost urtean behin argitaratzen dira. Hauexek dira: Osasun Inkesta, Bizi Baldintzen Inkesta, eta Denbora Aurrekontuen Inkesta. Hala eta guztiz ere, epigrafe honetan interesatzen zaigun osasun alderdia haietako lehenengoan neurri eta xehetasun handiagoz aztertzen da.

a) Alkoholo kontsumoa

Alkoholun edarien kontsumoa osasun publikoko arazo larria da herri garatu gehienetan, bai etengabe gora doalako, bai dakartzan ondorio kaltegarriengatik.

EAEko Osasunari buruzko inkestan (EAEOI2013), alkohol kontsumoak osasunean epe luzean duen arriskuaren arabera sortu dira kategoriak:

1. Ez edaleak, edale ohiak eta noizbehinkako edaleak.
2. Alkohola kontsumitzen ohi duten pertsonak (astean behin gutxienez)

a) 15-17 urte, bi sexuak:

- Arrisku handiko kontsumoa: astean 3 egunetan baino gehiagotan kontsumitzen badute alkohola, edo egun berean 30 g alkohol baino gehiago kontsumitzen badute.
- Arrisku txikikoa: aurreko baldintzak bete barik kontsumitzen dute alkohola.

b) 18 urte eta gehiago:

Gizonak:

- Arrisku handikoa: Asteko batez besteko kontsumoa 30 g-tik gorakoa, edo egun berean 40 g baino gehiagokoa.
- Arrisku txikikoa: arrisku handikoaren mugetara iristen ez den kontsumoa.

Emakumeak:

- Arrisku handikoa: Asteko batez besteko kontsumoa 20 g-tik gorakoa, edo egun berean 30 g baino gehiagokoa.
- Arrisku txikikoa: arrisku handikoaren mugetara iristen ez den kontsumoa.

EAEko Osasunaren Inkestako datuen arabera (EAEOI2013), urte horretan, handiagoa da epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia¹⁷ gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, adin-talde guztietan¹⁸, 15-24 urtekoen artean izan ezik, non proportzioa pixka bat handiagoa den emakumezkoetan: %1,79 eta %17,3. Prebalentziarik handienak, gizonezkoetan, 45-74 urtekoen taldean daude (%32tik gorako prebalentziak 45-64 urtekoetan taldean nahiz 65-74 urtekoen artean), eta emakumezkoetan, berriz, 15-24 eta 45-64 urtekoen taldeetan (hurrenez hurren: 17,9% eta 18,3%

III.3.7. KOADROA. ARRISKU HANDIKO ALKOHOL KONTSUMOAREN PREVALENTZIA EAE-N, SEXU ETA ADINAREN ARABERA (%). 2002-2013						
	2002		2007		2013	
	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.
15-24	36,4	24,5	30,5	23,8	17,3	17,9
25-44	36,4	18,9	24,9	14,2	21,6	16,0
45-64	38,8	12,6	40,9	12,4	32,9	18,3
65-74	25,8	7,4	25,2	5,1	32,4	10,0
>=75	10,3	4,2	17,9	3,2	15,7	4,0

Iturria: Osasun Saila. EAEko Osasunari buruzko Inkesta 2013 eta EUSTAT

Eboluzioaren aldetik, hots, 2007 eta 2013 arteko konparazioa eginez, behera egin du epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentziak gizonezkoetan adin-talde guztietan, 64-74 urtekoen artean izan ezik. Bestalde, hazi egin da adin-talde guztietan emakumezkoen kasuan, 15-24 urtekoetan izan ezik. Datu hori kezagarria da, zeren eta emakumeak osasungarriak ez diren ohiturak hartzen ari baitira, betidanik gizonezkoek izandakoak eta gizonak alde batera uzten ari direnak.

Orain pertsona bakoitzaren talde sozioekonomikoaren aldagaia sartu eta taldearen arabera alderik dagoen ikusiko dugu.

Orainean edo iraganean ordaindutako lanaren arabera esleitu zaie (bizitzan inoiz izan duten ordaindutako lana) talde sozioekonomikoa pertsona guztiei. Horrelako lanik izan ez duten pertsonen, berriz, haien pentzura bizi den (bikotekideak, amak, aitak, etab.) pertsonari dagokion talde sozioekonomikoa esleitu zaie. Lanen Sailkapen

¹⁷ Une jakin batean edo aldi jakin batean ezaugarri jakin bat duen taldeko edo populazioko kideen ratioa.

¹⁸ Adin-taldek: 15-24, 15-44, 45-64, 65-74 eta >= 75 urte.

Nazionalaren hiru digituen kodetzea oinarri hartuta egiten zaio talde bakoitzari (bost) esleipena. Saillkapen hori 2011n sartu zen indarrean (CNO-11), Espainiako Epidemiologia Elkartearen (EEE) erabakigarrien Lan-taldeak proposatua.

- 10 soldatapeko edo gehiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak eta unibertsitateko lizentziaturarekin lotuta egon izan diren profesionalak.
- 10 soldatapeko edo gehiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak eta unibertsitateko diplomaturekin lotuta egon izan diren profesionalak eta laguntza teknikoko beste profesional batzuk. Kirolariak eta artistak.
- Bitarteko lanak eta bere konturako langileak.
- Lan tekniko espezializatu edo erdi espezializatuetao ikuskariak eta langileak.
- Trebatu gabeko langileak.

III.3.8. KOADROA. EAE-KO ARRISKU HANDIKO ALKOHOL KONTSUMOAREN PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, SEXU ETA TALDE SOZIOEKONOMIKOAREN ARABERA (%). 2002-2013

	2002		2007		2013	
	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.
GUZTIRA	32,4	14,0	29,3	12,2	25,1	14,7
I. TALDEA	30,1	18,2	31,4	19,7	26,3	22,5
II. TALDEA	34,6	14,0	32,0	13,4	27,7	17,0
III. TALDEA	37,6	16,2	30,0	14,3	27,1	16,4
IV. TALDEA	30,3	12,6	29,1	10,7	24,3	12,1
V. TALDEA	28,6	12,1	26,7	9,7	23,4	7,9

Iturria: Osasun Saila. EAEko Osasunari buruzko Inkesta 2013 eta EUSTAT

Arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia estandarizatu¹⁹ talde sozioekonomikoen arabera aztertuta ikusten denez, ohikoagoa da kontsumoa egoera hobean dauden gizarte taldeetan. Sexu aldagaia sartuz gero, gizonezkoetan, jaitsi egin da ratioa 2007 eta 2013 bitartean talde guztietan. Emakumezkoetan, berriz, kontrakoa gertatzen da, gaikuntzarik gabeko langileen taldearen salbuespen bakarrarekin (V. taldea).

b) Tabako kontsumoa

EAEko Osasunaren Inkestako datuen arabera (EAEIOI2013), urte horretan, handiagoa da epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino adin-talde guztietan, 15-24 urtekoen artean izan ezik, non proportzioa pixka bat handiagoa den emakumezkoetan: %14,6 eta %14. Prebalentziarik handienak, gizonezkoetan eta emakumezkoetan 25-64 urtekoen taldeetan daude (25-44 eta 45-64 urte). %30 ingurukoa bi adin-taldeetan, gizonezkoetan; eta emakumezkoetan, 25-44 urtekoen taldean: %25,6 eta 45-64 urtekoen taldean: %23,9.

III.3.9. KOADROA. TABAKOAREN KONTSUMOAREN PREBALENTZIA EAE-N, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA (%). 2002-2013

	2002		2007		2013	
	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.
15-24	29,2	28,1	22,8	25,5	14,0	14,6
25-44	38,6	32,7	35,6	31,8	29,7	25,6
45-64	32,0	17,2	30,2	20,8	30,0	23,9
65-74	18,1	4,0	18,1	4,5	13,7	4,3
>=75	10,4	1,5	13,8	2,1	10,7	1,0

Iturria: Osasun Saila. EAEko Osasunari buruzko Inkesta 2013 eta EUSTAT

Eboluzioaren aldetik, hots, 2007 eta 2013 arteko konparazioa eginez, behera egin du epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentziak gizonezkoetan adin-talde guztietan, 45-64 urtekoen taldean izan ezik; %30 inguruan eusten zaio. Emakumezkoetan, jaitsi egin da 15-24, 25-44 eta >=75 urtekoen taldeetan, baina hazi egin da 45-64 urtekoetan (%20,8tik %23,9ra), eta berdintsu eusten dio 65-74 urtekoetan (%4,3 eta %4,5 bitartean). Berriz ere kezagarria da datu hori ikustea, zeren eta emakumeak osasungarriak ez diren ohiturak hartzen ari baitira, betidanik gizonezkoek izandakoak eta gizonak alde batera uzten ari direnak.

¹⁹ Tasa estandarizatuak biztanlerien eta denboraldien artean eratzeko erabiltzen dira. Tasa gordinen ordez estandarizatuak erabiltzeko zioa "azpiko beste eragile batzuk" egotea da, esaterako, adina, zeinek interesaren neurriari eragiten baitie. Estandarizatzea, beraz, "beste eragile" horien eragina ezabatzen duen egokitze prozesua da. Horretarako "biztanleria estandarra", hots, adin banaketa bereko biztanleria, ezartzen da).

Pertsonaren talde sozioekonomikoaren aldagaia sartuz gero, ikusten da, 2013an, gizonezkoen artean maila sozioekonomikoa jaitsi ahala tabakismoa ohikoagoa dela; emakumezkoen artean hori ez da hain nabarmena.

2007 eta 2013 urtekoen arteko konparazioak agerian uzten duenez, prebalentzia jaitsi egin da gizonezkoen artean, adin-talde guztietan, I. taldean izan ezik (10 soldatapeko edo gehiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak eta unibertsitateko lizentziaturarekin lotuta egon izan diren profesionalak): %17,4tik %18,3ra igo da. Bestalde, emakumezkoetan, egoera positiboagoa dugu, zeren eta tabakismoa bost talde sozioekonomikoetan murriztu baita, I. taldea barne.

III.3.10. KOADROA. EAE-KO TABAKO KONTSUMOAREN PREBALENTZIA ESTANDARIZATUA, SEXUAREN ETA TALDE SOZIOEKONOMIKOAREN ARABERA (%). 2002-2013						
	2002		2007		2013	
	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.	Gizona	Emak.
GUZTIRA	30,2	20,3	28,3	21,2	24,1	18,7
I. TALDEA	21,2	17,1	17,4	16,2	18,3	15,3
II. TALDEA	24,7	19,9	26,2	19,6	18,2	15,1
III. TALDEA	28,0	18,5	25,6	20,5	23,1	17,9
IV. TALDEA	34,4	22,8	31,8	23,5	26,2	20,7
V. TALDEA	35,3	21,6	32,8	22,1	25,7	21,5

Iturria: Osasun Saila. EAEko Osasunari buruzko Inkesta 2013 eta EUSTAT

3.3 OSASUN SISTEMA ETA PRESTAZIOAK

Osasun laguntza ospitaleko edo ospitalez kanpoko jarduera izan daiteke (horren barruan ospitaleetatik kanpo ematen den lehen mailako laguntza eta laguntza espezializatua sartzen dira) eta publikoak edo pribatuak izan daitezke biak. Osasun laguntza jarduera publikoa Osakidetzak eta zentro itunduek ematen dute eta pribatua zentro pribatuek.

Epigrafe honetan aurkeztuko den azterketa honakoen bidez egin da:

- EUROSTATen datuak.
- EUSTATEk emandako datuak, ospitaleko (Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika) eta ospitalez kanpoko (Ospitalez kanpoko laguntza publikoari buruzko estatistika) sektoreei dagokienez. Lehenengo kasuan, informazioa sektore publiko eta pribaturako eskuragarri dagoen bitartean, bigarrenari dagokionez (ospitalez kanpoko), sektore publikorako baino ez dago.
- Osakidetzak ospitalekoari zein ospitalez kanpokoari buruz emandako informazioa.

3.3.1 Sarrera

Lurralde bateko osasun sistemaren egoera eta bilakaera baloratzeko baliabide adierazlerik onartuenen artean ospitale kopurua, ohe kopurua, langile medikoak, erizaintzako langileak, etab. daude.

Kapitulu hau ixtean, EUROSTATEk osasun baliabideei eta langileriarri buruz argitaraturiko datuak gure 2012ko Memoriaren edizioan bildutakoen berdina dira eta, beraz, herrialdeen ikuspegi konparatua izateko, jo beza irakurleak Memoria horretara.

3.3.2 Egitura, baliabideak eta osasun-laguntzako jarduera

a) Ospitalez kanpoko jarduera publikoa

Berriz ere kapitulu hau ixtean, EUROSTATEk argitaraturiko datuak gure 2012ko Memoriaren edizioan bildutakoen berdinak dira eta, beraz, ikuspegi zabala izateko, jo beza irakurleak Memoria horretara.

Oro har, ospitaletik kanpoko jarduera publikoan jaitsierak izan dira zenbait adierazletan 2010ean. Izan ere, behera egin du medikuen kopuruak (%-1,9) eta jaitsi egin da kontsulta kopurua (%-1,2), medikuntza orokorrean (%-0,5) nahiz pediatrian (%-5,8).

Medikuen kopurua jaistean (behera egin duelako espezialista kopurua), gora egin du medikuko biztanleen kopurua, baina ez medikuntza orokorrean: sendagileko 1.235 biztanle izatetik 1.201 biztanle izatera. Bestalde, pediatrian igoera izan da: sendagileko 811 biztanle izatetik 824 biztanle izatera.

2010ean mediku bakoitzeko batez beste 4.834 kontsulta egon ziren (aurreko urtean baino gehiago: 4.810). Batez besteko horren gaintetik daude mediku orokorrak, 5.684 kontsulta eman dituztenak, eta pediatriak (5.036).

Biztanle bakoitzeko kontsulta kopurua 6,6koa izan zen batez beste. Batez besteko hori txikiagoa zen medikuntza orokorrean (4,7 kontsulta biztanleko) eta antzekoa pediatrian (14 urtetik beherakoak beren osasun zentrora joan ziren, pediatriarengana 6,1 aldiz batez beste).

b) Ospitaleko jardun publikoa eta pribatua

EUSTATEN Ospitaleen estatistikako datuen arabera, 2010 eta 2011 artean, ospitale kopuruak egonkor iraun du, 44: 18 sare publikoan eta 26 pribatuan. Ospitaleen kopurua sare pribatuan handiagoa izan arren, publikoan biltzen da baliabide kopururik handiena, oheen %69,3, medikuen %70,4 eta erizaintzako pertsonalaren %86,5.

Bilakaera ezberdina izan da baliabideetan; izan ere, behera egin du ohe kopuruak, ospitaleko zuzkidura egonkortu eta gora egin du erizaintzako profesionalen eta medikuen kopurua. Zehazkiago, medikuen kopuruak %10,7 egin du gora sare publikoan eta %7,7 pribatuan; eta erizainena, berriz, %7,8 hazi da sare publikoan eta %2,4 pribatuan.

Laguntza jarduerari dagokionez, gehikuntza izan da azterturiko jarduera guztietan (%4,9 kanpoko kontsultetan, %1,8 larrialdietan, %12,1 kirurgiako ebakuntzan eta %1,4 erditzeetan), egonaldietan izan ezik: %2,8 jaitsi dira.

Egindako kirurgiako 277.293 ebakuntzetatik, %69,4 ospitale publikoetan burutu ziren eta %30,6 pribatuetan. Alde handia dago bilakaeran, zentroaren titulartasunaren arabera: %18 egin dute gora sare publikoan, eta pribatuan, berriz, %0,6.

Arreta emandako erditze guztiei dagokienez (21.480), gehienak (%86,9) ospitale publikoetan izan ziren.

Egiturako ospitaleen adierazleen azterketatik ondoriozta daitekeenez, ospitaleek 7.750 ohe izan zituzten (aurreko urtean baino 171 gutxiago), hots, batez beste 3,6 ohe 1.000 biztanleko, aurreko urtearen ildotik. Jardueraren ospitaleko gaineko adierazleei dagokienez, behera egin zuen egonaldien kopuruak 1.000 biztanleko (-%2,6) eta ospitaleratzeetan, eta larrialdietan (%+2), kirurgiako ebakuntzetan (%+12,3) eta kanpoko kontsultetan (%+5,1), berriz, igoerak izan ziren.

III.3.11. KOADROA. OSPITALEETAKO LAGUNTZA-JARDUERAREN EBOLUZIOA EAEn

	2009			2010			2011			Aldak. 2010-11		
	Orotara	Publikoa	Pribatua	Orotara	Publikoa	Pribatua	Orotara	Publikoa	Pribatua	Orotara	Publikoa	Pribatua
DABILTZAN BALIABIDEAK												
Ospitale k.	44	18	26	44	18	26	44	18	26	0,0	0,0	0,0
Oheak	7.916	5.513	2.403	7.921	5.490	2.431	7.750	5.368	2.382	-2,2	-2,2	-2,0
Medikoak	4.771	3.320	1.451	5.058	3.530	1.528	5.554	3.909	1.645	9,8	10,7	7,7
Erizaintza	6.748	5.625	1.123	8.368	7.139	1.229	8.898	7.698	1.200	6,3	7,8	-2,4
LAGUNTZA- JARDUERA												
Sarrerak	-	-	-	-	-	-	323.585	249.600	73.985			
Egonaldiak	2.334.268	1.672.139	662.129	2.257.414	1.628.663	628.751	2.193.978	1.596.817	597.161	-2,8	-2,0	-5,0
Altak							323.941	249.991	73.950			
Kanpoko kontsultak	2.574.991	2.031.839	543.152	2.566.654	2.097.397	469.257	2.691.994	2.161.909	530.085	4,9	3,1	13,0
Larrialdiak	1.115.358	912.522	202.836	1.083.356	884.259	199.097	1.102.620	890.854	211.766	1,8	0,7	6,4
Kirurgia ebakuntzak	242.764	151.749	91.015	247.441	163.191	84.250	277.293	192.572	84.721	12,1	18,0	0,6
Erditzeak	20.884	18.403	2.481	21.188	18.591	2.597	21.480	18.666	2.814	1,4	0,4	8,4

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko laguntzari buruzko estatistika.

Funtzionamendu adierazleei dagokienez, gora egin dute txandaketa indizeek eta ospitaleratutako larrialdiek eta behera, berriz, okupazio indizeak, batez besteko egonaldiak, larrialdietako presioak, hilkortasun gordinak eta nekropsiak 1.000 heriotzako. Zehazki, batez besteko egonaldia 6,9 egunetik 6,8 egunera jaitsi da.

III.3.12. KOADROA. EAEko OSPITALE ADIERAZLE NAGUSIEN EBOLUZIOA

	2009			2010			2011			Aldak. 2010-11					
	Orot.	Publik.	Pribat.	Orot.	Publik.	Pribat.	Orot.	Publik.	Pribat.	Orot.	Publik.	Pribat.			
EGITURA ADIERAZLEAK															
	Langileria 100 oheko						Langileria hartutako 100 oheko								
Medikuak	46,5	56	24,7	67,4	77,4	41,7	75,9	87,6	44,5	-	-	-			
Erizaintza	81,4	97,6	44	124,4	147	65,7	135,7	161,7	66,2	-	-	-			
JARDUERA ADIERAZLEAK (1.000 biztanleko)															
Oheak	3,6	2,5	1,1	3,6	2,5	1,1	3,6	2,5	1,1	0,0	0,0	0,0			
Egonaldiak	1.074,3	769,6	304,7	1.034,8	746,6	288,2	1.007,8	733,5	274,3	-2,6	-1,8	-4,8			
Ospitaleratzeko maiztasuna (ospitaler.)	140,8	102,3	38,5	149,0	111,6	37,4	148,6	114,7	34,0	-0,3	2,8	-9,1			
Larrialdiak	513,3	420,0	93,4	496,6	405,3	91,3	506,5	409,2	97,3	2,0	1,0	6,6			
Ebakuntzak	111,7	69,8	41,9	113,4	74,8	38,6	127,4	88,5	38,9	12,3	18,3	0,8			
Kanpoko kontsultak	1.185,1	935,1	250,0	1.176,5	961,4	215,1	1.236,6	993,1	243,5	5,1	3,3	13,2			
FUNTZIONAMENDU ADIERAZLEAK															
Okupazio indizea (%)	80,8	83,1	75,5	78,1	81,3	70,9	77,6	81,5	68,7	-0,6	0,2	-3,1			
B.b. egonaldia	7,7	7,6	7,9	6,9	6,7	7,7	6,8	6,4	8,1	-1,4	-4,5	5,2			
Errotazio indizea	38,5	40,1	34,7	41,1	44,4	33,7	41,8	46,6	31,0	1,7	5,0	-8,0			
Hilkortasun gordina (%)	3,2	3,7	1,9	3,0	3,4	1,7	3,0	3,4	1,8	0,0	0,0	5,9			
Nekropsiak 1.000 her.	45,8	54,2	2,5	42,5	49,0	4,9	49,9	57,1	3,1	17,4	16,5	-36,7			
Zesareen indizea	-	-	-	-	-	-	14,8	12,6	29,6	-	-	-			
Larrialdietako presioa	48,6	60,8	16,1	47,0	57,7	15,1	46,5	55,2	17,3	-1,1	-4,3	14,6			
Ospitaleratutako larrialdiak	13,3	14,8	6,6	13,6	15,1	6,8	12,5	14,0	6,0	-8,1	-7,3	-11,8			

Iturria: EUSTAT. Ospitaleei buruzko estatistika.

c) Osakidetzako ospitaleko eta ospitalez kanpoko jarduera

Baliabideen erabilera

Osakidetzak emandako datuen arabera, behera egin du batez besteko okupazio indize orokorrak Osakidetzan 2012an (%0,7 2011rekiko), eta %79,1ean kokatu da. Aurreko urtean, berriz, %79,8 zen.

III.3.13. KOADROA. BALIABIDE PUBLIKOEN ERABILERA ESPEZIALITATEAREN ARABERA (batez besteko egonaldia eta okupazio indizea)										
ZERBITZUAK	Batez besteko egonaldia (egunak)					Okupazio indizea (%)				
	2008	2009	2010	2011	2012	2008	2009	2010	2011	2012
ZERBITZU MEDIKOAK										
Barne medikuntza	8,4	8,1	8,1	8,2	7,9	108,4	97,8	97,2	112,2	125
Kardiologia	5,4	5,3	4,9	4,7	4,7	93,4	90,0	80,3	92,1	97,1
Digestio aparatua	7,5	7,2	7,3	7,2	7,2	112,7	119,9	104,6	112,2	111,6
Hematologia	10,4	10,1	10,1	8,8	9,3	92,1	92,9	90,7	81,7	86,5
Pneumologia	6,7	6,6	6,5	6,4	6	108,3	91,6	90,1	127,3	139,9
Psikiatria	13,9	15,5	15,1	14,3	15	77,7	94,7	90,1	141,0	109,4
Birgaikuntza	30,6	28,0	29,3	29,3	27,9	91,2	82,7	75,9	91,9	83,5
Zaintza aringarriak	17,8	15,4	15,0	14,0	12,7	92,2	81,6	78,8	87,5	71,2
KIRURGIA ZERBITZUAK										
Kirurgia orokorra	5,1	4,9	4,6	4,3	4,3	81,8	62,7	69,5	81,0	83,5
Kirurgia plastikoa	5,9	5,4	5,3	4,0	4,1	71,6	67,5	66,4	57,8	49,9
Bihotz-hodietako kirurgia	4,6	4,3	3,9	4,0	3,8	95,7	91,2	90,5	90,0	93,2
Kirurgia baskularra	6,1	6,1	5,5	4,9	5,3	72,8	75,8	71,5	71,7	78,6
Kirurgia torazikoa	4,6	4,4	4,7	4,4	4,2	79,0	77,1	79,6	78,6	74,8
Neurokirurgia	6,3	6,5	6,3	6,1	5,9	82,6	89,1	80,9	86,6	84,9
Traumatologia	5,5	5,4	5,0	4,5	4,4	81,8	78,4	75,3	82,2	83,5
Urologia	4,2	4,5	4,2	4,0	3,9	82,5	84,0	79,8	95,3	93,9
OROKARRA	6,0	5,8	5,6	5,5	5,4	82,7	81,1	79,6	79,8	79,14

Iturria: OSAKIDETZA: Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

%100a gaindituta eta, era berean, batez besteko horren gainera daude espezialitate hauek: pneumologia (%139,9), digestio aparatua (%111,6) eta psikiatria (%109,4). %100aren azpitik baina batez bestekoaren gainera ditugu gainerako zerbitzu medikoak, kirurgia baskularra (%78,6), kirurgia torazikoa (%74,8), zaintza aringarriak (%71,2) eta kirurgia plastikoa (%49,9).

Eguneko batez besteko egonaldiak berriz ere egin du behera, 5,5etik 5,4ra. Batez bestekoaren oso gainera daude birgaikuntza (27,9), psikiatria (15), zaintza aringarriak (12,7), hematologia (9,3), barne medikuntza (7,9) eta digestio aparatua (7,2).

Itxaronzerrendak

2012an hautsi egin zen datuek ordura arte erakutsitako joera. 2011ra arte, hazkunde profila ageri zen urte batean eta jaitsiera hurrengoan itxaronzerrendako pazienteen guztizkoan, baita batez besteko berandutzean ere.

Hala, kanpoko kontsultei dagokienez, 2012an, berriz ere hazi da zerrendatako pazienteek kopurua: 93.104tik 95.007ra.

Zerrendetan paziente kopuru gehien dituzten espezialitateak, 2012an, berriz ere 2011ko berdina dira: oftalmologia (15.367), traumatologia (14.179) eta dermatologia (13.303).

Anestesiako itxaronzerrenda ez dago aginte-koadroaren datu normalizatuen artean, kirurgia guztien itxaronzerrendaren arabera delako.

III.3.14. KOADROA. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDAK (paziente kopuru gehieneko espezialitateak)

	Paziente kop.					Aldakuntzak			
	2008	2009	2010	2011	2012	08-09	09-10	10-11	11-12
Alergologia	906	2.117	1.516	2.107	2.554	133,7	-28,4	39,0	21,2
Anestesiologia	4.008	-	-	-	-	-	-	-	-
Kardiologia	2.714	3.863	3.288	2.842	2.659	42,3	-14,9	-13,6	-6,4
Dermatologia	7.963	11.717	10.016	12.094	13.303	47,1	-75,5	20,7	10,0
Digestio aparatua	4.157	4.643	4.051	3.931	4.019	11,7	115,7	-3,0	2,2
Endokrinologia	1.963	2.876	2.363	1.780	2.247	46,5	40,9	-24,7	26,2
Neurologia	2.833	3.906	3.818	4.388	4.690	37,9	-39,5	14,9	6,9
Errehabilitazioa	3.145	4.714	3.875	4.806	5.017	49,9	-19,0	24,0	4,4
Kirurgia orokorra	2.339	3.543	2.865	3.108	2.371	51,48	299,1	8,5	-23,71
Oftalmologia	10.818	11.157	14.141	14.735	15.367	3,19	-57,4	4,2	4,3
ORL-otorrinolaringologia	3.862	5.265	4.754	5.561	4.968	36,39	-26,4	17,0	-10,7
Traumatologia	9.693	14.540	14.008	13.514	14.179	50,0	-3,7	-3,5	4,92
Urologia	2.212	2.934	2.486	3.381	3.307	32,6	-15,3	36,0	-2,2
Ginekologia	6.076	12.497	10.538	9.523	8.728	105,7	-67,3	-9,6	-8,4
Beste batzuk	9.818	11.786	12.693	11.334	11.598	20,1	62,5	-10,7	2,3
OROTARA	72.507	95.558	90.412	93.104	95.007	318	-5,4	3,0	2,0

Iturria: OSAKIDETZA. Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

Berandutze aldiari dagokionez, 2011 eta 2012 artean gora egin du hilabetetik gora itxaroten duten biztanleen portzentajeak: %31,9tik %33,5era.

III.3.15. KOADROA. KANPOKO KONTSULTEN ITXARONZERRENDAK. BERANDUTZE DENBORAK (%)

	2009	2010	2011	2012
< hilabete	60,5	69,2	68,19	66,5
>hilabete	39,5	30,9	31,9	33,5

Iturria: OSAKIDETZA: Akutuentzako ospitaleak + Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, haietako gaixo kopurua murriztu egin da 2011 eta 2012 artean, 17.763 lagunetik 18.611ra, eta batez besteko atzerapen egunak murriztu egin dira (51,8tik 52,1era). Horren ondorioz, ebakuntza izateko 3 hilabetetik gora itxaron behar duten gaixoen portzentajea hazi da, %15,85etik %15,97ra.

III.3.16. KOADROA. KIRURGIAKO ITXARONZERRENDA

	2008	2009	2010	2011	2012
Paziente kop.	14.866	16.536	16.377	17.763	18.611
B.b. berandutzea (egunak)	51,7	53,2	48,2	51,8	52,1
Paziente kop. > 3 hilabete	2.050	2.484	1.903	2.815	2.972
Pazienteen % > 3 hilabete	13,8	15,0	11,6	15,9	16,0

Iturria: OSAKIDETZA. Akutuentzako ospitaleak

Kirurgia prozeduraren arabera itxaronzerrendei buruzko datuei dagokienez, esan behar da 2008ko urriaz geroztik, zuzendaritza nagusiaren erabakiz, haiek jasotzeari utzi zitzaioela.

Antzemandako kalitatea: EAeko osasun sistemari buruzko balorazioa

Pazienteen gogobetetasunari buruz Osakidetza²⁰ eginiko inkestako datuak arlo askotarikoak dira, eta pazienteek antzemandako kalitatearen adierazle garrantzitsuak dira. Horren ondorioz, EAEn dugun osasun sistema motari buruzko nahikoa ideia erreala lortzea ahalbideratzen dute.

Osakidetzako pazienteek **oinarrizko arretako kontsultei (medikuntza orokorra eta pediatria)** buruz duten gogobetetasuna handia da. Hala, inkestaturiko biztanleen %90ek baino gehiagok balorazio orokor positiboa eman du laguntzaren inguruan (bikaina+oso ona+ona), bai medikuntza orokorrean, bai pediatrian. Alabaina, jaitsiera txikia ikusten da ratio horretan eta, era berean, balorazio positiboan, kontsultaren aurretiazko aldiari dagokionez. Bereziki deigarria da kontsultan sartu arteko itxaroteko denboraren gaineko balorazio positiboaren jaitsiera pediatriako kontsultetan, zeren eta, 2009an inkestaturiko biztanleen %90,7k positibotzat hartzen bazuen ere, %87,7ra jaitsi baita ratioa 2011n.

²⁰ Inkesta horietako zenbait urtero egiten dira, baina beste batzuk bi urterik behin.

Bestalde, **ospitale barruko kanpoko kontsultetan** balorazio orokor ona dago, eta gainera hobetu egin da azterturiko azken aldiaren (2011) eta aurrekoaren artean, salbu eta galdera hau egiten zaienean inkestaturiko biztanleei: **zentrora itzuliko zinateke aukeratu ahal izanez gero?** Izan ere, erantzunean %95,2tik %94,5era jaitsi da ratioa.

Ospitaleratzeei dagokienez, kalitatea positibotzat jotzen bada ere oro har (inkestaturiko biztanleen %90ek baino gehiagok ona/oso ona/bikaina dela irizten dio), ezberdintasunak ikusten dira akutuentzako unitateetan antzemandako kalitatearen eta egonaldi ertain eta luzeko unitateen artean; akutuen pixka bat handiagoa da. Hona hemen ezaugarri azpimarragarrienak: alde batetik, batez bestekoa baino gogobetetasun txikiagoa akutuen unitateetako ospitaleratzearen inguruan; bestetik, batez bestekoa baino gogobetetasun txikiagoa ahal izanez gero ospitalera itzultzearen inguruan, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan.

III.3.17. KOADROA. OSAKIDETZAKO PAZIENTEEN GOGOBEETASUNA. LEHEN MAILAKO ARRETA ETA OSPITALE BARRUKO KANPO KONTSULTAK (%)						
	Oinarrizko arretako kontsultak				Ospitale barruko kanpo kontsultak*	
	Medikuntza orokorra		Pediatria*		2009	2011
	2011	2012	2009	2011	2009	2011
Laguntzari buruzko balorazio orokorra						
Positiboa (Bikaina+Oso ona+Ona)	94,5	95,7	96,6	95,4	95,7	97,6
Bikaina (Bikaina+Oso ona)	48,8	49,9	49,8	54,7	49,2	60,4
Zentrora itzuliko lirakeke aukeratu ahal izanez gero	94,7	94,7	96,6	95,3	95,2	94,5
Kontsulta sartu arte itxaroteko denboraren balorazio positiboa	90,1	89,7	90,7	87,7	78,6	82,1
Osasuneko langileak emandako tratua balorazio positiboa	95,8	98,0	95,2	95,5	96,3	97,7
Medikuak emandako informazioaren balorazio positiboa	92,6	94,9	94,5	93,9	93,1	94,9

* Bi urteko inkesta. Iturria: Osakidetza pazienteen gogobetetasunari buruz egindako inkestak

III.3.18. KOADROA. OSAKIDETZAKO PAZIENTEEN GOGOBEETASUNA. OSPITALERATZE OROKORRA (%)				
	Akutuen ospitaleak		Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak	
	2011	2012	2011	2012
Laguntzari buruzko balorazio orokorra				
Positiboa (Bikaina+Oso ona+Ona)	97,0	97,9	95,7	95,1
Bikaina (Bikaina+Oso ona)	67,0	68,9	57,6	60,8
Zentrora itzuliko lirakeke aukeratu ahal izanez gero	95,4	94,9	84,2	85,3
Kontsulta sartu arte itxaroteko denboraren balorazio positiboa	66,0	69,9		
Osasuneko langileak emandako tratua balorazio positiboa	96,5	97,2	95,2	94,6
Osasuneko langileak emandako informazioaren balorazio positiboa	94,4	94,2	90,9	93,5
Osasuneko langilearen gaitasun teknikoaren balorazio positiboa	97,1	97,6	94,9	94,3
Mina erabat edo nahikoa kendu zaien pazienteen kopurua	93,8	93,6	92,5	92,9

Iturria: Osakidetza pazienteen gogobetetasunari buruz egindako inkestak

d) Osasun arreta pribatua: Osasun eta farmazia laguntzako aseguru libreko erakundeak

Aseguru libreko erakundeak (aurrerantzean ALE), EUSTATen 2011ko datuen arabera, 15 dira guztira, baina zenbait lurraldetan jardun dezakete. Haietatik, 3 igualatorioak dira, 9 aseguru konpainiak eta 3 BGAE eta mutuak.

Zorroari dagokionez, poliza kopurua berriz ere hazi da, 2010 eta 2011 artean %0,8, eta 213.328 dira. 382.610 lagunek daukate osasun laguntzako aseguru pribatu bana kontratatuta, 2010ean baino %17,6 gehiagok hain zuzen ere. Ondorioz, EAEko biztanleen %17,6k daukate osasun aseguru pribatua kontratatuta. Testuinguru ekonomiko txarrean, behera egin du osasuneko polizen kontratazioak, %0,8, eta osasunaren arloko aseguratuak zifrak berdintsu eusten dio aurreko urtearen aldean. Hori ez dator bat aurreko urteetan talde horretan izandako neurrizko hazkunderako joerarekin (%0,8 2009an eta %1,6 2010ean).

BPGari dagokionez, EAEko BPGaren %0,4 dira 2011n EAEko osasun aseguru erakundeen primak. 726 eurokoa izan zen batez besteko prima aseguratu bakoitzeko; 2010ean, berriz, 699 eurokoa izan zen.

III.3.19. KOADROA. OSASUN ETA FARMAZIA LAGUNTZAKO ASEGURU LIBREKO ERAKUNDEEN BILAKAERA EAE-N*


	2007	2008	2009	2010	2011	Aldak. 2010-11
Erakundeak guztira*	15	14	14	15	15	0
Igualatorioak	4	3	3	3	3	0
Aseguru konpainiak	7	8	8	9	9	0
BGAE eta mutuak	4	3	3	3	3	0
Poliza kop.	183.761	210.642	211.376	215.086	213.328	-0,8
Biztanleria aseguratuaren kop.	346.062	373.548	376.544	382.677	382.610	-0,0
Biztanleria aseguratuaren %	16,1	17,3	17,4	17,6	17,6	0,00
Primen bolumena (mila euro)	201.130	238.083	254.134	267.618	277.731	3,8
Primak aseguratuak (euroak)	581	637	675	699	726	3,9
Primak biztanleko (euroak)	94	110	117	123	128	4,1
Primak/BPGd (%)	0,3	0,4	0,4	0,4	0,4	
Gastuak guztira (mila euro)	192.986	200.824	224.442	239.058	259.555	8,6
Diru-sarrerak guztira (mila euro)	211.541	245.191	274.630	286.731	285.731	-0,4

* Guztizkoa zenbait erakunderi dagokie, zenbait lurraldetan jardun badezakete ere.
Iturria: EUSTAT. Datu basea

Aseguratu gehien biltzen dituen modalitatea taldeko aseguruen da (enpresa batek zuzenean itunduak edo langile edo talde horien aldeko taldeko beste zehatz batzuk), %53,6, banakako edo familiarako poliza (%53,6) eta mutualitate publikoak (%36,7) gaituz.

Aseguraturiko pertsona gehienek (%89) osasun laguntza orokorreko estaldurako aseguru medikoa kontratua zuen, hain zuzen lehen mailako arreta eta ospitaleko zerbitzuak estaltzen dituen; %10ek, berriz, hagineto aseguru.

III.3.2. GRAFIKOA. ASEGURATUEN ETA ASEGURATURIKO PERTSONAKO PRIMEN KOPURUAREN BILAKAERA, POLIZA MOTAREN ARABERA



Iturria: Eustat, Lag. Mediko Farmazeutikorik gabeko aseguru erak. estatistika

3.4 OSASUN SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAZIOA

3.4.1 Osasun Sailaren gastua

EAEko aurrekontuaren likidazioaren datuen arabera, Osasun eta Kontsumo Sailaren gastuaren partida 3.365,4 milioi eurokoa izan zen (osasuna eta kontsumoa barne) 2012an, hots, %2 gutxiago 2011n likidaturiko gastuarekiko.

2012an espezifikoki osasunekoak diren partida likidatuak (Egitura eta Laguntza, Osasun Finantzazioa eta Kontratazioa, Osasun Publikoa, Ezagutzaren eta Ebaluazioaren Kudeaketa eta Farmazia), guztira, 3.357,8 milioi euro dira, hots, %1,2 jaitsiera 2011rekin alderatuta.

Osasun Sailak lehen tokian

jarraitzen du baliabideen portzentajea. Osasun arloari mugatuta, 2012ko aurrekontuaren guztizkoaren %32,8 dira, non programa nagusia Osakidetzaentzako transferentzietatik datokien. BPGaren %5,2 da gastua.

Bestalde, Osasun Sailaren gastuen aurrekontua (osasun eta kontsumoa), 2013an, 3.406,6 milioi eurokoa da (2012an likidaturiko gastuarekiko %1,2). 2013rako aurrekontuan sartuta diren eta espezifikoki osasunekoak diren partidak, orotara, 3.399,7 milioi eurokoak dira. Hots, BPGaren %5,3, aurreko urtekoa baino ratio handiagoa (%5,2).

3.4.2 Gastua osasunean

EUSTATen datuen arabera, osasunean izandako guztizko gastua 2012an, ELGaren Osasunaren Kontuen Sistemaren metodologiaren arabera kalkulatu (System of Health Accounts-SHA 1.0), %1,9 jaitsi da 2011rekin alderatuta, eta guztira 5.663 milioi dira. Hots, EAEko BPGaren %8,8. Zenbateko horren %73,2 finantzazio publikoari dagokio eta %26,8 finantzazio pribatuari.

Herri administrazioen ahaleginaren adierazlea, hots, osasuneko gastu publikoa, Herri Administrazioek EAEn izandako guztizko gastuarekiko, %16,1koa da 2011n, Estatukoa baino %1 gehiagoa (%15,1ean kokatu zen).

III.3.20. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILAREN GASTUAREN BANAKAPENA (atalka eta programaka, mila eurotan)					
	Likidazioa		Aurrekontua 2013*	Aldakuntza (%)	
	2011	2012		11-12	12-13
Egitura eta laguntza	16.347	15.375		-5,9	
Osasun finantzazioa eta kontratazioa	2.766.889	2.764.487		-0,1	
Osasun publikoa	29.126	29.063		-0,2	
Ezagutzaren gestioa eta ezagutza	6.385	6.716		5,2	
Farmazia	580.043	536.869		-7,4	
Droga-mendetasuna		5.316			
Osasuna guztira	3.398.790	3.357.826	3.399.651	-1,2	1,2
Osasuna guztira (Osasuna eta kontsumoa)	3.434.276	3.365.367	3.406.549	-2,0	1,2
GUZTIRA	10.173.197	10.246.438	10.449.167	0,7	2,0
BPG	65.684.285	64.706.357	64.703.235		
Osasunaren % Guztizkoaren gainean	33,4	32,8	32,5		
Osasunaren % BPGaren gainean	5,2	5,2	5,3		

*Aurrekontuaren luzapena

Iturria: EAEko kontu orokorrak eta Aurrekontuak, eta geuk egina

²¹ 2013an aurrekontuan luzapena izan da, ez delako onartuta 2013rako Aurrekontuen Proiektua.

Nazioarteko konparazioa eginez, eta 2011ko datuak oinarri hartuta, ELGak emandako azken datuen arabera, egoerak ez du ezberdintasunik aurreko ekitaldiekin alderatuta. EAEko BPGaren portzentajeko gastua %8,8 da, hots, gainerako herrialdeen azpitik. Alabaina, PPC per capitako osasuneko gastua (USA dolaretan erosteko parekotasun ahalmena) 3.695 da gure Erkidegoan, hots, honako herrialde hauen gainetik dago: Erresuma Batua (3.405), Finlandia (3.374) eta Espainia (3.072, EAEkoa baino %20,3 txikiagoa); taulako goiko aldean, Norvegia dago, 5.669 eta Suitza, 5.643. Finantzazioari dagokionez, osasuneko guztizko gastuaren %73,8 finantzazio publikoakoa da, inguruko herrialdeen ildo beretik.

III.3.21. KOADROA. GASTUAREN ADIERAZLEAK HERRIALDEKA, 2011					
	Gastua publ. BPGaren %-tan	Gastu publ. guztizko gastuaren %-tan	Guztizko gastua BPGaren %-tan	Guztizko gastua biztanleko (PPC, US\$)	BPGa biztanleko (PPC (\$))
Alemania	8,7	76,5	11,3	4.495	39.662
Austria	8,2	76,2	10,8	4.546	42.186
Belgika	8,0	75,9	10,5	4.061	38.629
Kanada	7,9	70,4	11,2	4.522	40.449
Danimarka	9,3	85,3	10,9	4.448	40.933
Espainia	6,8	73,0	9,3	3.072	33.045
AEB	8,5	47,8	17,7	8.508	48.113
Finlandia	6,8	75,4	9,0	3.374	37.479
Frantzia	8,9	76,8	11,6	4.118	35.395
Irlanda	6,0	67,0	8,9	3.700	41.548
Islandia	7,3	80,4	9,0	3.305	36.611
Italia	7,2	77,8	9,2	3.012	32.648
Norvegia	7,9	84,9	9,3	5.669	61.060
Erresuma B.	7,8	82,8	9,4	3.405	36.158
Suedia	7,7	81,6	9,5	3.925	41.461
Suitza	7,1	64,9	11,0	5.643	51.227
EAE	6,5	73,8	8,8	3.695	42.023

Iturria: EUSTAT. EAEko Osasunaren Kontua

2012ko Kontuen aurrerapeneko datuen azterketa zehatzagoa egindako agerian geldituenez, osasuneko gastu arrunta, 2012an, %97,9 izan zen, eta gainerako %2,1 kapitalaren eraketa gordinerako erabili zen (inbertsioa). Inbertsioa %21,6 jaitzi zen 2012an.

III.3.22. KOADROA. OSASUNAREN KONTUAREN ADIERAZLEAK EAE-N, 2005-2012							
	2005	2009	2010	2011	2012	Aldak. 2011-2012	Aldak. 2005-2012 urteko b.b.
Guzt. gastua osasunean (milioi €)	3.994,7	5.636,1	5.768,3	5.774,6	5.663	-1,9	5,1
Finantziazio publikoa (milioi €-tan)	2.889,8	4.230,9	4.277	4.258,8	4.143	-2,7	5,3
Finantziazio pribatua (milioi €-tan)	1.104,9	1.405,2	1.491,3	1.515,8	1.520	0,3	4,7
Guztizko gastua biztanleko (€)	1.893	2.602	2.656	2.652	2.578	-2,8	4,5
Guzt. gastua BPGaren gainean (%)	7,0	8,8	8,9	8,8	8,8	0,0*	1,8*
Gastu publikoa administrazio publikoen gastuaren %-tan	15,6	16,3	15,9	16,1	-	-	

* Diferentzia ehunekoetan
Iturria: EUSTAT. EAEko Osasunaren Kontua

Hornitzaileko gastuen egitura, 2012an, aurreko aldien antzekoa da; gasturik handiena ospitaleetan egin zen (%40,3), eta bigarren tokian, anbulatorioko osasuneko laguntzako hornitzaileek izan zuten, hain zuzen %27,8rekin. Arreta medikalizatuko eta egoitzako establezimenduak gastu arruntaren %11 dira, eta 2011tik igotzen den gastu bakarra da (%1,8).

3.4.3 Laguntza-jarduerako gastuak

Ospitaleko edo ospitalez kanpoko jardura izan daiteke osasun laguntza (horren barruan ospitaleetatik kanpo ematen den lehen mailako laguntza eta laguntza espezializatua sartzen dira) eta publikoak edo pribatuak izan daitezke biak. Osasun laguntza jardura publikoa Osakidetza eta zentro itunduek ematen dute eta pribatua zentro pribatuek.

a) Ospitalez kanpoko jardura publikoa

Berriz ere kapitulu hau ixtean, EUROSTATEk argitaraturiko datuak gure 2012ko Memoriaren edizioan bildutakoekin berdinak dira eta, beraz, ikuspegi zabala izateko, jo beza irakurleak Memoria horretara.

Oro har esan daiteke euskal osasun publikoak 593.783 mila euro erabili zituela 2010ean ospitalez kanpoko laguntzarako, hots, %3ko igotzea aurreko urtearen aldetik, EAEko ekonomiak urte berean izan zuen %1,8ko

hazkundearen gainetik (BPGaren hazkunde nominalaren terminoetan). Guztizko gastuetatik, %97,2 (577,2 milioi euro) gastu arruntei dagozkie eta %2,8 (16,6 milioi) inbertsio gastuei. %1,4 hazi da kopuru hori aurreko urtearekiko.

Langileria gastua %2,4 handitu da aurreko ekitaldiaren aldean, eta %82,4 izan da. Ospitaletik kanpoko laguntza jarduera euskal BPGaren %0,9 izan da eta biztanleko 273€-ko batez besteko gastua, aurreko urtean baino %2,7 gehiago. Ospitaletik kanpoko gastu publikoaren finantzabide nagusia Osasun Saila da orain ere (guztizkoaren %89,8): 608 milioi euroetatik 546).

Ospitaleko jarduera publiko eta pribatuko gastua

EUSTATen ospitale estatistikaren datuen arabera, EAEko ospitaleko osasun gastua (publikoa eta pribatua) 2011. urtean 2.356,3 milioi eurokoa izan zen; hau da, aurreko ekitaldiaz geroztik %1,7 gehitu zen.

Ospitaleko laguntza jarduera euskal BPGaren %3,6 izan zen 2011n eta biztanleko 1.082€-ko batez besteko gastua, aurreko urtean baino %1,9 gehiago. Guztizko datutik, 2.270 (%96,3) milioi gastu arruntei dagokie, eta aurreko urtean hasitako hazkondeak jarraitu zuen, eta inbertsiorako 86,4 milioi: %33ko jaitsiera izan da partida horretan 2010. urtearen aldean.

Titularitatearen arabera, hots, sare publikoa eta pribatua bereziz, gastuaren %85,5 gastu publikoa da.

III.3.23. KOADROA. EAEko OSPITALE SEKTOREKO GASTUAREN BILAKAERA

	2007	2008	2009	2010	2011	Aldak.% 2010/11
JARDUERA EKONOMIKOA (mila euro)						
Gastua guztira (korrontea+inbertsioa)	1.844.063	2.079.209	2.246.595	2.317.721	2.356.332	1,7
Gastu korrontek	1.750.667	1.954.760	2.125.759	2.188.893	2.269.983	3,7
Langileria gastuak	1.122.140	1.259.434	1.375.422	1.397.210	1.469.660	5,2
Beste gastu korronte batzuk	628.527	695.326	750.337	791.683	800.323	1,1
Inbertsioa	93.396	124.449	120.836	128.828	86.348	-33,0
Diru-sarrerak guztira	1.745.731	1.956.902	2.121.629	2.166.427	2.232.498	3,0
Diru-sarrera arruntak	1.712.408	1.922.149	2.082.438	2.125.477	2.232.498	3,0
Salmentak	1.702.646	1.905.818	2.063.628	2.104.402	2.192.938	4,2
Diru-laguntzak	9.762	16.332	18.810	21.075	19.844	-5,8
Kapital sarrerak*	33.323	34.753	39.191	40.950	19.716	-
ADIERAZLE EKONOMIKOAK						
Gastua/biztanleko (Euro)	861	965	1.034	1.062	1.082	1,9
Gastua/BPGd	2,8	3,1	3,5	3,5	3,6	-

* 2010etik aurrera salmentak eta diru-sarrerak kentzen dira
Iturria: EUSTAT eta Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzaren Ospitaleko estatistika.

III.3.24. KOADROA. EAEko OSPITALE SEKTOREKO GASTUAREN BILAKAERA (euroak milaka)

	2010			2011			Aldak. 2010-11		
	Orotara	Publikoa	Pribat.	Orotara	Publikoa	Pribatua	Orot.	Publik.	Pribat.
Gastua guztira (korrontea+inbertsioa)	2.317.721	1.967.026	350.695	2.356.332	2.014.217	342.115	1,7	2,4	-2,4
Gastu korrontek	2.188.893	1.866.648	322.245	2.269.983	1.945.057	324.926	3,7	4,2	0,8
Langileria gastuak	1.397.210	1.242.008	155.202	1.469.660	1.310.165	159.495	5,2	5,5	2,8
Beste gastu korronte batz.				800.323	634.892	165.431			
Inbertsioa	128.828	100.378	28.450	86.348	69.160	17.189	-33,0	-31,1	-39,6
Guztizko diru-sarrerak	2.125.477	1.866.648	322.245	2.232.498	1.909.994	322.504	5,0	2,3	0,1
Salmentak				2.192.938	1.885.139	307.799			

Iturria: EUSTAT. Ospitaleko estatistika.

Osakidetzaren gastuak bere ospitaleko eta ospitalez kanpoko jarduera

Osakidetzaren aurrekontuko likidazioak, EAEko kontu orokorretan oinarrituta egin zenak, erakusten du erakunde horrek egindako gastua, 2012an, 2.593,7 milioi euro izan zela (2011n baino -%2,6), hau da, BPG nominalaren %4. Jaitsiera hori gertatu da ustiapeneko gastuek behera egin dutelako (langileriak hornidura eta beste gastu batzuk), baita inbertsioak ere.

Guztizko aurrekontu likidatutik, %3,3 inbertsioei dagokie (85.679 mila euro) eta %96,7 ustiapen gastuei. Azken horretan langileria gastuak nabarmentzen dira, erakundearen gastu guztien %65.

Aurrekontuan sartutako zenbatekoak 2012an benetan egikaritutakoaren aldean izandako desbideratzeari dagokionez, gastu likidatua aurrekontukoa baino pixka bat handiagoa da (+7.327 milioi euro), eta “inbertsioen”, “langileri gastuen” eta “bestelako gastuen” desbideratzeari dagokio.

III.3.25. KOADROA. OSAKIDETZAREN GASTUEN LIKIDAZIOA ETA AURREKONTUA (euroak milaka)

	2010			2011			2012		
	Aurrek.	Likidaz.	Diferent.	Aurrek.	Likidaz.	Diferent.	Aurrek.	Likidaz.	Diferent.
INBERTSIOA	137.997	132.723	-5.274	120.610	123.682	3.072	80.723	85.679	4.955
USTIAPEN GASTUA	2.554.215	2.539.226	-14.989	2.544.125	2.538.867	-5.258	2.505.665	2.508.036	2.372
Langileria	1.792.362	1.763.417	-28.945	1.758.292	1.757.114	-1.178	1.732.891	1.680.498	-52.392
Hornidurak	540.554	554.975	14.421	562.662	557.505	-5.157	553.932	582.458	28.526
Beste batzuk	221.299	220.834	-465	223.171	224.248	1.077	218.842	245.080	26.238
OROTARA	2.692.212	2.671.949	-20.263	2.664.735	2.662.549	-2.186	2.586.388	2.593.715	7.327
BPGd			65.120.174			65.684.285			64.706.357
Gastuaren urteen arteko bilak. (%)						-0,4			-2,6
BPGd gaineko gastua (%)			4,1			4,1			4,0

Iturria: Norberak egina EAEko Kontu Orokorretatik hartuta

4. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

EAEko higiezin merkatuak 2013an izan duen bilakaeraren ezaugarri bat da, Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Eskaintzaren Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintzak % 13,9ko jaitsiera izan duela bi urtez jarraian (%-11,4 izan zuen 2011-2012 aldian), bilakaera ezberdinak izan direlako salgai dauden etxebizitza libre berrietan (% -25,7), erabiletan (% -12,4), alokairuko etxebizitza libreetan (jaitsi ez den bakarra, %0,5 igota) eta salgai dauden etxebizitza babestuetan (% -38,9); halaber, alokairuan dagoen etxebizitza babestuaren eskaintzak ere % -7,7ko jaitsiera izan du. Era berean, 2011ri buruzkoa den eta erabilgarri dagoen azken datuaren arabera, etxebizitzaren²² eskaria edo beharrezana % 21,9 murriztu da, 2010ean jada % 11,6 jaitsi zela.


Bestalde, etxebizitzetarako egindako hipoteken kopurua % 34,6 murriztu da 2013an, eta zenbateko osoa % 40,2. Aurreko denboraldian ere % 26,2 eta %33,8 murriztu ziren horiek, hurrenez hurren. Horren ondorioz, hipotekaturiko finkaren gainean emandako batez besteko zenbatekoa, 121.711 eurokoa, %8,5 gutxitu da 2012aren aldean. Bien bitartean, hipoteken merkatuko interes tasek gora egin dute epe guztietan, urterakoetan izan ezik: Urtebeterako Euribor urtarrileko 0,57tik abenduko 0,53ra igaro da. Kreditu entitateek familientzat ematen duten mailegu tasa (UTB), berriz, 2,93tik 3,16ra igaro da denboraldi berean²³.

4.1 LURZORUA ETA PRODUKZIO KOSTUAK

4.1.1 Lurzorua EAEn

Etxebizitzak etxebizitzaren merkatura iristeko prozesua hasteko, lurzorua erosten da. Gero urbanizazioa, promozioa, eraikuntza eta, azkenik, etxebizitzaren salmenta edo adjudikazioa datoz. Normalean informazioa izaten dugu prozesuaren azken zatiari buruz, eskaintzen den etxebizitza kopurua jakiten dugu, eta haien ezaugarri batzuk eta salneurria ere bai. Baina aurreko faseei buruz dagoen informazioa oso urria da eta, iturri batetik bestera, kontraesankorra ere bai.

III.4.1. GRAFIKOA. EAE-KO ETXEBIZITZAREN MERKATUAREN BILAKAERA¹



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN eta EINren datuekin eginikoa.

III.4.1. KOADROA. HIRI LUZORUAREN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA, €/M². LAUGARREN LAUHILEKOAK.

	2011	2012	2013	% 2012/13
ESTATUA, B.B.	182,5	187,4	147,9	-21,1
Andaluzia	186,2	159,2	129,1	-18,9
Aragoi	136,9	159,4	99,9	-37,4
Asturias	128,4	139,3	138,5	-0,6
Balearrak	255,8	254,7	268,3	5,3
Kanariak	223,3	217,9	183,9	-15,6
Kantabria	148,2	126,4	117,3	-7,2
Gaztelu eta Leon	84,8	65,8	59,9	-9,0
Gaztela Mantxa	127,4	132,6	81,8	-38,3
Katalunia	235,3	173,1	200,3	15,7
Valentziako E.	203,8	183,6	175,0	-4,7
Extremadura	92,1	153,1	89,6	-41,5
Galizia	152,7	111,7	83,6	-25,1
Madril	418,4	425,8	270,7	-36,4
Murtzia	227,8	232,0	200,5	-13,6
Nafarroa	235,9	217,6	174,0	-20,0
EAE	254,8	417,0	228,3	-45,2
- Araba	248,8	229,1	185,5	-19,0
- Gipuzkoa	222,6	293,2	456,6	55,7
- Bizkaia	281,7	490,7	198,7	-59,5
Errioxa	117,9	178,6	191,5	7,2

Iturria: SUSTAPEN MINISTERIOA

²² Grafikoan azaltzen den eskariak eskuratzeko behar diren etxebizitzaren kopurua erakusten du; eskaintza higiezin sustatzaile eta agenteek emandakoa da; prezioak eurotan adierazita daude salgai dauden etxebizitza libreen (berriak nahiz erabiliak) m² erabilgarri bakoitzeko.

²³ Finantza-aldagai horiei buruzko informazio zabalagoa izateko, jo beza irakurleak Memoria Sozioekonomiko honetako II.2. "Egitura produktiboa eta berrikuntza" kapitulura.

Sustapen Ministerioaren Prezioen Estatistikako datuei erreparatuz gero, 2013ko laugarren hiruhilekoan EAEn egin diren hiri lurren transakzioetan batez besteko prezioa 228,3 euro izan da m² bakoitzeko. Beraz, urtebete lehenagoko batez bestekoa baino % 45,26 handiagoa da. Era berean, Estatu osoan egindako transakzioen batez bestekoa 147,90 /m² izan zen, 2012ko azken hiruhilekoan izandako batez besteko prezioaren %21,1eko murrizketa, alegia.

Kopuru absolutuetan, Madrilgo Erkidegoak Estatuko batez besteko preziorik altuena du (270,70 €/m², 2012ko laugarren hiruhilekoan baino %36,4 gutxiago), ondoren Balearrak (268,30€/m², aurreko urtean baino % 5,3 gutxiago) eta EAE hirugarren tokian. EAEko lurralde historikoen arabera izandako bilakaera ardatz

III.4.2. KOADROA. LURRALDEEN BANAKETA, 2013.						
	Azalera (Ha)	Egungo etxeb. kop.	Egiteke dagoen etxebizitza kop.			Etxebizitza kop.
			Libreak	EB	Guztira	
EAE, GUZTIRA	19.177	953.736	119.342	78.654	197.996	1.151.732
ARABA	5.688	150.729	27.466	22.423	49.889	200.618
Gasteiz	2.022	108.514	10.781	18.994	29.775	138.289
Arabako gainerakoak	3.666	42.215	16.685	3.429	20.114	62.329
BIZKAIA	8.327	496.499	56.956	30.384	87.340	583.839
Bilbo	1.222	154.445	9.002	8.102	17.104	171.549
Bizkaiko gainerakoak	7.105	342.054	47.954	22.282	70.236	412.290
GIPUZKOA	5.162	306.508	34.920	25.847	60.767	367.275
Donostia	1.360	83.090	6.538	9.318	15.856	98.946
Gipuzkoako gainerakoak	3.802	223.418	28.382	16.529	44.911	268.329

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa. Ingurumen eta Lurralde Politikaren Saila. 2013ko iraila.

hartuta, nabarmentzekoa da Gipuzkoako batez besteko prezio altua; izan ere, 2013ko amaieran 456,60 €/m² (+%55,7 2012ko datuekiko) izan zuen. Ondoren, Bizkaia dago, batez beste 198,70 €/m²-ko prezioa. Araban, berriz, 185,50eko batez bestekoa da. Kontuz hartu behar dira datu horiek, urteko aldaketen hegazkortasuna dela eta.

Lurraren zuzkidurei dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren 2013ko iraileko datuen arabera, gure Erkidegoak bizitegirako 19.177 hektarea lur ditu²⁴, guztira 953.736 etxebizitza hartuta, eta egiten dituen zenbatespenaren arabera, beste 197.996 etxebizitza gehiago daude egiteke (guztizko parkearen %17,2). Horietatik, 197.996, hots, % 60,3, libreak dira eta gainerako %39,7 babes publikokoa.

Lurraldez lurralde, zenbatespenen arabera, egiteke dauden etxebizitzaren %25,2 Araban daude, %44,1 Bizkaian eta %30,7 Gipuzkoan, eta horietatik guztietatik, gainera, %31,7 hiru euskal hiriburuetakoko batean burutuko da (62.735 etxebizitza).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, 2013ko maiatzean, hurrengo urteetan babes publikoko 8.295 etxebizitza inguru eraikitzeko lurzoruko-ondarea zeukan (Etxebizitza Sailak erosita zeuzkan lur-zatiak eta erosi nahi zituen beste lurzoruko batzuk barne). Kopuru horretatik, %78,6 (6.524 etxebizitza) 2014rako eskuragarri egongo litzateke, eta gainerako %21,4a 2015ean izango litzateke.

Lur ondatzearen %77 Bilboko (3.733 etxebizitza) eta Donostiako (2.640) eskualde egituretan daude, eta biztanleko lur ratioaren terminoetan, Donostialdeak du lehenbiziko tokia, hots, 6,9 etxebizitza 1.000 biztanleko; ondoren, Zarautz-Azpeitiko eskualde egitura (6,8) dago. Bilboko Metropoliak hirugarren tokian du (4,2 etxebizitza 1.000 biztanleko guztia).

III.4.3. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA SAILAREN LUR ONDAREAREN BANAKETA GEOGRAFIKOA.						
	ERABILGARRITASUNA				GUZTIRA 2012-15	
	2012	2013	2014	2015	ETXEBIZITZAK	% BERT.
GUZTIRA EAE	235	4.236	2.035	1.771	8.295	100,0
ARABA	0	576	0	0	576	7,0
Erdiko Araba	0	502	0	0	502	6,0
Laudio	0	74	0	0	74	1,0
BIZKAIA	206	2.253	1.533	0221	4.213	51,0
Bilbo	206	1.773	1.533	221	3.733	45,0
Metropolitarrak						
Balmaseda-Zalla	0	70	0	0	70	1,0
Igorre	0	0	0	0	0	0,0
Durango	0	128	0	0	128	2,0
Gernika-Markina	0	282	0	0	282	3,0
GIPUZKOA	47	1.407	502	1.550	3.506	42,0
Donostia	0	728	412	1.500	2.640	32,0
Eibar	47	62	0	0	109	1,0
Zarautz-Azpeitia	0	313	90	50	453	6,0
Arrasate-Bergara	0	124	0	0	124	2,0
Beasain-Zumarraga	0	30	0	0	30	0,0
Tolosa	0	150	0	0	150	2,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza Saila. 2013ko maiatza.

²⁴ Finkaturiko edo finkatu gabeko bizitegirako hiri lurzoruko gehi bizitegirako lurzoruko urbanizagaia osatzen dute bizitegirako lurzorua,

4.1.2. Eraikuntza kostuen estatistika

EUSTATen "Eraikuntza Kostuen Indizea"²⁵ inguruabar izaerako adierazlea da. Kostu horien bilakaera neurtzen du, eraikuntza sektoreko lehengaien edo bitarteko kontsumoen (lehengaien eta materialen kostuen, energia kostuen eta askotako gastuen kostuen batura; hori sektoreko lehengai nagusien prezioen bidez zenbatesten da) eta langileria kostuen (soldata gordinen eta gizarte kotizazioen batura, sektoreko hitzarmen kolektiboaren bidez zenbatetsia) indize baten bidez.

Adierazle horrek ez du ahalbidetzen produkzioaren azken prezioari eragiten dioten kostu guztiak neurtzea, jakina, enpresa etekinaz gain, kapitalari lotutako faktoreak falta baitira.

2013an, eraikuntza kostuak, beren osotasunean, % 0,1 handitu dira batez beste, eskulanarena % 1 eta lehengaien kostuak % 0,2 handitu dira, bilakaera ekonomikoaren ondorioz. Eraikuntza eta Obra Zibilaren azpisektoreei dagokienez, norabide ezberdinetik joan dira: Lehenbizikoaren kostuak %0,2 handitu dira eta bigarrenarenak, berriz, %0,6 hazi dira.


Azken hamabi hilean inflazio-tasa handiena izan duen sektoreak kontsumituriko

lehengaien prezioen artean, hauexek nabarmentzen dira: argindarra, gasa eta lurruna (% 6,0), kautxua eta plastikoa (% 5,7) eta metalekoa ez den industria (% 4,4). Kontrako zentzuan, gutxipenak izan dituzte urte prezioetan sektore hauetako urteko prezioetako lehengaiak: Metalurgia (-%4,3), Material elektrikoa (-%2,0) eta Material elektronikoa (-%1,3).

Bestalde, EUSTATen "Eraikuntzako Estatistikaren" datuek erakusten dute eraikuntza sektoreak 2012an (informazioa eskuragarri duen azken urtea) atzerakada handia izan zuela, bai sortutako balio erantsiaren aldetik, bai enpleguaren aldetik.

Eraikuntzako enplegu kopuruak behera egin du, % 10,6 (sektorearen enpleguaren %33,3 galdu da 2008-2012 epealdia kontuan hartuz gero). Hain zuzen ere, aurreko urtearekin alderatuta 8.169 landun gutxiago egon dira. Era berean, negozio kopuruak % 17,1eko beherakada izan duela eta langileen kostuek % 14,5 behera egin dutela kalkulatu da.

III.4.2. GRAFIKOA. EAE-KO ERAIKUNTZA KOSTUEN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA. OINARRIKO URTEA: 2010.



Iturria: EUSTAT. EEKI.

²⁵ Indize honek eraikuntza obra mota biak bereizten ditu: eraikinak egitea (eraikuntza iraunkor oro, berezia edo independentea, etxebizitza familiar edo kolektiborako egiten dena, edo nekazaritzarako, industriarako, zerbitzuak emateko edo, oro har, jarduera bat egiteko eskolak, siloak, eta abar egiten dena) eta obra zibila (azpiegitura obra oro, eraikinak egitea ez dena, kolektiboki edo publikoki erabiltzeko dena). 2008ko otsailean EUSTATEk base berria egin zuen, 2000tik 2005era igaroz. Aldaketa honek zenbait hobekuntza ekarri ditu, besteak beste, EAeko eraikuntza sektorearen produktu eta lehengai garrantzitsuenak eguneratzea, estaldura zinez gehituz.

Bestalde, ustiapeneko soberakin gordina %39,4 jaitsi da, eta inbertsioak, berriz, %55,4. Azkenik, negatibo bihurtu dira zerga horien aurreko emaitzak (-136,6 milioi euro) eta %116,6 egin dute behera, eta ekitaldiko emaitza, era berean negatiboa (-149,2 milioi euro), %124 jaitsi da.

III.4.4. KOADROA. ERAIKUNTZAREN SEKTOREAREN MAGNITUDE NAGUSIAK. PREZIO ARRUNTAK. (MILAKA €-TAN).					
	2010	2011	2012	% 10/11	% 11/12
Lanean ari diren langileak	85.827	77.340	69.171	-9,9	-10,6
BEGd-a, fakt. kostuan	5.279.630	4.854.621	3.735.455	-8,0	-23,1
Ustiapeneko soberakin gord.	1.805.782	1.668.432	1.010.738	-7,6	-39,4
Egindako inbertsioak	345.899	204.184	91.045	-41,0	-55,4
Amortizaziorako baliakizuna	418.234	302.100	229.681	-27,8	-24,0
Negozioren zifra	17.099.703	14.882.255	12.342.619	-13,0	-17,1
Hornikuntzak	10.254.339	8.383.668	6.640.032	-18,2	-20,8
Kanpoko zerbitzuak	1.981.536	1.717.977	1.420.269	-13,3	-17,3
Langileria gastua	3.473.848	3.186.189	2.724.717	-8,3	-14,5
Zergen aurreko emaitzak	477.814	823.799	-136.666	72,4	-116,6
Ekitaldiko emaitza	389.986	622.652	-149.271	59,7	-124,0

Iturria: EUSTAT. Eraikuntzaren estatistika.

4.2 ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren "Higiezinaren Eskaintzaren Estatistikak"²⁶ adierazten du, lehenik eta behin, azken urtean etxebizitzaren eskaintza osoa (salmenta gehi alokairua) % 13,9 murriztu dela (aurreko urtean % -11,4), laugarren hiruhilekoan 34.029 etxebizitzetara iritsi arte. Lagin hori, prezioen estatistikaren oinarria izanda, honela dago osatuta: %93,3 salgai eskainitako etxebizitzak dira eta %6,7 alokairuan eskainitakoak. Salgai dauden etxebizitzetatik % 23,9 etxebizitza berriak dira eta % 69,5 erabiliak, eta berrien % 52,5 babes publikoko motaren baten pean daude. Alokairuko etxebizitzetatik % 89,3 libreak dira eta % 10,7, berriz, babestuak.

III.4.5. KOADROA. EAE-KO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN BILAKAERAREN LABURPENA.

	GUZTIRA	ETXEBIZITZAK SALGAI					ETXEBIZITZAK ALOKAGAI		
		SALGAIK, GUZTIRA	ETXEBIZITZA BERRIAK			ETXEBIZITZA ERABIHIAK	ALOKAGAIK, GUZTIRA	LIBREAK	BABESTUAK
			GUZTIRA	BABESTUAK	LIBREAK				
2008	26.766	23.767	10.373	5.424	4.949	13.395	2.999	603	2.396
2009	27.560	24.180	10.127	5.010	5.117	14.053	3.380	1.000	2.380
2010	28.921	26.353	8.169	3.573	4.596	18.184	2.568	1.215	1.354
2011	44.643	42.276	12.394	6.845	5.549	29.882	2.367	1.602	766
2012	39.542	36.902	9.918	4.180	5.738	26.985	2.640	2.013	627
I-2013	39.745	37.008	9.651	4.074	5.577	27.357	2.737	2.156	581
II-2013	38.714	36.038	9.327	4.013	5.315	26.712	2.676	2.172	504
III-2013	36.655	34.176	8.621	3.807	4.815	25.554	2.479	2.120	359
IV-2013	34.029	31.762	8.126	3.860	4.266	23.636	2.267	2.024	243

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Eskaintzaren Estatistika.

Oharra: Datuak 4 ordenako batez besteko mugikorren bidez azaltzen dira.

Datuetatik ondoriozta daitekeenez, eskaintzaren hazkunderako joera moteltzeko 2004an hasitako joeraren ondoren (2009-2010), nabarmen egin zuen gora joerak 2011n (+%54,4), eta 2012an, berriz, berriro ere behera egin zuen eta are gehiago 2013an, gehienbat alokairuko etxebizitzan (guztizkoaren -%14,1, baina -%61,2raino babesturiko segmentuan) eta batez ere salgai dagoen etxebizitza berri librean (-%25,7). Salgai dagoen etxebizitza erabiliaren eskaintzak ere behera egin zuen neurri handiagoan 2012an (-%12,4, aurreko urteko % -9,7aren aurrean), eta soilik alokairuko etxebizitza librearen eskaintzak du bilakaera positiboa (%+0,5); guztizko eskaintzaren %6 besterik ez da.

Azken hamarkadako bilakaerari erreparatuta, ikusi da eskainitako etxebizitza tipologiako hazkunde proportzionalik handiena etxebizitza erabilian gertatu dela. Gauzak horrela, 2013an salgai dauden etxebizitza guztien % 69,5 erabiliak dira, 2003an proportzio hori % 46,7koa bakarrik zen arren.

²⁶ Datuak 5 etxebizitzatik gorako sustapenak dituzten 156 sustatzaileari eta higiezinaren 176 agentziari egindako inkesta baten bitartez jaso ziren 2011n laginaren tamaina handitu da. Beraz, ez da eskaintza guztia ageri. Inkesta honen emaitzen alderdirik interesgarriena, datu absolutuak baino, bilakaera da.

Prezioei dagokionez, salgai dauden etxebizitza libreen (berrien nahiz erabili) batez besteko prezioa m²-ko 3.226 eurotik gorakoa da; horrenbestez, %10,3 jaitsi da 2012ko batez bestekoaren aldean; aurreko urtean %6,1 jaitsi zen. Etxebizitza berrien merkatuari dagokionez, prezioak % 6,8 jaitsi dira; bestalde, bigarren eskuko etxebizitzarenak % 11 jaitsi dira. Bestalde, etxebizitza babestu berriaren batez besteko prezioa % 2,5 igo da azken urtean. Alokairu libreko batez besteko errenta, ordea, % 3,6 jaitsi da (prezio horiek metro karratuko eurotan adierazi dira).

Bestetik, babestutako etxebizitzaren alokairuko batez besteko errenta 295,6 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %14,3 gutxiago.

Azkenik, nabarmentzekoa da higiezin enpresek etxebizitza saltzeko beharrezko batez besteko denbora 10 hilekoa dela 2013an, aurreko urtean baino bat gutxiago, eta oso urruti 2008ko (8,5 hilabete) eta 2009ko (8,6) batez besteko epeetatik.

4.2.1. Salgai dauden etxebizitzaren eskaintza eta prezioak


(a) Etxebizitza berria

Lehenik eta behin, etxebizitza aske eta eraiki berri salgaiaren eskaintza, 2013ko laugarren hiruhilekoan, 4.266 alera iritsi da, 2012an baino %25,7 gutxiago. Ondoko banaketa dauka lurraldez lurralde: Bizkaiak %49,8 hartzen ditu, Gipuzkoak %36,7 eta Arabak gainerako %13,5a.

Etxebizitza eraiki berri libreen batez besteko prezioa 3.486,2 €/m² da 2013ko laugarren hiruhilekoan, 2012ko batez bestekoa baino % 6,8 gutxiago. Lurralde lurraldeko azterketaren arabera, batez bestekorik txikiena Araban dago (3.062,5 €/m²); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.569,3 €/m² eta 3.523,3 €/m², hurrenez hurren. Kopuru absolutuetan, Araban dago atzeraldirik handiena, %10,6, eta ondoren Bizkaia (-%7,2) eta Gipuzkoa (-%4,3) datoz.


Babestutako merkatuari dagokionez, gogora ekarri behar dugu 2006an salgai zeuden gizarte etxebizitzaren eskaintza desagertu zela; etxebizitza horiek alokairurako soilik hasi ziren eskaintzen. 2013ko laugarren hiruhilekoan, BOEren eskaintza 3.860 unitatera iritsi da²⁷, aurreko urtean baino % 7,7 gutxiago, izan ere, aurreko urtean 4.100 etxebizitza baino gehiago izan ziren.

III.4.3. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BERRI SALGAIAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. OFIN.

III.4.4. GRAFIKOA. EAE-KO SALMENTARAKO ETA ALOKAIRURAKO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika. (*) 2006an desagertu zen modalitate hori.

²⁷ 2006tik hasita, BOE ez bestelako etxebizitza babestu motak agertu ziren merkatuan hala nola zuzkidura-ostatuak eta udal etxebizitza tasak. Babes publikoko etxebizitza mota berri horri buruzko informazio gutxi dago, urtean hasitako etxebizitza kopurua baino ez (ikus kapitulu honetako 4.2.4. atala); Higiezinaren Eskaintzaren Inkestak salgai dauden BOEei eta alokairuan eskainitako BOE eta etxebizitza sozialei buruzko informazioa ematen jarraitzen du.

Saltzeko eskainitako BOEn batez besteko prezioa 1.625 /m² zen 2013an, hain zuzen ere aurreko urtean baino %2,5 gehiago. Lurralde historikoen arabera ez dago ia ezberdintasunik: Bizkaian dago preziorik handiena (1.692,5 €/m²), ondoren Gipuzkoa (1.636,7 €/m²). Bietan antzekoa da bilakaera, zeren eta prezioa %4 hazi bati lehenengoan eta %3,9 bigarrean. Arabak, berriz, batez besteko prezio txikiagoa du (1.502,4 €/m²) eta, gainera, beharoko bilakaera dauka; izan ere, batez besteko %1,5 jaitsi da.

Bestalde, 2007. urtearen amaieraz geroztik, oso bolumen txikietan bada ere, babes erregimenen bat daukaten bestelako etxebizitza tipologiak hasi ziren agertzen: babes ofizialeko etxebizitza tasatuak eta udal etxebizitza tasatuak. Etxebizitza horiek etxebizitza babestuak baino zerbait garestiago eskaintzen dira, baina etxebizitza librearen preziora iritsi gabe. Ez dago haien prezioen informazio zehatz eguneraturik.

(b) Etxebizitza erabilia

III.4.6. KOADROA. EAEko ETXEBIZITZA SALGAIEN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA. €/M² ERABILGARRI.

	ETXEBIZITZA LIBREA				ETXEBIZITZA BABESTUA
	LIBREAK, GUZTIRA*	ERABILIA	BERRIA	ETXEBIZ. MOTA	
2007	4.286,0	4.356,4	4.113,2	3.221,4	1.322,9
2008	4.160,4	4.199,0	4.053,8	3.428,4	1.372,0
2009	3.846,6	3.778,9	4.032,5	3.338,1	1.468,9
2010	3.888,3	3.891,0	3.877,4	3.496,2	1.474,3
2011	3.830,3	3.841,6	3.769,5	3.447,7	1.532,2
2012	3.595,8	3.564,7	3.742,1	3.378,1	1.585,4
2013 I	3.478,8	3.430,2	3.697,9	3.313,8	1.603,6
2013 II	3.392,8	3.337,2	3.640,0	3.257,3	1.620,3
2013 III	3.300,2	3.243,1	3.559,9	3.181,2	1.624,6
2013 IV	3.226,4	3.173,7	3.486,2	3.095,1	1.625,0

* Etxebizitza berrien eta erabilien batez besteko prezioa.
Oharra: Datuak 4 ordenako batez besteko mugikorren bidez azaltzen dira.
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Eskaintzaren Estatistika.

III.4.7. KOADROA. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA ERABILIAK, BATEZ BESTEKO PREZIOAK M² ERABILGARRI BAKOITZEKO (€) ETA BATEZ BESTEKO PREZIOAK (MILAKA €-TAN), LURRALDEEN ARABERA.

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Kop.	Prezioa: m ²	Prezioa / Etxeb.	Kop.	Prezioa: m ²	Prezioa/ etxeb.	Kop.	Prezioa: m ²	Prezioa/ etxeb.	Kop.	Prezioa: m ²	Prezioa/ etxeb.
2007	10.630	4.356,4	350,7	3.031	3.834,6	311,4	6.067	4.490,9	357,3	1.533	4.847,1	404,4
2008	13.395	4.199,0	339,5	4.366	3.591,2	290,3	6.906	4.393,7	352,4	2.123	4.809,0	398,4
2009	14.053	3.778,9	310,1	4.009	3.550,0	295,2	7.378	3.581,7	294,1	2.666	4.686,4	374,3
2010	18.184	3.891,0	330,3	4.526	3.368,2	272,7	9.085	3.752,3	325,6	4.574	4.685,5	398,5
2011	29.882	3.841,6	340,2	5.500	3.232,8	269,1	16.006	3.766,4	344,3	8.376	4.395,3	379,4
2012	26.985	3.564,7	309,5	4.571	2.960,7	242,2	16.626	3.600,3	314,2	5.788	3.966,0	352,4
2013 I	27.357	3.430,2	297,1	4.728	2.902,3	238,6	16.717	3.447,0	300,7	5.912	3.841,9	338,0
2013 II	26.710	3.337,2	286,9	4.793	2.840,4	233,3	16.257	3.370,7	292,4	5.660	3.696,9	321,1
2013 III	25.554	3.243,1	278,2	4.771	2.774,8	226,0	15.283	3.288,3	287,2	5.501	3.560,4	303,8
2013 IV	23.636	3.171,7	271,8	4.672	2.713,2	220,8	13.688	3.243,3	285,2	5.276	3.420,7	286,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Eskaintzaren Estatistika.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren datuetan ikusten dugu 2013an guztira bigarren eskuko 23.636 etxebizitza eskaintzen zirela, hau da, aurreko urtean (2012an ere %9,7 jaitsi zen) baino % 12,4 gutxiago. Etxebizitza horiek ondoko banaketa daukate lurraldez lurralde: Bizkaiak %57,9 hartzen ditu, Gipuzkoak %22,3 eta Arabak gainerako %19a.

EAEko bigarren eskuko etxebizitza salgaien batez besteko prezioa 3.171,7 /m²koa zen 2013an, hau da, aurreko urtean erregistratutako batez bestekoa baino % 11 gutxiago. Lurralde, Gipuzkoan jaitsi dira prezioak batez bestekoaren gainetik (%13,7); Araban eta Bizkaian, berriz, %8,4 eta %9,9 murriztu dira, hurrenez hurren. Horren ondorioz, prezioak Gipuzkoako 3.420,7 /m²-ren eta Arabako 2.713,2 /m²-ren artean daude, eta Bizkaia tartean geratzen da, batez beste 3.243,3 /m²-rekin. Etxebizitza bakoitzeko prezioetan, EAEko batezbestekoa 271.800 eurokoa da etxebizitza bakoitzeko; Gipuzkoan, berriz, 286.500 eurokoa eta Araban 220.800 eurokoa. Bizkaia beste bien artean dago berriro ere: 285.200 euro etxebizitza bakoitzeko

4.2.2. Alokairu araubidea

2013ko laugarren hiruhilekoari buruzko higiezin eskaintzaren inkestaren arabera, 2.267 etxebizitza eskaini ziren alokairurako, aurreko urtean baino %14,1 gutxiago. Libreei dagokienez (eskaintzaren % 89,3) % 0,5 handitu da: 2.013

etxebizitzatik 2.204 etxebizitzara; alokairuko etxebizitza babestuek, aldiz, % 23,8 egin dute behera. Beraz, babesturiko alokairuak behera egin du 2012ko % 23,8tik 2013ko % 10,7ra.

EAEko alokairuko babestutako etxebizitzaren batez besteko errenta, 2013an, 295,6 euro zen hilean, aurreko urtean baino % 14,3 gutxiago.

Bestetik, 2013ko laugarren hiruhilekoan alokairurako eskaintako etxebizitza librean lagina, esan dugunez, 2.024 unitatekoa zen. Lurralde banaketa honelakoa da: Bizkaian %70,8, Araban %12,4 eta gainerako %16,8 Gipuzkoan.

Batez bestez, partikularrenak diren eta higiezin-jabetzaren agenteen bidez alokatzeko eskaintzen diren etxebizitzek hilean 825,4 euroko errenta daukate 2013an, aurreko urtean baino %3,6 gutxiago beraz. Lurralde historikoen arabera, Bizkaia dauka preziorik garestiena (838,8 hilean); gero Gipuzkoak, 821,6 hilean eta azkenik Arabak (743,9 hilean). Bilakaeraren analisiak murrizketa txikiagoa agertu du Bizkaian (% -3,1), eta Arabakoa eta Gipuzkoako batezbestekoa baino handiagoa izan da: etxebizitza librean alokairuko batez besteko errenta % 6,6 murriztu da.

4.2.3. Etxebizitzaren prezioen erkaketa, autonomia erkidegoen arabera

INE 2008an hasi zen "Etxebizitzaren Prezioen Indizea" (EPI) egiten. Hiru hilean behingo adierazle horrek, 2007ko oinarriarekin, prezio libreko etxebizitzaren (berriak nahiz bigarren eskukoak) salerosketa prezioen mailaren bilakaera neurtu nahi du denboran. EPI Europar Batasunaren estatistika harmonizatuen produkzioaren eremuan planteatutako informazio eskaerari dagokio; beraz, haren helburuetako bat estatu kideak alderatzeko tresna izatea da, etxebizitza librearen prezioen bilakaerari dagokionez. Horren eremutik kanpo daude, hortaz, etxebizitza babestuek, haien prezioak araututa daudelako eta ez direlako merkatuaren ohiko mekanismoen bidez arautzen

III.4.8. KOADROA. EAEko ALOKAIRUKO ETXEBIZITZEN ESKAINTZAKO ETXEBIZITZEN ERRENTAREN BILAKAERA. (€/hilean).

	MERKATU BABESTUA			MERKATU LIBREA
	BOE	SOZIALAK	GUZTIRA	
2007	325,3	131,7	194,1	890,2
2008	380,3	118,0	233,8	968,9
2009	325,0	121,4	219,8	875,3
2010	277,0	122,7	204,0	921,5
2011	331,8	134,6	279,2	896,3
2012	:	:	345,1	856,0
2013	:	:	295,6	825,4


Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Eskaintzaren Estatistika.

III.4.9. KOADROA. ESKAINTZEN DIREN ALOKAIRUKO ETXEBIZITZA LIBREK ETA HILEKO BATEZ BESTEKO ERRENTA. €.

	Etxebizitzak				Hileko errenta (€)			
	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2007	485	181	212	92	890,2	908,5	875,4	901,5
2008	603	227	247	130	968,9	895,0	968,8	1.086,5
2009	1.000	395	387	218	875,3	836,7	881,0	941,1
2010	1.215	226	767	222	921,5	827,6	923,8	1.004,9
2011	1.602	413	797	392	896,3	830,7	882,3	993,8
2012	2.013	322	1.233	448	856,0	790,3	865,8	879,7
2013	2.024	251	1.433	340	825,4	743,9	838,8	821,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Eskaintzaren Estatistika.

III.4.5. GRAFIKOA. ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAREN ESKAINTZAREN ETA ALOKAIRU LIBREKO BATEZ BESTEKO HILEKO ERRENTAREN BILAKAERA (€)



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistika.

EPIk Notariotzaren Kontseilu Nagusiak Ziurtapeneko Notariotza Agentziaren bidez emandako datu-baseetatik datorren informazioa erabiltzen du. Administrazio erregistroak erabiltzeak ahalbideratzen du, batetik, biztanleria osoaren informazio osoa edukitzea. Horrela, ez dago laginketa-teknikarik erabili beharrik; bestetik, salerosketako eragiketa ororen informazioa, sortzen den unean, indizearen kalkuluan sartzea ahalbideratzen du, eta hori funtsezkoa da koiuntura-adierazlea izan nahi duen indize batentzat.

Emaitzek erakusten dutenez, 2008an eta 2009an gertatu zen etxebizitzaren batez besteko prezioen jaitsiera orokorra 2010ean baretu zen, eta, horren ostean, oro har, 2012an erkidego gehienetan jaitsiera handiak egon dira, erkidego askotan % 12tik gorakoak. Azkenik, beherako joeraren jarraitu du 2013an, baina intentsitate desberdinekin. Izan ere, prezioen jaitsiera txikiena izan duten autonomietako bat da EAE. Ildo horretan, Euskadiko jaitsiera (-%5,3) estatuko batez besteko baino txikiagoa da (-%7,8); aurreko urtean, berriz, jaitsiera handiagoa izan zen (-%13,3 eta -%12,8).

Gure erkidegoak urte arteko %5,3ko jaitsierarekin bukatu du 2013. urtea; Estatuko batez bestekoa, berriz, -%7,8 da. Autonomi erkidegoen arabera, urtean pilatu ziren prezioen beherakadarik handienak Extremaduran (%-15,73) eta Gaztela-Mantxan (%-14,9) izan ziren. Beste muturrean, Balearrak eta Kantabria dira prezioen jaitsiera txikiena izan dutenak, %3,7 eta %4,6 hurrenez hurren.

III.4.10. KOADROA. ETXEBIZITZAREN PREZIOEN INDIZEA: LAU HIRUHILEKOEN URTEKO ALDAKUNTZA TASA.

	2010	2011	2012	2013
ESTATUKO B.B.	-1,9	-11,2	-12,8	-7,8
ANDALUZIA	-2,1	-8,4	-11,5	-6,3
ARAGOI	-4,3	-12,5	-11,8	-12,5
ASTURIAS	-1,0	-10,5	-12,4	-11,5
BALEAR, ILLES	-1,3	-9,8	-11,4	-3,7
KANARIAK	-3,2	-7,7	-13,3	-6,8
KANTABRIA	-7,2	-11,6	-12,7	-4,6
GAZTELA ETA LEON	-1,3	-10,5	-12,4	-13,2
G. MANTXA	-0,8	-8,8	-11,2	-14,9
KATALUNIA	-2,8	-14,3	-14,3	-7,2
VALENTZIAKO E.	-3,3	-9,8	-14,0	-6,4
EXTREMADURA	1,7	-8,0	-8,6	-15,7
GALIZIA	-1,4	-7,9	-12,6	-10,9
MADRIL	1,7	-15,7	-13,1	-6,5
MURTZIA	-2,6	-7,1	-11,5	-13,8
NAFARROA	-5,9	-10,9	-11,0	-13,2
EAE	-1,4	-12,2	-13,3	-5,3
ERRIOXA	-6,2	-14,2	-13,8	-11,6
CEUTA	-2,6	-12,9	-9,1	-5,9
MELILLA	-1,1	-14,2	-9,3	-10,2

Iturria: INE. EPI.

4.2.4. Eraikuntza eta etxebizitza jarduera

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak erakusten duenez, EAEn **hasitako etxebizitzen** kopurua, 2008an eta 2009an nabarmen behera egin ondoren, zeinu positiboa hartu zuen 2010ean, eta %6,9 hazi zen. Bilakaera berdina errepikatu zen 2011n, %24 hazita. 2012an (eskuragarri dugun azken datua), ordea, %45,2 egin du behera hasitako etxebizitzen kopurua (5.123) aurreko urtearen aldean. Hasitako etxebizitzetatik, %52,8 libreak ziren eta %47,2 babestuak. 2013ko datuei dagokienez, hasitako etxebizitza babestuen zifrak badakizkigu (ez da merkatu libreko informaziorik): 2.032 hasi ziren guztira, 2012an baino %16 gutxiago.

III.4.11. KOADROA. ERAIKUNTZA JARDUERA EAEn: HASITAKO ETA AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK.

		2009	2010	2011	2012	2013
HASITAKO ETXEBIZITZAK	LIBREAK	3.855	2.572	4.804	2.703	:
	BABESTUAK*	3.196	4.966	4.540	2.420	2.032
	GUZTIRA	7.051	7.538	9.344	5.123	:
AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK	LIBREAK	8.782	6.409	5.851	4.757	3.994
	BABESTUAK	4.672	4.991	5.473	3.835	1.842
	GUZTIRA	13.454	11.400	11.324	8.592	5.836

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.


* Etxebizitza babestuen figura berriak sartzen dira hemen.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Plana 2006-2009 abian jarri zenetik, etxebizitza babestuen merkatuan figura berriak sortu dira. Horrek ekarri du, oraingoz, dotazio alojamenduak eraikitzen hastea 2006az geroztik, 2007az geroztik udal etxebizitza tasatuak (saltzeko eta alokatzeko) eta 2009az geroztik etxebizitza autonomiko tasatuak. Aldi horretan 712

dotazio alojamendu, alokairuko 100 udal etxebizitza tasatu eta salmentako 2.248 etxebizitza eta Eusko Jaurlaritzaren 752 etxebizitza tasatu eraikitzen hasi dira, guztira.

Bestalde, EAEn 2013an **amaitutako etxebizitzak** 5.836 izan dira, aurreko urtean baino % 32,1 gutxiago, amaitutako etxebizitzaren (% -18,) eta etxebizitza babestuen (%-52) beherakadaren ondorioz.

III.4.6. GRAFIKOA. BABESTURIKO ETXEBIZITZAREN ERAIKUNTZAREN BILAKAERA LURRALDEKA. HASITAKO ETXEBIZITZAK.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.

Horrez gain, 2013ko datuek agertu dute etxebizitza babestuek EAeko eraikuntza jardueran duten partaidetza urte horretan murriztu dela, amaitutako etxebizitzaren artean etxebizitza babestuen pisua % 44,6tik % 31,6raino jaitsi baita, horiek sektore pribatukoak baino neurri handiagoan murriztu direlako

Bestalde, Euskadiko Etxebizitzaren Behatokiak 2013ko bere laugarren hiruhilekoaren "Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko azterlanak" nabarmentzen duenez, joera aldaketa dago eraikuntza obren tipologian, zaharberritzeko gero eta joera handiagoa erakutsita. Hala ikusi izan da krisia hasi zenetik.

2013an, EAeko udalek, guztira, **obra nagusiko 2.145 lizentzia** eman zituzten (eraikuntza berriko, zaharberrikuntzako eta eraispenerako lizentziak batuta), 2012an baino %9,9 gutxiago. Lurralde lurralde, Arabako eta Gipuzkoako jaitsierak nabarmentzen dira bereziki, %14,4 eta %12,1 hurrenez hurren. Bizkaian, berriz, batez bestekoa baino txikiagoa da jaitsiera (-%5,8).

2013ko 2.145 lizentzietatik, %16,4 eraikuntza berriko lizentzietatik dagokie, %2,2 eraispenerako lizentzietatik eta horietatik %81,4raino eraikinak zaharberritzeko dira, hots, 10etik 8.

Krisia hasi zenetik gertaturiko kontuan hartzen badugu, 2007-2013ko epealdian, %38,3 jaitsi da obra nagusiko lizentzien guztizko kopurua, eta eraikuntza berriak egiteko lizentzien beherakada nabarmentzen da: %74,9. Bigarren tokian, berriz, eraispenerakoak daude, %50 jaitsita. Zaharberrikuntzako lizentziak, berriz, neurri txikiagoak murriztu dira: %11,8.

III.4.12. KOADROA. EAEn HASITAKO ETXEBIZITZA BABESTUEN BILAKAERA, TIPOLOGIAREN ARABERA.

	EJren kalifikazioaren pean daudenak			EJren kalifikazioaz kanpokoak			GUZTIRA
	BOE	Sozialak	Tasatuak	Ostatu dotazioak	Udal etxebizitza tasatuak		
					Alokairua	Jabetza	
2007	5.302	590	-	361	100	957	7.310
2008	4.793	847	-	103	-	516	6.259
2009	2.939	91	37	-	-	129	3.196
2010	3.756	846	14	-	-	350	4.966
2011	3.663	391	136	110	-	240	4.540
2012	1.961	60	304	91	-	4	2.420
2013	1.519	153	261	47	-	52	2.032

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin eginikoa. Etxebizitzaren Behatokia.

III.4.13. KOADROA. EAE-KO OBRA NAGUSIKO LIZENTZIEN KOPURUAREN BILAKAERA, TIPOLOGIAREN ARABERA

	GUZTIRA	ERAIKUNTZA BERRIA	ZAHARBERRIKUNTZA	ERAISPENA
2005	3.706	1.570	2.025	111
2006	3.618	1.654	1.862	102
2007	3.474	1.399	1.979	96
2008	3.133	1.024	2.019	90
2009	2.034	578	1.407	49
2010	2.602	675	1.863	64
2011	2.883	660	2.174	49
2012	2.380	447	1.909	24
2013	2.145	351	1.746	48

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko azterlanak.

4.3 ETXEBIZITZAREN ESKARIA

4.3.1 Etxebizitzaren beharra eta eskaria²⁸

III.4.14. KOADROA. FAMILIAK, ETXEBIZITZA BEHARRAREN ARABERA ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2007-2010.

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Esk. (1)	Aldak.	Zaharberrik.	Esk.	Aldak.	Zaharberrik.	Esk.	Aldak.	Zaharberrik.	Esk.	Aldak.	Zaharberrik.
2008	74.461	40.894	128.669	10.992	6.813	18.231	39.052	21.714	71.544	24.417	12.367	38.893
2009	110.677	56.652	142.099	11.476	7.676	8.174	66.418	37.936	91.995	32.783	11.040	41.930
2010	97.800	56.397	80.969	15.246	8.512	12.785	54.157	27.294	40.942	28.397	20.591	27.242
2011	76.360	38.048	75.342	8.306	6.601	7.829	21.246	22.230	38.649	46.808	9.218	28.864

INDIZEAK. DATUAK, EHUNEKOTAN, ETXEBIZITZA KOPURUARI BURUZ:

	EAE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Esk. (1)	Aldak.	Zaharberrik.	Esk.	Aldak.	Zaharberrik.	Esk.	Aldak.	Zaharberrik.	Esk.	Aldak.	Zaharberrik.
2008	8,60	4,93	15,52	9,25	5,73	15,34	8,77	4,88	16,07	9,21	4,66	14,66
2009	13,20	6,73	16,89	9,30	6,22	56,63	14,80	8,46	20,51	12,20	4,09	15,55
2010	11,70	6,73	9,66	12,30	6,89	10,34	12,10	6,11	9,17	10,60	7,68	10,16
2011	9,00	4,50	8,91	6,60	5,20	6,17	7,80	4,90	8,52	10,40	3,40	10,65

(1) Eskuratzeko kasuetan, 18 eta 44 urte arteko pertsonak eskatzen dituzten etxebizitzak hartu ditugu kontuan.
Iturria: EUSKO JAULARITZAREN datuekin eginikoa. Etxebizitzaren Beharraren eta Eskariaren Inkesta.

Eusko Jaurlaritzak 2011. urtean egin zuen "EAEko Etxebizitzaren Beharraren eta Eskariaren Oinarrizko Inkestaren" (EBEI)²⁹ emaitzen arabera, erreferentziako urtean % 9 ziren lehenengo etxebizitza eskuratu behar zuten pertsonak. Kopuru absolutuetan zenbatesten dugu beharrizan hori adierazten duten pertsonen kopurua 76.360 familiaraino iristen dela, hau da, aurreko urtean baino % 21,9 gutxiago. Era berean, inkestak erakusten du EAEko familien % 4,5ek ohiko etxebizitza aldatu beharra dutela, hau da, 38.048 etxebizitza behar direla (% -32,5 2010eko datuen aldean).


Bestalde, inkestak erakusten du etxebizitzak zaharberritu beharra daukaten familien proportzioa 2011n % 9,66tik % 8,91ra jaitsi zela, hau da, 75.342 familia (2010ean baino % 6,9 gutxiago).

4.3.2. Familien finantza-ahalegina

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak erakutsi du, Higiezin Erregistro Estatistikako datuak erabilita³⁰, finantza-ahalegin hori hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arteko harremanaren ikuspuntutik aztertuz gero, % 28,54koa izan dela 2013ko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko urtean baino 4,36 puntu portzentual gutxiago ditu.

Estatu osoari dagokionez, ibilbidea, berriz, goranzkoa da, zeren eta ahalegin hori 2013ko amaieran soldaketen batez besteko kostuaren %31,79 da (2012ko laugarren hiruhilekoaren %30,01aren aurrean).

III.4.7. GRAFIKOA. BATEZ BESTEKO HILEKO HIPOTEKA KUOTAREN ETA EAE.KO ETA ESTATUKO SOLDATEN KOSTUAREN ARTEKO ERLAZIOAREN BILAKAERA. DATUAK %ETAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA, Higiezin Erregistroko Estatistikaren datuekin eginikoa.

²⁸ Inkesta honen emaitzei buruzko informazio zabalagoa izateko, Memoria honen 2012ko ediziora jo beza irakurleak; informazio hori ezin izan da eguneratu.

²⁹ EBEI. Inkesta hau 1994. urteaz geroztik urtero egiten da, EAEko 3.200 familia esanguratsutan..

³⁰ Espainiako Jabetza, Ondasun Higiezin eta Merkataritza Erregistratzaileek eginikoa.%11

Ildo horretan, Euskadiko EGABk bere ekimeneko azterlana onetsi zuen 2014ko hasieran, "Familien gainzorpetzea, EAEko azterketa bat" izenburupean, hipoteka kostuak gure erkidegoko familietan duen eragina erakusten du. EAE-Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioaren Kontsumitzailearen egoeraren txostenaren datuak ikusita, euskal familien heren batek indarreko mailegua edota kreditua du.

Azterturiko epealdia aintzat hartuta (2006-2011), bi alditan (2006-2008 eta 2009-2011), batez besteko datuek erakusten dute zor horren zati handi bat hipoteka-maileguan metatzen dela bialdi horietan; jaitsiera izan da beste mailegu mota batzuetan (autoak erostea, ospakizunak...), baina igoera gertatu da indarreko hipoteka-kreditua duten familien ehunekoan. Gauzak horrela, 2009-2011ko epealdian mailegu edo kredituren bat izan duten familien ratioa %34,4 da (%33,8 2006 eta 2008 bitartean), eta horietatik %29,3k hipoteka-kreditua du (%27,9 aurreko epealdian).

III.4.15. KOADROA. HIPOTEKA MAILEGUEK ERRENTAN DUTEN ERAGINA: EAE-KO FAMILIEN EHUENKOEK BANAKETA

	BATEZ BEST. 2006-2008	BATEZ BEST. 2009-2011
FE-REN %10ERAINO	20,2	13,7
FE-REN % 10,1etik %20ra	22,2	25,0
FE-REN %20,1etik %30era	24,6	29,1
FE-REN %30,2tik %40ra	20,6	22,6
FE-REN %40 baino gehiago	12,4	8,7
FAMILIAK, GUZTIRA	100,0	100,0

Iturria: Euskadiko EGAB, EAE-Nafarroako AKFren datuekin.

Zorpetze horrek familientzat dakarren ordainketa-ahaleginari dagokionez, EAEko familien %8,7k sarreraren %40 baino gehiago erabiltzen du etxebizitza finantzatzeko, eta %31,3k horretarako darabil famili errentaren heren bat baino gehiago.

III.4.16. KOADROA. HIPOTEKA-KREDITUAK EDO INDARREKO BESTE MAILEGU BATZUK DITUZTEN EAE-KO FAMILIEN EHUENKOA

	BATEZ BEST. 2006-2008	BATEZ BEST. 2009-2011
KREDITUAK ETA MAILEGUAK, GUZT.	33,8	34,4
HIPOTEKA KREDITUAK	27,9	29,3
BESTE MAILEGU BATZUK	12,3	9,5


Iturria: Euskadiko EGAB, EAE-Nafarroako AKFren datuekin.

4.3.3. ETXEBIDEn erregistraturiko etxebizitza babestuaren eskaria

Euskadiko Etxebizitzaren Behatokiak bere "ETXEBIDEn Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren ebaluazioaren txosten"ean erakusten duenez, egonkortu egin zen 2012an zerbitzu horretan erregistraturiko EAEko etxebizitza babestuaren eskaria, aurreko bi urteetan %5,6 eta 2,9 jaitsi ondoren, hurrenez hurren.

Zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistroak 2012aren amaieran EAE osoan inskribatutako 84.780 eskaera zenbatu zituen, hau da, aurreko urtean baino % 0,5 gehiago, banakako eskaeren kopuruaren jaitsieraren ondorioz (% -1,7), banakako eskaera horiek guztien % 67,5 direla. Izan ere, familia-unitateen eskaeren kopurua % 4,8 gehitu da. Lurralde lurralde, espedienteen % 55,7 Bizkaiari dagokio, % 33 Gipuzkoari eta gainerako % 11,3 Arabari.

III.4.8. GRAFIKOA. ETXEBIDEN INSKRIBATURIKO ESKABIDE-ESPEDIENTEEN BILAKAERA.




Iturria: ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA.

Azterketaren ardatz gisa Etxebiden inskribatuta dauden pertsonen kolektiboaren ezaugarriak hartuta, eta haien diru-sarreraren mailari erreparatuta, egiaztatzen da 2012an inskribatutako pertsonen % 61,2k urtean 22.000 euro gordin baino gutxiagoko familiako diru-sarrerak zituztela, % 16,1ek urtean

22.000 eta 35.000 euro arteko diru-sarrerak zituztela, eta % 2k hortik gorako diru-sarrerak, baina baimenduta dagoen urteko 45.500 euro gordineko gehieneko muga gainditu gabe. Gainera, inskribatutakoen % 20,4k ez zituzten diru-sarrerak egiaztatu. Inskribatutako pertsonen batez besteko diru-sarrera haztatuak 2012an urtean 16.476 euro gordin ziren (% -6,8 2012arekin alderatuta).

III.4.9. GRAFIKOA. ETXEBIDEN INSKRIBATURIKO PERTSONEK ESKATURIKO ETXEBIZITZA MOTAREN BILAKAERA.



Iturria: ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA.

Familia-unitatearen kide kopuruari dagokionez, kide bakar batek osatutako familiak, ugariak izanik ere, gutxitu egin dira apur bat azken hiru urteetan: % 67,5 izan dira 2012an eta % 68,9 aurreko urtean. Bestalde, eskaeren % 15,6 bi lagunek osatu dituzte, eta % 16,8 bi kidek edo gehiagok osatutako familia-unitateak dira.

Etxebizitza babestuaren eskatzaileek nahiago duten etxebizitza motari dagokionez, alokairuko etxebizitzaren eskariak gora egin duela egiaztatu da. Enpleguko ezegonkortasunak eta finantzaketa eskuratzeko prozesua gogortu izanik jabetza eskuratzeko mugatzen dute, eta alokairu araubidea nahiago izatea eragin dute. Hain zuzen ere, 2006an Etxebiden inskribatuta zeudenen % 42,5ek jabetza araubideko etxebizitzak soilik eskatzen zituzten. 2012an, aldiz, proportzio hori guztien % 21,6ra arte murriztu da.

Beste alde batetik, eskatzaileen % 43,6k alokairu araubidea baino ez dute aukeratzeko bere etxebizitza-arazoa konpontzeko (% 23,7 2006an). Era berean, gora egin du jabetza zein alokairua eskatzen dutenen proportzioak, % 34,8 ingururaino (% 33,7 2006an).

III.4.17. KOADROA. ETXEBIDEN INSKRIBATUTAKO BIZTANLEEN EZAUGARRIAK 2009-2011. EHUNEKO BERTIKALAK


	2009	2010	2011	2012
SARRERA MAILA (€)*				
< 3.000	3,0	4,2	4,2	5,7
3.000-9.000	11,4	11,6	12,0	11,9
9.000-12.000	10,3	8,8	9,0	7,7
12.000-22.000	42,5	37,3	40,9	35,9
22.000-28.000	13,7	14,6	10,8	10,7
28.000-35.000	7,3	9,9	5,2	5,4
35.000-45.500	2,1	4,9	2,0	2,3
SARRERAK EGIAZTATU GABE	9,6	8,8	16,0	20,4
ESKATZAILEAK, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
Sarrera haztatuaren batez bestekoa (€)	17.082	18.244	17.670	16.476
FAMILIA UNITATEKO KIDE KOP.				
1	72,5	70,9	68,9	67,5
2	15,6	15,3	15,5	15,6
3	9,9	11,4	13,0	13,9
4 edo gehiago	2,0	2,4	2,7	2,9
ESKATZAILEAK, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

* Diru-sarrerak inskribatu baino lehenagoko bi urtekoak dira.
Iturria: ETXEBIDE. EUSKO JAURLARITZA.

4.4 HIGIEZIN JARDUERA: ETXEBIZITZAREN SALEROSKETA

Gure Erkidegoko etxebizitzaren eskaintza eta eskaria azaldu ondoren, jarraian 2013ko higiezin jardueraren dinamikaren zifra nagusien laburpena egingo da. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiaren etxebizitza politikaren 2013ko ebaluazio txostenaren arabera eta Sustapen Ministerioak Notario Estatistikatik aurrera emandako informazioa erreferentziatzat hartuta, EAEn 2013an notario aurrean egindako etxebizitzaren salerosketen kopuru osoa 10.644 izan zen; horrek % 29ko murrizketa dakar 2012aren aldean (Estatu osoan % -0,5eko murrizketa egon da aldi berean, guztira 329.146 transakzio).

III.4.10. GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREN SALEROSKETAREN BILAKAERA EAE-n, MOTAREN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Sustapen Ministerioaren datuekin eginikoa.

Horietan guztietan emaitza negatiboa izan du transakzio kopuruaren bilakaerak etxebizitza motaren arabera, baina neurri desberdinean: etxebizitza libre berriari dagokionez, 2.313 transakzio gauzatu dira (guztizkoaren %21,7), 2012an baino % 43,7 gutxiago. Dinamika horrek beherakada dakar zazpigarren urtez jarraian, eta beheranzko joera horren intentsitatea nolabait areagotu dela antzeman daiteke 2012aren aldean, urte horretako jaitsiera % 13koa izan baitzen.

Bigarren eskuko etxebizitzaren transakzioen bolumenari dagokionez (transakzioen %65,2 dira), 2013an guztira 6.935 transakzio gauzatu dira, hots, 2012koa baino %6,7 gutxiago. Beraz, ratio negatiboa da, baina %29ko batez bestekoa baino nahikoa txikiagoa, baita aurreko urteko %22,5eko jaitsiera baino txikiagoa ere. Ikusten denez, 2010az gero (urte horretan 23.300 transakzio baino gehiago izan ziren), transakzioen bolumena erdia baino gehiago murriztu da (zehazki %54,4).

Portaera onena etxebizitza babestuen kasuan gertatu da: 2013an, etxebizitzaren 1.396 salerosketa gauzatu dira guztira EAEn, %59,6ko bolumena 2012aren aldean. Hala, etxebizitzaren tarte horrek pisua galdu du transakzioen guztizkoan: 2012ko %23tik 2013ko %13,1era.

Bilakaera horren lurraldekako analisia eginda, nabarmendu behar da EAE osorako ikusitako beheranzko joera hiru lurraldeetan agertzen dela, nahiz eta bakoitzean intentsitate ezberdina izan. Araban ageri da portaera bereziagoa salerosketetan 2012an (informazio eskuragarri dugun azken urtea), zeren eta %2 hazi baitzen gauzaturiko transakzioen kopurua 2011ren aldean. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, jaitsiera handiak izan dira, %23, eta %18,5ekoak hurrenez hurren. Izan ere, EAEko batez bestekoa %-17,2 da.

4.5. ETXEBIZITZA HUTSA EAE-N. 2013KO DATUAK.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak EAeko etxebizitza hutsten kuantifikazioari eta ezaugarriei buruzko bi urteko inkesta egiten du 1997tik, eta haren azken datuak 2013ari dagozkie. Ikerketa horren arabera, EAEn kokatutako

III.4.18 KOADROA. EAE-KO ETXEBIZITZA-PARKEAREN BANAKETA MOTAREN ARABERA. 2013.

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	KOP.	ETX. %	KOP.	ETX. %	KOP.	ETX. %	KOP.	ETX. %
GUZTIRA	1.041.959	100,0	166.680	100,0	536.556	100,0	338.723	100,0
HARTUAK	950.951	91,3	147.260	88,3	499.006	93,0	304.685	90,0
HUTSAK	91.008	8,7	19.420	11,7	37.550	7,0	34.038	10,0
- Denboraldia	28.988	2,8	7.527	4,5	10.855	2,0	10.607	3,1
- Jenderik gabekoak	62.020	6,0	11.893	7,1	26.695	5,0	23.431	6,9

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA. Geuk eginikoa.

etxebizitzaren % 8,7 hutsik egon dira 2013an (% 8,4 2011n): 91.0800 etxebizitza, guztira. Haietatik, %31,9 (28.988) sasoiko etxebizitzatzat jotzen dira eta %68,1etan (62.020) ez da inor bizi. Lurralde lurralde, Arabari dagokio etxebizitza hutsen gaineko denboraldiko etxebizitzaren pisurik handiena (%38,8), ondoren Gipuzkoari (%31,2) eta Bizkaia (etxebizitza hutsen %28,9).

Gure Erkidegoko etxebizitza hutsen portzentajearen bilakaera ikusteko, arreta jarri behar dugu "hiriko errolda sekzioak" (% 10etik beherako biztanleria sakabanatua dutenak) izenekoetan dauden etxebizitzetan, horixe baita 2009ko inkestaren aurreko eragiketetan aztertutako aldagaia. Adierazle horren arabera, 2013ko etxebizitza hutsen ratioa % 7,9koa da, 2011ko % 7,6aren, 2009ko % 6,9aren eta 2007ko %4,9ren aurrean, grafikoan islatu bezala. Gipuzkoan eredia irregularragoa bada ere, oro har joera EAE osoan errepikatzen da: etxebizitza hutsaren pisua jaitsi zen 2007ra arte (Arabaren lehenago geldotu zen), eta harrezkero berriro handitu da.


Lurraldeka, Arabak, 19.420 etxebizitza huts izanda, guztien % 21,3 pilotzen ditu, lurralde horretako etxebizitza parkearen % 11,7, hain zuzen ere. Gipuzkoan, bestalde, 33.844 etxebizitza huts zenbatu dira, EAEko etxebizitza hutsen % 37,4 eta lurralde horretako etxebizitzaren % 10. Azkenik, Bizkaian 37.550 etxebizitza huts daude, EAEko etxebizitza huts guztien %41,3 eta lurralde horretako etxebizitzaren %7.

Udalen tamainari dagokionez, etxebizitza hutsen portzentajea % 22,5koa da 2.500 biztanletik beherako udalerrietan. Ratioa % 13,1ekoa da 2.500 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan eta % 9,1ekoa 10.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan. 20.000 eta 40.000 biztanle arteko udalerrietan etxebizitzaren % 7,8 hutsik daude, eta 40.000 eta 100.000 biztanle artekoetan % 6,4. Amaitzeko, 100.000 biztanletik gorako udalerrietan, hau da, hiru lurraldeetako hiriburuetan, etxebizitza hutsen ratioa % 5,2koa da.

Etxebizitza huts horien jabeen jabetzaren helburuaz galdetuta eta sasoiko edo bigarren bizilekuaren pisua kenduta, EAE osoan portzentajerik handienak "salerosketak" (% 34), "seme-alabentzako gordetzeak" (% 27) eta "inbertsioak" (% 20) daukate; azken posizioan "errentak sortzeko" helburua (% 19) dago. Araban salerosketa % 45 eta Gipuzkoan % 42 da; Bizkaian, berriz, arrazoi ohikoena (% 39) "seme-alabentzako gordetzea".

Etxebizitza hutsen egiturazko ezaugarriak dagokienez, etxebizitza huts gehienek (guztien % 37,3) 75 eta 100 m² arteko azalera erabilgarria daukate 2013an; horien atzean 50 eta 75 m² artekoak daude (% 37,2), azken urteotan joera horri eutsi zaiola. 2013ko datuak eta aurreko urteetakoak erkatuta, ondoriozta daiteke logela gehien (bost edo gehiago) dituzten etxebizitza hutsen portzentajea neurri handian murriztuz joan dela, batez ere 2007tik aurrera 2011ra arte (%8,2), baina %11,8raino egin du gora 2013an.


III.4.10. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA HUTSEN PROPORZIOAREN BILAKAERA* EAEn



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza Saila.

*Hiriko zentsu sekzioak; %10etik behereko populazioa dutenak.

III.4.11. GRAFIKOA. ETXEBIZITZA HUTSAK A. BALIAGARRIAREN (m²) ETA LURRALDEEN ARABERA. 2013.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza Saila.

EAEn omen dauden etxebizitza hutsen % 8,7ari bigarren bizilekutat jotzen diren % 2,8 kenduz gero, beste helburu batzuk dituzten etxebizitzak % 5,9 dira. Etxebizitza horietatik % 1,8 salgai edo alokagai daude. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak “kudeagarri”tzat (etxebizitza hutsa, bigarren bizileku gisa erabiltzen ez bada ere, merkatuan ere salgai edo alokagai ez dagoena) jotzen dituen etxebizitzaren ratioa % 4,1ekoa da, hau da, 42.720 etxebizitza inguru.


4.6. ETXEBIZITZA POLITIKA

4.6.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika

Lehenik eta, behin, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programan betearazitako gastua, azken urteetan nabarmen gehitu ondoren, 2009an gehienekora 207,4 milioi euro iritsi arte, nabarmen murriztu zen 2010ean eta 2011n; bi urteko horretan %40,7ko jaitsiera metatu da.

2012an (datu finkatuak ditugun azken urtea), programaren gastua 146,3 milioi eurokoa da, eta beraz, berriz igo da, hain zuzen %18,9 aurreko ekitaldiaren aldean. Gastu horrek EAEko BPGd-aren %0,23 dakar, eta tasa hori %0,19 jaitsi da aurreko urtean, noiz-eta aurreko urteetan %0,3aren ingurukoa zenean.

III.4.12. GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GASTUAREN BILAKAERA KAPITULUKA. MILIOI EURO.



Iturria. Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.

Etxebizitzaren eraikuntzako zuzeneko inbertsioen bolumenari dagokionez, Etxebizitza Taldeak 2012an eginikoen (Sailak berak eta hari atxikitako sozietate publikoek osatuta dago talde hori, eta 33 milioi euroko inbertsioa egin du, grafikoan ikusten denez) guztira 70,2 milioi euro batu zituzten (%-10,3 2011ren aldean). Izan ere, beste urte batez murriztu da programaren inbertsio izaera, azken urtean guztizko gastuaren %29,7 izanda (2004ra arte, gastuaren %50 baino gehiago zuzeneko inbertsioarako erabiltzen zen).

Alderaketa eginez, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak eginiko azterlanaren arabera, beren aurrekontuetan "etxebizitza" funtziorako zenbatekorik handiena erabiltzen duten autonomia erkidegoen artean dago, kopuru absolutuetan nahi per capita kopuruetan. Euskadin 2013an izan zen aurrekontuen luzapena aintzat hartuta, guztira 153,21 milioi euro erabili ziren "etxebizitza" funtzio horretarako, bigarren zenbatekorik handiena Madrilgo Erkidegoaren ondotik, 206,31 milioi erabiliz etxebizitzarako, eta ondoren Andaluzia, 125,71 milioi euroekin.

III.4.19. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GASTU LIKIDATUAREN BILAKAERA ETA BPGd-AN DUEN PISUA.

	ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GASTUA		EAEko BPGd-a PREZIO ARRUNTETAN		PROGRAMAREN % BPGd-AN
	Milioi Eurotan	Geh. %	Milioi eurotan	Geh. %	
2006	171,6	9,0	61.761	7,8	0,28
2007	188,9	10,1	66.427	7,6	0,28
2008	198,8	5,3	67.924	2,3	0,29
2009	207,4	4,3	64.225	-5,4	0,32
2010	182,5	-12,0	65.419	1,9	0,28
2011	123,0	-32,6	65.684	0,9	0,19
2012	146,3	18,9	64.706	-1,5	0,23

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren eta EUSTATen datuak erabilia egindakoa

Per capita kopuruen arabera, gure Erkidegoak 70,6 euro erabili zituen horretarako biztanleko, bigarren zenbatekorik handiena Nafarroaren ondoren (109,93 euro biztanleko); jarraian, Extremadura dago, 47,01 euro biztanleko.

2010eko ekitaldian Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriak ezarritako ildo estrategikoetarantz zuzendu zen. 2010-2013 aldirako diseinatu zen, eta helburua alokairuko etxebizitzaren parke publikoa handitzea eta hiri zaharberritze eta eraberritze politika berria bultzatzea da, irtenbide eraginkor eta iraunkorra izateko. Halaber, lurra kudeatzeko politika aktiboari eutsi nahi dio, etxebizitza berriaren eraikuntzaren sektorea dinamizatzeko eta lurralde banaketa orekatuagoa lortzeko, hain zuzen etxebizitzaren politika zerbitzurako baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzearen testuinguruan. Kontuan hartzen da, hartara, etxebizitzaren merkatua errotik aldatu dela finantza krisiaren eta higiezin burbuilak eztanda egin izanaren ondorioz. Hori guztia, gainera, ekonomiaren eta enpleguaren egungo krisiaren baitan; izan ere, merkatua nabarmen geldiarazi du krisiak.

III.4.20. KOADROA. ETXEBIZITZAKO GASTUAREN AURREKONTUA, BIZTANLEKO ETA AUTONOMIA ERKIDEGOKA (€).

	2010	2011	2012	2013
ANDALUZIA	50,33	15,79	16,10	14,98
ARAGOI	59,44	43,42	40,20	28,17
ASTURIAS	65,17	68,16	68,42	25,22
BALEAR, ILLES	11,00	17,66	15,94	8,20
KANARIARRAK	59,40	36,10	32,45	23,52
KANTABRIA	55,75	47,47	47,14	32,56
GAZTELA ETA LEON	44,88	38,88	28,41	24,74
GAZTELA MANTXA	65,76	58,17	21,82	22,43
KATALUNIA	45,02	36,93	25,68	26,09
VALENTZIAKO E.	115,39	85,69	65,58	47,01
EXTREMADURA	76,24	46,09	43,48	25,45
GALIZIA	26,00	25,83	10,38	6,97
MADRIL	66,24	50,58	44,96	32,29
MURTZIA	20,53	20,68	13,05	32,40
NAFARROA	411,33	383,69	114,08	109,93
EAE	85,24	78,29	69,86	70,60
ERRIOXA	39,70	26,08	27,78	24,56

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. Ogasun Ministerioaren datuekin egina.

III.4.21. KOADROA. ETXEBIZITZA PLANAREN ERREALIZAZIOAK (URTEKO JARDUKETA KOPURUA)

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Eraikitzen hasi diren etxebizitza babestuak	6.628	7.117	3.196	4.966	4.540	2.420
- Babes ofizialeko etxebizitzak	5.302	4.793	2.939	3.756	3.663	1.961
- Etxebizitza sozialak	590	847	91	846	391	60
- Zuzkidura-ostatuak	361	997	0	0	110	91
- Udal etxebizitza tasatuak	1.057	480	129	350	240	4
- Etxebizitza autonomiko tasatuak	-	-	37	14	136	304
Lurzorua eskuratzea (etxebizitza kopurua)	5.483	3.751	2.971	1.248	677	269
Etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko jarduketak	11.798	16.027	20.534	19.496	16.333	15.529

Iturria: Etxebizitzaren Behatokiko datuekin egina. EUSKO JAURLARITZA.

2012an (datu finkoak dituen azken urtea) egindakoei dagokienez eta arreta batez ere eraikuntzaren helburu orokorretan jarrita, Planak urterako helburu gisa ezarri du babes publikoko 5.050 etxebizitza, guztira, eraikitzea. Horrenbestez, abiarazitako 2.420 etxebizitzek helburu hori gaintzen dute, betetze-maila % 47,9koa dela. Plan Zuzentzailearen lehenbiziko hiru ekitaldietan (2010etik 2012ra) metaturiko azterketari erreparatuta egiazta daitekeenez, emaitza hobeak dira, betetze maila %92,1era iristen baita. Etxebizitzaren norainokoaren arabera, alokairurako etxebizitzak hasteko metaturiko betetze maila %42,9koa da (%5,8 besterik ez 2012an); salmentena, berriz, %116,6koa. Edukitze araubidearen araberrako analisiak alokairu araubideko etxebizitzak sustatzeko egondako zailtasunak erakusten ditu, ezin izan baita helburua lortu; erosketako helburua, aldiz, neurri handian gaintu da.

III.4.22. KOADROA. ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEA 2010-2013AREN AGINTE KOADROA. ETXEBIZITZA BERRIA SUSTATZEKO JARDUKETAK

	2012			2010-2012ko metatua		
	Helburua	Egina	Betetzearen %	Helburua	Egina	Betetzearen %
Integratua	800	1.342	167,8	1.400	4.873	348,1
Bakartua	16.500	14.187	86,0	51.500	46.486	90,3
GUZTIRA	17.300	15.529	89,8	52.900	51.359	97,1

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.

Analisiaren arreta zaharberrikuntza jardueran jarrita, ezarritako helburuak neurri handian bete direla egiaztatu da. Izan ere, 2012an zaharberritutako etxebizitzaren kopurua 15.529 zen, horrek ezarritako helburuaren % 89,8 bete izana dakarrela. 2010-2012rako

III.4.23. KOADROA. 2010-2013KO ETXEBIZITZA PLAN ZUZENTZAILEA. ETXEBIZITZA ESKURATZEAREN ARLOAN EMANDAKO MAILEGUAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

	2010		2011		2012		TOTAL 2010-12	
	Kop.	Miloi €-tan	Kop.	Miloi €-tan	Kop.	Miloi €-tan	Kop.	Miloi €-tan
Sustatzaileak	21	130,35	16	120,41	8	45,73	45	296,49
Zaharberrikuntza	780	6,15	440	3,26	388	2,77	1.608	12,18
BOE eskuratzea	745	78,37	149	14,52	63	2,87	957	95,76
Etxebizitza erabiliak esk.	64	6,61	17	1,90	33	3,43	114	11,94
Alokairurako eskuratzea	8	34,86	5	2,35	11	19,19	24	56,40
Zuzkidura ostatuak	2	6,06	0	0	4	27,15	6	33,21
Lurzoruaren eta urbanizazioaren orokorra	1	25,00	4	1,13	1	13,05	6	39,18
MAILEGUAK, GUZTIRA	1.621	287,39	631	143,57	502	78,95	2.754	509,91
ZAHARBERRIKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZAK	19.497	20,65	16.333	15,76	15.529	16,98	51.359	53,39

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.

metaturikoari dagokionez, betetze maila %97,1ekoa da.


Gainera, zaharberrikuntza integratuko eragiketen edo zaharberrikuntza isolatuen arabera analisiak erakutsi du nabarmen gehiago direla zaharberrikuntza integratuko eragiketak, 2010-2012 hirurtekoako betetze-maila % 348,1ekoa izan dela (4.873 jarduketa, aurreikusitako 1.400 jarduketaren aurrean), zaharberrikuntza isolatuko jarduketak % 90,3 izan direla.

Eskarirako eta eskaintzarako mailegu gisa emandako pizgarrietarako diru-laguntzei dagokienez, laguntza modalitate guztietan jaitziera handia dagoela ikusten da 2012an, eta %45ekoa da laguntza guztien zenbatekoan (guztira 78,95 milioi euro). Sustatzaileentzako maileguak (partida nagusia da) %62 murriztu dira, eta guztira 45,73 milioi euro. Etxebizitza babestuta erosteko maileguetarako funtsak ere nabarmen egin dute behera, batez ere BOEkoek (%-80,2). Beraz, 2010-2012ko hirurtekoan emandako maileguetarako funtsen batura, guztira, 509,91 milioi euro.

Gainera, 2012an, 16,98 milioi euro erabili ziren etxebizitzak zaharberritzeko diru-laguntzetarako (+%7,7 2011koaren aldean), eta eragina du 15.529 etxebizitzetan abiarazitako proiektuetan. 2010-12ko hirurtekoak zaharberritutako 51.000 etxebizitza baino gehiagoko guztizko balantzea ematen du, eta 53,4 milioi euro, berriz, sustapenerako.

Eusko Jaurlaritzako alokairu politikarako erabilitako baliabideei dagokienez, alokairua sustatzeko diru-laguntzen eta Etxebizitza Sailak 2012an onetsitako eta ondorio horretarako erabilitako subsidioen batura 33,11 milioi eurokoa izan da (% +703,6, 2011ren aldean; urte horretan, 4 milioi besterik ez ziren erabili horretarako). Hala, 2010eko funtsen bolumenta berreskuratu eta gainditu egin du, eta hautsi egin da laguntzek desagertzeko joera ematen zuena.

III.4.13. GRAFIKOA. ALOKAIRUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN BILAKAERA. MILIOI EURO.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitza Saila.

Bestalde, EAeko etxebizitza hutsak alokairu babestuan eskainiz erabiltzea sustatzeko helburua duen Etxebizitza Sailaren Bizigune Programaren laguntzek 2012an (eskuragarri dugu azken datua) 23,02 milioi euroko diru-laguntzak izan dituzte (% -0,6, 2011ko datuaren aldean), eta, horren ondorioz, urtearen amaieran erabili diren etxebizitzak 5.103 izan dira (% +6,2).

“Alokabidek” kudeatzen ditu etxebizitza horiek; izan ere, sailaren beraren alokairurako (guztizkoaren %24,4) eta bere etxebizitza-parkeaz gain (%27,7) eta Biziguneren bidez hartutakoez gain (%46,5), EAeko zenbait udalen alokairuko etxebizitza-parkea kudeatzen ditu erakunde horrek (%1,4). 2012an, guztira 11.073 etxebizitza kudeatu zituen, hain zuzen ere aurreko urtean baino %9 gutxiago. Hala, jarduera 2002an hasi zuenetik izan duen gorako ibilbideari eusten dio. Urte hartan alokairuko 230 etxebizitza gestionatu zituen.

III.4.24. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN BIZIGUNE PROGRAMAKO LAGUNTZEN BILAKAERA					
	HARTUTAKO ETXEBIZITZAK	DIRU-LAG. (milioi €-tan)	Euroak/etxebizitza	Ald. %	
2003	531	2,00	3.766,5	-	
2004	1.132	4,50	3.975,3	5,5	
2005	1.908	8,00	4.192,9	5,5	
2006	2.605	10,00	3.838,8	-8,4	
2007	3.446	14,38	4.173,0	8,7	
2008	4.215	21,59	5.122,2	22,7	
2009	4.557	21,19	4.650,0	-9,2	
2010	4.741	22,29	4.701,5	1,1	
2011	4.802	23,15	4.820,9	2,5	
2012	5.102	23,02	4.511,7	-6,4	

Iturria.- EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia

Azkenik, esan behar da Eusko Jaurlaritzak, 2013ko abenduan, Etxebizitza Plan berria onetsi zuela, 2013-2016rako, eta helburu nagusi hau du: “*merkatu librean etxebizitza eskuratzen ez dutenei etxebizitza duina, egokia eta irisgarria eskuratzeko erraztasunak ematea, bereziki*

III.4.25. KOADROA. ETXEBIZITZAREN 2013-2016KO PLAN ZUZENTZAILEA. SAILAREN JARDUKETEN ETA SOZIALATEEN AURREKONTUA*. MILAKA EUROTAN.					
	2013	2014	2015	2016	TOTAL
Alokairuko sustapena	5.391	15.639	45.889	65.842	132.760
Azalera-salmenta eskubidearen sustapena	4.000	11.015	36.545	5.150	56.710
Zaharberrikuntza	17.717	19.760	25.992	30.372	93.841
Lurra eskuratzeko	13.500	13.500	15.000	15.000	57.000
Etxebizitzaren beste jarduketa batzuk	26.159	28.554	30.904	34.455	120.073
GUZTIRA	66.766	88.468	154.330	150.820	460.384

* Hitzartutako gastuak eta langile eta funtzionamendu gastuak sartu gabe.

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.

krisi ekonomikoaren zioz gizarte beharra dutenei, epe ertainerako eta epe luzerako alokairua sustatuz esleipen gisa.

Etxebizitza publikoa lehenesteko era horretan, gehienbat parke eraikian jardungo da, eta hiria birgaitzea, berritzea eta birsortzea sustatuko da, hori guztia etxebizitzaren

III.4.26. KOADROA. 2013-2016KO ETXEBIZITZA PLANA . HELBURU KUANTITATIBO NAGUSIAK.					
	2013	2014	2015	2016	GUZTIRA
ETXEBIZITZA BERRIA SUSTATZEKO JARDUKETAK	1.750	1.850	2.050	2.350	8.000
- Alokairua	550	750	1.100	1.550	3.950
- Salmenta	1.200	1.100	950	800	4.050
ZAHARBERRIKUNTZARAKO LAGUNTZAK	15.580	17.000	19.300	21.600	73.480
LURZORUAREN GUZTIZKO HELBURUA	750	750	750	750	3.000

Iturria: Etxebizitzaren Behatokiaren datuekin eginikoa. EUSKO JAURLARITZA.


sektorean diharduten erakunde eta eragile guztiekin koordinatuz eta adostuz”. Guztira, 460,38 milioi euro ordaintzea aurreikusten da, eta partidarik garrantzitsuenak alokairuko sustapenari (guztizko aurrekontuaren %25) eta zaharberrikuntzari (%21) dagozkie. Ardatz hauen inguruan garatzen da:

- Alokairuko etxebizitza eskuratzeko bultzada handia ematea.
- Lehentasunezko taldeei etxebizitza eskuratzeko erraztea.
- Eraikuntza egokitzeko baliabideak behar berrietara eta sustapenerako beharrezko lurra kudeatzera bideratzea.
- Birgaitzea eredu berri iraunkorra, soziala, ekonomikoa eta Europako jarraibideekiko integratzailea bultzatzea.
- Hutsik dauden etxebizitzak gutxitzea.
- Administrazioen arteko koordinazioa eta kudeaketa.

4.6.2. Foru Aldundietako etxebizitza politika

Eusko Jaurlaritzak garatu duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da gastu fiskalen kopuru handiak ezagutzera, foru aldundiek etxebizitza gaitan eskuhartze publikoa egiteko tresna gisa erabiltzen dituztelako. Horri buruz dauzkagun daturik berrienak 2010eko ekitaldiari buruzkoak dira. Datu horien iturria Eusko Jaurlaritzako Zerga Koordinaziorako Organoaren 2011ko Euskal Ogasunaren urteko txosten integratua da.

III.4.14. GRAFKOA. ETXEBIZITZAGATIKO KENKARIEK PFEZAN DUTEN ZENBATEKOAREN BILAKAERA ETA KENKARI GUZTIEN GAINEKO PISUA.




Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Zerga Koordinaziorako Organoa.

Hiru foru aldundietako PFEZgatikoko likidazioetatik aurrera, ondorioztatu da alokairuko zein inbertsioko ohiko etxebizitzagatikoko kenketen (kuantitatiboki bigarren kenketak % 17,2 dira, familiako kenketen eta kenketa pertsonalen atzean) zenbatekoa 482,1 milioi eurokoa izan dela 2010ean, hau da, aurreko urteko zenbatekoa baino % 2,4 txikiagoa. Horrela, egiaztatu egiten da aurreko ekitaldian abiarazitako beherakadaren joera, 2007aren aldean % 264 murriztu ondoren. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programak urte horretan erabilitako gastuaren % 248koa (182,5 milioi euro) da, aurreko atalean ikusitakoaren arabera.

Kenkari horiek pisu handiagoa daukate errenta ertainetan (oinarri kitagarria), hots, 46.800 eta 49.200 euro artekoetan; haietan kenkari guztien %27,4 dira batez bestez. Errentaren mailak gora egin ahala, kenkarien pisuak behera egiten du.

Lurralde lurralde, kenkari guztien %21,2 izan zen Araban, %16,9 Bizkaian eta %15,7 Gipuzkoan.

III.4.15. GRAFIKOA. PFEZ-AREN KENKARIEN EHUNEKOEN BANAKETA ERRENTA TARTEEN ARABERA*. EAE, 2010.



Iturria: ZERGEN KOORDINAZIORAKO ORGANOA. Urteko txosten integratua 2011.
 * Famili eta norberaren kenkarien banaketa, ohiko etxebizitzaren eta mezenasgoaren arabera, ez kenkari orokorra ez jarduera ekonomikoa sustatzeko kenkaria kontuan hartu barik.

5. AISIALDIA ETA KULTURA

5.1. POPULAZIOAREN OHITURAK

5.1.1. Hedabideen eragina

HIEk (Hedabideak Ikertzeko Elkarteak) 2013. urteari buruzko bere "Espainiako Hedabideen Esparru Orokorra 2014" urteko txostenean emandako datuen arabera, hedabideen³¹ eragina jaitsi egin da egunkarietan, gehigarrietan eta aldizkarietan EAEn, eta gora egin du irratiari, telebistan, zineman eta interneten.

Gauzak horrela, 2012an, telebistaren sarrera % 91,1ea iritsi zen, estatuko % 88,7ko portzentajearen gainetik eta ehuneko 2,1 puntu haziz aurreko ekitaldiaren aldean. Irratiak % 65,8 erregistratu du, estatuko % 61,5eko batez bestekoaren gainetik eta 7 puntu gorantz eginez aurreko urtearekiko. Zinema (azken astean behin gutxienez) %4,6ra iristen da, estatukoaren %3koaren gainetik, eta aurreko ekitaldian baino 1,9 puntu gehiago.

Interneten sarrera-ratioa igo egin da: %44,9tik %53,5era (atzoko eguneko erabilera). Hala ere, Estatuko aurrerapena are handiagoa da, eta Euskadiren gainetik dago sarearen erabileran, 7,8 puntu gehiago. Hala, Interneten erabilera txikiena duen seigarren erkidegoa da EAE.

Egunkariaren sarrera biztanleriaren % 46koa da, estatuko batez bestekoa baino portzentaje altuagoa (% 32,4) eta ehuneko 3,3 puntu gutxiago aurreko urteko ratioaren aldean. Eranskinek sarrera murriztu dute, % 36,5etik 34,3ra, eta estatuko % 14,6ko batez bestekoaren oso gainetik kokatu dira. Aldizkariak % 43,8 hartzen dute, estatuko ratioaren azpitik ehuneko 0,4 puntu eta aurreko aldi baino %0,6 gehiago.

III.5.1. KOADROA. HEDABIDEEN ERAGINA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. (% HORIZ.)

	POPUL. > 14 (MILA)		EGUNKARIAK		GEHIGARRIAK		ALDIZKARIAK		IRRATIA (1)		TELEBISTA (1)		ZINEMA (2)		INTERNET (3)	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
EAE	1.860	1.839	49,3	46,0	36,5	34,3	44,4	43,8	65,1	65,8	89,0	91,1	2,7	4,6	44,9	53,5
Guzt.estatua	39.449	39.331	36,1	32,4	16,2	14,6	45,4	43,4	61,9	61,5	89,1	88,7	3,3	3,0	46,7	61,3
Andaluzia	6.992	7.001	27,6	24,8	8,2	6,2	38,5	35,2	58,7	58,2	88,0	87,2	3,4	3,0	44,6	61,9
Aragoi	1.145	1.139	41,9	35,6	26,5	21,5	53,1	49,2	62,0	62,1	92,9	90,9	3,1	3,5	51,1	48,2
Asturias	946	939	54,1	49,7	24,3	25,5	49,8	47,0	60,8	62,4	89,4	88,9	3,4	2,1	42,4	56,9
Balearrak	932	932	44,8	38,5	24,9	21,6	39,7	41,5	64,0	62,1	82,1	81,1	5,2	4,6	47,2	61,1
Kanariar U.	1.810	1.822	32,5	31,1	12,2	12,9	48,3	45,6	59,5	60,2	90,1	89,9	3,8	2,9	47,0	59,4
Kantabria	507	504	43,8	45,9	21,5	28,6	42,4	40,1	61,6	67,7	90,9	96,4	-	0,6	37,1	83,2
G. eta Leon	2.203	2.184	42,9	38,1	24,1	22,7	54,5	49,8	66,2	63,9	91,4	93,6	2,6	2,5	40,2	63,9
G.-Mantxa	1.757	1.715	25,0	20,4	8,3	7,0	41,0	41,4	59,2	57,5	90,3	87,9	2,1	2,0	39,7	59,7
Katalunia	6.197	6.165	39,0	35,2	15,0	13,6	49,9	51,7	64,7	63,0	87,4	88,6	3,3	3,2	55,5	53,3
Valentzia	4.277	4.268	28,7	26,8	12,7	10,4	43,9	41,8	59,8	60,1	91,7	89,9	4,3	3,4	44,6	61,9
Extremadura	937	936	29,0	24,7	12,6	9,7	36,6	30,4	58,0	63,4	94,4	94,6	2,4	1,2	39,1	42,8
Galizia	2.431	2.414	47,4	45,0	24,7	21,7	45,8	40,9	62,2	63,0	88,0	84,2	3,7	2,0	39,3	53,0
Madril	5.423	5.406	36,0	30,4	15,4	13,0	48,2	45,5	64,1	62,8	87,7	86,9	3,7	3,2	54,1	72,9
Murtzia	1.229	1.231	28,2	24,2	7,8	11,3	43,0	40,9	57,3	60,4	91,9	91,7	2,1	1,6	39,9	78,5
Nafarroa	533	533	50,8	49,8	34,6	33,2	41,1	38,9	66,9	60,7	90,7	90,4	0,9	4,5	43,7	52,5
Errioxa	269	267	50,0	43,1	22,1	26,0	50,9	51,2	62,8	58,5	93,6	87,4	6,5	4,0	39,5	57,5

Populazioa mila pertsonetan. (1)Egunero metaturiko audientzia, (2) Astean behin gutxienez, (3) Atzoko eguneko erabilera.

Iturria: AIMC, Hedabideen Esparru Orokorra, 2013 eta 2014

³¹ Hedabide jakin batek eskuratu duen biztanleria portzentajea da. Hedabidearen arabera, irakurle guztiak, ikusle guztiak, entzule guztiak edo internauta guztiak izango dira.

5.2. KULTUR ETA AISIALDI ESKAINTZA EAE-N

5.2.1. Bisitarien bertaratzea kultura ekipamenduetara

EAE derrigorrean bisitatu behar den tokietako bat bihurtzen ari da nazioarteko testuinguruan, hain zuzen ere dituen kultura ekipamenduen kopuru eta aniztasunagatik. Ekipamendu horiek ondare etnografiko, arkeologiko, bibliografiko eta dokumentalaren adierazpen eskaintza anitzaren bitartez gauzatzen dira, museo, liburutegi eta artxibo aniztasunaren eta aberastasunaren bitartez bezalaxe.

Museoen jarduera adierazletzat hartuta, eta zehazki Lurralde Historikoetako museo nagusien bisitari kopurua, hauxe ikusten da orain ere, BASQUETOURE Eusko Jaurlaritzaren Euskal Turismoaren Agentziaren datuen arabera: Guggenheim museoa da erakargarri nagusia, 1.014.104 bisitariekin 2012an, aurreko urtean baino %5,4 gehiago, eta eutsi egiten zaio 2010ean hasitako joeraren aldaketari, bi ekitaldietan (2008 eta 2009) bertaratzeen kopuruetan jaitsiera txikiak izan ondoren.

III.5.2. KOADROA. BISITARIAK KULTURA EKIPAMENDUETAN IZANDAKO BERTARATZEAREN BILAKAERA EAE-N

	2008	2009	2010	2011	2012	Er. %2010/11	Er. %2011/12
Arabako Arte Ederretako Museoa	13.443	15.917	14.737	22.564	14.791	53,1	-34,4
Artium	104.197	105.232	101.115	d.e	102.506		
Gasteizko Eliz Museoa	32.951	..	35.284	45.110	8.580	27,8	-81,0
BIBAT (Arabako Arkeologi Museoa eta Fournier Naipen Museoa)	29.376	61.406	47.185	45.555	35.817	-3,5	-21,4
Andre Mariaren Katedrala Fundazioa	100.967	105.086	108.133	108.836	90.513	0,7	-16,8
Arkeologi Museoa	..	10.594	7.861	11.484	d.e.	46,1	-100,0
Arrantzalearen Museoa	13.610	15.900	12.823	15.647	14.123	22,0	-9,7
Bilboko Arte Ederretako Museoa	223.197	207.978	191.962	259.968	295.655	35,4	13,7
Bilboko Itsasadarraren Itsas Museoa	48.242	61.502	28.545	56.720	51.416	98,7	-9,4
El Pobaleko Burdinola	15.060	15.244	12.718	13.696	13.543	7,7	-1,1
Euskal Herria Museoa	9.612	8.695	14.570	15.467	13.205	6,2	-14,6
Bilboko Euskal Museoa	60.909	45.462	42.576	57.662	48.674	35,4	-15,6
Gernikako Bakearen Museoa	24.755	26.057	26.948	29.005	30.586	7,6	5,5
Bilboko Guggenheim Museoa	951.368	905.048	958.173	962.005	1.014.104	0,4	5,4
Santimamiñeko koba	8.816	11.460	11.140	d.e.	11.645		
Agorregiko Burdinola eta errota	13.788	10.518	9.613	11.637	d.e.	21,1	
Chillida Leku Museoa	61.854	60.105	-	-	itxita		
Donostiako Aquariuma	277.285	310.541	301.771	315.593	307.293	4,6	-2,6
Igartubeti baserria	7.176	9.665	6.999	8.345	7.158	19,2	-14,2
Burdin Harana	20.718	16.497	13.240	11.802	9.060	-10,9	-23,2
San Telmo Museoa	94.391	98.973	104.637	134.326	115.575	28,4	-14,0
Burdinbidearen Euskal Museoa	36.175	37.980	38.198	31.521	14.661	-17,5	
Itsas Museoa	13.838	11.721	10.595	16.719	d.e	57,8	
Zientziaren Kutxa Espazioa	112.734	138.264	134.079	142.017	161.945	5,9	14,0
Museo Zumalakarregi	5.482	10.317	2.975	3.444	4.707	15,8	36,7

Iturria: BASQUETOURE, Euskal Turismo Agentzia, EUSKO JAURLARITZA

Bigarren taldea, berriz ere, Donostiako Aquariumak, Bilboko Arte Ederren Museoak eta Donostiako Zientziaren Kutxa Espazioak osatu zuten. Lehenbizikoak 307.293 bisitari izan zituen, hots, aurreko urtean baino gutxiago (%-2,6). Haren atzean, bisitari kopuruaren arabera, Bilboko Arte Ederren museoa dator, 295.655 bisitarirekin (%+13,7 2011ren aldean), eta horren atzean, Zientziaren Kutxa Espazioa. Azken honek hazkundera izan du, 2011n 142.017 bisitari izan baitzituen eta 2010n 161.945 (%+14).

Hirugarren blokean, San Telmo Museoa, Artium eta Andre Maria Katedralaren Fundazioa leudeke.

5.2.2. Biltzar eta azoka jarduera

Biltzarraren jarduera

BASQUETOUREk emandako datuen arabera, EAEko biltzar jarduerak bilakaera ezberdina du 2011 eta 2012 artean gure Ertaldeko lurraldeen arabera. Gora egin du eginiko biltzarren kopuruak Araban, %504,5 (baina kontuan hartu behar da zenbait ekitaldi zenbatu direla, ez sailkatuak, "beste batzuk" epigrafean bilduak, eta horrek zaildu egiten du kopuruok interpretatzea). Bilbon, berriz, %3,6 eta %4,1 Donostian. Hala, Gasteizen 399 biltzar egin ziren, 1.105 Bilbon eta 153 biltzar Donostian.

III.5.3. KOADROA. EAE-KO BILTZARREN JARDUEAREN BILAKAERA (2010-2012)*

	VITORIA-GASTEIZ				BILBO				DONOSTIA/SAN SEBASTIAN			
	2010	2011	2012	% 2011-12	2010	2011	2012	% 2011-12	2009	2010	2012	% 2011-12
GUZTIRA	58	66	399	504,5	1.092	1.067	1.105	3,6	124	147	153	4,1
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	27	28	60	114,3	890	780	893	14,5	26	47	64	36,2
Kongresuak	23	27	32	18,5	99	116	95	-18,1	70	71	69	-2,8
Konbentzioak+ pizgarriak	3	9	2	-77,8	103	171	117	-31,6	8	8	20	150,0
Beste batzuk	5	2	305	15.150,0	--	--	--	--	20	21	0	-100,0
GUZTIRA, ESKUORDETUAK	18.053	19.555	114.034	483,1	177.976	171.967	179.914	4,6	174.551	217.448	37.868	-82,6
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	3.368	4.980	61.002	1124,9	125.013	110.441	123.337	11,7	4.766	14.747	10.402	-29,5
Kongresuak	5.655	7.675	8.724	13,7	25.607	26.140	32.507	24,4	20.542	19.904	24.563	23,4
Konbentzioak+ pizgarriak	570	1.200	350	-70,8	27.356	35.386	24.070	-32,0	1.400	2.169	2.903	33,8
Beste batzuk	8.460	5.700	43.958	671,2	--	--	--	--	147.843	180.628	0	-100,0
ESKUORDETUAK/EKITALDIK	311	296	286	-3,4,0	163	161	163	1,1	1.408	1.479	248	-83,3
Jardunaldiak, mintegiak, sinposiumak	125	178	1.017	471,2	140	142	138	-2,7	183	314	163	-48,2
Kongresuak	246	284	273	-4,0	259	225	342	52,1	293	280	356	27,1
Konbentzioak+ pizgarriak	190	133	175	31,6	266	207	206	-0,6	175	271	145	-46,4
Beste batzuk	1.692	2.850	144	-94,9	--	--	--	--	7.392	8.601	--	--
JARDUERA (%)												
Medik./ osasun sektorea					23,4	25,9	23,4	-32,0	29,9	20,9	24,6	17,7
Zientzia sektorea									9,0	9,7	13,7	41,2
Kultura sektorea**					11,7	14,8	11,7	-21,6	4,5	3,2	12,0	275,0
S. ekon-komertzial					10,1	19,1	10,1	31,9	9,0	22,6	26,3	16,4
Sektore publikoa			d.e.		10,1	7,0	10,1	-54,3	9,0	9,7	4,6	-52,6
Sektore teknologikoa					22,5	18,9	22,5	-24,3	23,9	20,2	11,4	-43,6
Unibertsitatea					6,8	5,5	6,8	49,1	4,5	3,2	1,1	-65,6
Beste batzuk					15,5	8,7	15,5	128,7	10,5	10,5	6,3	-40,0

* Emankizun tipologiaren arabera sailkapena SPAIN CONVENTION BUREAUk ezarritako irizpideak zorrozki jarraituz bildu dira.

**Bilboko datuak, kultura sektorearen jardueran, kultura sektorekoen nahiz gizarte sektorekoen barruan sailkatzen dira.

Iturria: BASQUETOURE, Euskal Turismo Agentzia, EUSKO JAURLARITZA.

Bizkaiak du toki nabarmena bileren kopuruaren aldetik; izan ere, bertaraturiko ordezkarien kopurua 179.914 izan da guztira, hots, %4,6ko igoera 2011ko datuekin alderatuta eta 163ko ratioa ekitaldi bakoitzeko (aurreko urtean baino 2 ordezkari gehiago ekitaldiko). Bileren jarduerari dagokionez, mediku-osasuneko sektorekoak nabarmendu dira (guztien %23,4), eta haien atzean teknologia sektorea (%22,5).

Donostian, guztira, aurreko urtean baino %82,6 gutxiago izan dira bertaratuak, 217.448 izatetik 37.868 izatera igaroz. Jarduerari dagokionez, berriz nagusitu dira bilera ekonomiko komertzialak (%26,3), mediku-osasuneko bilerak (%24,6) eta zientzia sektorekoak (guztien %13,7).


Azkenik, Gasteizen, bertaraturiko ordezkarien guztizko kopurua 114.034 izan da (2011n baino %483,1 gehiago), eta ekitaldiko batez besteko ordezkari kopurua 286 izan da.

Azoken jarduera

Espainiako Azoken Elkartearen (AFE) datuen arabera, Bilbao Exhibition Centre-BEC laugarren tokian zegoen 2012an azoken rankinean, eginiko erakusketen arabera, 21 azokarekin. Aurretik ditu honako hauek: Madrilgo Azoka (77), Bartzelonakoa (50), Valentziakoa (29).

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 2012n 22 saio egin ziren BECen eta gertakizun-konbentzio multzoak 50.146 bisitari profesional bildu zituen guztira (2011n baino %2,9 gutxiago). Jende orokorreko 976.674 pertsona ere bertaratu ziren. Taularen arabera, hartutako azaleraren eta bisitari profesionalen kopuruan azken 6 urteetan izandako jaitsiera nabarmena izan da (%33,5 eta %43,8 hurrenez hurren), baina kontuan hartu behar da zuzeneko erakusketarien kopuruari eusteko eginiko ahalegina; izan ere, %10,5 baino ez da jaitsi.

III.5.1. GRAFIKOA. BEC. BISITARIEN BILAKAERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA eta BEC

III.5.4. KOADROA. BILBAO EXHIBITION CENTRE. OINARRIZKO ADIERAZLEAK

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Erakusketak	20	24	16	21	20	27	22
Zuzeneko erakusketariak	2.551	3.555	2.354	2.253	1.936	2.565	2.284
Azalera garbia	176.720	152.699	158.436	106.141	119.596	103.562	117.586
Bisitari profesionalak	89.206	84.877	102.202	45.696	70.963	51.633	50.146
Jendea, oro har	1.118.166	1.127.188*	1.006.974	1.182.191	1.221.111	956.956	976.674

Iturria: Bilbao Exhibition Centre.

5.3. ARGITALPEN-PRODUKZIOA

Uztailaren 29ko 23/2011 Legea indarrean sartuta, izenburuen gordailugile nagusia editorea bihurtu da Liburutegi Nazionaleko Legezko Gordailuan. Horrek aldaketa ekarri du *Argitalpen-produkzioaren Estatistikan*.

Hala, 2012tik aurrera, Espainian argitaraturiko argitalpenak biltzen ditu, inprimatu diren tokia edozein delarik ere. 2011ra arte, ostera, Espainian inprimaturiko argitalpenak biltzen ziren.

2012an, Espainian argitaraturiko 69.668 izenburu gordailatu ziren Liburutegi Nazionalean. Horietatik 60.219 liburuak izan ziren eta 9.449 liburuxkak.

Argitaraturiko izenburuen seriearen bilakaera behar bezala interpretatzeko, aipaturiko metodologia aldaketa izan behar da kontuan. Hala ere, 2012ko guztizko zenbaketan eragin txikia izan duela uste da.

INERen Argitalpen-produkzioaren Estatistikaren datuen arabera, seigarren tokian dago EAE 2012an argitalpen-produkzioaren rankinean (aurreko urteko toki bera), guztira 2.247 izenbururekin (liburuak eta liburuxkak), Estatuko guztizkoaren %3,2. Aurretik ditu Madrilgo Erkidegoa (22.858 izenburu, guztizkoaren %38,8), Katalunia (18.767 izenburu,

gutzizkoaren %26,9), Andaluzia (8.903), Galizia (2.660) eta Gaztela eta Leon (2.432). Argitaraturiko 2.247 izenburu horiek %2,3ko igoera dakarte 2011rekin alderatuta.

Izenburu guztietatik 1.856 (%82,6) liburuak eta 391 (%17,4) liburuxkak izan ziren. Liburuei dagokienez, %1,1 hazi da izenburuen kopurua. Liburuxkei dagokienez, %8,3 hazi da izenburuen kopurua.

INEren datuekin bat etorriz eta argitalpenaren hizkuntza kontuan hartuta, 2012. urtean Estatuan argitaratutako izenburu guztien % 1,2 argitaratu dira euskaraz, hau da, 837 liburu eta liburuxka (2011n 794 izan ziren, hots, %1,1). Horietatik % 48,5 "Literatura, Historia eta Kritika literarioa" kategorian argitaratu dira. Ondoren datoz, garrantziaren arabera, Natur Zientziak, %6,7; Historia eta Biografia, %6,1; eta hezkuntza, irakaskuntza, prestakuntza, denbora-pasak: %5,3. Beste datu esanguratsu batzuk dira euskaraz argitaratutako izenburuen % 27,6k haurrak dituztela xede publikoa, % 10,4 ikasliburuak direla eta % 7,8 argitalpen ofizialak direla. Gainera, euskaraz argitaratutako 837 izenburu horiek gure erkidegoko argitalpenen % 37,2 dira eta aurreko urtearekin alderatuz % 5,4 egin dute behera.

III.5.5. KOADROA. ARGITALPENEN PRODUKZIOAREN BILAKAERA EAE-N

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Aldak. 2010-11	Aldak. 2011-12
OROTARA											
Izenburuak	2.485	2.460	2.360	2.767	2.813	2.545	2.499	2.197	2.247	-12,1	2,3
Aleak (milaka)	5.366	5.613	5.574	5.456	5.632	4.220	4.003	2.866	-	-28,4	
Tirada media	2.159	2.282	2.362	1.972	2.002	1.658	1.602	1.304,5	-	-18,6	
LIBURUAK											
Izenburuak	2.024	2.039	1.920	2.283	2.357	2.187	2.117	1.836	1.856	-13,3	1,1
Aleak (milaka)	4.167	4.393	4.456	4.472	4.717	3.436	3.438	2.398	-	-30,3	
Tirada media	2.059	2.155	2.321	1.959	2.001	1.571	1.624	1.306,1	-	-19,6	
LIBURUXKAK											
Izenburuak	461	421	440	484	456	358	382	361	391	-5,5	8,3
Aleak (milaka)	1.199	1.220	1.117	984	915	784	565	468	-	-17,2	
Tirada media	2.601	2.898	2.539	2.033	2.007	2.190	1.479	1.296,4	-	-12,3	

Iturria: INE. Argitalpenen Produktzioaren Estatistika.

EAEn 2012. urtean argitaratutako liburu kopurua, Kultura Ministerioak argitaratutako ISBNren³² datuen arabera 3.843koa izan zen (INEren kopurua baino altuagoa, ziurrenik azken kasu horretan ez direlako berrinprimatzeak sartzen); hala, % 19,6 egin du gorantz, aurreko urteko kopuruaren aldean.

Argitalpenen produktzioaren arloan, autonomia erkidegoen rankinean, seigarren tokian dago EAE (bosgarrena aurreko urtean), ISBNren datuen arabera; aurretik ditu Madril, Katalunia, Andaluzia, Galizia eta Valentziako Erkidegoa. %3,7ko partaidetza du gutzizkoarekiko. Gainera, alde handia dago lehen bi erkidegoen eta gainerakoen artean. Hala, Madrilen 43.471 titulu argitaratu ziren (gutzizkoaren %41,5) eta Katalunian %26,1 argitaratu ziren (27.297 titulu).

ISBNren arabera, 2012an argitaraturiko tituluaren %79,3 gaztelaniaz izan dira, %8,9 katalanez, %1,7 euskaraz (%1,6 2011n), %1,5 galegoz eta %1,4 valentzieraz.

³² EI ISBN - INTERNATIONAL STANDARD BOOK NUMBER - argitaletxe jakin baten izenburuak zenbatu eta identifikatzeko nazioarteko sistema bat da, eta softwareari ere aplikatzen zaio. Behin identifikazioa emanda, zenbaki hori obra horri bakarrik eman ahalko zaio eta ezin izango da berrerabili.

III.5.6. KOADROA. LIBURUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA INSKRIBATURIKO ISBN-REN ARABERA (PAPEREAU ETA BESTE EUSKARRI BATZUK)

	2008	2009	2010	2011	2012		Ald.% 2011-12
					n	%	
Andaluzia	11.678	15.439	15.323	14.016	11.642	11,1	-16,9
Aragoi	1.354	1.979	1.538	1.938	1.430	1,4	-26,2
Asturias	895	860	704	904	897	0,9	-0,8
Illes Balears	757	808	749	645	842	0,8	30,5
Kanariar U.	1.000	1.314	1.444	937	947	0,9	1,1
Kantabria	349	400	420	587	403	0,4	-31,3
Gaztela eta Leon	3.046	3.491	3.356	2.794	2.234	2,1	-20,0
Gaztela-Mantxa	701	803	711	775	781	0,7	0,8
Katalunia	34.512	32.081	30.629	32.864	27.297	26,1	-16,9
Valentziako E.	5.771	5.798	6.031	7.914	5.491	5,2	-30,6
Extremadura	537	1.130	2.017	1.286	1.129	1,1	-12,2
Galizia	3.690	4.069	4.754	3.233	2.528	2,4	-21,8
Madril	33.230	35.496	39.907	38.665	43.471	41,5	12,4
Murtzia	682	591	797	604	543	0,5	-10,1
Nafarroa	1.262	1.268	2.039	1.227	1.040	1,0	-15,2
EAE	4.548	4.327	3.698	3.214	3.843	3,7	19,6
Errioxa	170	282	220	242	167	0,2	-31,0
Ceuta	10	26					
Melilla	31	43	122	62	39	1,0	-31,0
OROTARA	104.223	110.205	114.459	111.907	104.724	100,0	-6,4

Iturria: ISBN. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

III.5.7. KOADROA. INSKRIBATURIKO ISBN DUTEN LIBURUAK, ARGITALPEN HIZKUNTZAREN ARABERA

	2008	2009	2010	2011	2012		Aldak. 2011-12
					n	%	
Gaztelania	79.017	86.318	90.939	87.134	83.079	79,3	-4,7
Katalana	10.750	10.526	10.748	12.150	9.326	8,9	-23,2
Euskara	2.156	2.040	1.852	1.809	1.810	1,7	0,1
Galegoa	131	117	2.544	1.997	1.621	1,5	-18,8
Valentziera	1.488	1.397	1.492	1.233	1.487	1,4	20,6
Beste hizkuntza espainiar batzuk	266	87	66	114	85	0,1	-25,4
Beste hizkuntza batzuk	214	211	3.487	7.470	7.316	7,0	-2,1
Eleanitzak	4.078	3.509	3.331	3.174	2.638	2,5	-16,9
OROTARA	104.223	110.205	114.459	111.907	104.724	100,0	-6,4

Iturria: ISBN. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

5.4. FINANTZAZIOA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN

Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian eta gizartean duen pisuaren zenbatespena zeharkako iturrien bitartez egiten da, aurreko urteetan bezala. Zehazki, Kultura Ministerioak argitaratzen duen «Estatistika Kulturalen Urtekariaren» bitartez³³. Estatuko Administrazio Orokorrak, Administrazio Autonomikoak eta tokiko erakundeek kulturaren arloan eginiko gastu publikoari eta finantzazioari buruzko kapitulu bat dakar Urtekariak: Udalek eta Aldundiek, Kontseiluek eta kabildoek.

³³ Ikerketa honen eremuan sartu diren kultura sektoreak: Kultur ondasunak eta zerbitzuak (Monumentu historikoak, Museok, Aztarnategi arkeologikoak, Artxiboak eta Liburutegiak); Arte plastikoak eta eszenikoak (Erakusketak, Argazkigintza, Musika, Dantza eta Antzerkia); Liburuak eta Ikus-entzunezkoak (Zinema, Bideoa eta Musika grabatua); Arlo anitzekoak (Kultura sustapena eta Hedapena, Administrazioa eta Zerbitzu Orokorrak, Hizkuntza Politika).

III.5.8. KOADROA. ADMINISTRAZIO AUTONOMIKOEN KULTURA ARLOAN LIKIDATUTAKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOKA.

	Balio absolutuak (milioi €)		Estatuan kultura arloan likidatutako gastuarekiko %		A. Erkidegoetan guztira likidatutako gastuaren %.			BPGaren %			Biztanle bakoitzeko batez besteko gastua (€)		
	2010	2011	2010	2011	2009	2010	2011	2009	2010	2011	2009	2010	2011
ESTATUA, GUZTIRA	1.769	1.482	100	100	1,08	0,99	0,85	0,19	0,17	0,14	44,7	38,5	32,1
ANDALUZIA	253	185	14,3	125	0,97	0,81	0,62	0,23	0,18	0,13	41,0	30,8	22,4
ARAGOI	39	27	2,2	1,8	0,77	0,71	0,50	0,14	0,12	0,08	34,5	29,9	20,6
ASTURIAS	62	52	3,5	3,5	1,33	1,45	1,25	0,26	0,27	0,23	56,7	59,0	49,6
BALEARRAK	15	10	0,8	0,7	0,57	0,39	0,30	0,08	0,06	0,04	20,0	13,4	9,1
KANARIAR U.	42	35	2,4	2,3	0,55	0,55	0,51	0,11	0,10	0,08	21,1	20,2	16,5
KANTABRIA	28	20	1,6	1,3	1,31	1,19	0,89	0,24	0,22	0,15	55,5	48,2	34,0
GAZTELA ETA LEON	109	80	6,1	5,5	1,26	1,03	0,89	0,24	0,19	0,14	53,8	43,5	32,4
GAZTELA-MANTXA	77	90	4,3	6,0	1,01	0,86	0,88	0,28	0,21	0,24	49,9	37,8	43,8
KATALUNIA	393	325	22,2	21,9	1,10	1,21	0,92	0,20	0,20	0,16	53,1	53,8	44,3
VALENTZIAKO E.	174	159	9,8	10,7	1,27	1,13	1,06	0,20	0,17	0,16	39,9	34,7	31,8
EXTREMADURA	64	61	3,6	4,1	1,47	1,27	1,21	0,44	0,37	0,35	73,1	59,2	56,0
GALIZIA	111	94	6,3	6,4	1,29	1,00	0,99	0,28	0,20	0,17	55,5	40,6	34,4
MADRIL	112	119	6,3	8,0	0,89	0,62	0,66	0,09	0,06	0,06	28,5	17,6	18,6
MURTZIA	49	33	2,8	2,2	1,09	1,00	0,72	0,19	,17	0,12	36,5	33,4	22,4
NAFARROA	71	57	4,0	3,8	1,55	1,66	1,43	0,37	0,39	0,31	110,5	115,0	91,3
EAE	139	108	7,8	7,3	1,23	1,34	1,06	0,19	0,22	0,16	59,5	64,9	50,5
ERRIOXA	14	10	0,8	0,7	1,29	1,11	0,84	0,21	0,18	0,13	52,7	45,0	32,5
CEUTA	7	7	0,4	0,5	2,51	2,84	2,78	0,43	0,49	0,44	97,2	99,2	88,9
MELILLA	11	11	0,6	0,7	2,44	4,29	4,61	0,39	0,78	0,81	84,6	147,3	148,1

Iturria: HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Kultur Estatistiken Urtekaria 2013

Bestalde, Kultura Ministerioaren Urtekariak Kulturako Gastu Publikotzat jo du honakoa: “kulturari zuzendutako gastu likidatua, administrazio publiko ezberdinek aitortutako betebeharren fasean; ondorioz, finantzazioa egiten duenaren izaera da, eta ez hartzailearena, gastuaren izaera publikoa edo pribatua finkatzen duena”. Ez dira kentzen kultura erakunde publiko jakin batzuk eduki ditzaketen jatorri pribatuko sarrerak, adibidez museoek eduki ditzaketenak. Enpresek edo partikularrek, kultura erakunde publikoei emandako babesengatik, dohaintzengatik, eta abarregatik eduki ditzaketen zerga aringarriak ere ez dira gastu gisa sartzen.

Euskal Autonomia Erkidegoak, 2011n, kulturaren likidatutako gastua, Kultura Ministerioaren datuen arabera, 108 milioi eurokoa izan zen, 2010ean baino 31 milioi gehiago. Horrek esan nahi du %22,2 jaitsi dela. Gastu horrek Estatuko Administrazio Autonomikoen 2011. urtean kulturaren likidatu zuten gastu osoaren % 7,3 hartzen du (%7,8 aurreko urtean) eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan egindako gastu osoaren % 1,06 (% 1,34 aurreko urtean). Gainera gure erkidegoko BPGaren % 0,16 da. Horrek esan nahi du kulturak gurean beste Autonomia Erkidegoetan baino pisu handiagoa duela, batez beste % 0,14 izaten baita gainerako erkidegoetan. Aurreko urtearekiko %27,3ko jaitsiera izan da.

III.5.9. KOADROA. TOKIKO ADMINISTrazioEN KULTURA ARLOAN LIKIDATUTAKO GASTUA, ERAKUNDE MOTAREN ARABERA (milioi eurotan). 2010-11.

	5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak		Aldundiak, Kontseiluak eta Kabilduak	
	2010	2011	2010	2011
Estatua, guztira	2.926	2.455	659	569
Andaluzia	415	357	65	53
Aragoi	53	59	33	28
Asturias	73	71	-	-
Balearrak	67	51	29	30
Kanariar U.	128	97	94	81
Kantabria	29	28	-	-
Gaztela eta Leon	121	103	34	27
Gaztela-Mantxa	104	79	18	14
Katalunia	583	483	140	120
Valentziako E.	337	265	91	58
Extremadura	31	27	13	12
Galizia	152	129	45	44
Madril	397	350	-	-
Murtzia	114	89	-	-
Nafarroa	34	33	-	-
EAE	273	219	100	103
Errioxa	17	13	-	-

Iturria: HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Kultur Estatistiken Urtekaria 2012 eta 2013

Adierazle honetan buruan ageri diren erkidegoak Extremadura eta Nafarroa dira, betiere, dituzten ezaugarri bereziengatik Ceuta eta Melilla kanpoan utziz gero. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 50,55 eurora iritsi zen 2001n, aurreko urtean baino %22,2 gutxiago, eta kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (32,1 €).

Gastuaren xedeari begiratuta, EAEn, 108 milioi euroen % 21,3, 2011n, kultur ondasun eta zerbitzuetan erabili zen (% 22,1 aurreko urtean); % 14,2 arte plastiko, eszeniko eta musikaletan; % 9,1 liburu eta ikus-entzunezkoetan; eta ez dago informaziorik gainontzeko % 55,4ari buruz. Autonomia erkidego guztien artean, kultura ondasun eta zerbitzuetan % 35,4 erabili da (% 37,3 aurreko urtean); arte plastiko, eszeniko eta musikaletan % 23,7; eta liburu eta ikus-entzunezkoetan % 14,2.

Bestalde, 5.000 biztanletik gorako udalek eta Aldundiek, Kontseiluek eta Kabildoez kultura likidaturiko gastua dakar Urtekariak. EAEn 5.000 biztanletik gorako udalek, 2011n, 219 milioi euroko gastua likidatu zuten kulturean, hots, Estatu osoko 5.000 biztanletik gorako udalek kultura likidaturiko gastu guztiaren %8,9. Bestalde, Foru Aldundiek 103 milioi euroko gastua likidatu zuten kulturean, hau da, Estatu osoko Aldundiek, Kontseiluek eta Kabildoez kultura likidaturiko gastu guztiaren %18,1.

Hona hemen EAEn 5.000 biztanletik gorako udalerrien gastuaren xede nagusia: Kulturaren sustapen eta zabalkuntza (5.000 biztanletik gorako udalek likidaturiko gastu guztiaren %86,4) eta Kulturaren Administrazio Orokorra (5.000 biztanletik gorako udalek likidaturiko gastu guztiaren %5,3).

Hona hemen EAEn Foru Aldundien gastuaren xede nagusiak: Kultura sustapena (Aldundiek likidaturiko gastu osoaren %49,2) eta Museoak eta Arte Plastikoak (Aldundiek likidaturiko gastu osoaren %17,3).

5.5. FAMILIEN GASTUA KULTURAREN KONTSUMOAN

Kultura Ministerioaren datuak gorabehera, euskal familiek kultura ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua 2012an 762,5 milioi euro izan zen, 2011n baino 2,3 euro gutxiago. Horrek % 0,3ko murriztapena ekarri zuen. Gastu hori EAEn ondasun eta zerbitzuetan eginkoaren %2,6 da, autonomia erkidego guztien batez besteko portzentaje bera. Adierazle honen buruan kokatzen diren erkidegoak Kanariar Uharteak (% 2,9) eta Madril, Balearrak eta Katalunia (bakoitza % 2,8rekin) dira.

Familia bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, bigarren postuan dago EAE 2012an, 857,6 euroekin (aurreko urtean baino -%3,5), Madrilen (966,7) atzetik. Pertsona bakoitzeko batez besteko gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 353,4 €-ra iritsi zen 2012an, 2011n baino % 2,2 gutxiago. Kopuru hori Estatu osoko batez bestekoan igarritako kopurua baino %22,4 gehiago da, eta EAE jartzen du gehien gastatzen duen bigarren erkidego gisa, Madrilen (376,5 €) atzetik.

Kasu bietan, jaitsiera izan da gastuan, EAEn nahiz Estatu osoan, 2011 eta 2012 artean. 2012ko irailean, gainera, BEZaren tasak igo ziren, eta horrek zenbait kultur eta ondasun zerbitzutan izan du eragina. Kultur kontsumoan izandako ondorio negatiboa Memoria honen hurrengo edizioetan baloratu ahal izango da.

EAEn gastu motari arreta emanez gero (liburuak eta argitalpenak, kultura zerbitzuak, informazioa tratatzeko banako ekipo eta osagaiak...), pertsona bakoitzeko gastatu diren 353,4 euroetatik % 25,7 liburuetarako eta aldizkako argitalpenetarako erabili zen 2012. urtean, % 27,2 kultura zerbitzuetarako, % 40,5 informazioa tratatzeko banako ikus-entzunezko ekipo eta osagaietarako eta % 6,6 beste ondasun eta zerbitzu batzuetarako. Estatu osoko batez bestekoak aztertzeak aldeak islatzen ditu. Gauzak horrela, Estatu osoan EAEn baino gutxiago gastatzen da liburuetan eta aldizkako argitalpenetan (%16,5, lehen 25,7) eta, aldiz, gehiago kultura zerbitzuetan (%31,3, lehen %27,2) eta informazioa tratatzeko ikus-entzunezko ekipo eta osagaietan (%44,7, eta %40,5).

Kultura zerbitzuetan egindako gastuaren barruan sartzen da emankizunetan egindako gastua. Azken hori neurtu ahal izateko, Urtekariak etxe bakoitzeko kultura zerbitzuetan egindako batez besteko gastuari buruzko informazioa

III.5.10. KOADROA. ONDASUN ETA KULTUR ZERBITZUETAN FAMILIA BAKOITZAK EGINIKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN TALDEEN ARABERA

	Balio absolutua (milioi eurotan)		Ondasun eta zerbitzuen gastu osoaren % (milioi €-tan)		Batez bestekoa etxe bakoitzeko (eurotan)		Batez best. pertsona bakoitzeko (eurotan)	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
GUZT. ESTATUA	14.363,7	13.371,1	2,8	2,6	828,3	738,9	312,9	288,7
ANDALUZIA	2.164,4	2.039,9	2,6	2,6	727,1	654,9	260,5	243,8
ARAGOI	394,5	399,5	2,7	2,7	777,2	745,4	302,8	303,2
ASTURIAS	350,9	328,0	2,9	2,7	824,3	716,5	335,0	309,4
BALEARRAK	336,7	342,1	2,7	2,8	791,1	792,3	309,5	311,5
KANARIARRAK	618,4	521,0	3,2	2,9	808,7	653,3	294,5	250,3
KANTABRIA	182,5	170,8	2,7	2,5	819,3	720,1	317,7	291,9
GAZTELA ETA LEON	704,8	649,7	2,7	2,5	704,7	632,7	286,9	262,4
GAZTELA-MANTXA	502,8	452,0	2,6	2,4	673,0	578,0	247,1	218,2
KATALUNIA	2.607,3	2.437,8	3,0	2,8	936,0	829,7	358,4	328,7
VALENTZIA	1.449,8	1.418,3	2,9	2,7	752,6	713,0	290,7	285,7
EXTREMADURA	238,4	220,1	2,4	2,3	586,1	519,2	221,6	201,9
GALIZIA	722,0	685,6	2,5	2,4	705,4	646,0	265,6	249,8
MADRIL	2.694,1	2.394,3	3,2	2,8	1.139,6	966,7	424,4	376,5
MURTZIA	308,7	231,5	2,2	1,6	591,1	447,4	210,4	159,4
NAFARROA	206,1	208,3	2,6	2,6	859,2	836,3	334,8	329,9
EAE	764,8	762,5	2,6	2,6	889,1	857,6	361,4	353,4
ERRIOXA	100,7	88,8	2,9	2,6	825,2	685,7	325,1	280,8
CEUTA ETA MELILLA	34,7	30,1	2,4	2,1	754,6	589,2	231,1	181,9

Iturria: HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Kultur Estatistiken Urtekaria 2013

ematen du (eta ez pertsona bakoitzeko egindakoa). Kultura zerbitzuetan egindako gastu horiek 233,1 eurora iristen dira.

III.5.11. KOADROA. ONDASUN ETA KULTUR ZERBITZUETAN FAMILIA BAKOITZAK EGINIKO GASTUA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN TALDEEN ARABERA

	BATEZ BESTEKO GASTUA PERTSONA BAKOITZEKO										BATEZ BESTEKO GASTUA ETXE BAKOITZEKO	
	Orotara (euroak)		Liburuak eta aldizkako argital.		Kultura zerbitzuak (emank. eta beste kultura zerbitzu batzuk hartzen ditu)		Inform. tratatzeko ikus-entzunezko ek. eta osagaiak		Bestelako ondasun eta zerbitzuak			
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
GUZT. ESTATUA	312,9	288,7	55,0	47,7	93,2	90,3	143,6	129,1	21,1	21,7	828,3	738,9
ANDALUZIA	260,5	243,8	38,3	34,8	75,5	75,7	126,5	114,2	20,1	19,2	727,1	654,9
ARAGOI	302,8	303,2	59,5	55,1	88,2	90,1	141,6	137,4	13,5	20,6	777,2	745,4
ASTURIAS	335,0	309,4	71,3	60,9	114,2	92,6	139,0	143,6	10,5	12,3	824,3	716,5
BALEARRAK	309,5	311,5	44,3	44,1	96,6	10,8	155,4	152,7	13,2	14,0	791,1	792,3
KANARIARRAK	294,5	250,3	37,3	28,6	99,3	83,7	136,4	122,8	21,5	15,1	808,7	653,3
KANTABRIA	317,7	291,9	73,5	61,0	73,8	87,3	152,6	131,7	17,8	11,9	819,3	720,1
GAZT. LEON	286,9	262,4	58,4	57,7	73,5	67,2	138,5	120,1	16,5	17,5	704,7	632,7
GAZT. MANTXA	247,1	218,2	41,1	32,0	65,7	65,9	126,7	106,1	13,6	14,2	673,0	578,0
KATALUNIA	358,4	328,7	53,9	49,7	107,5	99,1	170,1	150,0	26,9	29,9	936,0	829,7
VALENTZIA	290,7	285,7	45,3	39,4	86,6	95,5	139,3	129,0	19,5	21,8	752,6	713,0
EXTREMADURA	221,6	201,9	36,9	22,5	59,2	54,1	110,9	101,0	14,5	24,4	586,1	519,2
GALIZIA	265,6	249,8	56,5	49,6	62,8	75,1	128,0	111,0	18,4	14,2	705,4	646,0
MADRIL	424,4	376,5	80,7	62,5	142,0	130,8	170,4	151,2	31,3	32,1	1.139,6	966,7
MURTZIA	210,4	159,4	35,6	31,4	71,8	53,6	88,4	64,0	14,6	10,3	591,1	447,4
NAFARROA	334,8	329,9	80,0	71,4	91,3	96,3	144,9	150,9	18,7	11,3	859,2	836,3
EAE	361,4	353,4	97,0	90,8	96,1	96,1	150,4	143,1	17,9	23,5	889,1	857,6
ERRIOXA	325,1	280,8	80,4	54,1	84,3	89,8	143,8	127,4	16,5	9,5	825,2	658,7
CEUTA MEL.	231,1	181,9	38,6	21,6	86,5	85,0	92,9	65,1	-	-	754,6	589,2

Iturria: HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. Kultur Estatistiken Urtekaria 2013

EAEn, eta Estatuko batez bestekoaren antzekoa: 231 euro. EAEn etxe bakoitzeko ikuskizunetan egindako gastua 100,1 eurokoa izan da 2012. urtean (101,8€ aurreko urtean), eta Estatuan, berriz, gastu hori zertxobait txikiagoa izan da, 83,6 euro, etxeko. Ikuskizunetan etxeko gehien gastatzen duten autonomia erkidegoak Madril (165,8 euro), Nafarroa (110,2 €) eta Errioxa (108,2 €) dira.

IV. KAPITULUA

Gizarte babesa EAEn



Europako Gizarte Babesaren Estatistika Sistemak (SEEPROS) honela definitzen du gizarte babesa: *“erakundeek familia eta banakoentzat zenbait arriskuk edo premiak dakartzaten zamak arintzera zuzendutako jarduera guztiak, aldibereko, elkarrekiko edo banakako akordiorik egon ezean”*.

EAEko Memoria Sozioekonomikoaren kapitulu honek gure erkidegoko gizarte babesari dagozkion eremu nagusiak birpasatuko ditu. Lehenbizi, EAEko gizarte zerbitzuen egoera aztertuko da; horretarako, haien zenbateko nagusiak eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluak sistemaz egiten duen balorazioa aurkeztuko dira. Ondoren, Gizarte Segurantzaren prestazio guztiak eta Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legetik datozen txirotasunaren eta gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko dauden tresnak aurkeztuko dira. Azkenik, EAEko gizarte aurreikuspeneko sistema osagarrien zifra handiak aztertuko dira.

Horrez gain, eta Europako Batzordearen 458/2007 Erregelamenduak gizarte babesak barne hartzen dituen eremuez egindako sailkapenean langabeziagatiko prestazioak berariaz biltzen duen arren, horiei (Estatu Enpleguko Zerbitzu Publikoa-SEPEk kudeatutako Gizarte Segurantzaren prestazioak) buruzko informazioa Memoria Sozioekonomiko honetako *“Lan-merkatua”* izeneko kapitulura aldatzea erabaki da, enplegu politiken ikuspegi osoa eskaintzeko asmoz, politika aktiboak eta pasiboak batera landuta.

1. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N

1.1. GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA

Lehenik eta behin, EAEko Gizarte Zerbitzuetako gastua 2011. urtean (informazioa daukagun azken urtea) 2.307,5 milioi euro izan zen, aurreko urtean baino %6 gehiago, EUSTATen "Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistikaren" arabera. Gainera, 2008-2011ko aldiari %24 hazi da gastu hori.

Hots, gure erkidegoaren urte horretako BPGd-aren %3,5 da eta biztanle bakoitzeko batez beste 1.061 euroko gastua, 2010ean baino %6 gehiago.

Herri-administrazioen ahalegina 1.680,2 milioi eurokoa izan zen, guztiaren %72,8 eta sektore pribatuak, aldiz, gainontzeko %27,2a eman zuen. Erabilitako lau eurotik bat erabiltzaileen kuoten eta bestelako salmenta batzuen bidez finantzatu zen. Datu horiek erakusten dutenez, hazkunde tasa altuak izan diren hainbat urteren ondoren, gizarte zerbitzuetako gastu publikoak gorako bidean jarraitzen zuen 2011n, aurreko urtean baino pixka bat arinago (%2,9 hazi da; 2010ean, berriz, %2,6), baina aurreko aldietan baino proportzio txikiagoan.

Sektoreko giza baliabideei dagokien, gizarte zerbitzu guztietan 83 enplegu garbi galdu ziren 2011n (%-0,2) borondatezko langileen jaitzieraren ondorioz. Hala, zuzeneko enplegua 26.961 pertsonakoa da (EAEn lanean ari diren %2,9; aurreko urtean baino %2,8 gehiago. Gainera, borondatezko lana egiten duten langileen laguntzan 20.211 pertsona aritu dira, 2010ean baino 824 lagun gutxiago.

Gizarte zerbitzu ugarien artean, biztanleentzako eta adineko pertsonentzako zerbitzuak dira baliabide gehien jasotzen duten arloak, bien artean gastuaren %69,7 hartzen baitute. Biztanleentzako baliabideen artean, nabarmenak dira familientzako transferentziak: 655,3 milioi eurokoak dira, hau da, gastu osoaren % 28,4, eta, gainera, % 5,2 handitu dira, lehen aipaturako % 6ko batezbestekoaren azpitik, beraz. Transferentzia horiek %54,1, hazi dira 2008 eta 2011 bitartean, eta guztizko gastua, berriz, %24,.

IV.1.1. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA

	2010	2011	% 2010/2011	% 2008/2011
GASTUA (mila eurotan)	2.176.240	2.307.556	6,0	24,0
- Gastu arruntak	1.463.885	1.594.754	8,9	18,8
- Familientzako transferentziak	628.214	655.364	4,3	54,1
- Kapital gastuak	84.140	57.439	-31,7	-38,2
Gastua / Biztanleak (eurotan)	1.001,1	1.061,4	6,0	23,4
Gastua / BPG (%)	3,3	3,5	-	-
FINANTZAKETA				
- Finantzaketa publikoa	1.633.484	1.680.237	2,9	24,7
- Finantzaketa pribatua	542.756	627.319	15,6	22,0
GIZA BALIABIDEAK				
Guztira, langileak	47.255	47.172	-0,2	10,7
- Norberaren langileak	26.220	26.961	2,8	9,2
- Borondatezko langileak	21.035	20.211	-3,9	6,6
BALIABIDE MATERIALAK				
- Erakunde kopurua	1.395	1.378	-1,2	0,6
- Zentro kopurua	3.101	2.970	-4,2	0,9
- Egoitza kopurua	1.091	972	-10,9	-2,2
- Egoitzetako plazak	26.865	26.885	0,1	11,6

Iturria.- EUSTAT. Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Ekintzari buruzko Estatistika.

IV.1.2. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N: GASTUAREN BILAKAERA ETA BANAKETA BIZTANLE MOTA BAKOITZEKO


	2010	2011	% 2010/2011	% 2008/2011
GASTUA (Milaka eurotan)	2.176.240	2.307.556	6,0	24,0
Biztanleria, oro har	925.565	1.012.099	9,3	41,4
- Familientzako transferentziak	623.241	655.364	5,2	54,1
Haurrak-Gazteak	84.696	86.954	2,7	9,8
- Egoitzak	64.485	63.305	-1,8	7,5
Adinekoak	598.353	597.242	-0,2	9,0
- Egoitzak	507.386	511.888	0,9	12,2
Ezinduak	445.404	487.574	9,5	17,7
- Egoitzak	90.488	97.417	7,7	21,1
- Okupazio zentroak eta EZB (1)	264.917	300.055	13,3	16,2
Emakumeak	15.893	15.802	-0,6	1,1
Gizarte bazterkeriak	106.329	107.884	1,5	22,0

(1) Enplegu zentro bereziak

Iturria.- EUSTAT. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika.

Adinekoei dagokienez, batez ere egoitzetako zerbitzuak, laguntzarako eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak eta telelaguntza dira gehien jasotzen duten arreta motak. 2011n 19.915 plaza eskaini ziren egoitzetan, hau da, 75 urtetik gora zituzten 100 pertsonako 9,7 plaza eman ziren. Herri administrazioek, gainera, plaza horien %36,8 eskaini zuten. Adineko erabiltzaileen kopurua 17.194 da, hots, 2010ean baino %0,1 gutxiago. Gainera, plaza erabilgarrien kopurua baino txikiagoa da.

IV.1.1. GRAFIKOA. GIZARTE ZERBITZUEN GASTUAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSTAT. GZE.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren "Gizarte zerbitzuen 2011ko gastu publikoa" txostenak gastu horrek azken hamarkadan izandako bilakaerari buruzko azterketa ematen du, termino etengabeetan edo errealetan, hots, prezioek gastuen duten ondorioa deskontatuta, 2011. urtea oinarritzko urtetzat hartuta. Azterketa horren arabera, 2000-2011ko epealdian hainbat etapa antzematen dira. Lehenik eta behin, XX. mendea %5etik beherako hazkundearekin bukatu ondoren, %11,5-%12,4 inguruko hazkunde erreala da 2000-2002ko hirurtekoaren ezaugarri nagusia. Seme-alabak dituzten Familientzako I. Laguntza Plana indarrean sartzea da hedapenerako orientazio hori azaltzeko elementu nagusia, eta garrantzitsua da orduko Oinarritzko Errentaren zenbatekoen doikuntza, Euskadiko Gizarte Eskubideen Karta 2000an onetsi izanaren ondorioz.

IV.1.3. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUEN GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA. MILAKA €.


	GASTU ARRUNTA	GASTU ETENGABEA (2011KO OINARRIA)	URTE ARTEKO HAZKUNDEA %	
			GASTU ARRUNTA	GASTU ETENGABEA
2000	450.843	625.316	15,4	11,5
2001	522.190	697.289	15,8	11,5
2002	615.653	784.098	17,9	12,4
2003	695.548	861.530	13,0	9,9
2004	791.375	951.483	13,8	10,4
2005	851.681	989.628	7,6	4,0
2006	972.329	1.094.381	14,2	10,6
2007	1.079.415	1.181.264	11,0	7,9
2008	1.264.018	1.328.748	17,1	12,5
2009	1.485.435	1.567.380	17,5	18,0
2010	1.563.028	1.611.413	5,2	2,8
2011	1.615.241	1.615.241	3,3	0,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Nahiz eta oraindik gorako joera erakutsi argi eta garbi, hazkunde abiadurak gelditu egin ziren 2003tik hasita. 2002 eta 2007 bitartean, %10aren inguruko hazkundeak eta igoera txikiagoak txandakatzen dira. 2000-2002ko epealdian, berriz, urteko hazkundea %12aren ingurukoa da, eta 2002 eta 2007 bitartean %8,5 ingurukoa.

2007-2008an, berriz ere egin zuen gora gizarte zerbitzuetako gastu publikoak %12,5eraino, hain zuzen ere mendekotasuna duten pertsonentzako diru-laguntza berriak indarrean sartu izanaren ondorioz eta, neurri txikiagoan, Oinarritzko Errentaren zenbatekoaren igoeragatik. Ondoren, 2008 eta 2009 bitartean, areagotu egin zen gastuaren hedapen dinamikoa, azterturiko hamarkadako gehieneko zenbatekoraino.

IV. 1.2. GRAFIKOA. GIZARTE ZERBITZUEN FINANTZAKETA PUBLIKOAREN EGITURAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: EUSKO JAURLARITZA, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

%47,8ko igoera hori gertatu da sarrerak bermatzeko ereduaren berrikuntzaren eta krisialdiaren eraginagatik; izan ere, igoera handia dakarte txirotasunaren kontrako borrokaren eta prebentzioaren prestazio ekonomikoetan. Ondoren, 2009az gero, gizarte zerbitzuen gastuaren zifrak egonkortzeko prozesua abiarazi zen, eta termino errealetan, azkenean, %0,2ko igoera besterik ez da ageri 2010 eta 2011 bitartean.

Sistemaren finantzabideei dagokienez, nabarmentzekoa da euro iraunkorretan, 2007 eta 2011 bitartean, ekarpen garbiaren hazkundera handiena izan dela erakunde autonomikoetan eta autonomiez gaindiko erakundeetan: Mendetasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) eta Europako Gizarte Funtsaren (EGF) ekarpenak du, estatistika honetako "Bestelako finantzabideak" epigrafean bilduak, igoera erlatiborik handiena aipaturiko epealdian. Nahiz eta erakunde horien ezaugarri nagusia bilakaera irregularra izan, IMSERSOren Autonomiaren eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren garapenak berekin ekarri du autonomiez gaindiko erakundeek EAEko gizarte zerbitzuen gastuaren finantzaketan duten eginkizuna finkatzea. Ekarpenerik %76,7ko hazkundera izan du 2007 eta 2011 bitartean, eta eutsi egiten zaio mendetasunaren laguntzen sarreran. Alabaina, 2010 eta 2011 bitartean, %35,9 egin du behera erakunde horien ekarpenak, neurri handi batean, enpleguaren eta laneratzearen arloko eskumenak Eusko Jauriaritzari eskualdatu izanaren ondorioz.

Hala ere, 2011. urteko gizarte zerbitzuen gastu publikoko 1.615,2 milioi euroetatik %47,5 Foru Aldundiei dagokie, %35,5 Eusko Jauriaritzari, %12,3 udalei eta %4,7 autonomiaz gaindiko gainerako erakundeek.

1.2. MENDEKOTASUNAREN ARRETA

Estatuko arautegiari dagokion Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko Legea¹ (Mendekotasun Legea) indarrean sartu zen 2007an honako helburuarekin: *"eguneroko oinarriko ekintzak garatzeko, norberaren autonomia eskuratzeko eta herritar diren aldetik euren eskubideak gauzatzeko laguntza behar duten urrakortasun egoeran dauden pertsonen beharrezko arduraren hartzea"*. Lege horrek aurrerapen garrantzitsua dakar gizarte politiketarako; izan ere, mendekotasun egoeran dauden pertsonen legean bertan aurreikusitako prestazio eta zerbitzuak eskuratzeko duten eskubidea onartu eta arautzen du eskubide subjektibo berri gisa.

Mendekotasunari buruzko Legearen ezarpenaren bilakaerari dagokionez, unera arte ezin izan da konparazio analisi zehatzik egin, zeren eta autonomia erkidegoek ez baitaukate datuak biltzeko eta ustiatzeko irizpide bateratuak dituen sistemarik².

Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) 2013ko abenduaren 31ko datuek adierazi dute data horretan EAEk 87.321 balorazio eskabide erregistratu zituela Mendekotasunari Arreta eskaintzeko Sistemari. Gainerako erkidegoetan bezala, eskabide horietako gehienak mendekotasun mailaren aintzatespena berrikusteko dira. Eskabide horiek Estatu osoaren % 5,31 dira, nahiz eta gure Erkidegoko biztanleria Estatuko biztanleriaren % 4,65 den.

Eskatzaileen profila honako hau da: emakumea (eskatzailen % 66,2 dira), 80 urtekoa edo zaharragoa (eskatzailen % 55,88, eta emakumeen % 62,98). Bigarren adin-talde garrantzitsua 65 eta 79 urte artekoa da, eskabide guztien % 19,37 direla.

Erregistratutako ia 87.321 txosten eskabideetatik % 97,08k jada dagokion txostena jaso zuten (Estatuko batezbestekoaren % 93,06) eta 47.373 eskabideri, hau da, txostena jaso zuten kasuen % 55,88ri, prestaziorako eskubidea aintzatesi zitzaizkien. Portzentaje hori Estatuko batezbestekoa (% 61,71) baino txikiagoa da.

¹ 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, norberaren autonomia sustatu eta mendekotasuneko egoeran dauden pertsonen arreta ematekoa.

² Erkidego gehienek (EAE barne) ez dute erabiltzen IMSERSOren Sistema kudeatzeko aplikazio informatikoa, datu homogeneoak konparatzea ahalbidetuko lukeena. Hori dela eta, eskaintako zifrak kontuz aztertu behar dira.

Amaitzeko, aintzatetsitako 47.373 prestazioak 42.080 onuraduni dagozkie (pertsonako 1,20 prestazioren ratioa dago, pertsona bat zerbitzu edo prestazio baten baino gehiagoren onuraduna izan baitaiteke), eta data horretan 50.386 prestazio ematen ziren; horietatik % 49,1 senideak zaintzeko prestazio ekonomikokoak dira, % 20,97 egoitzetako arretakoak, % 11,05 eguneko/gaueko zentroetako zainketetakoak, % 10,78 ethez etxeko laguntza zerbitzuetakoak eta gainerako prestazio eta zerbitzu garrantzitsuagoak.

Zifra horien osagarri, Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarteak kideek osatutako "Espainiako Mendekotasunaren Behatokia" delakoaren txostenek, Mendekotasunari buruzko Legetik abiatuta, mendekotasunerako arreta sistemaren hedapenaren balorazio profesionalaren jarraipena egitea ahalbidetzen dute autonomia erkidegoka. 2013ko abenduko datuak biltzen dituen azken txostenak erakusten du EAEn garapena beste autonomia erkidego

IV.1.4. KOADROA. MENDEKOTASUNERAKO ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. 2013KO ABENDUA.						
	IMRSO-REN 2013-12-31KO DATUAK			MENDEKOTASUNAREN BEHATOKIAREN EBALUAZIOA*		
	IRIZPENEN % POPULAZIOAREN GAINEAN	ONURADUNEN % IRIZPENEN GAINEAN	ONURADUNEN % POPUL.	2011	2012	2013
GAZTELA-LEON	4,00	62,35	2,45	9,8	9,2	9,6
EAE	3,87	55,88	1,92	8,3	7,5	8,3
ERRIOXA	4,44	51,16	2,11	7,5	6,7	6,3
KANTABRIA	3,94	68,11	2,50	5,8	4,2	6,3
ANDALUZIA	4,04	65,06	1,99	5,7	7,1	5,8
GAZTELA-MANTXA	3,99	56,20	1,73	7,1	5,8	5,4
KATALUNIA	3,62	58,30	1,85	5,4	5,8	5,4
EXTREMADURA	4,09	55,69	1,89	4,8	5,0	5,4
GALIZIA	2,92	70,48	1,40	4,6	5,8	5,0
NAFARROA	2,64	54,73	1,30	5,0	5,4	5,0
MURTZIA	4,05	77,15	1,90	4,8	3,3	5,0
ESTATUKO BATEZB.	3,25	61,71	1,60	5,0	4,7	4,7
MADRIL	2,66	57,68	1,37	3,3	3,8	4,2
ASTURIAS	3,07	54,68	1,46	2,1	4,2	3,8
ARAGOI	3,27	60,82	1,37	7,1	3,8	3,8
BALEARRAK	2,12	63,16	0,97	3,3	2,5	2,9
CEUTA ETA MELILLA	2,26	52,69	1,14	2,5	2,1	1,3
KANARIAK	1,39	82,14	0,54	0,4	2,1	0,8
VALENTZIako ER.	1,96	59,82	0,82	1,7	0,8	0,4

Iturria: IMRSOren eta MENDEKOTASUNAREN BEHATOKIAREN datuak erabilia egindakoa.
 (*) Gizarte Zerbitzuen Zuzendari eta Gerenteen Estatu Elkarteak Mendekotasunerako Arreta Sistemaren hedapen mailari eta funtzionamenduari 2013rako emandako 0 eta 10 arteko puntuazioa.

batzuen baino handiagoa dela, bai baloratutako pertsonen portzentajeari dagokionez (irizpenen % 3,87, Estatuko % 3,2ko batezbestekoaren aurrean), baita emandako prestazioei dagokienez ere (biztanleen % 1,92, Estatuko % 1,6ko batezbestekoaren aurrean, Behatokiaren kalkuluen arabera).

Sistema ezartzeko zifren eta profesionalen balorazioen laburpen gisa, Behatokiak erkidegoak puntuatu eta sailkapena aurkeztu du. Sailkapen horretako lehenengo postuan Gaztela eta Leon zegoen 2013ko abenduan (10en gaineko 9,6 jasota), eta EAE bigarren postuan dago, 8,3 puntu jaso dituela, Estatuko batezbestekoa 4,7 puntukoa dela. Gure Erkidegoak orain bi urteko puntuazioa berreskuratu du; izan ere, 2012an 8,3tik 7,5era jaitsi zen.

Behatokiaren ebaluazioak adierazi du EAEn emandako prestazio gehienak Familia Inguruko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoari dagozkiola, beste erkidego batzuetako mailara iritsi ez bada ere. Hala eta guztiz ere, Mendekotasun Legeari jarraiki, prestazio hau salbuespenezko kasuetan baino ez litzateke eman beharko.

2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK³

2013an, milioi erdi lagun baino gehiago (529.070, lehen zenbatespenaren arabera) izan ziren gure Erkidegoko Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen onuradunak; hori aurreko urtean baino % 1,7 gehiago da, orduan ere % 1,3 hazi ondoren. Azken urteetan gertatu izan den bezala, hazkuntza hori kotizaziopeko pentsioen onuradunak diren pertsonen bilakaeragatik izan da; izan ere, beste modalitateetan oro har murrizteko joera izan du. Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen portzentajea % 24,1era heltzen da.

IV.2.1. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOK EAE-N, MOTA BAKOITZEKO. TAULA-LABURPENA.

	2010	2011	2012	2013	%11/12	%12/13
Onuradunak (urteko batez bestekoa)						
Kotizaziopeko pentsioak	494.800	501.800	508.200	516.600	1,3	1,7
Kotizaziorik gabeko pentsioak	9.949	10.107	10.230	10.449	1,2	2,1
Laguntzako pentsioak*	1.341	1.341	1.341	1.341	0,0	0,0
MGLko diru-laguntzak*	680	680	680	680	0,0	0,0
GUZTIRA	506.770	513.928	520.451	529.070	1,3	1,7
Biztanleen %	23,4	23,6	23,9	24,1	1,3	0,8
Gastua (milioi €-tan)						
Kotizaziopeko pentsioak	6.692,37	6.994,99	7.291,25	7.646,81	4,2	4,9
Kotizaziorik gabeko pentsioak*	47,32	48,55	50,71	53,40	4,4	5,3
Laguntzako pentsioak*	2,41	2,41	2,41	2,41	0,0	0,0
MGLko diru-laguntzak*	1,40	1,40	1,40	1,40	0,0	0,0
GUZTIRA	6.743,50	7.047,35	7.345,77	7.704,02	4,2	4,9
BPGd-aren %	10,3	10,5	11,4	11,9	8,6	4,4

Iturria: Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuekin eginikoa. Lan Estatistiken Aldizkaria
(*.) Datu eguneratu barik. Zenbatespena.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen %97,6 direnak eta gastuaren %99,3), 2013ko batez besteko pertsona onuradunen kopurua 516.000ra heltzen da (+%1,7). Hauetako bakoitzak hilero batez beste 1.057,3 € jasotzen ditu, %23,2ko hazkundera 2012ko datuekin konparatuz. Ondorioz, aurreikusten da urteko gastua 7.646,81 milioi eurokoa dela, 2012an baino %4,9 gehiago.

Labur esanda, EAEn pentsioetako gastua 2013an, behin-behineko datuak erabilita, 7.704 milioi eurokoa izan zen guztira, 2011n baino % 4,9 gehiago. Hortaz, BPGd-an duen portzentajea sei hamarren handitu da, 2012ko % 11,4tik % 11,9ra (EUSTATen behin-behineko datuak kontuan hartuta).

2.1. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK TRANSFERITU GABEKO KUDEAKETAREKIN

2013an 516.600 pertsona izan ziren Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen onuradunak EAEn, aurreko urtean baino %1,7 gehiago. Pentsio mota bakoitzeko, ezintasun iraunkorragatiko jasotzaile kopurua % 1,6 murriztu da azken urtean; aldiz, erretiroagatiko jasotzaileak % 2,47 handitu dira, eta alarguntzagatiko jasotzaileak % 0,7. Azkenik, zurtasunagatiko kotizaziopeko pentsioen jasotzaileen kopurua % 4,3 handitu da.

Aipaturiko pentsio horien batez bestekoa 1.057,30 euro da (%23,5 handiagoa Estatuko batez bestekoaren aldean), hots, %3,2ko igoera 2012. urtearekin alderatuta. Batez besteko pentsio hori (157,38€ EAEn eta 138,29€ Estatuan batez beste) Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata baino askoz txikiagoa zen (193,29€), eta azken horrek baino tasa handiagoarekin hazi da. Are gehiago, KPIren ginetik. 2013ko abenduan, EAEko batez besteko pentsioa, hots, 1.064,50 eurokoa, %3 igo zen 2012ko abenduko datuekin alderatuta. Hil horretara arteko urte arteko KPIren aldakuntza, berriz, %0,6 izan zen.

³ Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kudeatzen dituen transferitu gabeko Gizarte Segurantzaren prestazioak bi motatakoak dira:

- Ordainutakoaren arabera, hau da, lehenago kotizatutako zenbatekoaren eta kotizazioa egin den epearen arabera ematen dira. Ez dute iraupen zehatzik eta Gizarte Babesaren gastu osoaren % 50 dira gutxi gorabehera. Prestazio horien eginkizuna honako hau da batez ere: Baldintza jakinak betetzeko prestazio horren eskubidea lortu duten pertsonen errentak lortzeko orduan jarraitutasuna bermatzea laneko bizitza amaitzea eragin dezaketen arriskuaren ondorioz errenta horiek eteten direnean.

- Ordainutakoaren arabera, ez diren prestazioak, esate baterako, erretiro eta baliabidezintasun pentsioak (ordainutakoaren arabera ez direnean) eta amatasunagatiko eta familiek jasotzen dituzten prestazioak.

IV.2.2. KOADROA. EAE-N GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOPEKO PENTSIONEN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA ETA JASOTZAILE KOPURUA

	2011	2012	2013	% 2013	2013ko LGSren %	%11-12	%12-13
Jasotzaile kopurua							
GUZTIRA	501.800	508.200	516.600	100,0		1,3	1,7
EZINTASUN IRAUNKORRA	44.400	44.200	43.500	8,0		-0,5	-1,6
ERRETIROA	309.600	314.800	322.300	62,4		1,7	2,4
ALARGUNTZA	132.200	133.100	134.000	25,9		0,7	0,7
ZURZTASUNA / FAMILIAREN ALDE	15.700	16.100	16.800	3,3		2,5	4,3
Batez b. zenbatekoa (euro/hileko)							
GUZTIRA	995,7	1.024,8	1.057,3	100,0	161,6	2,9	3,2
EZINTASUN IRAUNKORRA	1.112,6	1.134,9	1.158,7	109,6	177,1	2,0	2,1
ERRETIROA	1.136,4	1.171,9	1.210,7	114,5	185,0	3,1	3,3
ALARGUNTZA	692,6	710,0	730,3	69,1	111,6	2,5	2,9
ZURZTASUNA / FAMILIAREN ALDE	442,3	451,6	458,9	43,4	70,1	2,1	1,6

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOAREN "Lan Estatistiken Aldizkaria" oinarri hartuta egindakoa.

Erretiroagatiko pentsioari dagokionez (Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioa jasotzen dutenen %62,4k jasotzen du), batez besteko zenbatekoa 1.210,70€ da hilean 2013. urtean, 2012an baino %3,3 gehiago. Bestalde, gora egin dute 2013an pentsioen batez besteko zenbateko guztiek, neurri ezberdinean bada ere: erretiroagatiko eta alarguntzagatiko pentsioak % 3,3 eta % 2,9 handitu dira, hurrenez hurren; ezintasun iraunkoragatiko pentsioak, berriz, % 2,1 eta zurztasunagatikoak % 1,6.

Bestalde, pentsioetako gastu osoaren zenbatekoa % 4,9 handitu zen Alderatzten badugu aipatutako gastuaren bilakaera Gizarte Segurantzaren afiliatutako langile kopuruarekin balioetsi ahal izango dugu pertsona afiliatu bakoitzaren ahalegina zein den (euro/hila) pentsio horiek ordaintzeko. 2013an 628,63 eurokoa zen hileko, aurreko urtean baino % 8,2 gehiago; izan ere, pentsioak ordaintzeko gastua handitu da eta kotizatzaileen kopurua murriztu.

Beste alde batetik, 2012an (datu ofizialak eskuragarri dauden azken urtea) Gizarte Segurantzako Sistemak 6.501 milioi euro bildu zituen guztira EAEn, 2011n baino %1,7 gehiago, hau da, estatuan guztira bildutakoaren %6,5 (2011n %6,3). Zenbateko hori gure Erkidegoko urte horretako BPGd-aren % 10


IV.2.3. KOADROA. PENTSIONEN ARLOKO AHALEGINAREN HURBILKETA EAE-N

Urteak	Kotizaziop. Pents. (1)	Batez besteko zenbat. €/hileko (2)	Guztizko zenb., €/hileko (3) =(1)*(2)	G. Segurantzako afiliatuak* (4)	Ahalegina: €/hilean afiliatuko (3)/(4)
2008	479.400	898,3	430.630.638	967.900	444,91
2009	487.600	938,4	457.563.840	934.700	489,53
2010	494.800	966,1	478.026.280	925.800	516,34
2011	501.800	995,7	499.642.260	919.600	543,33
2012	508.200	1.024,8	520.803.360	896.000	581,25
2013	516.600	1.057,3	546.201.180	868.600	628,83
2012ko aldak. %	1,3	2,9	4,2	-2,6	7,0
2013ko aldak. %	1,7	3,2	4,9	-3,1	8,2

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO Ministerioaren datuak oinarri hartuta egindakoa.

* Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden kotizatzaileak.

IV.2.1. GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOENGATIKO* BILKETAREN BILAKAERA EAE-N.



(*) Langabeziarik gabe, LH eta FOGASA.

Iturria: GSDOren datuekin eginikoa.

da, behin-behineko datuen arabera (aurreko urteko ratio bera). Bildutako kopuru horretatik 1.104 milioi Arabari dagozkio (% 16,7), 2.142 Gipuzkoari (% 32,9) eta 3.276 milioi Bizkaiari (% 50,4).

Zenbateko horren % 90,9 Gizarte Segurantzaren kuotei dagokie; gainerako % 9,1, aldiz, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateetatik ondorioztatutakoa da. % 71,5en jatorria erregimen orokorra da, eta 4.645 milioi euro dira guztira (aurreko urtearekin alderatuta % -1,29). Halaber, Gizarte Segurantzak Langabeziari, Soldatak Bermatzeko Funtzari eta Lanbide Heziketari dagozkien kuotak ere biltzen ditu. EAEn horien zenbatekoa guztira 1.236 milioi euro izan ziren 2012an, aurreko urtean baino 47 gutxiago.

IV.2.4. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINNTZA OROKORRAREN KUOTEN DIRU-BILKETAREN BILAKAERA EAE-N. MILIOI EURO.

	Milioi euro				%	% aldak.		
	2009	2010	2011	2012		2012	2009-10	2010-11
ALD. OROKORRA	4.623	4.658	4.701	4.645	71,5	0,8	0,9	-1,2
AUTONOMOAK	618	619	661	676	10,4	0,2	6,8	2,3
NEKAZARITZAREN ARLOKOAK*	3	3	3	0	0,0	0,0	0,0	0,0
ITSASOKO LANGILEAK	29	28	28	26	0,4	-3,4	0,0	-7,1
ETXEKO LANGILEAK*	26	28	30	12	0,2	7,7	7,1	-60,0
IKATZAREN MEATZARITZAKOAK	0	0	0	0	0,0	0,0	0,0	0,0
LI ETA LG KUOTAK (DIRUZAINNTZA)	6	6	6	7	0,1	0,0	0,0	16,7
SEPEKO LANGABEAK	553	564	553	544	8,4	2,0	-2,0	-1,6
GSDN-KO KUOTAK, GUZTIRA	5.858	5.907	5.982	5.911	90,9	0,8	1,3	-1,2
LI ETA LG MUTUALITATEAK	444	429	430	406	6,3	-3,4	0,2	-5,6
KA MUTUALITATEAK	193	205	199	180	2,8	6,2	-2,9	-9,5
MUTUALITATEAK, GUZTIRA	637	634	629	586	9,1	-0,5	-0,8	-6,8
GS-KO SISTEMAREN DIRU-BILKETA, GUZT.	6.495	6.541	6.611	6.501	100,0	0,7	1,1	-1,7
LANGABEZIARAKO BILDUTAKO KUOTAK	1.126	1.128	1.131	1.088	16,7	0,2	0,3	-3,8
SOLDATAK BERMATZEKO FUNTSA	29	29	29	28	0,4	0,0	0,0	-3,4
LANBIDE HEZIKETA	122	122	123	120	1,8	0,0	0,8	-2,4

Iturria: GSDOren datuak erabilia egindakoa: Urteko Memoriak.

** Nabarmen egin du beheara bilketak 2012an erregimen horietan, zeren eta, urte horretatik aurrera, honako hauek baitakartzu erregimen orokorrak: Inoren Konturako Nekazaritzakoen eta Etxeko Langileen erregimenak.*

EAEko Gizarte Segurantzaren pentsioengatikoko gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketako zifrak erlazionatuz gero, hauxe da emaitza: 2012an (datu biak dituen azken ekitaldian), gastua, gure zenbatespenen arabera, 7.704 milioi euro zen. Sarrerak, berriz, 6.501 milioi. Hortaz, saldo negatiboa izango litzateke, 845 milioiokoa, aurreko ekitaldian -436 milioi izan ondoren.

IV.2.5. KOADROA. KOTIZAZIOPEKO PENTSIOTAKO GASTUAREN ETA GZDN-REN KUTOEN BILKETARENGATIKO SARREREN BILAKAERA EAE-N (MILIOI EURO)

	2010	2011	2012	2013	2012ko aldak (%)	2013ko aldak (%)
G. S.REN PENTSIOPEN GASTUA *	6.744	7.047	7.346	7.704	4,2	4,9
G.S.D.N.K JASOTAKO KUOTAK	6.541	6.611	6.501	..	-1,7	..
SALDOA	-203	-436	-845
SARRERA/GASTUA	0,97	0,94	0,88

Iturria: Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuak oinarri hartuta eginikoa.

**Zenbatespenak dira pentsioen gastuaren gaineko zifrak.*

2.2. TRANSFERITUTAKO KUDEAKETA DUTEN GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK: ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKOAK EZ DIREN PRESTAZIOAK

Ordaindutakoaren arabera ez diren prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar besteko denboraz kotizatu ez duten eta iraupeneko bitartekorik ez izategatik beharizan-egoeran dauden pertsonen ematen zaizkienak dira. Errenta ekonomiko bat aitortzeaz gain, laguntza mediko eta farmazeutikoa eta

gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea ere badute; hortaz, beharrian-egoeran egonez gero estaldura osoa ematen diete. Pentsio horien jatorria Estatuko abenduaren 20ko 26/1990 Legean dago. Lege horrek Gizarte Segurantzaren Babes Ekintza eta Egitura Arrazionalizatzeko presazko neurriei buruzko 26/1985 Legearekin hasitako berrikuntza osatu zuen. Horren bidez, babeserako kotizaziorik gabeko prestazio maila antolatu zen, lanbide- edo kotizazio-sistamarako sarbiderik ez duten eta beharrian-egoeran dauden pertsonen prestazioak ematea ahalbidetzen duena. Hala, adinekoen edo ezinduen aldeko eskubide subjektiboa sortu zen.

Gizarte babesaren sistema unibertsala denez, ez da beharrezkoa prestazioa jasotzeko eskubidea baliatzeko aurrez kotizatu izana, eta kotizaziorik gabekoa denez, Estatuko Aurrekontu Orokorren Urteko Legeetan zehazten da. Prestazio hori erabat finantzatzea Estatuari dagokio, eta Gizarte Segurantzak bertatik jasotzen ditu kasuan kasuko transferentziak, 26/1990 Legeko Zortzigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera eta Toledoko Ituneko gomendioekin bat etorriz.

Estatuan autonomia erkidegoek dute eskumena. Aldiz, EAEn, eginkizunak eta zerbitzuak besterendu ondoren, prestazioa aitortzea, kudeatzea eta finantzatzea foru aldundiei dagokie. Ordaindutakoaren arabera ez diren prestazioak hiru motatakoak dira: Gizarte Segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak, laguntzako pentsioak eta MGL prestazioak. Jasotzen den zenbatekoa errenten eta norberaren egoeraren arabera ezartzen da.

2.2.1. Gizarte Segurantzaren kotizaziorik gabeko pentsioak

EAEko Foru Aldundiek emandako kotizaziorik gabeko pentsioak, kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, kotizaziorik gabeko prestazioen artean nabarmenenak dira. Diru-sarrera nahikoak ez dituzten pertsonen daude zuzenduta (diru-sarrerak nahikoak ez direla zehazteko, urteko diru-sarreraren baturak pentsioaren urteko zenbatekoak baino txikiagoa izan behar du) eta zenbatekoak urtetik urtera gora egiten du.

Kotizaziorik gabeko pentsioen zenbatekoak Estatu osorako ezartzen dira urtero. 2013rako 364,90€ finkatu ziren hileko erretirorako zein % 65eko mailako edo horretatik gorako baliaezintasunerako. % 75 edo hortik gorako maila eta beste pertsona baten laguntza premia duten baliaezintasunagatiko pentsioetarako % 50eko osagarria ere onartzen da. Halaber, onuradunak bere errentak edo sarrerak baditu eta haien zenbatekoa pentsioaren % 25 baino handiagoa bada, hura aipatu % 25 gainditzen duen kopuruan murriztuko da. Norberaren sarrerak % 25 baino gehiago ez badira, pentsioari osorik eusten zaio.

Zenbateko horietatik abiatuta, pentsioetarako urteko 53,4 milioi euroko gastua ondoriozta dezakegu, 2012. urtean baino % 5,3 gehiago. Hala ere, memoria honen itxieran ez dakigu kopuru horren zenbateko zehatza zein den.

IV.2.6. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIORIK GABEKO PENTSIOK: ADIERAZLE NAGUSIAK.

	ONURADUNAK (URTEKO BATEZ B.)			HILEKO ZENBAT. (€)
	ERRETIROA	BALIAEZ.	GUZT.	
2008	4.339	5.318	9.658	328,44
2009	4.301	5.439	9.741	336,33
2010	4.311	5.638	9.949	339,70
2011	4.399	5.708	10.107	343,10
2012	4.494	5.736	10.230	354,10
2013	4.677	5.772	10.449	364,90
10/11ko aldak. %	2,0	1,2	1,6	1,0
11/12ko aldak. %	2,2	0,5	1,2	3,2
12/13ko aldak. %	4,1	0,6	2,1	3,0

Iturria: EGSMren datuekin eginikoa. Lan Estatistiken Aldizkaria.

2.2.2. Gizarte Ongizateko Funtsaren laguntzako pentsioak

Foru Aldundiei transferitutako Gizarte Segurantzaren laguntzako pentsioak banakako laguntza ekonomikoak dira, aldian behingoak eta mugagabeak, adinekoen (65 urtetik gorakoak) eta gaixoen edo erabateko ezgaitasun iraunkorra dutenen alde, bizirauteko bitarteko ekonomikorik ez badute (euren urteko diru-sarreraren batura batez besteko pentsioaren urteko zenbatekoa baino txikiagoa denean). Kotizaziorik gabeko pentsioetarako Estatuan legez bizitzeko irizpidea eskatzen bada ere (gutxienez 10 urtez bizi izana -5 urtez ezgaitasunaren kasuan-, haietatik gutxienez bi eskaera

egin aurre-aurretik), laguntza horietan ezartzen den bakarra onuradunak EAeko udalen batean erroldatuta egotea da, Erkidegoan bizitzeko baimena duten atzerritarrak, errefuxiatuak eta aberriagabeak barne.

Prestazio horiek pixkanaka murriztu dira, 5/1992 ELDa indarrean sartu ondoren indargabetuta geratu direlako. Eta, beraz, harrezkero alta berririk gertatu ez delako; horrela, ordura arte onartutako pentsioei baino ez zaie eutsi, oro har zenbateko handiagoa duten kotizaziorik gabeko pentsioak jasotzea hautatu ez badute.

Informazio eguneraturik ez dagoenez gero, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak kalkulatu du halako pentsioen jasotzaile kopuruak egonkor iraun duela 2007tik: urtean batez beste 1.341 lagun inguru. Haietatik 886k "zahartzaroa" kontzeptuagatik eta 255ek "gaixotasuna" kontzeptuagatik jasotzen dituzte. Laguntzaren zenbatekoa, 2000az geroztik bezala, 149,86 euro zen hilean 2013an, eta pertsona horiek, gainera, bi ordainketa gehigarri dauzkate onartuta urtean. Beraz, EAeko Foru Aldundien Gizarte Ongizateko Funtzaren laguntzako pentsioen zenbatekoa, 2013an, gutxi gorabehera, 2,8 milioi euro da guztira.

2.2.3. MGL prestazioak

Minusbaliatua Gizarteratzeko 13/82 Legean (MGL) onartutako prestazioak gutxienez % 65eko ezgaitasunak jota dauden 18 urtetik gorako pertsonen daude zuzenduta, urtean pertsona bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 70 baino baliabide gutxiago badaukate (euren ardurapeko pertsonak badaukate, mendeko bakoitzeko % 10 handitzen da)⁴. Halaber, Lege horren ondoriozkoak dira ezinduek enplegua eskuratzeko eta mantentzeko prozesuetan aukera-berdintasuna bermatzea indartzeko hainbat ekimen, ohiko enpleguan nahiz babesturiko enpleguan. Lanbide gure Erkidegoan buruturiko ekimenak dira. Horien berri ematen da Memoria Sozioekonomiko honetako "III.2. Bizi-baldintzak" izeneko kapituluko ezinduen bizi-baldintzei buruzko atalean.

MGLren subsidioak indargabetuta gelditu ziren Estatuko 26/1990 Legea indarrean sartu zenetik. Horren bidez, kotizaziorik gabeko prestazioak ezarri ziren Gizarte Segurantzari eta, beraz, Gizarte Ongizatearen Funtzaren laguntzako prestazioekin gertatzen den bezala, MGLren prestazioen onuradunak jaitsi egiten dira urtez urte.

2008an (informazioa dugun azken urtea), MGLren onuradunak honela banatu ziren EAEn: 603 GDBSko prestazioetan, 77 HPLSkoetan eta 28 MGGSkoeetan. Subsidio horien jaitziera nahikoa handia da; izan ere, orain dela hamar urte 5.000 pentsio zeuden aintzatetsita. Prestazio horien laguntza 2008. urtean ordaindutako guztizko zenbatekoa 1,4 milioi euro izan zen.

3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK EAE-N

Txirotasuna, tradizioz, gizarte desberdintasunei eta diru-sarreraren maila txikiko biztanleria-kapei lotuta egon da. Azken urteotan, aldiz, gure gizartean gertatutako aldaketekin batera bai ekonomiari, bai gizarteari, bai familiari lotutakoak, marjinazio mekanismo berriak agertu dira; ekonomia hutsari lotutakoaz gain, beste eragile batzuk piztu dituzte gizarte bazterkeriako prozesuak.

EAEn txirotasunari, marjinazioari eta gizarte bazterkeriari aurre egiteko tresna nagusien artean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Bazterkeriaren aurkako Legean eta Gizarte Eskubideen Kartaren Legean kokatuta, azken urteotan egungo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen Oinarrizko Errenta) eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) izan dira. Txirotasunaren aurka borrokatzeko osoko planaren baitako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak dira biak.


⁴ Laguntza horiek honako lau motetan jaso daitezke: Gutxieneko Diru-sarrerak Bermatzeko Subsidioa (GDBS), Hirugarren Pertsonaren Laguntzagatik Subsidioa (HPLS), Mugikortasun eta Garraio Gastuen Ziozko Subsidioa (MGGGS) eta osasun laguntza eta prestazio farmazeutikoa. Informazio gehiago nahi izanez gero, Memoria Sozioekonomiko honetako aurreko edizioetara jo beha irakurleak.

Horiek ez ezik, gizarteratze, prestakuntza eta laneratze programak ere badaude, partaideen (laneratze enpresak sortu ahal izatea aintzat hartu da), udalen eta bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez

2009ko hastapenean Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea sartu zen indarrean. Haren helburuak honakoak dira: alde batetik, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomoa izanda -haren kudeaketan gizarte eta enplegu zerbitzuek hartzen dute parte eta herri-administrazioaren beste arlo batzuek ere laguntzen dute-; bestetik, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren funtzionamendu printzipioak eta egitura oinarriak ezartzea eta herritarrek prestazio ekonomikoak eta gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak eskura ditzaketela bermatzea, berdintasun eta zuzentasuneko irizpideen arabera, lurralde osoan era homogeenoan aplikatuko dela bermatzeko behar diren neurriak hartuz⁵.

Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2013an, 452,1 milioi euro gastatu zituen orotara, aurreko urtean baino %4,6 gehiago. Honelaxe daude banatuta: 359,1 milioi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako (guztizkoaren %79,4), 75,9 milioi euro Etxebizitzaren Prestazio Osagarriarako (%16,8) laugarren urtean eta 17,1 milioi euro inguru Gizarte Larrialdiko Laguntzetarako (guztizkoaren %3,8 inguru; ez dakigu zenbateko horren zifra zehatza).

Prestazio horiek EAEko bizi-baldintzetan dituzten ondorioei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren "Txirotasunari eta gizarte desberdintasunei buruzko Inkesta" (TGDI) uste du 2012an pobrezia atalaren azpitik bizi diren pertsonak Euskadin % 37,5 murriztu direla, laguntza horien ondorioz. Prestazio horiek izan gabe benetako txirotasun egoeran dauden pertsonak biztanleriaren % 8,5 dira, baina prestazio horiek banatu ondoren portzentajea % 5,3koa da.



Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN Gizarteratzearen Zuzendaritzaren datuekin eginikoa.

3.1. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SISTEMAREN PRESTAZIOAK

3.1.1. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak aurreko Oinarrizko Errenta izenekoa ordeztu du. EAEn erroldatuta gutxienez urtebete eman duten pertsonari ematen zaie, oinarrizko premiei eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesutik datozenei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez badute.

⁵ 18/2008 Legeari eta lege horrek dakartzan berrikuntzei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Memoria Sozioekonomiko honen 2009tik 2012rako edizioetara jo beza irakurleak.


Laguntza hori jasotzeko premia egoeraren ziurtagiria oinarrizko gizarte zerbitzuek egiten dute eta, salbuespenak salbuespen, txertaketarako hitzarmenetan parte hartzea behar da, gizarteratzea eta laneratzea eta premia egoera horretatik irtetea errazteko xedez. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratu ahal izateko betekizun orokorren artean, erreferentziatzko urtean, 23 urtetik gorakoa izan behar da. Jasotako zenbatekoa honako hau da: hamabi hileko kuotetan lanbideen arteko gutxieneko soldataren % 88ko urteko diru-sarrerak bermatzeko behar dena, gehi haren % 25 bigarren pertsonarentzat eta % 10 gehiago pertsona bakoitzarentzat hirugarrenetik aurrera.

2013. urtean 359,1 milioi euro ordaindu ziren Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta gisa (2012an baino % 4,5 gehiago). Gehikuntza hori heterogeneoki banatzen da autonomia erkidegoko hiru lurraldeetan zehar. Hala, igoyerarik handiena Gipuzkoan dago (+%21,1), eta ondoren Araban (+%9,5); Bizkaian, berriz, %1,1eko jaitsiera dago.

IV.3.1. KOADROA. GASTUAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN. MILIOI EUROTAN.

	2010	2011	2012	2013	% Var 2011/12	% Var 2012/13
Araba	40,16	43,89	51,87	56,8	18,2	9,5
Gipuzkoa	46,51	51,84	61,10	74,0	17,9	21,1
Bizkaia	228,15	234,61	230,82	228,3	-1,6	-1,1
EAE	314,82	330,34	343,79	359,1	4,1	4,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarteratzearen Zuzendaritza.



Iturria: LANBIDE.

IV.3.2. KOADROA. GIZARTERATZEKO GUTXIENKO ERRENTEN KONPARAZIOA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. 2012KO DATUAK.

	Estandura tasa (1.000 biztanleko)		Titular hartzaileak			Gastua (milioi eurotan)		
	2011	2012	Abs. 2012	% 2012	2011/12ko aldak. %	Abs. 2012	% 2012	2011/12 aldak. %
ANDALUZIA	4,05	3,91	33.068	15,2	-3,2	69,34	8,1	12,6
ARAGOI	3,20	4,08	5.504	2,5	27,7	19,75	2,3	98,9
ASTURIAS	8,08	8,72	9.393	4,3	7,5	44,95	5,3	38,2
BALEARS (ILLES)	2,09	1,95	2.182	1,0	-6,2	5,92	0,7	9,0
KANARIAK	2,30	2,55	5.397	2,5	10,5	19,70	2,3	11,3
KANTABRIA	7,23	7,41	4.402	2,0	2,7	15,25	1,8	114,8
GAZTELA-MANTXA	0,93	0,52	1.097	0,5	-44,4	3,00	0,4	24,5
GAZTELA ETA LEON	2,51	3,31	8.430	3,9	31,2	33,43	3,9	103,6
KATALUNIA	3,26	3,05	23.123	10,6	-5,8	129,80	15,2	-18,8
CEUTA	1,54	2,33	196	0,1	54,3	0,45	0,1	164,7
EXTREMADURA	1,06	1,19	1.318	0,6	11,9	1,66	0,2	-25,2
GALIZIA	2,64	3,08	8.517	3,9	15,5	26,76	3,1	18,6
MADRIL	2,77	3,06	19.909	9,2	10,7	84,61	9,9	41,0
MELILLA	6,19	6,48	524	0,2	7,8	1,66	0,2	39,5
MURTZIA	1,29	1,27	1.876	0,9	-1,3	3,97	0,5	40,8
NAFARROA	12,75	12,29	7.920	3,6	-3,2	30,30	3,5	-1,7
EAE	39,70	31,91	69.976	32,2	-19,3	343,42	40,2	9,6
ERRIOXA	6,09	6,77	2.190	1,0	11,4	5,91	0,7	107,4
VALENTZIAKO E.	1,24	2,39	12.282	5,7	93,7	14,67	1,7	-11,1
ESTATUA	4,75	4,60	217.358	100,0	-2,9	854,75	100,0	11,5

Iturria: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioaren datuak erabilia egindakoa 2012.

Bestalde 2013an 62.817 familiek jaso zuten Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (abenduko datua); hori aurreko urtean baino %8,3 gehiago da, orduan lagundutako elkarbitza unitateak 57.979 izan baitziren. Lurraldeka, Bizkaiak

dauka jasotzaile gehien, 39.719 guztira, EAeko guztien % 63,2; Gipuzkoak, ordea, jasotzaileen % 22,4 biltzen du, eta Arabak gainerako % 14,4a. Lanbideren 2013ko Balantzean nabarmentzen denez, onuradun gehienak 35-44 urte bitartekoen artean dago (guztizkoaren %27,1) eta, gainera, DBE jasotzen duten 10 pertsonetatik 6 emakumezkoak dira. Halaber, prestazio hori jaso zuten bertakoen kopurua (45.000 inguru) atzerritarrek baino 2,5 aldiz gehiago dira gutxi gorabehera (%71,9 eta %28,1, hurrenez hurren. Gainera, titular hartzaileen %28,2 pentsioduna da.

Bestalde, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunaren Ministerioaren “Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei buruzko txostena”ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sistemen zifra handien konparaziozko jarraipena egin daiteke, sistema horiek garatzeko araudien heterogeneotasuna eta garapen maila ezberdinak kontuan izanik. 2012ko txostenaren arabera, gure Erkidegoak urte horretan 4.908 euroko gastua zuen prestazio horietan urteko eta titularreko; Estatuko batez bestekoa, berriz, 3.236 euro da. Gainera, 31,9 mila biztanleko estaldura-tasa du (Estatuko batez bestekoa 4,6 da). Kontuan izan behar da gure Erkidegoak Estatuko prestazio horietarako funts guztien %40,2 izan zuela bere eskura aipaturiko urtean, eta oinarritzko kopurua, hilean 612,41€, Estatuko batez bestekoa baino %45,6 handiagoa da, hots, autonomia erkidego guztietako handiena.


Alabaina, harrigarria da Ministerioari EAeri 2011 eta 2012 bitartean titular hartzaileen kopuruan ematen duen bilakaera negatiboa (ez dator bat jatorrizko iturriarekin, hots, Lanbiderekin); ez dugu horretarako azalpenik.

3.1.2. Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria

Etxebizitza gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) eskubide subjektiboko prestazio bilakatzeak sistemaren funtsezko osagai bihurtarazi du, eta 18/2008 Legearen helburua islatzen du: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta osatzeko prestazio ekonomikoen sistema bat eratzea, biztanleria talderik ahulenei etxebizitzari lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Funtsezko gastuak estaltzeko gutxieneko egonkortasuna bermatu ez ezik, jarduketa tresna horren xedea GLLak jatorrizko helbururantz birbideratzea ere bada, hots, gastu bereziak estaltzea; horrela, beharrak direla-eta, urteen poderioz GLLak, praktikan, aldiari aldiko izaera hartu eta, proportzio handi batean, etxebizitza gastuak ordaintzeko erabiliak izatera eraman zituen desbideratzea zuzendu da. Arestikoak ez du inondik inola esan nahi etxebizitza gastuak lege esparru berriak Gizarte Larrialdiko Laguntzei emandako xedeetatik at geratu direnik, halako gastuak estaltzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak ez diren pertsonen bano ezin esleituko zaizkiola baino.

EPOren xehetasunak etxebizitza gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarriaren 12ko 2/2010 Dekretuak arautzen ditu. Hark xedatzen duenez, haren helburua honakoak estaltzea da: “*etxebizitzari lotutako beharrak, etxebizitza edo ohiko bizilekua alokatzeko gastuak, alokairu, berrakura, alokairukidetzak, ostatu eta gelen alokairuko modalitate guztietan*”.

IV.3.3. GRAFIKOA. EAE-N EPO JASOTZEN DUTEN TITULARREN HILEKO BILAKAERA, LURRALDEEN ARABERA. 2010-2012.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.

Indarraldiko lehen urtean (2010), 51,1 milioi euroko gastua ekarri zuen EPOk, 64,9 milioi 2011n eta 71,2 milioi 2012an. 2013an, azkenik, guztira 75,9 milioi euro ordaindu ziren, aurreko urtean baino %6,6 gehiago. Horietatik 13,3 milioi Arabari dagozkio (guztizkoaren %17,5), 45,8 Bizkaiari (%60,3) eta 16,8 milioi euro Gipuzkoari (%22,2). 2013ko abenduan, guztira 25.882 titular hartzaile izan ziren (aurreko urtean baino %18,3).

3.1.3. Gizarte larrialdiko laguntzak

Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL) ez dira aldian aldikoak eta oinarrizko premia zehatzei aurre egitera daude zuzenduta. Premia horiek batez ere etxebizitzari daude lotuta eta behin-behinean agertutakoak dira, eta gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez duten pertsonentzat dira. Helburu baterako dira, eta eman diren xederako baino ezin dira erabili.


IV.3.3. KOADROA. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK 2012: KONTZEPTUEN ARABERAKO BANAKETA ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOAK.			
	LAGUNTZA KOP.	ZENBATEKOA (MILAKA €)	B.B. ZENBATEKOA LAGUNTZAKO (€)
ALOKAIRUA	4.819	4.775	990,91
AMORTIZAZIO INTERESAK	2.414	2.582	1.069,46
MANTENTZE BESTE GASTU BATZUK	10.497	3.828	364,66
ALTZARIAK ETA ETXEKO TRESNA ELEKTRIKOAK	1.273	562	441,51
KONPONKETAK ETA INSTALAZIOAK	1.178	752	638,59
OINARRIZKO BEHARRAK	7.224	42.281	592,58
ZORPETZEA	1.348	356	264,42
LAGUNTZAK, GUZTIRA	28.753	17.136	595,98
UNITATE HARTZAILEAK	23.000		
PERTSONA HARTZAILEAK	38.141		

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarteratzearen Zuzendaritza.

Laguntza horiek babestutako berariazko gastuak etxebizitza edo ohiko ostatua gozatzeari eta mantentzeari, etxebizitzaren edo ohiko ostatuaren epe luzerako bizigarritasunari eta oinarrizko ekipamenduari (altzariak, linea zuriko etxetresna elektrikoak, oinarrizko instalazioak edo horiek egokitzeko eta/edo konpontzeko gastuak) lotutakoak eta jantziei, hezkuntzari, prestakuntzari edo osasun arretari buruzko lehen mailako beharizanean lotutako ohiz kanpoko, aurreikusi gabeko eta ohikoak ez diren beharizanak, sistema publikoek estaltzen ez dituztenak, estaltzekoak dira, baita, oinarrizko Gizarte Zerbitzuen iritziz, gizarte bazterkeriako egoerak saihesteko edo arintzeko behar diren antzeko motako beste edozein ere.

EPOak abiarazi ondoren, GLLek beren jatorrizko helburuari heldu diote berriro, eta nabarmen murriztu zaie aurrekontu partida. Horrela, 2010ean laguntza horietarako 24 milioi euro erabili dira,

IV.3.4. GRAFIKOA. GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK: JASOTZAILE KOPURUAREN BILAKAERA LURRALDEAREN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarteratzearen Zuzendaritza

guztira, aurreko urteko 54,5 milioi euroren aurrean. 2011n, 17,3 milioi erabili ziren GLLetarako, eta 2012an (zifra ofizialak dituen azken datua) guztira 17,14 milioi, aurreko urtean baino %0,9 gutxiago. Guztizkoaren %55 Bizkaiari dagokio, %29 Gipuzkoari eta %16 Arabari.

Horrela, 23.000 hartzaile zenbatu dira, guztira, hau da, 2011n baino % 50 gehiago. Horietatik 2.694 Araban (% 11,7), 6.502 Gipuzkoan (% 28,3) eta gainerakoak (13.804) Bizkaiaren (% 60) bizi ziren. Guztira, hainbat kontzeptutako 28.753

laguntza eman ziren urtean, hala nola oinarritzko beharretarako (7.224 laguntza), alokairurako (4.819) edo interesen amortizaziorako (2.414), hots, laguntza bakoitzeko 595,98€-ko batez bestekoa.

3.2. GIZARTERATZEA LAGUNTZEKO PROGRAMAK

3.2.1. Gizarte esku-hartzearen esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak.

649/2009 Dekretua, abenduaren 29koa, zeinen bidez Euskadiko gizarte esku-hartzearen eremuan hirugarren sektorearen jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen baitira delakoak eremu horretan ematen ziren diru-laguntzak aldatu ditu; izan ere, haren xedea Eusko Jaurlaritzak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei erakunde horiek, euren ekimenez, gizarte esku-hartzearen eremuan, burutzen dituzten jarduerak finantzatzen laguntzeko ematen dizkien diru-laguntza ekonomikoen esparrua arautzea da.

2012an (informazioa dugun azken urtea), guztira, 7,93 milioi euroko laguntzak eman ziren, 2011n baino %9,3 gutxiago. Diru-laguntza moten arabera, 6,6 milioi pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin esku hartzeko erabili ziren, 0,9 milioi borondatezko ekintzarako eta gainerako 0,4 milioiak jakintzaren kudeaketarako.

3.2.2. Laneratze enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak

Gure Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2002ko abenduaren 11ko Aginduak laneratze enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautu ditu. Agindu hori laneratze enpresen kalifikazioa arautu, haietan sartzeko prozedura ezarri eta laneratze enpresen erregistroa sortzeko abenduaren 26ko 305/2000 Dekretua garatzeko ezarri zen. 305/2000 Dekretua azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuak indargabetu zuen, laneratze enpresen araubidea arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legearen eskakizunetara egokitzeko. Laguntza horien helburua halako enpresei euren ezaugarri eta premia berezietara egokitutako laguntza bideak eskaintzea da, haientzat berariaz diseinatutako laguntza ekonomikoen oinarri arautzaileak xedatuz. Haren esparruan, laneratze enpresak sortzeko erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak eta laneratze enpresei eurei, irauteko, zuzendutako diru-laguntzak aurreikusten dira. Tresna horien bidez, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratze enpresa batean sartzeko kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarreanean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatuztik ondorioztatzen da.

IV.3.4. KOADROA. EAE-KO LANERATZE ENPRESENTZAKO LAGUNTZA PROGRAMAREN BILAKAERA. 2003-2011.			
	ERAKUNDEAK	AURREKONTUA (milaka eurotan)	ONURADUNAK
2003	9	1.800	43
2004	21	3.040	90
2005	32	5.170	212
2006	40	7.940	321
2007	48	7.790	423
2008	45	7.130	450
2009	39	7.235	447
2010	42	9.380	525
2011	46	9.610	675
2012	39	7.452	:
GUZTIRA 2003-2012	361	66.547	3.186*

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren datuekin eginikoa.
* 2011ra arteko datua.

Azken urteetan, Espainiar Estatuan laneratze enpresei dagokienez, asko sortu dira. Alde batetik, zenbait autonomia erkidegok (haien artean EAE) figura hori arautu dute eta onarpena eta berariazko diru-laguntzak eman dizkiote; gainera, enpresa kopurua esponentzialki handitu da.

Laneratze enpresak definitzeko esan daiteke haien helburu nagusia gizarte bazterkeriako egoeran eta arriskuan dauden eta lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratu eta laneratzea dela. Haien ezaugarri nagusia haien gizarte helburu bikoitza da: alde batetik, enpresa eratu den jarduera ekonomikoa gauzatzea; bestetik, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden taldeetako pertsonak gizarteratzea eta laneratzea.

2003tik 2012 arte, Eusko Jaurlaritzak, laguntza lerro horren bidez, 66,5 milioi euro banatu ditu, urtean batez beste 36 laguntza eta ia 3,186 lagunek jaso dituzte 2012an (informazioa dugun azken urtea), laguntzak eman zitzaizkien 39 laneratze-enpresari, eta hiru erakunde sustatzaileak enpresa berriak sortzeko laguntzak eskatu zituzten. Guztira, 7,45 milioiko laguntzak izan ziren, aurreko urtean baino %22,5 gehiago.

4. GIZARTE AURREIKUSPENENKO SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N

EAEn, gizarte aurreikuspen osagarriko sistema pribatuan protagonista nagusiak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) eta horiek osatzen dituzten aurreikuspen planak dira. Euskal zergapekoek errentaren gaineko zergaren aitortpenean gizarte-aurreikuspen osagarriko erakundeei ordaindutakoagatik kentzen dutenaren % 92 inguru BGAEetara bideratzen dute. Gainerako % 8A beste forma batzuetara bideratzen dute, besteak beste, pentsio plan eta funtsetara, taldeko aseguru kontratuetara, mutualitateetara, etab.

Gizarte Segurantzaren sistema publikoak osatzeko pentsio plan pribatuak dauzkaten herrialde guztietan bezala, EAEn bi plan modalitate nagusi daude: enplegu edo lanbide aurreikuspenekoak, langileei zuzenduak, eta lan harremanen esparruan lan-hitzarmen kolektiboaren tresnaren bidez egituratuak; eta finantza erakundeek sustatutako banakako aurreikuspen planak edo kontu pertsonalak, haietara edozein pertsona fisiko bazkideku daitekeela. Bestalde, gure legedian hirugarren modalitate bat ere badago: elkarteko aurreikuspen planak; haien bazkideak elkarte baten, sindikatu baten... kideak dira eta ez daude hain zabaldua.

4.1. MAGNITUDE NAGUSIAK

2010az gero Eusko Jaurlaritzaren BGAEen Erregistroko datu ofizialik ez dugunez, ondoren Euskadiko BGAEen Federazioak emandakoak aurkeztuko ditugu (ez dira sartzen Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan inskribaturiko erakunde guztiak, baina gehienak bai).

IV.4.1. KOADROA. EUSKADIKO BGAE-EN FEDERAZIOA: 2010-13-31N (milioi eurotan)

	ERAKUNDE BAZKIDEAK	BAZKIDEAK	KUOTAK	ONDAREA	PRESTAZIOAK
ENPLEGUA	42	433.066	320,51	10.934,66	462,31
BANAKAKOAK	34	704.658	565,36	10.751,93	621,85
BAZKIDEAK	4	3.345	2,56	88,59	6,11
HAINBAT	2	11.669	0,61	3,39	0,55
GUZTIRA, BGAE	82	1.141.069	889,04	21.778,57	1.090,82

Iturria: Euskadiko BGAEen Federazioa.

2013ko abenduaren 31n, Federazioak 82 erakunde bazkide zituen, eta horietatik 42 enpleguko BGAEak ziren, 34 banakoak, 4 bazkideak eta bi "hainbat" kategoriari zegozkion (Bajurako itsasontzien BGAE eta Euskofideren heriotzen erakundeak).

Pertsona bazkideen erdia baino gehiago (%61,8) banako BGAEetan zegoen; izan ere, kategoria horri dagozkio kuota gehienak (%63,6 eta prestazioak (%57,1). Alabaina, ondarea ia zati berdinetan banatzen da enpleguko (guztizkoaren %50,2) eta banako (%49,4) BGAEen artean.

IV.4.2. KOADROA. EUSKADIKO BGAE-EN FEDERAZIOA. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA. ZENBATEKOAK MILIOI EUROTAN.

	2011	2012	2013	2012/13ko aldak. %
BAZKIDEAK	1.178.750	1.173.674	1.141.069	-2,8
KUOTAK	1.166	923	889	-3,8
PRESTAZIOAK	1.004	925	1.090	17,8
ONDAREA	19.192	20.382	21.778	6,8
KUOTEN % BPG-aren g.	1,78	1,43	1,37	-4,2
ONDAREAREN % BGP-aren g.	29,22	31,50	33,65	6,8

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOAREN datuak erabilita egindakoa.

2013ko balantzea eginez esan behar da Euskadiko BGAEen ondareak lehen aldiz gainditu duela 21.000 milioi euroko langa, eta aurreko ekitaldietan baino 1.393 gehiago izan dira. Ondare hori EAeko BPGd-aren %33,65 da; ratio hori Estatukoa baino askoz handiagoa da (%7,8) eta EB15eko batez bestekoa baino pixka bat handiagoa (%26), baina oso urruti dago ELGAko batez besteko herrialdeetatik. Erakunde horren arabera, %67,6 da.

Iturri horren arabera, kuotak edo ekarpenak 889 milioi eurotik gorakoak ziren 2013an, baina jaitsi egin da 2012. urtearen aldean (-%3,8). Bilakaera horretan, eragina izan du enplegatu publikoen BGAEen enpresa-ekarpenen etenaldiak (Elkarkidetzeta eta Itzarri) eta, oro har, bilakaera ekonomiko negatiboak.

Halaber, atxikipenek (1,14 milioi) behera egin dute, 2012an baino 32.000 gutxiago, eta aldi berean, ordaindutako prestazioak 1.090 milioi eurotik gorakoak dira, hots, aurreko urtean baino %17,8 gehiago.

4.2. ARAUBIDE FISKALA

BGAEEK EAEn izan duten garapen handiaren arrazoietakoa bat, neurri handi batean, zerga pizgarriak izan dira; izan ere, aurrezte bide horren erakargarritasuna areagotu dute, batez ere PFEZren bitartez (zenbakiko bazkideentzat), baina baita Sozietateen gaineko Zergaren bitartez ere (bai erakundeentzat eurentzat, bai enplegu planetan enpresa edo bazkide babesleen parte hartzea bultzatzeko). EAEn, zergari buruzko eskumenak lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiak eta batzar nagusiek erabiltzen dituzte. Oro har zenbakiko bazkideak egindako ekarpenak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarritik ken daitezke⁶. Bestalde, errenta geroratuztat jotzen direnez, BGAEetatik jasotako prestazioak (baita erreskateak edo gertakizuna gertatu aurretik ordaindutako zenbatekoak) norberaren lanaren osoko errendimendutzat jotzen dira, baita atxikipenari begira ere⁷.

Zergak Koordinatzeko Erakundeak 2011ko bere txostenaren bidez emandako 2010eko PFEZren likidazio datuen arabera, BGAE-ei eta gainerako aurreikuspen formulei egindako ekarpenengatiko kenketa 1.201,65 milioi eurokoa izan zen, 2009an baino %0,1 gehiago -hori EAeko urte horretako BPGd-ren %1,84 da, eta 2009an %1,88 izan zen-, guztira 496.598 aitorlerentzat, aurreko urtean baino %0,9 gutxiago eta aitorleen %42,4.

Lurraldeen arabera, Arabak aitortzaileen %12 besterik ez du eta zerga oinarriaren murrizpenen guztizko zenbatekoaren %13 (59.942 aitortzaile eta 156,51 milioi euroko murrizpena). Bizkaiak, berriz, aitortzaileen %46,4 du eta murrizpenaren %45,8. Azkenik, Gipuzkoak aitortzaileen 41,6 eta zenbateko murriztuaren %41,2 dauka.

Zenbateko horrek, batez beste, 2.415 euroko kenketa dakar, eta aurreko urtekoa baino % 1 handiagoa da. Hona hemen balioak: errenta mailarik txikienen (30.000 euro arteko likidazio-oinarria) batez besteko ekarpena 1.693 eurokoa izan zen, eta zergapekoen % 35ek baino ez zituzten ekarpenak egin; 30.000 eta 90.000 arteko oinarria zuten zergapekoen batez besteko ekarpena 3.401 eurokoa izan zen, eta haietatik % 70ek egin zituzten ekarpenak; eta errenta mailarik handienetan batez besteko ekarpena 9.080 eurokoa izan zen, eta zergapekoen % 72k egin zituzten ekarpenak.

IV.4.3. KOADROA. PENTSIO-PLANETARAKO ETA BGAE-ETARAKO EKARPENENGATIKO ZERGA-OINARRI OROKORRAREN MURRIZKETAK.

	Zenbatekoa (milaka €)	Aitortzaileak		Batez b. murrizketa (€)
		Kopurua	Gutzizkoaren g. %	
2007	1.199.980	513.222	45,2	2.338
2008	1.171.013	517.456	44,2	2.263
2009	1.200.570	502.000	42,8	2.392
2010	1.201.653	497.598	42,4	2.415
08/09ko ald. %	2,5	-3,0	-3,2	5,7
09/10eko ald. %	0,1	-0,9	-0,9	1,0


Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOAREN datuak erabiltuta egindakoa.

⁶ Ondarearen gaineko Zerga Bereziari dagokionez, bazkidearen eskubide irmoak zerga horren aitorpena aurkeztu behar den erabakitze baina ez dira zenbatzen, eskubide salbuetsitatzat jo eta, beraz, haren zerga-oinarria osatu ez arren.

⁷ Hala ere, prestazioa kapital gisa jasotako kopurua bada, % 40ko kenketa dakar, eta errenta bada, aldez, osorik sartzen da zerga-oinarrian.

V. KAPITULUA

Araugintza EAEn



EAErako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak azaltzen du EAEren eskumena dela gai jakin batzuetan legeria garatzea eta bere lurraldearen barruan estatuaren oinarritzko legeria betearaztea. Era berean, lege horrek adierazten du EAEko botereak Legebiltzarraren bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidez eta lehendakariaren bidez gauzatuko direla, eta lurralde historikoei beren foru erakundeak estatutuan xedatutakoaren arabera edukiko eta antolatuko dituztela.

EAEko autogobernurako erakundeak indarrean sartzean, ezinbestekoa suertatu zen, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorritik, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren antolaketari eta eskumenei buruzko legeak eta erakunde komunak eskumen maila eta lurralde historikoen eskumen maila arautzeko legeak onestea.

Eusko Jaurlaritzaren egitura, haren eskumenak eta Legebiltzarrarekin dituen harremanak finkatzeko helburuarekin, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea onetsi zen. Besteak beste, legearen arabera, Gobernuak eskumen hauek ditu: legeak egiteko ekimena, lege proiektuak onetsiz eta Legebiltzarrari bidaliz; legegintzarako eskuordetzea, legegintzako dekretuen bidez; eta araudiak egiteko ahalmena, dekretuen eta aginduen bidez.

Gerora, Autonomia erkidegoko erakunde komunak eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanak buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea aldarrikatu zen. Lege horrek Eusko Legebiltzarrak izendatzen du lege lerruna duten arauak onesteko gaitasuna daukan erakunde bakar autonomi erkidego osoan, baldin eta lege horien gaia Autonomia Estatutuaren arabera autonomi erkidegoari badagokio eta estatutuak, lege honek edo ondorengo legeek ez badiete gaia lurralde historikoetako foru organoek esleitzen. Tradizio historikoarekin bat etorritik, lurralde historikoetako foru organoak Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak dira.

Era berean, lurralde historikoetako eskumenak arautzen ditu. Ezartzen duenez, beraien bakarreko eskumenekoak diren gaietan lurralde historikoei dagokie arauak egiteko ahalmena, bakoitzaren Batzar Nagusien foru arauen bidez.

Esparru honetan, **Eusko Legebiltzarrak**, bere funtzio legegilea betez, 2013an 4 lege onetsi zituen guztira, aurreko urtean baino 15 gutxiago.

Ekimen legegilea, hau da, prozedura legegilea martxan jartzeko gaitasuna, hauen proposamena izan daiteke:

- Legebiltzarreko taldeena, edo legebiltzarkide batena, beste lauren sinadura jasoz gero.
- Gobernua.
- Lurralde historikoak ordezkatzeko dituzten erakundeena.
- Herri ekimen legegilearena, EAEko 30.000 herritarren sinadurekin.

Ekimena Eusko Jaurlaritzarena denean lege proiektua izena jasotzen du; gainerako kasuetan, lege proposamena da.

Honako lege hauek onetsi dira 2013an:

- *Urriaren 10eko 1/2013 Legea, bizitza osoko ikaskuntzari buruzkoa.*
- *Urriaren 10eko 2/2013 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatu duena.*
- *Apirilaren 22ko 2/2010 Legea indargabetu duen azaroaren 14ko 3/2013 Legea, urriaren 25a Euskadiko Eguna adierazteari buruzkoa.*
- *Abenduaren 20ko 4/2013 Legea, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren 2014ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onetsi dituen.*

Euskadiko EGAB, Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren erakunde aholku-emailea den aldetik, 2013an onetsi ziren lege batzuei buruzko irizpena eman zuen 2012an, nahiz eta orduan dekretu gisa izapidetzen ari izan.

- Dekretu Proiektuari buruzko 9/2012 Irizpena. Horren bidez, bizitza osoan ikasteari buruzko jarduerak egiteko laguntzak arautu dira.

Euskadiko EGABek balorazio ona egin zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ekimenari buruz, zeren eta 10 urtetik gorako ibilbidea duen araudia eguneratu eta Europako 2020ko Estrategiaren eskakizunetara egokitzea baitzekarren. Hala eta guztiz ere, Batzorde honen ustez, dekretu proiektuaren zenbait ezaugarritan jarri beharra dago arreta.

Lehenik eta behin, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatu zuen proiektua. Abenduaren 17ko 298/2002 Dekretua, berriz, dekretu gisa agertzen zen, Hezkuntza, Unibertsitate Sailaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren arteko baterako lanaren ondorioz. Positibotzat jotzen da aldaketa, aurreko dekretua baterako dekretu gisa agertzen baitzen, baina, praktikan, Hezkuntza Sailarena izan zen finantzazioa oso-osorik.

Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailak laguntzen kudeaketan partaidetza oso txikia izan du, Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak Ebaluazio Batzordean parte hartzea besterik ez. Alde horretatik genioenez, 42/2011 Dekretuan Sailerako ezarritako egiturak ez zekarren Zuzendaritza hori, zeren eta, euskal administrazioak enplegurako politika aktiboen transferentzia bere gain hartu ondoren, Lanbideak baititu eratzikita enpleguaren eta prestakuntzaren arloko funtzioak.

EGABen iritziz, argudio horiek Zioen Azalpenean bildu behar ziren; izan ere, aldaketa nabarmena dakarte aurreko egoerarekiko.

Bestalde, nahiz eta dekretu proiektuan 2012-2013ko ikasturterako jarduerak finantzatzeko aurrekontuko kreditua ezarrita zuten Memoria Ekonomikoa bildu, ez ziren aintzat hartu hurrengo ikasturteetarako aurrekontuko aurreikuspenak. Hori dela-eta, laguntza horiek egia bihur daitezten, etengabeko hezkuntzarako helburua bete ahal izateko nahikoa aurrekontua izan behar da nahitaez.


Bestalde, **Eusko Jaurlaritzak**, arauak emateko duen ahalmena erabiliz, 473 dekretu onetsi ditu guztira 2013. urtean:

Euskadiko EGABek, erakunde aholku-emailea den aldetik, zortzi irizpen eman ditu 2013an:

- Maiatzaren 29ko 1/13 irizpena, Profesionaltasuneko Ziurtagirien eta Pilatutako Egiatzapen Partzialen Euskadiko Erregistroa sortu eta ziurtagiri horiek erregistratzeko eta egiteko prozedura ezartzen duen Dekretuaren proiektuari buruzkoa.
- Maiatzaren 29ko 2/2013 Irizpena, Prestakuntza-espezialitateen fitxategia eta prestakuntza zentron eta erakundeen erregistroaren Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- Maiatzaren 29ko 3/13 Irizpena, Euskadiko Autonomia Erkidegoko nekazaritza, elikagaigintza eta arrantza sektoreetako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako laguntzen Dekretuari buruzkoa (BERRIKER).
- Uztailaren 5eko 4/13 Irizpena, nekazari gazteen estatutuaren Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- Irailaren 16ko 5/13 Irizpena, Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduketan prozedura arautu duen Dekretuaren bigarren aldaketaren Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- Azaroaren 22ko 6/13 Irizpena, EAeko arreta goiztiarraren esku-hartze integralaren Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- Abenduaren 20ko 7/13 Irizpena, 2013-2016ko Enplegu Planari buruzkoa.
- Abenduaren 20ko 8/13 Irizpena, Euskadiko Elikagaigintzaren Artisau Ekoizpenaren Dekretua aldatzeko dekretu proiektuari buruzkoa.


Lurralde Historikoetako batzar nagusiei dagokienez, aurreko urtekoaren oso antzekoa izan da 2013. urteko araugintza, onetsitako foru arauen bidez neurtua hain zuzen. Zehazki, Araban 41 foru arau onetsi dira, 2012an baino 29 gehiago. Gipuzkoan, berriz, 7 arau onetsi dira, 2012an 39 berretsi ondoren. Bizkaiari dagokionez, azkenik, 14 arau onartu dira 2013an, aurreko urtean baino pixka bat gehiago (9 arau onetsi ziren).

V.1.1. GRAFIKOA. LEGEBILTZARRAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LEGEGINTZA



Iturria: Geuk eginikoa EHAaren datuekin.

V.1.2. GRAFIKOA. LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIEK ONETSITAKO FORU ARAUAK



Iturria: Geuk eginikoa, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Lurralde Historikoetako Aldizkari Ofizialetatik ateratako datuekin

1. ERREFERENTZIA-ADIERAZLEETAKO SINTESIS-A**1.1. EAE-KO JARDUERA EKONOMIKOA GARATZEKO BALIABIDEAK****1.1.1. Demografia eta Inmigrazioa****VI.1.1. KOADROA. DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA EAE-N. ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK.**

	EAE		ESTATUA 2012	EB28 2012
	2005	2012		
Biztanleria-bolumenaren aldaketa-tasa	0,4	0,4	-0,2	0,2
Mendekotasun-ratioa*	43,6	50,4	47,8	50,2
Biztanle atzerritarren ehunekoa	3,4	6,9	12,1	6,9
1.000 biztanleko migrazio-saldoa	6,3	4,5	-3,5	1,7

Iturria: EUSTATen, EUROSTATen eta INEren datuekin landutakoa.

**65 urtetik gorako eta 16 urtetik beherako baturaren eta lan egiteko adinean (16 urtetik 65 urtera) dauden pertsonen arteko zatidura.*

1.1.2. Hezkuntza eta hezkuntza promozioa**VI.1.2. KOADROA. HEZKUNTZA SISTEMA. ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLE NAGUSIAK. 2011KO EDO 2012KO DATUAK.**

		EAE		Estatua	
Hezkuntza administrazioen gastuaren %, BPGdren gainean, 2011n	Guztira	4,26		4,22	
	Ez-unibertsitatekoak	3,37		3,08	
	Unibertsitatekoak	0,78		0,95	
HEZKUNTZA HELBURUAK		2011 edo 2012KO EGOERA			2020 HELBURUA
		EAE	ESPAINIA	EB	
Eskolatzetasa 16 urterekin		99,8	96,7	94,8	-
Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa bete duten 20-24 urteko biztanleen %		80	62,8	80,3	-
Eskola behar baino lehenago lagatzea.		11,5	24,9	12,7	10
Zientzia eta Teknologia graduatuak 1.000 biztanleko (20-29 urte)		24,9 (2009-10)	16,8	16,8	-
Prestakuntza bizitza osoan zehar (25-64)		13,7	7	9	15
Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa bete duen 25-64 urteko biztanleen %		68,1	54,4	Erreferentziazko herrialdeetan tasa handiagoak	-

Iturriak: EUSTAT, EUROSTAT, MECD

1.1.3. I+G+b+IKT jarduerak**VI.1.3. KOADROA. I+G+I eta IKTak: ADIERAZLE NAGUSIAK**

	EAE		ESTATUA 2012	EB27/EB28 2012	Europako helburua
	2005	2012			
Gastua I+G/BPG (%)	1,82	2,12	1,3	2,6	%3
Sektore pribatuak egikaritu gastuaren %	78,6*	76*	52,1	53	-
ZTESko TEK egikarituriko gastuaren %	-	16,2			
Sektore publikoak egikarituriko gastuaren %	3,8	6,3	19,5	19,1	-
Sektore pribatuak finantzaturiko gastuaren %	60,7	55,9	44,3	45,6	%66
Europako Berrikuntza Adierazle Panela: Adierazlearen balioa (2013ko datuak)	-	0,48	0,41	0,54	-
Etxetik interneteko sarbidea duten 16-74 urteko kide bat gutxienez duten familien %	41,4	72	68	79	-

** ZTESko teknologia elkartegi pribatuak daude barruan*

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, INE

1.1.4. Natura-ingurunearen egoera EA-n

VI.1.4. KOADROA. ADIERAZLE NAGUSIAK				
	EAE		EAEko helburua	Europako helburua
	2007/08	2011/12		
Aire kalitate ona edo onargarriko egunen ratioa	93,8	98,6	-	-
NEGen isuriak (1990etikiko aldakuntza)	+25,4	+1,1	+14*	+15 Espainiarako
Enpresen ingurumena babesteko gastua eta inbertsioa BPGaren gainean	0,27	0,38	-	-

* *Autonomia erkidegoetarako helbururik ez badago ere, Klimaren Aldaketaren kontra borrokatzeko 2008-2012ko Euskal Planean, EAEko isuriak mugatzea ezarri da borondatezko helburu, aipaturiko aldiari, halako moldez non ez baita oinarrizko urtekoaren %14 baino gehiago gaindituko*
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta INE

1.2. EKONOMIA EAE-N

1.2.1. Egoera ekonomikoa

VI.1.5. KOADROA. ADIERAZLE NAGUSIAK						
	2012		2013			
Mundu mailako merkataritzaren bariazio tasa	2,8		3,0			
Mundu mailako BPGdren bariazio tasa	3,2		3,0			
	EAE		EUROGUNEA		ESTATUA	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013
Biztanle bakoitzeko BPGd (1)	-	-	109	108	96	96
BPGd errearen hazkundea	-1,6	-1,2	-0,7	-0,4	-1,6	-1,2
Produktibitatea (2)	-	-	108,5	108,5	106	109,5
	EAE		EUROGUNEA		ESTATUA	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013
Azken kontsumo pribatuaren bariazio erreala	-1,3	-1,0	-1,4	-0,7	-2,8	-2,1
Azken kontsumo publikoaren bariazio erreala	-0,8	-1,3	-0,6	0,1	-4,8	-2,3
KFEGdren bariazio erreala	-6,3	-3,2	-3,8	-2,9	-7,0	-5,1
Esportazioen bariazio erreala	-3,3	1,1	2,7	1,4	2,1	4,9
Inportazioen bariazio erreala	-4,2	0,5	-0,8	0,0	-5,7	0,4

(1) 27-EB=100, 2011 eta 2012. urteak
(2) 27-EB=100
Iturria: EUSTAT, INE, EUROSTAT

VI.1.6. KOADROA. ENPRESA SAREAREN BILAKAERA EAE				
	1995-1999	2000-2003	2004-2008	2009-2013*
Enpresak	137.304	153.157	171.158	166.602
Urtetik urterako batez besteko tasa (%)				
Enpresak	5,2	1,1	3,5	-3,5

* *Seriea arazteko, lehen sektoreko enpresak alde batera utzi dira 2012an eta 2013an*
Oharra: Kontuan hartutako epe bakoitzaren urteko batez bestekoa
Iturria: DIRAE, EUSTAT

1.2.2. Sectore publikoa

VI.1.7. KOADROA. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK.					
	Zerga itunduengatiko bilketaren bariazioa %	ESPren BPGdren gaineko aurrekontu saldoa		ESPren zorpetzea**	
		Aurrezki gordina	Superabita / Defizita	Aldak. %	BPGd gaineko %
2010	+8,4	0,5	-2,7	+49,6	9,9
2011	-1,9	0,9	-1,3	+17,8	11,2
2012	-0,6	1,6	-0,7	+13,8	13,0
2013	+3,0			-1,0*	

* 2013ko irailaren 30eko bariazioa, 2012ko irailekoaren aldean.
 ** Zor bizia epealdiaren amaieran.
 Iturria: EUSTATen eta Eusko Jaurlaritzaren datuekin landutakoa.

1.2.3. Lan merkatua

VI.1.8. KOADROA. ENPLEGUA: ERREFERENTZIAZKO ZENBAIT ADIERAZLE.							
	LANGABEZIA TASA		GAZTEEN LANGAB. T.		BEHIN BEHINEKOTASUN T.		
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	
28-EB	10,4	10,8	23,0	23,4	13,7	13,8	
EDB	11,3	12,0	23,1	24,0	15,2	15,2	
ESPAINIA	25,0	26,1	53,2	55,5	23,6	23,4	
EAE	12,1	14,6	32,8	40,4	21,4	21,7	

Iturria: EUROSTAT eta EUSTATen datuekin landutakoa.

VI.1.9. KOADROA. ENPLEGU POLITIKAK EAE ETA ESTATUAREN ARTEKO ALDEA %REN GASTUA BPGdREN GAINEAN					
	P. AKTIBOAK		P. PASIBOAK		
	2011	2012	2011	2012	2013
ESPAINIA	0,52	0,47	2,83	3,00	2,91
EAE	0,63	0,73	1,72	1,90	1,94

Iturria: EUSTAT, INE eta OGASUN ETA LAN MINISTERIOEN datuak erabiliz prestatutakoa.

1.3. BIZI-KALITATEA EAE-N

1.3.1. Bizi-baldintzak EAE-n

VI.1.10. KOADROA. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK							
	EAE			Estatua	Alemania	Frantzia	Suedia
	2005	2010		2010	2010		
Ospitaleko oheak 100.000 biztanleko	385,9	370,2		315,7	824,8	642,4	272,6
Medikuak eta psikiatrak 100.000 biztanleko	366,1	388,1		377,9	373,1	327,0	380,2
Haginlariak 100.000 biztanleko	64,5	73,9		60,4	79,5	66,5	80,2
	2005	2011	2012	2011			
Osasun Sailaren gastua BPGd-arekiko	4,3	5,17	5,19				
Osasun gastua EUSTATen arabera	-	8,8	-	9,3	11,3	11,6	9,5

1.3.2. Osasuna eta Osasun Sistema

Gastua guztira/BPG	-	6,5	-	6,8	8,7	8,9	7,7
--------------------	---	-----	---	-----	-----	-----	-----

Iturria: EUROSTAT, EUSTAT eta Eusko Jaurlaritza

1.3.3. Hirigintza eta etxebizitza

VI.1.12. KOADROA. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA EAE-N ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK.

	EAE				ESTATUA 2013
	2007	2011	2012	2013	
Etxebizitzaren eskaintzaren hazkundera	+22,2	+54,4	-11,4	-13,9	..
Etxebizitzaren eskari osoaren hazkundera*	-20,9	-25,8
Etxebizitza babestuaren eskariaren hazkundera (Etxebide)	+3,0	-2,9	+0,5
Etxebizitzaren Prezioen Indizea	+4,1	-12,2	-13,3	-5,3	-7,8
EJren etxebizitza programaren gastua, BPGdren gainean (%)	0,28	0,19	0,23

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren eta INEren datuak erabiliz egina.

* Etxebizitza lortzeko eta aldatzeko premien batuketak.

1.4. GIZARTE BABESA

1.4.1. Gizarte Zerbitzuak

VI.1.13. KOADROA. GIZARTE ZERBITZUAK EAE-N ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK.

EAE-KO GIZARTE ZERBITZUEN ESTADISTIKAK			
	2009	2010	2011
Gastua biztanle bakoitzeko (€)	972,7	1.001,1	1.061,4
BPGdren gaineko gastua (%)	3,3	3,3	3,5
MENDEKOTASUNA ARTATZEKO SISTEMA: MENDEKOTASUNAREN ESPAINIAKO BEHATOKIAREN BALORAZIOA			
	2011	2012	2013
EAE	8,3	7,5	8,3
ESTATUAREN BATEZ BESTEKOA	5,0	4,7	4,7

Iturria: EUSTATen eta MENDEKOTASUNAREN ESPAINIAKO BEHATOKIAREN datuak erabiliz prestatua

1.4.2. Gizarte Zerbitzuaren pentsioak

VI.1.14. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOSISTEMA EAE-N: ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK.

		2011	2012	2013
Onuradunak:	Estaldura tasa	23,6	23,9	24,1
	Urteko hazkundera %	1,4	1,3	1,7
Gastua, guztira	BPGdren gainean %	10,5	11,4	11,9
	Urteko hazkundera %	4,5	4,2	4,9
Kotizaziopeko pentsioak	Onuradunen % guztien aldean	98,0	97,6	97,6
	batez besteko presta. %, LGSren gainean	155,2	159,8	161,6
	Ahaleginaren aldaketaren % kotizatzaile bakoitzeko	5,2	7,0	8,2

Iturria: ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO Ministerioaren datuak oinarri hartuta egindakoa.

1.4.3. Diru sarrerak Bermatzeko sistema

VI.1.15. KOADROA. DIRU SARRERAK BERMATZEKO SISTEMA EAE-N: ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK.

DIRU SARRERAK BERMATZEKO SISTEMA EAE-N			
	2011	2012	2013
Gastu osoaren hazkundera urtean %	5,8	4,7	4,6
Hazkunderaren % DSBEn onuradunak*:	1,2	4,0	8,3
GIZARTERATZEKO GUTXIENEN ERRENTEN ESTALDURA TASAK MILA BIZTANLEKAKO			
	2011	2012	
EAE (DSBE)		39,70	31,91
ESTATUAREN BATEZ BESTEKOA		4,75	4,60

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN eta OSASUN, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUN MINISTERIOAREN datuak erabiliz prestatua.

2. LABURPENA

2.1. DEMOGRAFIA ETA INMIGRAZIOA

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak emandako azken datuen arabera (2013ko urtarrilekoa), EAeko populazioak 2000an hasitako joera positiboa hautsi du, eta biztanle gutxiago ditu. Zehazki, populazioa 2013an 2.191.682 biztanlekoa da (%-0,06, 2012koarekiko), hots, 1.411 gutxiago aurreko urtean baino. Lurralde Historikoei dagozkien datuek islatzen dutenez, Gipuzkoan baino ez da hazi populazioa (1.721 biztanle, %+0,24), eta gutxitu egin da Araban, %0,35 (-1.140 biztanle) eta gutxiago Bizkaian (%-0,17, bestela esanda, 1.992 biztanle gutxiago guztira).

Bestalde, EUROSTATen zenbatespenen arabera, Europar Batasunean 505,7 milioi biztanle daude, 2013ko urtarrileko datuen arabera, hain zuzen 2011ko urtarrilean baino 1,1 milioi gehiago. Milako 2,4ko hazkunde horri esker -milako 2,4koa izan zen aurreko urtean-, beste urte batez eutsi ahal izan zaio 1960tik gertatu izan den etengabeko hazkunderako joerari, egungo Batasunaren populazioa 400 milioi biztanlekoa zenetik. Beste urte batez, bilakaera positiboa immigrazioaren portaerari zor zaio, aldaketa osoaren %20 baino ezin baitzaio egotzi berezko hazkunderari (jaiotzen eta heriotzen arteko alde positiboa).

Berriz ere EAEn, hazkunde begetatibo (jaiotzen eta heriotzen arteko alde) positiboa (oso txikia bada ere) erakusten dute 2012rako behin-behineko datuek bederatzi urtez jarraian; halakorik ez da gertatu gure Erkidegoan 1986tik: urte hartan, 20.533 jaiotza izan ziren, aurreko urtean baino %3,1 gutxiago, eta 20.281 heriotza, 2010ean baino %2,3 gehiago. Ondorioz, +252ko hazkunde begetatiboa izan da, hau da, milako 0,1ekoa besterik ez.

2012ko datua positiboa da, beraz, zeren eta jaiotzen eta heriotzen arteko diferentziak positiboa izateari eutsi baitio (neurri txikian), jaiotzen jaitsiera heriotzen igoera baino handiagoa bada ere. Ohikoa denez, joera desberdina dago lurraldeen arabera: Bizkaia, guztira 904 galdu zituen 2012an, behin-behineko datuen arabera. Izan ere, atzeratuago zegoen saldo positiboen berreskurapenean, eta 38 biztanle besterik ez zuen irabazi 2011n. Araban eta Gipuzkoan, berriz, joera positiboari eutsi die aurreko urtean, eta 772 eta 384ko lagun gehiago dituzte hurrenez hurren.

EUSTATen 2012ari buruzko "Migrazio mugimenduen estatistikak" 9.949 laguneko hazkundera zenbatu du gure erkidegoan urte horretan (aurreko urtean baino %34 gutxiago), eta hamahiru urtez jarraian migrazio saldoa positiboa izan da. Lurraldeka, Bizkaia, 4.867 lagun irabazita, migrazio saldirik handiena dauka zenbaki absolutuetan, %42 igo da 2011ren aldean. Bestalde, Arabak 1.773 lagun irabazi ditu (-%52, 2011ko saldoarekiko) eta Gipuzkoak 3.309 (+%12, igo den bakarra).

EAEn eta gainerako autonomia erkidegoen arteko mugimenduei dagokienez, 5.266 laguneko saldo positiboa eman du 2012. urteak, hots, immigrazio gehiago izan ziren emigrazioak baino, eta lehen aldia da Eustatek estatistika hori egiten duenetik saldo hori atzerriko herrialdeetako baino handiagoa dena; +4.683koa izan zen (EAera atzeritik iristen diren eta beste herrialde batzuetara doazen pertsonen arteko saldoa %46 jaitsi baita 2011ren aldean).

Bestalde, Udal Erroldaren datuen arabera, lehen aldiz jaitsi da EAEn bizi diren atzerritarren kopurua migrazioa hasi zenetik, hazkunde ekonomikoarekin batera hasi zenetik; izan ere, hazkunde ekonomikoaren azken etapan gertatu da jaitsiera, 2013an egungo krisiaren ondorioak finkatu izanaren ondorioz. 2005 eta 2012 bitartean, bikoiztu egin zen EAEn erroldaturiko atzerritarren kopurua, eta urteko igoerarik handiena 2008an izan zen: ia 19.000 atzerritar gehiago zeuden erroldatuta.

2013ko urtarrilaren 1ean, 148.165 zenbatu ditu Udal Erroldak, aurreko urtean baino %2,5 gutxiago (2013ko behin-behineko eta 2012rako behin betiko datuekin). Guztizko populazioan duen pisuan islatzen da etorkinen jaitsiera hori: 2013an %6,8koa da (aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago), eta Estatuan, berriz, %11,7koa. Hortaz, Estatuan handiagoa izan da jaitsiera; izan ere, 4 hamarren gutxiago ditu, %3,8.

Herrialdeka, 2013an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean bost Latinoamerikakoak dira (Kolonia, Ekuador, Bolivia, Brasil eta Paraguai), bi komunitarioak (Portugal eta Errumania), bi Magrebekoak (Maroko eta Aljeria) eta bat Asiakoa (Txina). 2012tik, Marokoko biztanleak dira EAEko atzerritar gehienak, 18.120 errolaturekin. EAEko atzerritar guztien %12,2 dira. Bigarren nazionalitatea Errumaniakoa da, guztien %11,7rekin.

Era berean, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuek erakusten dute ezen, 2013ko urtarrilaren 1ean, gure erkidegoan errolaturiko atzerritarren %91,4k bizileku-baimena zuela. Erregulazio tasa hori aurreko urtekoa baino 6,8 puntu handiagoa da, Estatu mailan gertatzen den moduan (%98ko tasa du, 2012an baino %6,1 gehiago). Hala, gutxi gorabehera atzerritarren erdia egoera irregularrean zegoen administrazioaren aldetik (2002-2005). Gaur egun, ordea, gero eta altuagoa da erregulazio tasa, eta %100etik hurbil dago orain. Igoera horretan modu erabakigarrian bi faktorek eragin dute: 2005ean jazotako aparteko erregularizazioa eta gizarte errotzea bidea bizileku-baimena lortzeko; horren bidez atzerritar biztanleriaren zati handi batek bizileku-baimena modu patxadatsuagoan lortu du.

Herritarrek horren aurrean duten jarrerari dagokionez, Ikuspegiak (Immigrazioaren Euskal Behatokia) agerian utzi du euskaldunek ez dutela bizi immigrazio arazotzat. %1,2k baino ez du bat-batean aipatzen EAEko lehen arazotzat (%2k 2012an), eta aipamen guztien %7,2 dira (%11,6 2012an). Bat-bateko hiru erantzun guztien multzoan, zortzigarren tokian dago immigrazioa, langabeziaren (%89,8), arazo ekonomikoen (%26), klase politikoaren (%21,9), ustelkeriaren eta iruzurraren (%20,4), etxebizitzaren (%13), pentsioen (%10,3) eta segurtasunik ezaren (%8) atzetik.

Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan betetzen duen eginkizunari buruzko ikuspegi funtzionala eta utilitarista nabarmen jaitsi da krisiaren ondorioz: 2004an %80k uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2013an, berriz, %35,4k uste du hala. Halaber, 2004an %11k uste zuen ez zela etorkinik behar zenbait sektoretan, eta portzentaje hori %43,9raino igo da 2013an.

Era berean, atzerritarrei esker ekonomiak funtzionatzen duela uste dutenen portzentajea jaitsi egin da (%36,6k, eta 2012an %40,6k), eta lehen aldiz 2004tik txikiagoa da portzentaje hori kontrakoa uste dutenena baino, %42,4. Horrenbestez, immigrazioaren funtzionaltasun ekonomikoaren gaineko ikuspegia atzeraka doa.

2.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA PROMOZIOA

EUSTATEk hezkuntza estatistikaren bidez aurreratutako datuen arabera, EAEn 2013-2014ko ikasturtea honela hasi da: unibertsitateaz kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntzan (helduentzako hezkuntza kanpoan utziz) guztira matrikulatutako 361.252 ikaslerekin. Horrek berriz ere hazkundera dakar, aurten %0,5ekoa Hezkuntza Berezia sartzen badugu, eta %1,7koa sartu ezik.

Bigarren kasua kontuan izanik (hau da, Hezkuntza Berezia kanpoan utzita), gehikuntzaren azalpena da beheko mailak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH) gehitu direla. Beheko mailen kasuan, 2013-14ko ikasturtean, 294.860 ikasle egon dira matrikulatuta (%+0,7), Haur Hezkuntzan 95.208 (%-1,6), Lehen Hezkuntzan 124.280 (%+1,8) eta DBHn 75.372 (%+1,9); halaber, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) eta irakaskuntza ertainetan ere igoerak izan dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan matrikulatutako ikasle kopurua %6,6 handitu da. Urte honetan ere gehikuntzarik handiena LHn izan da, bai goi mailakoan (%10) bai maila ertainekoan (%10,4). Batxilergoa ere hazi da baina neurri txikiagoan (%2,7).

2013-14 ikasturtean erdi mailako ikasketak egiten ari diren 65.200 ikasleetatik, 30.240 ikaslek, hau da, %46,4k, Batxilergoa aukeratu dute derrigorrezko hezkuntza amaitu eta gero; %53,6k, aldiz, LH aukeratu dute.

Unibertsitateko irakaskuntzei dagokienez, 2011-2012ko ikasturtean, orotara 59.321 ikasle zeuden matrikulatuta unibertsitateko gradu eta lehen eta bigarren zikloko ikasketetan EAEko unibertsitateetan, hots, aurre urtean baino %0,3 gehiago.

Graduko ikasketetan arreta jarrita, ikasleen %48 Zientzia Sozial eta Juridikoetan matrikulatuta daude, %22,9 Ingeniaritzan eta Arkitekturan, %11,9 Osasun Zientzietan, %10,3 Arteetan eta Giza Zientzietan, %5,3 Zientzietan eta %1,5 titulazio bikoitza egiten ari da.

Graduazioari dagokionez, datuek erakusten dute %4,7ko jaitsiera egon dela; gauzak horrela, 12.253 matrikulaturik daude eta horietatik %60 emakumezkoak dira. Aipatutako graduaziorik gehienak zentro publiko batean izan ziren; %75 zentro publikoetan eta %25 zentro pribatuetan.

Ikasketa motei dagokienez, 8.791k lehenengo eta bigarren zikloan jardun zuten (%-12,3 aurreko ikasturtekoen aldean), 762k graduatan eta 2.278k master ofizialetan (%+17,1); halaber, 422 doktore gisa graduatu ziren (%-19,8).

Lehenengo eta bigarren ziklo eta graduko ikasketei gagozkielarik, unibertsitateko ikasleen erdia baino gehiago Zientzia Sozial eta Juridikoetako adarrean (%53) espezializatu zen; horren ondoren, Ingeniaritza eta Arkitektura azaltzen dira, %28arekin. Neurri txikiagoan Arte eta Gizarte Zientzietan (%8), Osasun Zientzietan (%5,8) eta Zientzietan (%5) espezializatu ziren.

Hezkuntza adierazleei dagokienez⁸:

- Eskolatzeta tasa garbiak. Derrigorrezkoen ondoko adinetan (16, 17 eta 18) eskolatzeta tasa garbiak autonomia erkidegoen arabera aztertuz gero, agerian dago EAE agertzen dela derrigorrezkoak ez diren hezkuntza mailetan estatuko eskolatzeta tasak maizen gaintzen dituzten erkidegoen artean. Horrela, 16 urterekin, 2011-12ko ikasturtean, EAEren ratioa %96,7ra iristen da, 17 urterekin %98,4ra eta 18 urterekin %91,7ra. Estatuan datuak honako hauexek dira: 16 urterekin 96,7%, 17rekin %91,1 eta 18rekin %78,7.
- Atzerritar ikasleak. 2011-12ko ikasturteko datuek erakusten dute ratioaren jaitsiera arina izan dela aurreko ikasturteko datuekin alderatuz gero (%10etik %9,5era). Autonomia Erkidegoen banaketari dagokionez, ikus daiteke atzerriko ikasleen kontzentrazio handiagoa dagoela Errioxan (%16,3), Balear Uharteetan (%14,7) eta Katalunian (%13,3). EAE %5etik %8ra bitarteko ikasle atzerritarren kopurua duten autonomia erkidegoen artean dago: Melilla (%8), Gaztela-Leon (%7,8), Kanariar Uharteak (%7,6), Kantabria (%7), EAE (%7,1), Andaluzia (%5,5) eta Asturias (%5).

EAEri dagokionez, 2011-12ko ikasturtean, hezkuntza mailen arabera bereizita, kopururik altuenak honakoak dira: HLPP (%37,4, estatuko batez bestekoa %20,9koa da), DBH (%8,5, estatuko batez bestekoa %12koa) eta mailaertaineko LH (%9,8, estatuko batez bestekoa %9,7 da).

- Ikaskuntza iraunkorreko parte-hartzea. Etengabeko ikaskuntzan parte-hartzearen arloan EBk 2020rako ezarritako helburuaren arabera, 25-64 urteko helduen %15ek, gutxienez, hartuko du parte etengabeko ikaskuntzako jardueraren batean. EUROSTATen arabera, etengabeko prestakuntzako ikastaroak egiten dituztenen batez bestekoa %9koa da 27-EBn eta %10,7 Espainian. Autonomia erkidegoen arabera, ratorik handienak Nafarroan (%13,6), EAEn (%12,9) eta Aragoian (%12,5) daude.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gastu partida, 2013ko aurrekontuetan, 2.630 milioi eurokoa da. Horrek esan nahi du aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean %0,2ko gehikuntza egon dela. Gastu hori EAEren BPGdren %4,1 izan da, eta egonkor eutsi dio 2012. urtekoaren aldean.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera, 2011koak, hezkuntza administrazioen gastua BPGdaren aldean %4,26 da EAEn (%3,37 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan eta %0,78

⁸ Hezkuntza adierazleen bilakaeraren laburpena honela egin da: hurrengo erreferentziak iturri nagusitzat kontuan hartuta:

- Hezkuntza panorama. Adierazleak, ELGA 2013,

- Hezkuntzaren adierazleen estatuko sistema (2012ko edizioa).

- EUSTATEko irakaskuntza estatistika.

- Hezkuntza kopurua Espainian, HZMrena.

Zehaztasun gehiago lortzeko, memoria honek gai honi buruz jorratutako kapitulura jo beharra dago.

unibertsitateko hezkuntzan) eta %4,22 estatuan (%3,08 unibertsitatekoa ez den hezkuntzan eta %0,96 unibertsitateko hezkuntzan).

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ikasleko duen gastuak (ikasle guztiak) behera egin du, 2010 eta 2011 artean: 5.891 eurotik 5.550 eurora. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren datuen arabera, Unibertsitatekoa ez den Irakaskuntzan ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa (ikastetxe publikoan edo itunduan) 2011. urtean, Lanerako Prestakuntza kanpoan utzita, 7.112 eurokoa da EAEn. Horrela, gure erkidegoa da ikasle bakoitzeko gasturik handiena duena. Estatuko batez bestekoa 5.206 euro dira.

- PISA ebaluazioari dagokionez, 2003ko PISAtik 2012ko PISARA bitartean izan zen bilakaerak honako hauxe adierazten du:
 - Trebetasun matematikoetan emaitzak ELGAREN batez bestekoa baino altuagoak izan dira, baina hori bakarrik gertatu da nabarmenki 2009ko edizioan eta 2012ko oraingoan, izan ere, azken horretan EAEK ELGAREN batezko bestekoak (494) baino 11 gehiago eskuratu ditu. Puntuazio horren ondorioz, 12. postuan kokatu da erkaketa egiteko hautatutako 39 herrialdeen artean. Autonomia erkidegoen artean alderatzen denean, EAE hirugarren tokian kokatzen da.
 - Irakurmenaz denaz bezainbatean, emaitzak oso antzekoak izan dira, hau da, ELGAREN batez bestekoaren ingurukoak edizio desberdinetan. 2012an EAEK 498 puntu lortu zituen, ELGAREN batez bestekoa baino 2 puntu gehiago (496). Puntuazio horren ondorioz, 17. postuan kokatu da erkaketa egiteko hautatutako herrialdeen artean. 14 autonomia erkidegoen artean alderatzen denean, EAE zazpigarren tokian kokatzen da.
 - Trebetasun zientifikoaz denaz bezainbatean, 2003 eta 2006ko emaitzek EAE ELGAREN batez bestekoaren azpitik kokatu zituzten, baina 2009koek batez bestekoaren inguruan. 2012an EAEK 506 puntu lortu zituen, puntuaziorik onena, ELGAREN batez bestekoa 501 puntukoa baitzen. Puntuazio horren ondorioz, 16. postuan kokatu da erkaketa egiteko hautatutako herrialdeen artean. 14 autonomia erkidegoen artean alderatzen denean, EAE zazpigarren tokian kokatzen da.
- Egokitasuna ikaslearen adinean. 2011-12ko ikasturtean, estatuko 8 urteko ikasleen %93,8 adin horretako maila teorikoan (Lehen Hezkuntzako hirugarrena) zeuden matrikulatuta 2011-12ko ikasturtean; 10 urterekin, etapa horretako bosgarren mailako tasak 4,7 puntu portzentual gutxiago ditu (%89,1). DBHko adinetan egokitasun tasak murriztuz doaz adinak gora egin ahala. Horrela bada, 12 urteko ikasleen %83,9k hezkuntza etapa horretako 1. kurtsoa betetzen du; 14 urteko ikasleen %69,6k hirugarrena eta 15 urteko pertsonen %61,7 laugarrenean matrikulaturik daude.

Azterturiko adin guztietan Katalunia, Galizia eta EAE iristen dira Estatuko batez bestekotik gorako egokitasun mailetara.

- Eskola behar baino lehenago lagatzea. Estatuan 2002tik 2012ra bitartean tasa murriztu da %30,7tik %24,9ra (28-EBren batez bestekoa %12,7koa izan da 2012an). 2012an kopururik onenak EAEn (%11,5), Nafarroan (%13,3) eta Kantabrian (%10,9) izan dira.

Mutilen abandonuak neskena gainditzen du; EAEn bien arteko tartea portzentajezko 2,4 puntukoa da. Horrela bada, mutilen tasa %12,7koa izan da, eta neskena, berriz, %10,3koa.

- Zientzia eta Teknologiako goi mailako hezkuntzako graduatuak, 20 eta 29 urte arteko 1.000 biztanleko. ISEI-IVEIren datuen arabera, 2009-2010eko ikasturtean gure erkidegoan Goi Hezkuntzako Zientzia eta Teknologiako graduazio tasa 29,4koa izan zen milako. 2011n EBren eta Estatuaren batez bestekoa 16,8koa izan zen milako.

Graduazio datuak sexuaren arabera aztertuz gero, ikus daiteke gizonezko eta emakumezkoen arteko aldeak handitu direla eta alde hori nabarmenagoa dela azkeneko urtean. Horrela bada, 2010ean, EAEn emakumezkoek Zientzietan, Matematiketan eta Teknologian izan zuten graduazio tasa 17,3koa izan zen milako, hau da, gizonezkoena baina 23,9 puntu txikiagoa, azken horiena 41,2koa izan baitzen milako.

- Biztanle gazteen prestakuntza maila (gutxien-gutxienik Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa bete duten 20-24 urteko biztanleen %). 28-EBn kopuruak goranzko joera dauka eta 2012. urtean %80,3ra iritsi zen; kopurua hori Espainiako estatuaren %62,8ko batez bestekoaren gainetikoa da eta bat dator EAEn dagoen %80ko ratioarekin. Hala eta guztiz ere, aintzakotzat hartu beharra dago EBn ratioak gora egin duen bitartean EAEn, hain zuzen ere, alderantzizkoa gertatu dela.

Datuak sexuaren arabera aztertzen badira, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldeak ikus daitezke. Hala, 2012an, 28-EBn emakumezkoen ratioa gizonezkoena baino handiagoa zen, portzentajezko 5,4 puntuan, hain zuzen ere (%83koa, %77,6koaren aldean). Espainiako estatuan aldea are handiagoa da emakumezkoen alde, guztira portzentajezko 9,4 puntukoa. Bestalde, EAEn emakumezkoen ratioa gizonezkoena baino 4,7 puntu handiagoa da.

- Biztanle helduen ikasketa maila (25-64 urte). Herrialdeen arabera azterlanak erakusten du 2011n Portugal, Espainia eta Italia zeudela Bigarren Hezkuntzako 2. etapatik gorako ikasketa mailako kopururik txikiak zituzten herrialdeen artean. Lehenengoan kopurua %35,1koa izan zen, bigarrenen %54koa eta hirugarrenean %56koa. Beste muturrean honakoak azaldu ziren: Txekiar Errepublika %92,3rekin, Eslovakia %91,4rekin, Polonia %89,1ekin, Estonia %88,8rekin, Suedia %87,1ekin, Alemania %86,3rekin, Eslovenia %84,5ekin, Finlandia %83,7rekin, Austria %82,4rekin, Hungaria %81,7rekin eta Luxenburgo %77,2rekin. Grezia %67,2ra iritsi zen.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emandako datuen arabera, 2012an estatuan ratio hori %54,4ra iritsi zen. EAE %68,1eko kopuruarekin hobeto kokaturik dago, baina oraindik ere nahiko urrun dago aurreko paragrafoan aipatutako herrialdeek lortutako mailatik.

2.3. I+G+B+IKT JARDUERAK

EUSTATen arabera, I+G jardueretan 2012. urtean egindako gastua 1.373 milioi eurokoa izan da, eta horrek aurreko urteko kopuruaren aldean %0,5eko hazkundea esan nahi du. Gastu hau BPGaren %2,12 da. Horrela, EAE estatuko batez bestekoaren (% 1,3) baina EB28ko batez bestekoaren (% 2,6) azpitik dago I+G gaian egindako esfortzuan, baina gaian erreferentzia diren herrialdeen azpitik (gehienbat Europako iparraldekoak, Japoniakoak eta AEBetakoak).

Enpresen I+Gko egikaritzea EAEn (gastuaren %76) sektoreak Estatuan eginikoaren gainetik dago (%53. INEren arabera).

Herri Administrazioak buruturiko gastuak behera egin du EAEn 2011 eta 2012 artean; %6,1etik %6,3ra. Estatukoa (%19,1) eta EB-27koa (%12,7) baino txikiagoa da.

EAEko berrikuntza sistemaren ezaugarrietako bat teknologi elkartegien sarrera garrantzitsua da. Hala gelditzen da agerian FEDITekin (Espainiako Berrikuntza eta Teknologia Erakundearen Federazioa) lotutako euskal zentroak aintzat hartzean: Espainiako teknologi elkartegien laurdena dira. 2012. urtean, EAEko teknologi elkartegietan 223 milioi euroko gastua egin zen I+Gn, hots, enpresen sektoreek ikerkuntzan eginiko gastuaren %21,4 ia eta guztizko gastuaren %16,2 (1.372.901 mila euro). Bilakaerari dagokionez, esan behar da I+G gastu hori gutxitu egin dela 2011koaren aldean (%-3,6), baita EAEko I+G guztizko gastuarekiko pisu erlatiboa ere (%16,9tik %16,2ra); eta enpresen sektorearen gastuarekiko pisua (%22,3tik %21,4ra).

I+G gastuen finantzazioari dagokionez, sektore pribatuak horretan duen partaidetza handitu egin da 2011 eta 2012 artean: %54,3tik %55,9ra igaro da. I+G gastuaren finantzaketa pribatuko ratioa handienak izateagatik nabarmentzen dira: Japonia (%75,9, 2010ean), AEB (%60), Finlandia (%67), Alemania (%65,6), Danimarka (%60,3) eta Suedia (%57,3).

Bestalde, administrazioak %36 finantzatzen du EAEn (%38,6 aurreko urtean)

Sektore pribatuak eta sektore publikoak finantzaturiko I+G jarduerak BPGaren %1,19 eta %0,6 dira hurrenez hurren, baina Bartzelonako helburuak %2 eta %1 dira 2020. urterako.

Gorako bidean jarraitzen du I+G jardueretan lanean ari diren pertsonen kopuruak, lanaldi osoan: 2012an lanpostuen milako %20,8 dira (milako 12,2 aurreko ekitaldian).

Patenteei dagokienez, Berrikuntza Adierazleen Panela kontuan izanda (IUS 2013), BPGaren bilioiko 1,71eko (PLI⁹ eurotan) patenteen eskabide adierazlea duen EAE estatuko batez bestekoaren gainetik dago (1,43), baina EB27ko batez bestearen azpitik (3,90) eta erreferentziako herrialdeetatik urrun: Suedia (10,54), Finlandia (10,48), Danimarka (7,42), Alemania (7,04) eta Herbehereak (6,24).

Europako Berrikuntza Adierazleen Panel berria herrialdeen ekonomiek berrikuntza-jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da. EAEn arabera, EAEk EBren 15. postua izango luke, 0,48ko adierazleko balioarekin, 0,54ko batez bestekoaren azpitik. Hala, hirugarren taldeko goiko partean kokatuko litzateke, berrikuntza ertaineko herrialdeak.

Europako batez bestekoari dagokionez, hiru dimentsio hauetan nabarmentzen da EAE: Giza baliabideak eta enpresa inbertsioa; eta beste bitan lortzen da: Ikerketa sistema eta loturak eta enpresa-ekimena, oso antzeko zifrekin. Gainerako beste lauei dagokienez, EBn lorturikoa baino puntuazio txikiagoa lortu da.

EUSTATen Berrikuntza Teknologikoaren Inkestak erakusten duenez, 2010-2012ko epealdian, 9 langiletik gorako enpresen %36,2 berritzailea zen, aurreko epealdikoa baino ratio txikiagoa (%37,8), edo EB27koa baino txikiagoa, non industri eta zerbitzuen sektoreetako enpresek jarduera berritzaileak izan zituzten 2008 eta 2010 artean, Community Innovation Survey 2010aren (CIS7) arabera; baina estatukoa baino handiagoa da (%25,9), eta beheazko joera izanik ere INEren arabera).

Gora egin du 9 langiletik gorako euskal enpresen berrikuntza teknologikorako jardueren guztizko gastuak 2012an, %3,4, eta BPGaren %3,99 da (%3,34 ere aurreko epealdian).

Hots, berrikuntzarako jardueren gastua nahiz enpresa berritzaileen portzentajea jaisten ari dira.

IKTen sarrerari eta erabilerari dagokienez, eta EUROSTATen datuen arabera, etxean Internetera sartzeko aukera duen 16 eta 74 urte arteko kide bat gutxienez baduen etxe portzentajea, 2013. urtean, %79 da EB28n eta %70 Estatuan. EUSTATen arabera, ratioa %72koa da EAEn. Hala, EAE Europako batez bestekoaren azpitik dago, eta oso urrutik dago erreferentziako herrialdeetatik: Islandia (%96), Holanda (%95), Norvegia eta Luxenburgo (%94), Suedia eta Danimarka (%93), Finlandia (%89), Alemania eta Erresuma batua (%88).

Transakzio elektronikoei dagokienez, internet bidez erosi ez duten pertsonen ehunekoa kontuan izanik, hauxe ondoriozta daiteke: EAE, %38,8arekin, gorengo mailan dagoela autonomia erkidegoen rankingean, zeren eta erkidego batek ere ez baitu ehuneko txikiagorik. Eta azken hilean erosi duten pertsonen ehunekoa aztertuta, autonomia erkidego bakarra dago aktiboagoa dena: Alabaina, datuak guztiz homogeenak ez badira ere, Europarekiko alderaketa eginez, agerian gelditzen da merkataritza elektronikoa gutxiago hedatuta dagoela EAEn.

Enpresetan eginiko Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestaren azken edizioak (IGI-enpresak) erakusten du oraindik ere hazten ari dela euskal enpresetan IKT ekipamenduak txertatzeko prozesua.

Enplegu-mailaren araberako analisiak lehenik eta behin erakusten du IKT ekipamenduak zabalduago daudela establezimenduaren tamaina handitu ahala. Bigarrenik, lanpostuak gehituz doazen heinean, hobetzeko marjina txikia

⁹ *Patenteen Lankidetzaren Ituna*

dela-eta, txikiagoak dira gehikuntzak ekipamenduetan; izan ere, 10 langile edo gehiagoko enpresek, web orrietan izan ezik, IKTen ekipamendu berei eusten diete.

Teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen portzentajeari dagokionez, ekipamenduetan ez bezala, hemen garrantzitsua da esatea oso antzekoak direla teknologiek erabiltzen dituzten portzentajeak, establezimenduaren tamaina edozein delarik ere, besteak beste establezimendu txikietan aurrerapen handiagoa dagoelako eta handietan langile guztiak ez dutelako eskuratzerik horrelako ekipamendurik.

Joera horiek ikusten dira Europa mailan ere, non, EUROSTATen datuen arabera, asebetetze-mailara iristen ari da interneten sarrera. Hala, 2012an, 9 langile baino gehiagoko enpresen %95ek zuen interneterako atzipena EB-27n. Ratorik handienak dituztenak: Lituania, Holanda eta Finlandia (hiru estatuetan %100eko ratioak), Danimarka, Frantzia eta Islandia (%99) eta Luxenburgo, Austria, Eslovenia, Eslovakia eta Suedia (horietan guztietan %98).

Eustaten datuen arabera, EAEko enpresa-ehunean merkataritza elektronikoa sortzen dituzten zenbaki ekonomikoetan handitu da, eta bertan parte hartzen duten enpresen kopurua ere areagotu da. Nahiz eta zifra ekonomikoetan salmentak erostetak baino gehiago izan, partaidetzan, produktuak bide elektronikoetatik erosten dituzten establezimenduen kopurua askoz ere handiagoa da saltzen dutenena baino.

2.4. NATURA-INGURUNEAREN EGOERA

Airearen kalitatea, Eusko Jaurlaritzak emandako informazioaren arabera, hobetu egin da azken urteetan, eta “ona” da, edo gutxienez “onargarria”. Kalitate oneko edo onargarriko urteko egunen ratioa egon egin du, %93,8tik 2007an %98,6ra 2012an. 2011 eta 2012 bitartean, behera egin du airearen oso kalitate txarreko edo txarreko egunen kopuruak: 16tik 8ra. Bestalde, behera egin du neurrizko aire kalitateko egun kopuruak: 71 egun 2011n eta 2012an, berriz, 49 egun.

Klima aldaketari eta Negutegi-efektuko Gasei (NEG) dagokienez, Negutegi-efektuko gasen isurien (NEG) inbentarioak emandako azken datuek erakusten dute murriztu egin direla NEG isuriak (zuzenean eta zeharka, hots, inportaturiko elektrizitatearekin lotuak barne), CO₂-baliokidean neurtuta. Hala eta guztiz ere, 2011 eta 2012 artean %1,8 igo dira. Hala, 2007an %25,4ko igoera ratioa izan zen oinarriko urtearekiko (1990); 2012an, berriz, 1990ean erregistraturikoak baino %1,1 handiagoak dira

Ur-masen kalitateari dagokionez (ibaiak, lakuak eta gune hezeak, trantsizio urak, kostaldeko urak, lur azpiko urak eta bainurako urak) hauxe dugu, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera: ibaiak direla-eta, nahiz eta gehienak nahikoa egoera egonkorrean izan dira 2008-2012ko aldian, hobekuntzarako joera dago, zeren eta daturik txarrenak 2008koak baitira eta onenak 2012koak. Trantsizio urei dagokienez, ez da ibaietakoa bezain egoera ona antzematen. Hala ere, horrelako masa motaren egoera isurialdeko arro osoaren egoeraren isla denez gero, ibaietarako espero den hobekuntza trantsizioko uretan ere islatzea espero da. Kostaldeko uretan, berriz, emaitzen egonkortasuna ageri da, eta horrek helburuen betetze maila handia erakusten du oro har. Lakuak eta hezeguneak direla-eta, bilakaera positiboa gertatzen ari dela dirudi, baina oraindik ez da nahikoa (2001/2002ko ziklo hidrologikotik aztertutako 14 hezeguneetatik, lehen zikloan %7k besterik ez zituen betetzen ingurumenaren gaineko helburuak eta azken zikloetan %21-%29ak). Lur azpiko uren egoera ona da, eta hirutan ez da iristen egoera kimiko onera (Gernika, eta Gasteizko eta Miranda de Ebroko alubialak).

Azkenik, bainurako uren kalitateari buruz 2012an eginiko azterketak argi uzten du hobetuz doala orain ere: kalitateko bikaineko ur-masen ratioa %75ekoa izan zen, eta %16,7k kalitate ona dute; %1,7k nahikoa kalitate lortu dute eta %6,7k, berriz, ez nahikoa. Zehazki, nahikoa kalitatea izan ez zutenak Bizkaian: Laidatxu, San Antonio, Toña (dagoeneko Karraspion ez, 2011n gertatu bezala) eta Gipuzkoan: Saturrarán.

Kontsumorako ura dela-eta, EAEko herri hornidurarako erregistraturiko eta banaturiko guztizko ur bolumena 176,2 Hm³ izan zen 2011. urtean, hots, %3,9ko jaitsiera. Horietatik 91,8 Hm³ (guztizkoaren %52,1) etxeak hornitzeko

erabiltzen dira, 54,5 Hm³ (%30,9) sektore ekonomikoetarako (industria, zerbitzuak eta abeltzaintza) eta 30 Hm³ (%17) udal kontsumorako (lorategiak ureztatu, kaleetan ura bota eta beste erabilera batzuk).

Erregistratu gabeko ura bitan banatzen da: benetako galerak (saneamendu-sareko ihesak, hausturak eta matxurak) eta itxurazko galerak (neurketa akatsak, iruzurrak eta kontsumo zenbatetsiak). Itxurazko galerak %7,9 jaitzi dira 2010 eta 2011 bitartean. Benetakoak, aldiz, %6,2 hazi dira, hots, 39,2 milioi m³ eta guztizko erabilgarriaren %23,8. Estatuan, ur baliagarriaren %17,1 galdu zen banaketako herri sareetan ihesak, hausturak, etab. zirela eta.

EAEko uraren per capita kontsumoa berriz ere da Estatuko batez bestekoa baino txikiagoa, 117 litro/biztanle/egun (142 litro Estatuan). Gainera, erkidego guztietatik txikiena da, 2009an gertatu zen bezala. Gainera, jaitziera ageri da 2010 eta 2011 bitartean, Estatuko %1,4koa baino handiagoa (%4,1 EAEn).

Hondakinen sorkuntzaren eta kudeaketaren arloan, EINek sektore industrialeko hondakinen sorkuntzari buruz emandako azken datuek erakusten duenez, gora egin du EAEn hondakin ez arriskutsuen sorkuntzak 2009 eta 2010 bitartean, %10,6, eta hondakin industrial arriskutsuak, berriz, %19,8 hazi dira. Hala, EAE industria sektorean hondakin arriskutsu gehien sortzen duen hirugarren erkidegoa da (201,7 mila tona). Lehenengoa Katalunia da, 333 Tm, eta bigarrena Valentzia, 212,7rekin.

Per capita kopuruari dagokionez, EINren Inkesta bereko datuen arabera, EAEn 2010ean 329,7 kg hiri hondakin nahastu bildu ziren biztanleko eta urteko, Estatuko batez besteko 412,5 kiloak baino gutxiago.

Azkenik, EINek ingurumena babesteko industri enpresak eginiko gastuei buruzko inkestan emandako azken datuen arabera, gastu hori 2011. urtean (inbertsioa barne) %10,1 hazi zen EAEn 2010eko datuaren aldean. Aipaturiko gastu hori BPGaren portzentaje gisa neurtuta ikus daitekeenez, igoera izan zen 2011n 2010eko gastuaren aldean. Hala, %0,36an kokatu da. Hala, 2010ean EAE zazpigarren tokian dago 2011n, Kantabriaren (%0,53), Asturiasen (%0,41), Nafarroaren (%0,40), Errioxaren (%0,38), Kataluniaren (hor ere %0,38) eta Murtziaren (%0,37) atzean.

2.5. EAE-REN EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPO TESTUINGURUA

Erosteke ahalmenaren parekotasunaren arabera munduko BPGd haztatua %3 hazi zen 2013ean, eta aurreko epealdian, berriz, %3, NDFaren zenbatespenen arabera. Ekonomia aurreratuek %1,3ko gorakada izan zuten: AEBko BPGd %1,9 (2012an %2,8) eta Japoniakoa %1,5 (2012an %1,4) handitu ziren, eta Euroaren Eremua, aldiz, %0,4 jaitzi zen (2012an %-0,7). Horrez gain, goranzko ekonomiak eta garatzeko bidean daudenak %4,7 inguru handitu ziren; aurreko urteko hazkundea, ordea, %5ekoa izan zen. Brasilek %2,3ko hazkundea izan zuen aurreko epealdiko %1eko hazkunde urriaren aldean eta Txinak eta Indiak %7,7 eta %4,4 hazi ziren, hurrenez hurren; esan nahi baita, kopuruak ez du aldaketarik izan Txinari dagokionez, baina txikiagoa da Indian, 2012an hazkundea %4,7koa izan baitzen.

Mundu mailako merkataritzak gora egin zuen 2012ko bigarren erdialdean erregistratutako maila txikietatik, baina haren ezaugarrietariko bat izan zen hiruhilekoetan izandako hazkunde motel eta aldakorra. Igoera, azken batean, apur bat handiagoa izan da 2012an erregistratutakoaren aldean, hau da, %3koa aurreko urteko %2,8ren aldean.

Prezioen bilakaerari dagokionez, Brent upelaren batez besteko prezioa %2,3 jaitzi zen: lehen 111,7 \$koa izan zen, eta orain, aldiz, 108,7 \$koa izan da. Bestalde, lehengai ez-energetikoen prezioak ere murriztu ziren, bai elikagaienak bai industri produktuenak ere, azken horiek metalikoak izan edo izan ez.

Testuinguru horretan, Europako Banku Zentralak egun bateko esku-hartze tasa birritan murriztu zuen euroaren eremuan, maiatzean (%0,5ean jarri zuen) eta azaroan (%0,25ean). Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Japoniako Bankuak ere beren esku-hartze tasak mantendu dituzte 2013an, egin-eginean ere, 2012an eta 2011n itxi zuten modu berdinean, lehenengoak %0,25arekin eta bigarrenak %0,1arekin.

Diru merkatuaren interes tasei dagokienez, horiek epe guztietan handitu ziren, urtebeterakoetan izan ezik. Gauzak horrela, hilabeterako Euriborra %0,12an kokatu zen urteko lehenengo hiruhilekoan, eta %0,16an amaitu zen laugarrenean. Hiru hilabeterako Euriborra %0,21etik %0,24ra igaro zen lehen eta laugarren hiruhilekoen artean; sei hilabeterako Euriborra %0,34tik %0,36ra pasatu zen, eta urtebeterako Euriborrak %0,56an hasi zuen urtea eta %0,53an amaitu.

Dibisen merkatuan, AEBetako dolarraren benetako aldaketa efektiboaren aldaketa tasak tokia galdu zuen euroaren aldean, eta, horren ondorioz, euroaren balio zertxobait handitu zen. Europako dibisak balioa irabazi zuen libera esterlinaren eta yenen aldean. Mundu mailako burtsa merkatuei dagokienez, IBEX 35ak %21,4ko urtetik urterako hazkundea izan zuen (2012ko abendutik 2013ko abendura bitartean) aurreko urteko %15,6ko jaitsieraren aldean; Nikkeik %56,7 egin zuen gora, 2012an hazitako %22,9ren aldean; Dow Jones %26,5 hazi zen (2012an %+7,2); eta Euro Stoxx-ek %20,5 egin zuen gora (aurreko urtean %15,5).

EBren eta, zehatzago, Eurogunearen ekonomia aintzakotzat hartuz, 2013. urteko lehendabiziko hiruhilekoa hasi zenean, BPGdaren urtetik urterako bariazio tasa %-1,2koa izan zen; alabaina, laugarren hiruhilekoa %+0,5eko tasarekin amaitu zen. Beraz, Euroguneako ekonomiak, 2013an urte arteko %0,4ko hazkundea izan du termino errealean. Aurreko urtean, 2012an, berriz, %0,7ko jaitsiera izan zuen.

Eskariaren aldetik, kontsumo pribatuari enpleguaren bilakaera negatiboak eragin zion eta atzera egin zuen, baina ez 2012an bezainbeste (2013an %-0,7 eta 2012an %-1,4); kontsumo publikoak neurrian jarraitu zuen Euroguneako zenbait herrialdetan finkapen fiskalari begira egindako etengabeko ahaleginengatik, eta inbertsioa geldirik egon zen finantza sektoreen eta ez-finantzazkoen desapalankamendu premiengatik, bai eta kreditu eskaintzetan izandako murrizketengatik ere.

Beste alde batetik, kanpo merkataritzak jarraitu zuen Euroguneako BPGdren hazkunde errealeari modu positiboan laguntzen 2013. urtean. Hala eta guztiz ere, kanpo eskariak hazkundeari egindako ekarpen garbia 2012an baino txikiagoa izan zen.

Ikuspegi sektorial batetik, industri sektoreak, 2013. urtean batez besteko %0,6ko murrizketa bat izan arren (2012an %-1ekoa izan zen), urtean zehar izandako jaitsiera moteldu zuen eta laugarren hiruhilekoan bariazio positiboa izan zuen (%1,4), aurreko hiruhilekoetako bariazio negatiboaren aldean. Eraikuntzaren produkzioa berriro ere uzkurto zen 2013an, urtetik urtera %3,8, hain zuzen ere (2012an %4,1 jaitsi zen). Orobat, zerbitzuen balio erantsiak, 2012. urtean egonkor jarraitu zuenak, %0,1eko hazkunde apala izan zuen 2013. urtean.

27-EBn eta 28-EBn, EUROSTATen arabera, BPGdren bariazio tasa termino errealean %0,1ean kokatu zen 2013. urtean, aurreko urtean izandako %-0,4ko bariazioaren aldean. Eurogunean, bestalde, %-0,4koa izan zen 2012ko %-0,7koaren aldean. Hazkunde tasarik handienak Letonian, Errumanian, Lituania, Maltan eta Luxenburgon izan ziren. Hazkunde tasa garrantzitsuekin baina hain handiak izan gabe: Erresuma Batua, Polonia, Suedia eta Hungaria. Tasa apalagoekin honakoak: Bulgaria, Eslovakia, Estonia, Danimarka, Alemania, Frantzia eta Belgika. Europako gainerako estatutuek tasa negatiboak izan zituzten eta jaitsierak handienak honako herrialdeetan izan ziren: Txipren (%-5,4) eta Grezian (%-3,9). Espainiak %-1,2ko tasa izan zuen.

Langabezi tasak bi digituak gainditzin dituzten hainbat estatutan. Izan ere, honako hauexek dira %10etik %12ra bitarteko tasak dituztenak: Letonia, Lituania, Frantzia, Hungaria, Polonia eta Eslovenia. %12tik %15era artekoak: Bulgaria, Irlanda, Italia eta Eslovakia. Eta %15etik gorakoak, 27ko EBko langabezia tasa handienak izanda: Grezia, Espainia (%26,4), Kroazia, Portugal eta Txipre. Tasa txikiak, aldiz, honako estatu hauetan daude: Austria (%4,9), Alemania (%5,3), Luxenburgoko (%5,8), Malta (%6,5) eta Holanda (%6,7).

Inflazioa, Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatuaren arabera, urteko batez besteko %1,4 inguruan kokatu zen Eurogunean, aurreko urtean erregistratutako ratioaren azpitik portzentajezko puntu bat gehiago. Espainiako estatuak %1,5ekoa izan zuen.

Lan produktibitatearen azterketak¹⁰ agerian jartzen du produktibitate handienak izan zituzten estatuak honako hauek izan zirela: Luxenburgo, Irlanda, Belgika, Suedia, Frantzia eta Austria. Eurogunean balioa 108,5era iritsi zen. Espainiako estatuan balio hori 109,5ekoa izan zen.

2013an EBko eta Euroguneko lan kostu bateratu erreala¹¹ balio negatiboa izan zuen, %-0,3 ingurukoa. Espainiako estatuak %-2,3koa izan zuen.

Testuinguru honetan, EUROSTATen datuen arabera, 2013an BPGdren gaineko zor publikoa estatu guztietan handitu zen, Txekiar Errepublikan, Danimarkan, Alemanian, Letonian eta Lituanian izan ezik. Egonkortasun eta Hazkunde Itunean ezarritako %60ko muga gainditu zuten herrialdeak honako hauek izan ziren: Belgika, Alemania, Irlanda, Grezia, Espainia, Frantzia, Kroazia, Italia, Txipre, Hungaria, Malta, Holanda, Austria, Portugal, Eslovenia eta Erresuma Batua. 18en Eurogune osoan BPGdren gaineko zor publikoa %92,6koa izan zen.

Defizitari gagozkiolarik, 18en Eurogunean, defizit publikoa BPGdren %3ko maila baliokidean kokatu zen. Egonkortasun eta Hazkunde Itunean ezarritako BPGdren %3ko muga gainditu zuten estatuak honako hauek izan ziren: Irlanda, Grezia, Espainia, Frantzia, Kroazia, Txipre, Polonia, Portugal, Eslovenia eta Erresuma Batua.

BPGdren %0tik %1,5era bitartean honako herrialdeak ditugu: Bulgaria, Txekiar Errepublika, Danimarka, Estonia, Letonia, Austria eta Suedia. Alemaniak defizit nulua izan zuen eta Luxenburgok bakarrik izan zuen superabita (%0,1).

Espainiako ekonomiari erreparatu, INEK eta Espainiako Bankuak argitara emandako informazioaren arabera, 2013. urtean BPGdk %1,2ko batez besteko jaitsiera izan zuen, 2012. urtean izandako %1,6ko jaitsieraren aldean.

Autonomia Erkidegoen arabera, Balear Uharteak, Kanariak, Katalunia, Valentzia, Galizia, Gaztela-Mantxa eta Ceutak estatuarena baino jaitsiera txikiagoa izan zuten, baina Eurogunearen batez bestekoaren parekoa (%-0,4) edo haren gainetikoa. Gaztela-Leon, Asturias, Kantabria, EAE eta Errioxak erregistro txarrenak izan zituzten.

Biztanle bakoitzeko BPGd nominala kontuan hartuz, lehenengo postuan EAE dugu, 29.959 euroko BPGdrekin biztanle bakoitzeko; kopuru hori estatuaren batez bestekoaren gainetik dago, hau da, %35,4 handiagoa da (estatuaren batez bestekoa 22.279 eurokoa baita). Jarraian Madril, Nafarroa, Katalunia, Errioxa, Aragoi eta Kanariak daude. Horiek guztiak estatuaren batez bestekoaren gainetik. Kontrako egoeran daude Extremadura (15.026 euro), Andaluzia (16.666) eta Melilla (16.426).

EUSTATEk egindako balioespenaren arabera, eskariaren ikuspegitik Espainian ekoizpenaren jaitsiera eskari nazionalaren jaitsieraren ondorioa (%-2,7) izan zen, nahiz eta ekitaldian zehar aldagai horren uzkurdua maila murriztuz joan zen, harik eta udatik aurrera hiruhilekoen artean aurrerapen txikiak lortu arte. Haren osagai guztiak hobetu ziren urteak aurrera egin ahala; hartara, kontsumo pribatuaren intentsitatea handituz joan zen. Gastuaren osagai publikoek jarduerari egindako ekarpen negatiboa apaldu zuten, behin Europako Kontseiluak ekainean 2013rako aurrekontu helburua lasaitzeko erabakia hartu eta gero; izan ere, helburu hori %4,5etik %6,5era pasatzea ebatzi zen¹².

Beste alde batetik, kanpo eskari garbiak jardueraren gaineko barne gastuaren uzkurduraren eragina apaldu zuen seigarren urtez jarraian; gauzak horrela, produktuari 1,6 puntuko ekarkina egin ziola balioetsi zen, betiere esportazioen hedapenean oinarrituta, inportazioak egonkortu baitziren, aurreko urtean izandako jaitsiera handien ondoren. Hala eta guztiz ere, kanpoko eskari garbiaren ekarpenak beherezko ibilbidea erakutsi zuen esportazioak apalduz joan ziren heinean, suspertze bidean dauden ekonomiak ahuldu eta gero; halaber, munduaren gainerako herrialdeek egindako erosketek apur bat gora egiten zuten, azken eskariaren susperraldi hasiberriaren ondorioz.

¹⁰BPGdren eta enpleguaren arteko erlazioa bezala kalkulatu.

¹¹Unitateko lan kostu arrunta (ULK) soldatapeko bakoitzeko lan kostuaren eta langile bakoitzeko produktibitatearen arteko ratioa da. ULK erreala koefiziente hori berori da, baina "prezioen efektua" kenduta deflaktorea aplikatuz. Europar Batasunean eta Eurogunean ULK erreala kalkulatu dira soldatapekoen ordainsariak kontuan hartuz lanpostu bakoitzeko.

¹²Erabaki hori 2013ko uztailan hartu zen, marko orokorrako batean; horrela, Europako sei hilekoa amaitu eta gero, erabaki zen defizita publikoa %3tik behera ezartzeko eskatutako epeak luzatzea, betiere egoera makroekonomikorik txarrenean zeuden ekonomiei zegokienez (Espainiako ekonomiaren kasuan, luzapen hori bi urtekoa izan zen, 2016ra artekoa, hain zuzen ere).

Eskaintzaren aldetik, adar produktiboen balio erantsiak urteko batez bestekoan izandako jaitsierak aurreko urtekoak baino txikiagoak izan ziren, eta ekitaldian zehar izandako portaera hobeak merkatuko industriaren eta zerbitzuen gorakada txikietan agertu ziren, hirugarren hiruhilekotik aurrera.

Lan merkatuaz denaz bezainbatean, INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestak agerian jartzen du langabezi tasak (16 urtetik gorakoak) goranzko ibilbide bati jarraitu ziola lehendabiziko hiruhilekoko %25,7tik laugarreneko %27ra arte.

Testuinguru honetan, Espainiako ekonomiak bere finantza egoera hobetu zuen munduko gainerako herrialdeen aurrean. Egia esan, finantzazio gaitasuna erregistratu zuen¹³, lehenengo aldiz 1997tik, batez ere ondasun ez-energetikoen merkataritzaren saldoaren hobekuntzaren ondorioz. Finantzazio gaitasun hori (superabita) 15.799 milioi eurora iritsi zen, hau da, BPGdren %1,5era.

Hala eta guztiz ere, estatuko herri administrazio guztiek 2013. urtea amaitu zuten BPGdren %7,1era iristen den defizit batekin. Defizit horrek BPGdren 0,6 puntu portzental desbideratzea dakar berrikusitako helburuaren aldean (%6,5koa zen).

Jarraian, EAEko ekonomiaren bilakaeraren berri emango dugu. EUSTATen datuen arabera, 2013ko lehendabiziko hiruhilekoa %-1,9ko bariazio tasarekin hasi zen eta laugarrena %-0,3ko tasarekin amaitu zen. Beraz, EAEko ekonomiak, 2013an, urte arteko %1,2ko jaitsiera izan zuen termino errealetan (aurreko urtean, 2012an, berriz, %1,6ko jaitsiera izan zuen); eta haren BPGd termino arruntetan 64.703 milioi eurora iritsi zen. Enpleguaren bilakaera ere negatiboa izan da (%-2,1koa 2013. urtean).

Lurralde Historikoak aintzakotzat hartuz, BPGd negatiboa izan da hiruretan, baina aurreko urtean baino apalagoa. Araba izan da jaitsierarik handiena izan duen lurraldea (%-1,4); aitzitik, Bizkaiak eta Gipuzkoak %1,1eko jaitsiera izan dute, bi kasuetan. Enpleguari erreparatuta, Araba izan da beherakadarik handiena izan duen lurraldea (%-2,4); aitzitik, Bizkaiak eta Gipuzkoak %2,1eko jaitsiera izan dute, bi kasuetan.

2013an INEren kontabilitate erregionalak urtetik urterako %-1,9ko bariazio tasa erreala erregistratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiarentzat¹⁴; zenbatespen hori ez dator bat EUSTATEk emandako balioekin eta erregistrorik okerrenak dituzten autonomia erkidegoen artean kokatzen gaituzte (Gaztela-Leon eta Asturiasen %-2,5, Kantabrian eta EAEn %-1,9 eta Errioxan %-1,8).

Eskariaren aldetik, azterlanak agerian jartzen du, barne eskariak bariazio negatiboa izan arren, jaitsiera 2012an izandakoa baino apalagoa izan zela (%-1,5ekoa, aurreko urteko %-2,4koaren aldean). Bilakaera hori kontsumoan eta inbertsioan izandako jaitsieraren ondorioa izan da. Etxeen azken kontsumoaren gastuaren jaitsierak (%-1,0) eta herri administrazioen azken kontsumoaren gastuaren uzkurdurak (%-1,3) azken kontsumoaren %1,0ko jaitsiera eragin zuten. Kapitalaren eraketa gordinak, bere bi osagaien bilakaera negatiboa dela eta, barne eskariaren profirik negatiboena erakutsi zuen, %3,2ko jaitsierarekin, 2013. urte osoa kontuan hartuz gero.

Kanpo eskariari dagokionez, 2012tik 2013ra bitartean esportazioak hazi ziren termino errealetan, guztira %1,1 urtetik urtera (2012an izandako %3,3ko jaitsieraren aldean) eta inportazioak %0,5 handitu ziren (2012an %4,2 jaitsi ziren).

Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak atzerriarekiko ondasunen kanpoko merkataritzari buruz ematen dituen datuen arabera, betiere Aduanetako Erregistroetan oinarrituta, %0,3ko jaitsiera izan da esportazioen ohiko balioan 2013. urtean, eta %0,6ko igoera energiakoak ez direnetan (gutzizkoaren %90,8 dira) eta %8,8ko jaitsiera igoera energiakoetan. Bestalde, inportazioek, orotara, %1,8 egin zuten gora. Bertan, energia inportazioen balioak (guztiaren %35) %5,5 hazi ziren, eta energiakoak ez direnak %0,2 jaitsi ziren.

¹³Hori sortzen da ekonomiaren sektoreek sortutako aurrezkoa egindako inbertsioari aurre egiteko behar adinakoa denean eta kalkulatzeko da kontu korronteko balantzaren, kapitalaren eta kanpoan egoitza dutenen inbertsioen saldoak batuz.

¹⁴Estatuaren batez bestekoa %-1,2koa izan zen.

Energiakoak ez diren EAeko esportazioen aduana sarien taldeko azterketan agerian gelditu denez, lehenik eta behin, ekipo ondasunak nabarmentzen dira, esportaturiko guztizkoaren %43,2 baitira (makinak, 4.442,6 milioi euro, eta garraio materiala, 4.312 milioi euro). Horien esportazioak %2 egin du gora, makinek eta aparatuek gora egin baitute (%+4,7), nahiz eta garraio materiala zertxobait jaitsi (%-0,6). Bigarrenik, metal komunak eta haien enbriak esportazioa nabarmentzen da, kopuru osoaren %24,8rekin. Haien esportazioa %1 jaitsi da. Hirugarrenik, plastikoen eta kautxuaren esportazioa nabarmentzen da, guztizkoaren %7,8, eta harien bariazio tasa negatiboa da (%-7,3). Energiakoak ez diren inportazioen aldetik, metalak eta horien enbriak nabarmentzen dira, guztizko inportazioen %21,4 baitira eta %2,9 hazi baitira. Bigarrenik, azpimarratzekoak dira guztizko inportazioen %18,4 diren ondasun ekipoak; azken horiek %2,1 jaitsi dira, makinen eta aparatuen inportazioan izandako beherakadagatik (%-3), nahiz eta garraio materialaren inportazioa %1,2 hazi.

Kanpoko saldoa 4.450 milioi eurokoa da, BPGdren %6,9.

Energiakoak eta energiakoak ez diren produktu eta ondasunak bereizita ondoriozta daitekeenez, energi saldoa defizitariora da (-3.863,9 milioi euro). Aldiz, energetikoak ez diren produktuenak superabita erregistratu zuen, 8.314 milioi euro; hori guztia BPGaren %12,9 da, hots, aurreko urteko ratioa (%12,6) baino portzentajezko 0,3 puntu gehiago.

Eskaintzaren ikuspegitik, termino errealetan BPGd jaitsi zen, lau sektore handiek bultzatuta; izan ere, horiek guztiek beren jardura maila murriztu dute.

Lehen sektoreak %6,1eko bariazio negatiboa izan zuen. Bigarren tokian eraikuntzaren sektorea dago, %5,0ko uzkurduarekin. Industri sektoreak ere bilakaera negatiboa izan zuen, nahiz eta aurreko urtekoa baino apalagoa izan; guztira %1,9 jaitsi zen balio erantsian. Hori neurri handi batean enbriak industriaren pisu garrantzitsuaren ondorioa izan zen. Bestalde, zerbitzuen sektoreak ere bere jardura maila murriztu zuen; jaitsiera %0,6koa izan zen. Jatorria merkataritza, ostalaritza eta garraio sektorearen bilakaera negatiboan egon zen; izan ere, sektore horrek %1,4 egin zuen behera; orobat, administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna biltzen duen adarrak ere bilakaera negatiboa izan zuen eta 2012an izandako %0,4ko hazkundetik 2013an izandako 0,3ko jaitsierara igaro zen. Gainerako zerbitzuek ere beren jardura mailak jaitsi zituzten (%-0,2).

EUSTATen 2013ko ekonomi jardueren direktorioaren azken datuek guztira 161.067 enpresa aktibo¹⁵ zenbatu zituzten EAEn (lehen sektorekoak ere aintzakotzat hartuz); horiek guztiek 855.093 pertsona enplegatuta zituzten; horrenbestez, batez besteko tamaina 5,3 lanpostukoa zen enpresa bakoitzeko. Egoitza soziala oraindik EAEn duten enpresa horien portzentajea %97,7 da, kopuru absolutuetan gutxiago izanda. 2011 eta 2013 bitartean, enpresa kopurua %0,3 eta enplegua %1,9 murriztu dira.

Denbora tartearan aldetik ikuspegi zabalagoa kontuan hartuz, 1995etik 1999ra bitartean (1993ko krisialdiaren irteera) erregistratutako hazkunde handia nabarmentzen da enpresa kopuruan (%5,2); izan ere, hurrengo bosturtekoa eritmo motelagoa izan zuen enpresen dinamismoari erreparatuta (hazkundera %1,1ekoa izan zen). Era berean, 2004tik 2008ra arteko epealdia nabarmentzen da enpresen sarearen hedapen garrantzitsuagatik (batez besteko urtetik urterako hazkundera %3,5ekoa izan zen) eta 2008an gehiengo historikora iritsi zen, guztira 184.290 enpresarekin. Urte horretatik aurrera, kopurua atzera eginez joan da etengabe; gauzak horrela, 2009tik 2013ra bitartean¹⁶ galera garbia 28.283 enpresakoa izan da (urtean 7.000 enpresa baino gehiago desagertu dira eta batez beste urtetik urterako %3,5eko tasa izan da).

Produktibitateari dagokionez, EAEn 2013an termino errealetan izandako hazkundera (%1) Europar Batasunean erregistratutakoa baino handiagoa izan zen (28-EB: %0,4). Horrez gain, Estatuak askoz tasa erreal handiagoa lortu zuen, %+1,8koa, behin-behineko datuen arabera.

¹⁵ Enpresa: establezimenduen jardueri legezko euskarria ematen dien unitate juridikoa, hau da, jardura horien erantzukizun eta zuzendaritza dituen eta iaera juridiko propioa duen edozein sozietate, erakunde, organismo, pertsona fisiko edo erakunde publiko edo pribatu. 2012tik aurrera EUSTATen estatistikak lehen sektoreko enpresak sartzen ditu.

¹⁶ Seria arazteko, lehen sektoreko enpresak alde batera utzi dira 2012an eta 2013an.

Bestalde, gure ekonomiaren ULK arruntak hazi ziren (%+0,7, 2012ko %-0,4ren aldean), eraikuntzan (%-5,7) jaitsiz eta industrian (%1,7) eta zerbitzuetan (%1,4) igoz. Europar Batasunean, ULK nominalak, soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaritik abiatuta kalkulatu direnak, %0,4 handitu ziren 2012. urtean (28-EB). Euroguneari dagokion azken datua 2012koa da: %+1,9.

Inflazioari dagokionez, EAEn urteko batez besteko tasa %1,6an kokatu zen 2013. urtean, 2012ko datutik 7 hamarreko beherago. Abenduko urtetik urterako inflazioa %0,6koa izan zen.

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpoko Inbertsioen Erregistroaren datuen arabera, EAEn atzerriko inbertsioa areagotu egin zen 2012 eta 2013 artean, hain zuzen ere %130,2, atzerriko balioak edukitzeko enpresak deskontatuz gero. Orotara, 984,1 milioi euro jaso zituen EAEk. EAEn proportzioa 2012ko %2,9tik 2013ko %6,2ra igo zen estatuaren guztizkoaren gainean. Madrilgo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa deskontatzen badugu, portzentajea %13,7ra igo zen, %8,2tik aipatutako %13,7ra igoz 2012tik 2013ra bitartean. Horrela, 2013. urtean EAEk hirugarren lekua betetzen du inbertsioen bolumenean, 8.635,1 milioi euro jasotzen dituen Madrilen atzetik (ABDEak deskontatuak) eta 3.511 milioi euro jasotzen dituen Kataluniaren atzetik. Erregistro horri esker, Euskadik maila bat igotzen da sailkapen autonomiakoa, 2012. urtean laugarren lekua betetzen baitzuen. Ikuspegi sektorial batetik, oso nabarmenak izan ziren guztizkoen gainean duten garrantziagatik honako hauek: ur hornikuntzan, saneamendu jardueretan eta hondakinen eta deskontaminazioaren kudeaketan egiten direnak; energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntzan egiten direnak; eta higiezin jarduerak eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Lurralde ikuspegi batetik begiraturaz gero, inbertsioaren azken titularraren egoitza ELGAko herrialde batean kokatzen da kasuen %93,1ean, eta 15-EBn kasuen %88,9an (guztira 874,9 milioi euro). Bereziki nabarmendu beharra dago Afrikatik, Mexikotik eta Brasiletik etorritako inbertsioen gehikuntza.

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak kanpo utzita, %174,4 hazi egin da 2012. urtetik 2013. urtera bitartean, orotara 408,5 milioi eurotik 1.120,8 milioi eurora. EAEk hirugarren lekua betetzen du autonomia erkidegoen artean atzerrian egindako inbertsioagatik duen sailkapenean; Madrilek gainditzen du 10.755 milioi euroekin eta Kataluniak 1.846,4 milioi euroekin. Sektoreei erreparatuta, honakoak nabarmentzen dira: energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza; informazioa eta komunikabideak; eraikuntza eta jardura profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Herrialdeen arabera, hauexek izan dira EAEn inbertsioaren helmuga nagusiak 2013an EB15ean: Erresuma Batua (612,9 milioi euro), Portugal (50 milioi euro) eta Frantzia (27,8 milioi euro). Eta Eurogunetik kanpora: Mexiko (189,4 milioi euro) eta AEB (96 milioi euro).

2.6. SEKTORE PUBLIKOA

Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzaren *“aurrekontu-betearazpenaren inkestak”* nabarmentzen du Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek 2013ko irailerako orotara likidatutako sarrera guztiek (10.776 milioi euro) %2,7ko jaitsiera izan dutela aurreko urteko une berekoen aldean (2012an %0,1eko igoera izan zen); izan ere, zuzeneko eta zeharkako zergetatik ateratako diru sarreren gehikuntzak (%1,2 eta %2,6koak, hurrenez hurren) ez dira gai izan sarreren gainerako kapituluetan izandako jaitsiera handiak konpentsatzeko. Bi partidek Euskal Sektore Publikoaren diru sarreren %78 biltzen dute. Era berean, pasibo finantzarioen bariazioan %12,6ko beherakada izan da, Eusko Jaurlaritzaren zorpetze txikiagoari lotuta 2012ko irailekoaren aldean (izan ere, foru aldundientzat ratio hori positiboa da: %+4,7).

Ondorioz, baieztatu daiteke Euskal Sektore Publikoaren erkidegoko BPGdren gaineko diru sarrerak (2012. urtea ixtean %23,35ekoak zirenak) %22,41ekoak izan direla 2013ko irailean (behin-behineko datuak).

Sarreren jaitsiera Eusko Jaurlaritzan nahiz aldundietan izan da, nahiz eta intentsitatea desberdina izan den: Eusko Jaurlaritzari dagokionez, jaitsiera handiagoa da, %8,9koa, gehienbat transferentzia arrunten eta ondare sarreren beherakadaren ondorioz. Aitzitik, foru aldundiei dagokienez, sarrerak batez bestekoa baino gutxiago murriztu dira (%-

0,8, betiere kontsolidatu osoaren %-2,7ren aldean), gehienbat zerga itunduen diru bilketaren susperraldiaren ondorioz (horien gaineko datu osoak ezagutzen dira 2013. urteari dagokionez).

Zerga itunduengatik diru bilketa, zuzeneko eta zeharkako diru sarreren zati nagusia eta guztiaren %90 baino gehiago osatzen dituena, %3ko gehikuntza izan du 2013. urtean, behin-behineko datuen arabera; alabaina, diru bilketa horrek aurreko urtean %0,6ko jaitsiera izan zuen. Gainera, aurreko ekitaldian gertatutakoaz bestaldera, oro har zeharkako ezarpenak zuzenekoak baino portaera hobe duela antzeman da.

Labur adieraztearren, bildutako bolumen osoa 11.752 milioi eurokoa da. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko BPGd arruntaren %18,2 izan da 2013. urtean (2012an %17,6). Bildutako diruaren %36,3 PFEZari dagokio, %36,4 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne eragiketengatik eta aduanengatik doikuntza), %10,4 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, %16,9, zenbait zerga bereziri.

Beste alde batetik, Euskal Sektore Publikoaren gastu osoa (toki erakundeak sartu barik) 9.340,4 milioi eurokoa izan da 2013ko irailean eta %0,4 murriztu da 2012ko data berekoarekin erkatuz gero (memoria hau amaitzeko eguenean ez dira ezagutzera eman urteko laugarren hiruhilekoaren aurrekontu betearazpenari buruzko datuak), betiere 2012ko %-2,6koaren aldean. Gauzak horrela, magnitude horrek EAEn BPGdren gainean duen kopurua 2012ko amaierako %22,69tik 2013ko irailaren 30eko %19,42ra igaro da.

Gastuak bilakaera negatiboa izan du bai Eusko Jaurlaritzan (%-3,9) baita foru aldundietan ere (%-2,8). Ondorioz, agregatuaren aldakuntzak indar gutxiago dauka (%-0,4), izan ere, diru partidetako batzuk erakundeen artean orekatzen dira (transferentzien zati bat, esate baterako). Ondorioz, gastu publikoaren ratioa gure erkidegoaren BPGdren gainean %19,57tik %17,42ra igaro da foru aldundientzat eta %15,83tik %12,98ra Eusko Jaurlaritzarentzat, BPGdk EAEn 2012an eta 2013an izan duen bilakaeraren behin-behineko datuak kontuan izanik.

Eusko Jaurlaritzaren gastuan arreta jarrita, 2013ko behin-behineko likidazioak %6,5eko jaitsiera agertu du 2011ko ekitaldiaren aldean. Hala eta guztiz ere, legegintzaldiaren 2009aren erdialdeko aldaketatik ondorioztatutako sailen berrantolamenduak gastuaren zenbaki handien zenbait ataletako bilakaeraren jarraipena zailtzen du aurreko urtetik harantzago. Gastu bolumenagatik bi sail nagusiek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (gastu osoaren %28,2) eta Osasun Sailak (%34,4) izaten jarraitzen dute. Lehenengoa %2,8 igo da eta bigarrena, aldiz, %1,9 jaitsi da 2012koaren aldean. 2013rako likidatutako gastu osoa 9.579 milioi eurokoa da, kopuru hori gure Erkidegoaren urte horretako BPGdren %14,8 izanik, behin-behineko datuen arabera.

Halaber, "Aurrekontu Betearazpenari buruzko Estatistikak" agerian jartzen du EAEko sektore publiko osoaren zorpetze garbia (Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundiak) 2013ko hirugarren hiruhilekoan murriztu dela %10,3 aurreko urteko epe berekoarekin erkatuz gero, behin 2012an %10,2 handitu eta gero. Zorpetze garbia (zorpetze gordina ken amortizazioa) 803,77 milioi eurokoa izan da 2013ko irailean; horietatik 681,4 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio eta gainerako 122,3 milioiak foru aldundiei.

Emaitza gisa, 2013ko azken hiruhilekoaren amaieran Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 9.247,8 milioi euroko zor bolumena aurkeztu dute, 2012ko irailean izandakoa baino %1 gutxiago, hain zuzen ere. Urte horretan ere zor zatirik handiena Eusko Jaurlaritzari dagokio (guztiaren %77,4; aurreko urtean, guztiaren %76,7 izan zen).

2.7. LAN-MERKATUA

Lehenik eta behin, BJAREN datuek erakusten dute 2013. urtean EAEko biztanleria aktiboaren urteko batez bestekoa hazi egin dela. Hala, 2012n lan merkatuan parte hartzen zuen %54,9ren aldean, 2013an %56,6 dugu, hots, %1,7 gehiago. Krisialdiaren luzapenaren ondorioz sortutako gogorik ezak nabarmen jaitsi zituen jarduera tasak 2012. urtean; izan ere, lana lortzeko aukera faltak eragin zuen lan egiteko adinean zeuden eta enplegua galtzen zuten langileen zati garrantzitsu batek zuzenean langabeziara jo beharra. 2013an pertsona aktiboen batez besteko zenbatekoa

1.029.200koa izan da, 2012an baino %3 gehiago, edo beste modu batera esanda, 30.600 pertsona gehiago aurreko urtean baino.

Emakumezkoen jarduera tasaren urteko batez bestekoa %50,5koa izan da, 2012koa baino 1,4 puntu gehiagokoa, eta, beste alde batetik, gizonezkoen biztanleria aktiboa 2012ko %61,1etik 2013ko %63ra igaro da.

Enpleguari dagokionez, 2012ko abendutik 2013ko abendura arte EAEn gertatu den okupazioaren gehikuntza %3,2koa izan da (aurreko epean kopurua %-4,6koa izan zen); gauzak horrela, lanpostuak 28.500eko zenbatekoan handitu dira. Gizonezkoen enpleguak izan du bilakaerarik txarrena (gutxiago hazi da, %2,8), azken urtean 13.500 lanpostu irabazi baitira; emakumezkoenak, aldiz, 15.100 enpleguko igoera izan du (%3,7). Gainera, azken urtean %33,6 igo da 25 urtetik beherako gazteen enplegua eta %5,7, 25 eta 44 urte artekoena; 44 urtetik gorako langileen enplegua, berriz, %0,2 murriztu da.

Urteko batez besteko balioak kontuan hartuz gero, 2013an berreskuratu diren 500 lanpustuetatik (apenas %0,1, 2012ko datuen aldean), 900 izan ziren gizonezkoek galdutakoak eta 1.500 (%+0,4), aldiz, emakumezkoek irabazitakoak. Horrenbestez, enpleguaren feminizazioa hamarren bat gehitu da, eta talde horren enplegua %46,2tik %46,3ra igaro da. Sektoreak aintzakotzat hartuz, 2012. urtean enplegurik gehienak hirugarren sektorean galdu ziren (-14.500, hau da jaitziera osoaren %44) eta portzentajezko murrizketarik handiena eraikuntzari egokitu zitzaion (%14,3koa 2011koan aldean); 2013. urtean, aldiz, hasi berri den susperraldiaren protagonista hirugarren sektorea izan da, %2,6 hazi baita, 16.200 enplegu berreskuratuz. Industriak, bestalde, beherantz jarraitzen du, %3,1 portzentajeari erreparatua (-6.600 enplegu); eraikuntzak ere beherantz, baina are kopuru handiagoan: enpleguaren %16,8 galdu du, 9.700 lanpostu.

Behin-behinekotasun mailari dagokionez, BJAREN datuek erakusten dute 2013n urteko batez bestekoa aurreko urtean baino zertxobait altuagoa izan dela (%21,7koa %21,4koaren aldean). Enpleguaren suntsidurak bereziki eragin die urte horretan kontratu finkoa izan dutenei (-3, betiere soldatapeko enpleguaren %2,6ko jaitziera osoaren aldean); aitzitik, aldi baterako kontratua izan dutenak kopuru txikiagoan murriztu dira (%1,5). Gure Erkidegoan behin-behinekotasuna %20-22 ingurukoa da, Holanda (%20,3) eta Portugalen (%21,5) gisako herrialdeetan bezalatsu; Europar Batasunean batez bestekoa %13,8koa da eta euroaren eremuan, aldiz, %15,2koa. Behin-behinekotasunaren ratorik handienak Espainian (%23,4) eta Polonian (%26,8) daude.

Bestalde, 2013ko kontratazioak aztertuta ikus daitekeenez, bilakaera positiboa izan da aurreko urtekoarekin alderatuta (orotara +%0,8, hasierako kontratu kopuruaren %1,1). Alderantziz jazo zen 2012an, noiz-eta guztizko kontratazioa %6,9 murriztu zen eta hasierako kontratuak %6,6. Nolanahi ere den, aintzakotzat hartu beharra dago etxeko zerbitzuaren kontratuen zuzeneko zenbaketak (egondako arautegi aldaketaren ondoriozkoa) handi zezakeela 2012. urtean izandako kontratazioa; horren ondorioz, 2013ko datuak 2012koekin erkatzeko orduan, bilakaera negatiboa ikus zitekeen, eta ez positiboa.

Laburbilduz, 2013. urtean ELZPren datuek agerian jartzen dute 678.946 lan kontratu egin direla (bai kontratu berriak eta bai egokitzapenak kontuan hartuz). Horietatik %51,3 emakumezkoek sinatu dituzte (aurreko urteko %51,5arekin alderatuta), eta 2013an kontrataturikoen %47,6, gainera, emakumezkoak izan dira. Lurraldeei erreparatuz gero, Araban kontratazioaren gehikuntza %3,8koa izan da eta Gipuzkoan %2,3koa; aitzitik, Bizkaian kontratazioen kopurua %1 jaitzi da.

2013ko lan merkatuaren bilakaeraren ondorioz, BJArako langabezi tasa orokorra %15,3koa izan da urtearen amaieran eta %14,6koa batez beste lau hiruhilekoetan. Datu horiek ez dira agertu 2000tik, eta EBko batez bestekoa gaintzen dute (%10,8 28-EBn eta %12 euroaren eremuan). European, oso ezberdinak dira langabeziaren kopuruak: %25etik gorako balioak ditugu, adibidez, Espainian (%26,1) edo Grezian (%27,3), eta %6koak edo txikiagoak Austrian, Alemanian edo Luxenburgon, esate baterako. AEBetan %6,7ko langabezi tasa dago, %3,7koa Japonian, eta Frantziak, Poloniak eta Esloveniak Europako batez bestekoaren antzeko ratioak dituzte, zenbait adibide aipatzearen.

Berebiziko garrantzia dute lan merkatuaren egoera horrek eta enplegurako politikek. Hauexek biltzen dituzte politika horiek: politika aktiboak, langabetuek lana lortu eta lana dutenek lanari eusteko helburua dutenak; eta politika pasiboak, langabetuen babes ekonomikoa lortzeko helburua dutenak. Politika aktiboei dagokienez, guztira 481 milioi euro erabili zituen gure erkidegoak 2012an (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua) enplegua sustatzeko ekintzetarako, hots, 2.864 euro langabetu bakoitzeko, estatuko ratorik handiena.

LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bestalde, 2013an 137,12 milioi euro erabili ditu guztira lan merkatura sartzeko aukerak hobetzera zuzendutako neurrietan; horietan 180.000 pertsonak hartu zuten parte. Beste alde batetik, 62,67 milioi euro erabili ziren *lan aktibaziorako* ekimenei begira, zenbait programatan banatuak; horietan 120.630 pertsonak parte hartu zuten. Orobat, 74,45 milioi euro erabili ziren enpleguaren aldeko prestakuntza programetan, lanean nahiz langabezia zeuden pertsonen zuzenduta.

Enpleguko politika pasiboetan, EAEn langabeziagatiko prestazioetarako bideratutako gastu osoa 2013. urtean, behin-behineko datuen arabera, 1.258,88 milioi eurokoa izan da, 2012. urtean baino %0,5 gehiago, alegia. Kopuru hori EAEko BPGdren %1,94koa da, aurreko urteko ratio berbera. Horrez gain, Estatuko gastu osoaren %4,2 da, hau da, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago ditu.

2013an langabeziagatiko prestazioen onuradunak, batez beste, 89.532 lagun izan dira EAEn, aurreko urtean baino %1,6 gehiago, nahiz eta urte horretan %7,7 handitu zen, betiere Enplegu Ministerioak emandako datuekin bat etorriz. Estatuan jasotzaileen kolektiboa jaitsi da 2013. urtean: urtean batez beste %7,3; gauzak horrela, EAEk estatuko onuradun guztien aldean duen partaidetza handitu da, 2012ko %3tik 2013ko %3,3ra igaroz. Gainera, EAEn dauden 89.532 onuradunetatik %46,6 emakumezkoak dira eta gainerako %53,4 gizonezkoak.

2013ko abenduko datuei dagokienez, 84.292 jasotzaileetatik %60,7k kotizaziopeko prestazioak jaso dituzte, %34,6k subsidioak eta gainerako %4,7k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa. Estatuan, berriz, kotizaziopeko prestazioak jasotzen dituzten jasotzaileen ratioa %44,5koa izan da, subsidioak jasotzen dituztenak, aldiz, %41,6 izan dira eta Gizarteratzeko Errenta Aktiboa %9,1ek jaso dute. Gainera, %4,8k nekazaritzako aldi baterako langileen subsidioa jasotzen zuten. Eta hilabete horretan erregistratutako langabeziaren zifrak kontuan izanik, esan liteke 2013ko abenduan EAEko 100 langabetik 50ek ez dutela inolako prestaziorik jaso (48 2012an); bai ordea, ehunetik 50ek, eta horien artean 30ek kotizaziopeko prestazioa jaso dute, 18k subsidioa eta bik bakarrik Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.

Bestalde, EAEko lan istripuei buruzko datuek, Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak) erregistratuek, erakusten dute 2013an 28.737 lan istripu gertatu direla, 2012n baino %3,5 gutxiago (lan istripua izan eta baja eskuratu zuten langileen kopurua kontuan izanik, lansaioan eta "in itinere" gertatuko istripuak eta lanbide gaixotasunak barne); Estatu osoan, ordea, jaitsiera %2,4koa izan da, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren datuen arabera. Jaitsiera hori gure erkidegoan 2000. urtetik izandako jaitsierei gehitu behar zaie; horrela bada, beherakada %49,3koa izan da, estatuaren batez bestekoa baino askoz handiagoa eta gainerako erkidegoetan baino erritmo azkarragoan.

Lanaldian istripua izan duten pertsonen helduta (24.611, 2012. urtean baino %3,9 gutxiago), azken urtean larritasunaren araberako mota guztiak murriztu dira: %3,8 istripu arinak eta %13,8 larriak; istripu hilgarriak, aldiz, %9,7 murriztu dira. Gainera, sektoreen araberako azterketak agerian jartzen du istripuak nabarmen jaitsi direla eraikuntzaren sektorean (%-18,5) eta industrian (%-7,6); zerbitzuek, ordea, goranzko bilakaera izan dute (%+2,7).

Kopuru horiek enpleguaren bolumenarekin erlazioan jarriz gero, bilakaera aurreko urtekoaren antzekoa dela esan daiteke: istripuen eragin indizea 27,2koa da mila langileko (28,3koa milako 2012n; beraz, eragina %4 jaitsi da). Sektore bakoitzari erreparatu gero, jaitsierarik handiena nekazaritzan izan da (%-13,2) eta industrian; azken horren eragina %4,7 murriztu da, 41,5 istripuraino sektorean diharduten mila langileko.

Azenik, LHKaren 2013ko "Negoziazio Kolektiboaren Balantzea"ren arabera, urte horretan zehar gure erkidegoko langileen %87ari dagozkion hitzarmen kolektiboak berriztatu behar ziren. 2012koa (%79,2) baino handiagoa da ehuneko

hori. Laburbilduz, urtearen amaieran, eta eskuragarri dauden azken datuen arabera (2013/12/31ra arte erregistraturiko hitzarmenak), berritutako 613 hitzarmen zeuden guztira, eta 230.046 pertsonari eragiten zieten (horietatik %68 sektoreko hitzarmenen mende daude eta gainerako %32 enpresa hitzarmenen mende); horiez gain, beste 556 hitzarmen zeuden berritzeko, 349.769 langileri eragiten zietenak.

2.8. FAMILIAK ETA LANEKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEKO ARAZOAK

EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean¹⁷, Eusko Jaurlaritzaren “2008ko Familien Inkestak” hauexek aipatzen ditu: familia moten aniztasun handiagoa, familien batez besteko tamaina txikiagoa, familia horietako erreferentziako pertsonen profileko aldaketa garrantzitsuak, familian dauden adingabeen proportzio txikiagoa eta mendekotasun egoera gehiago eta guraso bakarrekoen familiek dakarten gizarte errealitatea, behearazo joera izanik ere.

Aldaketak gorabehera, pertsonen bizitzaren ardatza izateari eusten dio familiak. Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoaren Kabinetearen “Familia EAEn” (2012) azterlanak agerian utzi duenez, elkarriketaturiko pertsonen %96k uste dute familia oso edo nahikoa garrantzitsua dela, beste batzuen aurretik hala nola aisialdia (%93), lagunak (%92) edo lana (%91). Gainera, gehienek ustez, familia aurreko aldietan bezain garrantzitsua da (elkarriketatuen %47), edo are garrantzitsuagoa (%15).

Azken urteetan, familien osaerak izan dituen aldaketak eta aldaketa horiek ugalkortasun-tasetan izan duten eraginak handituz doan interes publikoa zirikatzen dute, dakartzan ondorioak direla eta. Ugaltzeko joera duten adinekoren artean laneratze eta igoeretik kontzientziak emakume gazteak oso egoera zailean jartzen ditu seme-alabak izateko erabakiari dagokionez. “Familia EAEn 2012an” azterlanaren emaitzetatik nabarmendu behar dugu lehenik eta behin elkarriketatuen %47k uste duela oinordekoak izateak nahikoa oztopatzen duela emakumearen lanbide karrera, eta %19k eragozpen “handia” dela deritzo. Gizonezkoen ustez, aldiz, galdeturikoen %10ek baino ez du uste emakumeek eragozpen asko edo nahikoa dituztela lanbide karreran seme-alabak izateagatik. Gainera, gehienek uste dute (%51ek 2012an eta %57ak 2001ean) amatasun baja oso laburra dela, baita aitatasun baja ere (%53k uste du 2012an –2001ean ez zegoen baimen hori- aitatasun baimena ez dela nahikoa).

Bestalde, EUROFUNDen (Bizi-eta lan-baldintzak hobetzeko Europar Fundazioa) “Bizi Kalitatearen Europako III. Inkestak” (2012) jakinarazi zuen 2012an Europar Batasuneko langileen %53 lanetik itzultzean nekatuegi egoten direla etxeko zereginak egiteko, gutxienez hilean hainbat aldiz, eta langile horien laurdenak hala sentitzen direla astean hainbat alditan. Halaber, % 30ek familiako erantzukizunei erantzuteko arazoak ditu lanagatik, eta % 14k dio lanean arreta jartzeko arazoak dituela familiako erantzukizunak direla eta.

EAEn, EUSTATEk “Laneko bizitza, bizitza pertsonala eta familia uztartzeari buruzko inkesta” (LBBI) egiten du, eta horren 2012ko datuek nabarmentzen dutenez, lehenik eta behin emakumeek gizonezkoen ordu kopurua ia bikoiztu egiten dute adingabeen eta mendekotasunean diren pertsonen zaintzan. Alde honetan, emakumeen ustez zailtasun txikiagoa dago ordaindutako lana familiarekin eta eremu pertsonalarekin uztartzeko, eta beharbada horregatik ia gizonen bi halako ordu kopurua ematen dute seme-alabak eta mendekotasunean diren pertsonen zaintzan. Hartutako kargen desberdintasun horrek eragina du gogobetetasun mailan, norberaren bizitzarako, aisialdirako edo prestakuntzarako dagoen denboraren aldetik, zeren eta emakumeek ia laurden batek (%24,2) baitio ez dagoela pozik. Gizonezkoetan, berriz, %16,8 da. Familia osatzen ari den adinaren inguruan ematen da gogobetetasun maila hain txikia, hau da, 35 eta 44 urte bitartean; adin horretatik gora, aldiz, gogobetetasun maila haziz doa.

Orokorrean, EAEko landunek ordaindutako lana eta norberaren bizitza eta familia uztartzeko duten zailtasun maila 3,8 puntukoa da (3,3 zen 2010ean; eta 10 puntu izango lituzke uztartzeko bat ere aukerarik ez duen pertsonak).

¹⁷ Datu horiei buruzko informazio zehatzagoa izateko, jo beza irakurleak 2011 eta 2012ko EAEn Memoria Sozioekonomikoetara.

Landunek familia eta lana uztartzeko duten zailtasun handiena mendekotasuna dutenen zaintzan ageri da (4,1 puntu), eta jarraian seme-alaba adingabeak zaintzea (3,8 puntu).

Enpresan edo erakundeetan zenbait baimen eskatzeko zailtasun mailari dagokionez, EUSTATEN inkestak agerian utzi du lanean ari direnen batez besteko zailtasun maila: 10etik 3,2koa, eta 1,9koa lanera ez joateko, hain zuzen ere norberaren gaietarako. Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzea erraztu dezaketen neurrien artean, lanaldi murrizketak 3,6ko batez besteko zailtasuna du, ondoren eszedentziek (3,9) eta lan eta soldatarik gabeko egunek, 10etik 3,8 hain zuzen. Oro har, ez da alde handirik ikusten sexuen arabera, kasu batean izan ezik: gizonek lanaldia murrizteko eta eszedentziak eskatzeko (4,0 gizonentzat eta 3,38 emakumeentzat) zailtasun handiagoak adierazten dituzte. Seguruena, gainera, adinak eta lanpostuko antzintasunak murriztu egiten dituzte aipaturiko uztartze neurriak lortzeko zailtasunak.

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, eremuari lerrun juridiko handiagoa emateko eta famili politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetze aldera. Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Famili Planarekin. Harrezkero, 2012ra arte, 500 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta uztartzeko laguntzen artean.

2012ko aurrekontuko likidaziotik, jakin izan dugunez, 46,8 milioi euro familientzako diru-laguntza horietarako eman ziren, hots, aurreko urtean baino %25 gutxiago. Horietatik 24,4 bateratzeko laguntzak ordaintzeko (%-25,9 2011rekiko) erabili ziren, eta beste 22,4 milioi seme-alaben jaiotzagatik edo adopzioagatik (%-24,1).

2.9. BIZI-BALDINTZAK EAE-N

Lehenik eta behin, Europako Batasunaren “*Statistics on income and living conditions*” (EU-SILC) izeneko Bizi-baldintzei eta Errentari buruzko estatistika bateratzeko prozesuaren baitan sartzen da EINren “*Bizi-baldintzei buruzko inkesta*”, eta horri esker, EAEko bizi-baldintzen bilakaeraren urteko jarraipen egin daiteke eta, aldi berean, nazioarteko erreferentzia izan dezakegu, zeren eta adierazle askotan EUROSTATen metodologia erabiltzen baitu.

Eskuragarri dauden azken datuek erakusten dutenez, lehenik eta behin, jaitsiera izan da batez besteko errentan EAEn, familiako nahiz pertsonako (%-2,7 eta %-1,8 hurrenez hurren) 2012an, EBren joeraren ildotik, baina intentsitate handiagoarekin (familien errentak %0,5 egin du behera EB-27ko herrialdeetan azken urtean). Familientzat bereziki handia den jaitsiera horrek (Estatuko %-0,8ko batez bestekoa baino jaitsiera handiagoa da) adierazten du, dirudienez, azken urtean areagotu egin dela errenten beherakada gure Erkidegoan.

Halaxe berresten da baliabideak eskuratzeko zailtasunei buruzko inkesta horretako adierazleak ikusita; izan ere, euskal familien bizi-baldintzen egoerak okerrera egin duela uzten dute agerian.

- %24,2k dio ezin diela aurre egin ezusteko gastuei 2013an, 2012an baino 4,4 puntu gehiago (EBn eta Espainian %40tik gorakoa da, baina behera egin du azken urtean).
- Hazi egin da etxebizitza nagusiaren ordainketetan atzerapenak dituzten familien portzentajea, azken urtean %3,2tik %4,9ra (Estatuan %9tik gorako tasa, eta goraka jarraitzen du).
- Hilaren bukaerara iristeko zailtasunak dituzten familien portzentajea %50,4raino igo da, urtebetean ehuneko 11tik gorako igoera, noiz-eta Estatuan goraka jarraitzen duenean eta familien ia %65i eragiten dienean.
- Hazi egin da, bestalde, urtean astebeteko oporraldia kanpoan igarotzerik ez duten familien ratioa 2012 eta 2013 bitartean, %23,5etik %25,7ra (45,8 batez beste Espainian).

- Alabaina, pobreziaren atalasetik beherako pertsonen tasa jaitsi egin da pixka bat 2012an: %17,5etik %17,3ra. Estatuan eta EBn, berriz, gorako joerari eutsi zaio.

Oro har bilakaera negatibo hori izan arren, kontuan izan behar da, lehenik eta behin, EAeko errenta eta ongizate mailek Estatukoaren batez bestekoaren gainetik jarraitzen dutela (%20tik gorako aldeak daude batez besteko errentetik, eta are handiagoak oinarriko baliabideak eskuratzeko kontsideraturiko zailtasunen adierazle guztietan) eta egoera askoz hobean Europako testuinguruan. Gainera, errentaren banaketari buruzko azterlanak agerian utzi du Euskadik hobetu egin duela bere sarreren banaketa 1996tik 2008ra; izan ere, Giniren indizeak hiru puntuko jaitsiera izan du (28tik 25,2ra), eta balio horri eutsi zaio krisialdiaren lau urteren buruan, zeren eta 2011rako emandako datua 25,3koa baita; Suediak (24,4) soilik hobetu du ratio hori EB-15eko herrialdeetan.

Bestalde, pobrezia eta gizarte bazterkeria arriskuan dagoen EAeko populazioaren tasa ere Europakoa eta Espainiakoa baino txikiagoa da. EUROSTATen arabera, 124,5 milioi pertsonak dute Europar Batasunean pobrezia eta bazterkeria arriskua (populazioaren %24,8 2012an) eta Espainian %28,2; EAEn, berriz, %17 da. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak lau urterik behin egiten du *“Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta”* (PGDI). Horri esker jakin daiteke zein bilakaera izan duen pobrezia gure gizartean, baita horretan eragina duten arrisku faktoreak eta banaketa ezberdina ere. Memoria honen aurreko edizioan aurkezturiko 2012ko datu orokorrek argi islatu zuten zein ondorio izaten ari den krisia euskal populazioaren bizi-baldintzetan. Benetako pobreziaren adierazle sintetikoaren azterketa osoaren erakusgarri nabarmenduko dugu igoera izan zela 2008-2012ko epealdian: pobrezia horren eraginpean dauden %4,2tik %5,3ra. Inkestak berak aitortzen duenez, inoizko daturik altuenetakoa da, baina 1996an erregistraturikoa baino txikiagoa nolana ere (%8,7), noiz-eta 185.000 pertsona bizi zirenean benetako pobrezian. Zenbatespenen arabera, 114.000 ziren 2012an.

Memoria Sozioekonomikoaren edizio honetan benetako pobrezia gehien kaltetutako familia motak aztertu dira. Honako berezitasun hauengandik nabarmentzen dira:

- Europar Batasuneko ez beste estatuko nazionalitatea duen erreferentziako pertsona duten familiak. Familia mota horretako populazioak azterturiko pobreziaren %36 biltzen du. Benetako pobrezia tasa %37,3koa da populazio horretan; atzeraka doa 2008ko %34,5ekoaren aldean.
- Egonkortasunik gabeko pertsona okupatua eta 45 urtetik beherakoa den erreferentziako pertsona duten famili taldeak. Familia mota horretako populazioak azterturiko pobreziaren %18,2 biltzen du. Benetako pobrezia tasa %19 da, kasu honetan 2008ko %19,1aren parean.
- Lan egonkorrik ez duen emakume bat buru deneko guraso bakarreko familiak. Familia mota horretan bizi direnak benetako pobrezia ukituriko populazioaren %14,9 dira. Benetako pobrezia tasa %36,3 da, 2008ko %27,9aren gainetik. Eraginpeko talde nagusia 45 urtetik beherako pertsona nagusiekin dago lotuta: %63,8ko pobrezia tasa (%60,7koa 2008an) eta %10,2 partaidetza benetako pobrezia egoeren multzoan. Termino erlatiboetan, ordea, okertzerik handiena guraso bakarreko famili mota horri dagokio, burua 45 urtetik gorakoa emakumea denean. Kasu horretan, benetako pobrezia tasa %9,7tik %18,8ra igo da 2008 eta 2012 bitartean.

Beste talde batzuek ere gaintu zuten 2012an benetako pobreziaren %15eko tasa, baina eragina askoz mugatua izan da kontsideraturiko egoeren banaketan. Ekonomikoki aktiboak baina lan egonkorrik gabe eta bakarrik dauden emakumeak buru direneko familiei dagozkie, baita bakarrik eta lan egonkorrik gabe eta bakarrik dauden gizonei eta guraso bakarreko familiaren ardura duten gizonei ere. Osotasunean, definituriko taldeekin lotutako pertsonak, esana dugunez, 2012an antzemandako benetako pobrezia kasuen %79 dira; 2008an, berriz, %68,6 zen. Eta mota horietan ez bezala, benetako pobrezia tasak %3tik beherakoak dira gainerako talde demografikorik gehienetan.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailak *“Euskadiko haurren pobrezia”* izeneko txostenak nabarmendu duenez, Europako gainerako herrialdeetan bezala, pobrezia eta baliabideen urritasun tasak

handiagoak dira haurren artean helduen artean baino. Gainera, krisia hasi zenetik, egoera okerragoa are nabarmenagoa izan da 14 urtetik beherakoen artean.

Pobrezian dauden pertsona guztien banaketaren ikuspegitik, azterlanean nabarmendu denez, PDGren mantenu pobrezia-aren arriskuaren tamainaren azterlana oinarri hartuta, gero eta protagonismo handiagoa dute hurrek arrisku talde nagusi gisa. 2000an talde horren %27 ziren 65 urtetik gorakoak; 2012an, berriz, %12 besterik ez dira. 14 urtetik beherakoak, bestalde, gehiago dira EAeko pobrezia arriskuan dauden artean: %14tik %21era. Arrisku-talderik kaltetuenei dagokionez, oso ezaugarri zehatzak ditu EAeko haur txiroen taldeak: horien guztien %53 atzerritarrak dira, %36 guraso bakarreko familietan bizi dira eta %52 pertsona heldu guztiak langabezian dauden familietan.

Bigarrenik, konparazioa eginez, 18 urtetik beherakoen pobrezia tasak, Euskadin, Estatuko gainerako erkidegoetakoak baino askoz txikiagoak dira, eta EBko baino pixka bat txikiagoa, baldin eta lurralde bakoitzaren bizitza-kostuari egokituriko pobrezia atalaseak erabiltzen badira (moneta pobrezia).

Azkenik, Gutxieneko Errenten Euskal Sistema haurren bizi-baldintzetan izaten ari den eragina nabarmentzen du azterlanak, eta ondorio gisa esaten da sarrerak bermatzeko euskal sistema, SBE, EPO eta GELen inguruan bideratua, funtsezko eginkizuna betetzen ari dela haurren pobrezia haz ez dadin EAEn, eta adingabeak dituzten familien pobrezia-aren hedadura nahiz intentsitatea murrizten ari da sistema: %30,2 murrizten du familia pobreen kopurua eta %69,9 familia horiek pobrezia-aren atalasetik banatzen dituen distantzia. Gainera, krisiak sortutako behar beharrei erantzun dio sistemak, azterlanean nabarmentzen denez, zeren eta %38 hazi baita seme-alabak dituzten onuradunen kopurua 2008 eta 2012 bitartean.

Beste alde batetik, Europar Batasunean, sei pertsonetatik batek ezintasun arina, ertaina edo larria du, hots, 80 milioi lagunek, eta askotan, ez dute behar bezala parte hartzerik gizartean eta ekonomian, barrera fisikoengatik eta gizartearen gainerako banakoen jarrerengatik. Gaixotasun, gaitz, traumatismo edo zauriren baten ondorioz, edo bestelako inguruabarrak direla-eta (hala nola zahartzea edo berezko zenbait anomalia), mugak dituzten pertsonak dira, hain zuzen gainerako pertsonak zailtasunik gabe burutzen dituzten zereginak edo jarduerak egiteko mugak. Gainera, batez bestekoa baino %70 pobrezia indizea handiagoa du talde horrek, lana eskuratzeko zailtasun handiengatik.

INEren *“Ezintasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendekotasunari buruzko Inkestak”* (EAMI) agerian utzi du EAEn bizi diren eta ezintasunen bat dutela adierazi duten familietako egoiliarren kopurua 169.400 dela, hots, populazioaren %8,4. Sexuaren arabera, 101.200 euskal emakumek diote ezintasunen bat dutela, eta 68.200 gizonezkoak. Hots, emakume/gizonen 60/40ko ratioa da, Estatukoaren antzekoa. Gainera, emakumezkoen ezintasun tasak handiagoak dira gizonezkoenak baino 45 urtetik gorako pertsonetan; beheragoko tartean, berriz, gizonezkoen tasak emakumezkoena gainditzen du.

Hauexek dira ezintasun talde nagusiak: mugikortasunekoak (populazioaren %6i eragiten dio eta ezinduen %70i), etxeko bizitza (%4,9) eta nork bere burua zaintzea (%4,3). Izan ere, ezinduen erdiak baino gehiagok mugak ditu bere jardueran hiru zioetako batengatik. 80 urtekoen eta gehiagoko taldean, hiru ezintasun talde nagusi horiek 10 ezinduetatik 7ri eragiten die.

Ezinduen Ordezkarien Euskal Koordinatzailea den EDEKAK Eusko Jaurlaritzaren eta ONCE Fundazioaren laguntzaz eginiko *“Euskadiko ezinduen egoerari buruzko liburu zuriak”* (2013) 2012an talde horrekin gauzaturiko inkesta oinarri hartuta nabarmentzen duenez, EAeko ezinduen %60k ez daki irakurtzen edo idazten edo oinarrizko ikasketak osoak edo ez osoak ditu. %16k baino ez du goi mailako batxilergo ikasketak edo unibertsitatekoak. Ikasketak maila txikiak duten pertsona gehienak 65 urtetik gorakoak dira, eta inkestaturiko 25-44 urtekoen %25ek goi mailako ikasketak ditu; 65 urtetik gorako artean, berriz, %12k besterik ez. Gainera, pertsona horien %47k irakaskuntza normalizatuan egiten ditu ikasketak, eta %18k gela espezializatuetan ikasi zuen, kasu askotan edo beti.

Krisiak talde horren enpleguan izan duen eraginari dagokionez, LANBIDEn azterlanak nabarmentzen du, lehenik eta behin, azken hamarkadan pixkanaka gora egin duela ezinduen kontratazioak; 2009an behera egin zuen eta ondoren

gora 2011ra arte, eta berriz ere behera 2012. urtean. Guztira, 9.597 kontratu egin zitzaizkien ezinduei 2012an (kontratu guztien %1,36), 4.116 pertsona, hots, aurreko urtean baino %7,05 gutxiago. Jaitsiera hori urte hartako kontratazioaren beherakada osoa baino bialdi eta erdiz handiagoa da (%-2,76). Gainera, EAEn emakumezkoen kontratazioa %53,3 da guztira. Ezinduen artean, berriz, proportzio txikiagoa da, %39,1 hain zuzen ere. Kontraturik gehienak, populazio osoarekin gertatzen den bezala, zerbitzuen sektorean erregistratu da (%84,8 eta %84,9 hurrenez hurren), eta kontratuen %58,5 DBHko ikasketa maileri zegozkien (titulazioarekin edo titulazio gabe). Era berean, nabarmentzen du unibertsitate mailako pertsonentzako kontratu gehienak emakumeei dagozkiela ezinduen taldean.

Jarduera ekonomiko garrantzitsuenei dagokienez, hona hemen ezinduentzako kontratu kopururik handiena izan zutenak 2012. urtean: "Eraikinetako eta lorezaintzako zerbitzuak", "Ostatu gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak" eta "Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta ekipoa izan ezik". Hiruren artean, ezinduentzako kontratuen %46 dira.

Bestalde, 2012ko abenduaren 31n, 4.799 ezindu langabetu zeuden erregistraturik LANBIDEn, hots, eskatzaile guztien %2,84 hain zuzen ere. Azken urtean, %25,7koa da ezinduen arteko langabetuen kopurua; populazio osoarena, berriz, %16,3koa izan da. Gainera, 2005eko datuen aldean, ezintasuna duten langabetuen igoera erlatibo nabarmena ikusten da (%+207,6 ezinduen eta %+102,8 populazio osoarena). Etengabeko hazkundera izan da epealdi horretako jarduera; populazio osoari dagokiona, berriz, 2008tik aurrera baino ez da hazi langabezia.

Bestalde, ezinduen bizi-baldintzei dagokienez, gure Erkidegoan eskuragarri ditugun azken datuek erakusten dute ezinduen erdia, gutxi gorabehera, independenteak direla ekonomikoki. Zati batez beste pertsona baten menpe daudenek eta oso-osorik mendekotasunean diren pertsonak osatzen dute beste erdia, zati berdinetan. Gainera, alde garrantzitsuak ikusten dira ezintasun graduaren arabera, halako moldez non %33-%64arekin baloraturiko ezintasuna duten pertsonen ia %50ek lanaren ondoriozko sarrerak ditu, eta portzentaje hori %17,3ra jaisten da %65-%74ko gradukoekin eta %15,5eraino ezintasuneko >%74ko gradukoekin. Kasu bietan, baliaezintasun pentsioak eta LISMI/doako pentsioak dira diru-sarrera iturri nagusiak. Mendekotasunik ezaren profila, horrenbestez, erretiro edo baliaezintasun pentsioa edo ordaindutako lana duten pertsonen dagokie. Gainera, independentzia ekonomikoak genero osagai argia du, zeren eta gizonezkoen bi herenak guztiz independenteak baitira. Emakume ezinduak, berriz, herena besterik ez.

Bestalde, pertsona guztien bizi-kalitatearen funtsezko beste alderdi batek gizarteratzearekin eta gizartean parte hartzearekin du lotura, herritarren eskubideen aldetik, nahiz harreman pertsonalen aldetik. Ezinduen taldeak, EAMiren 2009ko datuek erakusten dutenez eta haien berezitasunak direla-eta, arazo bereziak dituzte euren gizarte harremanak behar bezala garatzeko eta aisialdi jarduerak atseginak egiteko. Inkesta horren arabera, taldearen hiru laurdenak posibilitate gutxi edo batere ez du lagunak egiteko, eta hirutik biri berdinean gertatzen zaie ezagutzen ez dituzten pertsonengana zuzentzeko. Grafikoan agerienez, ondorio hau atera daiteke: ezinduen gizarte harremanak, kasurik gehienetan, senideekin eta hurreneko pertsonekin dituztenetara mugatzen direla.

Azkenik, EAMik nabarmentzen du ezen, gure Erkidegoan, ezinduen %3,1ek besterik ez zuela adierazi 2008an osasun edo gizarte zerbitzuren beharra izan eta jaso ez izana. %56,5ek, berriz, beharra beteta izan zuen, eta gainerako %42,9ak ez zuen ezelako zerbitzurik behar izan. Bete gabeko beharren ratioa Estatuko txikiena da.

Baterako estaldurari dagokionez, ezinduei arreta emateko zerbitzuetan populazio osoaren %0,7ri ematen diote laguntza (66,6 plaza 10.000 biztanleko), eta %0,6 eta %0,8 bitarteko ratioak dira Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren. Nahiz eta estaldurarik handiena EAEn enplegurako zentro bereziei dagokien, zerbitzuen egitura nahikoa desberdina da lurraldeen arabera: egoerarik onena Gipuzkoakoa da, gehienbat enplegurako zentro bereziei esker; Araban, berriz, bitarteko egoera dago egoitzako plazen estaldura handia dela medio.

Nolanahi ere, alde nabarmenak daude biztanleko gastuari dagokionez lurraldeen arabera: Araban dugu handiena (154,2 euro per capita), ondoren Gipuzkoa (117,7 euro, EAeko batez bestekoaren antzeko zenbatekoa) eta Bizkaia (107,6 euro biztanleko).

2.10. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

EAEko Osasunari buruzko 2013ko Inkestaren datuen arabera (EAEOI13), gora egin du bizi-itzaropenak EAEn, bai gizonentzat, bai emakumeentzat, 2012 eta 2013 artean. Hala ere, EGBI handitu egin da bi sexuetan 2002 eta 2007 artean, baina 2007 eta 2013 artean gizonezkoentzat handitu da baina jaitsi emakumezkoentzat.

EUSTATen heriotzen estatistikak agerian utzi duenez, 2012an, heriotzarik gehienak transmititzen ez diren gaixotasunen ondorioz gertatu dira, gehienbat gaixotasun kardiobaskularren eta tumoreen ondorioz. Halaber, heriotzetako asko adin handienetako tartetean gertatzen dira, eta 70-99 adin tartea ardatz hartuta eta aurreko urtearekin alderatuta, heriotza proportzio handiagoa gertatu da 80-89 urte bitartekoen eta 99 urtetik gorako artean, eta txikiagoa 70-89 urtekoen artean.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, 2011n emakumezkoen heriotza goiztiarraren kausa nagusiak 2010ekoaren berdintsuak izan dira, baina ordena ezberdinean. Zehazki: bularreko tumore gaiztoa; trakea, bronkio eta birrikako tumore gaiztoak; Suizidioa eta norik bere buruari eragindako zauriak; Obulutegiko tumore gaiztoak; Gaixotasun zerebro-baskularrak; Koloneko tumore gaiztoak eta zirrosia eta gibelaren gaitz kronikoak. Gizonezkoen dagokienez, EAEn BUPGrako zio nagusiak trakea, bronkio eta birrikako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoak; suizidioak eta norik bere buruari eragindako zauriak; ibilgailu motorduneko trafikoko istripuak; zirrosiak eta gibelaren gaitz kronikoak eta ezpain, aho eta faringeko tumore gaiztoak.

Erikortasunaren arloan, haurdunaldi, erditze eta puerperioagatiko ingresoak baztertuta, ospitaleratzeko bi kausa nagusiak EAEn, 2012an, nerbio sistemako eta zentzumenen organoen (hauen artean begi-lausoa nabarmendu behar dugu) gaixotasunak izan ziren, gaixo guztien %12,3raino, eta mila biztanleko 18,5 kasuko tasarekin, zirkulazio aparatuen gaixotasunekin batera (%11, kasu bietan).

EUSTATen datuen arabera, 2011n bereziki azpimarragarriak dira, ikusitako kasuen kopuru absolutua eta 10.000 biztanleko tasak direla-eta, gripea (1.110,0 kasu 10.000 biztanleko; aurreko urtean, berriz, 398,5 izan ziren) eta ohiko gaixotasunak 2011n; eta neurri txikiagoan: parotiditisa (96,9), kukutxeztula (16,2), tuberkulosia (10,2), disenteria (6,6), sifilisa (4,5), infekzio gonokozikoa (4,2) eta legionelosisa (3,6), horiek guztiak 10.000 biztanleko kasuetan.

Pertsonen osasunean eragina izan dezakete beren bizi-ohiturek, hau da, beren portaera eta jarrerak, osasuntsuak diren edo ez diren neurrian. Ohitura ez osasuntsuen artean hauek daude: substantzia toxikoen kontsumoa (tabakoa, alkohola eta beste droga batzuk, elikadura desegokia eta ariketa fisiko eza).

EAEko Osasunaren Inkestako datuen arabera (EAEOI2013), urte horretan, handiagoa da epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia¹⁸ gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino adin-talde guztietan¹⁹, 15-24 urtekoen artean izan ezik, non proportzioa pixka bat handiagoa den emakumezkoetan: %17,9 eta %17,3. Eboluzioaren aldetik, hots, 2007 eta 2013 arteko konparazioa eginez, behera egin du epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentziak gizonezkoetan adin-talde guztietan, 64-74 urtekoen artean izan ezik. Bestalde, emakumeen kasuan igo egin da adin-talde guztietan, 15-24 urtekoen taldean izan ezik.

Arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia estandarizatua²⁰ talde sozioekonomikoen arabera aztertuta ageri denez, ohikoagoa da kontsumoa baliabide gutxien dituzten gizarte taldeetan. Sexu aldagaia sartuz gero, gizonezkoetan, jaitsi egin da ratioa 2007 eta 2013 artean talde guztietan. Emakumezkoetan, berriz, kontrakoa gertatzen da, gaikuntzarik gabeko langileen taldearen salbuespen bakarrarekin (V. taldea).

¹⁸ Une jakin batean edo aldi jakin batean ezaugarri jakin bat duen taldeko edo populazioko kideak.

¹⁹ Adin-taldeak: 15-24, 15-44, 45-64, 65-74 eta >= 75 urte.

²⁰ Tasa estandarizatuak biztanleriaren eta denboraldien artean eratzeko erabiltzen dira. Tasa gordinen ordez estandarizatuak erabiltzeko zioa "azpiko beste eragile batzuk" egotea da, esaterako, adina, zeinek interesaren neurriari eragiten baitie. Estandarizatzea, beraz, "beste eragile" horien eragina ezabatzen duen egokitze prozesua da. Horretarako "biztanleria estandarra", hots, adin banaketa bereko biztanleria, ezartzen da..

EAEko Osasunaren Inkestako datuen arabera (EAEIOI2013), urte horretan, handiagoa da epe luzerako arrisku handiko alkohol kontsumoaren prebalentzia gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino adin-talde guztietan, 15-24 urtekoen artean izan ezik, non proportzioa pixka bat handiagoa den emakumezkoetan: %14,6 eta %14. Eboluzioaren aldetik, hots, 2007 eta 2013 arteko konparazioa eginez, behera egin du alkohol kontsumoaren prebalentziak gizonezkoetan adin-talde guztietan, 45-64 urtekoen artean izan ezik; %30 inguruan eusten zaio. Emakumezkoetan, jaitsi egin da 15-24, 25-44 eta >=75 urtekoen taldeetan, baina hazi egin da 45-64 urtekoetan (%20,8tik %23,9) eta berdintsu eusten dio 65-74 urtekoetan (%4,3 eta %4,5 bitartean).

Pertsonaren talde sozioekonomikoaren aldagaia sartuz gero, ikusten da, 2013an, gizonezkoen artean maila sozioekonomikoa jaitsi ahala tabakismoa ohikoagoa dela; emakumezkoen artean hori ez da hain nabarmena. 2007 eta 2013 arteko konparazioa eginda ageri denez, prebalentzia jaitsi egin da gizonezkoen artean, adin-talde guztietan, I. taldean²¹ izan ezik: %17,4tik %18,3ra igo da. Bestalde, emakumezkoetan, egoera positiboagoa dugu, zeren eta tabakismoa bost talde sozioekonomikoetan murriztu baita, I. taldea barne.

Ospitaleko jarduerari dagokionez (publikoa eta pribatua), hauxe erakusten dute EUSTATen datuek:

- Ospitaleen kopurua sare pribatuan handiagoa izan arren, publikoan biltzen da baliabide kopururik handiena, oheen %69,3, medikuen %70,4 eta erizaintzako pertsonalaren %86,5.
- 2010 eta 2011 artean, ospitale eta ohe kopurua izan ezik, hazkundera izan da kontsideraturiko bainerako baliabideetan (medikuak eta erizainak). Zehazkiago, medikuen kopuruak %10,7 egin du gora sare publikoan eta %7,7 pribatuan; eta erizainena, berriz, %7,8 hazi da sare publikoan eta %2,4 pribatuan.
- Laguntza jarduerari dagokionez, gehikuntza izan da aztertutako jarduerak guztietan (%4,9 kanpoko kontsultetan, %1,8 larrialdietan, %12,1 kirurgiako ebakuntzan eta %1,4 erditzeetan), egonaldietan izan ezik: %2,8 jaitsi dira.
- Egindako kirurgiako 277.293 ebakuntzetatik, %69,4 ospitale publikoetan burutu ziren eta %30,6 pribatuetan. Alde handia dago bilakaeran, zentroaren titulartasunaren arabera: %18 egin dute gora sare publikoan eta pribatuan, berriz, %0,6.
- 1.000 biztanleko ohe kopuruak egonkor eusten dio aurreko urtearen aldean, 3,6 inguruan.

Osakidetzaren ospitaleko eta ospitaletik kanpoko jarduerari dagokionez,

- Behera egin du 2012an batez besteko okupazio indize orokorrak, eta %79,14an kokatu da. 2011n, berriz, %79,8koa izan zen.
- %100a gaindituta eta, era berean, batez besteko horren gaineratik daude espezialitate hauek: pneumologia (%139,9), digestio aparatua (%111,6) eta psikiatria (%109,4).
- Eguneko batez besteko egonaldiak berriz ere egin du behera, 5,5etik 5,4ra. Batez bestekoaren oso gaineratik daude errehabilitazioa (27,9), psikiatria (15), zaintza aringarriak (12,7), hematologia (9,3), barne medikuntza (7,9) eta digestio aparatua (7,2).

Azkenik, EAEko aurrekontuaren likidazioaren gastuen arabera, Osasun Sailaren gastuaren partida (osasuna eta kontsumoa barne), 3.465,4 milioikoa da 2012an, hots, %2ko jaitsiera 2011n likidaturiko gastuaren aldean. 2012an espezifikoki osasunekoak diren partida likidatuak, guztira, 3.357,8 milioi euro dira, hots, %1,2 jaitsiera 2011rekin alderatuta, non programa nagusia Osakidetzarentzako transferentzietatik dagokien. BPGaren %5,2 da gastua, aurreko urteko ratio berdina.

²¹ 10 soldatapeko edo gehiago dituzten establezimenduetako zuzendariak eta gerenteak eta unibertsitateko lizentziaturrekin lotuta egon izan diren profesionalak.

Bestalde, Osasun Sailaren gastuen aurrekontua (osasun eta kontsumoa), 2013an, 3.406,6 milioi eurokoa da (2012an likidaturiko gastuarekiko %1,2). 2013rako aurrekontuan²² sartuta diren eta espezifikoki osasunekoak diren partidak, orotara, 3.399,7 milioi eurokoak dira. Hots, BPGaren %5,3, aurreko urtekoa baino ratio handiagoa (%5,2).

EUSTATen datuen arabera, osasuneko gastua %19,9 jaitsi zen 2012an 2011rekin alderatuta, eta guztira 5.663 milioi eurokoa da. Hots, euskal BPGaren %8,8. Herri administrazioen ahaleginaren adierazlea, hots, osasuneko gastu publikoa, Herri Administrazioek EAEn izandako guztizko gastuarekiko, %16,1ekoa da 2011n, Estatukoa baino %1 gehiagoa (%15,1ean kokatu zen).

Nazioarteko konparazioa eginez, eta 2011ko datuak oinarri hartuta, ELGak emandako azken datuen arabera, egoerak ez du ezberdintasunik aurreko ekitaldiekin alderatuta. EAeko BPGaren portzentajeko gastua %8,8 da, hots, gainerako herrialdeen azpitik. Alabaina, PPC per capitako osasuneko gastua (USA dolaretan erosteko parekotasun ahalmena) 3.695 da gure Erkidegoan, hots, honako herrialde hauen gainetik dago: Erresuma Batua (3.405), Finlandia (3.374) eta Espainia (3.072, EAekoa baino %20,3 txikiagoa); taulako goiko aldean, Norvegia dago, 5.669 eta Suitza, 5.643. Finantzazioari dagokionez, osasuneko guztizko gastuaren %73,8 finantzazio publikokoa da, inguruko herrialdeen ildo beretik.

Osakidetzaren aurrekontuko likidazioak, EAeko kontu orokorretan oinarrituta egin zena, erakusten du erakunde horrek egindako gastua, 2011n, 2.593,7 milioi euro izan zela (2011n baino %2,6), hau da, BPG nominalaren %4. Jaitsiera hori gertatu da ustiapeneko gastuek behera egin dutelako (langileriak hornidura eta beste gastu batzuk), baita inbertsioak ere. Guztizko aurrekontu likidatutik, %3,3 inbertsioei dagokie (85.679 mila euro) eta %96,7 ustiapen gastuei. Azken horretan langileria gastuak nabarmentzen dira, erakundearen gastu guztien %65.

2.11. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren “*Higiezinaren Eskaintzaren Inkesta*”ren datuek adierazten dute azken urtean etxebizitzaren eskaintza osoa (salmenta eta alokairua) %13,9 jaitsi dela (hori aurreko urteko %11,4ari gehitu behar zaio), laugarren hiruhilekoan 34.029 unitateetara iritsi arte. Gauzak horrela, 2013. urtean 2012ko joera negatiboa sendotu da, goranzko bilakaera izan duten aurreko hiru urteak igaro ondoren. Etxebizitza motaren arabera, datu hauek nabarmentzen dira:

- Salmentan dauden eraikuntza berriko etxebizitza libreen eskaintza %25,7 jaitsi da eta batez besteko salneurria 3.486,2 €/m²koa izan da 2013ko laugarren hiruhilekoan; 2012an baino %6,8 gutxiago. Lurraldearen araberrako azterketa eginez gero, ikusten da batez bestekorik txikiena Araban dagoela (3.062,5 €/m²); Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, kopuru horiek honakoak dira: 3.569,3 €/m² eta 3.523,3 €/m², hurrenez hurren.
- Saltzeko eskaintako BOEen batez besteko prezioa 1.625 €/m² izan da 2013an, aurreko urtean baino %2,5 gehiago. Eskaintza 2013ko laugarren hiruhilekoan 3.860 unitatekoa izan da, aurreko urtean baino %7,7 gutxiago.
- Eskaintzan dauden bigarren eskuko etxebizitzaren stockean %12,4ko jaitsiera dago eta haien batez besteko prezioa 2013an 3.171,7 €/m² izan da, aurreko urteko batez bestekoa baino %11 gutxiago. Lurraldeka, Gipuzkoan batez bestekoak baino jaitsiera handiagoa izan dute prezioek (%13,7); Bizkaian eta Araban, berriz, %8,4 eta %9,9 jaitsi dira, hurrenez hurren.
- Alokairuan eskaintako 2.267 etxebizitzako eskaintza zenbatu da, aurreko urtean baino %14,1 gutxiago. Libreei dagokienez (eskaintza osoaren %89,3), berriz, %0,5 hazi da: 2.013 etxebizitzatik 2.024 etxebizitzara; aitzitik, alokairuko etxebizitza babestuetan %61,2 egin du behera. Beraz, babesturiko alokairuak behera egin du: alokairuaren %23,8 izan zen 2012an eta %10,7 izan da 2013an.

²² 2013an aurrekontuak luzatu ziren ez baitzen onetsi 2013rako Aurrekontuen Proiektua.

- EAEko alokairuko babestutako etxebizitzaren batez besteko errenta, 2013an, 295,6 eurokoa izan da hilean, aurreko urtean baino %14,3 gutxiago.
- Azkenik, alokairuan eskaintako etxebizitza libreen laginak 2013an hilean 825,4 euroko batez besteko errenta izan zuen, aurreko urtean baino %3,6 gutxiago. Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak dauka preziorik garestiena (838,8 € hilean); gero Gipuzkoak (821,6 € hilean) eta azkenik Arabak (743,9 € hilean).

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak agerian jarri du *“ETXEBIDE Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren ebaluazio txostenean”* EAEko zerbitzu horretan erregistratutako etxebizitza babestuaren eskaria 2012. urtean egonkortu zela (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua), aurreko bi urteetan %5,6 eta %2,9 jaitsi eta gero, hurrenez hurren. Zehatzago, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen erregistroak 2012. urtearen amaieran EAE osoan inskribatutako 84.780 eskaera zenbatu zituen, hau da, aurreko urtean baino %0,5 gutxiago, banakako eskaeren kopuruaren jaitsieraren ondorioz (%-1,5), banakako eskaera horiek guztien %67,5 izanik. Izan ere, famili unitateen eskaeren kopurua %4,8 gehitu da. Lurraldez lurralde, espedienteen %55,7 Bizkaiari dagokio, %33 Gipuzkoari eta gainerako %11,3 Arabari.

Etxebizitza politikaz denaz bezainbatean, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programan betearazitako gastua, azken urteetan nabarmen gehitu ondoren (2009an gehienekora, hau da, 207,4 milioi eurora iritsi arte), 2010ean eta 2011n nabarmen murriztu zen; gauzak horrela, biurteko horretan jaitsiera %40,7koa izan zen. 2012. urtean (datu finkatuak eskuragarri dauden azken urtea) programa horren gastua 146,3 milioi eurokoa izan zen; horrela bada, berriro ere handitu da, zehatzago, %18,9ko hazkundea izan du, aurreko ekitaldikoarekin alderatuz gero. Gastu hori EAEko BPGdren %0,23 izan da; kopuru hori %0,19ra jaitsi zen aurreko urtean; alabaina, aurreko epealdian %0,3 ingurukoa zen. Etxebizitza eraikuntzako zuzeneko inbertsioen kopuruari dagokionez, Etxebizitza Taldeak (Sailak berak eta horri lotutako sozietate publikoek osatutakoa) 2012an egindakoek 70,2 milioi euroko zenbatekoa ekarri zuten (%-10,3, 2011. urtekoen aldean). Programa horren inbertsio izaera neurri handian murriztu da berriro ere; azken urtean gastu osoaren %29,7 hartu zuen (2004. urtera arte, gastuaren %50 baino gehiago zuzeneko inbertsioetarako erabiltzen zen). Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Zerga Koordinaziorako Organoaren azken txostenak agerian jarri du ohiko etxebizitzari (alokairua eta inbertsioa) lotutako PFEZeko kenketak 2010ean 482,1 milioi euro izan zirela guztira, hau da, aurreko urtean baino %6,1 gutxiago. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzak urte horretan Etxebizitza Programaren bidez gauzatutako gastuaren %264 da (182,5 milioi euro).

2.12. GIZARTE BABESA

Lehenik eta behin, EAEko Gizarte Zerbitzuetako gastua 2011. urtean (informazioa daukagun azken urtea) 2.307,5 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %6 gehiago, betiere EUSTATen *“Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistikaren”* arabera. Gastu hori gure erkidegoaren urte horretako BPGdren %3,5ekoa da eta biztanle bakoitzeko batez beste 1.061,4 euroko gastua, 2010ean baino %6 gehiago. Herri administrazioen ahalegina 1.680,2 milioi eurokoa izan zen, guztiaren %72,8 eta sektore pribatuak, aldiz, gainerako %27,2 eman zuen. Erabilitako lau eurotik bat erabiltzaileen kuoten eta bestelako salmenta batzuen bidez finantzatu zen.

Gizarte zerbitzu ugarien artean, biztanleentzako eta adineko pertsonentzako zerbitzuak dira baliabiderik gehien jasotzen dituztenak, bien artean gastuaren %69,7 hartzen baitute. Biztanleentzako baliabideen artean, nabarmenak dira familientzako transferentziak: 655,3 milioi eurokoak dira, hau da, gastu osoaren %28,4, eta, gainera, %5,2 handitu dira, lehen aipatutako %6ko batez bestekoaren azpitik, beraz. Adinekoek dagokienez, batez ere egoitzetako zerbitzuak, laguntzarako eguneko zentroak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak eta telelaguntza dira gehien jasotzen dituzten arreta motak. 2011n 19.915 plaza eskaini ziren egoitzetan, hau da, 75 urte edo handik gora zituzten 100 pertsonako 9,7 plaza eman ziren.

2007ko Mendekotasunari buruzko Legearen ezarpenari dagokionez, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO) 2013ko abenduaren 31ko datuek adierazi dute data horretan EAEk 87.321 balorazio eskabide erregistratu

zituela Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemari. Gainerako erkidegoetan bezala, eskabide horietako gehienak mendekotasun mailaren aintzatespena berrikusteko ziren. Eskabide horiek Estatu osoaren %5,31 izan dira, nahiz eta gure Erkidegoko biztanleria Estatuko biztanleriaren %4,65 den.

Eskatzailearen profila honako hau da: emakumea (eskatzaileen %65,2 dira), 80 urtekoa edo zaharragoa (eskatzaileen %55,88, eta emakumeen %62,98). Bigarren adin talde garrantzitsua 65 eta 79 urte artekoa da; orotara eskabide guztien %19,37 dira. Aintzatespena 47.373 prestazioak 42.080 onuradunei dagozkie (pertsonako 1,20ko prestazio ratioa dago, zeren eta pertsona bat zerbitzu edo prestazio baten baino gehiagoren onuraduna izan baitaiteke), eta erreferentziako datan 50.386 prestazio ezarri dira. Horietatik %49,1 familien zaintzaren ziozko prestazio ekonomikoari dagozkie, %20,97 egoitza arretari, %11,05 eguneko edota gaueko zentroetako zaintzei eta %10,78 etxez etxeko laguntza zerbitzuei, prestaziorik eta zerbitzurik garrantzitsuenak aipatzearen.

Kopuru horien osagarri gisa, Espainiako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Gerenteen Elkarteko kideek osatzen duten "Mendekotasunaren Espainiako Behatokia"ren txostenari esker, mendekotasunaren arretarako sistemaren hedapenaren lanbide balorazioaren jarraipena egin daiteke autonomia erkidegokoa. Laburpen gisa, puntuazioa ematen die Behatokiak erkidegoei, eta mendekotasunaren arreta garatzeko eta ezartzeko mailaren rankinga ematen du. Saillapen horretako lehenengo postuan Gaztela-Leon dago 2013ko abenduan (10en gaineko 9,6 jasota), eta EAE bigarren postuan dago, 8,3 puntu jasoz, Estatuko batez bestekoa 4,7 puntukoa izanik. Gure erkidegoak bi urte lehenagoko puntuazioa berreskuratu du; izan ere, 2012an 8,3tik 7,5era jaitsi zen.

Behatokiaren ebaluazioak adierazi du EAEn emandako prestazio gehienak Familia Inguruko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoari dagozkiola, beste erkidego batzuetako mailara iritsi ez bada ere. Hala ere, Mendekotasun Legeari jarraiki, prestazio hau salbuespeneko kasuetan baino ez litzateke eman beharko.

Beste alde batetik, 2013an, milioi erdi lagun baino gehiago (529.070, lehen zenbatespenaren arabera) izan ziren gure Erkidegoko Gizarte Segurantza sistemako pentsioen onuradunak; hori aurreko urtean baino %1,7 gehiago da, orduan ere %1,3 hazi ondoren. Azken urteetan gertatu den bezala, hazkuntza hori kotizaziopeko pentsioen onuradunak diren pertsonen bilakaeragatik izan da; izan ere, beste modalitateetan oro har murrizteko joera izan du. Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAeko biztanleen portzentajea %24,1era heltzen da.

Ordaindutakoaren araberrako pentsioei dagokienez (prestazioen %97,6 eta gastuaren %99,3 direnak), 2013. urtean onuradunen batez besteko kopurua 516.600 zen (+%1,7) eta hileko batez besteko zenbatekoa (1.057,3 €) %3,1 gehitu zen 2012. urteaz geroztik. Beraz, urtean 7.646,81 milioi euroko gastua kalkulatu da, hau da, 2012an baino %4,9 gehiago.

Labur esanda, EAEn pentsioetako gastua 2013an, behin-behineko datuak erabilita, 7.704 milioi eurokoa izan zen guztira, 2012n baino %4,9 gehiago. Hortaz, BPGdan duen portzentajea bost hamarren handitu da, 2012ko %11,4tik %11,9ra igaroz (EUSTATen behin-behineko datuak kontuan hartuta).

Pentsioetan egindako gastu hori eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten diru bilketaren kopuruak erlazioan jarri gero, 2012an (bi datuak batera eskuragarri dauden azken ekitaldia), sarrerak 6.501 milioiokoa izanik, saldoa negatiboa izango zen 845 milioiokoa kopuruan, betiere aurreko ekitaldiko -436 milioien aldean.

Azkenik, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa Sarrerak Bermatzeko Errenta deritzona da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean oinarrituta sortu zena.

2013an 62.817 familiek jaso dute Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (abenduko datua); hori aurreko urtean baino %8,3 gehiago da, orduan lagundutako elkarbizitza unitateak 57.979 izan baitziren. Lurraldeka, Bizkaiak dauka jasotzaile gehien, 39.719 guztira, EAeko guztien %63,2; Gipuzkoak, ordea, jasotzaileen %22,4 biltzen du, eta Arabak %14,4. Lanbideren 2013ko balantzeak nabarmentzen du onuradunen kontzentrazio handiena duen adin tarte 35 urtetik 44 urtera bitartekoa dela (guztien %27,1 dira); gainera, DSBE jasotzen duten 10 pertsonetatik 6 emakumezkoak

dira. Halaber, prestazio hau jasotzen duten pertsona autoktonoen kopurua (45.000 inguru) atzerritarrena baino 2,5 handiagoa da gutxi gorabehera (%71,9 %28,1aren aldean). Gainera, jasotzaile titularren %28,2 pentsionistak dira.

2013an 359,1 milioi euro ordaindu dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta gisa (2012an baino %4,5 gehiago).

Gainera, 2010ean, Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) abian jarri zen, 18/2008 Legea garatzeko. Haren helburua Sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri diren prestazio ekonomikoen sistema bat artikulatzea da, biztanleriako talderik ahulenek etxebizitzaren inguruko gastuak ordaindu ahal izateko. 2010ean EPOk 51,1 milioi euroko gastua ekarri zuen, 2011n 64,9 milioikoa eta 2012an 71,2koa. 2013an, azkenik, guztira 75,9 milioi euro ordaindu ziren, aurreko urtean baino %6,6 gehiago. Horietatik, 13,3 milioi Arabari dagozkio (guztiaren %17,5), 45,8 Bizkaiari (%60,3) eta 16,8 milioi euro Gipuzkoari (%22,2). 2013ko abenduan, jasotzaile titularren kopurua osoa 25.882koa zen (aurreko urtean baino %18,3 gehiago, hain zuzen ere).

Era berean, EPO abian jarri ondoren, Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, bere jatorrizko helburua berreskuratu zuen (hau da, oinarrizko beharizan espezifikoei aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenei, egin-eginean ere gizarte bazterketako egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo leuntzeko gastuak estaltzeko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonen egoera zehatzetan sortzen zaizkien premiei) eta bere aurrekontu partida nabarmen murriztu zen; izan ere, 2012. urtean (kopuru ofizialak ditugun azken urtea) laguntza horretarako 17,14 milioi euro bideratu ziren, hau da, aurreko urtean baino 0,9 gutxiago. Horrela, Bizkaiari guztiaren %55 egokitu zitzaizkion, Gipuzkoari %29 eta Arabari gainerako %16. Guztira, urtean 28,753 laguntza eman ziren kontzeptu desberdinak direla eta, esate baterako oinarrizko premiak (7.224 laguntza), alokairua (4.819) edo interesen amortizazioa (2.414); batez besteko zenbatekoa 595,98 eurokoa izan zen laguntza bakoitzeko.

Guztira, 2013. urtean, behin-behineko datuekin, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak guztira 452,1 milioi euro gastatu zituen, aurreko urtean baino %4,6 gehiago alegia, honela banatuta: 359,1 milioi Diru Sarrerak Bermatzeko Errentarentzat (guztiaren %79,4), 75,9 milioi euro Etxebizitzaren Prestazio Osagarriarentzat (%16,8, diru-laguntza hau eman den laugarren urtean) eta 17,1 milioi inguru Gizarte Larrialdiko Laguntzentzat (guztiaren %3,8 inguru, ez baita kopuru honen zenbateko zehatza ezagutzen).

Konparazioa egite aldera, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren "*Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena*"ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sisteman kopuru handien konparaziozko segimendua egin daiteke, betiere era askotako araudiak eta sistemak garatzeko maila ezberdinak daudela kontuan izanik. 2012ri lotutako txostenaren arabera, urte horretan gure erkidegoak 4.908 euroko urteko gastua zeukan prestazio horien titular bakoitzeko, estatuko 3.236 euroko batez bestekoaren aurrean, eta haren estaldura tasa %31,9koa zen mila biztanleko (estatuaren batez bestekoa 4,6 da). Kontuan hartu behar da aipatutako urtean gure erkidegoak estatuan prestazio horietarako erabilitako fondoaren %40,2 zeukala, eta haren oinarrizko zenbatekoa (612,41 € hilean) estatuaren batez bestekoa baino %45,6 handiagoa zela, autonomia erkidego guztietako handiena, hain zuzen ere.

Beste alde batetik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gizarteratzea sustatzeko aurrera eramandako ekimenen barnean, hirugarren sektoreko jarduerari bultzada emateko diru-laguntzen programa garatzen da esku-hartze sozialaren eremuan; horren arabera, 2012. urtean 7,93 milioi euroko balioa zuten laguntzak eman ziren, 2011. urtean baino %9,3 gutxiago. Diru-laguntzen lerroak aintzakotzat hartuz, 6,6 milioi pertsonetikiko, familiekiko, taldeekiko eta komunitateekiko esku-hartze sozialera bideratu ziren, 0,9 milioi borondatezko ekintza sendotzera eta gainerako 0,4 milioiak ezagutza eta jakintzaren kudeaketara.

Amaitzeko, EAEko borondatezko gizarte aurreikuspeneko sistemaren 2013. urteko balantze gisa, adierazi beharra dago, Euskadiko BGAEn Federazioaren datuak erabiliz, Euskadin BGAEn ondareak lehenengo aldiz 21.000 milioi euroko langa gaintu duela, aurreko ekitaldiko kopuruak 1.393an hobetuz. Ondare horrek EAEko BPGdren %33,65ekoa da, eta ratio hori Estatuaren oso gaintetik dago (%7,8) eta 15-EBren batez bestekoa baino handiagoa da (%26); hala

ere, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) batez bestekotik oso urrun dago, erakunde horrek %67,6an zenbatzen baitu.

2013. urtean kuotak edo ekarkinek, iturri horren arabera, 889 milioi euroko kopurua gainditu zuten, nahiz eta egia den 2012. urtekoen aldean jaitsi direla; bilakaera horretan eragina izan du enplegatu publikoen BGAEetan enpresa ekarkinak eten izanak (Elkarkidetzeta eta Itzarri), bai eta, oro har, bilakaera ekonomiko negatiboak ere. Halaber, atxikipenak, 1,14 milioi, 32.000 jaitsi dira 2012koen aldean; aldi berean, ordaindutako prestazioek 1.090 euroko kopurua gainditzen dute, hau da, zenbateko hori aurreko urtean baino %17,8 handiagoa da.

3. GOGOETAK

3.1. DEMOGRAFIA ETA INMIGRAZIOA

Udal Erroldaren azken zifrek erakusten dutenez, euskal biztanleria lehen aldiz azken hamalau urtean jaitsi egin da 2013an. 1.400 biztanle besterik ez dira (%-0,06), baina ukazina den irudia erakusten duela ematen du, kapitulu honetan aztertu diren datuak ikusita.

Izan ere, %3,1 jaitsi zen bizirik jaiotakoen kopurua 2012an, eta hiru lurraldeetan izan dira beherakadak. Eraitza horien arabera, 9,3ko jaiotza-tasa ageri da mila biztanleko EAEn (aurreko hiru urteetan, berriz, 9,7koa izan zen). 60ko hamarkadan kopuru hori milako 20tik gorakoa zen, eta Estatu batez bestekotik gorago zegoen. Gaur egun, Estatuak (9,7 milako) eta EBkoak (10,4) baino tasa txikiagoei eusten die EAEk, non “baby recession” aipatzen hasia den krisia populazioaren dinamikan izaten ari den eraginaren ondorioz. Gainera, lehen aldiz jaitsi da EAEn bizi diren atzerritarren kopurua migrazioa hasi zenetik, hazkunde ekonomikoarekin batera hasi zenetik; izan ere, hazkunde ekonomikoaren azken etapan gertatu da jaitsiera.

Eustatek EAerako 2026. urterako eginiko aurreikuspen demografiko berriek bi joera areagotu egin direla erakusten dute: Euskadiko populazioan 100.000 lagun gutxiago izango dira. Zenbatespenen arabera, hazkunde demografikoaren bi osagaiak, berezko hazkundeak eta migrazio mugimenduek, saldo negatiboak konbinatuko dituzte epealdi horretan, halako moldez non berezkoak (jaiotzak ken heriotzak) gero eta saldo negatiboagoak izango baititu heriotzen gehikuntzagatik eta jaiotzen jaitsiera handiagatik. Migrazio-saldoa ere, orotara, 50.000 biztanlekoa izango da, berezko beherakadaren antzekoa.

Europar, aldiz, populazioak hazten jarraituko duela aurreikusten du Eustatek 2040. urtera arte, nahiz eta jaiotzen urteko kopuruak behera egingo duen epealdi osoan. Heriotza, berriz, igoz joango da, “baby boom”-eko belaunaldien zahartze-prozesuaren ondorioz. Hori dela-eta, beste herrialde batzuetako immigrazioak eragile demografiko nagusia izaten jarraituko du.

Immigrazioak gure Erkidegoan berriki gertaturiko dinamika demografikoen izan duen eragina (1998 eta 2013 bitartean, EAEko populazioak gora egin du atzerritarren etorrerari esker, zeren eta epealdi berean behera egin baitzuen euskal herritarren kopuruak) amaitu dela aintzat hartuta, kezkarri iruditzen zaigu 2011ko geure ekimenaz eginiko gure azterlanaren (“Aurreikusitako bilakaera demografikoak EAEn duen ekonomi eta gizarte eragina”) ondorioek indarrean jarraitzen dutela ikustea. Are gehiago, joera sakondu egiten dela ematen du: galera demografikoaren aurrean gaude termino absolutuetan, baina gainera lanerako adineko tartetean beherakada erlatiboa dugu, baita adin handiagoko taldeen gero eta pisu handiagoa ere.

Horren aurrean, berriz ere diogu gure gizarteak dituen erronkek –lanerako adinean diren biztanleen kopurua gutxitzea eta populazioaren zahartzea- erantzun globala eta zeharkakoa behar dutela; hori lortzeko dago oraindik Estatuan eta EAEn. Ikuspegi integralik eza, politika zatituak eta sakabanatuak eta epe laburrerako ikuspegiaren lehenespena gaintu behar dira, gizarte fenomeno horren inguruko ikuspegi globala izateko: giza kapitala galtzen da; horrek ageriko eragina du ongizate estatuaren iraunkortasunean epe ertainean eta epe luzean.

Beraz, honako hauek konpondu beharreko arazoa izaten jarraitzen dute gure Erkidegoan: estrategia integrala eta epe luzerakoa zehaztea aurreikuspen demografikoek lan-merkatuan duten ondorioei aurre egiteko, pentsio sistemak, osasuna eta osasun sistema, mendetasuna eta gizarte zerbitzuak eta hezkuntza sistema.

Bestalde, migrazioari dagokionez, kezkarri iruditzen zaigu, krisiaren ondoriozko erronkei epe laburrerako premiazko irtenbideak direla-eta, migrazioaren kudeaketa bigarren maila politikoan gelditzen ari dela ikustea. Migrazio-fluxuak motelduta, migrazioa dagoeneko hain garrantzitsua ez izatearen inguruko irudipen handiagoa dago gizartearen

eta hedabideetan. Aitzitik, kudeatu beharreko errealitate ekonomikoa eta soziala da, eta erronka ikaragarri handiak planteatzen ditu gure gizartearen kohesiorako.

Hala, immigrazio berriaren jatorria aztertzen badugu, hau da, azken lau urteotan EAera heldu direnen jatorria, ikusten da Latinoamerikako nazionalitateak nagusi direla Afrikakoen gainetik. Izan ere, 2009. urtetik aurrera, Magrebeko taldea (bereziki Marokokoak) hazkundearen protagonista nagusia da Euskadin. Joera horri eutsiz gero, handitu egingo da kultura, erlijio eta hizkuntza aniztasuna EAEn, eta aniztasuna kudeatzeko ekintzak indartu beharko dira nahitaez. Gainera, erronka handia dakar kohesio sozioekonomikoaren aldetik, talde horiek lanaren aldetik dituzten problemak direla-eta.

3.2. HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA PROMOZIOA

EAEn unibertsitate aurreko matrikulazioan bilakaera positiboa ikusi dugu berriro ere. Izan ere, EUSTATen 2013-14ko datuen aurrerapenaren arabera, hor hezkuntza berezia sartuz gero, %0,5eko igoera izan da; hezkuntza berezia sartzen ez badugu, gehikuntza hori %1,7koa da. Gainera, matrikulazioa beheko mailetan (haur eta lehen hezkuntzak eta DBH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHO) edo irakaskuntza ertainetan gehitu da.

Berriro ere nabarmendu beharra dago LHren matrikulazioan izandako igoera (%10,4koa gradu ertaineko LHn eta %10eko goi graduakoan), eta, egia esan, LH aukeratzen duten ikasleen ratioak goranzko joera erakusten du. Azken ikasturtean, EAEn irakaskuntza ertainak egiten dituzten ikaslerik gehienek (%53,6) LH hautatzen dute, derrigorrezko irakaskuntza amaitu eta gero.

Alabaina, emakumeek gizonen baino partaidetza txikiagoa dute oraindik ere lanbide ikasketetan, batez ere profil teknikoko lanbide familetan. Gainera, laneratze txikiagoa izaten dute. Hala eta guztiz ere, zenbait familian haien partaidetzak %75eko kopurua gainditzen du: Irudi Pertsonala, Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza, Kultur eta Komunitate Zerbitzuak eta Osasuna. Eta bigarren talde bat dago %75etik beherako baina %50etik gorako ratioak dituen: Administrazioa eta Kudeaketa, Merkataritza eta Marketina, Kimika eta Arte Grafikoetako Goi Mailak, Ostalaritza eta Turismoa eta Elikagaien Industriak.

Unibertsitateko irakaskuntzei dagokienez, 2011-2012 ikasturtean, unibertsitateko graduoko eta lehen eta bigarren zikloko ikasketetan matrikulatutako ikasleen kopurua guztira %0,3 handitu zen aurreko ikasturtekoaren aldean. Halaber, aurreko urtearen aldean, graduatan matrikulatutako ikasle kopuruak ere gora egiten jarraitu du (%65), urterik urte unibertsitate ikasketen egitura berria sendotuz eta gorpuztuz joan delako, hala ere, horrek, bestalde, berekin ekarri du lehen eta bigarren gradua egiten dutenen jaisiera (kopuru hori %29,8an zenbaturik dago).

Halaber, matrikulazioaren igoeren kausa posibleetako bat ziklo ekonomikoaren bilakaera dateke; izan ere, lan eskaintzarik ez dagoela-eta, zenbait langile ikasgeletara itzuli da, haien lanbide prestakuntza osatzeko asmoz.

Graduazioei dagokienez, lehenengo eta bigarren zikloko eta graduoko ikasketa guztiak zenbatuta, unibertsitateko ikasleen erdia baino gehiago Zientzia Sozial eta Juridikoetako adarrean espezializatu zen (%53); horren ondoren, Ingeniaritza eta Arkitektura azaltzen da (%28). Neurri txikiagoan honakoetan ere matrikulatu ziren: Arteetan eta Giza Zientzietan (%8), Osasun Zientzietan (%5,8) eta Zientzietan (%5).

Hezkuntza adierazleei dagokienez:

- Unibertsitatekoa ez den irakaskuntzan ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa (ikastetxe publikoan edo itunduan) nabarmendu beharra dago; izan ere, 2011. urtean gastu hori 7.112 eurokoa izan da EAEn. Horrela, gure erkidegoa da ikasle bakoitzeko gasturik handiena duena autonomia erkidego guztien artetik. Estatuko batez bestekoa 5.206 euro dira.

- Atzerriko ikasleei dagokionez, ikus dezakegu EAEn 2011-12ko ikasturtean, hezkuntza mailen arabera berezita, kopururik altuenak honakoak direla: HLPP (%37,4, estatuko batez bestekoa %20,9koa da), DBH (%8,5, estatuko batez bestekoa %12koa) eta maila ertaineko LH (%9,8, estatuko batez bestekoa %9,7 da).

Eta hurrengo azpimarra daiteke:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gastu partida, 2013ko aurrekontuetan, 2.630 milioi eurokoa izan da; horrek esan nahi du aurreko urtean likidatutako gastuaren aldean %0,2ko gehikuntza egon dela. Gastu hori EAEn BPGdren %4,1ekoa izan da, eta egonkor eutsi dio krisialdi ekonomikoa izandako 2012. urtekoaren aldean.
- Estatuak eta EAEk eskolatzeko tasa handiagoak dituzte Haur Hezkuntzan, ELGA eta Europar Batasunaren batez bestekoak baino; gainera, EAE agertzen da derrigorrezkoak ez diren hezkuntza mailetan (16, 17 eta 18 urte) estatuko eskolatzeko tasak maiz gainditzen dituzten erkidegoen artean.
- EAEko eskola behar baino lehenago uzten dutenen tasak beherako joera du eta estatukoa baino txikiagoa da (EAEn %11,5 eta Estatuan %24,9 2012an); eta EBren antzekoa (%12,7). Zentzu horretan, ahaleginak egiten jarraitzea gomendatzen dugu, Europa 2020 Estrategian eskola behar baino lehen uzten dutenen tasa, 2020. urtean beranduenez, %10 baino txikiagoa izatea dadin.
- Zientzia eta Teknologiako goi mailako hezkuntzako graduatuei dagokionez (20 eta 29 urte arteko 1.000 biztanleko), adierazi beharra dago EAEn adierazle horren maila altua dela eta egonkor eusten zaiola urteetan zehar; horregatik estatuko nahiz Europako lehenengo postuetan gaude. Horren arrazoia da, neurri handi batean, gure erkidegoan goi mailako lanbide heziketa duten pertsona asko dagoela (CINE 5B), estatuko batez bestekoa baino ia hiru aldiz handiagoa.
- Biztanle gazteen prestakuntza maila (gutxien-gutxienik Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa bete duten 20-24 urteko biztanleen %) EBn erregistratzen denaren antzekoa da (%80 ingurukoa) eta Espainiako estatuaren batez bestekoaren gainetikoa (%62,8). Hala eta guztiz ere, gogorarazi beharra dago EBn ratioak gora egin duen bitartean EAEn, hain zuzen ere, alderantzizkoa gertatu dela.

Eta arreta jarri nahi dugu hurrengo alderdietan:

- Etengabeko ikaskuntzan parte hartzearen arloan EBk 2020rako ezarritako helburuaren arabera, 25-64 urteko helduen %15ek gutxienez hartuko du parte etengabeko ikaskuntzako jardueraren batean. Helburu hori oraindik urruti dago, zeren eta, EUROSTATen arabera, etengabeko prestakuntzako ikastaroak egiten dituztenen batez bestekoa %9koa baita 27-EBn, %10,7koa Espainian eta %12,9koa EAEn. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2011. urterako argitaratutako datuen arabera, unibertsitateko hezkuntza administrazioen gastua, BPGdren gainean, txikiagoa da EAEn (%0,78) estatuan baino (%0,96).
- PISA ebaluazioaren irakurmenari eta trebetasun zientifikoari buruzko emaitzak ELGaren batez bestekotik urrun daude, bai eta zenbait autonomia erkidegok lortutakoetatik ere. Halaber, 2012tik 2013ra bitartean, trebetasun zientifikoan izan ezik, ez da hobekuntzarik antzeman emaitzetan.
- Bilakaeraren ikuspuntutik, 2001-02tik 2011-12ra bitartean egokitasun mailak murriztu dira estatuan, eta hori berori gertatu da EAEn, 15 urteko taldean izan ezik.
- Biztanle helduen ikasketa mailari dagokionez, 2012an, EAEn 25 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren %68,1ek Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako edo goragoko ikasketa maila dauka. Espainian kopurua hori %54koa da. Hala eta guztiz ere, erreferentziazko herrialdeek askoz tasa altuagoak dituzte: Txekiar Errepublikak %92,3, Eslovakiak %91,4, Poloniak %89,1, Estoniak %88,8, Suediak %87,1, Alemaniak %86,3, Esloveniak %84,5, Finlandiak %83,7, Austriak %82,4, Hungariak %81,7 eta Luxenburgok %77,2. Greziak %67,2ko kopurua du.

Hezkuntza eta prestakuntza funtsezko elementuak dira edozein lurralde jakintzan eta ezagutzan oinarritzen den gizarte eta ekonomia bihur dadin. Oinarritzko gaitasunak eta beharrezko lanbide gaitasunak trebatzeko gai den hezkuntza sistema garatzeko baliabideak jartzea da erronka, bazterketarako arriskurik ez dakarren bidezko eta berdintasunezko sistema bat, jakintza mota eta moduak eskuratzea erraztuko duena; honi deritzo jakintza mota: zientifikoa, humanistikoa, ekonomikoa, artistikoa... eta eskuratzeari: Hainbat hezkuntza ibilbide izatea, hezkuntza sistemaren eta enpresa sistemaren arteko pasaguneak, besteak beste; baita ikaskuntza bizitza osoan indartzea ere.

Kapitulu honetan aztertutako alderdiek erakusten dute, Hezkuntzan egiten den ahalegina garrantzitsua izanik ere eta emaitzak onak izanik ere, komenigarria dela eremu honetan arreta handia jartzen segitzea, betiere une hauetako alderdirik txarretan sakontzen jarraitu ahal izateko. Ez da beharrezkoa azpimarratzea hezkuntzan egiten diren inbertsio eraginkorrek laguntzen dutela gizarte barruan existitzen diren desberdintasun eta aldeak murrizten.

3.3. I+G+B+IKT JARDUERAK

Nabarmendu nahi dugu ezen beste urte batez, I+G+b-ko adierazle nagusiak direla-eta, EAE Estatuko autonomia erkidegorik dinamikoen eta berritzaileen artean dagoela. Hala ere, bide luzea dago egiteko oraindik arloan erreferentzia diren herrialdeen mailara iristeko.

Hala, pixkanaka gora egin du EAEn I+G-n eginiko ahaleginak, eta 2012an %2,12ko ratioa dauka, Estatuko batez bestekoaren gaitetik (%1,3), baina oraindik 0,88 puntura dago Europako %3ko helburutik eta urrutik herrialderik berritzaileen emandako ratioetatik: Finlandia (%3,55), Suedia (%3,41), Japonia (%3,25, 2010eko datua), Danimarka (%2,99), AEB (%2,67, 2011ko datua), Alemania (%2,92), eta Frantzia (%2,26).

EAEn sektore pribatuan egikarituriko gastua (gastuaren %76) sektoreak Estatuan izandakoa baino handiagoa da (%53). Alabaina, eta nahiz eta euskal administrazio publikoek egikaritu gastua hazi den 2005 eta 2012 bitartean eta %6,3aren inguruan egon, oraindik ere Estatukoa (%19,1) eta EBkoa (%12,7) baino txikiagoa da, eta horrek zerikusia du EAeko ikerkuntza zentro publikoen kopuru txikiagoa izatearekin (ikus bedi, esate baterako, Estatuan dauden CSIC zentroak).

Ildo horretan, komeni da kontuan hartzea EAeko berrikuntza sistemaren ezaugarrietako bat teknologi elkartegien sare garrantzitsua dela; gehienbat pribatuak dira. Hala, 2012an enpresen sektoreak egikarituriko ikerkuntza gastuaren %21,4 egin zuten Zientzia eta Teknologia Euskal Sareko teknologi elkartegiek, eta guztizko gastuaren %16,2.

Bestalde, zientziaren arloko nazioarteko lehiakortasuna nabarmendu egiten da ikerketa fabrikatzeko gaitasunagatik (baterako argitalpen zientifiko gehiago EAEn Europan baino), baina ez fabrikatuaren kalitateagatik (nazioarte mailan gehien aipatzen diren argitalpen zientifikoaren portzentajeak EB-27n izandakoak baino askoz txikiagoak dira EAEn).

I+G-ko gastuaren finantzaketari dagokionez, zorionez, sektore pribatuak gastuaren finantzaketan duen pisua handituz doa: 2011 eta 2012 bitartean %54,3tik %55,9ra. Hala ere, EAE Lisboako helburuetatik 10,1 puntura dagoela agerrarazi nahi dugu: I+G-ko gastu osoaren %66 funts pribatuekin finantzatua izatea eta oraindik ez dela iristen lurralderik dinamikoenetan eta berritzaileenetan ikusitako ratioetara, zehazki Japonian (%75,9 2010ean), AEBetan (%60), Finlandia (%67), Alemania (%65,6), Danimarka (%60,3) eta Suedia (%57,3).

Paraleloki, berrikuntzarako jardueren gastuaren nahiz enpresa berritzaileen portzentajearen bilakaeraz ohartarazi nahi dugu, zeren eta bi adierazleek behera egin baitute 2009-2011 eta 2010-2012 epealdien artean.

Hala berresten du Europako Berrikuntza Adierazleen Panelak; izan ere, hori oinarri hartuta, gure Erkidegoak 0,48 puntu ditu, eta hirugarren taldeko gorengo aldean kokatuko litzateke: "neurritzko berrikuntza duten herrialdeak".

Halaber, komeni da aintzat hartzea planaren zenbait adierazle, zehazki PCT patenteen eskabideak eta EBren diseinuak, zeren eta I+Gko gastuaren eraginkortasunari eta EAEn egiten dituen I+G balioesterakoan dituen zailtasunei

buruzko ideia ematen baitute. Horregatik, I+Gko gastua handitzeko ahaleginak bakarrik ez, ebaluazioa ere egin beharko litzateke, erabilitako baliabideak eraginkortasun handiagoz bideratzeko.

Familien edota populazioaren IKT ekipamenduei dagokienez, nabarmendu behar dugu EAEk hazten jarraitzen duela, baina oraindik Europako batez bestekoak baino pixka bat beherago daudela ikusten dugu. Hala, interneteko sarbidea duten 16-74 urteko kide bat gutxienez duten familien portzentajea, 2013an, %79koa da EB-28n. EAEn, berriz, %72koa da.

Positibotzat jotzen dugu internet bidez erosi ez duten pertsonen portzentajea autonomia erkidegoetako baxuena izatea, eta, azken hilean erosi duten pertsonen portzentajea neurtuta, Euskadi goi mailan egotea ere (%26), eta ondoren Madril (%25,2) eta Nafarroa (%22,4%).

Enpresetako IKT ekipamenduen erabilerari dagokionez, eta, zehazki, merkataritzako transakzioetan Internet edo baliabide elektronikoren bat erabiltzearen harira, zorionez, merkataritza elektronikoa hazten jarraitzen duela egiaztatu dugu, zehazki, eragiten dituen zifra ekonomikoek nahiz bertan parte hartzen duten enpresen kopuruak gora egin dute, eta deigarria iruditzen zaigu zifra ekonomikotan salmentak erosketak baino altuagoak diren arren parte-hartzeari dagokionez saltzen duten establezimenduen kopurua baliabide elektronikoen bidez produktuak erosten dituzten establezimenduena baino altuagoa izatea, eta horrek salmentak enpresa-multzo baten inguruan kontzentratzen direla ondorioztatzera garamatza.

Administrazio elektronikoa dela-eta, esan behar dugu Agenda Digitala 2015 Euskadin planteaturiko helburuak herritarrentzat nekez lor daitezkeela dirudiela. Aitzitik, enpresentzat ezarritakoek, hobetzeko marjina izanik ere, bilakaera hobea dute.

Azken finean, ezagutzaren eta lehia globalaren egungo gizartean, funtsezkoa da nahikoa besteak beste IKT ekipamendua izatea enpresa eta familia mailan, baita erabilerari trinkorako ahalmen egokia ere. Eta, beraz, EAE arlo horretako herrialde nagusien mailetan kokatzeko lagungarriak diren programak sakontzen jarraitzea proposatzen dugu.

3.4. NATURA-INGURUNEAREN EGOERA

Azken urteetan hobekuntzak izan dira ingurumenaren egoera orokorraren aldetik, hain zuzen gizartearen kontzientziario orokorraren eta garapen iraunkorra lortzeko buruturiko jarduketaren publikoen eta pribatuen ondorioz; izan ere, baliabidearen kontsumoa eta baliabidea erabiltzeko eraginkortasun maila izan behar dira kontuan jasangarritasunaren kontzeptuaren baitan.

Hala, positibotzat jotzen dugu *airearen kalitatea* azken urteetan hobetu eta “ona” izateari buruz, edo gutxienez “onargarria”. Hala ere, Urola Garaia eskualdeak beste eskualde batzuen aldean duen egoera txarragoa nabarmendu beharra dago, baina hobekuntzarako etengabeko ibilbidea erakusten du.

Klima aldaketaren eta Negutegi Efektu Gasen isuriaren (NEG) arloan, komenigarria da aintzat hartzea, alde batetik, Kyotoko protokoloak Espainiako estatuari esleituriko konpromisoa, hots, 2008-2012ko epealdian %15era murriztea isuri zuzenen hazkundera oinarritako urtearekiko (1990). Autonomia erkidegoek NEGak murrizteko juridikoki lotesleak diren helburuak ez badituzte ere, Klimaren Aldaketaren kontrako 2008-2012ko Euskal Planean EAeko isuriak mugatzeko borondatezko helburua ezarri da aipaturiko aldirian, halako moldez non ez baita oinarritako urtekoaren %14 gaudituko.

Ildo horretan, pozik ikusten dugu NEG isuriaren inbentarioaren eskaintako azken datuetan ageri dena, hots, isuri zuzenak eta zeharkakoak (hots, inportaturiko elektrizitatearekin lotutakoak barne), CO2 baliabidearen terminoetan neurtuta, murriztu egin direla, 2011n eta 2012an gora egin badute ere. Hala, hazkunde-ratioa %25,4koa zen 2007an oinarritako urtean (1990) izandako isuriaren aldean. 2012an, berriz, 1990ean izandakoak baino %1,1 gehiago bildu dira. Hala eta guztiz, industriak izan duen bilakaera positiboaren aurrean, garraio, zerbitzu eta etxebizitzaren sektoreen

ibilbideaz ohartaraztea komeni da; izan ere, maila desegokiak izateaz gain, nahikoa hazkunde nabarmenak izan dituzte krisi ekonomikoaren testuinguruan.

Gainera, kontuan izan behar dugu Klima Aldaketaren kontrako 2008-2012ko Euskal Planaren indarraldia eta Europako 2020 Estrategiaren gomendioak: %20 murriztea NEG isuriak 2020. urterako.

Pozgarria da guretzat *ur-masen kalitatea (ibaiak, lakuak eta gune hezeak; trantsizio urak; kostaldeko urak; lur azpiko urak eta bainurako urak)* hobetuz doala ikustea ibaien, kostaldeko uren, lur azpiko uren eta bainurako uren aldean. Baina, trantsizio uren eta lakuen eta hezeguneen aldean uraren kalitatea oraindik nahikoa ez dela adierazi behar dugu.

Bainurako uren kasu zehatzean, araudian ezarritako helburuaren arabera, agintari eskudunek beharrezko neurriak aplikatuko dituzte, zertarako-eta, 2015eko bainurako denboraldiaren amaieran, bainurako ur guztien kalitatea "nahikoa" izateko. Ildo horretan, 2012an soilik masen %6,7k nahikoa kalitatea ez duela ikusita (%8,5ek aurreko urtean), badirudi helburua betetzeko bidean garela.

Uraren kontsumoari dagokionez, banaketarako herri sareetan oraindik ihesak, hausturak, etab. direla izaten diren benetako galeren ondorioz, EAEko hornidurarako hiriko sare gehienen errendimendua txikia da eraginkortasun terminoetan (kontrolaturiko ur bolumena hiriko hornidurarako sarean txertaturiko ur bolumenaren aldean).

Ahaleginak egiten ari dira, jakina, baina sareen eraginkortasuna sakondu beharra dago, mantentzeko inbertsioekin eta urteetako hobekuntza iraunkorrekin. Era berean, Euskadiko EGABek beharrezkotzat jotzen du herritarrak sentsibilizatzen jarraitzea eta produkzio prozesu garbiagoak martxan jartzea ahalbidetzea, haren hiru aldagaiak egoki uztartu ahal izateko: ingurumena, gizartea eta ekonomia. Gainera, berrikuntza teknologikorako bideak ireki eta ingurumenaz sentsibilizatzeko ekintzak bultzatu behar dira hainbat taldetan, etab.

3.5. EAE-REN EGOERA EKONOMIKOA ETA KANPO TESTUINGURUA

Munduko ekonomiak hazkunde neurritsua izan zuen 2013an, eta hazkunde hori modu heterogeneoan banatu zen gune ekonomikoen artean. Ekitaldiko ezaugarri nagusiak susperraldiaren moteltasuna eta finantza ezegonkortasuna izan dira.

Finantza egoera eta moneta baldintzak hobetuz joan ziren 2012ko udatik aurrera, eta baldintzok finkatu ziren 2013ko ekitaldia igaro ahala, urtean zehar garatu diren ekonomien bilakaera onari esker.

Gauzak horrela, NDFaren arabera, erosteko ahalmenaren parekotasunaren arabera munduko BPG haztatua %3 hazi zen urte osoan (aurreko urtean, 2012an, %3,2 hazi zen).

Munduko ekonomiak erakutsitako joerarekin bat etorritik, aldi luze bat igaro ondoren, Euroguneko ekonomia 2013an atera zen atzeralditik, barruko eskaera suspertu zelako (hein batean, moneta politikaren joera moldakorrean eta giro ekonomiko nahiz finantza merkatuen hobekuntzan oinarrituta) eta kanpoko eskaera indartu zelako.

Izan ere, barruko eskaera apurka-apurka sendotu zen, beheko mailetatik abiatu bazen ere, enpresaburuen zein kontsumitzaileen konfiantza areagotzearen ondorioz. Nolanahi ere, kontuan hartu behar dugu kontsumo publikoari etsi zaiola zerga-finkapenaren ahaleginen zioz eta inbertsioa nabarmen moteldu dela, palanka efektuaren beharrezan eta kredituaren eskaintzan izan den murrizketaren eraginez.

Enplegua %0,9 jaitsi zen 2013an; 2012an, berriz, %0,7. Nolanahi ere, inkesten emaitzak hobetuz joan dira urtea igaro ahala. Langabezi tasa, 2013ko ekitaldia osoa kontuan hartuz, %12koa izan zen, hau da, aurreko ekitaldiko tasa baino ehuneko 7 altuagoa.

Munduko eta Europako ekonomiaren bilakaera onaren isla, Espainiako ekonomiak ere aldeko bilakaera izan zuen. Hala, azken sei urteotan, Espainiako ekonomiak kontuan hartzeko bi atzeraldi pairatu ditu eta, aldi horretan, ekoizpen-

sarea nahiz enplegua nabarmen suntsitu dira eta langabezi tasa larriki areagotu da. Nolanahi ere, azken hilabeteotako datuetan funtsatuta, badirudi joera hori alda daitekeela.

Bada, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) datuei jarraiki, Espainiako jarduera ekonomikoak, BPGdren bitartez neurtuta, %1,2 egin zuen atzera 2013ko ekitaldian, hau da, aurreko ekitaldiko emaitza baino lau hamarren hobeto ibili da. Barruko eskaera nahikoa murriztailea izan zen, baina aurreko urtean baino hazkunde handiagoa eragin zion ekonomiari; kanpoko sektoreak, berriz, hazkundera ekarri zuen ondasun eta zerbitzuen esportazioen bilakaera egokiari esker.

Urte arteko aldakuntza tasari dagokionez, etxeetako kontsumo gastua zazpi hamarren igo zen aurreko urtearen aldean, baina igotzeko oztopo handiak izan zituen familien aberastasuna eta errenta eskuragarria berriro ere jaitsi zirelako. Bestalde, zorpetze handiegia murrizteko ahaleginak egin behar izan zituzten, kredituak eskuratzeko murrizketek iraun zuten eta.

Beste alde batetik, Administrazio publikoen kontsumo gastuak ere beheranzko joera erakutsi zuen, baina ez aurreko urtean bezain nabaria. Horren arrazoia da zerga finkapena erdiesteko doiketa txikiagoa izan zela ekitaldian, gehiegizko defizita zuzentzeko epea bi urtetan luzatu baitzen, 2016ra arte.

2013ko jarduera ekonomikoaren bilakaerarekin bat etorrita, laneko jarduerak, lansao osoko neurrietan emanda, jausialdia apaldu zuen urtea igaro ahala; horrela, %-4,7ko tasa izan zuen lehen hiruhilekoan eta %-1,6ko laugarren hiruhilekoan, baina urteko batez bestekoari erreparatuta, %3,4 jaitsi zen.

Espainiako ekonomiak finantzatzeko ahalmena eskuratu zuen lehenengo aldiz 1997. urtetik aurrera, batez ere, energiak kanpoko ondasunen merkataritza-saldoa nabarmen hobetu delako. Nolanahi ere, gogorarazi nahi dugu defizit publikoa (Estatuko Administrazio Publiko guztiena), kontabilitate nazionalako emaitzetan neurtuta, BPGdren %7,1ekoa dela, eta defizit horrek BPGdren ehuneko 0,6 puntuko aldea dakarrela berrikusitako helbururaino (%6,5).

EAEko bilakaera ekonomikoa aztertuta, EUSTATen datuen arabera, ekonomiak %-1,9ko aldakuntza tasa izan zuen gurean lehen hiruhilekoan, eta %-0,3koa laugarrenean. Horiek horrela, EAEko ekonomiak %1,2ko jaitsiera izan zuen 2013ko ekitaldian, aurreko urteko %1,6ko jaitsieraren aldean.

Kezkagarria da, baina, 2013ko ekitaldian ekoizpen-jaitsiera handiagoa izatea EAEn Eurogunean eta EB-28 gunean baino. Hala, EUROSTAT erakundearen arabera, 28-EBk %0,1eko hazkundera izan zuen; Euroguneak %0,4ko jaitsiera eta EAEko ekonomiak %1,2ko apalaldia izan zuen.

Berriro ere ohartarazi nahi dugu jardueraren jaitsieraren gaineko datuak desberdinak direla, estatistika iturriak zein diren. Halaber, nabarmendu behar dugu INEren Eskualdeko Kontabilitateak %-1,9ko benetako aldakuntza tasa (urte artekoa) jaso zuela euskal ekonomiarentzat. Horrek esan nahi du gureak emaitza txarrenetariokoak izan zituela 2013an (Gaztela-Leonek eta Asturiasek, %-2,5; Kantabriak eta EAEk, %-1,9; eta Errioxak %-1,8).

Lansao osoko neurrietan emanda, laneko jardueraren bilakaera, EUSTATen Hiru Hileroko Kontu Ekonomikoen (HKE) arabera, beheranzkoa izan da eta jaitsieraren zenbatespena, batez beste, %2,1ekoa izan da 2013an. Jaitsiera sektore guztietan gertatu da, nahiz eta zerbitzuen sektoreetan apala (%-0,5) eta eraikuntzan (%-10,8) eta industrian (%-4,3) handiagoa izan den. Lehen mailako sektorean ere jaitsiera nabarmena izan da, baina ez aurreko bietan bezain handia (%-3,7).

Enpresa errotazioari buruzko azterketa (altak, bajak eta horien arteko saldoa) funtsezkoa da enpresen dinamikaren gaineko alderdiez jakin eta ondorioak ateratzeko, hau da, enpresa berriak sortzeko ahalmenaz jakiteko. Esan barik doa aldi oparoetan enpresa berri gehiago sortu behar direla jarduerari uzten diotenak baino²³. 2013ko ekitaldian, enpresen

²³Kontuan hartu behar da jardueraren alta eta bajako egoeren zati bat ondokoan ondorioz gertatzen direla: erregistroko aldaketa, izen-aldaketak, bategiteak, erosketa-eragiketak... Alta edo bajaren arrazoia ez baita jasotzen.

kopuruaren jaitsiera (lehen mailako sektorea ere kontuan hartuta) gertatu da: 14.977 enpresak hasi zuten jarduera berriren bat eta 19.427 enpresak jarduerari utzi. Horrela, saldo garbia -5.326 enpresakoa da. Beste alde batetik, enpresak sortzeko tasa gordina²⁴ %9koa da eta enpresen desagertze-tasa %11,7koa.

Lanaren itxurazko ekoizpena, datu errealetan emanda, %1 hazi zen 2013ko ekitaldian. Ekoizpenaren benetako hazkunde hori handiagoa da EAEn Europar Batasunean izandakoa baino (28-EB: %0,4). Bestetik, Espainiako estatuko benetako tasa askoz handiagoa da, %1,8koa, behin-behineko datuek diotenez. Gure iritziz, Europako batez bestekoarekiko alde positiboari eusteak, batik bat, Europako erreferentziazko herrialdeekiko alde positiboari eusteak, berebiziko garrantzia izango du euskal enpresen lehiakortasunarentzat.

Beste alde batetik, 2013ko datuetan oinarrituta, badirudi gure ekonomiako unitateko lan-kostu (ULK) arruntak igo egingo direla, aurreko urtean gertatu ez bezala (%+0,7; 2012an, berriz, %-0,4). Dena dela, ULKak jaitsi dira eraikuntzan (%-5,7) eta igo dira industrian eta zerbitzuetan (hurrenez hurren, %1,7 eta %1,4). Europar Batasunean, ULK nominalak, soldatapekoek lanpostuko eskuratzen duten ordainsaritik abiatuta kalkulatzen dena, areagotu egin ziren 2012. urtean, %2,9 (EB-28).

EAEko inflazioari dagokionez, urteko batez besteko tasa %1,6koa izan zen 2013ko ekitaldian, aurreko urtean baino 7 hamarren gutxiago, eta urteko bigarren tasarik txikiena izan zen, 2009ko ekitaldiko %0,9koaren atzetik. Bestetik, abenduko urte arteko inflazioa %0,6koa izan zen, hau da, estatistika hau lantzen hasi zenetik, urte amaieran izan den tasarik txikiena. Neurritasun hori, hein handi batean, krisiaren iraupenaren ondoriozkoa da, kontsumoaren ahulezia areagotzen baita.

Eskaintzari dagokionez, EUSTATen Hiru Hileroko Kontu Ekonomikoen (HKE) arabera, industriako Balio Erantsi Gordinak (BEGd) %-4,2ko aldakuntza-tasa izan zuen 2012ko hirugarren hiruhilekoan, %-3,8ko laugarren hiruhilekoan eta, 2013ko laugarren hiruhilekoan, %0ko tasa izan zuen. Hala, industriako BEGd indizearen urte arteko benetako tasa, 2013ko ekitaldian, %-1,9koa izan zen, 2012ko ekitaldiko %-3,7ko tasaren aldean.

2011ko eta 2012ko ekitaldiak erkatuta, BEGd indizearen, faktoreen eta lanaren gaineko kostuei dagokionez, azpimarratu nahi dugu industriako eduki handi eta ertain-handiko sektoreen pisua igo dela, eta eduki txiki eta ertain-txikiko sektoreena jaitsi dela; salmentei gagozkiela, eduki teknologiko handiko sektoreen pisua areagotu da, eta eduki ertain-handiko, ertain-txikiko eta txikiko sektoreena, berriz, apaldu da. Era berean, ikusi da eduki teknologiko handieneko sektoreek besterik ez dutela hazkunderik izan BEGd indizearen, faktoreen eta lanaren gaineko kostuei dagokionez. Gure iritziz, eduki teknologiko handieneko sektoreen pisua areagotzea funtsezkoa izango da euskal industriaren egoera hobetzeko ekonomia globalizatuaren barruan.

BEGd indizearen benetako emaitzei erreparatuta, eraikuntzaren sektorea %5 jaitsi zen 2013ko ekitaldian (%-8,2 2012ko ekitaldian). Eraikuntzaren sektorearen hiru hileko bilakaeraren (urte artekoa) beheranzko joera apaldu da lehen hiruhilekotik (%-6,8) laugarren hiruhilekora (%-1,2).

Beste alde batetik, EAEko zerbitzuen sektoreko balio erantsi erreala %0,6 jaitsi zen 2013. urtean (aurreko urtean, %+0,4ko hazkundera izan zuen).

Eskaeraren gaineko azterketak dioenez, barruko eskaera %1,5 uzkurto da, eta BPGdk %1,2ko urte arteko jaitsiera izan du. Horrek adierazten du kanpoko saldoak ekarpen positiboa izan duela, hain zuzen ere, ehuneko 0,4 puntukoa.

Izan ere, aduanen erregistroetan oinarrituta, Kanpoko Merkataritza Estatistikak eskaintzen dituen atzerriko herrialdeekiko ondasunen merkataritzari buruzko datuen arabera, euskal ekonomiaren irekiera-maila (atzerriko herrialdeekiko harremanak) zertxobait hazi zen 2013. urtean, eta %55,3tik %55,7ra igaro zen. Hala eta guztiz ere,

²⁴ *Emaitza honela kalkulatzen da: urte jakin bateko alta kopurua eta aurreko urtean zeuden enpresen kopurua. Desagertze-tasaren emaitza, berriz, baja-kopuruaren bitartez kalkulatzen da.*

ondasun eta zerbitzuen inportazio eta esportazioaren arteko estaldura-maila jaitsi zen aurreko ekitaldian, %130,9tik %128,2ra.

Barruko eskaerari dagokionez, aldakuntza-tasa negatiboa izan zuen arren, esan behar da beherakada 2012ko ekitaldikoa baino txikiagoa izan zela (EUSTATen arabera: %-1,5ekoa, Aurreko ekitaldiko %-2,4koaren aldean).

Ildo horretan, poztekoa da EUSTATEk argitaratutako handizkako eta txikizkako merkataritza-indizeen emaitzek erakutsi izana merkataritza salmentak gutxiago jaitsi zirela 2013ko ekitaldian 2012koan baino. Horrela, handizkako merkataritzaren indizea %-0,9koa izan zen 2013. urtean; 2012. urtean, berriz, %-3,5ekoa zian zen; Txikizkako merkataritzaren indizea %-4ko izan zen 2013. urtean; aurreko urtean, aldiz, %-5,1ekoa izan zen.

Dena dela, sektore publikoaren kontsumoa dugu 2012ko ekitalditik 2013ko ekitaldira atzeraldia izan zuen barruko eskaeraren faktore bakarra. 2013an, krisialdiko emaitzarik txarrena izan zuen, eta atzeraldi garbian amaitu zuen ekitaldia, urte hasieran igoera xumea izan ondoren.

Ondorio gisa, esan dezakegu 2013ko ekitaldia negatiboa izan dela Eurogunean, Espainian eta EAEn; gureari dagokionez, eragina izan du ekoizpen sektore guztietan eta eskaera nazionalako arlo guztietan. Aurreko ekitaldiko eta azken urteetako bilakaerak eragin larria izan du lanaren gainean eta, horren ondorioz, langabezi tasa dugu konpondu beharreko arazo behinenetakoa. Atzerriko herrialdeekiko harremanek, esportazio eta inportazioen bitartez, bilakaera aldekoagoa izan dute, eta horren emaitzaz, ekarpen positiboa egin diote BPGdren hazkunderari.

Azkenik, baikortasunez esan beharra dago urteko bilakaera goranzkoa izan zela eta joera hori eremu geografiko guztietan eta EAEn ere gertatu da.

Aldi berean, joeren aldaketak gorabehera, esan behar dugu krisialdiak agerian jarri dituela egiturazko huts handiak. Inolako zalantzarik gabe, huts horiek guztiek sekulako eragina izan dute gure ekonomian. Horregatik, ekonomiak eta gizarteak etorkizunean landu beharko luketen garapen ereduan, kalitatezko lanaren sorkuntza eta enpresen lehiakortasunaren sustapena giltzarriak eta banandu ezinezko ekimenak dira susperraldiari heltzeko.

Horren ondorioz, funtsezkoa dugu EAEk aurrerantzean landu beharreko erronka nagusiak aztertu eta horiei buruz eztabaidatzea, politika ekonomikoen ikuspegitik nahiz ekonomi eta gizarte eragileen ikuspegitik, ekonomia eta gizartearen garapen iraunkorra sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan, gure lehiakortasuna hobetzen laguntzeko ekonomia globalaren barruan eta, bereziki, Eurogunean bertan.

EAEko ekoizpen-azpiegiturei gagozkiela, esan beharra dago trenbide garraioa XXI. mendeko garraio publikoko sistematzat hartu dela, beste garraio bide batzuen aldean, ustiapen-kostu txikiak eta ingurumen-eragin apalagoa dituelako. Gai horretan, deigarria da hasierako plangintzaren inguruko informazio falta eta berrikuspenen gaineko argibideen eskasia. Gauza bera esan daiteke abiadura handiko linearen ("Euskal Y deiturikoaren") obren gauzapearen gainean, nahiz eta egitasmo estrategikotzat jo den EAE barruko loturak, Europarekikoak eta Estatu barrukoak arintzeko.

3.6. SEKTORE PUBLIKOA

Sarreren eta gastuen bilakaeraren ondorioz, 2013ko irailaren 30ean aurrezki publikoaren %25,3ko beherakada izan da aurreko urtekoaren aldean; era berean, 2012ko defizit publikoa superabit bihurtu da (finantzazio gaitasuna), 673,3 milioi euroko balioarekin.

Oraindik ere 2013. urteko amaiera datuak ezagutzeko daudenez, badirudi irailaren 30era arteko egoerak 2012ko ekitaldiko finantza publikoen hobekuntza sendotzen duela eragin digun abagune konplexuaren ondoriozko 2009ko

gainbeheraren ondoren; izan ere, abagune zail horrek berekin dakar baliabideen urritasuna, helburua ahalik eta egokien arrazionalizatu beharreko bitartekoen jomuga izanik.

Testuinguru horretan, beste urte batez azpimarratu behar dugu zenbait partida murriztu behar direla (funtzionamendu gastuak adibidez), herritarren ongizatean zuzeneko eragina daukatenak ez kaltetzeko, adibidez inbertsio errealak eta transferentzia arruntak, gure erkidegoan bizi kalitatea mantentzeko funtsezko tresnak direnak, betiere aurrekontu egonkortasunari buruzko helburuak betetzea ahalbidetzen duen zerga finkapenaren jarraipenari kalterik egin gabe. Zentzu horretan, modu positiboan baloratu beharra dago, 2013ko irailaren 30eko datarekin eta ekitaldiko itxierari buruzko informazioa faltarekin, funtzionamendu gastuek beren neurrian jarraitzea (%-0,1) eta transferentzia arruntak %4,3 handitu izana. Orobat, baloratu beharra dago inbertsio errealak, herrialdea garatzeko funtsezkoak direnak, %3,4 handitu izana, bilakaera negatiboaren hiru ekitaldiren ondoren.

Azkenik, gogora ekarri beharra dago zorpetzearen ondoriozko gastuek hurrengo urteetan ekarriko duten finantza zama; izan ere, gastu horiek 2013an handitzen jarraitu dute (%+13,2).

3.7. LAN-MERKATUA

Hamabost urtez enplegua sortzen jardun ondoren, 2009. urtean EAEko lan merkatuak jaitsiera-aldi bati ekin zion lan kontuetan, 2012. urtera arte iraun zuena. 2013an enplegua, EUSTATen biztanleria jardueraren arabera inkestari jarraiki (BJA), egonkortu bide da eta bigarren seihilekoan lanpostuen suntsiketa gelditu da. Urteko batez bestekoari men eginez gero, Euskadin lanean ari diren pertsonen kopurua 2012. urtekoaren oso antzekoa da (apenas 500 gehiago). Hala eta guztiz ere, langabeen kopurua nabarmenki hazi da, biztanleria aktiboaren hazkundearen ondorioz. Zehatzago, urtearen amaieran izandako langabezi tasa (%15,3koa BJAREN arabera) handiena da 2000. urtetik; gauzak horrela, 165.600 pertsona langabe gehiago zenbatu dira aipatutako inkestaren arabera eta 167.000tik gora abenduan, LANBIDEK dituen erregistroekin bat etorritik.

Beste alde batetik, Gizarte Segurantzaren kotizatzaileen kopurua %3,1 murriztu da batez beste (azken hiruhilekoan %2,5, profil negatiboa leunduz baitoa urtean zehar); aldi berean, EUSTATen Hiruhileko Kontu Ekonomikoen arabera, lanak profil negatiboa dauka, baina aldekoa ekitaldi osoan zehar²⁵.

Horrez gain, Enplegu Ministerioaren datuak oinarri hartuta (Estatuko gainerako erkidegoetan gertatzen denarekin erkatzea ahalbidetzen baitute) EAEn erregistratutako irazpenen kopuru osoa, 2002 eta 2007 bitartean beheranzko ibilbidea izan arren, %355,5 handitu zen 2009an, 2010-2011 biurtekoan murriztu zen, 2012an berriro areagotu zen eta 2013an berriro ere jaitsi da, %10,3, hain zuzen ere (behin-behineko datuak erabiliz). Joera hori antzekoa da estatu osoan, bertan ere irazpenak murriztu baitira, baina kopuru txikiagoan (%-8,9); gauzak horrela, urte horretan EAEn kaleratzen pisuari eutsi zaio guztien aldean; kopuru hori %8,7koa izan da. EAEn irazpenen kopuruaren jaitsiera horrek EEEei eragiten die bereziki, guztien %80,6 izan direlako eta %18,3 murriztu direlako aurreko urtekoekin erkatuz gero.

EAEn 2013. urtean okupatutako pertsonen batez bestekoa 2012. urtekoaren oso antzekoa izan da; horrenbestez, ematen du enpleguaren suntsiketa gelditu dela, langabezia nabarmen handitu den arren.

BJAREN datuetatik abiatuz, ikus daiteke 2008tik 2013ra bitartean Euskadin 82.200 enplegu suntsitu direla, 75.100 gizonezkoen artean eta 7.100 emakumezkoen artean. Gainera, 25 urtetik beherako artean 29.500 enplegu galdu dira eta 85.700 gehiago 25 urtetik 44 urtera bitarteko langileen artean; bien bitartean, okupazioa 33.000 enplegutik hazi da 44 urtetik gorako langileen artean. Ondorio gisa, 2008. urtean biztanleria okupatuaren %36,8 ziren, baina 2013. urtean %43,8 izan dira. Euskadiko lan merkatuaren zahartze hori kezkatzeko moduko gertakaria da, erronka berriak dakartzalako, esate baterako belaunaldi aldaketarako zailtasunak.

²⁵ Kontuan hartu beharra dago kapitulu honetan erabilitako iturriek zenbaitetan emaitza eta bilakaera desberdinak ematen dituztela.

Jarduera sektoreei men eginez gero, 2013. urtean eraikuntzak izan du joerarik txarrenea, bertan okupazioa %16,8 jaitsi baita (-9.000 enplegu) eta industriak lanen %3,1 galdu ditu (-6.600). Egia esan, zenbaki absolutuetan, azken hori izan da enplegurik gehien galdu duen sektorea krisialdia hasi denetik: 44.700 langile industrialek galdu dute beren enplegua 2008tik, guztien %17,7k. Gainera, krisialdi industrial hori trinkoagoa izan da Araban (%-27) eta Gipuzkoan (%-20,5), Bizkaian baino (%-11,1). Bestalde, zerbitzuak izan dira krisialdiari ondoen eutsi diotenak, eta azken urtean sektore horretan 16.200 enplegu sortu dira; horrek ahalbidetu du 900ean gainditzea 2008ko okupazio zenbakiak. Lurraldeka, Bizkaia izan da krisialdian zehar zerbitzuetan enplegua galdu duen bakarra, guztiaren %1,8.

Orobat, azken urte horretan berriro ere LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak erregistraturiko langabeziak BJaren datuak gainditzen dituela egiaztatu da. 2013ko abenduan LANBIDEen erregistratutako 167.374 langabetu zenbatu ziren (%1 jaitsi da aurreko urtekoaren aldean, estatuaren batez besteko %-3koaren aldean); alabaina, biztanleria jardueraren araberrako inkestak, EUSTATEk egindakoak, 165.600 kalkulatu zituen urteko azken lauhilekoan. Krisialdia hasi denetik, erregistratutako urtetik urterako langabeziaren saldoa negatiboa den lehendabiziko urtea da eta, ikusten da, gainera, gizonetzkoen artean jaitsi dela (%-2,4), baina zertxobait hazi dela emakumezkoen artean (%+0,4). Hala eta guztiz ere, enpleguaren eskatzaileen kopuruak hazten jarraitu du Euskadin 2013. urtean (guztira 243.665 pertsona dira, 2012ko abenduaren baino %4,2 gehiago); Espainian, aldiz, kopuru hori %2,9 murriztu da.

Gainera, iraupen luzeko langabezia (urtebete baino gehiago langabezian egotea) aurten ere hazi egin da; hain zuzen ere, 2009an iraupen luzeko langabetuen proportzioan %29,2koa zen, eta pixkanaka haziz joan da, eta 2013aren bukaerarako, erregistratu den langabezia osoaren %49,9 hartu du (%45,4 gizonen kasuan eta %54,3 emakume langabetuen artean).

Bilakaera hau kezagarria iruditzen zaigu, Euskadiko langabetuen erdiak urtebete baino gehiago baitarama langabezian. Azken finean, datuek erakusten dute krisiaren iraupenaren ondorioz pertsona askok langabeziaren prestazioaren aldiak agortzen dituztela. Gero eta zailagoa da eskubide hori berriro sortzeko behar den denboran lan egitea. Egia esan, prestazioen estaldura tasa murriztu da, urtebetean, portzentajezko 2 puntutan; gauzak horrela, 2013ko abenduan %55ekoa izan da²⁶; era berean, prestazioen batez besteko kopurua ere jaitsi dira (%3,3 azken urtean).

Lan Erreformari buruzko 3/2012 Legearen malgusegurtasunaren postulatuekin koherenteak izan nahi izanez gero, behar-beharrezkoa da iraupen luzeko langabeziaren bilakaera negatiboa eta langabezia estaltzeko tasarena ere aintzakotzat hartzea. Horrela bada, Danimarkako ereduari jarraiki, pertsonen kudeaketaren eta haien segurtasunaren arteko oreka sustatzen denean, aintzakotzat izan behar da segurtasuna enplegu politika aktibo eraginkorretan nahiz politiko pasibo nahikoetan oinarritu behar dela, betiere langabezian dauden pertsonen dagokienez. Gorago azaldutako datuek ageri-agerian jartzen dute enpresek egokitzapenerako duten gaitasunari eusteko eta hori handitzeko premia, betiere euren lehiakortasuna bermatze aldera; alabaina, erakusten dute politika aktiboak ez direla eraginkorrak iraupen luzeko langabeziaren hazkundeari eusteko eta politika pasiboak ez direla nahikoa, estaldura tasa murriztuz doalako.

Arazo horiek ikusita, enplegu politika aktiboak are garrantzitsuagoak dira lan merkatuan sartzeko eta gizarte ongizatea lortzeko funtsezko elementu gisa. Zentzu horretan, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren datuek erakusten dute 2012an Euskadi izan zela prestakuntza, orientazio eta laneratze programetarako funts gehien bideratu zuen autonomi erkidegoa, bai termino absolutuetan (481,24 milioi euro), bai erlatiboetan (2.846 euro langabetu bakoitzeko). Kopuru horiek erakusten dute EAEk, estatuan erregistratutako langabeziaren %3,5 izanik, funtsen %9,8 erabili zituela (estatuan 4.889 milioi eurotik gora izan zirenak); horrela bada, langabetu bakoitzeko, kopurua Espainiako batez bestekoaren bikoitza baino gehiago da.

Edozein kasutan ere, langabezian dagoen pertsonako gastua %7 jaitsi da krisialdia hasi zenetik (2009tik, urte horretan nabarmen handitu baitzen langabezia eta politika aktiboetako gastua ere) 2013. urtera arte, nahiz eta prestazioaren jasotzaileen kopuruaren gehikuntza baino askoz proportzio txikiagoan izan; izan ere, epe berean, gehikuntza hori %+14koa izan da gure erkidegoan.

²⁶ Ratio hori honela kalkulatu da: aldeztatik lan egiten duten eta langabezian inskribaturik dauden pertsonen kontuan hartuz.

3.8. FAMILIAK ETA LANEKO BIZITZA, BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIA UZTARTZEKO ARAZOAK

Familia, bizi izan dituen eraldaketak gorabehera, instituzio oso garrantzitsua da garapen pertsonalean eta pertsonak gizartean parte hartzeko prozesuan. Egia da gero eta askotariko familia gehiago dagoela, baina ez dirudi garrantzia galdu duenik. Orain dela gutxi euskal ume eta nerabeei egindako²⁷ kontsulta batek hori ikusten laguntzen digu: gehienek uste dute familiak ez dutela zertan osatu odol-kidetasuna daukaten pertsonak, baina argi daukate familiaren osagaiak “segurtasuna, errespetua, maitasuna eta konfiantza” direla.

Familiaren eraldaketan eragin handiena izan duten fenomenoetako bat emakumea modu masiboan lan-merkatuan sartzea izan da. Laneratze honek, egoera batzuetan, dilema bat sortzen du: lan profesionala eta etxeko lanak, seme-alaben zaintza eta, batzuetan, seme-alabak izateko itxaropena bera bateratu ahal izatea. Arazo hau larriagoa da baldin eta arreta premiak mendetasun eta ezintasun egoeretara zabaltzen badira.

EUROFOUNDek (bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko Europako Fundazioa) gogorarazten du lan egiteko adina duen populazioak seme-alabak zaindu behar izaten dituela eta, gero, adineko pertsonak ere zaindu behar izaten dituela. Hori dela eta, bateragarritasuna eta horrekin lotutako arazoak, nola edo hala, lan egiteko adin osoa hartzen dute. Bizikalitateari buruzko 2012ko Inkestaren emaitzen artean, azpimarratzekoa da Europako langileen % 22k adierazten duela ez dagoela pozik beren lanaren, bizitza pertsonalaren eta lanekoaren arteko orekarekin, % 6k uste du bere laneko ordutegia ez datorrela bat, inondik inora ere, bere familia eta gizarte bizitzarekin eta % 16k dio ez dela “oso ongi” moldatzen. Lanaren, bizitza pertsonalaren eta familiako bizitzaren artean duten oreka nahikotzat jotzen ez duten langileen proportzioa % 10etik (Danimarkan, Holandan eta Suedian) % 30etik gorakoa izateraino doa (Grezian, Lituania eta Espainian).

Ikerketa hori oinarri hartuta, EUROFOUNDek datu honetan ohartarazi du: ordaindutako antzeko lanaldiak izanik, emakume europarrek bateratzeko zailtasun handiagoak adierazten dituzte gizonezkoek baino, eta horrek, zalantzarik gabe, partaidetza handiagoa adierazten du etxeko eta zaintzako lanetan. Eustaten 2012ko “*Lana, norberaren bizitza eta familia bateratzeari buruzko inkestak*” antzeko ondorioa ateratzen du, zeren eta EAEko emakumeek ia denbora bikoitza erabiltzen baitute egunean gizonezkoak baino zaintza lanetan, eta kargen desberdintasun horrek ondorioak dakartza bizitza pertsonalerako, aisialdirako edo prestakuntzarako duten denboraren inguruko gogobetetasunarekin. Gainera, EUROFOUNDen zifrek agerian uzten dute bateratzeko zailtasun txikiagoak direla arazoan sistematikoki arreta jarri zaion herrialdeetan. Epigrafe guztietan, zailtasun handiena duten herrialdeen parean dago Espainia. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen dugu azpimarratzea gizonen eta emakumeen arteko baterako erantzukizunean aurrera egin behar dela etxeko lanen banaketan.

Bestalde, gogora ekarri behar dugu EAEko langileen %23,9k lanaldia luzatu behar izaten duela egunero (EUSTATEN LBBi) eta %69 (Estaturako datua, EUROFOUND) nekatuegi daudela etxeko lanak egiteko lanetik itzulitakoan. Horrek seguru asko zerikusia du laneko plangintza hobetu eta laneko ordutegiak zentzuz banatu behar izatearekin. Alde horretatik, kezkarri iruditzen zaigu ikustea bi urte eskasean (2010 eta 2012 bitartean), LBBik igoera nabarmena antzeman duela lanaldia luzatzen duten langileen portzentajea, ohikoa nahiz lantzean behingoa, eta bateratzea hobetzeko baliabide osagarria den ordutegi malgutasunean %1,5eko gutxitzea izan dela epealdi berean. Aldi berean, handituz doaz etengabe bateratzearekin lotutako baimenak eskatzeko zailtasunak. Azkenik, kezkarri iruditzen zaigu beste datu bat ere: urtebetean soilik, 2011 eta 2012 bitartean, %25 murriztu izana EAEko familientzako laguntzen zenbatekoa. Ildo horretatik, Europar Batasunaren tesiaren ildotik eta aurrekontuetan egun dauden murrizpenez jabetuta, berriz ere esan behar dugu aurrera egin behar dela berdintasun eta familia politika eraginkorrak garatzeko bidean, gurasoak laneratze eta lana, norberaren bizitza eta familia hobeto bateratzeko lagungarriak izan daitezen.

²⁷ EUSKO JAURLARITZA (2010): EAEko haurren eta nerabeen beharrezko hurbiltzea.

Horiek emaitza guztiak ikusita, azkenik, ondorio hau atera behar dugu: orokorrean okerrera egin dutela lana, norberaren bizitza eta familia bateratzeko baldintzek. Hori dela-eta, orain artean egindakoak baino ahalegin handiagoak egin behar dira.

2.9. BIZI-BALDINTZAK EAE-N

EAEko bizi-baldintzen inguruan nabarmendu beharreko lehenbiziko ezaugarri bat dago: bizi izaten ari garen krisi ekonomiko larria gorabehera, euskal populazioaren bizi-baldintzek eta ongizate mailak ingurukoek gainetik egoteari eusten diotela.

EAEko errenta eta ongizate mailek Estatuko batez besteko gainetik jarraitzen dute eta oso egoera onean Europako testuinguruan; izan ere, berdintasunezko errentarik handiena duten Europako herrialdeen parean dago, hain zuzen ere Finlandian, Austrian edo Herbeheretan dagoenaren antzekoa.

Konparaziozko egoera hori haurren eta gazteen taldean ere antzeman daiteke, zeren eta haurren eta gazteen pobrezia (18 urtetik beherakoak) txikiagoa baita Euskadin Estatuko beste erkidego batzuetan eta EBko batez bestekoa baino; izan ere, gure herrialdean 1996an zegoena baino txikiagoa ere bada, laurogeita hamarreko lehen urteetako egoera ekonomikoaren ondorioz. Gainera, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren bidez krisiaren urte hauetan babesturiko populazioaren segmentu bat da, baldin eta kontuan hartzen badugu %38 egin duela gora seme-alabak dituzten familia onuradunen kopuruak 2008 eta 2012 bitartean.

Alabaina, eta konparazioan egoera hobea izanik ere, 2012ko Memorian ohartarazten zenez, okerrera egin duten bizi-baldintzek Europan, eta EAEn ez da modu uniformeaz gertatzen ari, baizik eta eragin handiagoa du talde batzuetan beste batzuetan baino. Izan ere, 2012an pobrezia egoerak metatu ziren, gehienbat erreferentziako pertsona atzeritarra deneko familietan, lanik egonkorrik gabeko eta 45 urtetik beherako erreferentziako pertsona duten famili taldeak eta familia burua emakumea deneko guraso bakarreko familiak direnean, horiek ere lan egonkorrik gabe.

2012ko PDGIren datuak oinarri hartuta krisiak gehien ukitu dituen talde horiek aztertu ondoren, honako gertaera hauez ohartarazi nahi du EGABek:

- Benetako pobrezian diren 10 pertsonetatik ia 6 pertsona 35 urtetik beherakoa da eta, gainera, gorako bilakaera dago 2008tik. Horietako askok familia independente bateko buru izatea ahalbidetzen duten diru-baliabiderik izan ez arren, gero eta gazte heldu gehiagok jarraitzen du gurasoen etxean bizi izaten. Horiek ez lirateke sartuko pobrezia arriskuaren taldean gurasoen errenta konpartitzen dutelako eta, beraz, nekez zenbatu daitekeen ezkutuko pobrezia maila izango litzateke, baina PGDIren arabera, 39.000 gazte izan daitezke egoera horretan gure Erkidegoan.
- Deigarria da ikustea ere benetako pobrezia 10 kasuetatik 9 kasu ikasketak maila baxuak dituen pertsona nagusi deneko familiekin lotzen dela Euskadin. Era berean, lehen hezkuntzako edo bigarren hezkuntzako lehen zikloko ikasketak mailako pertsonen, 2011n, pobrezian izateko hiru aldiz arrisku handiagoa zuten maila handiagoko ikasketak zituztenek baino. Errealitate horrek erlazioa du azken atzeraldi ekonomikoetako enpleguaren²⁸ polarizazioarekin: batetik prestakuntza eta soldata maila handikoak, eta bestetik prestakuntza eta diru-sarrera txikiak. Aldi berean, maila ertaineko lanpostuak desagitzen dira gehienbat. Lanpostu ertain horiek berreskuratzen ez direnez gero, motela da lan-merkatuaren susperraldia, eta emaitza agerikoa da: enplegurik gabeko suspertze ekonomikoa. Hori dela-eta, pertsona askok azpienpleguarekin konformatu beharko luke lan-merkatuan sartzeko, edo eremu dinamikoetara irten lan bila, gure herrialdean gertatzen ari den bezala. Horrek berekin dakar giza kapitala galtzea.
- Enplegua funtsezkoa da pobrezia kontrako babesean: Pobrezia eraginpeko taldeen ezaugarri komuna lan egonkorrik eza familiako pertsona nagusien aldetik (pertsona aktibo guztiak langabezia dauden familiak, edo lan egonkorrik gabekoak, benetako pobrezia egoeren %76,4 izan ziren 2012. urtean), eta arrisku faktore hori

²⁸ LANBIDE. *Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua (2013): Pobrezia edo gizarte bazterkeria arriskuan dauden biztanleak.*

atzeritarrekin eta gurasoko familiekin lotzen da eta, bi pertsonak edo gehiagok osaturiko famili taldeen barruan, gazteekin.

Ildo berean, FOESSA Fundazioaren "Gizarte Errealitatearen Behatokia"ren azken txostenak (2013)²⁹ ohartarazi duenez, gizarte talderik ahulenak jasaten ari dira gehien pobretze-prozesua, eta Caritasek Espainian lagundutako populazioa hirukoiztu egin da 2007 eta 2012 bitartean. Gainera, gu ere kezkatuik gaude datu honen aurrean: laguntza jaso duten hiru pertsonetatik bat egoera kronikoan dagoela, eta horrek ondorioak dakartza ongizate orokorrean eta gizarte harremanetan.

Egoera horren aurrean, eta Europar Batasunaren irizpenaren ildotik, berriz diogu pertsonengan eta hezkuntzan inbertitu beharra dagoela, enplegu politikak hobetu eta gizarte babesen sistemen eraginkortasuna handitu, krisiari aurre egiteko eta ongizate mailak hobetzeko gure gizartean.

Bestalde, krisiaren ondorioz, Europar berriz ere "aurkitu" da haurren pobrezia fenomeno, pobrezia arriskurik handienak haurrengana eta gazteengana igaro delako eta pobrezia horrek epe laburrean, ertainean eta luzean izan ditzakeen ondorioengatik. Izan ere, arriskuan jartzen dituzte berdintasuna eta gizarte kohesioa, baita Europako gizartearen geroko produktibitatea ere. Horrexegatik, haurren pobrezia da, gaur egun, Batasunaren gizarte politiken lehentasunik behinena.

EAEan, guztira 14 urtetik beherako ia 34.000 adingabe bizi dira gure Erkidegoan mantenu pobrezia arriskuan (beharrizan oinarritzeko aurre egiteko nahikoa baliabiderik ez dutenekin lotutako pobrezia hain zuzen ere). elikagaiak, etxebizitza, jantziak eta oinetakoak, hots, populazio horren %11,8. Gainera, beste 30.000 inguru (%10,5) ongizaterik gabe bizi dira (ez dute nahikoa sarrera gizarte baten ongizatean espero diren gutxieneko maileri eusteko), eta, beraz, pobrezian edo ongizaterik gabe izateko arriskua %22,3raino iristen da.

Ildo horretan, Arartekoak³⁰ ohartarazi du gabezia materialen ondorioz haurrek desabantailak dituztela eta etorkizunean ahulagoak izango direla eta, beraz, eragina izan dezake horrek hezkuntza, gizarte eta lan garapenean. Etorkizunean kostu handia izan daiteke honako hauek aldetik: herritarren gaitasun maila txikiagoa, produktibitate txikiagoa, langabezi maila handiagoak, babes sistemaren kostu handiak, hezkuntza eta osasun sistemaren egoera txarragoa, etab.

Eusko Jaurlaritzaren "Euskadiko haurren pobrezia" aitortzen duenez, arazoa ez da beren beregi edo lehentasunez aztertu. Esana dugunez, Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema lagungarria izaten ari da seme-alabak dituzten familien bizi-baldintzak okertzeko prozesua leuntzeko, zati batez behinik behin. Hala ere, haurren pobrezia badago gure Erkidegoan, eta arazoaren prebentziorako eta lanketarako politika espezifikokoak ezarri behar dira. Gainera, bat gatz azterlan honetan eginiko gogoetarekin: langabeziaren eta haurren pobrezia artean ageriko erlazioa dagoenez gero, familietan adingabeak daudenean langabeziarako estaldura ekonomikoari buruzko hausnarketa egin beharra dagoela.

Bestalde, krisiaren eraginez, langabezi tasa nabarmen handitu da gure Erkidegoan azken urteetan, baita kontratazioaren jaitziera handia ere. Zifra orokor larriak are larriagoak dira babes gutxien duten taldeentzat, eta horien artean, ezinduentzat. Horiek direla-eta, LANBIDEk gogorarazi du kontratazioaren jaitziera EAEko orokorra baino bi aldi eta erdi handiagoa dela, eta erregistraturiko langabeziaren hazkundera guztizko populazioarena baino 10 puntu handiagoa dela. Gainera, askoz emakume ezindu gutxiago kontratatzen dira gizonezkoak baino, Euskadiko batez bestekoarekin alderatuta.

Hain bilakaera negatiboaz gain, ezinduen jarduera eta enplegu tasak aipatu behar ditugu, krisiak gure Erkidegoa bete-betean jo aurretik ere (2008. urtean -ezagutzen dugun azken datua-, %36,2koa zen ezinduen jarduera tasa, noiz-

²⁹ *Gizarte errealitatearen Behatokiaren VII. txostena. Pobretzea eta gizarte ezberdintasuna. Ganditu egin da pobretzen den gure gizarte ahularen gizarte haustura. FOESSA Fundazioa, 2013.*

³⁰ *ARARTEKOA (2013): Krisiak haurrengan duen eragina. Euskal errealitatea. Gogoeta kuantitatiboa.*

eta ezinduen %74,9koa zenean. Hori guztia kontua hartuta, ezinduen egungo egoera zein den jakin dezakegu gutxi gorabehera: jarduera eta enplegu ratio txiki-txikiak.

Egoera horren aurrean esan beharra dugu ezen, banakoak gizarteratzearekin loturarik handiena duen eremua lana izatearekin bat gatozenez gero, talde horrentzako enplegua sustatzea bereziki beharrezkoa dela kasu honetan. Lana eskuratuta, alde batetik nork bere autonomia izatea eta gizarte laguntzen zirkuitutik irteera errazten dituzten sarrerak lortzen dira, eta bestetik gizarteratze-prozesuan hartzen da parte, harreman pertsonalak, trebetasunak eta gaitasunak eskuratzeko prozesuan.

Ildo horretan, aitortu egin behar dugu lehenik eta behin EAE erreferentzia dela ezinduentzako babestutako enplegu politiketan, eta Enplegurako Zentro Bereziak (EZB)³¹ duten tamaina handia dela; izan ere, Estatuko modalitate horretako kontratu gutzien %20 metatzen dute gutxi gorabehera.

Halaber, administrazioaren programak, planak eta jarduketak lagungarriak dira ezinduek lan-munduarekin duten desberdintasun egoera leuntzeko.

Alabaina, eta "Ezintasunari buruzko Europarako Estrategia 20120-20120" delakoaren gomendioen ildotik, berriz ere esan behar dugu ezinduen taldea benetan gizarteratzeko beharrezkoa dela sustatzea, lehenik eta behin, hezkuntza inklusiboa eta etengabeko ikaskuntza ezinduentzat. Era berean, funtsezkoa da lantokiak irisgarriagoak egitea, prestakuntza lanpostuan bultzatuta, baita enplegu babestuan dauden ezinduentzat irekita dagoen merkatuan sartzea ere.

Bestalde, ukaezinak dira Euskadin ezinduen eta haien familien arretan eta sustapenean lorturiko aurrerapenak ere, hain zuzen ere bizi-kalitatean, autonomian eta partaidetzan oinarrituriko ereduari jarraituz, sektoreko elkarteek eurek "Euskadiko ezinduen egoerari buruzko Liburu Zuria" delakoan aitortzen dutenez. Hala ere, benetako berdintasunean eta ezinduen garapen osoan aurrera egiteko funtsezko bi erronka aipatu nahi ditugu: Askotariko diskriminazio egoeretan arreta berezia jarri beharra (ezintasuna eta bazterkeria, ezintasuna eta generoa) eta gizarte bazterkerian eta pobrezian diren ezinduei eta ezinduak bizi diren familiei modu egokian laguntzea, bereziki zaintza lanak egiten dituzten senideei eta ezinduei funtsezko laguntza ematen dietenei.

3.10. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA

EUSTATEk heriotzei buruz egin dituen estatistikek adierazten dutenez, heriotza gehienak adin handienetako tartean gertatzen dira, prebentzioan eta gaitzen tratamenduan egindako aurrerapenen ondorioz. Bestela esanda, biztanleak "laugarren adina" deritzonera iritsi dira

Ildo horretan, balorazio positiboa egiten da, EAEko Osasunari buruzko 2013ko Inkestaren datuen arabera (EAE013), bizi-itxaropenaren hobekuntzari buruz EAEn, bai gizonentzat, bai emakumeentzat, 2012 eta 2013 artean. Hala ere, EGBI handitu egin da bi sexuetan 2002 eta 2007 artean, baina 2007 eta 2013 artean gizonentzakoentzat handitu da baina jaitsi emakumeentzakoentzat.

Berriro ere heriotzen arrazoen inguruan itxuraz finkatu den aldaketa nabarmena iruditzen zaigu. Berez, EUSTATEN datuen arabera, 2007tik hasita, heriotza gehienak tumoreen ondoriozkoak izan dira eta zirkulazio sistemako gaixotasunen ondoriozkoak ondoren, aurreko urteetan ez bezala, zirkulazio sistemako gaixotasunek eragiten zutenean heriotza gehien.

Eurostat regional yearbook 2013 delako txostenaren arabera, 2010ean EB27n, heriotzen kausa nagusiek zirkulazio sistemaren gaixotasunekin eta neoplasia gaiztoekin (minbiza) dute zerikusia. Txostenak dakarrenez, bestalde, 70 urte

³¹ Enplegurako Zentro Bereziak babestutako enplegurako enpresak dira, non plantillaren %70 gutxienez ezinduekin osatuta dagoen. Haien helburua ezinduei ordaindutako lan produktiboa ematea da, haien ezaugarriei egokitu eta ohiko lan-merkatuan sartzea errazteko.

edo gehiagokoei dagokie zirkulazio-aparatuen gaixotasunek eragindako heriotzen %80. Alabaina, neoplasia gaiztoen zizoko heriotzarik gehienak 40-69 urtekoen artean gertatzen dira.

Erikortasun goiztiarraren lau kausa nagusien azterketaren arabera (emakumeen artean: bularreko tumore gaiztoa; trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak; suizidioa eta nork bere buruari eragindako zauriak; Obulutegiko tumore gaiztoak; eta gizonen artean: trakea, bronkio eta birikako tumore gaiztoak, kardiopatia iskemikoak, suizidioak eta nork bere buruari eragindako zauriak, ibilgailu motorduneko trafikoko istripuak, zirrosiak eta gibelaren gaitz kronikoak eta ezpain, aho eta faringeko tumore gaiztoak.

Ildo horretan, kezkarriak iruditzen zaizkigu arrisku handiko alkoholaren eta tabakoaren kontsumoaren prebalentziaren³² inguruan 2013ko Osasun Inkestaren datuak, eta bereziki 15-24 urte dituztenen artean, zeren eta emakumeak osasungarriak ez diren ohiturak hartzen ari baitira, betidanik gizonezkoek izandakoak eta gizonak alde batera uzten ari direnak.

Balorazio positiboa egiten da ospitaleko jardueran (publikoa eta pribatua) medikuen kopurua hazi izanari buruz. Alabaina, berriz ere bi sareen artean dauden alde eman nahi dugu aditzera berriz ere: 87,6 mediku hartutako 100 oheko sare publikoan eta 44,5 pribatuan; eta 161,7 erizain hartutako 100 oheko publikoan eta 66,2 pribatuan.

Osakidetzaren itxaronzerrenden dagokienez, bereziki deigarria egin zaigu gertaera garrantzitsu hau: 2011ra arte, hazkunde profila ageri zen urte batean eta jaitziera hurrengoan itxaronzerrendako pazienteen guztizkoan, baita batez besteko berandutzean ere.

Hala, kanpoko kontsultetan, 2012an, berriz ere egin zuen gora itxaronzerrendako pazienteen kopurua: 93.104 izatetik 95.007 izatera. Berandutze denbora dela-eta, 2011 eta 2012 artean, hazi egin da hilabete baino itxaroten duen populazioaren portzentajea: %31,9tik %33,5era.

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, haietako gaixo kopurua murriztu egin da 2011 eta 2012 artean, 17.763 lagunetik 18.611ra, eta batez besteko atzerapen egunak murriztu egin dira (51,8tik 52,1era). Horren ondorioz, ebakuntza izateko 3 hilabetetik gora itxaron behar duten gaixoen portzentajea jaitzi da, %15,85etik %15,97ra.

Testuinguru horretan, balorazio positiboa egiten dugu Eusko Jaurlaritzak 2012an aurrekontuko likidazioari buruzko emandako datuen inguruan: osasunaren arloko ahaleginak %5,2 inguruan eusten diola 2011 eta 2012 artean, eta egiazta dezakegunez, EUSTATen datuen arabera, PPC per capitako osasuneko gastua (USA dolaretan erosteko parekotasun ahalmena) 3.695 da gure Erkidegoan, hots, honako herrialde hauen gaintetik dago: Erresuma Batua (3.405), Finlandia (3.374) eta Espainia (3.072, EAeko baino %20,3 txikiagoa); taulako goiko aldean, Norvegia dago, 5.669 eta Suitza, 5.643.

3.11. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

EAEko higiezin merkatuak 2012an izan duen bilakaeraren ezaugarri bat da, Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Eskaintzaren Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren eskaintza bigarren urtez jarraian jaitzi dela, guztira %13,9 (%-11,4 izan zuen 2011-2012ko aldian), bilakaera ezberdinak izan direlako salgai dauden etxebizitza libre berrietan (%-25,7), erabilietan (%-12,4), alokairuko etxebizitza libreetan (horixe da jaisten ez den bakarra, baina %0,5 baino ez da igo) eta salgai dauden etxebizitza babestuetan (%-38,9); halaber, alokairuan dagoen etxebizitza babestuaren eskaintzak ere %-7,7ko jaitziera izan du. Era berean, etxebizitzaren eskaera edo beharra, 2011ri buruz eskuragarri dagoen azken datuaren arabera, %21,9 murriztu zen lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharrei dagokienez, eta %25,8raino, etxebizitza eskuratzeko eta aldatzeko beharren batuketa aintzat hartzen badugu.

³² Une jakin batean edo aldi jakin batean ezaugarri jakin bat duen taldeko edo populazioko kiden ratioa.

Bestalde, prezioak hainbeste jaitsi dira Etxebizitzaren Behatokiaren kalkuluen arabera, ezen etxebizitza erabilia jadanik 2003ko salneurrian eskaintzen baita eta berria 2005eko prezioan. Egia esan, kalkulatu da salmentak ixten direla hasierako asmoak batez beste %24 jaitsi direnean.

Eraikuntza jardueraz denaz bezainbatean, jarduera hori jaitsi da bai hasitako etxebizitzetako bai amaitutako etxebizitzetako dagokionez: 2013an hasitako enbarkuntza bakar-bakarrik ezagutzen dira etxebizitza babestuen kopuruak (ez dago merkatu libreari buruzko informaziorik) eta urte horretan 2012an baino %16 etxe babestu gutxiago hasi dira. Amaitutako etxebizitzetako gogokienak, horiek %32,1 jaitsi dira 2013an, etxebizitza librearen (%-16) eta babestuen (%-52) bilakaeraren ondorioz.

Higiezin merkatua gelditu dela eta, eraikuntzaren sektoreak biziraun dezake eraikinak birgaitzeko edo zaharberitzeko lanetan izandako hazkundera dela eta. Etxebizitzaren Euskal Behatokiak joera aldaketa nabarmentzen du eraikuntza obren tipologian; izan ere, zaharberitze edo birgaitze lanak gero eta gehiago dira eta hori halaxe ikus daiteke krisialdia hasi zenetik: Euskal Autonomia Erkidegoko udalek 2013an emandako 2.145 obra lizentzia nagusietatik %16,4 eraikin berriak eraikitzeko lizentzietatik dagozkie, %2,2 eraispentzako lanei eta %81,4 eraikin zaharberitzeko lanei, hau da, 10tik 8 eraikinak birgaitzeko lanak izan dira. Horrela bada, krisialdiaren hasieratik gertatutakoa aintzakotzat hartzen baldin badugu, 2007tik 2013ra bitartean obra nagusien lizentziak %38,3 murriztu dira eta horien artean eraikin berriak egiteko lizentziak nabarmendu behar dira, azken horiek %74,9 jaitsi baitira; beharrezkoen bigarren tokian eraispentzako lanak daude, azken horiek %50 murriztu baitira. Eraikinak birgaitzeko lizentziak, ordea, murriztu dira, baina kopuru txikiagoan: %11,8.

Joera hori bat dator Eusko Jaurlaritzak berriki amaitutako 2010-2013ko Etxebizitza Planak egindako apustu nagusietariko batekin: hiri birgaitze eta zaharberitze buruzko politika berria bultzatzeko, betiere irtenbide eraginkor eta iraunkor gisa. Egia esan, helburu zehatz horren betetze maila altua izan da. 2013ko behin betiko datuak falta direla kontuan hartuta, 2010etik 2012 bitartean birgaitutako etxebizitzaren kopurua %97,1eko betetze mailara iritsi da plangintzaren helburuari dagokionez; datu hori modu positiboan baloratu beharra dago.

Higiezin merkatuaren gainbeherako abagune honetan, eraikuntza jardueraren mailaren atzeraldia eragin duen honetan, gure ustetan, programa publikoek, sektore pribatuaren beharrezko lankidetzarekin batera, bermatu behar izango lukete etxebizitza babestuen eskaintzaren gutxiengo maila bat, bai eta bereziki alokairuko etxebizitzaren eskaintzarena ere; halaber, arreta berezia jarri behar izango litzake gizarte alokairuko parke publiko batean, gehiegizko zorpetze arrisku handian dauden familiei estaldura eman ahal izateko.

3.12. GIZARTE BABESA

EAEn itundutako tributuen diru bilketaren jaitsierako testuinguru batean (2007. urtetik %16,6, hain zuzen, 2.291 milioi euro), nabarmendu beharra daukagu 2011. urtean ere (urte horretakoa da eskuragarri dagoen azken datua) EAEn gizarte zerbitzuen gastua %6 hazi zela. Bilakaera positibo hori gastu publikoan ere ikusi ahal izan da (hori gastu osoaren %75 da); izan ere, %2,9 hazi da, hau da, 2000tik 2009ra bitartean baino maila txikiagoan, baina 2009tik 2010era bitartean baino apurtxo bat gehiago, azken bitartean horretan %2,6 hazi baitzen.

Familien transferentziak aurreko urteetan baino gutxiago hazi dira (2011n %4,3; 2010ean, berriz, %9), baina sistemaren batez besteko gastua baino gehiago (+%2,9). Horrek erakusten du gaur egungo egoerarekin lotutako beharrek gora egin dutela baina, aldi berean, sistema ahalegin handiagoa egiten ari dela.

Ildo berean, eta 2013ko balantzearen datu bateratuak falta direla, esan daiteke Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema (18/2008 Legetik eratorria da eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta du funtsezko oinarri gisa) ahaleginak areagotzen ari dela krisi egoera honetan, bai gastuari dagokionez, bai laguntza hauen onuradun diren pertsonen dagokionez ere.

2013an Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak prestazioetan (Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, Etxebizitzaren Prestazio Osagarria eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak) 452 milioi euro inguru erabili zituen, aurreko urtean baino %4,6 gehiago; kopuru horretatik %80 gutxi gorabehera Diru Sarrerak Bermatzeko Errentarako erabili zen. 2007tik 2013ra bitarteko epea aintzakotzat hartuz, DSBE jasotzen duten etxeen kopurua %75 handitu da; izan ere, 36.000 izatetik 62.000 izatera igaro da. Halaber, prestazio honetako gastua bikoiztu baino gehiago egin da: 168,5 milioi eurotik 359,1,3ra pasatu da (%+112,4).

Datuak alderatuz, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak 2012n egin zuen *“Informe de Rentas Mínimas de Inserción”* agiriaren bitartez, estatuko testuinguruan euskal sistemaren garapen altua egiazta daiteke, bai estaldurari dagokionez (39,9 prestazio mila biztanleko, estatuan, berriz, 4,75 batez beste), bai laguntza horietara bideratutako funtsei dagokienez; izan ere, gure erkidegoak urte hartan estatuko funts guztien %40,2 izan baitzuen. Aldagai horiek, gainera, azken urtean autonomia erkidegoen batez bestekoaren gainetik haziz jarraitu dute.

Bestalde, azpimarratu nahi dugu pentsioen gastuan izaten ari diren gehikuntza handiak (%+4,9 azken urtean eta behinik behin zerga pentsioetan etorkizunean ere izango diren gehikuntzak) garrantzi handiko elementua direla eta hurrengo urteetan konpondu beharreko erronketariko bat, betiere gastu horren magnitude eta Gizarte Segurantzaren Sistemaren sarreraren arteko erlazioa aintzakotzat hartuz.

Amaitzeko, egiaztatu beharra dago gure erkidegoak egindako ahalegin handia, bai eta estatuaren testuinguruan gizarte babesaren arloan duen aldeko kokapena ere; dena dela, ezin ahantz dezakegu EAEn ere krisialdiaren eraginak oso agerikoak izan direla.

Epe laburrera, behinik behin, litekeena da babes premiek handitzen jarraitzea, are gehiago lan merkatuaren bilakaera eta lanik gabeko pertsonen kopuruaren hazkundera kontuan hartzen baditugu; izan ere, langabeziagatiko prestazioak amaituta (urterik urte haien estaldura tasa jaitsiz doa, gaur egun %50ean egonik), lana lortzeko zailtasunak dituzte (lanik gabe dauden pertsonen %50 inguru iraupen luzekoak dira) edo ez dute lanik egiten eskubide hori berriro ere sortzeko behar adinako denbora tartean. Ildo horri jarraituz, gure ustetan, bene-benetako erronka dago lan merkatuarekin kanpo geratzen diren pertsonak laneratzen laguntzeko enplegu zerbitzuen gaitasunean.

Testuinguru honetan, diru sarrerak bermatzeko sistemaren iraunkortasuna bermatzea egungo estaldura mailekin erronka garrantzitsua izango da gure gizartearentzat, eta helburu hori bete ahal izatea espero dugu.